

BOLIBAR

AMERIKAKO ASKATZAILEA



J.L. Salcedo Bastardo

ev

EDICIONES VASCAS

BOLIBAR

Amerikako Askatzailea

Eskubide guziak, egilearenak dira

ediciones vascas 

J. L. Salcedo-Bastardo

BOLIBAR

Amerikako Askatzailea



Euskaratzailea:
Xabier Amuriza
Argitarapenaren arduraduna:
Martin de Ugalde

*Satisface cordialmente a mi
condición de estudioso
de la obra, vida y proyección
de Simón Bolívar el que este
libro aparezca en la noble y
recia lengua Euzkera. Es
grato saber que mi mejor
trabajo dedicado a la gloria
de este héroe que es vínculo
activo y fecundo de
unidad entre América
Latina, España y
Euzkadi, podrá ser leído
en lo adelante por
los conterráneos de los
antepasados del notable hijo
de Caracas.*

*Euzkadi es también la
tierra de mis ancestros.
Comparto con mi padre,
fallecido cuando yo era niño,
el orgullo de un apellido vasco
y el honor de sentir un
parentesco no sólo de*

*Simon Bolibar-en bizitza, lan
eta proiektzioaren ikerlari
naizen aldetik, pozik ba dut
liburu hau hizkuntza jatorra
eta sendoa den Euskararen ere
argitaratzeko aukera hau
eskeini zaidalako. Pozgarri
zait, giz-harrigarri honen
aintzarako burutu dudan lan
hoberena aurrerakoan
Caracas-eko seme handi honen
arbasoen lurrekoak ere bere
hizkuntzan irakurtzeko gai
izatea, Bolibar handiak biziki
eta emankorki lotzen baititu
gure America, Espainia eta
Euzkadi.*

*Bestalde, neure arbasoen lurra
ere ba da Euzkadi.*

*Ni haur nintzela hil zitzaidan
aitarekin batera sentitzen dut
euskal abizen baten poza,
eta baita ere gizarteari balore
argitsuak eman dizkion*

*sangre, sino de elevación moral
y de dignidad histórica con
esa fuerte comunidad
asentada en Europa y que
ha dado a la humanidad
preclaros valores.*

*Quiero consignar aquí
el testimonio de mi
reconocimiento al Hermano
Ginés por la autoría de la
iniciativa de esta edición y por
su empeño en realizarla, así
como a todos cuantos la
hicieron posible. Quede
especialmente aquí la
expresión de mi gratitud hacia
Don Martín de Ugalde,
escritor y periodista de bien
ganado prestigio internacional,
por el esmero puesto en
esta edición.*

*Dedico a los vascos este
esfuerzo, con un mensaje
de fe y simpatía.*

*Europa-ko herri honekin
kidetasuna sentizea, ez
bakarrik odolez, baita
goi-mailako duintasun moral
eta historikoaz ere.*

*Hemen utzi nahi dut Anai
Gines-i zor diotan esker onaren
adierazpena, berea izan baita
argitarapen hau egiteko lehen
asmoa, eta honekin, baita
liburu hau argitaratzen
lagundu didaten guziei ere.
Geratu bedi hemen bereziki
nere esker ona Venezuelan eta
hemen ere kazetari eta idazle
bezala duen entzutea ongi
irabazia duen Martín de
Ugalde-rentzat, liburu hau
argitaratzeko jarri duen
arduragatik.*

*Egin dugun ahalegin hau
euskaldunei eskeini nahi diet,
itxaropen eta begikotasun
maitekorrenarekin.*

J. L. Salcedo-Bastardo

Caracas, febrero de 1978

Caracas-en, 1978go otsaila

Ba da hogeitamar urte Salcedo-Bastardo jauna ezagutzen dutala. Ni Venezuela-ra heldu eta laster hasi nintzen orduan oso gazte zen gizon honen lanak egunkarietan irakurtzen; Sozial Zientziak irakasten hasi berria zen, eta Asociación Venezolana de Escritores-eko idazkari orokorra.

Eta urte batzu barru, 1954an, *Elite* astekarirako elkarrizketa bat egin nionean, gai nagusi bat zuen buruan: Bolibar.

Hego-Amerikako Unibertsitate guzien lehenengo batzar orokorra Santiago de Chilen egia berria zenez, ba nekien han entzun zen ahots gazteena Salcedo-Bastardo-rena izan zela, ordurako Caracas-eko Universidad Santa María-ko errektore baizen: hogeitazortzi urte bete berriak. Eta une gazte hartan, zera proposatu zuen ausarki: Amerikako Unibertsitate guzietan, "Askatzailearen Pentsamendu Soziala"-ren katedra bat sortzea. Lehenengo exenplua, Universidad Central de Venezuela-k eman zuen Caracas-en, eta, noski, Salcedo-Bastardo bera izan zen hautatua gai hau irakasteko.

Eta idatzia dauka ordurako gai hontaz hirurogei kapitulu dituen bere lehenengo liburua.

Hoiek dira Bolibar-en pentsamenduaz Salcedo-Bastardok garai hartan dituen asmo nagusiak: 1. Bolibar-en pentsamenduak bizirik, zutik, dirau. 2. Hau osorik hartu behar da, gaur gure artean Sabino Arana Goiri-rena hartu behar den bezala, eta ez asmo, agiri edo idazlan baten edo bestean bakarrik finkaturik. 3. Hark hasitako bidea, gaur ibiliaz luzatzen eta sakontzen jarri behar dugu; garai hartan, elkarrizketa hau egin nionekoan, Jose Antonio Aguirre, gure Lehendakariak, Caracas-en esan bezala (eta nik orduko elkarrizketa hartan aitatu nuen hau) "Bolibar-en errota oraindik *askatasun guzieren* ogia egiteko garia ehotzen ari da gaur bertan ere".

Salcedo-Bastardok lehenengo Sozial Zientziaren irakasle izandu zuen Francisco Alfonso Ravard-i behin, klase amaieran, entzun ziona du beti gogoan: "Itxaropena bat dut —esan zuen— zuetatik norbait izango dela noizpait Askatzailearen asmo osoa aztertu eta erakusten jarriko dena, Bolibar-ek pentsatzen zuena eta egin zuenak gaur ere gure artean lan egin dezan.

Geroztik, azken hogeitamar urte hoietan, izan ditu postuak, Venezuelan eta atzerrian; egin ditu ikerketak.

Eta idatzi ditu liburuak; garrantzi gehien dutenak, Bolibar-ieskeiniak: *Visión y revisión de Bolívar* (1957) —hamar edizio—; *El pensamiento político del Libertador* (1967); eta beste liburu batzu idatzi eta gero, oraingo hau: *Bolívar, un continente y un destino*, guk Euzkadi-rako: *Bolívar: Amerikako Askatzailea* jarriaz itzuli duguna. Liburu hau, Organización de Estados Americanos-ek, OEA-k, antolatutako sariketan lahenengoa irabazi, eta arrezkero prantzesera eta ingelesera itzulia izan dena.

Eta orain, baita euskarara ere.

Politika aldetik, berriz, Senatore izana da (1959-61). Enbajadore, Ecuador, Brasil, eta Frantzia oraintsu arte. Instituto Nacional de Cultura y Bellas Artes-eko lehendakaria izana da. “Simón Bolívar” eta “Simón Rodríguez”, Caracas-eko bi Unibertsitate berriak, eratzeko hautatua izan da. Orain dela sei urte ezker, 1972-an, Academia Nacional de la Historia-ko Akademiakide Osoa da.

Une hontan, Venezuela-ko Kultura-Ministroa.

Gure herrira liburu honen aurkezpena egiteko etortzeak ohore handia egiten dio Euzkadi-ri.

Nik garai hartan, orain dela hogeitairu urte, astean-astean elkarrizketa bat egin ohi nien hoietako bat (Carlos Morales, Lola Fuenmayor, Franz Conde Jahn, Lucila Palacios, Juan de Guroceaga, Raimundo Antonio Villegas Polanco, Armando Reverón, Hno. Ginés, Joel Valencia Parpacén, Raúl Santana, Eduardo Arroyo Lameda, Dr. Obdulio Alvarez, Alfredo Armas Alfonso, Elisa Margarita Layrisse eta Francisco Tamayo tarteko) José Luis Salcedo-Bastardo izan zen, esan berri dutan bezala, eta elkarrizketa hau amaitzerakoan erabili nituen hitz berekin bukatu nahi nuke gaurko hitzaurre hau: “Es uno de los hombres de profunda simpatía humana, de ancha comprensión, que uno encuentra de largo en largo en su camino”.

Euskaraz esanda:

“Gure bidean noizpeinka baizik arkitzen ez dugun gizaki zabal eta begikotasun sakonez ornitutako hoietako bat da”.

Martin de Ugalde

Heziera, Zientzia eta Kulturarako Kontseilu Amerikartekoaren bitartez, hemisferioko herri guztiek —aho batez— Simon Bolibarri omenaldi kontinental bat eskaintzea erabaki zuten haren Askatasun kanpainen mende eta erdi hurrenean. Iniziatiba honek gure herrien integrakuntza aurrera eraman nahirik ari den asmoaren barruan dagoen amerikar hesparru jeneraleko goi balioen eta balio komunaren azterketa, ezagutz eta gorespen programa bizi bat inauguratu du. Honela ireki zen liburu hau golarδοatu zuten sariketa.

Mundu zati honetako idazleei eta aztertzaileei helburu hau jarri zitzaion, alegia, Askatzailearen independentzi ideala nola sortu zen eta kontinentearen emantzipazio eta batasun izpiritual eta sozialaren alde nola jokatu zuten konpendium bat prestatzea.

Bi arrazoik animatu gintuzten sariketan parte hartzera, Bolibarri bidezko eta goragarri zitzaion sariketaren motibapenez ados egonez gainera. Alde batetik benetan bultzatu gintuen Cristóbal L. Mendoza jaun agurgarriak —Historiako Akademia Nazionalako Zuzendariak— hain eskari ohoragarrian agertu zigun konfidantzak. Bestetik sinetsirik geunden konpetentzi eta inpartzialtasun garantia osoa zegoela lanak aztertuko zituen epaimahai pluralaren txit goiko eta zalantzagabeko kaudimen intelektual eta etikoagatik. Epaimahaia bost espezialista kalifikatuk osatzen zuten, hemisferio elkarteko bost herri desberdinetako bakoitzetik bat hautaturik.

Liburu labur honetantxe biltzen dira ia hogeitamar ikas urte-tako fruituak. Unibertsitate mailan ikerkuntz eta irakaskuntz lanean hainbeste urtetan zehar sostengatu, hedatu eta azalduriko, eta komunikabide sozial guztien bidez eta hainbat herritan dibulgaturiko tesisaren zati nagusiak ezagutza eta zabalkunde internazionala irabazi du aukera honekin. Hau erabat bizgarri eta pozgarri zaigu eta aski sari beti onuragarritzat eta ondo orientatutzat ge-neuzkan anitz ahaleginentzat.

Liburu honetan alde zurreko zeregintzat, eta asmo sistema-tikoz, Simon Bolibar zirkuntzantzia baten inguru barruan lekutu eta perspektiba batetan jarri nahi dugu, alderdi biak egiazko latinamerikarrak, bera ere bien adierazpen egin egin izan baitzen. Haren bizitza eta obra aztertzen dira, era tradizionalako biografia-rik ez ideia abstraktoei buruzko saiakera eruditurik egin gabe. Haren nortasunaren eta pentsakeraren antezedenteak arakatzen dira; baita argitzen ere hain presentzia bakan haren eragin historikoez zer martxa eta zorte izan duten.

Sariketarako deiaren arauera, herrien sortzaile eta gidari haren “egiteak” azaltzen dira hemen. Egite hauk, gure ustez, hark, bere esan-eginez, landu zuen Amerikarako iraultz proiektu handi, organiko, oso eta koherenteari lotu loturik daude. Hemen Simon Bolibarrek Latinamerikari nolako zerbitzua egin zion agertu nahi dugu hala praktikan, nola gizarte eta ekonomi transformakuntzan, nazioarteko zuzenbidean, kulturen eta historian. Herri hauen independentzia eta batasun naturalen gaiei, baita Bolibarrek herri guzti hauen kidetasun eta solidaritateaz zeukan ardurak sakon eta etengabeare ere, aparteko arretaz ekiten diegu horri hauetan.

Obra honetan bada anitz desakordio eta desberdintasun historiografia tradizionaletik eta Askatzaileari buruz egin izan diren eta egiten ari diren ulerkuntza ohizkoetatik, elkarri kopiatzen eta etengabe errepikatzen diren fokapen axial eta komentario dezehatzen iturri izaki. Caracastar hospetsuaren inguruan hamaika gezur ariketa setati eta aldrebesketa konbentzional egin izan da eta hain zuzen ez da errazen barkatzekoa handietsi nahiez murriztea gauzak okerretara jartzeagatik. Berea da esakera hau: “Gauza faltsuak oso ahulak dira”.

Jakinez gainera esan dugu lehen, eta berriro diogu, Bolibar ez duela unibertsaltzen Ameriken heterogenotasuna nominalki estal-

tzeko maneiu moldakoiak, haren latinamerikar benetasunak baizik. Bolibar unibertsaldu eta mendeen gaineratu duena homogenoa aglutinatu nahiaren ispilu argia da, bizitzeko eta hiltzeko goren arrazoi bati ekiteko irakatsia, eta hizkuntza erromantzeen, kidetasun funtsezkoen eta interes baterakoien aberri neurrigabeari zion leialtasun sendoaren ardura tragikoa.

Apostoluak lauki eta zuzenki “gurea” deitzen zuen Amerika-arentzat, Simon Bolibarrek arketipo egin eginaren kategoria du. Caracastarraren larritasun eta ametsetan gure nazioarteko gizonik goren guztiak erreparatzen dira. Harengan daude, eta hura ere haiengandago elkarrekiko, banako-multzoaren eta gizakor-intenporalaren antinomia bizietan bezala, aitzindariak: Miranda, Tiradetes, Viscardo, Espejo, Picornell, Nariño, lehenago: Atahualpa, Cuauhtemoc, Guaicaipuro, Lautaro, Hatuey, Andrea de Ledesma, Tupac Amaru, Chirinos, Galán...; bere denborakoak; San Martín, Sucre, O’Higgins, Petion, Santander, José Bonifacio, Hidalgo, Morelos, Valle..., latinamerikar zabaltadako sail paradigmatico guztia; Desalines, Louverture, Montúfar, Murillo, Saavedra, Belgrano, Yegros, Moreno, Artigas, Carrera..., eta ondorengo urteetan: Morazán, Juárez, Duarte, Sánchez, Mella, López, Céspedes, Martí, Gómez, Maceo..., denak izen handiak herri izengabe, pairakor eta heroikoko gidarien eta lurren konfuentzia sendoari dagozkion bokazio eta asmoen berdintasun kontinentalerako, zutik lehen eta orain historia osagabearen abiadan. Bolibarrengan inspiratzen dira eta harengandik datoz latinamerikar arimaren definizioa lantzen ari diren guztiak: Bello, Sarmiento, Lastarria, Rodó, Alberdi, Nabuco, Ruy Barbosa, Hortso, Darío, Varona, Mariategui, Vasconcelos, Haya, Martínez Estrada, Caso, Enríquez Ureña, Gallegos, Reyes, Vaz Ferreira, Palacios, Picón Salas, Arciniegas, Asturias, Freyre, Athayde, Uslar Pietri, Carrión, Paz y Zea...

Hiru mendetako neke eta antsia puskatuzko zerrenda osorik heltzen da Bolibarrenganaino. Bera dugu gure orainaren eta geroaren destinoa. Mundu Berria aurkitu eta sortu zenetik gora, hemengo gizona beti ari izan da Simon Bolibarrek bandera eta jomuga nagusien orotasun armonikoan estrukturatu zuenaren bila: askatasuna eta justizia gauza guztien gainetik, berdintasuna osoa —arrazakoa eta gizartezkoa—, bere txirotasun mendetsutik ateratzea —hau da, toki guztietan berdinak diren erreibindikapen agiriak—, bere

kultura osoki burutzeko bidea, eta bere etxaldearen legezko eta egiazko jabetasuna.

Bolibar zehaztasun objetiboz komentatu nahirik, liburu honetan bere hitzekin agertu dugu. Hortik dator haren esakera textual idatzietara hain maiz jotzea —haren “arima paperean pintatura”, hain metafora egokiz berak esan bezala—. Esakera hauk ondo identifikaturik datoz beti iturrietan azkar eta erraz egiztatzeko moduan. Era batera ikusiko da nola gatzik eta bihotzik kendu gabe —hau ere bidezkoa gure ustez obra bizia eta bizkorra nahi baitugu, eta gure ilusioa seriotasuna, zientzia eta ikerpena literatur artearekin konbinatzea baita— nola etengabeko ardura daukagun ulerkuntz lizentzia hestuetara makurtzeko glosa. Badakigu nola 1829n, iraunkortasunaren atarian, Askatzaileak berak ere bazekien askok eta askok beren errakuntzak Bolibarren pentsamenduan oinarritzen zituztela, gauza nabarbena noski baina nahi eta ezkoa. Haren izenarekin ongia eta gaizkia egin nahi zuten, eta baita “beren zenzugabekerien textutzat” hartu ere.

Bestalde, eta exegesisa argitzeko, behar den guztian saiatu gara berrosatzen Bolibarren une historikoa, berezia eta bere berea, hura datorren eta dabilen inguru desberdin eta konplexua. Horregatik Venezuela eta Colombia oso maiz aipatzen dira. Dударik gabe Bolibar gure Amerikaren agergailu dugu, Amerika osoaren jario argia eta garbia. Hala ere bere jaioterrian eta berak sorturiko errepublikarik handienez eduki zituen bere sustraiak handik hasiriko egin-kizun supranazionala martxan jartzeko. Beste hainbat gauzaren artean, eta haren zabaltasunari ezertxo ere kentzen ez diotela, hona haren hitzak 1827 eta 1829n: “Erabakirik daukat ahal dudan denbora guztian Venezuela zerbitzatzeko eta ez dut besterik ezer egingo. Hauxe da nire herria eta hauxe da nire eginbeharra. Venezuela da nire bihotzeko idoloa eta Caracas nire aberria. Hortik atera zer gogo dudan honen oparotasuna eta handitasuna ikusteko”. Bizitzaren azkenean, haren nahi argia, simplea eta biribila hauxe da: “Ez dut beste hoserik nahi Colombiaren finkapena baizik”.

Bolibarri buruzko estudio benetakoa erdizka geratuko litzateke hark egin nahi izan zuena eta egitez egin zuena argiro konparatu ezik. Haren handitasun itzela nabarbendu egiten da, Goetheren hitzekin oraingoan, era batera haren frakaso erlatibo eta zoritxarra argituz: “Zure ezin iritsia, horra zure handigarria”. Uste dugu

denborakideen eta segiko ondorengoen desezagutza, kontratasun burugogor eta ukapen zitalean zehar jar daitekeela Bolibarren eta geroko garaien arteko lokarria. Ezbetean, Bolibarrek zutik dirau.

Amerikak norabidea eskatzen du premiatsuki. Bolibar, gure hemisferioko gidaririk osoena, bizirik dago historian, ernai eta eragile bere egiteen eskolan eta bere hitzaren iraupen argitsuan, dago-kigun eginbearra erakutsiz. Bide askotatik igon daiteke Bolibarrek markaturiko tontorrera. Guk, bakoitzari eta guztioi dago-kigun erantzunbearra hark berea bezala bete dezagunean, orduan denok gaudeke tontorrean, haren izen handia buru dugula, askatasunaren izena bezala zaiguna eta askatasuna da “gizonen bizitza sakrifikatzea merezi duen helburu bakarra”. Eta berdintasuna, “le-geen legea” egongo da, arraza bereizpenak ez dira direna baizik izango: “akzidente” bat; eta morala eta argibidea egongo dira, “gure lehen premiak”; eta justizia eta aurreramendua, aurreramendua justiziarekin, eta demokrazia ernai eta sortzailea, hauk derri-gorrek presupoituak independentzia eta bakerako.

Historiaren arrazoiz, egiaren indarrez, gaurkotasun itzurgaitz eta promestu honen aginduz, Bolibar kontinente bat eta destino bat dugu.

LIBURU AIPAMEN LABURTUAK

Obra honetan 18 liburu aipamen laburtu hauk agertzen dira, zeintzuren tituluak garbi identifikaturik eta zehazturik baitaude gaztelaniazko edizioaren azkenean eransten den bibliografian. (Tituluak gastelaniaz uzten ditugu ez baitu zentzurik euskaratu gabeko obren tituluak euskaraz emateak, inork iturri hauetara jo nahi balu. Itzultzailearen oharra.)

- A: Páez, José Antonio: *Autobiografía*.
ACOT.: *Acotaciones Bolivarianas*.
BOL.: *Documentos referentes a la creación de Bolivia*, 2 tomos.
BUC.: Perú de Lacroix, Luis: *Diario de Bucaramanga*.
B. y A.: Blanco, José Félix, y Ramón Azpurúa: *Documentos para la Historia de la Vida Pública del Libertador*, 14 tomos.
CFL: López, Casto Fulgencio: *Juan Bautista Picornell y la conspiración de Gual y España*.
CO: *Correo del Orinoco*.
C y C: Cortázar, Roberto, y Luis Augusto Cuervo: *Congreso de Angostura — Libro de Actas*.
DL: *Decretos del Libertador*, 3 tomos.
EL: *Escritos del Libertador*, 8 tomos.
I: Bolívar, Simón: *Obras completas*. Volumen I.
II: Bolívar, Simón: *Obras completas*. Volumen II.
ILA BM: Liévano Aguirre, Indalecio: *Bolivarismo y monroísmo*.
ILA RSE: Liévano Aguirre, Indalecio: *Razones socioeconómicas de la conspiración de septiembre contra el Libertador*.
M: *Materiales para el estudio de la cuestión agraria en Venezuela*.
O'L: O'Leary, Gral. Daniel Florencio: *Memorias*, 33 tomos.
O'L N: O'Leary, Gral. Daniel Florencio: *Narración*, 3 tomos.
PB: Bolívar, Simón: *Papeles de ———*
XII: *Cartas del Libertador*. Tomo XII.

1

Ahaleginaren inguramena

URRUNKIDETASUN GEOKULTURALA

Simon Bolibarren ekintzaren lur inguruneak bost bat milioi kilometro koadratu hartzen ditu Hego Amerikako iparrean eta mendebalean, Erdi Amerikako behe mugatik Chile eta Argentinako ipar hasieraraino. Lurralde eskerga bat da Andeetan eta Ozeano Barean zehar Brasilgo Amazonas alderaino heltzen dena, baita Atlantiar Ozeanoan eta Caribe itsasaldean zehar ere. Bolibarren ingurune hedatsu horretan lurrean diren berezko desberdintasunik handienak biltzen dira: bai paisaia, klima, goratasun, mendi, haran eta lautadetan; bai ibaietan nola Orinoco, Magdalena, Cuayas, Tumbes; oihan sartzinak, hareatza biziezinak. Han daude, bat ere falta ez dela, geografiako gorabehera guztiak, kontinente honetan bizi den flora-faunen barietate txit aberats guztia.

Bolibarren ekintzaren leku fisiko hau, jeneralki Amerika osoa bezala, Cristobal Colonek ateratu zuen “itsaso ilunbetsutik” —XVgarren mendearen azkenetan— bere abentura zorritsuz eta ausartasun neurrigabek. “Gure hemisferioaren sortzaile eta aita” deituko du zuzenki Bolibarrek.

Amerikan gizona noiz agertu zen aieruak lekutako itzaletan galten dira. Irakurle arruntarentzat hiru mila nahiz hirurehun mila urte esan berdina da, berdina denez lurra dagoen galaxiaren adina mila milioi, ehun milioi nahiz milioi bat urte dela esatea. Hemen zeroek, eskuin aldean ere, ezer ez edo ezer guti balio dutela ematen du.

Aurkikundearen datarako, Amerikaren berezitasuna, hala giza nola kultur arloan, heterogenotasuna da. Honetaz hiru maila erraz hautemangarrik hiru Amerika sortzeko oinarria ematen dute: bat aurrerapenik handienekoa eta populaziorik ugarienekoa; bestea aparteko berezgarri nabarbenik gabekoa, erdizka habitatua, herri-rik aurreratuenek baino kultura apalagokoa eta hirugarren mailako komunitate sakabanatuak baino goragokoa. Hirugarren maila honetan, azkena eta beheengoa berau, sar daitezke Amerikar bakartate neurrigabeak ere.

Goren mailako Amerika —gaurko kontzeptuak erabiliz— Mexikotik, berau barru, Chileko iparreraino doan herrialdean lekurik zegoen. Alderdi oso handi horretan bi eskualde nabari daude: iparrean Mexikotik Nicaraguarainokoa, eta hegoan Ecuadortik Bolivia eta Argentinako ipar alderainokoa. Bi hoietariko lehenengoan bazen azteken zibilizaio bat, konkistatzaile iberiarrak hango hondarrak sailean desegin arren, oraindik ere mundua txundi erazten duena. Jesukristo baino milurte bat Lehenago mayak ziren han nagusi eta obra ederrik egin zuten. Idatz sistema aurreratu samarra eduki zuten eta oso ezagutza handiak matematiketan eta astronomian. Haien kultura handiaren testigu dira Copán, Palenque, Chichen Itza, Tulum, Uxmal, Mayapan bezalako hirietako hondarrak. Mayen ondoren zenbait talde nahua ziren nagusi: Toltecak, Zapotecak, Chichimecak. Azkenez, aztekan txanda heldu zen eta hauek 1325n Tenochtitlán fundatzen dute, zeinen gainean baitago gaur Mexikotarren metropoli indartsua.

Iparreko subalderdi handian ere, inkenean hain zuzen, zenbait dominapen desberdin eta gogoragarri izan ziren. Cuzco bezalako hirietako hondakinak ere harrigarri zaizkio gaurko gizonari. Bi erdigune garrantzitsu egon ziren Titicaca lakuaren inguruan: Tiahuanaco eta Chavín. Quechuek inperio handi bat jaso zuten inkek gobernatua, eta hauen sistema politikoak Hegoamerikako kulturarik aipagarrienari eman dio izena —teknologiaz mayen eta azteken azpitik baina gizartez aurrerago—. Hau ere Espainiar konkistatzaileen amorru lapurraren harrapaki izan zen.

Mexikon eta Perun bilduriko bi alderdi kulturatsuenen bitarteko gisa, chibchen herrialdea zegoen —lehen aipaturiko erdikotzat edo bigarrentzat jo daitekeen mailari legokiokeena—. Populazio dezenteak ziren hemen, aurreramendu dezentezko nekazaritzaz

ondo elikatuak; entzutetsuak ziren keramista eta urragin quimbayak. Edertasun aparteko bitxiak haien artearen kalitate bikaina adierazten dute. Arkitekturan ez dute hain arrasto ikusgarririk utzi.

Erdi mailako komunitate hauen barruan, eta denbora eta kultura hauen ikuskera laburtua, azkarra eta sinpletua are gehiago hes-tutuz, beharbada Antilletako taínoak eta Chileko araukanoak sar litezke; talde bitzuok chibchen azpitik zerbait.

Hirugarren Amerika, beheren mailakoa: pobretasuna, primiti-bismoa, etengabeko gerragintza; kultur agerpen sinpleak, politik eta gizarte estrukturarik elementalena. Hauxe zen jenderik gutien bizi zen alderdia. Nomada jendea zen hemen; hizkuntzak, sineskerak eta ohiturak infinituraino sakabanatuak eta desberdinak ziren. Tribuarteke matraka amaigabeek kikikolotasun eta bortxazko egoera jeneraldua sortu zuten.

Kontinente osoko alderdi soziopolitikoari begiraturik, Colon aurreko aldi luze hartan, azteken artean estruktura teokratikoa eta militarra dago, ordenu aristokratazalea klase desberdinekin. Inken artean zentralismo absolutista zen nagusi. Chibchek, taínoek, araukanoek, timoto-cuikiek, tupiek, guaraniek, caribetarrek eta halaber Amerikako hirugarren mailako milaka taldeek hemisferio osoarekin zuten alderdi komun bakarra gizonaren ezereztasuna zen. Hala Estatuko tramankulu harro eta handiosaren aurrez —gizarte konplexu eta aurreratueta—, nola jauntxoaren aginpide despotikoaren aurrez —erakunde tribal eta baldarretan— indibiduoaren balioa hutsa da; askatasuna zer den ere ez, hori buruzagiaren edo sobe-ranoaren ondasuna da, edo garaileak jasotzen duen harrapakin zatia.

Esklabutza ezaguna zen kontinentean eta gizajaleak ere baziren zenbait lekutan. Bizitzaren alderdirik txalogarriena jainko barba-roei eskaintzea zen, zeintzuk bihotz ausartez edo lore loreko neskatilaz bakarrik asetzen baitziren. Giza duintasuna Colon aurreko Amerikan ostikopeko balio bat zen. Beste balio batzu ziren nagusi.

Simon Bolibarren ekintz hesparruan —gaur Panama, Colombia, Venezuela, Ecuador, Peru eta Boliviako errepublikak— hiru Amerikak agertzen dira. Haren inguruneak hemiferioko erdigunea bera du erdigunetzat.

Gizarte hauziari buruz, Simon Bolibar mundu gazte samarrearantz sortzen da eta burrukatzen du. Ez du jasaten ez berak ez bera jaio den komunitateak zeinu bakarreko eta ertzeko heredentzia mugatzaile eta eksklusiborik: ez aurrerakuntza ez atzerakuntza osorik. Bolibar batez besteko Amerikaren adierazpena da, bertan goibeheak presente daudelarik. Haren gizatasun eta nortasunean amerikar gizonaren, Hegoamerikako alderdi guztietako jendearen sinbolo segur eta argia dago. Haren Colombia, bere bizitza politikoko hiru laurdenak eman zituen Colombia, gorengo eta beheerengo komunitaterik atzeratuenean arteko biderdian bezala dago.

Bolibarrekin berarekin ditu zirkunstantzia hauk, gure nazio guztiak eta hauetako izaki guztiak errepresentatuko ditu. Berarengan duke Amerikak bere adierazpenik bikainena eta biribilena.

Haren bizitza publikoko historia Amerikar guztien izenez eta alde daraman iharduera etengabea izango da. Mendeentzat Bolibar denon ordeztatu da eta denok errepresentatzen gaitu. Gure Amerikaren zerbitzuan dagoke beti, osoki.

HIRU PRESENTZIA

Bolibar nabarmendu zen Venezuela mestizu eta kolonialean bertako jenderik ez zen hainbeste. Han ez zegoen Mexikon eta Perun zegoen beste jendetza bertakorik, ez eta india sakailaturik geratu zen eta arrazen gurutzua zurien eta afrikarren artean bakarrik egin behar zen lekuetako hutsunerik ere.

Venezuelan bertakorik guti zegoen Aurkikunde garaian. Ikerketa zehatzek ematen dutenez, Konkistaren hasieran ez ziren 350.000 tik gora izango Venezuelako milioi bat kilometro koadratuetan bizi zirenak. Jende honek espainiarren zartada jaso beharko zuen, zenbait arrazoirengatik hain luzea eta odoltsua izango zen burrukan.

Venezuela zehazgabe hartan ez zegoen egon ere batasunik, hango hiriburua edo erdigune neurgikoa harrapaturik, izaki guztien eta lurraren jabetasun osoa eta betikoa ekarriko zuenik. Bertako jendea oso zatiturik bizi zen. Hamabost hizkuntz familiarik gora, eta gainera anitz dialekto, zeudela jotzen da lurralde hartan, eta Antropologia modernoak Colon aurreko hamar bat "kultur area" bereizten ditu. Venezuelan ez zegoen konkista azkarrik eta odol-

gaberik egiterik. Indioak menderatzekotan, Venezuelako alderdie-
tan, banaka menderatu behar ziren edo garbitu. Konkista gerra
baino areago ehizaketa zen. Hango jende mordo handi bat caribe-
tarrak ziren, gerragizon adoretuak hain zuzen. Haietariko gehie-
nen kultur maila —Andeak aldeko timotocucak apur bat izan
ezik— hemisferioko eskasenetarikoa zen. Hala ere, indio taldea
asko urritu bazen ere, ez zen guztiz galdu txoke indohispaniar izu-
garri hartan eta Venezuelako herria sor eraziko zuen formazio etni-
koaren oinharri izan zen. Jende hauen zorro kultural, izpiritual eta
animikoa, ziren adina eta ziren bezalakoak zirela, espainiarrekiko
eta afrikarrekiko konbinapenetik gertatu zen produktora pasa-
tu zen.

Bego argi Bolibarren jaiotginguruan jende bertako desberdina
zegoela. Inoiz ez zen “venezuelar indiorik” izan, ez zen bizilagun
mota “bakarrik” izan. Zeuden indioak, ez gehiegi noski, oso des-
berdinak ziren hala tankera somatikoak eta genetikoz, nola kulturaz
eta sailketa geografikoz. Diferentzia nabariak zituzten azalaren tonu
edo nabarduretan, tailuan, burhezurraren egituran, begietan eta ez-
painetan. Esan liteke desberdintasun hau Aurkikunde aurretiko
konbinapen edo mestizaiatik zetorrela. Nolanahi ere, Venezuelako
indioek bazituzten elkarrekiko tankera jeneral batzu, bertako fak-
toreak han sortuko den nazionalitateari egingo dion aportazioa
hain zuzen.

Venezuelar probintzietara elementu “zuritzakotzat” heltzen
den hispaniar jendeak Asia Txikiko eta Europa txit nahasiko herri
desberdinak dakartza soinean, eta beltza ere badakar —Afrikatik
iberiar penintsulara hainbeste odol klase eraman zuen arabiar do-
meinua bitartez hartua—. Hamazazpi bat jatorri datoz espaino-
larekin batera. Bestalde penintsula zabaleko jende guztiak datoz
Venezuelara, ez Gaztelatik bakarrik, erreinu guztietatik baizik:
Aragoitik, Andaluziatik, Extremaduratik, Leondik, baita Euskadi-
tik, Kataluniatik eta hispaniar lurralde guztietatik. Espainola ema-
kume gabe dator, hemen lortzen ditu hain laudaturiko emakume
bertakoak, mestizaia libre dago. Venezuelarako espainiar konkis-
tatazailea kopuruz oso tikia da, bost milatik behera jotzen da Colon
ondoko lehen mendean heldu zirenak. Kopuru hau, indioen on-
doan oso laburra, kultur batasunez —hizkuntz, erlijio eta politik
batasunez— eta teknologi eta tresneri nagusitasunez hornitua da.

Produktuak Espainiako tankera hartu behar du: mendebaldarra izango da. “Haien sinboloak —Mario Briceño Iragorrik zuzenki dioenez— ez dira afrikar tabua ez bertako totema. Haien sinboloak hispaniar sinboloen itxuraldapena izango dira, unibertsaltasun handiagoko jitez. Kategoria historikoen zerrendan, gu espainiar munduaren eboluzio gisa agertu ginen” (1).

Afrikarra indarrak ekaririk sartzen da Mundu Berriko arragoan. Venezuelarako beltzen kopurua ere urri samarra izan zen, eta beren artean ere bazen diferentzia zorrotzik. Antropologiak narbamentzen duenetik, “arrazen” gai eztabaidatuan, jatorri beltzeko herriak omen dira elkarren artean diferentziarik handienak dituztenak. Afrikar inmigrazio bortxatu hartan tipo desberdintasuna nabaria zen; eta berriro ere nabari zen, desberdintasun genetikoa eta somatikoa handia izanik, ez zela tikiagoa kulturazkoa. Venezuelako lehen mendean hamar bat mila afrikar ekarri zituzten. Ez zegoen arrazoi ekonomikorik ez bestelakorik han esklabuteria gehiago ezartzea justifikatzekorik.

Venezuelako gizonarengan, Amerikako beste edozein herritako gizonarengan baino argiago ikusiko da jite ekumenikoa, Bolibarren ekintza ulertzeko gogoan edukitzea komeni dena. Venezuelan zegoen egon ere indioen Amerika, eta hauen bitartez Asia eta beharbada urruneko Ozeania, Polinesiarekiko Bareaz handiko harreman posibleak zirela medio, oraintsu Kon-Tiki bezalako esperientziek argituak. Amerika, Asia eta Ozeania beraz bertakoengan zeuden. Europa Espainiarekin dator —iberiaraak, ligurak, zeltak, erromarrak, euskaldunak, grekoak, germanoak, suevoak, alanoak—; Asia Tikia ere badator —feniziarrak, juduak, Arabiako musulmanak—; eta Afrika —Cartagotarrak, Egipto, Libia, Túnez, Algeria, Marruecos, Congo eta Nigerko herriak, denak hispaniar penintsulara helduriko uholdeak. Gainera Afrika propioki bantuetan, sudandarretan eta yurubetan etorriko da, hauk esklabutzaren ignominiak beren lurretik atereak.

Arraza guztiak, kontinente guztiak bildu ziren Venezuelan, aintzinako denboretan migrazioen bidagurutze izaniko lurrean. Lurralde honek, Antilletatik Hegoaraino eta alderantziz, eta bere itsa-

(1) Briceño Iragorry, Mario: *Introducción y defensa de nuestra historia*, 78 garren o.

saldearen luzera guztian, ekialdetik mendebaleraino eta mendebaletik ekialderaino, oso herri desberdinak pasatzen ikusi zituen. Aurkikunde ondoan, elkartzeko ekumenikoa indarkeriaren eraginpean egiten eta oso mestizaia zabal, sakon eta bereizira heltzen da. Ez da elementu bat ere fusiorako bazterturik geratzen, denek parte hartu zuten etorkizuneko aberria sortzen.

Gurutzamendurako joera zabala, esangurarik handieneko testigantza batetan agiri da, Humboldt jakintsuarengan hain zuzen. 1800n, ez izenik ez gizonik ez zen prozesoa hasi zenetik hiru mende geroago, 350.000 bertakoz, 5.000 espainolez eta 10.000 afrikarrez hasirik, Venezuelak 800.000 bizilagun ditu. Humboldt dioenez, hauek erdiak —400.000 raino— nahasketaren ondorio dira: ez espainolak, ez indioak, ez afrikarrak.

Amerikako beste toki batzutan ere antzeko kontua zegoen, mestizaia zen legea, baina sarritan bertako jatorria geratzen zen nahasketan nagusi, baita gertatu zen bertako jatorria ezerezturik eta arrazoi ekonomikoengatik, beltzen populazio trinkoak ematea produktuari bere arrasto nagusia. Venezuelan, berriro ere urrunkide, konbinapen orekatua lortu zen. Bolibarren lurra, hala kultur nola giza mailan, benetako Amerika batez bestekoaren adierazle egokia zen.

LEHEN GARAIAN

Zer sistema ezarri zitzaion, eragintzeko eta bere bizitzaz zuzentzeko, venezuelar multzo, gehiena mestizo horri?

Ez zen, ez, bertakoen ordenua. Esanik dago, Mexiko eta Peruko talde eskergez oso bestela, non inperiotasunak, munduan oso gutitan bezala, goia harrapatu baitzuen, Venezuelako egoera tribu hutsezkoa zela. Ez dago arrastorik tribu bakarrik ere 40.000 edo 50.000 mila indiotara ere heldu zenik. Esanik dugu hizkuntz arlo hutsean, hamabost hizkuntz familiarik gora zirela han. Zatiketa politiko-soziala antzekoa zen Amerika hartako parterik gehiengan, gero portugesa izango zena ere barru.

Tribuak, nahikoa elementala noski, eskubideak absolutismo kazkar baten, edo gehienez ere era monokratiko gehiago edo gu-

tiago leunduen mende zeudela, ez zuen balio espainiar konkista-
tzailearen helburuetarako. Hura —bestalde— ez zetorren berak
gainditurik zeuzkan mailak ikastera ez eta gradu beheragoetara eta
bereengandik desberdinetara jatsi eta konformatzera, bere buruera
ezartzera baizik domeinuari begira. Espainiar konkistatzailea, le-
hen mementutik, bere metropoli sistema Amerikara pasatzen eta
penintsulan ezagutzen eta egiten zuena han berregiten saiatu zen.
Haren jokaerari, erabakia berari zegokionez gainera, imitazioaren
eta ohituraren bultzagailu psikologiko oso indartsuek eragiten zio-
ten: errazago eta egingarriago zitzaion izan ere beti egin zuena eta
egiten ikusi zuena egitea. Erakuntza beraz Espainiako erakuntza
zatekeen, kontuan edukirik, nola ez, bi kontinenteen arteko anitz
diferentziak ezarriko bariatateak eta baita, bidezko denez, eginik
eta mamiturik zegoen penintsularen eta Amerikan sortzen ari ze-
naren arteko tamainu desberdinak ere. Ezin berdina izan Madrile
edo Sevilla bezalako hiri batetako errejimena eta hasberri zeuden
Cumaná, Coro edo Santiago de León de Caracas.

Lehen garaian —XVI garren inguruan— Venezuelan erakun-
de mataza oso zakarra hariltzen da: zirkuntzantziak eskatzen due-
na. Espainiaren asmoa dominapen osoa zen, hau da, bere superpo-
sizioa Amerikar gizartera, hura bere irudira moldatzeko eta egiteko.
Horretarako helburu bakoitzari bere tresna dagokio:

Lehenen lehenengo beharra lurraldeaz eta han dagoen guztiaz
osoki jabetzea da, bertakoen erresistentzia gainditurik gainera, eta
horretarako konkista expeditioan indar eskema dago. Espainiako
koroa, bere absolutismo sorberri eta indartsuan zuen botere eta
guzti ere —politikan, ekonomían eta erlijioan— ez zegoen ordea,
bere medio hutsez eta tankera estatal hutsez Amerikako sailari era-
sotzeko moduan. Partikularren laguntza behar du; hauekin paktatu
behar izan zituen —kapitulapenetan, Amerikako zuzenbidearen
umontzi hauk— konkista eta kolonikuntzako abentura hain arris-
kutsu hoietan parte hartzen zutenei zegozkien egitekoak eta
sariak.

Expeditio bakoitzaren —mila ihardun desberdinetan bilduri-
ko merkenari sail nahasiaren— aurrelari Adelantatua zetorren.
Honek, Erregeak beharrezko kontzesioak dohainik egiten dituen
kapitulapena medio dela, eskubide politikoak, administratiboak,
militarrak eta jurisdikzionalak ditu. Eskubidea du lurra bere sol-

daduen artean banatzeko, baita haien artean indioak banatzeko ere. Badu legeak emateko, zergak biltzeko eta bere diru propioa txanpontzeko eskubidea ere. Jende urritasun handiak, eta gainera konkistakuntzaren zalantzak esplikatzen dute lehen mementuko eskubide pilaketa berezko hau eta hortik datorren dezehaztasun juridikzionala. Guzti honek dakar Adelantatua izatea mendebal jatorriko mikroabsolutismoaren zelula bizi eta aritzailea. Honelaxe egingo dira bilaketa ausartak eta lehen fundazioak.

Dominapen izpirituala ere ezarri nahi da —erlijioa mendeetan zehar hain odolean daraman Espainia bezalako herrian hain garrantzia handiko kontua— eta dominapen izpiritual horrek kulturaren —batez ere fede, hizkuntza eta ohituren— ezarpena ere badakar. Guzti horretarako zen Dominikoez Venezuelarako diseinatu zuten Ebanjelizapen zapuztua. Haien Jesusen eta Apostoluen antzeko proselitismoa pentsatzen zuten, harmarik eta indar praktikorik gabe. Haien iniziatibak porrot egin bazuen ere, dominikoei dagokie, frantziskotarrekin batera, Ameriketako alderdi honetako katolikuntza hastea. Geroago beste erlijio ordena batzu batuko zaizkie eta XVII garren mendearen bigarren erdian eta hurrengoaren lehenengoan Venezuela misio sare ez estaliko da.

Domeinu sozial eta ekonomikora doaz lurren komendua eta banaketa bezalako instituzioak. Lehenengoak helburu mordo bat bilatzen zuen: konkistatzailea saritu eta biztu, bertako jendea askatasunaren mozketaren zekarren eta sakonean esklabutza erlatibora zerraman errejimenera makur erazi. Gomenduak indio arrazak pairatzen zuen desegintza galgatu zuen; kristautasunaren zabaltzea erraztu zuen giza kontzentrazio sailduetan eta indioaren sarrera hispaniar kulturara bultzatu zuen.

Comenduarekin batera lurren banaketa zetorren; honek gabe-kuntza zekarren. Orduan oso gailen zebilen doktrina eta ekintza mordo baten azken itzulpena eta programatika zen: munduko jabetasun denporala Aita Sainduarena zen, Jainkoaren Semearen ondorengo bezala, Aita Sainduak eskubidea zuen kontinenteak banatzeko, hispaniar koroaren eskubidea Inter Caetera buldetatik harakoa, eta Adelantatuaren eskubidea lurak emateko, kapitulapenak medio. Gomenduarekin, eta honela harturiko lurrean, espainolak hemen laborantza eta abelazkuntza hasten du. Indar produktiboen aurreramentu handia zen hau indioen lur sakabanatze bakarkoia

baztertzen zuena. Baina kontuak kontu, indioek berena zutena galdu egingo zuten eta jaun mailatik edo morrontza propio eta autoktonoaren menpeko izatetik, potentzia atzerritar baten jopu izatera pasa behar. Afrikarra berriz gizakitzat ere ez dute hartzen. Gauza bat edo abere bat gehiago da eta merkatalgo eta edozein tratutako gaia izan daiteke.

Desberdintasun nazkagarria eta injustizia nabarmena besoz beso, horra XVI garren mendetik gora sortzen den Amerikako erakundeen oinarria.

DEFINIZIORANTZ

Baina batez besteko Amerika deritzagunaren eskema hori bazen, eskala ertzetan badira bariantek, hain nabarmenak ez badira ere. Mestizaia espaniar-afrikaren artean zen lekuan, bai india galdu zutelako edo bai inoiz han bizi ez zelako, Espainia errazkiago nagusitu zen penintsulatik ekarriko instituzio eta kultur bagaian arrasta zezakeen guztiarekin. Espainiarrak esklabutza zabala jartzen eta berregiten zuen; beltzari nagusiarengana egokitzea eta makurtzea zegokion; nagusiak ere desberdinen arteko elkarbizitza dagozkion kontzesioak egin behar zituen, baina beltzak gehiago galtzen zuen; Venezuelako kasuan eta Amerikan jeneralki, Afrikako inmigranteak bere hizkuntza galdu zuen aurrenen.

Amerika jendetsuago, eratuago, ikasiago, erlatibitateen barruan aurreratuari buruz, Espainia ederki baliatu zen bertako errealitatean lehendik zeuden injustizi, zapalkuntz eta desberdintasun sistemez eta sistema haixek erabiltzen segitu zuen, aldakuntza bakarra izanik tituludun autoktonoaren ordeztasunarekin jartzea eta hone-lako beste aldakuntza azalen bat. Aztekentzat eta inkentzat konkista batez ere jaungo, hizkuntza eta kanpotasunen trukea izan zen. Haientzat konkistatzailea beren sineskera zahar eta propioen arbuio sistematikoa zen, indarrez eta presaka beste berri eta urruneko batzu asimilatzen. Kasu argi bat Perun daukagu, non Espainiak "jauntxogoa" kontserbatzen baitu bertakoak bere domeinu esplotatzailearen tresna gisa probetxatzeko. Dударik gabe, konkistatzailearen aldetik, oso zuhurra zen baliabide hau, alegia, konkis-

tatuen arteko zati hautatu eta tiki bat degradatu gehienen administrazio eta maneian erabiltzeko. Bolibarrek 1825n submagistratura mota lotsagarri hauk eliminatu zituen, betiko izan zedila opatuz.

Bolibar izango da, benetako askatzaileekin batera, eta hiru menderen distantziara, Mundu Berriaren sorrera markatzen duten eta orduko potentziek ohi zituzten inikitateen mendekatzaile gorrena. Gehienen, iberiar uztarpera menperatuen, larrutuen izenean, Amerikako exponente egiazko eta jatorren buru zela, aparatu hori birrintzen saiatuko da, denboren distantziara usteltzat eta ustelgarriztat, lotsagarritzat eta apalgarriztat jotzen dugun aparatua noski, haren lekuan pertsonaren duintasunak eta bere eskubide ukaezinek markatzen duten bakarra jartzeko, aparatu on bakarra gainera gizartearen aurreramendu eta hobekuntzarako.

XVII eta XVIII garren mendeetan zehar, gero Simon Bolibarren lurra izango zen lekuan, esistitzen ez zen nazionalitate bat eraikitzeko lan eskerga eta gakotsuan ari ziren. Lehen osagaien: naturaren, jendearen eta kulturaren enkontrua gertatutakoan, osagaiok konkistako indarkeria apartaren labean metalak bezala urturik, orain itxadopen aktiboko garaia dator.

XVII eta XVIII garren mendeak ez ziren, ez, bake garaiak. Koloni haro gelditu eta lasaiaren, historiaren pausaleku arkaikoaren, ezer hasten ez gertatzen ez den itxadonaldi isilaren irudi faltsua gezurtatzeko, han daude barruko dardaraldi etengabeak komunitate sorberri desberdinkoiaren altxoan, eta piraten bortxakeria etengabea, lehergailu gisakoa berau gizarte berrirako eragin handikoa, zeren kanpoko erasoari erantzunez, Venezuelarrak bere buruaren kontzientzia hartzen du, arrisku komunean anaikide da, lokalismoak gairatzen ditu. "Aberria" aipatzen du lehenengoz siniskeraz, hizkuntzaz eta izaeraz atzerritar direnen kontra.

Espaniak, bi mende hauetan zehar, ekin egiten dio bere bokazio setati eta heroikoari, alegia, bere burua erein eta daukan guztia eman, beste faktoreak ez errefusatu baizik hartu eta haiekin denekin Amerika bere irudira moldatu.

Bi azken mendeetan Venezuelako koloni prozesoa nazio finkapena da; sakabanakuntzatik hasirik iristen da honetara. Hain hemen sakabanaturiko zentruak batu egiten dira eta batasun fiskala eta

ekonomikoa dekretatzen da eta lortzen hasten, berehalaxe batasun militarra eta politikoa eta gero batasun judiziala, administratiboa, soziala eta erlijiosoa: Simon Bolibar 1783n jaiotzen den Venezuela hain zuzen zati askoren eratze eta sumatik sortuko da formalki —1776-86 ko hamarkadan—.

Amerika osoan 1600-1800 berrehun urteak, kolonitasunaren kristalmendu aktibozkoak dira. Jurisdikzio handiak eta tikiak definitzen dira, Espainiako jarioz hazkunde materialagatik eskaturiko esklabuz populatzen dira zentruak. Kultura landarik desberdinetan loratzen da; arkitektura Mexicon, Liman eta Córdoban, pintura Quiton, musika Caracasen. Absolutismo kolonialistak bere osotasun hermetikoan jotzen du goia. Sobera agergarri da Mexicoko erretordea, zeinek gogarazten baitie amerikarrei haiek ez direla gobernuaz eritzirik emateko jaiio, Espainiako tronuan dagoen monarka handiari erreserbaturiko gaia noski, isiltzeko eta obeditzeko baizik. Elizak bere boterea indartzen du. Erlijio ordenek, nola jesuitek, hezieraren bidez ukalondo handia hartzen dute.

Espainiaren asmoari ez-entzun eginez bezala, Amerikako inguruak ez zuen permititu metropoliko bereizgarri guztiak hara birlandatzerik. Luzera lehenengotan nahi zenaz oso beste ondorio bat izan zen. Koesistentziak elkarrekiko egokitu beharrak ditu, prozesuan parte hartzen duen elementu bakoitza aldatu egiten da ukiduran eta hauzotasunaren eraginez. Inork ez dezake inor ahatz. Eskenatokia bat da, aktoreak batzu; eginbeharra eta destinoa denak dira.

KOLONITASUNAREN HELDUTASUNA

XIX mende hasieran, Venezuela Cristobal Colonek, Juan de la Cosak eta Alonso de Ojedak ikusi zutenaz oso bestelakoa zen. Aurkitzaileak berak “Graziako Lurra” deitu zuen soro liluragarri hartan, ez daude bertako taldetxoak bakarrik beren kultura urriz. Orain herri bat dago han, hirurehun urtetako historiaren ondorioa.

Venezuela batasunerantz taiutu eta abiatu da. Lehen mendean hogeitamar hiri eskas bazeuden, beretariko inportanteenen inguruan sei bat probintzia formaturik, orain hirurehun bat hiri gehiago

daude, misiolarien ahaleginen fruitu. Sei probintzia hoik, bi mendetik gora, elkarrekiko menpetasun erlazio gabe egon ziren, metropoli desberdinetatiko dependentzia desberdinez. Cumanako kasua oso nabarmena da: politikaz Madrilen mende zegoen; hortik beharako gobernu eta judizial mailan Santo Domingo eta Santa Feren mende; ekonomiaz Mexicoren mende; erlijioz San Juan de Puerto Ricoren mende; unibertsitatez Caracasko inguru barruan... Baina Carlos IIIren erregegoan sei probintziak aglutinatuak izan ziren.

Venezuela, ez Caracas ere bazeritzan probintzia izenkidea, bai-zik gaur izen horrekin berezten den nazioa juridikoki eman zuen errealitate geopolitikoa, propioki sorrerazten dun batasuna Gipuzkoar Konpainia da. Euskal merkatal partzuergoak batzen eta funditzen ditu egitez gero “venezuelarrak” izango diren probintziak; Erregearengandik lehen independentzia moduko bat —dependentziaren barruan— lortzen du, soberanoak Santa Fetik deslotu eta Caracasen menpean jartzea erabakitzen duenean. Hau 1739n gertatzen da, 1742n berretsirik. Erregeak konstantzia uzten du Bizkaitar entitatearen erizpidea garrantzitsua izan zela bere erabakian. Lehenengotan Caracasko probintzia bakarrik eman zitzaion konpainiari, nahiz eta Cumaná, Trinidad eta Margarita ere hornitzeko eskubidez, hauk gero bere domeinupera zetozelarik, baita Guayana ere, non haren inspiraziopean kontrabandoa pertsegituko baita; azkenez Maracaibo ere batzen da 1739n Gipuzkoar orbitara, Venezuelako orbita izatera helduko zena.

1776 tik 1786 rako hamarkadan hauk jartzen dira Caracasen: Intendentzia, arlo fiskala zentralizatzen duena (1776); kapitantzak jeneral bat gobernu eta militar eskubidez Cumaná, Guayana, Margarita, Trinidad eta Maracaiboko kapitantzak jeneralen eta gobernazioen gain (1777); kontsulegoa, merkatal hauzitegi eta pizte ekonomikoko organo bat (1785); Audientzia, justiziarako entitate gorena, gobernatzeko eta legegintzarako ere ahalmenez (1786). 1804n Francisco Ibarra Monsignoreari dagokio Caracasko lehen Artzapezpiku eta Metropolitanar izatea —aurreko urteko buldaren arabera—; honela Venezuelako lurralde jadanik baturik hiru eliz jurisdikzio hauk desagertzen dira: Puerto Rico, Santo Domingo eta Santa Fe, Caracasko prelatua esaniko mailara heltzen baita, honen manupeko geraturik Merida de Maracaiboko eta Guayanako apez-

pikuak. Artzadiozesisaren sortzapenak Caracasi nazioko hiriburua-
sun osoa berresten dio. 1721n unibertsitatearen sortzapenak lehen-
tasun osoa eman zion kultur arloan.

Bolibar hain zuzen venezuelar integrakuntzako dekada horre-
tantxe jaiotzen da. Bere haurtzaroan zentzura hurreratzean, ez dago
jadanik “caracastarrik”, “Guayanarrik”, “Margaritarrik”, “Trini-
dadtarrik”, “Marabitarrik” edo “Meridarrik” leinuizen eskluditzai-
le gisa; denen gainetik “Venezuelar” izena dago.

Hispanoamerikako maila kontinentalez, moldakuntza ez zen
izan paraleloa, ez berdina, bi mende funtsezko hoietan Caribek bai-
naturiko inguruan osatu zenarekin. Venezuela atzeraturik zebilen
beti. Komunitate handiago eta jendetsuagoetan, XVI garren men-
detik bertatik, makropresentzia batek argi erakutsirik, geroago Ve-
nezuelan ageri den fenomeno bera ikusi zen: koloni sistemaren
hobekuntza eta indarkuntza. Erretordego handiak sortu ziren Es-
painiar Monarkiak itxadon jarrera Aurkikundeaz liluraturik utzi
eta bere negozioaren kontzientzia hartuz batera. Carlos V-k Nueva
Españako eta Peruko erretordegoak sortzen ditu. XVIII garren
mendean Nueva Granadako eta Rio de la Platakoa sortzen dira.
Kapitantzia jeneralak ere egiten dira Guatemala, Chile, Cuba eta
Floridarako, Presidentzia bat Chilen. Audientziak elkarren atzean
datoz, 1511n Santo Domingo, gero Mexicon 1527n, Panaman edo
Tierra Firmen 1535n, Liman 1542n, Guatemalan 1543n, Guada-
lajaran 1548n, Santa Fen 1549n, Charcasen 1551n, Quiton 1563n,
Chilen 1609n, Buenos Airesen 1661n, eta Caracasen eta Cuzcon
1786n.

Anitz intendentzia jarri zuten borbondarrek Amerikan. Aurre-
ra pauso bat zen administrazio fiskalean, lehen denboretako buro-
krazia hasberria oso atzean uzten zuena. Kontsulegoei buruz, ha-
maika zenbatu ziren kontinentean. Gainera nonahi ugaldtu eta mul-
tiplikatu ziren Kabildoak, absolutismoak premititu zituen sail de-
liberatzaille bakar gisa —nahiz eta hesparru lokalekoak—. Kabil-
doek beren garrantzian gorabeherak ukan bazituzten ere, paper
handia jokatzen dute beti. Caracaskoak 1676n bere alkateak pro-
bintzia osoan agintzeko eskubidea lortu zuen, gobernadorerik eza
gertatuz gero. Beren eskubideei oso atxikirik zeuden eta, beren
konposapenari jarrai, batez ere, ia esklusiboki, criolloei zerbitza-
tzen zieten.

Amerika ministratzeko Zuzenbidea, lehenengotan, Gastelakoa bera zen, gehiena latindar alea zeraman zakua. XVII garren mende azkenetan —1680n— Mundu Berrirako ad hoc zuzenbide bat bil-tzen da: Indietako Legeak: 9 liburu, 2218 titulu, 6377 lege. Le-geria hau, hainbat kontzeptuz, obra miragarria da: hura sorreraz-ten duen ordenu politiko-soziala islatuz eta monarkiari efikazki zerbitzatzuz gainera, hispaniar arimaren marka nagusia den idealis-moz jazten da. Indietako legeen alderdi askotan goi helburuetarako joera nabari da; baina hala ohiko praktikak nola Amerikako in-guru sozialak eta kontrako interesek asmo jator hura lorrindu egiten dute, zeinetan ohoragarri baita bertakoen aldeko humanita-rismo etengabea eta honek, mamituko ez bada ere, bere idealtzai-leak goresten ditu.

Legeria hain harrigarri hartan dago gure Amerikako drama bi-zia izango den kultur alderdi baten sustraia: zuzenbidearen eta izatearen arteko egokitasunik eza. Gizarte anglosajoietan gertatzen denaz bestera, hemen Zuzenbidea laborapen eredu bat izango da, exenplu perfektua, abstraktua eta garbia, eta ez gizalege arau egoki, eraginkor eta funtzionala. Indietako legegintzaren berezgarria idea-lismoa eta inoperantzia dira, egunsenti haro hartatik gora arau ju-ridikoari gure Amerikan luxuzko artikulu baten balioa eman zio-na, bere zirkuntzantziarekin lotura gabe.

Garrantzia handikoa da Simon Bolibarren Venezuela bereziki eta baita herri hura sorturik dagoen kontinentea jeneralki itxura-tzen duten alderdi hauk aztertzea, guzti honek baitakar gidari iraul-tzaile handiaren geroko ekintzaren argibidea.

Hirurehun urtetako kolonialdian Espainiako tutorego inperiala zutik mantendu zen, bere tankera apelaezinari eutsi zion, eta ha-sieratik intransigentzia berdin berdinez jokatu zuen. Estrukturak, bere funtsean, ez zuen inolako aldakuntza sakonik jasan. Behar-bada aipatzeko aldakuntzarik garrantzitsuena aldi horretan Espai-niako tronuan jarraikitzen diren bi dinastien tentua eta estiloa dira —1707 tik, Felipe V ren erregegoa asten denean—. Zertan esanik ere ez Soberano bakoitzak ere bere nortasun propioa eta bere gobernakera dituela, baina sistema, gehienez lege eta zuzen-bidez eramana, bere autokratismo aldakaitzari ezer kendu gabe pa-satzen da batetik bestera.

Austriarren eta Habsburgotarren gobernua gogorra zen, katolikotasunean burugogortua eta edozein berrikuntzataraz zerratua arte desinteresatuak izan ezik, zeintzuren gain errejimen zorrotzaren filosofia politiko-teologikoa baitzebilien. Dinastia horrek, zer nazionalean integratzaile, unitari ikusten hasi zen espainoltasuna haragitu zuen eta kontzeptu tradizionaleri efikazia osoz zerbitzatu zien. Haren absolutismoak tankera teokratiko eta zentralismo berekoa, erdi haro kutsutik ez guttiz garbituak, zituen oinarri.

Hasiera hasieratik Borbondarrek beren marka desberdina dakarte. Frantzian haien erregeek politika ausarta, erraformazkoa eta berritzailea eraman zuten. Katolikoak ziren baina ez gehiegi, arte, eztabaida filosofiko, zientzi ikerkuntza eta aurrerapen zaleak, guzti hori beren absolutismorik utzi gabe. Borbondarrek penintsulan, estatu dotrina bezala, zuzenbidean uniformetasuna eta zentralizapen zorrotzagoa babesten dute. Bere lehen egintzetan Felipe Vk Aragoiko eta Kataluniako, Valentziako eta Mallorcako askatasun zaharrak moztu zituen: horrela eta denbora apurrik era galdu gabe, bere botere pertsonala sendotzen zuen. Estatuko makinerian Intendentzia sartu zen, administrazio berriaren ia ardatz bilakaturia berehalaxe. Gorteez eta Kabildoez indarra galdu zuten.

Gizarte arloan, Amerikak Borbondarren politika berriaren zartada igarri zuen. Dinastia horrek liberalismo erlatibo baten kanpaina jotzen zuen eta ez zuen estaltzen aristokrazia metropolitara eta koloniarak lurreratzeko asmorik; haien politika Venezuelan guttiz jite herrikoiduna gertatzen da.

Jatorrizko eta barruzko desberdintasun egoerarik ezabatzen ez bazen ere, dudarik ere ez beste perspektiba batzua agiri zirela Mundu Berria 1800-n. Aurreramendu demografiko eta gurtzaketak, hiru enbor etniko nagusien artean —debeku guztien kontra— egin zenak, argiago ikus erazten du ezberdinkotasuna eta haren mantentzearen zentzugabekeria.

Esklabutzak orain, jakina, lehen baino garrantzia gehiago du. XVI garren mendeko trafikoa apala, tanteiu gisakoa, izugarriro bizkortu da hain irabazi gizenekin —ehuneko 20.000 jotzen da—; orain negoziarioan sartzen dira: Ingalaterra, Holanda, Portugal, Frantzia, etab. Kolonialdi guztian zehar hamabitik hogeitamar milioi

pertsonatara atera zituztela Afrikatik jotzen da. Venezuelara 120.000 beltz inguru ekarri zituzten. Sail handiak izan ziren Antilletan, Brasilen, Mexicoko Golkoaren iparrean eta Cariben.

Hemeretzigarren mende hasieran, bertako esklabutza ere indartu egin da hemisferioan. Colon aurreko Amerikan indio komunitate askotako joko komuna zen presoak salerostea; haien askatasuna garaileen harrapakin zatia zen. Hain emankorra zen salerosketa hori non jauntxo asko tribu etsaietako jendea harrapatzen ari baitzen espainolei saltzeko. Aurreramendu gehiagoko Amerikan ere esklabutza ez zen ezezaguna. Gastelako koroak indioak “menpeko askeak” deklaratu bazituen ere, Isabel Erreginak 1503-n Caribetarrak eta Araukotarrak gatibatzeko baimena eman zuen, gizajaleak eta bihurriak zirela atxakiaz. Hortik atera nagusitzen hasirik zegoen esklabu sisteman erregeen begi ona zuela.

Baina esklabutzaren esistentziaz aparte, nahikoa berau ezberdintasun ageria erakusteko, badago gainera beste kontu nabarmen bat, alegia, elementu aske guztiak —hau da, esklabuak ez zirenak— ez daudela maila berdinean. Askeen artean, Venezuelan, gutienez zortzi estratu bereizten dira. Zuriek, gehienez faboratuek, hiru maila dituzte: penintsular pribilegiatuak, gizartepiramidearen gailurrera igonak, gero criollo edo mantuar harroak, eta berehalaxe kanario menpekoak. Gero, behearantz, nabarren sail hedatsua dator —venezuelar erdietaraino 1800-n—, hauetan daudela: mestizoak —strictu sensu—, mulatoak, hankokerrak, tertzerioiak, kuarteroiak, kinterioiak, moriskoak, koyoteak, chamisoak, hor konpon Mari Anton, gibarok, sambaigoak, denak zintzilik, bizirik edo hilik, choloak, cuatralboak, tresalboak, kastizoak, eta abar eta egur. Azkenez piramide oinean: indio sujet askeak, indio esklabuak, gero beltz libreak eta azkenez beltz esklabuak.

Ez zuen odolak eta artzak bakarrik estratifikaziorako erizpidea ematen baizik baita zuzenbideak, hezierak, fortunak edo aberastasunak eta ohiturek ere eragin handia zeukaten gizartea zatikatzeko eta diferentziak jartzeko ahalegin honetan. Arautegi edo ordenantzak honelako gauzen erabileraz arduratzeraino jaisten ziren: mantuak, bitxiak, perlak, zeta, ileguria, kuxinak, euritakoak, jarlekuak, belaunikaulkiak, etab.

Elizkizunetan ere beltzak zuriengandik aparte zeuden. Apaizgoa luzez zurien monopolioa zen. Caracasen elizen banaketa ere

berezia zeukaten gizarte estratu desberdinen artean: Candelaria kanariarrentzat bereziki gordea zen, San Mauricio nabarrentzat, San Francisco criolloentzat...

Profesio eta lanbideei buruz, ez dago zer esan guti. Hezkuntzak ordenu ezarriaren gehigarri gisa, beste arrazoi batzu dakartza diferentzietarako. Egin ahal diren ikasketak gizartean apartekotasun txit jakinak dakartzaten karreretarako bide dira. Berdin gertatzen da halako lan batzuren trabekuntzan edo ihardunketan ere.

Irakaskuntza jenderik eragintsuenentzat zen, hau da, penintsularrentzat eta criolloentzat edo mantuarentzat. Unibertsitatea garestia zen. Nabarrei, sistemaz, eskolak ukatu egiten zitzaizkien. Inor ez zen beltzei irakasteaz arduratu. Areago, ezagutu zen kasu bat Catamarcan beltz batek bere kontura irakurtzen ikasi zuena, eta jakin zutenean agirian azotatu zuten. Indioentzat, gomenduetan, alfabetatze intelktual eta erlijioso doirik ere apenas sumatzen zen.

Zatikuntzarako beste elementu batzu: ogibideak: militarrek, lizentziatuak, edo elizgizonak, enpleguen kalitateak, edo lanbide adarrak, aspalditasunak edo esperientziak koloniako bizilagunak planu desberdinetan jartzen dituzte.

Unibertsitatera sarbiderik edukitzeko frogatu beharra zegoen “legezko semea, edozein arraza gaiztotatik garbia... eta guraso gutiz ezagunena” zela. Kaxakoek, zuriak izanik ere, ez zeukaten erregearen dispensa gabe graduatzerik.

Eskulanak, denbora luzez, kaparetasunetik deskalifikatzeko arrazoi ziren. Felipe II-k, 1562-n, lanbide “arruntak, doilorrak eta mekanikoak” goi jendeentzat ezduintzat jo zituen. Eskulangintzan —batez ere— nabarrek ari behar zuten. Komunitatearentzat behar beharrezko lanak eginez, “romanzista” zeritzan zirugia bera ere bai, nabarrek esfera hori arras berena zuten, eta beren lan baliotsuz diru aukera hobeak lortu zituzten, beren gorapen sozialerako txit egokiak noski. Beltzentzat ziren lanik gogorrenak, nazkagarrienak eta krudelenak. Murrizketa nabarmenen mende aurkitzen ziren beti. Honela ez zeukaten gaeuz ibiltzerik, ez herri batetatik bestera joaterik; Caracasen amildegietara joatea debekaturik zuten etxerako “ur bila” izan ezik; 1545 tik gora zaldian ibiltzea debekatu zitzairen. 1620 bueltan haramarik erabiltzea debekaturik dutela gogarazten zaie. Edozein esklaburekin negoziatzea ere debekaturik zegoen;

eta bazen honen kontra susmo hau ere, alegia, honen eskuan zegoen edozein urre ohostua zela.

Nabarren saila, hau da, populaziorik gehiena —erdia, Venezuelan—, arbuiotuan eta esplotazioetan bizi zen. Behe lanetara bazterturik zeuden; ez zeukaten unibertsitatara sartzerik, eta are gutiago titulurik ez diplomarik inoiz lortzerik. Ez zeukaten apezgaitegian sartzerik ere, ez ordena sakraturik hartzerik. Abokatu Kolegiora eta Audientziara ez zeukaten atezain gisa ere helbiderik. Haientzat aparteko soldadutza zegoen, baina ez zuten kapitain maila baizik iristerik; zuriekin ezkontzea debekaturik zuten; kalonje batzarreak ez zuten haien hiletetara joaterik; ez zeukaten elizako bankuetan esertzerik eta ez belaunikatzeko oinohalik eramaterik. Oraindik 1805-n Caracasko udalak irakasteko ahalmenik tikienik ere ukatu egiten zien. 1796-n organismo horrek agindu zuen segi erazteko haiei “ordurarte eduki ez zuten eta aurrerantzean ere eduki behar ez zuten eskolakuntzarik gabe”.

EKONOMIA ETA PENTSAMENDUA

Koloni Amerikako koadroan Inkisizioa ere aipatu beharra dago, monarkia absolutistaren aldeko eta askatasunaren kontrako tramankulu instituzionala eta eragin ikaragarrikoa. Erdi Haroko Inkisizioaz diferentki, erlijiosoa eta elizaren eskuetan osoki bera, Espainiako Inkisizioa politikoagoa izan zen eta baita ekonomikoa ere —fedearen zaindari jantzia kontserbaturik, jakina—. Ofizio Sainduko haultegi honetan, erregea nagusi zen beti. Sixto IV garren Aita Sainduak 1478-n erregeari eman zion epaikari inkisitorea izendatzeko eskubidea; lau urte geroago birberetu zuen eskubide hori, baina koroari uzten zion kandidatoak aurkezteko eskubidea. Batera nahiz bestera, dogmazainak botere politikoaren tresnak izan ziren beti.

Inkisizioaren hasierako helburua judaismoa deuseztekoa zen, gero Islamen kontra abiatu zen eta azkenez protestanteen kontra. Amerikan hala holako efikazia eduki zuen; baina nolana ere aginpide erlijiosoei eta zibilei bildurgarri zitzairen eta jakina, errespeto dezentea sartzen monarkia metropolitarraren onerako. Denborei pasatu zaien irudiak dudarik gabe Inkisizioaren eragin deabruzkoa

eta izugarria gehiegitu egin du, baina haren desagerpenak kikitlan sun, inhibizio eta ikarazko egoera jeneral bat moldatzen zuen bildur gehigarri batetik askatu zituen arimak.

Ekonomi arloan, Amerika injustiziarik handienen oinarri gainean eratu zen. Ostiarraren tesisaren arabera, Aita Sainduak mundua banatzeko eskubideak zituen; horrela errege katolikoek Aita Sainduaren berdonapenez hartu zituzten Mundu Berriko lurrak; soberanoek halaber haik maneatuko zituzten kapitulapenetan eta Adelantatuek —beren aldetik— beste banaketa batzu egingo zituzten. Nolanahi den, konkistako eta ukantzako egintza Amerikan espainiar edo koloni jabetza ezartzeko, bertakoen lumaketaz egiten zen. Hauen lanez eta afrikar esklabuen laneskuz, aberastasun handiak egiten hasi ziren. Ondasunak konkistaren eta esklabutzaren ondorio zuzena dira. Herri guzti hauetan izugarritzko koloni latifundioen gomuta dago: eliza ere lurdun handia zen.

Lur gehiago edo gutiago edukitzeak, lurgintza hobeak edo txarragoak edukitzeak, esklabuen edo abereen kopuruak, hitz batez, zenbat eta nolako aberastasuna, horrexek ematen zuen leku soziala. Haundikien aurrez, “mantuarren”, “cacao handien”, epe laburrera aberats izateko posibilitatea zuten goi funtzionarioen aurrez, interes gizenak ematen dituen kapital pilatudun errentarien aurrez, jabe ertainak eta artisoanoak daude, desjabetuak, pobretasunak benetasunera kondenatuak, eta beherago oraindik inolako ondasunik gabeak, ondasunik gorena, askatasuna, barru dela.

Venezuelan noble askok ez zuen salerosketan kezkarik erabili; konkistako “erreskateek” jokaera jasankorra eta begiontsua hasi zuten, merkatal espekulazioaren aurrez. Amerikan, jeneralki, merkataritza ez zen jaunentzat lotsagarria, ez eta mea lana ere, ez nekazaritza edo abelazkuntza, indio gomendatuen edo afrikar esklabuen bitartez.

Borbondarrek espainiar finantzak osasundu zituzten, eta merkatal politika desberdina hasi zuten merkatal askatasun osoa emanez bukatu zena.

Kulturari eta ezagutz hedakuntzari buruz, aipatu beharrekoa da nola borbondar absolutismoak —metropolian “Ilustrazio” haroa, hala holako ondorioduna, babestu zuenak— koloniei beti gogoratzen dien erabaki guztiak erregeari dagozkiola eta eman litezkeen zabaltasunak erlatiboak direla. Koroak, aldez aurreko progra-

ma gabe, baina dena beregan duenaren eta dena bueltagabeki egiten duenaren berezkotasunez, ez du hezierarik bultzatzen; eta elizaren irakas lanari eta bakoitzaren inizatibara uzten duenari buruz, monarkiari komeni zaion modura kontrolatzen ditu.

Simon Bolibar jaioko zen Venezuela, kulturaz inperioko zatirik atzeratuenetarikoa eta bertan beheratuenetarikoa zen. Hango Unibertsitatea 1725-n jartzen dute; Santo Domingok ordea 1538-n bazeukan eta Peruk eta Mexicok 1551-n. Inprimategiaz berbera gertatzen da: Mexicok 1536-n dauka, batzuk Guatemalan lehenago jotzen dute; Perun 1581-n bazegoen, Paraguayn eta Cuban 1705-n eta 1707-n sortzen da; Brasilen 1747-n, eta Haitin 1750-n; lehenago 1738-n Nueva Granadara heltzen da, gero Quitora 1755-n eta Río de la Platara 1766-n. Venezuelak ordea ez dauka propioki inprimategirik 1808 arte.

Venezuelaren ardura intelektualak izugarrizko eragozpenen kontra jokatu behar zuen. Amerika absolutismoak hertsiriko mundua zen eta gainera zorrozki eta deskonfidantzaz tratatua. Indietako legetan herio zigorpean zegoen atzeritarrekin salerostea, zena zelako atxakia zela. Murrizketa handiak zeuden irakurketaren gain, berdin liburuen inprimaketan eta salketan. Ofizio Sainduko komisari zurrunei zegokien liburuen sarrera, zirkulapen eta erabilera baimena ematea, nonahitik etorri nahiz edozein hizkuntzatan idatzirik egon. Liburu debekatuak edukitzea gogorki zigortzen zen. Erregek agindu zuen bere funtzionari zibilek eta eliztarrek, Mundu Berrian, protestanteek beren erasoaldi bandalikoetan utziriko liburu heretikoak eta idazki guztiak biltzeko.

Inperioko zaintza honelako huskeriak agintzeraino iritsi zen, alegia, ez ametitzeko kontinenteko Indietan liburu profanorik eta fabulosik, alegiazko historioak kondatzen zituen erromantze liburrururik; hori agiri da Indietako legerian eta berresten du Carlos V ren erret zelula batek 1543-ño irailaren 29-n.

Kontu zorrotza erabili zuen koroak Mundu Berriaz aritzen ziren obrez; Indietako kontseiluaren oneritzia behar zen halako inpresoa Amerikara pasatzeko; ezein editorek ez liburu saltzailek ez zitzakeen argitara, eduki ez sal kontseilu horren alde aurreko baimen gabe, multa galanta eta dekomisioa jasoko ez bazuen.

Bide zilegietatik, eta esaniko guztia esanik, Espainiatik Venezuelara liburuak iristen baziren ere —batzutan berriz oso azkar—

kontrabandoak lagundu zuen asko liburutegi handiak egiten, bai Caracasen eta beste probintzietan. Gipuzkoako Erret Konpainiak bere untzietan, zerbait ukiezeintasunaren babespean, irakurgai gaurkotuak eta ausartiak ekartzen zituen.

Horrelakoxea zen hirurehun urtetan moldatu zuten Amerika: unitate politikoak eta administratiboak koroaren mende: erretorde-zak, intendentziak, kapitantza jeneralak, kontsulegoak, audientziak. Hiri ikusgarriak edo ez hain ikusgarriak, jauregiak, egoitzak, katedralak, eta elizak, komentuak; morroi sail, abeltegi eta landaredi handiak; unibertsitate inportanteak; bideak, gotorlekuak, plazak; mea eta azukre esplotazioak, etab, hitz batez, erakunde, material eta kultur multzo harrigarria. Colonen balentria aurretik, Amerikarrik ez amerikarrik ez zegoela hertsiki eta hiru mende geroago bazegoela mundu berri bat eta bertan bazeudela destino handiko aberriak jotzen bada, orduan neurtzen da zer neurritako ahalegina egin zuten Bolibar jaio zen kontinentean eta nortasun eskerga hau gailendu zen mundu zabaleko zati horretan.

IZPIRITU BAT ERNETZEN

Kolonialdiaren saldoa garrantzitsua izan zen. Amerikako eta Venezuelako 1800-go errealitate materialak, 1500-n zegoenaz hain desberdinak, bere ardatza arraza guztien bilkuntzan dauka amerikar gizona —ez bertako, ez espainiar, ez afrikar— sortzeko, izaki unibertsala, kontinente guztien adierazpena. Gizona berria zen eta ize-nak ere berriak ziren: Amerika hitza berria zen. Hala ziren Venezuela, Nueva Granada, Nueva España, La Española, Puerto Rico, Santo Domingo, Santa Fe, Florida, Río de la Plata, Asunción eta asko gehiago. Baina obra hori burutu zen hiru mendeetan garrantzia antzeko edo handiagoko beste produktu bat lortu zen: izpiritu berri bat erne zen, kontzientzia berri bat mamitu zen, 1800-n nahikoa heldua eta bere buruaz segurua, oraindik gaztea bazen ere.

Hirurehun urte asko zen, baina era batera oso guti zen. Ez dago beste kasurik hain denbora laburrean eta lurreko beste edozein tokitan, gure Amerikaren tamainuko eta kalitateko mundurik hain azkarki egin denik. Aintzinatearekin eta Ekialde Urruneko edo Er-

dikoarekin konparaketan hasi gabe, Espainiako historian bada zifra erakusgarririk: erromatarren haroak bakarrik seirehun urte irauten du eta gero arabiarren domeinuak zortzi bat mende; Ingalaterran normandiarrak laurehun urtetatik gora izan ziren nagusi; eta denboraldi hoik, kolonialdi osoa baino nahikoa luzeagoa izanik ere edozein, fasetzat, etapatzat, puska edo pasadizotzat jotzen dira nazionalitate haien prozesoa. Gure Amerikarako, hiru mende historia osoa izan ziren.

Hirurehun urtetan izpiritu bat agertu zen. Kultura bat hasi zen. Izpiritu horren zeinua, denbora horretan zehar berretua, eta gure herri guztietan euskorra eta ekinorra, konformagaiztasuna zen, injustizian, desberditasunean eta zapalketan oinarrituriko koloni sistemaren ukapena —nahiz eta moduz eta graduz desberdina—. “Amerikarrak” egoten hasi ziren unetik bertatik, beren oposizioa erakusten hasten dira, zirt eta zart, ordenu menderatzailearen kontra.

Espainiak Amerikara bere sistema absolutista ekarri zuen. Hau ez zen, funtsean, beste potentzia kolonitzaileek beren lurretan ezartzen zutenaz hain desberdina. Espainiar absolutismoa nolana-hi ere, egon denik biribilena izan da: absolutismo bakarra zen, Frantziak ancien regime-ko mementurik gorenetan ere eduki ez zuen bezalakoa. Luis XIV-k estatua bera zela esan zezakeen eta ez zen gezurra, sistema politikoa bere ukabilean baitzeukan. Espainiar erregeek ordea, gehiago esan zezaketen: Carlos V edo Felipe II berak zirela esateko moduan zeuden, batere erratu gabe, Estatua... eta nazioa. Pertsonaia hauetariko inor ez zuten zorotzat joko beretariko edozein Espainia zela esan balute eta berena zela inperioa inperioko guztien multzo osoarekin.

Espainiar absolutismoa politikan ez ezik, era batera ekonomi eta erlijio sailean ere ageri zen. Merkantilismoak erregeari produkzio ihardunen domeinu osoa ematen zion, prozesu ekonomiko guztia, kontsumoraino, bere eskuan zeukan; mea lanari aparteko garrantzia ematen zitzaion; urre eta metale preziatuen pilaketa, eta aberastasunak konpetidoreen onerako ez eskapatzea, horra-haien ardura nagusiak. Arautasun gehiegizko neurri mordo izugarri batek osatzen zuen sistema ultraeskusartzaile hau.

Patronatuak eta Inkisizioak erregearen boterea biribiltzen zuten kontzientziengan eta erlijioan erregearen eragin osoz Kristoren

Bikario batek bakarrik egin zezakeen bezala. Erregeak izatez Elizako buruzagiak ziren beren erreinuetan; kanon sakratuen jagoak eta eliz administradoreak ez ezik, “Erret Pasearen” bidez beren aburupuan zegoen Aita Sainduaren hitzen berri jakitea bera ere beren menpeko katolikoen artean. Ofizio Sainduak, bere aldetik, fedaren batasunez gainera, erregeei ondasun pila ederra zekarkien, herexeei konfiskaturik.

Menpekoen ohorea bakarrik geratzen zen erregeen absolutismotik salbo. Isabel erreginak —bere boterea bermatuz— erregeak erreinuen jabeak zirela esan zuen; botere moztugabe eta mugagabezko panorama honen barruan, partikularren eskubidea ondasun inobleetara erregearen esker edo mesedean oinarritzen zela azpimarkatzen zen. Askatasuna bizia ere ematen duenaren mesede bat da. Ez dago eskubide pertsonalik ez garantiarik absolutismoaren barruan. Praktikan indibiduorik egon ere ez dago estatuaren ahalguztiaren aurrez.

Absolutismoak bere gisako ordenua jartzen du Amerikan. Ez pentsamendu askatasunik ez espresio askatasunik; hauk ez permititzeko erregearengandik zetozen bi instantziak arduratzen ziren: zentsura zibila eta administratiboa eta zentsura erlijiosoa. Ez ibiltzeko askatasunik ez egoitzarik jartzeko; erregeak berariz baimendu behar zuen dena eta edozein bidaia edo lekualdatze baita probintziatik probintziara ere. Ez zegoen lanerako askatasunik ere, hainbat mozketara xehe baitzegoen bigente profesio eta lanbideetara, hauen ikasketa edo trebakuntzara eta ihardunketara heltzeko. Ez zegoen kultu askatasunik ere; hau —logikaz— Espainiako batasunerako arriskutsuena zen; juduen egozketa 1494-n dekretatu zen Espainian; hamar urte geroago musulman eta bihurtuena manatu zen, Gastelako mudejar zaharrak barru, eta 1609-n moriskoek egozketa izan zen. Protestanterik ez zen toleratzen; hauen kasuak eta juduzale batzurenak, Amerikan Inkisizio lanaren gainagusia ziren. Absolutismo monopolistaren barruan, ez zegoen salerosketa ez itsasketa askatasunik. Carlos III-k dekretatu zuen merkatal ukatasuna, Carlos IV-k permititu zuen —1797-n— un-tzi ez espainiarrak Amerikako portuetara etortzea.

Sistema absolutista hitz batez sistema totalitarioa zen, zeinetan gainera koroak bere funtzionarien bidez zerga gehiegizko ko-

brantzak egiten baitzituen bere burokrazi eta militar premia gehikorrak kitatzeko.

Absolutismoaren bereizgarri propiotzat gogarazi behar da, bere dudagabeko legetasunaren eta bere pentsakera normatibora egokitzearen barruan, eskubide politikorik eza nabaria dela. Agintariak ez dira gizarteak nahi dituenak eta eman ahal dituenak, erregeak hautatzeko gogoia duenak baizik. Amerikan zeuden posibilitate erabakitzaile bakarrak kabildoak ziren —autonomia erlatiboz baina udal hesparruan bakarrik— eta kontsulegoak —merkatal eta pizkuntz adarrari lotuak— criolloak, mugaketa handi gabe, sartzen ziren organismo bakarrak. Amerikarrak gobernuko goi erantzukizunetatik kanpora zeuden beren lurrian. Manuel Palacio Fajardok, ikerketa harrigarri eta xehe baten ondoren, zertifikatu ahal izan zuen “lehen kolonikuntzen garaitik 1810-raino, espainiar Amerikan izendaturiko 166 erretorde eta 588 kapitain jeneral, gobernadore eta presidentetatik (hau da, 754 goren funtzionarioetatik) 18 criollo bakarrik daudela” (2) Amerikarrak bigarren mailako pertsonak ziren beren herrietan; preferentzia —esan den bezala— itsasoz handiko jendeak zeukan osorik. Simon Bolibarrek honela juzkatuko du egoera hau: “Amerikako hemisferioko bizilagunen egoera mendeetan zehar pasibo hutsa izan da: haien esistentzia politikoa hutsa zen. Morrontzaz beheragoko mailan geunden gu. Amerika bere askatasunik gabe ez ezik, etxe tirania aktiboaren azpian zegoen. Zegozkigun eskubideak kenduz gainera, salerosgo publikoetan betiko haurtzaroan usten gintuen jokabidez iraintzen gintuzten. Amerikarrek ez daukate gizartean lanerako morroiak izateaz beste lekurik, eta gehien jota ere, kontsumatzaile soilak; eta arlo hauxe ere mozketa harrigarritz mugatua. Gobernu zientzia eta estatu administrazioari dagokion arloan mundutik aparte eta bazterturik geunden. Ez ginen inoiz erretordeak ez gobernadoreak, arrazoi oso apartekoengatik izan ezik; artzapezpikuak eta apezpikuak oso gutitan; diplomatikoak inoiz ere ez; militarren menpeko gisa bakarrik; nobleak erret pribilejio gabe; ez ginen, azkenez, ez magistratuak ez finantzariak, eta ia inoiz ere ez merkatariaik”, I-164, 165, 166.

(2) Palacio Fajardo, Manuel: *Bosquejo de la revolución en la América española*, 16 garren o.

Lehen azalduriko gauzen egoeraren kontra esan liteke Amerikako izpiritu errebeldea Aurkikundetik bertatik nabari dela. Mestizaia eta errebeldia era baterako fenomenoak dira, esklabutza eta erresistentzia era batera gertatzen dira Amerikan. Praktikan ez dago hemisferioan leku bakarrik, 1800-n, askatasunaren edo jutziziaren alde odolik isuri ez denik. Lekurik desberdinenetan, garairik desberdinenetan, amerikarren duintasunak —biziaren ordezen bazen ere— ekinkor eta sendo jokatu zuen.

Amerikako herriek ez zuten beren askatasun ikasketa egin XVIII garren menderako zabal zebiltzan ideologoen textuetan —yankiak, frantsesak eta ingelesak—. Ez zen izan Parisko enxenplua —Bastillaren harpena, errege kapetoen exekuzioa, aintzinako ordenuaren desagertzea— burrukarako argitu eta suzatu zituen. Amerikak ez zuen behar ezein doktrinari kanpotarrek ez ezein inspiratu jacobotarrek justiziaz hitz ziezaion.

Amerikako herriak sakrifizioaren bidez ikasi zuen askatasuna maitatzen eta bilatzen, hura lortzen saiatzea zenbat kostatzen zen begiratu gabe. Bolibarrek kontinentearen independentzia eta askatasunaren aldeko arrazoi indartsu bat haik ukatzen zituen iturrian bertan seinalatuko zuen: horregatik hitz egin zuen “Espainiako legeek berek eta hango historiako enxenpluek harmaz berrartzeko arrazoa zemaiguten” independentziaz eta askatasunaz, II-1130. Mirandak, lur bereko adierazle bikainak, esan ahal izan zuen: “Ni askatasunaren alde ari nintzen Frantziak hartaz pentsatu baino askoz lehenago” (3).

Askatasunaren, justiziaren eta berdintasunaren aldeko amerikarren burruka gogoan ageri den gertakarien kronika aberatsa eta askotarikoa da. Adibiderik argienak gogaraz litezke.

1501-n La Españolan beltz esklabuen matxinada gertatzen da. 1519 eta 1533 artean Enriquillo indioaren matxinadak dira Santo Domingon; bertako arraza ia ezereztua izango zen Cariben. 1534-rako, bertakoen erresistentzia bizia izango zen Chileko Araucoko gerretan; kopuruzko erlatibotasunen barruan, hegoako hekatonbe

(3) Parra-Pérez, C.: *Historia de la Primera República*, Igo t, 121 garren o.

hau caribetarrek iparrerago beren itsas irla eta kostaldeetan zeramatenaren antz antzekoa zen. Perun, 1536 inguruan, Manco II-k ehun bat mila indio matxinatu dauzka; hala ere, espainiar nukleo tikien nagusitasun kultural eta teknikoak espainiarrak menderaezinak egiten ditu.

Venezuelan, paper zaharrek diotenez, 1532-n esklabuen matxinada bat izan zen Santa Ana de Coro hiri sorberrian. Ondorengo agerpena askatasunaren eta justiziaren alde: Miguel Beltzaren matxinada 1552-n, Buriako meatzetan, Yaracuy aldean. Inken alderdian dardaraldi gogorrak daude: Tupac Amaru 1572-n hiltzen da; sei urte geroago Quiton sorturiko matxinada saio bat Chileraino hedatzen da. Hain pizturik zegoen herrialdea non, 1577-n, Drake pirata Callaorantz doanean, inguruko beltzak harngana hurbiltzen eta laguntzen saiatzen baitira. Handik nahikoa hurrun, Mexicoko iparrean —Topian— matxinada batek leher egiten du. Hawkins korsarioaren ibilera ozarretarako, Cariben zehar, urte ederra da 1597-koa.

XVII garren mendean zehar, maiz ageri dira ukapenezko agerpenik desberdinenak oraindik orduan, gure herrietan zehar, enbrioialdian zegoen sistemaren kontra. Huilatik Tolimara bitartean pijaok altxatzen dira 1601-n. Panaman antzeko astinaldiak dira 1608-n, Mexicon 1612-n. Indio menperatuek espainiarren kontra Perun daramaten gerra aktiboan, burruka bereziki bizia da 1625-n. Liman eta Chile iparrean antzeko mugimenduak ari dira 1629-tik 1630-ra. Tucumanen 1645-n eta berriro hamar urte geroago, lisakar gogorrak ari dira. Chillán hautsi egiten dute 1651-n. Liman barruko matxinaden mehatxuak sortzen eta gihartzen dira 1666, 1675 eta 1676-n. Mexicon beste hainbeste 1692-n.

XVII garren mendea Venezuelan ekin handikoa da. Azterketa azal batek adierazten du zer elkarren atzean doazen gertaerak. 1603-n, Margaritan perla arrantzan ari diren beltzak matxinatu egiten dira hartzen duten tratu ezgizakorren kontra, matxinada Cuman-go kostaldera zabaldurik. Nirguan “erreboluzio” bat desegiten dute 1628-n; erregearen agintariak ezin zuten indarrez menperatu “koloredun” maioria, zeinek azkenean erregearen begiramendu berezia irabazi baitzuen eta bere gogara antolatatu ahal izan zuen burlaz “hankokerren eta mulatoen errepublika” deitu zena. Zenbait beltz zimarroï talde hara hona dabilta, 1650-n, Tuy-ko haranetan eta

Charallave, Yare, Pariaguán, Paracotos eta La Guairako inguruetan zehar. Agintariak buruen exekuzio sumarioaz gainera, zigor drastikoak ezartzen dituzte erreboltariei laguntzen dieten hauzo libreentzat. Sakaila kanpaina sistematiko gisako batetan aiturik, talde caribetarrek eta otomacoek, Chiparara jauntxoak buru zutela, 1552-tik 53-ra bitartean, Espainiaren kontrako azken burruka masiboak egiten dituzte Guaricoko lautadetan zehar. Carora-n eta Monay-n, 1671 eta 1677 garren urteetan, agitazioa da nagusi.

Zer dute elkarrekin ekintza guzti hauek? Gizarteko behe estratuen partehartze ebazkorra eta batez ere menperatuena: indioak —basailutza hausten hiltzeko bokazio argiz, beren aintzinakoen-gandiko menpetasuna baino mila bider gorrotagarriago zitzaien basailutza noski—, beltzak, nabarrak —mulatoak, mestizoak eta hankokerrak—. Burrurak bere mila alderdiz eta eraz ere, helburutzat beti hauxe dauka, alegia, barne indar eustezina den errebeldiaz markaturik, egoera makurregirik onartu nahi ez dutenen erreibindikazioa (soziala, ekonomiakoa, kulturala eta politikoa).

XVIII garren mendean subertsio ekintzak helduagoak dira. Gizarte eta ekonomi motibapenez gainera, arrazoi politikoa azaltzen da. 1721-n criolloen matxinada bat lehertzen da Paraguayan eta garaile ateratzen. Antequera magistratuak gidatu zuen erretordearen kontra; Gobernu bat jarri zuten hamar urte iraun zuena komunariak lagundurik; mugimendu hau 1735-n birrindu zuten. Bost urte lehenago, Cochabamban, Alejo Calatayud platergilea zergen kontrako altxakunde baten buru izan zen. Zerga kargen eta erregelamendu administratiboen kontrako protesta garaia da. “Errege berria eta lege berria” oihuztatzen dute. Mugimenduak criolloenak dira; geroago, dio Carlos Pereyrak, “herri bakoitzak Colon aurreko gorespen hurrun batetan aurkitu du bere asmo nazionalen sorburua” (4). Toki bakoitzak bere izenburua duke: aztekatasuna, inkatasuna, araucatasuna, mosquetasuna, caribetasuna, natibismoa —Brasilen—, siboneyismoa...

Gipuzkoako Konpainiak Venezuelan, aberatsei kaltegarri zaien merkatal monopolioz, eta kontrabandoaren errepresio indiskriminatuaz, horrela pobreak izorratuz eta denei ukituz, venezuelar ko-

(4) Pereyra, Carlos: *Breve Historia de América*, 367 garren o.

lonietako gizarte maila desberdinen lehen lehen fronte unitaria lor-tzen du. Andrés López del Rosario valentziar hankokerrak, Andre-sote gisa hobeki ezagunak, 1732-n euskal partzuergoaren kontrako gerra hasten du; ekintza Yaracuy-ko haranetan eta Puerto Cabe-llo eta Tucacas-ko itsasaldean lekutzen da, kontrabandisten ingu-rua bera holandarren eragin handia zuena. 1741-n San Felipeko motina gertatzen da; atxakia jurisdikzio desakortasun bat bazen ere, motina koloniako ordenu guztiaren kontra doa, zeinetan criol-loak gipuzkoar enpresaren ezarpenak onartzera behaturik bai-taude.

Tocuyon 1744-n matxinada garrantzitsu bat egiten da probin-tziako gobernuaren eta haren ordezkari lokalen aurka. Gorabehera honexen barruan sortzen da eta lehenengoz aipatzen, hitz juxtua erabiliz, “Aberriaren” errealitate berria. Hitz hau ageri da Tocua-yotar zaldun batzuk gobernadoreari emaniko txostenean, jendetza altxatuaren aurrean martxa justifikatzeko airatu zituzten hiru arra-zoiak izendatuz: “Gure erlijio katolikoaren defentsa, gure Errege eta Jaun berezkoaren zerbitzua eta gure Aberriaren defentsa” (5). Sei urte geroago, Yareko lurretan, Miguel Luengo Beltzaren ma-txinada itotzen dute, Erret zedula bat badela diote orduan eskla-buen askatasuna agintzen duena baina ugazabek gorderik daukate-na. 1749-n berotasunak segitzen du Tuyko tontor eta lurretako bileretan; Manuel Espinosa beltza, zirikatzailetzat joa, exekutatu zuten.

Konpainiak sorturiko berrogeitamar urtetako burruka panora-maren barruan, gertaerarik handiena Juan Francisco de Leon-en matxinada da 1749 eta 1751-n. Berrero airatzen da Aberriaren ideia hasberria; Nicolas de Leon-ek aipatzen du orain —kanariar liderraren seme solidaria bera eta Caracasen jaioa—. “Geure abe-rria defendatzeko obligazioan gaude, zeren ez badugu defendatzen, guzti hoi- en esklabuak izango baikara” (6). Behin eta berrero Tuy-ko lur emankorrak ekintza subertsiboen mindegiak dira; 1771-tik

(5) Felice Cardot, Carlos: *Rebeliones, motines y movimientos de masas en el siglo XVIII venezolano*, 204 garren o.

(6) *Documentos relativos a la Insurrección de Juan Francisco de León*, 88 garren o.



1774-ra Guillermo beltzak, Marcos Ribasen esklabuak, koloniako agintariak xakean dauzka handik.

Andresote Venezuelan burrukatzen zen bitartean, Juan Vélez de Córdoba Oruron ari zen zergen kontra eta inkatar errejimenaren birrezarpenaren alde Castrovirreina eta Cotabambas eta plebe ugaria ere matxinatu ziren. 1742-tik 1761 arte Peruko gerrilero Juan Santos Atahualpa etengabe ari zen bere burruka heroikoan. 1750-n Manso de Velasco erretordeak entseiu bat itotzen du Liman. Orduan Amerika guztia zegoen irakiten. 1755-n errebolta bat sortzen da Kuban. Hegoan: Araucoko gerra berriro 1766-n. Iparrean: jesuita zaleek istiluak sortzen dituzte Mexicon, 1767 eta 1768-n. Urte hauetan zehar erreboltak ugari dira Quiton, Chilen, Nueva Granadan, Perun, aduanaren eta pattar estankuaren kontra, zergen kontra, funtzionarien kontra. 1778 eta 1784-n mugimenduak daude Buenos Airesen. Kontentagaitzek Puebla, Guanajauto, San Luis de la Paz, San Luis de Potosí eta Patzcuro ere astindu zituzten. Geroago fenomeno berbera zabaltzen da Peruko herrietan zehar: Cuhmbivilcas, Urubamba, Llata, Lambayeque, Conchucos, Huarás, Yungay, Huancavelica, Pasco, Arequipa eta Cuzco.

Aparteko aipamena merezi du José Gabriel Condorcanquik gidaturiko erreboltak itzelak. Honek bere buruari Tupac Amaru deitzen zion, Toledo erretordeak bi mende lehenago exekutatuturiko inkaren ohorez. Hirurogei mila gizon militarizatu zituen mitak abolitzeko, obrajeak hersteke eta banaketak debekakatzeko ideia-
ren atzetik. Haren itxurazko boterea hain hedatsua izanik ere, Peruko alderdi handi bat Tucamaneraino harrapatzen baitzuen, organizatorik eta diziplina militarrik ezak ezerezera ekarri zuen tropa tikiago bat jarki zitzaionean. Buruzagia zatikaturik hil zen 1781-n. Haren lehengusu Tupac Incak errebolta urte pare bat gehiago luzatu zuen. Hegoako erretordeak irakiten zeuden: Carlos Nina Catari-k La Paz eta Sorata setiatu zituen. Beste Catari batek Chayanata asaltatu zuen. Tupac Amaruren jarraitzailerik ugari izan zen beren justizia eginez: Jacinto Rodríguez Oruron, Diego Cristóbal, Condorcanquiren anaia; Mariano, Cristóbalen semea; Lusi Lasso de la Vega Tupizan; Julián Apasa (Tupac Catari), Alejandro Calisaya, Pedro Vilcapasa, eta beste asko gehiago.

Kidetasun izpiritualengatik eta faktoreen berdintasunagatik, Peruko gertaerek eragin handia eduki zuten Hegoamerikan. Nueva

Granadan Sokorruko Komunarien mugimenduak leher egin zuen. Herri horretan José Antonio Galanek eta Juan Francisco Berbeok gidaturik, jendetza zergen kontra elkartu zen eta lortu gero bete ez ziren “Zipaquirako Kapitulapenak”; errebelde hauen gestak Gastelako komunariena gogarazten du bi mende lehenago. Manuela Beltrán socorrotarrak piztu zuen sua hain zerga gorrotatuak ezartzen zituzten textuak hautsiz. Lau urte geroago —1782-n— hil zen Galán urkabeen beste hiru lagun zintzorekin.

Berriro ere kutsapena. Santa Feko Erretordetzatik Venezuelako Andeetara zabaldu zen matxinada eta Trujilloraino heldu zen. 1781-ko ekainean eta abuztuan Táchira, Mérida, Maracaibo eta Trujillo aldeak astindu zituen benetako zalaparta onda bat zen, herri erreibindikazio jatorrezkoa, berriki eraturiko Kapitantzaren Jeneral gutzira zabaldu nahi izan zuena. Matxinada jendetsuaren buru, masek beren “Komandandate Jeneralizat” hautaturik, Juan José García de Hevia zegoen. Erreboltaren lema zen “Gora Erregea, behera gobernu gaiztoa”, eta haren helburua petxen eta eskubideen kenketa, biltzaileek denak hoiekin itorik baitzeuzkaten. Guduxka hura Trujillon bukatu zen Kabildoak Meridako kapitain komunarietako laguntza ukatzea erabaki zuenean; ordurako mugimendua Barinas eta Zuliarantz zihoan.

Caracasako mantuarrak ere haserre ziren beren interes ekonomikoei ukitu zieten neurri batzurengatik. Haien ondoezak aldakuntza politiko bat pentsatzeraino eragin zien. 1781-ko uztailean Juan Vicente de Bolívar y Ponte-k —berrogeitamabost urte zituela— Francisco de Mirandari —hogeitamar urte egin barri hau— idazten dio nolako tirania jarririk duen Caracasen Erret Haziendako Intendente Juan de Abalosek, aristokrata lokalen ustez.

Hurrengo urtean, Simon Bolívar jaio baino hamazortzi urte lehenago hain zuzen, don Juan Vicentek berak, Martín de Tovar eta Mijaresko markesarekin batera, berriro ere Caracastar jadanik hospetsu hari askatasunaren ideia berretzen dio. Hirurak eskaintzen diote beren herikide gazteari beren “buruzagitzat” segitzea eta “gauza handi eta ohoragarrietan beren odolaren azken tantaraino” isurtzea (7).

(7) Miranda, Francisco de: *Archivo*, XV garren t., 68 garren orr.

Hainbeste eta hain askotariko gertaeren zerrendatik, hispano-amerikar munduko mugagabetasunean zehar, garbi ageri da zer luzea eta etengabea zen askatasun, justizia eta berdintasunaren aldeko burruka. Gertaera guzti hoietan eta bakoitzean, zehaztasun gehiagoz edo gutiagoz, gogo bakar bera eta makurgaitza dago, basailutzaren kontra eta sakrifiziorako prest, burugogor koloni sistema bere karga ahulgarri guztiarekin onartzeko. Erabakia argi dago hainbeste buruzagi eta hainbeste segitzailerengana, nahiz eta ezosoki eta amarrugabeki agertu eta batzutan adierazpen jatorrik lortu ez. Ekintza haietariko bakoitzak pizgarri historikoaren eginkizuna bete du; frogatu du ez zela lasaitasun alkahueterik izan kolonialismo esklabista, bidegabe eta despotikoarentzat. Errepresioa inefikaza gertatu zen. Inork ez zuen atzera egin; Destino baten haro funtsezko bat betetzen ari zen.

EKINTZA DATOR

XVIII garren mendeko azken hamarrurteak Aitzindarienak dira. Francisco de Miranda, José Joaquín da Silva Xavier, Juan Pablo Viscardo y Guzmán, Francisco Eugenio de Santa Cruz y Espejo eta Antonio Nariño goienetarikoak dira.

Miranda (1750-1816) amerikar nazionalitatearen definizio katean maila funtsezkoa da. Berak hasten du caracastarren hirukotea, mende bat inguruan jarraitasun kronologiko harrigarrian, kontinenteko lehen planua betetzen duena: Miranda, Bolibar eta Bello. Bera da proiektio unibertsaleko lehen criolloa. Ez zuen haren aurretik inork hain garrantzia handiko mailarik harrapatu haren garaiko naziorik garrantzitsuen eta aurreratuenetan.

Mirandaren kotsakrapenak Latinamerikaren independentziara hasgune jakin bat dauka berak konkretatzen duenez: Estatu Batuen emantzipazioaren alde burrukatzen ziharduela, dio: “ene ari-man erne zen lehenengo zera neu jaio nintzen lurra askatzeko gogo sutua zen, ez bainintzen orduan Hegoako Amerikari aberria deitzen ausartzen” (8).

(8) Mancini, Jules: *Bolívar y la emancipación de las colonias españolas*, 160 garren orr.

Mirandarengan dago kontinente iraultzaren epizentrua bezalekoa. Haren inguruan leku txit desberdinetako gizonak daude, fede berean anaiturik: hala O'Higgins, zeinek 1828-n gogarazten baitu: "Mirandari zor diot ene Aberria salbatzeko iraultzara jaurtiki ninduen inspirazioa" (9); han daude Peruko José el Pozo y Sucre, Antonio Nariño eta Pedro Fermín de Vargas neogranadarrak; Pablo Olabide, Manuel José Salas; Pedro José Caro Cubatarra; haietariko asko masoiki hasirik daude "Amerikar Batzarre Handia" logian, zein berak Londresen fundatzen baitu, eta zeinetakoak baitira baita Simon Bolibar ere, Bello, aita Servando Teresa de Mier Mexicotarra, José de San Martín argentinarra, Carlos Montufar Quitotarra, Vicente Rocafuerte Guayaquildarra; Bernardo Monteagudo eta Mariano Monreno Rio de la Platatarrak. Haren berriemaileak Mexicon, Caracasen, Guatemalan, Rio de Janeiron, Buenos Airesen daude. Denak ditu herkideak.

Venezuela askatzera datorrenean, Mirandak Amerikan pentsatzen du. Bere jendeari, berak "Hego Amerikako Herri Librearen zerbitzurako Colombiako Harmada" deitzen duenari, zin egiten dio eta zin eragiten —Jacmelen— "zintzoa eta leiala izan Hego Amerikari, Espainiatik independentea, eta hura zintzoki eta leialki zerbitzatu bere etsai eta kontrako guztien aurka" (10). Hego Amerika Hispanoamerika izendatzeko modu bat zen. Garai hartan Texas eta California, iparreko mendebal muga hispaniarrak ziren, Canadá desertu berdezuri eta jelatu bat, Estatu Batuak beren batasun federala entseiatzen ari ziren hamairu kolonien ipar atlantikoko zerranda espermental bat; Mirandak, eta hark bezala beste aitzindari guztiek, ez zuen beharrezkotzat jotzen bere Amerika zein zen argitzea. Garai hartan ez dago bat besterik: hispaniarra, gurea. Mirandak proiektu zehatzak zekartzan Amerika Berrirako, haren ideia batzu luzeago agertzen dira Picornell, Gual eta España bezalako garaikideengan; haietarik asko izango dira Bolibarrenak eta honek bete eraziak, hala Colombia egiteko asmoa.

(9) Ugalde, Pedro: *Presencia y magisterio de Miranda en la revolución chilena*, 47 garren o.

(10) Biggs, James: *Historia del intento de don Francisco de Miranda para efectuar una revolución en Sur América*, 37 eta 38 garren o.

Brasil gigantean paper historiko handia jokatuko du José Joaquim de Silva Xavierrek (1748-1792), Tiradentes ezizenez ezagunak. Iraultzareen sorburua, gainerako Ameriketara bezala, zerga bilketan Portugalgo monarkiaren zorrotasunean datza. Ondoz horretatik Brasilen errepublika independente baten sorrera inkluditzen zuen programa oso bat taxutzera jo zen; bandera zuria izango zen Virgilioren bertso batekin: Libertas quae sera tamen. Zergari atzeratuen zorrak desegintzat jo ziren; esklabutza abolituko zen; merkatal askatasuna egongo zen, herriarentzat eskolak sortuko ziren eta lantegiek metropolitik inportatzen zen guztia produzituko. Estatuari zegoekiokoen bost seme alabatatik gorako gurasoei laguntzea. Konjuratuen oihua “Viva a Libertade” izango zen. Tiradentes zen berrikuntz ebanjelio honen predikaria.

Konspirazioa ustel atera zen eta buruzagia atxilotua eta bere burkideekin batera epaitua izan zen. Heriotzara kondenatu zuten eta harexen epaia izan zen erreginak konmutatu ez zuen bakarra. Tiradentesen exekuzioa 1792-ko apirilaren 21-n izan zen; Erretordeak erarik nabarienez egiteko agindu zuen. Hala gertatu zen. Haren irudi apostolikoak eta haren kausa zuzen baten banderadun exenpluak betiko bizirik mantentzen erazten dute haren herriaren ariman.

Perun ere bada aitzindari bikain bat: Juan Pablo Viscardo y Guzmán (1748-1798), Arequipako jurisdikzioan jaioa. Gaztetan jesuita eta gero kongregazio hospetsutik bidalia, kolonikuntzaren kritikari gogorra izan zen. Harentzat Amerikako hiru mendeak “lau hitzatar bil daitezke: eskertxarra, injustizia, morrontza eta hondamena”.

Espainiaren kontrako altxakundeek Amerikan, baita ingeles ahaleginek Argentinan sartzeko, zirrara egin zioten Viscardori. Peruren independentzia asmatu zuen eta hamar urte geroago, bere “Espainiar Amerikarrei Eskutitza” hospetsua idaztean, bere asmoak hispanoamerikar kontinente osoaren emantzipaziora zabaldu zituen.

Viscardoaren bitartez adierazten dira penintsulakoek hain arbuaturik zeuzkaten criolloen erresuminak. Haren eskutitz txit zabalduan —lehenengo frantsesez argitaratu zuen, amerikarren arrazoiak Europan zehar hobeki dibulgatzeko— eraso sutsu bat dator kolonikuntzaren injustizia funtsezkoen kontra. Bere hizketa za-

balez, eta oso finko bere arrazoiketa ezeztagitzean, bururik desberdinenak argitzen eta iharosten ditu. Haren kritika esklabutzari eta isolamenduari, metropoli lotsagabearen onura egoistarako hemen jasaten den esplotazio apalgarriari, kontzientziarik axolaka-beenetan ere sartzen da. “Gure aberri zorigabea alderik alde zeharkatzen badugu, nonahi aurkituko dugu hondamen berbera, zi-koizkeria hain neurrigabea bezain aseezina; nonahi injustiziaren eta desgizakeriaren trafiko nazkagarria gobernuak, gure zapalkuntzarako, enplegaturiko izainen aldetik”.

Francisco Eugenio de Santa Cruz de Espejo da (1747-1795) Ecuadorren Independentziaren aldeko lehen aurrelari historikoa. Hiru odoleko mestizoa zen, gizon harrigarria noski. Mediku, legetari, filosofo, teologo, kazetari eta idazle gailen. Honek ere Amerika unitatetzat jo zuen; haren iraultz plana orotasunari begira ze-
goen, eta honen aldekoa zen bete betean.

Amerikarrentzat autonomia eta autodeterminazioa aldarrikatzen zituen, espainiarrak sakailatu eta pertsegitu beharrik gabe, zeintzuri politikan zeuzkaten goi aulkiak kentzea bakarrik nahi baitzuen. Espejok kleroaren nazonalkuntza proposatzen zuen eta eliz ondatsun gizenen desjabe-keta nazioaren onerako. Kolonialdiko hiru mendetan zehar, Ecuadorren, ez dago mestizo honen parekorik. Pertsekuzio izugarriak jasan behar izan zituen. Espejoren ikasleek eta jarraitzaileek 1809-ko Abuztuaren 10-ko egun goragarria prestatu eta burutu zuten. Egun hartan Quitoko abertzaleek herriaren nagusigoa berhartzea erabaki zuten, gobernu aldatzea espainiar agintariak kendurik eta goren biltzarre bat jarri penintsulatik independentzia osoz aginpidea erabiliko zuena. Espejoren sufrimenduek eta abuztuaren hamarreko abertzaleen martirioak, doilorki asasinatuak hauk, haien herri epopeiaren kalitate bikaina hilezkortzen eta goratzen dute.

Don Antonio Nariñok (1765-1823), Santa Feko Erretordetzan, Bolibarrek gidatuko duen aldakuntzaren aitzindari, lan handi bat betetzen du. Nariño, Mirandaren laguna, hau eta Espejo bezala, kultura handiko eta sentimen zoliko gizona zen. 1794-ko abuztuan Giza Eskubideen testu frantsesa eskuetaratu zitzaion; Nariñok itzuli eta bere jabegoko inprimategi batetan atera zuen. Handiki honen etxea, Bogotan, aldakuntza politikoa eztabaidatzen eta prestatzen zuen intelektualaria criolloaren bizitokia zen.

Nariñok ere kasu honetan agintari kolonialistek ezarri ohi zuten gogorkeria jasar behar izan zuen; ondasunak konfiskatu zizkieten eta bera hamar urtetako presondegira kondenatu Afrikan. Aitzindari guztietatik bera izan zen berak enbrioiari bultzatu zuen independentzi mugimendua garaile ikustea lortu zuen bakarra.

Rio de la Plataren eta Peruren emantzipazioaren alde, Antonio de Prado ari da lanean, 1782-n. Era berean ari da Independentziaren alde Francisco de Mendiola Mexicotarra. Halaber hispano-amerikar independentziaren aitzindari edo eragile da Juan Jose Godoy y del Pozo Chiletar apeza.

Hemeretzigarren mendearen hasierarako, Simon Bolibarrek oraindik hogeitau urte ere ez ditueneko, Venezuelak ekintza beroekin aberasturik dauka askatasun eta justiziaren aldeko bere burruka esperientzia. Jose Leonardo Chirinosok garrantzizko altxakunde bat gidaturik zuen jadanik Coron. Haziendako funtzionari baten jokaera jasanezinak sor erazi zuen alderdi hartan erreazio odolezko hori. Chirinosen Coroko beltzenganaino heltzen dira Frantziako Erreboluzioaren eta Haitiko Jacobotarren gestaren oihartzun eragileak. Coron berek aldarrikatzen dituzte, esklabuen eta zerga gorrotagarrien askatasunez gainera, askatasun, anaitasun eta berdintasunaren printzipio politikoak —“Frantsesen Legea”— eta Errepublikak jartzearen alde ere azaltzen dira.

Chirinos bere epaikarien eta hatzemaleen epaiaren zain zegoela oraindik, La Guairan, La Golondrina posta-bergantina sartzen da, 1796-ko abenduaren 3-n, untzian dakarrela Juan Bautista Picornell Estatuko hobenduria, zein izango baita Venezuelako ondoen prestatutako iraultza mugimendu erabat independentistaren moldatzailea. Portu horretan bada subertsio gogorik 1794-tik. Picornellek berehalaxe bat egiten du Manuel Gual eta Jose Maria Españarekin. Leku lekura eta puntu puntuan heltzen da iraultza sortzeko.

Konspirazio honetako obra nagusia Picornellek idatzirik ordantza-konstituzioak dira. Han dago mugimenduaren idearium guztia. Bere planteiamendu guztien argitasun osoz, independentzia politikoa deklaritzen da. Venezuela errepublika federal eta demokratiko gisa antolatuko zen; balio nagusiak legea, justizia eta askatasuna izango ziren. Berdintasun legekoa ez ezik berdintasun arrazakorik osoena aldarrikatzen da. “Berezko berdintasuna Pro-

bintziako eta distrituetako bizilagun guztien artean; eta Zuri, Indio, Nabar eta Beltzeranen artean elkartasunik handiena egoteko agintzen da, denek elkarri Jesukristorengan anaia gisa begiratuz, berdinak Jainkoarengandik, merituz eta bertutez bakarrik elkarri aurrea hartzen saiatuz, hoik baitira gizonetik gizonera dauden eta aurrerantzean gure errepublikako lagun guztien artean egongo diren benetako eta egiazko bi diferentzia bakarrak”. Deklarazio honekin bat eginik “Esklabutza, jakina, aboliturik geratzen da gizateriaren kontrako gisa” (11).

Venezuelako proiektu bat bada ere —erdigunea La Guairan duela eta adarrak Caracas, Carúpano, Valentzia, Perto Cabello, Barlovento eta abarren— Kontinentearen erreibindikazio jitea behin eta berriro agertzen da. Erdiguneko printzipio bezala, Amerikaren batasunari ekiten zaio. Honela 1782-n Mirandarengan susmatu zen ideiak hemen bere aurreramendurik dudagabeena eta eutsiena dauka. Sekula lehenago ez da hain explizitu eta euskor azaldu Amerikako batasun eta anaitasunaren baieztepenik. Agiri, lema, kanta, panfleto, etab. guztiak, den dena, elementu batto ere falta gabe, “Amerikako Herriari” bereziki zuzendurik dago. Entseiu honetatik datorkio, segurki eta hitzez hitz, Venezuelako ideologiarik onenari Amerikako aberriari buruzko pentsakera, Miranda, Bolibar eta Belloren arteko lokarri komunik finkoena izango den pentsakera hain zuzen. Aurrerantzean Venezuela izango da kontinenteko integrakuntza eta elkar ulerkuntzaren gida herria.

Konspirazio miragarri honek, 1797-ko uztailean, lurra jo bazuen ere, ez uste horregatik Espainiako errejimena lasai zegoenik Venezuelako lurretan. Sorzen ari den nazionalitate gero eta argiagoa burrukan ari da herri heldu bati dagokion bezala onar dezaten.

Picornell, Gual eta Españaren ondoren, Pirelaren altxakunde frustratua dator Maracaibon (1799), eta beste eraso subertsibo frustratu batzu Ekialdean. 1806-n, Aberriko itsasertzen aurrez aurre, oraingoan bera pertsonalki, Francisco de Miranda dago, bere emantzipazio lehia asperkaitzez. Pausu bat gehiago da abiada erantzule eta sendo honetan, nazioarteko kooperazio asmoz matazatua,

(11) López Casto, Fulgencio: *Juan Picornell y la conspiración de Gual y España*, 354 garren o. Aurrerantzean honela aipatuko dugu: CFL, —garren o.

1810 eta 1811-ko urte funtsezkoetan bere mamikuntza has hurren dagoen egiteko zabalaren ikuspen jakintsuz eta osoz.

XIX garren mendeko lehen bosturtean Haitiko abertzaleak garraile ateratzen dira, eta 1804-n independienteak dira. Tepic-en (Mexico) Mariano autonomiaren alde burrukan ari da, halaber Villalba eta Sanz Potosi-n.

Venezuelako lurrian, Coroko esklabuen lehen altxakundetik (1532) Mirandak hiri hori okupatu arte (1806) milurte laurden baino gehiago dago nazionalitate bat era ezabagaitzez markatzen duten idealen fede berrituz eta sakrifikatuz. Sail honen azken gertakarietan, haien uztardurak eta gurutzamenduak, eta berdin elkar segidatasunak errelebu historiko bat bezala erakusten dute zuzia eskurik esku pasatuz: Chrinos, Picornell, Gual, España, Pirela, Miranda. Kontinentean, alderik alde, elkarren segidan izan dira erreboltak eta matxinadak, burrukak eta sakrifizioak, adorea eta pairamena; odola eskuzabalki isuri da ordenu diferente baten alde: justizia, independentzia, askatasuna, berdintasuna.

Kolinikuntzak krask egiten duenean eta iraultz indarretan heldutasuna dagoenean, Francisco de Miranda jadanik askatasunaren zerbitzari aspaldikoa denean, Simon Bolibar gailentzen zaigu. Errebeldiazko mundu baten ekintza ernaizko hiru mendetako herentzia hartzea tokatzen zaio. Kezka eta antsia zorro glorios bat osorik heltzen zaio Caracastar honen erantzukizunari. Bera izango da Askatzailea.

2

Nolako eta zertarako gizona

JATORRIA ETA HASIERA

Simon Bolibar amerikar gizonaren adierazpen egin egina da, gure Amerikako benetako gizona sortzen den mestizaia kate trinko eta anizkunaren produktua. Bolibarren giza indibidualtasunean hemisferio honetan gurutzatu ziren arbasoen legio askotarikoa biltzen da. Haren aintzinako espainiar jatorriaren gainean Amerikako giroak berrehun urtetako ekintza etengabearen arrastoa utzi du lehenengo Bolibar, Simon hain zuzen hura ere, Venezuelara datorrenetik —1589—.

Simon Bolibarren izate fisikoan india dagoela esan daiteke, berak odol hau ez bazeraman ere, zeren edozein pertsonari, nolana hikoia izan, giroak, —bere adierazpen diren giza esentzien azaltzaileak— nahi eta ez eta etengabeki eragiten baitio. Gure inguru geografikoan badira elementuak bertakoa moldatu zutenak espainiarrek ezagutu zuten bezalakoa eta gainera hemen gotortzen den edonork beregan sentitu beharko dituenak. Moldaketa hori faktore askoren eragin anizkun eta gupidagabearen ondorioa izan zen, faktore batzu ageriak eta beste batzu ikustezinak ere bai. Guzti hauek india errepresentatzen eta bertako osagarri baten presentzia azaltzen dute baita bertako jatorria edukitzetik hurrun dauden venezuelarrengan ere.

Bolibarren aurrekoengan, aita partetik, Maria Josefa Marin de Narvaez da, Francisco Marin de Narvaezen alaba “sasikoa”, Caracasen 1668-n jaioa eta ama ez ezaguna. Hemendik atera izan da afrikar jatorri apurren bat ere bazuela, kontuan edukirik bere edertasuna eta bere azalaren beltzerantasan dotorea. Simon Boli-

barrek honela, alde batetik, hainbeste belaunalditan hemen finkaturiko bere inguru geografikoaren herentzia hartuko zuen, eta bestetik, afrikar odol zerbait, eta gainera eta batez ere, hartu zuena gastelau, gailego, euskaldun, nafar, portuges, aragondar, andaluz, italiar, aleman, extremeño, asturiar, frantses, katalan, ingeles, hungariar, kanariar, eta abarren bitartez. Arrazoiz dio Salvador Madariagak: “Hirurogei abizenak beste hainbeste sustrai bezala dira nondik baitatozkio Simon Bolibarri mundu zaharreko eta berriko hainbeste familiaren urak haren izatea oroitzapenez eta tradizioz bustitzeko, berak honetaz zeukan kontzientzia bera baino indartsuagoak noski. Ez du Askatzailearen sakonik jo ez haren abiada gorabeheratsurik eta inoiz inkohenterik ulertu lehenengo bere jatorriaren abenida hoik arakatu ez dituenak, haren izatea bere herriko lur historikoan zentratzen zuen jatorria. Zeren edozein gizon, handi nahiz tiki, milaka arbasoen bilduma baita eta, beraz, bere altzoan biziratzen den herri guztiaren laburpena” (1).

Fisikoz, O’Leary-k deskribatzen du: “Bolibarrek bekoki jaso zuen, baina ez hain zabala eta gaztetarik tximurduraz hildotua —pentsalari ezaugarria-Bekain ugariak eta ondo eginak. Begiak beltzak, biziak eta sarkorrak. Sudurra luzea eta egin egina lupu tiki bat eduki zuen bertan ardura handia eman ziona 1820-n desagertu arte marka ia igartezin bat utzirik. Masail hezurak irtenak; Masailak sakonak, 1818-n ezagutu nuenetik. Ahoa itsusia eta ezpainak lodi samarrak. Sudurretik ahora bitartea dezentea zuen. Hortzak zuriak, berdinak, ezin ederragoak; arretaz zaintzen zituen. Belarriak handiak baina ondo jarriak. Ilea beltza, fina eta kiribildua; luze eramaten zuen 1818-tik 1821-ra; orduan urdintzen hasi zitzaion eta harez gero labur uzten zuen. Papiloteak eta biboteak horailak; lehenengoz Potosin moztu zituen 1825-n. Haren garaiera bost oin eta sei hatz ingeles zen. Bular hestua zuen; gorputz mehea, hankak batez ere. Azal beltzerana eta latz samarra. Eskuak eta oinak tikiak eta ondo eginak, emakume batek inbidiatzeko modukoak”, O’L.N. I-491.

Izpirituz bada beste atzerritar baten —inpartziala hau ere, John Robertson kanadar jenerala— balio handiko senblantza bat: “Bolibarrek ez dauka bere herritarretan berdinik, eta are gutiago konpeti-

(1) Madariaga, Salvador: *Bolívar*, Igo t., 48 garren o.

tzailerik. Gizon gutik dauka ohorearen eta fintasunaren sentimendu handiagorik. Haren eskuzabaltasuna eta desinteresa neurrigabeak dira; haren izakeraren ontasuna sinpatia bizten dioten aukera guztietan agertzen da. Haren atseginik handiena, heredatu zuen fortuna galanta zeukanean, behartsu urrikgarriei laguntzea zen. Ez zuen inoiz haien miseriak leuntzea utzi era pribatuz eta delikatuz. Haren gogoia inoiz ez dabil nora ezean, eta horretan salbuespen bakana da. Beste ezein gizonek ez bezalako ahalmena du nekeak jasateko eta eza ikusteko. Gutik dauka hark bezalako iraupenik arriskuaren eta makurraldiaren aurrez; haren eusmenak ez du azkenik. Haren izakeraren kualitate hauk osoki baino osokiago konfirmatuak izan dira neuk pertsonalki ezagaturiko gertaeretan” (2).

Haren haurtzaroko Caracas hiri modesto bat da, Venezuelako probintzia guztien hiriburu gisa estraina berria. Diego de Losada-k 1567-n fundaturik, hiriak Bolibar jaiotzen denean, 1783-ko uztailaren 24-n, hogeï mila bizilagun baino gehitxoago dauka. Han munduratzten eta moldatzen da Juan Vicente Bolibar Ponte eta Maria de la Concepcion Palacios Blanco-ren arteko ezkontza aristokratiakoaren laugarren seme hau.

Bi urte eta erdira aita hiltzen zaio, eta bederatzira ama. Haren hezieraz hirian diren tutorerik eta maisurik onenak arduratzen dira. Haren amak ez zion ezeri begiratu helburu garrantzitsu honetarako. Berak ere badio hispaniar domeinupeko Amerika hartan haur aberatsa bezala hezia izan zela. Hasierako irakaskuntza eman ziotenak ziren Jose Antonio Negrete apezka, Carrasco maisua, Guillermo Pelgron, Fernando Vives eta beste zenbait pedagogo hospetsu; hauen artean bazen Andres Bello ere literaturako eta geografiako irakasle gisa. Baita ere hartu zituen aita Francisco de Andujar kaputxino jakintsuaren m atematika eskolak, zeinek Bolibarren etxean honentzat akademia bat berariz jarri baitzuen. Simor Rodriguez izan zen, ordea, Bolibarren maisurik eragileena. Beste inori ez zion bere haintza eta gailur urteetan hainbeste indar aitortu bere bihotzean; Rodriguezgatik bakarrik esan zuen: “Haren aholkuak eta kontsolamenduak hain indar handikoak izan zaizkit beti”, I-21.

Bolibarren kezken pizgarri eta heraldo, Simon Rodriguez izan

(2) Pi Sunyer, Carlos: *El general Juan Robertson, un pr ocer de la Independencia*, 257 garren o.

zen Askatzailearen maisurik gorena. Bolibarrek Amerika independizatu aurretik, hark —haren “maisu unibertsalak”, I-22—, bere lana egiten du: Bolibarren beraren independentzia laguntzea du, errealitate tradizionaletik deslotu eta etorkizuneko egia hurbil erazten du; sortzaile baten perspektiba berezia lortzeko ahalegi-nean bultzatzen du, bere eginkizunaren zentzua eta dimentsioa in-tuitzen eta historiaren ekintzarako jokoan dauden indarrak kalku-latzen laguntzen dio. Simon Rodriguez-ek laguntzen dio Bolibarri buruonaren eta zentzuaren jabetzat dauden garaikideekin hausten. Hauen ustez Bolibarrek, zentzurik bazuen, bere familiaren goitasu-nari eusten eta hazten saiatu behar zuen, bere eragin eta aberasta-sunaren gehikuntza seguratzeko koloni ordenuaren barruan go-rabidea bilatu behar zuen, eta inoiz ere ez bere bizia zirkun-tantzia arriskugarrietan jarri.

Simon Rodriguez, Caracasko filosofo ezulertuak, Bolibarren ne-rabezaroa lantzen du. Bolibar hark zuzentzen zuen eskola publi-kora joaten zen eta haren etxean ere bizi zen. Gainera eta batez ere irakaskuntza hori intentsoa izan zen helduzaroaren atarian Eu-ropan elkar bizitza mamiko garaietan. Han bien arteko barnekide-tasun sakonera heldu ziren. Rodriguezen izakera independente eta bihurritik ulertzen da Bolibar gaztearen gogoia hain sakon sartzea.

Maisu hauetaz aparte, zeintzuren irakas lana “metodu” zorroz-zik gabe ari baitzen, eta arima kezkatu eta mimatuari dagozkion zirkunstanziek ekarritako irregularitate eta etenekin, Bolibarrek eginiko ikasketa sistematikotzat aipatu beharra dago Matematikak San Fernando Akademian, Madrilen, eta haren sar irtena Soreze-ko “Ecole Royal Militaire”n, Frantziako hegoan, 1802-n.

Madrilen, non Bolibarrek hiru urte egin baitzituen, bere for-mazioko zatirik nabariena eta funtsezkoena egiten du. Espezialis-ta txit jakintsu batek, Manuel Perez Villa profesoreak, dio: “Bere bizitza guztian eramango duen ikas eta irakur leiha behin betiko Madrilen biztu zitzaioala dirudi. Caracasen egin zituen ikasketak Espainian, giro aldakuntzari eta Esteban Palacios-en eragin onga-rrinari eskerrak, ahalegin taiutu eta metodiko bilakatu ziren, har-tan saiatzen zelarik zeukan borondate miragarri hura” (3).

(3) Pérez Vila, Manuel: *La formación intelectual del Libertador*, 48, 51 ga-rren o.

Espainiako hiriburuan Bolibarrek frantses eta ingeles ikasi zituen irakasle kalifikatuekin, bere ordezkari Jeronimo Ustariz y Tovar markes jakintsuaren begipean, tratu amoltsu eta zabaleko agurea hau, zientzia moral eta politikoetan ezagutza handiko gizona. “Bolibarrek Madrilen —dio Perez Vilak— harma karreran ari diren bere denborako gazte aristokratikoei dagokien heziera hartzen du. Urte hoietan zehar, bestalde, ikasteari afantsu eta gogotsu ekin arren, bigiretara eta gaubeiletara ere joaten da dudarik gabe, teatrora eta inoiz Gortera ere bai” (4).

Gaineratu beharra dago Bolibarren formazioaren erantzuleak ez zirela ezagutza teorikoez bakarrik arduratu; Askatzaileak haur haurretarik esgrima, zaldiketa eta dantza eskolak hartu zituen. Gerroago berak goretsiko zituen halako ardura anizkun eta banandu haren abantailak. Intuitiboki haik hezieraren kontzepturik osoenara hurbildu ziren, eta beste bide batzutatik gehituko zen nortasun integrala eratzera jotzen zuten.

Berez Bolibarrek jeinu kalitatea darama soinean, sistemaz ikusi eta irakurri zuena baino askoz gehiago sortu baitzuen. Irakatsi zitzaiona baino gehiago zekien. Haren buru harrigarria aho batez aipatu dute haren kritikari, ikertzaile eta ikaslari ugari guztiek.

MUNDUTIK ETA LIBURUETATIK ZEHAR

Simon Bolibarren beste heziera iturri garrantzitsu bat bidaiak izan ziren. Aintzinetatik ezagutzen da honen garrantzia izate moral eta intelektuala eraikitzeko. Ez dago bide hoberik pentsaera ulerkor eta jasankorra, kulturaren erlatibotasuna hatzemateteo kapaz den ikuspen perspektibatsua lortzeko, eta beraz, aurreramen-dua errazteko eta dogmakeria baztertzeo. Askatzaileak berak emango zien bidaiei eragin nagusia bere destinoan; 1828-ko maiatzak 10-n zioen: “Pentsatzekoa da Caracasen edo San Mateon ez zitzaizkidala bidaietan etorri zitzaizkidan ideiak sortuko, eta Amerikan ez nuela esperientzia hura batuko ez munduaren, gizonen eta

(4) Pérez Vila, Manuel: *Id.*, 54 garren o.

gauzen estudio hura egingo, nire karrera politiko guztian zehar hain ongarri izan zaidana” (5).

Bolibar hiru bider etorri zen Europara. Arrazoiak desberdinak ziren, baina tazituki helburua bat bakarra zen: esperientziak bilatu eta pilatu, aintza sen bat definitu. Lehenengo bi bidaiak zazpiurte bat daramaiote, kasik iraupen berdineko bi zatitan. Mundu Zaharrera egin zuen hirugarren bisitan, ibilaldi guztian egiten duen urterditik hamaika aste Londresen ematen ditu.

Simon Bolibarren lehen bidaiak, hamabost urteko mutila zela, 1799-ko urtarrilak 19-n hasten du; ikas bidaiak dela esan daiteke. Mexikotik eta Kubatik pasaturik, Espainian kokatzen da eta Frantzia ezagutzen. Madrilan ezkontzen da 1802-ko maiatzak 26-n; hurrengo abuztuan Caracasera itzultzen da.

Bere goiz alarguntza distraitzea du Venezuelatik bigarren bidaiaren helburu. 1803-ko urriaren azkenetan itsasoratzen da. Hiru urte eta zortzi hilabete egiten ditu European eta bai fortuna galanta urtu ere. Ibilaldi honen gailurra Monte Sacro-n eta hango behin betiko zinean dago; ikaskuntzaren eta Rodriguezekiko adiskidantza bidaia da. Aurkipenik ebazgarriena eta bere destinoaren hautapena ere orduantxe egiten du. Espainia, Frantzia, Austria, Italia, Belgika, Holanda eta Alemania bisitatzen ditu; Hanburgotik itzuleran 1806-ko urrian, Iparramerikako Charleston portuan lehorreraten da —1807-ko urtarrila—, lau hilabete egiten ditu Estatu Batuetan, Caracasera ekainean heldurik. Herri horretako egonaldi laburratik dio: “Estatu Batuetara egin nuen bisita laburrean zehar bizitzan lehenengoz ikusi nuen askatasun arrazionala” (6).

Erlatibismo neurtu eta doia du hainbeste esperientziaren ondorioa. Europako herri desberdinen, tradizio noski luzeko kolektibitateen ikuspenak bere herriarekin ulerkor izatera darama. European proportzioen sen zehatzagoa lortuko du, behatokitik onena aurkitzen du han etorkizun unibertsalaren ikuskizunera hurbiltzeko. Europak pentsaketara bultzatzen du. Atsegin harriz orain Amerika argi daku. Bolibarrek bere burua aurkitzen du European, au-

(5) Peru de Lacroix, Luis: *Diario de Bucaramanga*, 230 garren o.

(6) Manning, William R.: *The Independence of the Latin American Nations*, II t., 1.322 garren o.

tokritika zuzena egiten du; bere ibilaldietan zimendatu zuen lehen ere oker ez zebilen ebidentzia. Bolibarrek Europaren eta Amerikaren arteko diferentziak neurtzen ditu; kontinente bata bi mila urte baino gehiagotan lorturiko izate izpiritualarekin; eta bestea batu ezinik ari diren kultura desberdinen gakoarekin, hiru mendetako historia apenas ezagutuarekin, bere arimaren araketan ari dena.

Hirugarren bidaian, Bolibar diplomatiko gisa doa Europara. Britainia Haundiara heltzenda, Venezuelako lehen enbaxadatarik garrantzitsuenaren buru. Bolibarrek oraingoan bizikera ingelesa gozatzeko aukera dauka; bidaia hau ere, horregatik, funtsezkoa da; ingeles herriari miresmen izugarria izango dio beti. Han zirrarak gehien egiten diona Amerikan falta den asko ikustea: establasuna, errespetoa, duintasuna, zentzua, sen politikoa; Amerikan britainiar birtute xume hoiere sorta nahi du: askatasunaren errealizazio efektiboa eta demokrazia bortxakeriarik gabeko giroan; maiteki landuriko tradizioa haroak zehar nortasun kolektiboaren elementu batzaile bezala. Britainia Haundiako gizarte kalitatearen balorapen zuzen haxe izango da Bolibarrek, ahal duen guztian, eredutzat gizarte heldu hartako bizikera gomendatzera eramango duena.

Baina Bolibarren kezka ez da Europarekikoa bakarrik. Gero emantzipazio kanpainaren barru barruan eta horren aginduz eta premiaz, amerikar kontinenterik gehiena korritzen du oinez, zaldiz, geziuntziz, goletaz, bergantinez etab. Boston eta Plata izan ziren Bolibarren ibilbideko punturik iparrerengo eta hegoarengoak. Amerikako herriaren bibentzia egin egina eduki zuen; integralki sentitu zuen. Andeatatik hegada batek erakusten du gaur hark eginiko ahaleginaren neurri materiala.

Bere nerabegarotik, eta batez ere Madrileko diziplinatik pasatu zenetik, Bolibarrek irakurtzeko ohitura zeukan; indarkuntza eta berrikuntza intelektualezko prozesu etengabea eraman zuen. Jakina da etxean ere bazuela liburutegi handi bat, haren aitak —milizia criolloetako koronelak— hiltzean liburu sorta galanta utzi zuen bere seme alaben artean banatu zena (7). Hainbat liburu indibidualenez gainera han zeuden Pluche apezaren *Espectáculo de la Naturaleza*-ko hamabost tomo famatuak, aita Feijoren hamazortzi

(7) Ikus: Pérez Vila, Manuel: *op. cit.*, 43 garren o.

tomo, Ordenanzas Militares-ko hamairu, Aintzina Historiako hamairu, Calderonen komediazko zazpi; hango liburu batzu oso berriki editatuak ziren. Perez Vila profesorearen saiakeretan argi ateratzen da Bolibarrenean zer irakurgai hesparru egon zitekeen, hau da, zeintzu ziren hark bere lehen adinean eskuar zituen textuak.

Ez dago Bolibarrek irakurritako autoreen zerrenda osoa egiterik, baina haren idazkietatik garbi ateratzen da egia dela aintzinako klasikoak, grekoak eta erromatarrak, ezagun dituela dioenean: Homero, Polibio, Plutarco, Cesar, Virgilio; mota guztiak. Espainia, Frantzia, Italia eta Ingalaterrako klasiko modernoak; hauk ere sail intelektualik desberdinenetarikoak. Haren eskutitzetan hainbat izen ageri dira berez berez; sarri aipatzen ditu enziklopedisten eta Frantziako Erreboluzioko balioak, sakonki ezagutuak eta ikasiak, eta baien eragina erraz somatzekoa da Bolibarren pentsakeran. “Nahiz eta 1810-ko apiriletik —eta zuzenkiago 1813-tik— ekin-tza militar eta politikoak, Estatuaren eraketak eta administrazioak Bolibarren denborarik eta indarrik ia gehiena eraman, haren gogoia esperientziak eskaintzen dituen ikasbideetara zabalik dago beti; haren burua ernai dagoke beti aldizkariz, liburuxkaz, liburuz, beste toki batzutan gertatzen denaren benetako zentzua hatzemateko, baita oraingo pentsamenduko alderdi berriak ere. Horregatik ofizialek eta soldaduek, kanpamentuetan, han ikusiko dute sarri derrigor geldi egon beharreko ordu horik irakurketari ematen, beste batzuk aisiari, jokoari edo edanari emango zizkietenak. Askatzailearen jaiotetxean Cesar-en komentarioen ale bat kontserbatzen da, Bolibarrena izana, eta erabileraz nahikoa lorrindua. Jose de Austria historilariak, harmada abertzaleko ofizialeak baieztan duenez, hala lorrindu zen “Simon Bolibar Askatzailearen hamakan; han zeukan beti eta han irakurtzen etengabe kanpamentuetan” (8).

NOLAKO IZAKERA ZUEN?

Bolibarrek erizpen autokritiko interesgarriak eskaintzen dizki-gu, jatorri desberdineko testigantza inpartzialekin batera doazenak hain zuzen. Izan ere, bere burua ezagutzen zuen. Bere lehenengo-

(8) Pérez Vila, Manuel: *Id.*, 81 garren o.

etariko eskutiz batetan idatzi zuen: “Beti da ona norbere burua eza-
gutzea, eta norebere buruarengandik zer espero dezakeen jakitea”
I-24. Argi ikusten du bere egitekoa zein den, eta ez da erratzen
bere tenperamentu eta gaitasunei buruz. Eser lanerako ez dela jaio
dio, eta Administrazioa gorroto duela. Arriskuak bizkorgarri di-
rela badaki; gogoak okerraldian bizitu egiten zaiola sentitzen du.
Ez zuen atsedean materialik eskatzen hobeki pentsatzeko; bazekien
abstraitzen, gisa zirimoletan isolatzen eta gogoetan kontzentratzen.
“Badira gizonak —zioen— pentsatzeko eta meditatzekeo bakarrik
eta zarata guztietatik ondo bazterturik egon behar dutenak; nik
gizartearen, plazeren, bala hotsen erdi erdian pentsatzen, gogoeta-
tzen, meditatzen nuen. Bai, bakarrik aurkitzen nintzen jende as-
koren artean, neure ideiekin eta distrakzio gabe aurkitzen bainin-
tzen”.

Berak utzi du bere izaera mentalaren deskripziorik zehatzena
eta kondentsatuena; 1825-koa da: “Ez naiz hedatua (), arrapata-
koa naiz, axolagabea eta urduria, ideiak oso hitz gutxitan multipli-
katzen ditut”, I-1099.

Azterketarik zorrotzema behar duten idazkiez gainera, Luis
Peru de Lacroixen testigantzak 1828-n Bolibarren laburtasuna bai-
testen du. Diario de Buraramanga-ren autoreak oso hurretik haute-
man zuen: “Askatzailearen ekintza guztietan eta haren solasean bi-
zitasun izugarria nabari da beti: haren galderak laburrak eta zeha-
tzak dira; erantzun berdinak gustatzen zaizkio, eta norbait haritik
ateratzen denean, halako ezinegon batez, hori ez dela galdatu diona
esaten dio: ez zaio ezer hedaturik atsegin” BUC. 335.

Hautzarotik, berak hauteman zuen bere presatasuna. Kontser-
batzen den lehenengo eskutitzean esaten du “gauza guztiak kolpera
bururatzen zaizkiola”, I-14. Ez da zaila bere axolagabetasunaz eta
ezinegonaz dioena egiztatzea (9).

(9) Bolibarrek aitortzen zuen eskutitzak errepasatu gabe izenpetzeko eta era
batera batzu diktatzeko ohitura zeukala: «Irakurri gabe izenpetu nuen eskutitza,
presaka nabilenean oso maiz egiten dudana», II-725. Ikus BUC-154. Vicente Le-
cunak salbuespenekin argitaratzen duen eskutitz batetan, irakurtzen da: «Demar-
quet-engandik jakin dut zure andreak ume eder bat izan duela eta era batera ho-
rren aurrekoa galtzearen pena handia eduki zenuela. Mila zorion gertaera bienga-
tik», II-680. Beste behin honako dolumin hau idazten du: «Zer gauza naturala-
gorik zaldun maitagarri hau hiltzea baino, mundu honetako bizitza ez baita be-
tikoa», I-758. (Egirik handienak deskoiduz esaten dira. Euskaratzaileak).

Oso hitz gutxitan ideiak multiplikatzen dituela dioenari buruz, Bolibarren meritua, sintesiserako bere gaitasun berezian inplizitua, bere kontzeptu eta ideologi aberastasuna da. Trinkotasun eta aberastasunagatik, haren pentsamenduak interpretaziorik desberdine-nak eduki ditu; politiko guztiek aurkitu dituzte Bolibarren esaere-tan beren eginkizunetarako banderak, direnak direlakoak izan; ez zaio batere harrigarri: “Nire izenarekin Colombian ongia eta gaizkia egin nahi dira, eta askok beren astakerien textutzak hartzen dute”, II-837.

Haren obrara hurbiltzeko, formula baliozkoa batasunean murgiltzea da, estruktura bilatzea, osoan ulertzea eta globalki asimila-tzea. Honela, eta ez bestela, ulertu behar zela Angosturako Min-tzaldia gomendatzen dio bere lagun Guillermo White-ri: “Zatiei begiratu gabe, osoari baizik”, I-442.

Haren izpiritu orekatua hainbat frogatan ageri da. Pentsakera objetiboa zeukan, egia itsukeria gabe begiratzeko modukoa. Guzti hau behin eta berriro konfirmatzen da haren obran eta egintzetan.

Dagozkion arteztasuna eta inpartzialtasuna ez dira lausotzen eta gezurtatzen, bere familiari edo bere lagunei ukitzeagatik dagoz-kion gertaerak badira ere (10). Haren oharmenak, haren orekata-sunarekin batera, bere gizonen eta haien gaitasunen ezagutza zeha-tzera darama; bere lagunen psikismoa aztertzen eta bakoitzari bere tratu egokia ematen zion. Haren eskutitzik begiratuena eta poli-tikoenak Santanderrentzat dira (11). Maitasunik nobletsuenak Su-cre-rentzat dira. Baina Askatzaillearen ezagutza sikologikoa gure herrietako giza tipoei buruz ondoen azter daitekeena Paezen kasua da. Gaurko ikertzaile bati erraza zaio frogatzea hau gizon honen izaera

(10) Esaten zuten: «Gaizkileekin, godoak nahiz abertzaleak direla, azken zi-gorra behar da, zeren errepublikak hainbeste irabazten du erregezale on baten deusezpenaz nola hiritar gaizto batenaz», I-417. Briceno Mendez-entzat manda-tu bat: «Esaiozu Perucho jaunari asko poztu naizela nire arrebarekin burrukatu delako bere eginbeharra betetzeagatik, eta beste zerbaitekin balu zital irudi-tuko zitzaidala», I-853.

(11) Ongi ezaguna da neogranadatar jeneralaren buru argia. Bolibarrek esan zion: «Zure eskutitzak nireak baino laburragoak dira; ez dakit zergatik izan-go den», I-1090. I-445, 793, 1.049. Ikus gure *Visión y Revisión de Bolívar*, 55 oo.

literaturan, zientzietan eta artean jeneralki hedatuen eta erabilienetarikoa baita.

Bolibarren nortasunaren alderdi definitzaileen artean bere irimotasun morala nabarmentzen da. Etikak josten du haren portaera eta zentzua ematen ihardun intelektualari. Angelu honetatik begiraturik, Askatzailea birtutearen maitale zintzoa ageri zaigu. Gizon birtutetsu gabe —dio— ez dago errepublikarik. Ez dago oker gure lehen premiak morala eta argitasuna direla esatean; haren leit motiv-a hauxe da berriro ere: “Politikarik onena arteztasuna da”, II-652, “zoriona birtutea praktikatzean dago”, II-1136. Gobernu moralik gabe gizartea hankaz gora doa, eta ez ahantz “batzutan gizonak direla eta ez printzipioak gobernuak eratzen dituztenak”, II-1142.

Huskerien gainera igotea dakarren izpiritu goitasuna da, dudarik gabe, Bolibarren kualitate morala (12). Baita konstantzia ere; ez du inoiz amore ematen bere asmo zuzenetan, haren gogoa “ez da erortzen, aitzitik ordea, okerraldian indartzen”, II-105. “Adoreak, trebetasunak eta konstantziak zori okerra arteztu egiten dute”, II-43, esan zuen bere lehen oroitagiri politikoan.

1830-ko martxo inguruan, bere burua “hiltzat eta betiko” II-865 jotzen duenean, Bolibarrek, Jose Fernando Madrid-i, aitortza eskatuz, bere nortasunari buruz eritzi gordinak ematen zituen: “Ezartzen zaidan zernahi zital, bikoitz edo faltsu arras kalumniosa da. Esan dudana eta egin dudana solemneki eta zeharkeria gabe izan da. Nire etsairik gehienei bihotzabal izan natzaie []. Ez dut pausorik eman gerran, zuhurtasunekorik ez arrazoizkorik, koldarkeriatzat jo daitekeenik. Kalkulua izan de nire operazioak alderdi honetan gidatu dituenak, eta are gehiago, ausartasuna”, II-863.

Bere helburuetarantz artez zuzendurik, Bolibarren izaera praktikoa eta dinamikoa zen. Haren bizitzak zintzo eutsi zion beti ekin-tza etengabearen ideiare; noiznahi aitortzen zuen energiaren proiektzio sortzailea.

(12) 1823-ko maiatzean idazten dio Santanderri: «Zu zauden kasuan printzipioen neurritasuna eta zabaltasuna erakutsi behar duzu. Rousseauk zioen arima zorritzokak eta mendekatiak ahulak eta miserableak zirela beti, eta izpiritu goitasuna gauza ziztrinen arbuioan agertzen zela. Nik lagun asko irabazi ditut haiekin eskuzabal izateagatik, eta exenplu honek arautzat balio lezake», XII-280.

Justizia —hark “naturako lehen lege eta historiaren garantia orokortzat” joa, II-1266— izan zen haren baliorik eragikorrena. Justizia maila desberdinetan ager daitekeen errealitatea da. Maila politikoan gobernatzaile ageri da, batez ere Estatuko kargu, ohore eta erantzukizunetarako gizonen hautapenean. “Nik ez dut gaitasuna eta zintzotasuna besterik bilatzen”, II-44, esango du Bolibarrek. “Nik agindu dut meritu ezkutua bilatzeko hauzitegian ager dadin, arretaz eskatu ditut modestki kontzientziaren kultura profetatzen zutenak: legeen erlijioa. Ez dut kandidatuengan zuzentasuna besterik eskatu: mokoluzeei entzungogor egin diet, birtute ezkutua eskatu dut maisutzara jasotzeko. Nire betiko printzipioa alde honetan hain gauza ezagun hauxe, nahiz eta gutxi erabilia, izan da, alegia, erantzukizunaren bildur direnak enplegatu; arazo publikoetatik ihes egiten dutenak”, II-1203, 1205. Haren araua da “gizon zintzoak erabili, nahiz eta etsaiak izan, Estatua hiritarrik argitsuenen eta arteztasun eta talentu gainean birreratu, beste ezeri begiratu gabe” II, 293, 1205.

Justiziak, arlo pertsonalean, beste birtute bat behar du: eskerrena. Horretan saiatu zen benetako arduraz. Haren ustez, “esker txarra da gizonak egin lezakeen krimenik handiena” I-867.

Haren justizi zaletasunaren beste agerpen batzu: “merituari dagozkion gorespenei elikatzen dituzte arima bikainak. Merituaren saria da giza boterearen egintzarik ederrena (eta zerbait gehiago); oso garrantzitsua da garaiz saritzea” I-214, 462, II-114.

PRINTZIPIO BIHURTEZINAK

Gizon publiko gisa, Bolibar bereziki akasgabea eta zorrotza da. Nazioko diruen erabileran ezin zorrotzagoa da. Egiaz ari da dienean “derrigor atsegina zaiola errepublikar bati eginbehar sakratu hau, alegia, bere administrazioaren berri herriaren ordezkarietara”, II-1216. Caracastarren aurrean 1814-n etika fiskaleko arau kontsekuente hau ematen du: “Nazioko hazienda ez da gobernatzen zaituztenena. Zuen interesen gordelari guztiek nola erabili dituzten agertu behar dizuete”, II-1048.

Angosturako kongresura eramaniko konstituzio proiektuan, hiritarren eginbeharrei, berak zuzenki “gizarteko eskubideak deituei”

buruz ari denean, xehetasun egoki bat sartzen du: “Errenta publikoen inbertsio zuzena zaindu, gizartearen onerako, eta haien defraudatzaileak herriaren ordezkarien aurrean salatu, dela zergarien iruzurra, dela administratzaileena, edo haik zuzentzen dituen gobernuarena” O’L. XVI-141. Boliviako proiektuan hiritarren egin-behar gisa jartzen du: “Askatasun publikoen kontserbazioa zaindu” BOL. II-324. Kasu batean eta bestean ordezkarietazko ez ezik parteharmenezko demokrazia bilatzen zuen. Ez zen aski legea betetzea, hiritar bakoitzak hura bete zedin ardura hartzea behar zen.

Zintzotasun administratiboa da herriek erabiltzen duten seinalerik fidagarriena eta seguruena beren gidarien sendotasuna morala neurtzeko. Bolibar nagusi ateratzen da aproba horretan. Are gehiago desatxikidura osora heltzen da.

Ez zaio axola ez soldatarik ez ondasunik (13). Bere karrera politikoa aberats hasten du; 1804-n haren ondasunak lau milioi peso jotzen dira. Bere ondasun guztiak gerran urtzen ditu. 1828-koa da haren esaera harrizkoa: “Aberastasun materiala nahi nuke colombiar bakoitzari emateko baina ez daukat ezer: ez daukat besterik bihotza maitatzeko eta ezpata bat defendatzeko”, II-508. Venezuela, Colombia eta Peruko finantzak bere printzipio zorrotzez beste kontrolik gabe maneiatzea tokatu zitzaion hiru bosturte ondoren, pobretasunean hiltzen da; hala deklaratu du bere testamentuan: “Ez daukat beste ondasunik Aroako lurrak eta meatzeak baizik —bere aurrekoek erosiak, “konkista garaietan berrogeitamar mila pesagatik”, I-1020—, Caraboboko probintzian daudenak eta bitxiren batzu nire paper artean egongo den inventariumean agertuko direnak”, II-988. Esan dezagun zehaztasun gehiagorako, Aroako meatzeak berak hipotekatu zituela Joseph Lancaster pedagogoa ingeles handia Venezuelara ekartzeko; Horrela bere ondasun pribatuak helburu publiko baten alde jartzen zituen.

Badira hainbat testigantza ustelkeriaren kontrako haren jokabide gupidagabea eta drastikoa agertzen dutenak. 1813-ko irailaren

(13) 1825-ko uztailean, El Cuzco-tik Askatsaleak idazten du: «Haziendako idazkari jaunak sinets dezake, neure soldata eta guzti ere, ez zaidala sosik gertatzen, nire ondasun eta nire enpleguaren errenta guztiak aldeztetik banaturik baitaude» XX-294. Urdanetari, 1830-n esaten dio: «Ni bizitzeko sosik gabe joango naiz herritik, baina nahiago dut eskean ibili atzerrian, laster datozen izugarrikeria guztien ikusle izan baino», XII-385.

11-n ordenu berriaren etika ezarriz eta iraultzaileei baliabide batzu emateko kapaz zen adar bakarra defendatuz, dekretatzen du: “Tabakoaren errenta nazionaleko dirutzak defraudatu dituela frogatzen den edonor, bai estankutik kanpo isilpean saldurik, bai lapurreta edo maneiu debekatuz barreiatuak, harmapetik pasatua izango da, eta ondasunak bahituko zaizkio sortzen dituen gastuak eta kalteak deskontatzeko” O L’XIII-358. Liman, 1824-ko urtarrilak 12-n, ez zuen zalantzarik izan: “Edozein funtzionari publiko, ondasun publikoetatik hamar pesotik gora xahutu edo beretzat hartu dituela epaiketari frogatzen zaiona, herio zigorraren mende geratzen da”, DL, I-283. Aukera honetan, Puerto Cabello-ko lehengoan bezala, zigor berdinera kondenatuak izango direla jartzen da dekretuak seinlatzen dien eginbeharraren arabera jokatzeko ez duten epaikariak; Venezuelan zigor bera jasango dute konnibentziaz, partzialkeriaz edo beste edozein arrazoiz herio zigorra delinkuenteen alde leuntzen duten funtzionarioek.

Bolibarren zorroztasun biurtezina berriro ere Trujillon (Peru) 1824-ko martxoaren 18-n eman zuen dekretuan ageri da: “Aduanan, Babesean, Portuko Kapitantzian edo Hazienda Publikoko beste edozein tokitan dagoen enpleguak, haren kontra egiten diren iruzurretan parte hartzen duenak, bai buru gisa, bai iruzurra jakin eta ez salatuz, herio zigorraren mende geratuko da eta buelta gabe aplikatuko zaio”. Textu berean hiri pedagogiako argitasun garrantzitsu bat sortzen du, funtsean Angosturako konstituzio proiektuaren ideia jadanik aipatua berdioena: “Edozein hiritarrek dauka Nazioko Hazienda jagoteko eskubidea. Hura defraudatzen dutenak etsai kapitalak dira; eta kasu honetan, salakuntza, egiten duenaren zitalgarri izan beharrik, on publikoaren aldeko ardura sutsuaren froga bat da” O’L-XXII-115.

1825-ko Limako dekretua edonolako gaizkileen kontra zorrotza da: “Lapurretan harrapatzen den edonor harmapetik pasatua izango da, hitzezko kontseilu bat aurretik dela”, DL, I-388. Carabobotik aste gutxitara, San Carlosen gogarazi zuen: “Herio zigorra harmadako bandoek jarria izan da erreal baten balioa baizik ez bada ere ohosten dutenentzat”, ACCT-221. 1827-ko martxoaren 8-ko dekretuan, Caracasen, drastikoa da Estatuko eskubideak eta dirua usurpatzen dituen edonor, “kopururik tikiena bada ere, herio zigorra ezarriko zaio eta ondasun guztien konfiskapena seme-ala-

barik ez badu, eta herena eta bostena badu, hauzi kostuak eta ohosturiko kopurua indemnitzatuz gainera”.

Diruzainak, Administratzaile nagusiak edo menpekoak edo Haizendako beste edozein enplegatuk, “edozenbat, denik gutien bada ere, ohosten badu, eta hiru lekuko egiatiren esan hutsez eta hau indartzen duen susmoz edo arrastoz, herio zigor bera ezarriko zaio. Goren zigor berbera ezarriko zaio tolerapenez edo disimulo errudenez Estatuko interesak usurpatzen uzten duenari eta usurpazioan parte duenari” OL. II-146.

Bolibarren erantzuna, Santanderrek Panamako kanalea ireki nahi zuen enpresaren babesean biak elkartzea proposatzen dioenean eta arrazoirik tentagarriekin hartara zuhurki eramaten saiatzen denean, buelta gabeko erantzuna da: “Ikusi dut zure eskutitza, Istmoan zehar bi itsasoak bat egiteko jarriko den konpainiaren babesle izan nadila proposatzen didazuna. Zure esanak ongi hausnartu ondoren, bidezko iruditu zait ez bakarrik horretan parterik ez hartzea, baizik zu ere ez sartzeko aholkatzea. Zihur nago inork ez duela begi onez ikusiko gu biok, gobernuaren buru egon garenok eta gaudenok, proiektu arras espekulatiboetan nahastea, eta gure etsaiek, batez ere gerturen zauden horrenek, interpretazio makurra emango liokete herriaren ona eta oparotasuna baizik ez dakarren horri. Hauxe da nire eritzia zuk egin behar duzunari buruz, eta nire aldetik oso osoan nago negozio horretan ez merkatal usainik duen beste inolakotan ez nahasteko”, I-1276.

Peruko kongresuak, beste omen batzuren artean, milioi bat pesotako saria izendatzen dionean, Bolibarrak bi bider ukatzen du. Bere azken erantzunean dio ez dagoela “giza indarrak kontzientziak debekatzen didan sari bat har eraziko didanik. Kongresuak Peruko aita eta salbatzaile izendatu nau; betiko presidente ohoreak dekretatu dizkit; nire soina domina batetan grabatzeko agindu du; Askatzaile deitu nau eta Peruko aginpidea har erazi, eta gero dirutza izugarri bat izendatzen dit. Nik dena onartu dut pozik azken hau izan ezik; nire aberriko eta nire bihotzeko legeek debekatzen didate”, I-1052.

Diru eskasiaz arduratu gabe, Pativilcatik —1824-ko urtarrilaren 9-n— Colombiako kongresuko presidenteari idazten dio: “Nire ukoa nolana hiki kongresuko eskuzabaltasunak izendatu didan urteko

hogeitamar mila pesatako pentsioari: nik ez dut horren beharrik bizitzeko, dirutza publikoa ordea agorturik dago”, I-866. Presidentordea ez zegoen desatxikidura harekin ados; eta eskutitz pribatuan haserre pixka bat egiten dio: “Utz ezazu soldatak ukatzea; zeren esperientziak irakatsi baitit seguruenen norberak zerekin bizi edukitzea dela. Zerbitzuak eta eskerrona ahanzi egiten dira eta inork ez du besteen ardurarik. Gogoan eduki Maratongo garailea, bere garaipenaren ondoren, bere herkideengandik hainbeste omenaldi irabazi zuena, gartzelatua izan dela bere zorrak zerekin ordaindu ez edukitzeagatik”, O’L. III-164.

Nolanahi ere Bolibarren jokabidea finkaturik zegoen, eta berak eta ez beste inork finkaturik egon ere. Era batera Peru eta Colombia zerbitzatzan dituenen, bi nazioetako goi destinoen erantzule gisa, bere txukuntasun ezin handiagogatik ez zuen batetik ere soldatarik hartzen. Ezerk ez inork hartaratzen ez zuelarik —bere borondate kezkatia eta berezkoak izan ezik— haren kasua, Santanderri azaltzen zion bezala, oso bakana zen: “Bide batez esango dizut nire oraingo egoera hain arraroa dela non ez baitut zerekin bizi ere, era batera Colombiako presidente eta Peruko diktadore izanik. Herri honen hartzedun ez jartzeagatik ez nuen izendatu zidaten soldatarik kobratu, eta Colombian aginpiderik ez edukirik, ezin dut han soldatarik eskatu. Honela bada, dirua maileguz eskatzen ari naiz eta maileguz bizi beharko Guayaquilera itzuli arte”, I-1021.

ASKATASUNA ETA AINTZA

Behin eta berriro, Simon Bolibarrek bere bizitzako jomuga eta arrazoiak era batera askatasuna eta aintza direla dio. Bere lehenengo agerpen idatzia (1795) hain zuzen, aurreikuspen gisa, askatasunaren gaiari dagokio, hamazortzi urte zituela. Haren azken hitzetan (1830), agintea utzi eta bere herkideak agurtzean, ideia bera agertzen da tiraniaren kontrako bere ahaleginen laburpenean, II-1275, 1281. Askatasuna honela haren esistentzia sortzaile, eskuzabal, erromantiko eta pairakorraren alfa eta omega da. Aintza izan zen beti haren ekintzen eragile. Batzutan askatasun eta ain-

tzarekin batera, goren helburu gisa, goi mailako beste balio batzu doaz (14).

Askatasuna eta aintza biak goi maila berdinean egonik ere, bat beharrean ez dauka zalantzarik: “Nire ahultasunik handiena nire askatasun zaletasuna da; zaletasun honek arrastatzen nau aintza bera ere ahazteraino. Nahiago dut edozer, nahiago dut neure esperantzan amiltzea, tiranotzat jo nazaten baino, baita halakotzat agertu baino. Nire grina sutsua, nire nahirik handiena askatasun zalearen izena eramatea da”, II-124. Hain zaletasun bortitz honek halako indarra zuen haren destinoan non, berak zioenez, izaera aldatu baitzion zorrotza ez ezik urrikigabea izateraino. “Askatasun zaletasunak —esan zion Santanderri— neure sentimendu guztien kontrako ofizioa segitzera eraman nau”, I-1417. Haren jokaeraren arteztasun aldaezina garbi nabari da haren 1823-ko agerpenean: “Ez aberriaren osasunak, ez aintzak berak ere, ez didate zirrararik tikiarik egiten, nire eginbeharraren kontra badaude”, I-737.

Modu askotara aipatzen du bere bikote gidaria. 1828-n dio: “Ni askatasunaren eta aintzaren alde burrुकatu naiz, ez neure handikuntzaren alde”, II-317. Urtebete geroago, Leandro Palaciosi ekiten dio: “Ni askatasunaren eta aintzaren alde burrुकatu naiz; beraz tiranotzat eta laidogarriztat jotzen banaute, zigorraren gehiagarria izango da. Ez ukan dudarik edozertarako gertu nagoela, zuek han nire aintzarik mendekatzen ez baduzue”, II-719. Esaera harrizkoan moldatu zuen desinteresaren oharpena: “Beti pentsatu ukan dut askatasunaren eta aintzaren alde diharduenak ez duela aintza eta askatasunaz beste saririk behar”, I-825; aspaldiko ideia zuen hori. “Tiraniaren suntsipena eta herri zapalduen askatasuna izanik haramada askatzailearen helburu eta irriks bakarra, horixek dira espero duen sari bakarra ere” I-395. Nor hura bezain enfatikorik eta benetakorik, eta, inor gezurtatzeko kapaz ez dela, bere pentsamendua haize guztietara esan duenik Peruko askatasunari buruz 1823-ko martxoan? “Bai, Colombiak bere egitekoa egingo du Perun: Po-

(14) «Birtuteak, askatasuna eta aintza», I-176; «Ohorea, aintza eta askatasuna», I-287; «askatasuna, aintza eta bakea», I-1.377; «aintza, askatasuna eta Colombia», II-436; «aintza, askatasuna eta zoriona», II-752; «askatasuna, aintza eta independentzia», II-1.169; «aintza, bakea eta askatasuna», II-1.183; «askatasuna, aintza eta atsedena», II-1.176; «aintza, askatasuna eta birtutea», II-1.234; «askatasun, aintza eta legeak», II-1.241; «aintza, askatasuna, esistentzia», II-1.280.

tosiraino eramango ditu bere soldaduak, eta mutil suhar hauk mundu berriko azken tiranoak hausten laguntzearen sari bakarrarekin etxeratuko dira. Colombiak ez du Peruko lur izpirik ere nahi, haren aintza, haren zoriona eta haren segurantza bere buruarentzat askatasuna kontserbatzea baita, eta bere anaiak independente uztea”, II-1189. Une iheskor batetan, sortzapenaren gizagoitiko hestuasun eta ahaleginek zartaturiko esistentziaren barruan, Askatzaileak zoriontsu uste zuten bere burua: “Nik askatasuna eta aintza nahi izan ditut, biak lortu dira, eta beraz, ez dut beste ezer nahi” I-1310.

Bolibarren bikote inspiratzaile eta mugatzaile hori ez da baliakizun erretorikoa, ez bi hitz marroen errepika dotorea. Askatzaileak eritzi eta printzipio zorrotzetan oinarrituriko ideologia dauka. Argi erakusten du bere ordenu mentaleko katean ez dela maila bakarrik ere falta.

Askatasuna, lauki eta sinpleki, “gizon bakoitzak daukan esku-bidea da legeak debekatzen ez duen edozer egiteko”, O’L. XVI-138. Pentsamendua adierazteko askatasuna da, ez guti ere, “naturaren dohairik aurrenengoa eta estimagarriena. Legeak berak ere ezingo du inoiz debekatu, eta muga zuzenak bakarrik jarri ahal izango dizkio”, O’L. XVI-138. Honen ondorioz, haren ustez, “Askatzaile titulua giza urguiluak hartzen dituen guztiak baino gailenagoa da; lurreko inperio guztietako zetroa baino titulu aintzatsuago eta betegarriagoa. Askatzailea edozer baino gehiago da”, I-71, 1284, 1436. Askatasuna da, hitz batez, “gizonen bizitzaren sakrifizioa merezi duen helburu bakarra”, II-1078.

Eta zer da aintza? “Eztenik indartsuena gizonak arriskupera daitezen, beren buruez ahantzirik, beren herrilagunen zorionagatik”, II-1042. Bere uste pertsonalari buruz, 1814-koa da lehen erantzuna: “Nik ongi zerbitzatzean jartzen dut aintza eta ez agintzean; etsaiak menderatzean eta neure herrilagunei edozertan eskua ematean”, I-103. Haren aintzari buruzko erizpide indibiduala eta zuzena ez zaio inoiz ere urrikalduko boterean, hospetan eta aberastasunean hura jartzen duen ideia tradizionalari. 1826-n errepikatzen du: “Aintza ez da agintzea, birtute handiak erabiltzea baizik”, I-1310. “Neurez uste dut —dio 1828-n—, aintza zoriona baino mila bider nahigarriago dela eta Colombiako mendekuak nire balantzetan pisu gehiago duela bizitzako atsegín doilorrek baino”,

II-488. Lehenago segurtatu du: “Izadiko eskaintza guztiak arbuia-tuko ditut neure aintzagatik”, I-1212. Aitortza handien orduan, haren kemenaren kontzientzia bareak zehaztasun honetara darama Toro-ko markesari idatziriko eskutitz gogoangarri batetan: “Nire tristurak nire filosofiatik datoz; ni gaitzaldian baino onaldian filosofoago naiz. Hau esaten dut nire egoera tristea denik uste ez dezazun eta are gutiago nire zoria. Triste banago, zuengatik da, zeren nire zortea hain gora igon baita non jadanik oso zaila baita ni dohakabe izatea. Lurrean dena gal baneza ere, neure eginbearra azken ertzeraino bete ukanaren aintza geratuko litzaidake eta aintza hauxe izango da sekuletan nire ondasuna eta nira zoriona”, I-1000.

Bolibarrentzat “aintza eginbearrean eta ongian oinarriturik dago”, I-1477. Laburki eta erabat esanik “aintza handia izatean eta onuragarri izatean dago”, I-986. Handitasunaz galdatzen bazaio, Bolibarrek honela erantzuten du: “Gizon handia bereizten duten kualitate gorenak hauk dira: arriskuari oratzeko adorea, garaitzeko argitasuna, aberriaren maitasuna, eta tiraniaren gorrotoa”, I-287. Simon Rodríguez jaunak bere ikaslea berresten du: “Hona gizon publikoa bat gomendagarri egiten duten hiru gauza: adorea, abertzaletasuna eta zerbitzuak” (15). Biak bat datoz adorearen lehen-tasunean handitasunaren presupostu gisa. Bolibar, honetan, kategorikoa izan zen beti: “Adoreak, trebetasunak eta konstantziak artetzen dute zori okerra”, 1-43; “adoreak eta trebetasunak sobera ordezkutzen dute numeroa. Dohakabeak gizonak, birtute moral hauek orekatzen eta areago gainditzen ez badituzte birtute fisikoak! Erreinu jendetsueneko ugazaba berehalaxe genuke mundu guztiko jaun. Zorionez sarri ikusi izan da gizon libre mordoska bat inperio indartsuak menderatzen”, I-356. Bolibarren konbentzimendua eten-gabea da haren lojika jarioan: “Energiarik gabe ez dago inoiz meriturik, eta indarririk gabe ez dago birtuterik, eta adorerik gabe ez dago aintzarik. Sendotasun seinale bat baliotsuago izan zitzaion Ciceroni bere jeinuaren mirari guztiak baino”, II-326. Adimena-ren, bere handitasun arkitekturako beste habe honen zalea izanik, noiznahi ere etika behar zuela lagun uste zuen eta elementu bitzuan

(15) Rodríguez, Simón: *El Libertador del Mediodía de América y sus compañeros de armas defendidos por un amigo de la causa social*, 53 garren o.

konbinaketari zegokiola den dena gizartearen gidaritzan: “Gizon argiak eta zintzoak dira eritzi publikoa finkatu behar luketenak. Zintzotasunik gabeko talentua zartailu bat da”, II-479. Aberriaren maitasuna eta tiraniaren gorrotoa dira, halaber, beste sentimendu bikote kide eta osagarri bat. Abertzaletasunari buruz esaera lakoniko, neurrigabe eta orokor hau bota zuen: “Aberria edozer baino lehenago da”, I-909. Despotismoaren kontrako intrantsigentzia ekinkor eta sustraikorrari buruz, hona zer kontsigna duen: “Beti da handi, beti da bikain, beti da bidezko tiraniaren kontra, usurpazioaren kontra eta gerra hondagarri eta zitalaren kontra konspiratzea”, I-492. Eta fede mezu bat adoretzu eta ausartentzat: “Askatasunaren alde gudukatu diren munduko herri guztiek sakailatu dituzte azkenerako beren tiranoak”, II-1063.

Onuragarri zer den, Askatzaileak egiteekin erantzuten du: ez dago lan apalik, ez arbuia garrik, ez duingaberik helburu positibo eta bikainari badatxekio. Bolibarrek ez du bere goi mailarik lorrin-tzen gerrako huskeriez, logistikako xehetasunik xumeenez arduraturik; amaigabea litzateke haren idazkietan datozen aipamenak biltzea janariei buruz (arroza, makailoa, gailetak, haragia, platanok...), ferra iltzei buruz, paper, orratz, zapata, kapelutarako hule, alkandora, galtza eta abarri buruz. Denaz arduratu zen haren gaitasun harrigarria. Herriagatik gerrarako behar zuenaren bila “poloraino” joateko gertu omen zegoen. Haren ustez edozein posizio zen zerbitzatzeko ona. Zerbitzatu beti.

Bolibarren nortasunak, denbora guztietarako, koherentzia segurua agertzen du. 1830-ko abenduan bizitza exenplugarri hau hertsiko denean, sintesizko eta bere buruarekiko Kontzientziatzeko lehiaz, prometatutako guztia biltzen du, hala fintasun konkretuetan nola arlo idealean. 1826-ko abuztuaren 4-n Boliviako nazio kutunak eskaintzen dion domina hartzean, segurtatzen duen: “Neure bizitza guztian gordeko dut Boliviarekiko ene aitormen sakonaren ezaugarri, eta hiltzen naizenean opari nazional hau legegile taldeari bihurtuko diot”, I-1406. 1830-ko abenduak 10-n, bere testamentuan, diktatzen du: “Nire gogoia da Boliviako kongresuak herria haren izenean aurkeztu zidan domina bihurtzeko berari eskaini nion bezala, azken mementuotan ere errepublika hari diodan benetakoa maitasunaren frogaz”, II-988. 1815-n iragarri zuen bere azken hasperena bere lurragatik izango zela, hari zor baitzion izatea

eta hura baitzen bere ahaleginen kausa nagusia: “Nire zortea aurre-rantzean nolanahikoa den, nire azken hasperena neure herriagatik izango da beti”, I-130. 1827-n birresan zuen ariman ereinik zera-man ideia: “Nire ezpata eta nire bihotza Colombiarenak izango dira beti; eta nire azken hasperenek haren zoriona eskatuko diote zeruari”, II-34. Betiko aldegin baino zazpi egun lehenago, dio: “Nire azken nahiak aberriaren zorionagatik dira”, II-1282.

Infinitua da haren gida proiektzioa oraindik bide zihur baten bila diharduten Mundu Berriko herrientzat: Mario Briceño Perozo-k, obra kalifikatuko historilari eta pedagogoak, Amerikaren egin-behar orokorra gogarazten du: “Eskolan, Unibertsitatean, kuartelean, lantegian, toki guztietan egon behar du gorputz osoz Askatzai-leak; hara eramateko eta haren arnasa betikoa, ordeztzina izan dadila lortzeko eginkizuna, gidariari dagokio; honek inork baino hobeki, badaki egunero moldatzen ari den kontzientziak Bolibarren doktrinaz beratu behar direla, baldin irakas lan zibikoa benetan badoa gizon libreak inoren eskubideen errespetatzaileak eta giza duintasunaren defendatzaile itsuak taxutzera” (16).

(16) Briceño Perozo, Mario: *Historia Bolivariana*, 15 garren o.

3

Zerbitzuaren kronika

ERABAKIETARAKO

Simon Rodriguezek kondatzen du, eta beste zenbait testigantzez konfirmaturik ageri da, 1805-ko udako arratsalde batetan —abuztuak 15— Bolibar, bera eta Fernando Toro lagun zituela, Erromako inguruetan zehar ari zela eta Monte Sacro hospetsuan solemneki eta argiro, bere konpromezua agertu zuela: “Zin dagit zure aurrean; zin dagit ene gurasoen Jainkoagatik; zin dagit berengatik; zin dagit ene ohoreagatik, eta zin dagit ene aberriagatik, ez diodala ene besoari atsedunik ez ene arimari pausamenik emango espainiar boterearen borondatez zapaltzen gaituzten kateak hautsi arte” (1).

Zein zuen aberria? Caracas zuen, Venezuela zuen, Amerika zuen: Colonek sorturiko mundua zuen. Hemengo edozein eskualdetan, eta denean ere bai noski, egoera argiro eta funtsean berbera zen, nahiz eta herri batetik bestera graduzko diferentziak egon; errejimen kolonial, absolutista eta menpekoan bizi ziren, inolako askatasunik gabe; gizarte esklabista, desberdinkoi eta injustuan; kontinente atomizatu, sakabanatu eta Europatik oso atzeratuan.

Bere jaiot Caracasen, Simon Bolibar haurretarik, bere familiaren jatorriagatik eta bere gurasoen goitasun ekonomikoagatik, arradaki komunez kanpoko mutila zen. Haren kontuak ez ziren jakin gabe pasatzen. Haren umezurtzaroa, haren tutoregoa, osabarenetik ihesa,

(1) *Itineraria Documental de Simón Bolívar*, 14 garren o.

arrebarenean babesa, haren Madrileratzea, garai hartan Caracas tiki hartako lagunartean, eguneroko berriketa gaiak izango ziren segur asko. Ordukoak dira, agiri dudagabeen, Bolibarren nortasun hasberriaren lehen hitzak, eta harengadik kontserbatzen den bere esku eta letrazko lehen izenpea; Simon Bolibarrek hamabi urte zituen; gaia —esan genuenez—, betikoa izango zen: askatasuna. Erret Audientziako ganbara eskribauak entzun eta ez zuen kopiatu nahi izan —baina osabak arretaz egin zuen— mutikoak esan zuenean: “hauzitegiek beren ondasunekin agindu ahal izango zutela eta haiekin nahi zutena egin ere bai, baina ez bere pertsonarekin; eta baldin esklabuak beren gogoko ugazaba hautatzeko askatasuna bazuten, berari ez zegoela zertan ukatu berak nahi zuen etxean bizitzekoa behintzat” (2).

1797 garren urtearen hasiera hasieran, Bolibarrek oraindik hama lau urterik ez zuenean, kadete gisa sartu zen Zurien Milizietako Batailoian Araguako haranetan, bere aita koronel izana zen gorputzean. Hainbat arrastok adierazten dute haren ordezkariak harma karrera ohoragarrira destinatu zutela. Subtenientetara jaso zuten 1798-ko uztailean. Aitormen hori ez zen arrazoigabea. Garaiko zerbitzu horiak honela dio: “Adorea: ezaguna. Ahalegina: bikaina. Gaitasuna: ona. Portaera: ona” (3). Hala hasi zuen edo jarraitzen zuen leinu handiko mutilen bidea.

Spainiara bidaiara 1799-ko urtarrilean egin zuen. Orduantxe betetzen zuen bosturte batean zehar atzeraturiko ametsa, ez hain erraza bere familiako korapiloengatik; Esteban Palacios bere osaba eta aitabitxi maitearen bila zihoan. Miatzaren 31-n Santoñako euskal portuan lehorreratu zen. Ekainaren 10-n Madrilerara iristen da.

Spainia hiriburuan Caracastar irtena neska eder batez maitemindu zen, bere ahaidea hain zuzen; ezkontza, bere geroko aita-ginarrebaren esigentziaz, ez zen berehala egin senargai oso gaztea zela eta. Azkenez, 1802-n, Errege Carlos IV-k Aranjuezen emaniko baimena hartutakoan, venezuelar ofizialeak ezkontzeko modua izan

(2) «Caracasko Erret Audientziako Expediente Orijinalaren Transkribapena, Simon Bolibar jaun adingabearen tutore bizilekuari buruz, honek bere tutore Carlos Palacios y Sojo Jaunarenetik ihes egitetik sortua, 1795-ko uztailean». Boletín de la Academia Nacional de la Historia, Caracas, 149 garren z., 22 garren o.

(3) Rumazo González, Alfonso: *Bolívar*, 39 garren o.

zuen. Oso agudo doa dena; Venezuelara bueltako bidaiak eta bat bateko alarguntza; zortzi hilabeteko ezkon poza bakarrik.

Herioak bizitzan, beste behin, uzten zion hondamenaren ondoren, Bolibar gaztea Europara itzultzen da berriro. 1804-ko urtea caracastarraren historian ebazkorra da. Bi gertaerak, bi enkontru desberdinek, bakoitza bere nortasun txit desberdinez, eta zirkunstantzia desberdinetan, norabide bat mugatzen laguntzen diote. Han ezagutzen du Bolibarrek Humboldt baroia, Mundu Berritik eginiko jira luzetik etorri berria; Amerikako etorkizunaz hizketan ari zirela, gai politikora jo zuten. Bolibarrek independentzia aipatu zuen; aleman jakintsuak erantzun zion: “Zure herria heldurik dagoela uste dut; baina ez dut hori burutzeko gizonik ikusten” (4).

Bigarren enkontrua Napoleonekin izango zuen, Parisako kaleetako apoteosisean. Bolibarrek hitz seguruz kondatzen du: “Orduan ere arazo publikoetan ardura pixka bat hartzen ari nintzen, politika interesatzen zitzaidan, haren mugimendu bariatuak axola zitzaizkidan eta jarraitzen nituen. Parisen, 1804-ko azken hilean, Napoleonen koroapena ikusi nuen. Egintza edo funtzio hark sutu egin ninduen, baina gutiago hango ponperiak herri eskerga batek heroï frantsesari agertzen zizkion maite sentimenduak baino; bihotz guttien isurpen jeneral hura, herri mugimendu libre eta berezko hura, Napoleonen aintzaz, azaina heroïkoz berotua, eta Napoleonen bera, une hartan milioitik gora lagunek goratua, gutzi hura sentimendu haien hartzailearentzat, gizonaren gorengo jomuga maila, azkenengo nahia eta azkenengo gutizia iruditu zitzaidan. Napoleonek buruan ipini zuen koroa gauza miserabletzat eta tankera gotikotzat jo nuen: handi iruditu zitzaidana hango goraketa orokorra eta haren pertsonak sor erazten zuen arreta zen. Honek, aitortzen dut, neure herriaren esklabutza eta hura aska zezanari letorkiokeen aintza bururatu zidan”, BUC, 229.

Hogeitabi urte zeuzkan, hile batzu geroago, Erroman bere Aberriaren askatasunari ekingo ziola zin egin zuenean. Destino honen hautapenean haren alarguntzak paper ebazkorra jokatu zuen. 1828-ko maiatzak 10-ko haren komentarioak Peru de Lacroix-i argiak dira: “Alargundu ez banintz beharbada nire bizitza beste modu

(4) Lecuna, Vicente: *Catálogo de errores y calumnias en la historia de Bolívar*, I t., 160 garren o.

batekoa izango zen: ez nintzen ez Bolibar jenerala, ez Askatzailea izango, nahiz eta aitortzen dudan nire aiurria ez zela San Mateoko alkate izatekoa. Nire emaztearen heriotza gabe ez nintzen bigarrenez Europaratuko. Nire emaztearen heriotzak oso goiz politikaratu ninduen. Gero Marteren gurdiari segi erazi zidan Geresen goldeari segitu beharrean: Ikus zuek, bada, nire zorteari eragin dion ala ez". BUC. 226 tik 230 ra.

Europara bidaiia honetako urteak —1803-1807— eragin handikoak zaizkio Bolibarri hainbeste bibentzia eta ezagutza bildu baitzuen eta haren karrerari behin betiko norabidea ezarri baitzioten orduan.

Bolibarren nortasunaren sustraiak elikatzen zituen egoera nahasia arras argitu zitzaion. Bolibarren etxea ez zebilen politikatik urrun. Aitak —Araguako Milizietako koronelak— Simon jaio aurretxoan Abalos intendentearen despotismoaren kontra konspiratu zuen, mantuarren negozioei oso kaltegarri baitzitzaien, Juan Vicente jaunak, Mijaresko markesarekin eta Martin Tovarrekina batera, Francisco de Mirandari argi idatzi zion horretaz. Bestalde 1976-ko abenduko Jose Leonardo Chirinosen exekuzioak-zapalkuntzari jarritzeagatik eta hainbeste irain odoletan kobratzeagatik martiritzira egin behar derrigor urtebete lehenago nahi zuen tokian bizitzeko "askatasuna" eskatzen duen mutikoari. Chirinosen mugimendurekin, Picornell, Gual eta Españarenak bat egiten du, eta esana dago Bolibarren maisua tartean zebilela hor: Simon Rodriguez jeniala. Intentu horretako expedientean aipatzen ez badute ere, hezlari criollo hau, bere lankide mallorkatar Picornellen konspirazio lanean sarturik zebilen; bertsio hau biltzen dute Alfonso Rumazo Gonzalez bezalako historilari kreditudunek —Askatzailearen bere biografia bikainean—. Rodriguez denboraldi labur batez atxilotu zuten eta gartzelan bisitatu zuen haren ikasle gazteak. Gomuta ezabaezina izan behar hori 1797-n milizietan sartzen zen gaztetxoarentzat, zein bere jagolearen bat bateko aldegitak —iraultz gertaeran zerikusiatatik segur asko— hirugarren umezurtzaroan bezala zuten baitzuen.

Esaniko guzti honetatik, ulertzekoa da Simon Bolibarrek —bere lehen bidaiako eskala batetan— Mexicoko hiria bisitatzen duenean eta Azanza erretordeak hile batzuek aurrerago Jose Maria España urkamendira eramane zuten Caracasko gertaera hoietaz galdatzen

dionean, zerbait haserre ez zuhurrez erantzutea, konplotgile heroi-koenganako begiona agertuz eta haik hiltzen zituen errejimen absolutista lazki kritikatu. Bolibarrek berak ere —Felipe Larrazabal historilariaren testigantzatik, funtsean O'Leary-k ere berretua— go-goan zeukan nola aldi hartan “Amerikako independentziaren esku-bideak larritu gabe defendatu nituen” (5).

1807-ko ekainean Simon Bolibar Venezuelara itzultzean, oraindik adingabea Espainiako Zuzenbidearen arabera, pertsonaia bat da jadanik. Haren landa etxea Guaira hibiaren bazterrean, garaiko politika lotsa handirik gabe juzkatzen eta konspiratzen ere den biltokia izango da. 1808-ko handiki lagunartean benetako konjurazio osoa josten ari dira. “Biltzarre edo Kongresu criollo” bat ere aipatzen dute —Goiko Gobernu Biltzarrea— eta “jende gazteen alderdi bat” pentsatzeraino heltzen dira, Bolibar anaiak izanik horren aldekorik aktiboena. Subertsio lana ageriratu egiten da eta Gobernadore zaharkituak sedizioz batzuren bazterpena agintzen du, hiritik kanpora. Bolibarrek alde egin behar du Caracastik, non prozesu politikoa aurrera eta eboluzionatuz baitoa, Espainiako egoeraren konpasean, 1810-ko Apirilak 19-ko kolpe garailerantz.

CARACAS AURREZ AURRE

Trebeki eta kontuz, Bolibarrek 1808 eta 1809-ko urte nahasi hauetako eragozpenak txuliatzen ditu. Criolloek berentzat hartu dute Juan de Casas kapitain jeneral buruarinaren burutapena, alegia, Sevillakoa bezalako biltzarre bat egin Erregea, tronutik kendua, denboralki ordezteko, eta honela berehalaxe mobilizatzen da jendea. Milizia nabarretako eta gizarte estratu herrikoietako ofizialeak, berritua ere, hispaniar aginpidearen alde eta aristokraten eraso horren kontra ateratzen dira; maliobrako tartekorik aurrenetariko bat penintsulara bidaltzen dute. Herrian ez dauka batere begionik mantuarren kausak, berak baitira gehiengo mestizioaren kontrako bereizkeriaren eusleak, “Gracias al Sacar” zedularen kontra maliobratu dutenak, eta Unibertsitatea eta Apezgaitegia beren gordeleku eklu-

(5) Larrazábal, Felipe: *Vida de Bolívar*, I t., 7 garren o.

sibotzat eduki dutenak. Berak dira kontsulegoan nagusi; Elizan Artzapezpiku bat edukia dute —Francisco Ibarra—. Aginte politikoa bakarrik falta zaie, ekonomiaz, gizartez, kulturaz, eta erlijioz nagusi baitira. Nolanahi ere, herriak erregea maiteago du zeren gizartebarneko matraketan gehienez apalen alde jotzen baitu. Nabarren miliziak orain Fernandoren buruan dagoen koroaren sostengua zintzoa dira.

Herriaren portaera zentzuzkoa da. Gehiegi eskatzea zen beheko gizarte estratuek atseginez, pasiboki bazen ere, begiratzea eta are gehiago laguntzea berentzat amenazu garbia zen aldakuntza bat. Kolektibitate honen barruan gertaturiko nahaspiletan —borbondarren dinastiapean— erregea beti herriaren alde eta aristokrazia harroen kontra azaldu zen, hala metropolian nola itxasostean. Herri sektoreek ongi ezagutzen eta eskertzen zuten “Gracias al Sacar” zedula garrantzitsua, zenbait pribilejioren “erosketa” permititzen zuena, eta igoera eta aitormen soziala arantzel jakin bat ordaindurik; kolonian nahikoa zabal zebiltzan erregeak, mantuarren kexei kasurik egin gabe, izenpetzen zituen erabaki eta epai liberal kutsukoak. Hain zuzen jendailatzat jotzen zutenarenganako joera honek, erregeari koloniako boteretsuen eta ukondotsuen begiona kentzen zion, oso interesaturik zeudenak bestalde dependentsia mozteko. Hauzia apalen eta menpekoen angelutik ikusirik, criolloak benetako arriskua ziren herriaren nahietarako. Hobe zen errege urrun, ulerkor eta on bat botere lokal harro eta arrogantea, distantziak zorrotzen saiatzekoa, baino. Nabarmendu beharra dago oraindik urte hauetan, nabarrek, hau da, populazio erdik, ezin izan zutela Caracasen toki publikorik lortu beren seme alaba ugarien eskolapenerako. Kabiloak —1805-n— berariz ukatu zuen.

1809-ko maiatzean Gobernadore eta kapitain jeneral berri batek, Vicente Enparanek, hartzen du kargua. Criollo bihurriak bereganatu nahirik, hain zuzen uztailak 24-n —Simon Bolibarren urtebetetzea— Yareko herriko Justizi Teniente Nagusi izendatzen du Bolibar. Apoderatu bidez Bolibarrek enplegua eman diezaiotela nahi du; Udalak aurkezpen pertsonala eskatzen du; hark protesta egiten du betekizun horren kontra.

1810-ko apirilak 19-n, Bolibar Araguako Haranetako bere etxaldean zegoen. Mantuurrek, antze zorrotzez noski, azkenerako lortu egiten dute egun horretan agintari monarkizaleak baztertzeko kol-

pea ematea. Oraingoan ez dira Erregearekin erabat hausteaz min-tzo; aitzitik ordea, erregearen ordezkariak berek baino erregekoia-goen itxura egiten dute; egin dutena erregearen eskubideak kontserbatze eta zaintzeagatik egin omen dute. Are gehiago, Kapitain Jenerala eta Intendentea bere Borbondarrei zintzotasunean gutiago arduratsu eta fidagarri direla ikus erazten da. Kabildoaren aparteko batzarrean, ostegun saindu horretan, zazpi zaldun moderatu azaldu dira autoizendaturik “kleroaren eta herriaren diputatuak”, “herriaren diputatuak”, eta “nabarreriak izendaturiko diputatuak”; hain berri handia zen hau non idazkari-eskribau aspaldiko eta trebeak kristoren nahasmendua armatzen baitu aktan “diputatu” hauekin. Haik denak, eta Kabildo osoa, dira pausu horren giltza; Roscio kontseilaria eta Marquez Madariaga aktibista ebazkorra. Egun horretan sorturiko Goren Batzarreak, maiatzak 24-n, Bolibar, Araguako Haranetako Zurién Milizietako Batailoiko 5 garren Konpainiako tenientetik, gorputz bereko 4 garren Konpainiako Kapitainera igon erazten du.

Venezuelako gertaera hauekin batera, Europan eta gainerako Amerikan gertaera garrantzitsuak jazotzen dira. Napoleonek Mundu Berriari mesede galanta egin dio Zaharra erazirik, eta batez ere Espainia eta Portugal jorik. Portugalgo erret familiak Brasilen babestu behar du; han jartzen du inperioaren aulkia; urte batzu geroago, Lisboa itzultzean, printze batek —Don Pedrok— bertan geratzea erabakiko du eta Amerikan bere monarkia eraikiko: “Independentzia ala hil”, hots egiten du Ipirangan; horrela burutzen du Jose Bonifacio abertzale zoliaren lan pazientea, eta horrela 1822-n Amerikako zati eskerga honen independentzia gertatzen da.

Aldakuntza hauk Bonapartek ekarri zituen Portugalen, bere tropak Espainian zehar haraino eraman zituenean; Godoyk, Erregina Maria Luisaren begikoak, pasoa lortu zuen; gero Frantziako harmadak asmoak aldatu eta Espainia beragantzea pentsatu zuen. Ez zuen korso haundiak Espainiaren erresistentziarik espero; hauxe eta ez beste izango zen haren huts definitiboa; hala aitortu behar izan zuen berak ere.

Espainiako herri konmozio hartan, gainbehera zihoan Carlos IV jendeek abdikatzera behartu zuten Fernando VII gazte eta sinpatikoaren alde; baina Napoleonek, egoerako jaun jadanik eta bere legezketasun hirrika xelebreekin, gertaerak atzera erazteko agindu

zuen bere komenentzira bideratzeko: semeak bere aita desprestigiatuari bihurtzea lortu zuen eta berau izatea Baionan Espainiako zetrua bere anaia Jose Bonaparteri emango ziona.

Espainiako erreakzioak okupatzaile galoaren aurka, Batzorde Zentrala eta gero Erretordego Kontseilua egiteak eta Espainiako herriaren bere nazionalitatearen aldeko epopeiak, bidezko zenez, eragin handia eduki zuen Mundu Berrian. Napoleonen bidaliek porrot egin zuten egoera berriko mandataritzat hartuak izateko asmoetan eta Espainiako dependentziaren eta borbondar beheranzkorren transferentzia baketsua onartua izan zedin Frantziako kolonigoari eta Bonapartetar goranzkorrei.

Fernandori zintzotasunaren atxakiaz Venezuelan erreboluzioa hasi zen. Caracasko gertaeretan eroriei kontsolagarri izango zaie "herriak" ez zuela parterik ukan guduxka ongi asmatu hartan: aldakuntza hau azkarra eta zuzena da: kentzen dituzte Kapitain Jenerala, Intendentea, Audientziako jaunak, Gerrako Auditorea, gobernuko aholkulari jenerala eta Teniente Gobernadorea. Ez dute kontsulegorik, criolloen haberik, kentzen. Harturiko goren aginpidaren indarrez, beharrezko ordezpenak egiten dira ordenu berriaren fidantzako pertsonengan. Laster egiten dute aparatu militar berria. Gobernu bat formatzen da alderdi garailea, criolloen klasea, osoki errepresentatzen duena eta horregatik kolegiatua eta ugaria da: hogeitahiru bokal, bi lehendakari, bi Biltzarre: bata gerra eta defentsakoa eta bestea haziendakoa, bakoitza zazpi lagunez; Polizi Hauzitegi bat epaikari bat eta hamabi diputatuz; Magistratu gehiegi probintzia baterako, handiena bazen ere, zeren ez baitzekiten gainerako konfederakundearen erantzuna zein izango zen.

Goren Batzordeak beste probintziak ere Caracasen exenplua segitzera gonbidatzen ditu. Hainbat mezulari doaz barrurantz pausoa azaltzeko eta haren onarpena lortzeko asmoz. Eskualdeetako oligarkia ukondotsuek, Caracastarren kontrako eta etsaiek, oraingoan argi adierazten dute zer poz guti eman zien Carlos III-k aginduriko integrapenak, zeinek beren bakoiztasun tradizionala urritu baitzuen Caracasen mende ezarririk. Guayana, zalanzkor lehenegotan, gero erretordego Kontseiluaren alde jartzen da. Maracaibo ere gogor dago Caracastarren kontra. Coroko hiriak astinaldia probetxatzen du Caracastik banatzeko; areago oraindik, goi agintari konfederalak kentzean, jadanik ez dagoela hiribururik sostengatze-

raino heltzen da, eta hiririk aintzinakoena bera izanik, berari zegokiola hiriburu izatea.

Beste probintzietarik bakoitzean Caracas matxinatuarekin solidaritate baldintzatu bat ageri da, men egitea prometatzen zaio bakoitzaren autonomia errespetatzen duen guztian. Ikus nola Venezuelako batasuna oso berria izanik, ez ziren gogoz onartzen eta nola bestalde makalak ziren elkarrekiko eta Caracasekiko loturak.

Goren Batzordea gizarte eta ekonomi arloan oso kontuz ari bada ere, Caracastarren kontzientzia zati bat zen nazioartekotasuna arretaz zaindu du. Venezuelako izpiritu kontinentezalea, Mirandarengan eta Picornell, Gual eta Españaren konspirazio liburuetan argi zegoena, berriro plazaratzen da inizatiba eta agerpen egiatsuetan. Apirilaren 19-tik astebetara, Caracasko batzordea Amerikako kabildo guztiei zuzentzen zaie, Venezuelaren jokabidea imitatzeraz gonbidatuz.

Extrobertsio, altruismo eta bokazio politikozko jite hau oso aintzinatik hautemana zen. Jose de Oviedo y Baños-en Historian —lur horretan egin zen lehenengoan— hala ageri zen hori, eta Humboldték ere aipatu zuen.

Roscioren zuzenbide berarizkoan, bidaia diplomatikoak prestatzen dira eginkizun berrirako laguntza bila. Enbaxada hauetariko garrantzitsuena Simon Bolibarri ematen zaio, orduan hogeitasei urte zituen eta kapitain egin zutenetik egun gutira koroneltzat aipatua. Luis Lopez Mendez ematen zaio laguntzat; biek sugeritzen dute mandatalgoan Andres Bello serioa eta erantzulea ere sar dezatela, eta hala onartzen dute. Hirukotea Londresera doa; uztailetik irailera egiten du bere egitekoa, Bolibarrek caracastarren maliobra ikusten uzten du; ez da Fernando VII-ren eskubideak “jagotea”, independentzi atea irekitzea baizik.

Bolibarren Mirandarekiko harremana, Londresen, oso garrantzitsua da; aitzindaria, Bolibarrek animaturik, Caracasera itzultzen da ia berrogei urteko ausentzia ondoren. La Guairara azaltzean Gobernuak dudak ditu hura onartzeko, ez baitirudi hain logikoa ere bere izenean aginpidea ejertzitzen ari diren Erregearen etsai porrokatu bat onartzea. Zuhurki mugituriko herri manifestazio batek laguntzen dio Mirandari garaile Caracaseraino. Aitzindaria itzuli da bere Aberrira eta El Pao-tik diputatutza irabazteko garaiz heltzen da.

Bere destino internazionalistan, Venezuelak pausu handi bat ematen du, 1811-ko maiatzak 28-n, hango gobernuaren inizatibaz, anai sentimendu berdinak dituen Cundinamarca hauzoarekin, bi herrien historian lehen tresna diplomatikoa izenpetzen dutenean: Aliantza eta Federakunde Itun bat. Caracastik hartara bidaliak, Jose Cortes Madariagak, Colombiako oinarri izango den harria ipintzen du, aberririk handiena bera, Mirandak eta Bolibarrek hain maite zutena. Izatez Chiletar kalonje bizi eta jakintsuak aste gutiren buruan kontzertatzen duena areago da fusioa aliantza baino. Itun hau Venezuelako kongresuak berresten du, oposiziorik ez eragozpenik gabe, 1811-garren urte bereko urriak 12-n; artikuluetan, gai politikoez gainera, klausula garrantzitsu bat sartzen dute garai estelar hartan kultur hauzei ematen zitzaien ardura handiaren ezagurri: “Estatu bitzuetako menpekoen hezkuntzarako, bietako eskolak, kolegioak eta Unibertsitateak komunak izango dira, irakas-kuntzagatik ezer eskatu gabe” (6).

Goren Batzordeko dokumentuek kalitate eta goitasun aparta dute; gobernu berria duintasun seguruz aurkezten da nazio guztien eta historiaren aurrean; harturiko erabakietarako argumentazioa distiratsua, ongi oinarritua eta komentzigarria da. Apirilak 19-ko patrioiek eta baita 1811-ko parlamentarioek ere, prentsaren bidez eta Aberri Elkartean eritzia gidatzen zutenengandik bitzu hurbil, ekarri ona eta beharreko ezagutza dute. Aldakuntza politikoko idazkiak benetako maisu lanak dira. Gizonaren eta Estatuaren diziplinetan formazio inbidiagarria eta dialektikaren jabetasun bakana nabari dira urte haietako erabaki eta jokabide txit zentzuzkoetan. Espainiarekiko eztabaida munduko hauztegi batetan Zuzenbide Publikoko maisuen aurrean eta arrazoirik inpartzialenaren argira ebaztekoa izan balitz, epaia dudarik gabe, bere abokatuen egokitasunagatik, Venezuelaren alde zegokeen.

Lehen Kongresua, Goren Batzordeak egoera probisionalari irtenbide egonkor bat aurkitzeko bilerazia, martxoaren bian instalatu zen Cumana, Margarita, Barcelona, Barinas, Caracas, Merida eta Trujilloko ordezkariekin.

(6) Mendoza, Cristóbal L.: *Las primeras misiones diplomáticas de Venezuela*, II t., 127 garren o.

Londresko mandatalgoa burutu eta Caracasera itzuli ondoren, Bolibar txit aktibo ibili da separakuntzaren aldeko agitazioan. Aberrri Elkarteak du bere ahaleginen eskenategia. Erreboluzioaren urteurrenean —1811-ko apirilak 19n— haren hitzaldia, Antonio Muñoz Tebar eta Jose Felix Ribasenekin batera, sutsuen eta biribilentariakoa da. Uztailaren 4-n, Kongresuaren gaineko presio mugimenduak goia harrapatzen du. Eztabaida Independentziaren inguruan zentratzen da. Lehiaketa juridiko eta politiko bat da, 1789-ko Frantziako Konstituentean izaniko eztabaidak gogarazten dituenak; Rosciok gorantz egiten du bere jakinduria harrigarri. Uztailaren 5-n talde soberanoak independentzia solemneki deklaratu du. La Grita-ko Maya diputatua bakarrik ukatzen da akta izenpeztzera. Ez dira ageri Guayanako eta Maracaiboko, ez Coroko probintziak.

Criolloek, independentziarekin, aginte osoa hartzen dute; bostere politikoa bakarrik falta zitzaien: ekonomi, gizarte eta kultur boterearen jabe izanik, matxinadaren garaile atera dira beren lurrean bertan bigarren mailako pertsonatzat zeuzkan *capitis* diminitio haren kontra. Oraindik aldakuntza handiaren euforian, aginduriko ordenu berria denbora berrietako inperatiboan eta gizarte berriko eskakizun funtsezkoen arabera sortzea aldarrikatzen da. Garaipena Caracasko gizarte sektore guztien bilkuntzari eskerrak izan da; baina gailurra harrapatuz batera, mantuarrek baztertu egin nahi dituzte, lehentxoago derrigorreko balankak izan direnak.

Berriro ere Venezuelak bere jite amerikazalea erakusten du. “Colombiako kontinentea ezagutzen duen lehenengo konstituzio libre eta errepresentatiboak” (7) eta 1811-ko abenduak 21-n Caracasen onetsi zen konstituzio denak, hitzondo txit garrantzitsuen berritasun juridikoa dakar. Hemen Venezuelako probintzietako ordezkariak diote: “Izadiko Legegile Gorenak gure bihotzetan adiskidantza eta batasunik mamienak inspiratzen dituen gero bai gure artean eta bai gure Erlijioa, gure berezko soberania eta gure Independentzia defendatzeko batu nahi zaizkigun colombiar kontinente beste bizilagun guztiekin, behartzen eta konprometatzen gara bertan dauden gauza guztiak eta bakoitza ukiezinki gordetzera eta betetzera”, eta gero baiezen ohargarri hau erantzen dute: “agertu-

(7) *Constitución Federal de Venezuela*, 1811, 18 garren o.

rik, hala ere, erabaki hauk noiznahi aldatzea eta aldatzea, beren askatasuna eta independentzia politikoa defendatzeko eta kontserbatzeko Gorputz Nazional batetan bildu nahi duten Colombiako herrien gehiengoaren arabera, behar denean modifikatuz, zuzenduz eta egokituz gure arteko akordio komunez, esaniko herrien interes jeneralekin zerikusi zuzenik duten gauza guztietan eta Colombia osoko edo zati handi batetako kongresu jeneralean bilduriko bere legezko organuak ebatzen dituen eta batzordekideek onesten dituzten gauza guztietan” (8).

Aurreko testuan prometatzen dena, Konstituzioak berak betetzen du bere erabaki sailean. Honela bada, Venezuelako botere exekutiboaren buru den hirukoteko lagunei hauxe bakarrik eskatzen zaie, 73-garren artikuluan: “Colombiako kontinentean eta honen irlتان (lehen Espainiar Amerika deituan) jaioa izatea”. Honela lehen kongresuak bidea ematen du gure hispanoamerikar munduko edozein herritar izateko —ez da guti— Venezuelako buru.

Bolibarrekin I Errepublikako errejimen konstituzionalean ez dauka beste erantzukizunik 1811-ko uztailetik 1812-ko uztaileira gomendatzen zaizkion eginkizun militarrik baizik. Ez da azaltzen ezekin goi maila politikotan. Miranda, lidergorako sobera meritu edukirik ere, eskluditurik uzten dute Goren Gobernuaren egitean: Cristobal Mendoza, Juan Escalona, eta Baltasar Padrón hautatzen dituzte. Denak patrizio zuzen eta ohoragarriak, bake aldiaren zibiltasun eta zuzenbide mailan irabazirik izenarekin. Aberriak bere lehen unean osotasun eta birtutedun gizoni utzi nahi die bere zoria. Honela osaturiko Exekutiboa berebizikoa da bare aldiatarako, baina astuna eta motela gertatuko da gainean diren garai larrietan. Belaunaldien erreleboa datorke, eta Aitzindari hospetsua bera ere baztertuko duen olatu berritzailearen gangarrean Simon Bolibarrek hartu beharko du gidaritzaren erantzukizuna.

GERRAN GAUDE

Venezuelako gobernu distiratsuaren kontra etsairik estrainio eta berezienak konfabulatzen dira. Natura fisikoa bera ere, lurrikara

(8) *Id.*, 38 garren o.

hondagarri batetan —1812-ko martxoaren 26-n— badirudi laguntzaile zetorkiola Corotik erdirantz, Domingo Monteverde buru zela, zetorren erreboltari. Monteverderekin kanariarrak datoz. Apaldura luzeetako konplexu guztiak eta penintsularren uztarria hausteko independentzian jarri zituzten esperantzen zapuzketa ere azalera agertzen dira, mendeku lasterketa honetan ordain bat bilatuz.

Lehen Errepublikak emergentzia larriari aurrea eman behar dio, eta Erroma klasikoko krisisean bezala, hirukote konstituzionalak diktadore bati uzten dio lekua; oraingoan Miranda hautatzen dute, asmo zitalez beharbada. Agureak lan nahasiegi hartan ez du azartatzen, faktorerik desberdinenen, batez ere bere zirkunstanziatik desloturaren, biktima erortzen da: zortzi bosturteko auzentzia denbora asko da. Bere izaera suminkor eta autoritaria era kaltegarri zaio haren paper politikoari. Bolibarrek Londresen eza-gutu zuen, han jaun handi baten gisa ikusi zuen goragoko inguru baten barruan eta etortzera animatu zuen, giro kontrasteak sor eraziko zuen dramarik susmatu gabe. Orain Venezuelan Mirandak lekutik kanpora argi egiten du.

Ez zuen jeneral handiak Bolibar koronel gaztea harmadan hartu nahi izan, baina azkenerako amore eman zuen eta bere ondoan eduki zuen 1811-ko abuztuan Valentzia hartzeko eginkizun delikatuak. Han nabarmendu zen Bolibar. Mirandak bidalirik garaipenaren berria ekarri zuen Caracasera. Hurren urteko maiatzean, Simon Bolibar lerrora itzultzen da. Lurrikara gertatu berri da eta San Jacinto enparantzan haren kuraiak izua galgaten du. Lurrikara Jainkoa matxinadaren kontra dagoen zeinutzat jo nahi duen obskurantsismoaren kontra, Bolibarrek desafio batekin erantzuten du. Maiatzaren 4-n Puerto Cabello-ko buruzagitza militarra eta politikoa hartzea tokatzen zaio. Errepublika dardar dago Ekainaren 20-n buruturiko traizioak plaza garrantzitsu haren galera dakar. San Felipeko gazteluko goarnizioa sublebatu egiten da, prisonari erregeza-leak askatu eta bere artilleriaz Bolibar dagoen hiria atakatzen du; bost gudu egunetan eta Valenciatik datorren Monteverderen jendeak inguraturik, Puerto Cabello espainiarrek irabazten dute.

Toroko markesaren —gerran esperientzia gabeko expeditio buuruaren— frakasoak Ekialdean, Barloventoko esklabuek, bere ugazaba atzerakoen zirrikadaz altxaturik oraingoan, Caracas harrapatuko ote zuten bildurra, Guayana eta Maracaiboren jarrera, Mirandaren

kontrako sabotaia etengabea eta deshospe olatua, Miranda bera, ofentsibara jo beharrik defentsari atxikitzea galtzen ari diren elementuekin, dena da azken inminentearen iragarle. Desertzioak, zurrumruuak, desmenderapenak, kanpaina aurrera eramateko gerra baliakizunik ez lortzeko perspektiba dramatikoa, denak, hitz batez, erremedio gabeki arrastatzen du buruzagi agurearen izarra. Mirandak azkenerako kapitulatu egiten du Monteverderen aurrean uztailaren 25-n. Bost hilabete baino guttiagotan gainbehera etorri zen dena. Hark fedea zuen hitzarmen solemneen gordepen zintzoan eta garaileen ohore militarrean. Guzti hartan bistan zeukan, behin berriro, ez zuela abagune latz eta barbaro hura ezagutzen. Mirandak ez du bere Aberririk ez bere harma lagunik traizionatzen. Bere menpeko efektiboen benetako indarrari buruz, eta etsaiaren benetako kalitateari buruz neurrera okerra zeukan eta horrexek hondatu zuen, berak dominatzen ez duen inguruaren ezezagutzatik sorturiko neurrera hain zuzen.

Mirandarekin Errepublika erortzen da. Bera pertsonalki etsaien esku geratzen da, bidaiia tragiko baten ondoren: La Guaira - Puerto Cabello - Puerto Rico - La Carraca, lau urte tristeren buruan hiltzeko. Mirandalaririk adituenetariko batek hauxe dio sintesis bikainez: "Haren bizitza abentura eder bat izan zen, arriskuak eta tragediak zuziturik beti. Kontzientzia historiko handiz eta Amerikaren erantzukizun sen handiagoz ulertu eta miretsi behar da hura, bera baita proiektzio unibertsaldun abenturarik ederreneko amerikar gizona. Honelakoxea zen eta honelakoxea da gaur ere abertura haintzatsuaren abenturaria, hitza bikaindu zuena miragarri bihurturik. Ez zen aldatu. Garaiak aldatu ziren eta arrazoia eman zioten. Aldakuntza horretara lagundu zuen ezpataz zerbitzaturiko ideiekin —inoiz ere ez ezpata ideien gainean jarririk— eta orain betiereko gelditasunean, bigente dirau haren irakatsiak, amerikarren erantzukizuneko irakatsia noski, giza eragin betikoduna, zeren gizonen askatasunak noiznahi, nonahi arriskupean baitaude" (9).

Zirkunstantzia lazarri hartan, herriak ez zion ordenu berriari bizkarrik jarri. Gobernuak ez zion criolloen interesari bakarrik begiratu, eta hoik, egia esan, habilak izan ziren gehiengo nabarrena-

(9) Nucete-Sardi, José: *Aventura y Tragedia de don Francisco de Miranda*, 395, 406 garren oo.

na hurbiltzeko eta apirileko 19-ko kolpe dohatsura hura biltzeko. Goren Batzordeak ez zien herriaren nahiei inolako asetasun konkreturik eman; egin zuen bakarra indioei ezartzen zitzaien zerga kendu, eta —1810-ko abuztuaren 4-n, hots, agintea hartu eta lau hilabetera— “Probintzia hoietan beltza sartzea debekatu” iragarri. Esklabutza zutik geratu zen. De jure errejimenean ere ez dago herriarentzat ezer herririk. 1811-ko abenduak 21-n promulgaturiko konstituzioa nobleria criolloari axola zaionari bakarrik begira dago. Estatuaren egikerari buruz, iparramerikar jitea frantsesarekin biltzen da, sistema mixto baten barruan. Venezuelako lurrak eta historiak ezartzen duten estruktura federala hartzen dute. Askatasun politiko eta hiri garantia guztiak aldarrikatzen dira; berdintasuna legearen aurrean, titulu eta pribilegioen abolipena, “kasta” arteko bereizkeriaren amaiera, giza pertsonari begirunea, pentsamendu askatasuna. Estatua jabeboa jagotera konprometatzen da. Honela ukigabe mantentzen du konkistako eta kolonikuntz mendeetako lapurretan argiro zimendaturiko instituzioa. Erljio kontuan, errejimena kontserbadorea eta begiratua izan zen. Ez zien gehiengo nabarrei eskolakuntzarik ireki. Hitz batez, demokrazia gehiago edo gutiago bitxi eta abstrakto bat jarri zuten, masentzat ulertezina eta hurruna, hauen nahietarik bat ere argi aitortu gabe. Sektore herriarrek ezin zuten sorturiko ordenua maite; ez berena bezala jotzen. Venezuelako gehiengoaren euspen gabe ez zegoen erreboluzio aldakuntzari iraun erazterik. Oraindik hurrengo ahaleginean ere —Bigarren Errepublikak— eskema oker berbera ikusi da: aldakuntza politiko hutsak, eta emaitz bera: frakasoak.

Bolibarrek La Guairatik ihes egin ahal izan zuen Zerveriz hara sartzean. Caracasen, bere lagun Francisco Iturbe espainiarraren arartekotasun zabalagatik, kanpora irreteko behar zuen pasaportea lortu zuen Monteverdeengandik. Horrela Curazaora heldu eta Cartagenara segitu zuen. Hiri honetan, orduan gobernu autonomikoa zuena hain zuzen, Simon Bolibarrek 1812-ko abenduaren 15-n bere txosten famatua idazten eta zabaltzen du: “Caracastar batek Nueva Granadako hiritarrei zuzenduriko txostena”.

Agiri horretan politiko hausnarkorra azaltzen da, nahiz eta orduan hogeitabederatzi urte bakarrik eduki. Obra hau behin behinekoa da harengan dagoen politikoa kalibratzeko eta batez ere Bolibarren ezagutzaren kalitatea haren ekintza publikoaren hasieran

bertan neurtzeko. Venezuelaren oraintsuko erosioaren arrazoen azterketa gailena egiten du. Hautemale sakon, zoli eta neurtua, jite propioaren jabea da lider gazte hau bere destinoaren atarian. Badago jadanik errezkada nagusiaren lehen dokumentua.

Nueva Granadan Bolibarrek zenbait lan militar egiten ditu; behar den tokian zerbitzatzen du askatasuna. Hantxe lortzen du bere jaiot Venezuela askatzeko beste intentu baterako behar duen laguntza. Orduan buruturiko ahalegin hura historian Kanpaina Miragarria izenez ezagutzen da. 1813-ko martxoaren 12-n, Tunjan egonlekua duen Neogranadako Gobernuak brigadier gradua ematen dio eta Nueva Granadako hiritar egiten du. Bi hilabete geroago aberriaren atarian dago maiatzaren 14-n bere martxa askatzailea hasteko. 15-n San Cristobalen sartzen da, 23-n Meridan “Askatzaille” gisa goratzen dute. Ekainaren 15-n Trujillon bere Hil Arteko Gerra-ren agiria diktatzen du.; honekin beharreko argitasuna nahiz eta ez behar adinakoa ematen dio egoerari. Errepublikak, egintza horrekin, tropa erregezaleak aplikatzen ari diren neurrietan jasotzen du burruka, eta solemneki egiten du ihardesteko promes. Alderdiak zehazki mugatzen dira: askatasuna ala zapalkuntza, herriak ala tronuak, emantzipazioa ala kolonikuntza. Bolibarrek jakin erazi nahi du Venezuelan ez dagoela bi aukeretatik bat baizik, eta barruko kohesioa indartzen saiatzen da etsai komun bat seinalaturik, zein baita aurren jo behar dena, venezuelarren arteko mokoketa antzu eta suizidan indarrak alferrik galdu gabe. Mugapenerako iraultz terrorea dantzatzen du; ez du ordea bere helbururik lortzen. Terrorea ez da nahikoa, eta etsaien parekidetasun juridikoak ere ez du askorik konpontzen. Mugimendu errebeldeak ezherriko jarraitzen du, mezu politikorik ez daukala dirudi, betiko esplotatuentzat hobekuntzarik ez zaio ageri; aitzitik ordea, criolloen nagusigoa indartuko ote den mehatxua somatzen zaio.

1813-n, lurraldearen bi alboetatik ekintza paralelo batek garai-pena dakar. Bolibarrek mendebaletik Kanpaina Miragarria hasten duenean, berrogeitabost gaztek, Santiago Mariño buru, beren artean Piar, Bermudez, Valdez, Bideau direla, Trinidad-ko fusilez eta tresnaz horniturik, ekialdearen askakundeari eman diote; Chacachacare-ko expeditzioa da, zeinen gerra deiak Mirandaren izen bikaina bindikatzen baitu.

Mariño Cumanan egongo da Bolibarrek, abuztuak 6-n, Caraca-

sen sarrera egiten duenean. Bi buruzagiek, bakoitza bere herri erdian nagusi, La Victoria-n elkar ikusiko dute 1814-ko apirilaren 5-n. Luzaro gabe biek atzerrira irten beharko dute, errepublika amiltzean.

Caracasko Kabildoak berriro ere Venezuelako ordezkaritza bere borondate hutsez harturik, 1813-ko urriaren 14-n, Bolibar izendatzen du: bere harmaden Jeneral Nagusia, eta lehenago Meridak emana zion Askatzaile titulua ematen dio. Gobernua birreratu egiten da.

Urte guzti hau burruka odoltsukoa izan da; handiagorik ikusi beharko da 1814-n. Baretasun erlatiboazko tarte bakanetariko batetan, bere hirian, buruzagiak Herri Biltzarre bat konbokatzen du —urtarrilaren 2-n— zeinen aurrean bere jokabidearen kontu zehatzak ematen baititu; handik botere osoekin jantzirik ateratzen da.

Bolibarren eta Mariñoren garaipen biribilak eta guzti ere, erregezaleen erreakzioa ez da bukatu; Guayanatik eta Maracaibotik indar etengabeak eta berrituak —lagunez eta baliakizunez— bidaltzen zaizkio; gainera probintzia hoiien bitartez, Kubatik, Puerto Ricotik eta irla ingelesetatik datorren gerrako material beharrezkoa heltzen zaio. 1814 Errepublikaren urte beltza da; erregezaleek bereganaturik, herri estratuek iraultzaileei erasotzen diete; hauen tropek ez dute aurkitzen nola harmaz hornitu; Estatu Batuek Penintsulari laguntzen diote; eta Ingalaterrak, Napoleonen bildurrez, ez du Espainiarekin haserretu nahi; Europan adiskidantza hau axolago zaio Amerikatik egiten zaizkion merkatal irabazien eskaintza tentagarriak baino.

Juan Tomas Boyes asturiar oldarkoiak erregezaleen artean nagusitzea lortzen du; hauek, iraultzaileak baino hobeki harmaturik eta horniturik, garaipen jenerala daukate beren ofentsiban; haien liderrak agudo hartzen du prestigio izugarria kultura urriko eta premia handietako hiri trinkoetan; lautarrak. Mestizoak dira, caribetarren zati handiz, abereen artzantzako lan gogorretarako eginak, oldartasun eta ikaragabetasun izugarrikoak. Haiei, bere jarraitzaile guztiei bezala, nabarrei batez ere, benetako herri erraietatik irtenik, Boyesek etsaiaren ondasuna harrapatzen uzten die eta aspaldiko injustiziek elikaturiko gaizkoadura eta amorru guztia garaituarengan asetzea. Harrapaketa, hausketa eta hilketa, horixe dela dirudi kontsigna; beren miseriez beste ezer ez daukatenen erreibindikazio

konkretuetarantz jotzen duen konbinapen bat. Venezuelak egundoko krimenak jasaten ditu bere askatasunen etsaiak aplikatzen duen lur errautsiaren taktikapean.

Bigarren Errepublikak iraupen laburra du. Bovesek, bere zaldun subarrekin eta herri guztian jatoriko partidekin, ezereztu egiten du. Lautarrak, zaldun erdibiluziak, ez zelarik ez arrearik gabe, zaldieria une honetako harma nagusi egiten du. Gerra lautadetara pasatu da; han abere ugari dago; Independentziako kanpainetan oso artilleria guti erabiltzen da; fusilak, polbora, eta beruna lortzeko komediak daude beti; Bolibarrek eta bere burkiderik gehienek desterrura joan behar berriro ere. Baina itzuliko dira eginbeharraren eta hosperean larrainera. “Askatzailearen bizitzako gauzarik handiena —idazten du Augusto Mijares historilariak— zorigatitz gorritik nagusitasunaren eta haintzaren tontorretara igoten ikustea da, derrota bakoitzaren ondoren berretzen eta bortitzen zaion izaeraren indar menderaezinak eramantik”.

Espainiatik, Fernando VII-k, Napoleonen porrotari eskerrak bere tronuan berjarriak, 1815-ko otsailean expedizio indartsu bat bidaltzen du; 10.000 tik gora gizon dira, beteranoak eta ondo hornituak; Pablo Morillo dute buruzagi. Hispaniar inperialistek Amerika bere domeinupera bihurtu nahi dute, errebeldeen aurka gogortasuna kontseilatzen dute, ez daude ultraixasoko eduki handiak galtzera, areago oraindik oraintsuko krisiseko agintari penintsularrak berek Mundu Berriaren alde promulgaturiko printzipio liberalak ere zapuztu egiten dituzte. Morillok Margarita okupatzen du; Venezuela eta Nueva Granada menderatzen ditu denboralki. Espainiar botereak horrela bere azken ditzira du. Ez dago hurrun azken kolapsoa.

Bolibarrek, 14-ko irailean Carupanotik ihes eginak, Cartagena itzuli ahal izan zuen. Tunjan bere frakasoaren berri eman zion kongresuari; gorporazio honek fidantza berretu zion eta han ederki burutuko zituen eginkizun militarrek eskuratu zizkion. Beste askakuntz intentu batez Venezuelara berehalaxe itzultzerik ez zuela ikusirik, Antilletara joan zen laguntza bila. Jamaican zazpi hilabete egiten ditu; herbestaldi hau emankorra zaio bere pentsalari lanerako, irakurri eta mediatu egiten du; Kingstonen bere eskutitz zortza idazten du.

Luis Beltrán Guerrero humanistak zolitasun handiz juzkatu du

Askatzailearen lan hospetsu hau, eta honela dio: “Eskutitz profetikoan Bolibar etorkizunaren historilari bat da, historiologo bat, eta gainera historia pentsatua lantzen du, balioen aipamenekin, hau da, historisofia. Kausa ekonomikoak, politikoak, sozialak, ideologikoak ari zaizkio barruan, Espainiar Amerika hamabost edo gehiago errepublika independentetan zatituko dela iragarri aurretik; Mexico errepublika errepresentakor bat izango dela “bizirik presidente batekin, bere eginkizunak egoki eta zuzen betetzen baditu edo bestela monarkia ekarriko du partidu militarrek eta aristokratikoak eutsirik”. Hiru inperio entseiuk: Iturbide, Maximiliano, Porfirio Diaz, eta mende honetako iraultza ondoko partidu bakarra gobernatzaile izateak, iragarpen hau konfirmatu egiten dituzte. Erdi-Amerikako Konfederakundea; buruzagi anarkia Rio de la Platan, Rosas eta lurraldeko oligarkia ondoren direla; Chileko establetasun politikoa Portales burdinazkoari eta Belloren irakatsiei eskerrak; Limako giro bigun eta aberatsa, profeta bera ere joko duena: Torre-Tagle eta Riva-Agueroren traizioak; Colombia haundia; Amerikar Estatuaren Erakundea (OEA), aldameneneko inperialismoari buruzko jelsiaz; botere exekutiboaren Venezuelen gehienaz ere bizirikoa eta inoiz ere ez heredarria, dena dago aurreikusirik. Geroago, Boliviako Kontstituzioak eta beste idazki batzuk berretsiko dute profezi dohain bikain hau. Sapiientzia bat, jakinduria bat da; zientzia eta artea baino gehiago, askoz gehiago. Mistikoek eta sainduak seigarren zentzutzat desarroilatzen dute, arrazoiak hatzematen ez duen laugarren dimentsio batera iristen dira. Bolibarrek kontrakoak batu zituen: igarmena eta ezagumena” (10).

1815-ko abenduan Bolibar Haitira heltzen da. Puerto Príncipe aldatzeko erabakia ederra izan da, ia probidentziala haren etorkizunerako. Petion presidente zintzo eta onak, Luis Brion curazaotar bipil eta ebazkorrak eta Robert Sutherland babestaile eskuzabalak Los Cayos-ko expeditioa prestatzen laguntzen diote. Haitin anitz venezuelar dago eta diferentzia biziak haien artean; Bolibarrek errespetoa sartzan du Brionen laguntzaz; ofiziale sail hautatu bat untziratzen da berekin. Mariño Goi Estatu Buru gisa dator eta Brion Errepublikako Almirante gisa.

(10) Guerrero, Luis Beltrán: «Bolívar, historiador del futuro». *Candideces*-en, 5 garren saila, 8 eta 10 garren oo.

Askatzaileak harma eta munizio bila eman zuten 1815-ko urte guztia. Venezuelan antz gerrila ari da tropa erregezaleen aurka. Bolibar sinetsirik zegoen —lehen Miranda bezala— kanpoko laguntza derrigorrekoa zela; Britainia Haundiari bere merkatal abantailen eskaintzak berretzen dizkio; era berean ozeanoarteko kanalerako erraztasunak iragartzen ditu. Bolibarren nahia honetan zen hogeit hamar edo hogeitamar mila fusil, milioi bat libera esterlin eta hamabost edo hogeit hamar unti. Haik gabe ez askatasunik ez independen-tziarik ez zegokeen baliakizunen bila, Bolibar kanpoko laguntza eske ari da; Iparramerikako ezetzak eta guzti ere, gerra gaiak han-txe bilatzen saiatzen da. Ez zaio ulertzen, ez zaio lagutzen. Lehe-nago ere Palacio Fajardo muturretakoa harturik zegoen Estatu Ba-tuen gure iraultzari buruzko hoztasun eta axolagabekeria. Neutral-tasuna eta Espainiarekiko harreman onak zaindurik, 1812 garren urte tragiko hartan, Palacio Fajardori “erantzun glaziarra eman zi-tzaion —hala dio berak— potentzia harekiko gure harreman arau-ztat balioko duena” (11).

Hirugarren Errepublika Los Cayos-ko Espedizioa Margaritara heltzen hasten da, 1816-ko maiatzean. Laster izango da beste des-kalabru bat gehiago —Ocumare— eta berriro ere ihes egin behar Haiti oparora. Hauxe da unea Petion hazten eta Venezuelako Ongile maila gurena irabazten duena, zeini Bolibarrek, beroturik eta justizikor, “lurreko ongileetan lehenengoa” deituko baitio. Ez du lagun dohakabea bertan behertzen; ez du expediente lasai hau —berak sugeritua gainera— erabiltzen, alegia, Iparramerikara, Me-xicora, Ingalaterrara edo Argentinara heltzeko bideak eman. Paul Verna Haitiar historilariak liburu bikainean, Petion hospetsuaren erantzun exenplarra dakar: “Zoriak bi aldiz barre egin badizu, be-harbada hirugarren aukeran irribarre egingo dizu. Nik behintzat susmo hori daukat, eta zure atsekabea eta mina leuntzeko zerbait egin ahal baneza, kontu nire ahalean dagoen guztiarekin. Zabiltz, bada, azkar eta zatoz hiri honetara. Elkarrekin deliberatuko dugu” (12).

1816-ko iraila da. Ehun bat egun txit aktibo hasten dira; Pe-

(11) Parra-Pérez, C.: *Una misión diplomática venezolana ante Napoleón en 1813*, 20 garren o.

(12) Paúl Verna: *Petion y Bolívar*, 256 garren o.

tionek faboraturik eta bizkarturik, Sutherlandek zabaltasun desinteresatuz eta kondizio gabe lagundurik, Brionen presentzia bipilez, Bolibarrek azken erasoak prestatzen du: Haitiko lurretatik dator Carabobon eta gero El Callao-n Solom-eko garaipenarekin buelta gabe nagusituko den abiada.

Honela askakuntz ekintzarako etapa emankorra heldu zen. Orain iraultzaren hizkera beste bat da: sozialagoa politikoa baino. Bolibarrek asimilatzen du jasan duen esperientzia, ulertu du erregezaileen garaipenen arrazoi praktikoa; Jamaican aitortu zuen “independenteez ez zutela askatasun osorik eskaini Espainiako gerrilek egiten zuten bezala”, I-180. Bere ideiekin ados zegoen ekintza batez —iraultzaren prozesu jatorria desmatazatu, Petioni ere atsegin zaion bezala—, esklabuen askatasun orokorra dekretatzen du lehenengoz; berehalaxe legegiten du lurren banaketari buruz herri gudulariarentzat. Berdintasunaren gaia, eta berdin justizia ukigarria ere, haren arduetan nagusi bilakatzen da; abertzaleen lerroetan “herri herriko” militarrei posibilitateak zabaldu eta konfirmatu egiten zaizkie. Urte haietako gerrilla burrukak gudurako gizonik egokien hautaketa bezala egina zeukan; horregatik maila beheagoko jendea goi postuetara igoten da orain. Morillok idazten du edozein buruzagi iraultzailek “erregearen troparik ez den lurralderen batetara bakarrik joan, jendeari alarma jo, esklabutzak askatu eta egun gutitan harmada berri bat egiten duela” (13). Lehengo esklabu artetik ofiziale bikainak ateratzen dira; baserriko masa miserableen artean iraultzak giza erreserba agortezinak ditu. Boves Urica-ko guduan hilik (1814) beste gidari batek heredatzen du lautar porrokatuen itsaspen sutua: Jose Antonio Paezek; Bolibarrek berehalaxe kreditatzen duen lur justizia prometatzen die: horrela lautadako monopolio latifundistak bukatu egingo omen dira, artzaintzarako askatasuna izango omen da eta lurrak aberriaren soldadu egiten diren baserriarentzat.

Amerikako perspektibak hobetu egiten dira Napoleonen eklipse osoaren ondoren. Britainiar industrialen eta merkatarien sakedak, Bonaparteren arriskua uxaturik, beren inperio sendoaren politikari aldakuntzak ezartzen dizkio. Orain Amerikako perspekti-

(13) Rodríguez Villa, Antonio: *El Teniente General don Pablo Morillo*, II t., 18 garren o.

bak axola gehiago du merkatalgoaren zabalkunderako Espainia ahulduarekiko harreman onak baino. Gainera Ingalaterrak badu orduan herri hoietan irabazian jar dezakeen harmamendu soberakinik eta zaharrik. Hemengo gaiak, kakaoa, kafea, fruituak, larruak eta mandoak, han oso estimatuak, Antilletan trukutzen dira, eta handixe zuzpertzten da gerra. Abertzaleei gero eta errazago zaie harmak lortzea; orain ez dira beren garaipenetan harrapatzen dituztenak bakarrik; orain ez dira, lehen bezala, beren baldintza latzak ezartzeko aukera probetxatzen zuten espekulatuzaileek eta satorleek lumatuak.

Hirugarren Errepublikan aldakuntza handi bat sartzen da. Ez da Caracas lehen helburua, beste batzutan bezala: Haitiko bigarren espedizioa heltzean, Piar da Guayana hartzeak daukan garrantziaz ohartzten den lehenengoetarikoa; baliakizun guztiak horretara mobilizatzen dituzte; berak zuzentzen du San Felix-ko gudua, hain probintzia itzela eskuratzen diena. Angostura da iraultzaileei falta zitzaien oinarri geopolitikoa; haren lekupen estrategikoak Orinocotik kanpo harremanen erraztasunek, hango segurantza kondizioek, haren erreserba ugarien balioa jaso egiten dute. Guayanarik gehiena, hango frantzizkotarren misio exenplarren eginez, medioen biltoki izugarria, ia ukigabea da; probintzia hura, ordurarte beti erregezaleen eskuetan egona, deusezpen nazionaletik salbo ateratzen. Morillok geroago, Piar-en intuizio bera izenpetuko zuen; Guayanagatik esango du: "Etsaiek beren fortuna gizentzen duten enporioa" (14). Harentzat eskualde garrantzitsu honen galerak nahi eta ez Caracasen eta Bogotaren eroria zekarren. Izan ere abertzaleak han finkatuz gero, ez dago esateko okerrrik independentziarako; bideak garbi dirudi Errepublikarako.

KONTINENTEKO BIDEA

Angosturatik Simon Bolibar Amerikaren askakuntzara abiatzen da; hibai handiaren aurrez, Colombiaren sortzapena ikusten du. Angosturan Errepublikaren oinarri instituzionalak berriro bota-

(14) *Id.*, II t., 80 garren o.

tzen dituzte; Venezuelak positiboki aldatzen du bere aurpegia; mila fakziotan zatikatze inorganiko eta itsumustukoaren orde, ordenu eta juridikotasunezko irudi serio bat dator: Estatuko kontseilua, Kongresu ebazle eta gidaria —zeinen aurrean iraultzaren gorengo agerpen gisa konfirmatzen baita Bolibar—, Goi Gortea, Botere Exekutiboa eta bere Idazkaritzak edo Langelak. Hitz batez, legeak bilduriko eta adimenak goraturiko ahalmen zibila da orain indarren aurrelari jartzen dena. Angosturan gainera, mezu berria biltzeko eta banatzeko organu egokia sortzen da: Correo del Orinoco. Europako kantzilergoetan errealitate desberdina somatzen dute: Estatu serioa, aurrerakoa, zibila eta konstituzionala sortzen da herri librean kontzertuan.

Azkenean ere, 1818-ko urtearen erdirantz, abertzaleek behar adina harma eta gerra gai daukate. Inoiz ez zuten hain parke ugari eta horniturik eduki; gainera maestrantza militarrek ipini dituzte zenbait hiritan.

Andeetako Iraganbideko azaina harrigariak eta ondorioz Nueva Granadaren askakundeak Venezuela indartu egiten dute. Lautar soldaduekin eremu zeharkuntza ere beste balentria bat da —Boyacá-ko ekintza disdiratsua koroatuz (1819-ko abuztuak 7)—, gerra garai haietako handienetarikoa.

Bolibarren soldaduentzat testigantza goresgarri bat dago: Morillo, harmada frantsezen kontra gudulari esperientziduna, harriturik dago gizon haien adoreaz eta ausardiaz, beren lehenengo akatsak gizarte aske, berdinkor eta zuzen baten alde burrukatzeko gogo bueltagabez gainditu dituzten gizonak. Historiaren lehengaiak bihotza eta idealismoa ere badira.

Kronika honetan urte behin-behina da 1820. Fernando VII. 12 garren urteko konstituzio liberala zinegitera behartzen duen Riego y Quirogaren altxakundea dela medio, ez dago Penintsulatik Amerikaren kontra ezpedizio berririk bidaltzerik, eta areago oraindik hispaniar jokabidea aldakuntza handiak sortzen dira. Venezuelan, bitartean, erregezaleak lehenengotan laguntzen zien jendearengandik isolatuz joan dira. Morilloren kontingente handiak, hara sartu zen “kanpoko” harmada pisutsu bakarrak, bere burua hiltzen du nazioko populazioaren kontrako eraso jeneraleko politikan. Lautarren garrantziak abertzaleen alderdian, honen nagusitasun numerikoak eta harmamendu hobeak, historiari beste bide

bat zabaltzen diote. Morillori negoziatzeko agintzen zaio; bere inizatibaz sei hilabeteko gudarte bat izenpetzen da gero azken bake ituna eztabaidatzeko. Hazilaren 27-n egiten duten elkarrikuste pertsonalean, urtebete aurrerago ezinezkotzat joko zutena noski, Bolibarrek erregularakuntza proposatzen du gerrari giza eskubideari dagokion tankera bihurtuko diona. Colombia Espainiarekin berdintzen da nazio soberano gisa.

1821-ko apirilean, gudartea hautsirik, hispaniar agintearen agonia zorrotzu egiten da Venezuelan. Caraboboko landan ekainaren 24-n Bolibarren jaiot aberriaren Emantzipazioa zigilatzen da. Bi milatik gora hil kostatzen da gudua. Simon Bolibar buruzagi zela, enkontru funtsezko horretara joan dira: Paez eta bere lautarrak, Mariño atzoko desadosa, Cedeño eta Plaza, ekintzako martiriak, Briceño Mendez, Salom, Britainiar Legioko bolondresak, Venezuelaren guztiko ofiziale eta soldaduak —sei mila eta laurehun gizon—.

Miguel de la Torre espainiar buruzagiak, zeinen harmada Carabobon derrotatuak bost mila gizon inguru baitzituen —espainiarrak eta venezuelarrak erdizka—, Puerto Cabellon sartzea lortu zuen batailoiei batekin; abenduan irten eta Coro okupatzen du; 1823-ko maiatzean abertzaleek hiri hori askatzen dute. Maracaiboko itxas gudua izango da penintsulako erresistentziaren azken enkontru garrantzitsua; Moralesek abuztuaren hiruan entregatzen du plaza. Paezek Puerto Cabello hartzen du 1823-ko hazilaren 10-n; Calzada eta Carrera buruzagiei kapitulapen eskuzabala ematen die; ohore guztiekin aldegin dezakete Amerikako alderdi honetan, kasik hiru mende juxtutan, agindu zuen espainiar boterearen hondakinek: berrogeitamasei ofiziale eta bostehun eta hogeitahemeretzi soldadu. Bukatu da Venezuelako gerra.

Simon Bolibarren karrera eta bizitzako azken bederatzi urteetan datorrena xeheki aztertua izan da liburu honen erdiko azalpean; horregatik kronika honen bukaeran, 1821-30 bitartea oso laburturik emango dugu. Aztertzen ari garen esistentzia bakana-ren etapa hain aberats honen analisisean doktrinak axola gehiago du gertaerek baino.

Caraboboz gero, Simon Bolibarri beste erantzukizun batzu datozkio. Nueva Granadara itzultzen da, zeinen askakuntza Bomboná-ko guduarekin berresten baita (1822-ko apirilak 7). Orain hemisferioko hegoalderantz jo behar du. Hegoako kanpaina hasten du

(1822-26); ongi daki Colombia ez dela inoiz seguru egongo bere alderdirik bigunenean espainiar domeinua mehatxutan dagoen bitartean. Premia lazgarria Hegoaldeari ekite hau, Iparreko bere obra hondatuko diona: botere efektiboa galduko du —nahiz eta izenezkoari eutsi— eta Iraultzaren, baita Errepublikaren ere, azken destinoa arrastatuko du; Errepublika, 1826-n “laberinto izugarria” da, I-1432, “Deabru etxea bezalako, alde guztietatik sustan”, I-1444.

Gurutzada berrian, venezuelar eta neogranadar tropak eta ofizialeak ditu lagun; denen artean Jose Antonio de Sucre nabarmen-tzen da. Askaturik garatuko dira Ecuador eta Peru —Pichincha-ko gudua (1822-ko maiatzak 24), Junín (1824-ko abuztuak 6) eta Ayacucho (1824-ko abenduak 9)—, Guayaquilen Jose de San Martin hospetsuarekin bat egiten du; venezuelarrak, indartsuago eta seguruago egon une horretako laguntzei buruz, hartuko du argentinarra bere herritik bultzatzen zetorren lana biribildu beharra. Bolibarrek egizko iraultzaren mezua darama Perura. Sucre aurreratzen zaio, eta Uti Possidetis printzipioaren kontra, Errepublika berri baten fundazioa babesten du. Askatzaileak lehenengotan bere teniente nagusiaren gestua gaitzetsi egiten du baina gero ados jar-tzen da eta gertaera burutua onartu egiten du Hegoan bere Colom-biaren, orduko amerikar naziorik aurreratuenaren, filial bat egongo dela sinestean. Han ere batasunaren eta kulturaren, demo-kraziaren alde jokatu da, esklabutzaren kontra eta lur banaketa-ren alde.

Bolibarren lan administratiboa eta militarra orduan bere kons-tituzio ardurua eta gestio diplomatikoa bezain garrantzitsua da: be-rak pertsonalki zuzentzen ditu Mosquera-ko eta Santa Maria-ko misioak; Boliviarako Oinarri Eskutitzaren proiektua idazten eta aurkeztzen du, Panaman bildu beharko duen Eskuoso dunen kong-resua konbokatzen du, Rio de la Platako bidaliak errezibitzen ditu zeintzuk gonbidatzen baitute hispaniar Amerikako protektoratua bere gain hartzera; hezieran eta gizarte justizian arrasto sakona uzten du. Hauxe da haren ordu estelarra. Haren hospearen bitar-tez Colombia bere unerik onenean proiektatzen da.

Ustelkuntzaren ernamuineak ez diote inoiz baketan utzi; haren ausentziak eraginik desorientapena zabaltzen eta indartzen da ha-ren herrian; buruzagikeria anarkikoak eta azpilan oligarkikoek Ca-

racasera itzul erazten dute: La Cosiata da batasun egunak kontaturik eta azkena hurbil dagoen alerta garratza eta fatala.

Bolibarren destinoa etengabe haztea zen; harentzat ez zegoen atsedunik. Orain eginbeharrak, abiada berretuan, bere jaiot hirira dakar; estoikoki Limako bizitzatik aldegin eta bere eginbehar eskegara doa agudo; guzti honetan jokabide baten berrespina dago. Rafael Bernal Medina colombiar historilari bikainak hain ongi neurutzen duen bezala: “Pozez eta ohorez, plazerez eta atsegin ez betetzen duen inguru sozial bat bere buruz uztea, aberriko eginbeharren abotsa entzuteko, jadanik garaipenen zirigailurik ez herri gorespinen erakargailurik ez dagoenean eta bere aintzaz gozatzea besterik ez lukeenean, horra erakuspenik handienetarikoa haren bizitza osoki eta gizonki bere gidari grina goitarrari emana zegoela” (15).

Paezen eta Santanderren arteko desadostasunean prefiguraturik eta argi dago Errepublikak handia apurtuko duen hauzia; Bolibarrek ezin izango du neogranadatar buruzagiaren inguruan mulztotu den oligarkia menderatu; bere aldetik, lautar bihurriak lorturik ditu era batere buruzagiei eta mantuarrei ongari izango zaien disoluzio lanerako laguntza funtsezkoak. Aberastasun eta botere zale ziren politikoztat Colombia negozio biribila da. Ingalaterran kontraturiko prestamen batek eskandalua sortzen du baita irabazi ederrik ere haren gestore santa fetarrentzat eta antioquiarentzat.

Bolibar malgua da eta leuntzen eta Paez pozten ari dela dirudi, baina ondoeza sakonagoa eta zabalagoa da; konbentzio berezi batetan egoeraren azterketa intentatzen du: Ocañan biltzen da inolako ondoriorik gabe. Beharturik, Askatzaileak diktadore agintea hartzen du; bere azken karta du; zozketa eginik dago; obra hondamenetik salbatzea nahi du baina alferrik dena. Ez da haren “dikadura” gero Amerikan sarri gertatuko direnen tankerakoa. Erromaren zentzuz emergentziarako gobernuaren diktadura da. Irritada atzerakoia baino gehiago Iraultza lor dadin azken intentua da. Etapa larri honetako haren ekintzak esklabuen alde, indioen alde, ekonomian, eliz harremanetan, etab., dena dator haren ardu-

(15) Bernal Medina, Rafael: *Ruta de Bolívar*, 182 garren o.

ren sen sortzailea baitestera. Hitz eman bezala, boterea entregatu egiten du 1830 garren urte hasieran. Bogotatik alde egiten du azken herbestaldiko odisearako itsaso bila.

Abenduaren 17-n, bere eskergaizto, ezulerpen eta desatsegin kalbarioan, Manuela Saenz-ekin batera, salbuespen kontsolagarria, bere itxaropen bakarra, leiala eta zalantza gabe segurua izan zuen Sucre-ri jarraiturik, Simon Bolibar hilezkortasunera pasatzen da. Mementurik gorenean barkatu egiten du. Eta herkideei, fanatismoak eta tentelkeriak menderaturik, bere izena gaitzetsirik eta bere nekegatik askatu zen Aberriaz gabeturik, bere azken tristea arrazoi gabe garrazten ari zaizkion herkideei, honela erantzuten die bere testamentuan, handitasun xumezko irakatsia geroarentzat: “Nire gogoa da, ni hildakoan, nire gorpua jar dezatela Caracasko hirian, nire jaioterrian” 11-988.

Bizitza paregabe honen azkenari buruz, oso pentsalari guti berdintzen zaio sakontasun bere eta leunean Ramon Diaz Sanchez hospetsuari. Honela idazten du honek: “Argi bat izan da hura. Bai esperientzia miragarria! Bere sehaskan ondasun materialez inguraturik, haietaz pobre hiltzen da, baina dohatsuagoak al dira, bada, beren hilobia ondasun haietaz inguraturik ikusten dutenak? Hiltzea, bizitzea bezala, gertakari, sentimendu edo ideia erlatiboa da. Obren arabera, ez pilaturiko ondasunen arabera, bizitzen eta hiltzen da neurri handiagoz edo tikiagoz. Hura, adibidez, pertsegitzen duten izaki berekoiak baino askoz gehiago biziko da. Desharagipenaren —arruntki heriotza deritzan horren— hurbiltasunak argiz inguratzen du eta buruargitasun handia ematen dio. Haren bihotza gorrotok eta herraz hutsik dago, haren izipiritua eta konzientzia argiz beterik baitaude” (16).

Argiaren irudian bat eginik, Venezuelar historilarien dekanok bikainak, Cristobal L. Mendozak —zeini zor baitiogu lan hau egiteratu gintuen kinada—, Bolibarri buruz ederki esan du: “Haren bizitzan zehar, etengabe pilpilka ari da bere pentsamenduei eta ekintzei Emantzipazioaren zentzu historiko zuzena emateko obsesioa, haren benetako ordezkari bilakatzeko. Ez zituen hark bezala inork transformazioaren azken ertzak sakondu ez jaun izango zen inguruko eta lurreko berezitasunak hobeki ezagutu. Haren iru-

(16) Díaz Sánchez, Ramón: *El Caraqueño*, 138 garren o.

diaren gáinean islatzen da jomuga berrien ernamuin garaileak, itzar-kunde bat bezala, botatzen duen argi guztia. Argi horixe da haren aintza, eta hura gero eta biziagoa eta latitude desberdinagoak hatzematikoa izan dadin, azaina haik egiten ditu, nozio bakarrear biltzeko bezala, berdindurik, gertaeren tranzendentzia eta bere jokabidea bera” (17).

(17) Mendoza, Cristóbal L.: «Discurso en el sesquicentenario de la Batalla de Carabobo», *Boletín de la Academia Nacional de la Historia*, Caracas, 214 garren z., 165 garren o.

4

Pentsamendu programatikoa

DEMOKRAZIA ETA SOBERANIA

Bolibarrek bere bizitza ageriko hogei urtetan, bere textu, ekin-tza eta antsiekin, Amerika benetan berria posibletuko duen Iraultzaren programa egiten du. Ez ditu bana banaka asmatzen —zentzu hertsian— aldakuntz eta aurrerakuntz mekanismo hain hedatsuan josten dituen elementu guztiak; hoietariko zati dezente bat produzitzen du, eta era batera herentzia aberatsa eta funts historikoz betea biltzen. Tradizio sendoa heldu zen harenganaino, amets betegabeko mendeetan definitua. Haren azertua eta haren balioa guzti hori batasun eder eta bizian biltzea izan da. Don Simon Rodríguez-ek, hain zuzen bezain jakitunak, bere hirurogei urtetako objetibotasunetik zioen: “Bolibarrek bere ideia asko eman zion Amerikari; eta besteen ideietatik herri libreak egiteko egokienak zabaldu zituen, esklabutzako elementuekin” (1).

Askatzailearen idazkietan, non bere esanetatik “bere arima paperean pintatua” baitzegoen, I-881, haren lanaren autodefinizio asko ageri da. Guzti haietan lirismo malenkoniatsuz, metafora zorrotzez, haren eginkizun historikoaren zeinua eta dimentsioa adierazirik daude, “gizon bakarraren” drama, sarri bere buruari deitu zion bezala. 1820-n bere buruari begiratzen dionean, inor ez zaiola gainditzen pentsatzen du “aireko gazteluen arkitekto” gisa, I-508. Azken ikuspena, heriotzatik egun gutira, olatuek behin eta berriro ezereztan dioten ihardun latz eta alferrekoan ari den torturatua-rena da: itsasoan goldaketan, II-959. Bere mementurik onenean

(1) Rodríguez, Simón: *El Libertador del Mediodía de América y sus compañeros de armas defendidos por un amigo de la causa social*, 5 garren o.

bere burua ikusi zuen “errepubliken bustinlari, ez lan gutiko ofizioa, baina bai haintzatsua ere”, I-963. Bucaramangako beretasunetik Ocañako jaialdi burugabea kontenplätzen zuen eta honela iruditzen zitzaion “Mundu Berria zoraturiko globo bat bezala eta hango bizilagunak frenesiak jota baleude bezala eta eldarnioen eta atentatuen zaparrada hau geratzeko, zorozaín bat jartzen dute erdian, eskuan liburu bat duela beren eginbeharra ulerterazi diezaíen”, II-350. Alegoria hoietan agertzen duen langile eta arkitekto, egile eta eragile, bikoitzasun funtzionalari sarri ekingo dio; honela laburtuko du bere ahaleginaren sintesis autokritiko batetan, xumeki esanez: “Nik bi gauza bakarrik egin ditu: burrukatu eta legegintzako ideia batzu eman”, I-1379.

Berresan beharra dago Bolibarrek estrukturatzen duen iraultz aparatuaeren zenbait pieza Amerikako herriak landuak izan direla, eta askatasunaren bilaketa etengabe eta pairatuan hemisferio honetako abangoardia izaniko aitzindariengandik ere badatozela. Aintzinako kultura klasikotik Askatzaileak oso ideia garrantzitsuak hartu zituen bere konzepzio politikorako, Julio Febres Cordero ikerlariak estudio baliotsuan sistematu duen bezala (2).

Bere garaiko pentsalariengandik, eta haien gaurkotzea agertuz, Bolibarrek ez zuen material guti hartu. Haren benetako lorpena, berriro diogu, betetasunaren konposaketan dago, zati guzti hoién integrapenean, faktore guzti hoién taxuketan, eta denekin batasun homogeno bat egitean; esan liteke denak ikusi zituela hark zirkunferentzia bereko erradio gisa.

Bolibarren meritua da hil arte lan eta burruka egitea iraultz konstrukziorako elementu guztien eta bakoitzaren alde; denei eman zien arreta fina, lehentasun bidezkoen eta hortiko garrantzien mailaketaren kalterik gabe. Gutí balitz, Bolibarri aitortu beharra dago ideia bakoitzari bere hitz zehatzaren, bere estilo sendoaren, bere prosa garden, argi eta bertikalaren dotoretasun freskoa eman diola.

Iraultz baiezpén eta argitzapeneko prozesoa, 1810-ko criollo patrizioen autonomismo huts eta soiletik hasi eta bere azken bos-turteko erradikaltasun heldura, Amerika Berrirako ideariuna landu

(2) Febres Cordero, Julio: «Arcaísmos institucionales e influencias románticas en el Libertador». *Boletín Histórico de la Fundación John Boulton*. 26 garren z., 1971-ko maiatza, 153 garren o.

eta ondu zuen. Eta amerikar lider guztien artetik bera izan zen —paregabeko hedatzaile eta propagandagile izanez gainera— iraultz programa luze eta nahasi horren konkrezio praktikoan aurreren jo zuena.

Bere ihardun eta profesioari buruz, edo bere lan intelektual eta historikoan, historikotik eta historikoaren bitartez nagusi ageri den zentzuari buruz definitu behar balitz, Simon Bolibar politikotzat jo behar da; arlo horretatixe hasten da hain zuzen haren programa, hau da, haren errealizazioa kontinenterako.

ERREALITATE ZAHARRA

Nolakoa zen Venezuelako egoera politikoa 1800 aurretik? Amerika osokoa bera. Paretasun argia dago. Herrialde batetik bestera graduzko diferentziak nabari badira ere, estrukturak berdintsuak dira.

Amerika espainiar inperioko zatia zen. Tradizionalki menpe-tasunezko status honi “kolonia” deitu zaio, eta horren barruko zer nagusia da entitate baten destino politiko guztia metropoli-ko agin-pideak manatzen duenaren mende egotea osoki. Anitz dokumentutan koroak hala adierazi du explizituki. Oraindik 1809-ko urta-rrilean, Martin Karay-ko, Fernando VII-ren izenean, Amerikako bere menpeko gobernatzaileen aurrean honela dio: “Inoiz ere ez da gaur bezain beharrezkoa izan metropoliaren eta bere kolonien arteko batasuna. Orain gehiegikeriak zuzendu nahi dira, erakun-deak hobetu, trabak kendu, bultzadak eman, eta metropoliaren eta kolonien arteko harremanak justiziaren benetako oinarrietan ezarri” (3). Iraultzaren bezperetan, eta Espainiari Napoleonen in-basiotik zetorkion krisisaren aurrean, Baionako Biltzarreak, harre-man kolonialpean pasaturiko hiru mendeak tazituki aitorturik, etor-kizunerako prometatzen du “Amerikako espainiar erreinu eta pro-bintzia guztiek metropoliaren eskubide berdinak izango dituz-tela” (4). Kolonialdiaren azkenean bakarrik, eta erretorde kontsei-

(3) Blanco, José Félix, eta Ramón Aizpurua: *Documentos para la historia de la Vida Pública del Libertador*, II t., 232 garren o. Aurrerantzean honela aipatuko dugu: B. y A., t., o.

(4) Parra-Pérez, C.: *Bayona y la Política de Napoleón en América*, 6 ga-ren o.

luko gobernu inestablearen bitartez, onartu zuen Espainiak hirurehun urtetako injustizia politikoa, berezkoa eta derrigorrezkoa pixka bat, zuzentzea. Bere Ni Bekatari-an eta bere aurrekoak, Sevillako Batzorde Zentralak, eginiko bildeia berritu ondoren Amerikako lurra errepresentaturik dauden Corteen Batzarre batetarako, Erretorde Kontseiluak ez du aitortu gabe uzten Amerikako gaitzak “lehengo gobernuaren arbitralkeriatik eta nulitatetik” datozela, eta solemneki prometatzen du: “Hemendik aurrera espainiar amerikarrak gizon libreen duintasunera jasorik zaudete; ez zarete jadanik lehengoak, boterearen erdigunetik urrunago eta zuztarri askoz gogorragoan makurtuak, indiferentziaz begiratuak, gutziak irainduak eta ezjakintasunak apurtuak. Gogotan eduki zuek kongresu nazionalan errepresentatzera etorriko denaren izena esatean eta idaztean, zuen destinoak ez daudela aurrerantzean ministroen, ez erretordeen, ez gobernadoreen mende: zuen esku daude” (5). Irakur berriro: zuztarri askoz gogorragoan... indiferentziaz begiratuak, irainduak... apurtuak.

Amerikako magistratutarik generak: erretordeak, intendenteak, kapitain jeneralak, Audientzietako presidenteak etab., Europako espainolek okupaturik zeuden ia den denak; criolloek (zuriek) destino hauetako atea hertsirik zeukaten. Nabarrei buruz, koloniako administrazio eta domeinu errejimenak, ohiko kontua zenez, esku-bide indibidualik behinenak ezezagun izan zituen beti, ez zuen inoiz inolako garantiarik eman egoitz judizioen eta “bisiten” indirektoa izan ezik —despotismo legeztatua bideratzeko eta gobernatzaileen nahikeriari eusteko bide bakarrak—. Sistema juridiko absolutistak zeharo debekatzen zituen askatasunak. Nahiz eta espainiar jendea ere kondizio askoz hobeetan ez zegoela egia izan, nolana eta Amerikatik Espainia osoari buruz sentitzen zen menpetasuna, eta koroak behin eta berriro esango zuen bera zela inperioko bi zatien jabea, Atlantikoa erdian. Amerikako komunitateen egoera apalgarri eta morroi honen testigantza ugariak eta adierazkorrak daude. Kolonikuntzak, Espainian agintzen zuen absolutismoaren barruan, hau ere bazeraman, alegia, inolako herri errepresentaziorik eza, kabildoetan ageri den errepresentazio mediatizatua eta hala holakoa izan ezik, eta salbuespen gisa inoiz kontsule-

(5) Parra-Pérez, C.: *Historia de la Primera República*, I t., 379 garren o.

gora heltzen dena. Ez zegoen beste modurik amerikarrak arazo publikoetako ezain alderditan egoteko. Gauza jakina da kolono errepresentazioan erakunde hoietako komunena, kabildoa edo udala, jurisdikzio guztietatik tikiena zela; hirikoa da.

Ez dago esan beharrik eskema honetan, eta absolutismoarekin armonjan eta adostasunean —absolutismoa gainera zuzenbidezko errejimena zen—, debekaturik zegoela erizpide ofizialarekin edozein desakortasun agertzea; ez zen desadotasunik tikienik ere toleratzen, eta zigorra drastikoa zen beti ausarkerientzat. Absolutismoaren azpian —gogotan eduki— askatasunik ez dago.

ALDAKUNTZA POLITIKOA

Kolonikuntzari, absolutismoari eta zapalkuntzari, Iraultzak zintzotasun osoz aurpegiatzen dizkio: independentzia, demokrazia, soberania, askatasuna, balio positiboak. Politika lehen mailan agertzen zen orduan, zeren botererik hartu ezik, hots, aginpidearen heდეak eta balankak eduki ezik, ez zegoen iraultz ahaleginean ezer egiterik.

Zenbait izpiritu argik, Amerikako zenbait herritan, Bolibarren aurretik pentsatu zuten independentzia eta eskaini zioten bizia. Miranda hori pentsatzen zegoen 1781-tik, Estatu Batuen alde burrukan ari zela, Tiradentesek, Espejok eta Nariñok ordenu autonomiko bat iruditu zuten, gure herriari munduko beste gizarte heldu eta zibilizatuek zeukaten nortasun librea eta soberanoa aitortuko ziona.

Lehenago aipaturik dugu 1781-82 ko Venezuelan iraultza politiko stricto sensu-koaren lehen dzistada ageri den dokumentua; hain zuzen Simon Bolibarren aitaren hura, zeinetan Mijaresko markesarekin eta Martin de Tovarrekin batera, Francisco Miranda gazteari azaltzen baitiote zer “zapalkuntza jasangaitza eta laidogarria” pasatzen duten Intendentearen “agindu tiranikoengatik”, eta “be-soak zabalik eta belauniko jarririk Jainkoaren amodioagatik” eskatzen diote bera izan dadila desesperezio jeneral horri azkena eman-go diona eta hain gatibutasun madarikatutik askatuko dituen (6).

Haitiko jacobinismotik ikasiriko eta kutsaturiko ideia politi-

(6) Miranda, Francisco de: *Archivo*, XV t., 68 garren o.

koak —“Frantsesen legea”, errepublika eta askatasuna—, Jose Leonardo Chirinos suharraren Coroko matxinadan airatzen dira. Baina Mirandaren ondoren, Juan Bautista Picornell, izan zen Manuel Gual eta Jose Maria Españarekin batera, Venezuelan iraultza-
ren aurreko eta hasierako fase hau ongien begiztatu zuena.

Bolibarrek apirilak 19-ko eta uztailak 5-ko gizonen agindua hartzen duela esan liteke. Haren helburua bikoitza zen: lehenengo sistema zaharra apurtu; bigarren, berria eraiki. Errejimen despotikoa eta zapaltzailea garbitu, hispaniar koroarekiko —erreinuen jabea hau— loturak hautsi, autonomia irabazi, arazo publikoen gidaritza erantzulea eta soberanoa lur honetan jaiocoi eman. Hitz batez, amerikarren erreibindikazioa, zeintzuren minusbalioa oso ongi erretrataturik baitago Jamaicako eskutitzean: lanerako morroiak, kontsumatzaile hutsak eta hauxe ere murrizketa harrigarritz koartatua... Geroago Simon Bolibarrek idatziko du European “ez gaituztela naziotzat hartzen, produkzioko eta kontsumoko herrizat baizik”. XII - 377.

OINARRI BERRIAK: BOZKETA

Iraultzak babesturiko eta eraginiko ordenuak bere jatorria herriaren nahian jarri nahi du. Petioni eskutitzean Bolibarrek bere tesisak konfirmatzen du boterearen titulu jatorrari buruz: herriaren nahi librea. Horrela Haitiko buruzagiari zorionak ematen dizkio “bere herkideen gorapen librez, giza botere guztien iturri legezko bakarrez” I-214 hautatua izan delako.

1812-tik, Bolibar ordenu berriaren ilusioan bizi zen eta, Magdalenako kanpaina irekitzean, orduan Cartagenaren mendeko koronela zela, honela adierazi zuen Tenerifeko hiritarren, magistratuen eta artzainen aurrean, lehen aipaturiko erretordetzako hitzaldia gogorazten duten hitzekin: “Jadanik libreak zarete, zuen bozketak dakarrenaz beste edozein aginpidetik independenteak, bakarrik loturik zuen gogoari eta zuen kontzientziak legez emaniko bozari, aitortuko eta zinegingo duzuen konstituzio jakintsuak agintzen duenez. Hiritarraren eskubideen askatasun zibila bere jabe goan, bizitzan eta ohorean seguratzten duen konstituzioa; eta esku bide sakratu hauk osorik kontserbatuz gainera, hiritarra bere talen-

tuak eta antzea zabal erazteko moduan jartzen duena, gizarte zibil batetan, gizonak lur gainean desira lezakeenik perfektuenean, lor daitezkeen abantaila guztiekin” II-1007.

Askatzaileak etengabe jotzen du hautes kontsultara boterearen oinarri gisa. Soberania “hiritarren orokortasunean” datza, hura herriarengandik bereiztezina da eta baita preskribagaitza ere —hau da, ez da Erregeari dagokiona, eta lehenago erabili ezak ez du bukaerarik inplikitzen deserabiltzeagatik—. Hala adierazi zuen garbi Angosturan; herriaren borondateak, zuzenki adierazirik, jatorri bueltagabea damaie aginpide publikoei. Limatik Hegoarantz ateratzean, —1824n— bere fedea printzipio hauetan berretzen du eta era batera exekutiboaren neutraltasuna berriro konprobatzen du gainean diren hauteskunde bilerei buruz: Gobernu Kontseiluari hartzeko agintzen dio “ahaleginik arduratsuen kongresu berrirako hauteskundeak bete erazteko; horrela nazioa guztiz pozik gera dadila gobernuak ez duelako hauteskundeetan beste interbentziorik eduki herria, bere kontzientziaren arabera, hautatzeko askatasun osoan ipintzeko legeak izendatzen duena baizik. Gomendio hau soil soilik egiten dut herri hauteskundeak ahalik libreen egin daitezen daukadan ardura bizia agertzeko” O’L.N. II-340.

Colombian ardura beraren aintz erakutsi geratzen da. Gogoratu Pedro Briceño Mendez-i, harentzat isilpekorik ez zuen konfidenteari, egin zion aitortza zintzoa; 1822-ko abuztuaren 14-n Guayaquildik idazten dio: “Hegoako hauteskundeetan toki guztietan izan naizena izango naiz. Nahi dut esan ez dudala haietan interbentziorik tikienik edukiko, inoiz ere eduki ez dudana bezala: herriek nahi dutena egin bezate eta hautesleek ongien deritzatena. Neure aberriaren askatasuna bakarrik axola zait eta etsaiek ez diezadatela ken; zerbitzu mota honetarako beti egongo naiz prest”. I-671.

1826-n, Colombiako bizitza nahasten duten eragozpenen aurrez, erregionalismoek nazioaren esistentiaren kontra atentatzen dutenean, Bolibarrek krisisa gainditzeko beste biderik ez dagoela aurkitzen du “herriaren bide handia baizik, gaizkia edo ongia denen borondatez egiten utzirik” I-1447. Orduan esan zuen “Herriaren Soberania dela Nazioetako aginpide legezko bakarra” II-1229. Oraindik hiru hilabete hil aurretik, planteamendu bortitza egiten die legeari kasurik egin gabe agintera itzultzeko eskatzen diotenei: “Esaiezue zuen bidaltzaileei, Estatuko Goren Burutzat onartu nau-

ten herrien erabakia errespetagarria bada ere, haien botoek ez dutela oraindik horrelako egintza bat bakarrik legezta dezakeen gehiengorik osatzen. Esaiezue, gehiengo hori lortzen bada, ene atsedena, ene esistentzia, ene izena ere dudarik gabe opatuko ditudala aberriko aldaretan” II-1281. “Egiazko soberania —dio garai guttiarako— nazioko gehiengoa da” I-1477.

Gaurko egunotan, Amerikako zenbait lekutan, sistema demokratikoa, gehiengo boto garbi eta argitik zehazki eta zuzenki datorrena, eztabaidapean jartzera iritsi denean, Bolibarren irakatsiek eta haren kontseiluek gaurkotasun bizi eta garrantzitsua dute.

Herriaren aldizkako kontsultei buruz, Bolibarren hitza negatiboa izan zen beti: “Hauteskunde sarriak funtsezkoak dira sistema herritarretan, ez baitago ezer boterea hiritar bat berarengan luzaro uztea bezain arriskutsurik. Herria ohitu egiten da obeditzera, eta hura ere ohitu egiten da agintzera; hortik usurpazioa eta tirania dator”, II-1134.

Boliviako kongresu konstituentearen aurrean Hauteskunde Boterearen sortzapena proposatzen duenean, sinetsirik dagoelako da “hiritar batek ez daukala ezer aurreragorik bere legegite, magistratu, epaikari eta artzainen hauteskundea baino”, II-1221.

Bolibarren pentsakeran oso garrantzia handia dauka botoa emateak. Honela hiritar bakoitzak legegintzan laguntzen zuen eta propioki erabiltzen bere “soberaniaren partaidetasuna”. Botoarekin, eta hura kontsignatzeko egintzan bertan, hiritarrak berdindu egiten dira. Errepublikar Estatuaren eta gizartearen esizenziako une bikain horretan, indibiduen arteko egitezko diferentziak desagertu egiten dira eta denak kide izan arau berdinkoirik osoenaren printzipio jakintsuan.

Kolektibitate helgabe hauetan kolonialdi luzeak utziriko kultur eta bizi maila txit narrasen jasokuntza orokor bat bilatuz, Askatzaileak —Angosturan— hiritar aktiboak eta hiritar pasiboak bereiztea proposatzen zuen. Horretarako lan eta jakintza erizpidetan oinarritzen zen, ez diruzkoan. Urteak geroago —Bolivian— bereizkuntza hura kendu egiten du, eta bere oposizioa berresten zentso sistemari; honela dio: “Jakintza eta zintzotasuna da, ez dirua, botere publikoaren erabilerak behar duena”, II-1221. “Hiritarrek, kualitateak eta gaitasunak, baina ez aberastasuna, dituzte-

nak izan behar dute”. Idazten ez dakiena, ez zergarik ordaintzen ez duena, ez ofizio ezagunik ez duena, ez da hiritarra”. I-1254.

Bolibarrek bozketari ematen dion garrantzia argi ageri da “hauteskundeetan bozak saltzeko edo erosteko edo haietako ordenua nahasteko” BOL. II-325 hobena egiten duen pertsonari ezartzen zaion zigor gogorrean, hiritargoaren erabilera kentzeraino hain zuzen.

Iruzurrari eta sobornoari eta botatzeko eginbehar sakratuaren edozein deformazio eta ustelkuntzari dion higuinak eta berdin hauteskunde arlorako Botere bat behar den usteak, Askatzailearen benetasun demokratikoa, sarritan gaizki ulertua, berresten du. Amerikan alderdi eta interes txit ezagunek beren gogara erabili dute azken aldarrikapeneko esaldia: “Nire heriotza lagungarri bada alderdiak amaitzeko eta batasuna finkatzeko, lasai jatsiko naiz hilibira” II-1282. Argi dago Bolibarrek ez zuela “alderdi politikoak” esan nahi, haren garaian ez baitzegoen honelako enterik eta hoik 1850 inguruan agertu baitziren munduan. Ez da beraz, zilegi horrelako interpretaziorik zeren demokraziako pieza nagusien ukapenaren absurdora baileramake Hauteskunde Botere bat aurreikusi eta hautesketa giza boterearen iturri legezko bakartzat goratu duenaren aldetik. Haren azken aldarrikapenean, hura “ezinikusi lokalei” II-774 dagokie, edo erregionalismo okerraren agerpenei, beren buruei —Andeak aldeetako ohitura baten arabera, gaur ere badi-rauena— “alderdiak” deritzatenei. Hiritarren onarpen, parteharpen eta errepresentapenean oinarritzen den demokraziari leial eutsirik, Bolibarrek antagonismoaren eta alderdikeria erregionalisten gaindipena nahi du Errepublika Hirukoitzean den Batasuna finka dadin, eta horrela bere Colombiak, oso osorik, bere eginkizun ukaezinei aurea eman diezaien, bere altzoan, edozein demokraziatan bezala, eritzien desberdintasuna egongo dela jakinik. Desberdintasun ideologiko horrek ez zuen, nolana ere, Errepublikaren ukiezintasunaren kontra atentatu behar.

AMERIKARAKO DEMOKRAZIA

Simon Bolibar, inolako erreserbarik gabe, Gobernuaren era demokratikoaren alde agertu zen. Ezin egin izan zuen berak nahi zukeen neurri egingarrian ere, haren denbora osoa —berak zio-

enez— “kanpaina” bat izan baitzen. Miragarria da haren ardura sistema politiko honi, edozein zikunstantziaren gaintik, leialki eusteko. Hala bere alderdi juridiko nagusietan, nola oinarri teoriko eta moraletan, planifikatu zituen gobernuek demokraziaren funtsari erantzun zioten: gobernu herritar errepublikarrak izan ziren, erantzuleak eta errepresentagarriak, haietan gehiengoan interbentzioa ebazkorra zelarik. Eguneroko administrazio lanerako esaten zuen: “Esaera hau oker balego ere, ni hartan nago beti: gobernuetan ez dago beste alderdirik gehienek nahi dutenari men egitea baizik” II-776.

Berresan beharra dago Bolibar bere funts jatorrean demokrata bat zela, baina ez independentziaren hasierako tolesgabe hoietariko. Lehen Errepublikako ordezkari ei egin zien kritika hain zuzen haik hondatu ziren idealismo gehiegian finkatzen da. Cartagenako Agiria aldarri bortitza da horretaz.

Zentzu politikozko ariketa tematietan, Bolibarrek demokrazia absolutoa neurtu egin nahi du gure berezitasun ihestezinetara egokiturik. “Beharrezko da Gobernuak, nolabait esateko, zirkunstantzien, garaien, eta inguratzen duten gizonen tankerarekin bat egitea” II-1002. Bizi izaniko eta pairaturiko errealitateak asko irakasten dio ahalegin honetan. 1815n konklusio zuzen hau botatzen ausartu zen: “Tierra Firme-ko gertaerek frogatu digute erakunde osoki errepresentagarriak ez direla gure izaera, ohitura, eta oraingo argitasunerako egokiak. Gure herkideak gure Iparreko anaien talentu eta birtuteen jabe egiten ez diren bitartean, sistema osoki herritarrak, ongarri izan beharrik, bildur naiz hondagarri izango zaizkigun” I-168. Mitologiak eragin handiko metafora gaiak eskaintzen dizkio gertaera sozialek ezestaezina egiten duten sineste hau argitzeko; eta pesimista agertzea balitz ere, hura ez da seguru ikusten duena isilik edukitzekoa: “Pentsa al daiteke berriki deskateaturiko herri bat askatasunaren esferara abiatzea, Icaro-ri bezala, hegalak urtu eta leizera erori gabe? Mirari hori pentsatu ezin nekoa da, sekula ikusi gabea. Ez dago, beraz, esperantza honekin balaka gaitzan arrazonapen sineskarririk” I-169.

Bolibarrekin historian ere argudio ugariak aurkitzen ditu demokrazia absolutoarekin ahultasun eta ezaskitasunaz duen eritzia oinarritzeko. Horrela gogoeta seguruz arakutzen ditu Atenas, Esparta, Erroma, Ingalaterra, Frantzia eta abarreko urtekariak eta atera-

tzen du ez dutela errejimen batetako teoriak ez moldeek ez mekanismoek hainbeste axola eta bai egin den komunitatearen izaera eta jiteari dagokiona izateak.

Bozketa zale sutsua ez da itsutzen bere une eta bere inguruen irakatsiaren aurrean. Hauteskunde inperfektuen pentzudan eta menturan ez dela dena utzi behar esaten du. Kolektibitate ikasienetan eta esperientzia politikorik gehiendunetan ere hutsak egon daitezke. Gainera bada kontraste orokor bat giza izakeran sustraia duena; “aitortu beharra dugu: gizonik gehienek ez dituzte beren interesak ezagutzen eta etengabe saiatzzen dira beren gordelarien eskuetan asaltatzen: indibiduoak masaren kontra eta masa aginpidearen kontra ari da” I-1144.

Bolibarrekin arreta bereziz aztertzen du hauteskundearen kontua, “herri baten askatasunaren edo esklabutzaaren aurrengo egintza, egintza sortzailea” II-1151. Haren teoria gardenarekin eta baita Hauteskunde Botere bat asmatzera eramanez duen fedeararekin, haren hartako ardura praktikoa lotzen da, ardura oso ulergarria sistema berri baten, lehengo absolutistaren kontrakoaren, entseiu eta has-tapenezko etapa hartan. “Lurtar arruntek eta hiritar azpikariek eginiko hauteskundeek beste eragozpen bat gehiago eransten diote gure arteko federakunde praktikari; zeren batzuk, hain ezjakinak izanik, beren bozketak makinalki egiten baitituzte, eta besteak hain gutziatsuak non dena alderdi bihurtzen baitute” II-1002.

Alderdi edo bando izpirituari —lehenago azaltzen genuen bezala— “partidua” esaten zitzaion, “partidu politikoaren”, orduan egon ere ez zegoen errealtatearen —esan dezagun berriro— oso gauza desberdina noski. Izpiritua horrek zatiketara eta anarkiara jotzen zuen, eta hortik birrerrorpen doilorrera salto bat besterik ez zegoen. Lehenengo Konstituziotik sartu zen sentimendu erre-gionalistaren —probintzikoiaren— gaitz desegile hori, botere zentral sendo baten posibilitate beharrezkoa hankaz gora bota zuena.

Angosturan Askatzailea patetiko jartzen da federalismoaren zarpuzpenean: “Gobernu Federakorrari zegokion izpiritu sotilagatik gure artean nagusi zen eta den desakortasunez ikaraturik, zueri eskatzera beharturik nago zentralismoa onartzeko eta Venezuelako Estatu guztien bilkuntza Errepublikak bakar eta zatiezinean. Neurrri hau, nire ustez urgentea, behar beharrezkoa, askatzailea, hala-

koa da non bera gabe gure birsortzearen fruitua heriotza izango baita” II-1152.

Sentimendu sakabanatzaile guzti hauetatik, asmo lokalez elikatu izan zen beti kaltegarriena; 1812-n, nazioaren porrotaren etiologia laburtzean, Bolibarrek ez du zalantzarik: “Barruko alderdiak izatez aberria hilobiratu zuten pozoin hilgarriak izan ziren” II-1003. 1828-n oker tragiko berean birreri ziren; Ocañako konbentzioa amoregaiztasun erregealista berdinak hondatu zuen, “alderdien itsumena; eta horregatik disolbatu zen, hura osatu zuten partaideak pentsatzen ari ziren erreformarik erabaki gabe” II-1271.

Askatzaileak bazekien gizarte hartan bazegoela mugadura frustakorrik, ezin zuela berak, bere alde eta molde hutsez, gizarte hura zen bezalakoa ez izaterik egin, baina hala ere haren fede eta adore burrukalariak ez dute lurrik jotzen. Bolibar, okerrik okerrean ere, burrukalari optimista da, zeozergatik zen hezieren sinesten zuen gizona —berak sinetsi zuen bezala. Eskolatik pasatzen da gaindipen demokratiko eta handitasun praktikoranzko bidea.

Sinetsirik zegoen hura bere kausa ez zela berea, herriarena baizik, bere eguneroko ekintza denen onera zuzendurik zegoela. Bere baitan pozik zegoen, haren eragileak aintza eta askatasuna baitziren; hark ez zuen bere handikuntzarik ez onura materialik bilatzen. Ez zuen hura harrokeriak joko, eta bere ohar argi, batzutan latz eta gordinetan, demagogiarekin dibortziaturik ageri da. Tiraniaren hil arteko etsai, etengabe gomendatzen du helburu handietan inspiratzeko, nahi publikoaren zerbitzari eta menpeko izateko. Briceno Mendez 1829-n idazten dio: “Gure era politikoari buruz kongresuak zer egitea komeni den, esanik dut lehen ere neure eritzia. Herriaren gogoia bakarrik egin behar da, eta, nire aldetik, bete betean nago bildu behar duen kongresu konstituentean, dena delakoan, errepresentaturik dagoen nazioaren erabakietara makurtzeko. Kongresuak finkatuko ditu Colombiako destinoak, komenien denera ezarriko, ongia edo gaizkia egingo, eta nolnahi ere ni haren borondate soberanotari makurtuko natzaio” II-806.

Horixe zen bidea. Gaur ere gure Amerikan ez dago progresurantz eta aurreramendurantz bide zabalagorik eta fidagarriagorik benetako demokrazia baino. Gehiengo nahia da demokratik makurtu behar zaizkion “soberanoa”. Une txit garrantzitsuetan Bolibarrek kontsigna hau ematen du: “Ez daukat borondate publi-

koaz beste legerik betetzeko; ez dut hura bere onerako ere behartuko, nire bandera hauxe baita: herriari obedientzia” II-464.

Hiritarren pentsakera desberdinen tolerantzia, haien kritiken arreta eta eritzi publikoaren begirunea, horra demokrazia jatorraren beste seinale batzu, Bolibarrek ongi azpimarratzen dituenak. 1820-ko eskutitzean, Paezi xumeki ziotsan: “Familia handia gobernatzen duenak denetik pasatu behar du, atsegina izan nahiz ez. Zuk ez daukazu haserretu beharrik besteek beren eritzia ematen dizutelako; niri egunero esaten didate eta ez naiz haserretzen, agintzen duenak entzun egin behar baitu egariak garratzenak badira ere, eta entzundakoan haietaz baliatu hutsek sortzen dituzten gaitzak zuzentzeko. Moralista eta filosofo guztiek aholkatzen diete printzeei beren menpeko zuhurrei galdatzeko eta haien aholkuei kasu egiteko; zenbat arrazoi gehiagoz ez ote da hori egin behar herriaren borondateak bere buruzagiak aurrelari jartzen dituen gobernu demokratikoan, ahalik onik gehien egin diezaioten eta gaitzik tikienik ere egin ez diezaioten”. XII-183. Absolutismo ahaltsuzko tradizio luze osoa ari zen eragiten gobernatzaile errepublikarren harrokerian, baita minberatasunean ere; txitean pitean irten behar Bolibarrengan zegoen pedagogoa, ahantzi ezineko irakatsia gogaraztera: “Gizon publikoak hiritar guztien zentsurapean daude, batez ere gobernu herritar hutsean; menpekoen kritika errepublikari ez zerbitzatzeko nahikoa arrazoi balitz, aspaldi aldegingo nuen, zeren kritikatu bakarrik ez ezik Bogotan anatamatu egin bainaute, Cartagenan proskribatu, eta Cumanako probintzian etsaitzat hartu” XII-185.

ASKATASUNAREN ZENTZUAK

Bolibar funts demokratikorik akasgabeenari datxekio zintzoki: “Demokrazia bakarrik da askatasun osoaren emale”, II-1137. Haren jomuga nagusia, haren izen historikoa, eta hura den guztia, askatasuna da, “gizonen bizia emateko helburu duin bakarra”, II-1078. Angosturako konstituzio proiektuan, definizio hau dago: “Askatasuna gizon bakoitzak legeak debekatua ez beste edozer egiteko daukan ahalmena da. Legea da bere jokabidea hartara egokitu behar duen arau bakarra” O’L. XVI-138. Batez ere axola handikoa da, lehen esan genuen bezala, pentsamenduaren adieraz-

pen moztezinari dagokiona, “naturaren dohairik aurrena eta estimagarriena. Legeak berak ere ezin izango du inoiz debekatu” O’L. id. Liburu, aldizkari eta edozein inprimagairen gaineko Botere moralari ezar dakiokkeen zentsura “ez da izango argitaratuz gerokoa baizik”; botere honek beti eman beharko du eritzia —hau da, beti orientatu beharko du—, baina ez du inoiz pentsamenduaren adierazpenik eragotziko. Legeak, jakina, gizartearen beraren esistentziaren onerako, zigor zuzenak eta egokiak asmatuko ditu kazetaritza hiritarren lasaitasun publiko, bizitza, ohore, eta ondasun moral naturalaren kalterako lizunki darabiltenentzat.

Bolibarrek printzipioen izate efektiboari ekiten dio; horregatik sarri esaten du “Askatasun praktikoa ez dela justiziaren administrazioa eta legeen betepena besterik, zuzenak eta ahulak bildurrik ukan ez dezaten, eta meritua eta birtutea sarituak izan daitezen” II-1262.

Askatasunak hezieraren ahalegin izugarria eskatzen du. Ez dago ordenu librerik jasotzerik kulturazko oinarrietan izan ezik. “Askatasunaren pisua arina da, baina baita zaila ere orekan mantentzea naziorik ikasien eta zibilizatuenetan ere” I-176. Gauzak argi esatea gustatzen zaio eta hala egiten du hemen jaioa izateak ematen dion dakientasunez: “Gure herriek bizio asko daukate, kezka asko, birtutearen praktikari bereiztezina zaion egiazko askatasunari, maitasun guti”, II-1258. Geroago ikusiko da zer zabal eta xehea zen haren ardura hezkorra eta etikoa. Errepublikak egiteko, Simon Rodriguezek irakatsi zion bezala, haurren arimatik hasi beharra dago. Egia bueltagabe hauei buruzko ernaitasun eten-gabea du: “Demagogoek ez dute sinetsi nahi askatasunari ez zaiola birtutez baizik eusten eta biturteak diren lekuan tirania indargabea dela. Honela, bada, biziotsuak gareino, ez daukagu libreak izaterik, estatuari nahi den era ematen zaiola ere; esklabutzak ustelduriko herririk sekula konbertitu ez den bezala, nazioek ere ezin konkistatzaileak baizik eduki, eta inola ere ez askatzailerik. Historiak frogaturik du hau”, II-309.

Giza barnetasunaren begirune honegatik, Bolibarrek erlijioari buruz uste du Estatuak —inpartzialtasunaren zerbitzari— kultu askatasuna garantizatu behar duela ezeinen alde bereziki agertu gabe. Haren lema da “erlijioa kontzientziako legea dela. Konstituzio politiko batetan ez da erlijio profesiorik ezarri behar. Erlijioak

gizona etxean, gabinetan, bere baitan gobernatzen du: berak bakarrik dauka haren barne kontzientzia arakatzeko eskubidea”, II-1227. Elizari buruz, Estatuko buruzagi gisa, Espainiako erregeak zeukan zaindaritza eskubidearen oinordeko gisa, haren sineste demokratikoak eliz demokraziako printzipioak —ahal baldin bazen— formulatzera bultzatu zuen Honela erabakitzen du, 1817-n, “Errepublikako Goren Buruzagi gisa, Diozesis honetako apezzeria txit agurgarria osatzen duten guztiak eta bakoitza, ene bihotzeko onginahirik onenez eta behar balitz aginpidearen indarrez, zirikatzea, deitzea eta konbokatzea, beren buruz hiri honetako botere legekoengana aurkez daitezen berrogeitamar egunen barruan, Eliza Saindu honetako premiei buruz deliberatzera eta txit bereziki hura administra dezan eliz nagusi bat izendatzera” II-1116.

Bolibarrek bazekien, Iraultzarekin, ihardun politikoak eta haiei dagozkien ardurak maila garrantzitsura pasatzen zirela Amerikan. Ez zuten bildurtzen askatasunaren agerpen berezkoek, geroago tiraniek hain amorrutik pertsegituak. Askatasunaren erabilera, modurik desberdinenetan esanik duenez, ez da gauza erraza; eta hura ongi erabiltzeko, zerikusi handia du esperientziak, eta hau —bestalde— ez dago inoiz errejimen autokratikoen azpian lortzerik. Arazo publikoaren gidariek pazientzia dezentea behar dute eta baretasuna zer den funtsezkoa eta zer azalezkoa juzkatzeko. Ez dago askatasunaren kontrakoagorik tiranien geldikeria eta inertzia baino. Bolibarrek sarri aipatzen du “askatasunaren mugimendu gozoa” I-1153. Eta herriek behar bezala balietsi behar duten goren atsegina gisa, hau errepikatzen du, “Askatasunaren mugimenduan bizi izatearen haizta, beren borondate propioz emaniko Legeen babespean” II-1137. Hura ez da txakur ametsekin bildurtzen; askatasunaren suak eta mugimenduak berak, urrundik ikusirik, matxinada eta gerra antza ematen du” I-552. Ahalegin hezkor zuzen eta eutsiak eraman ahal izango gaitu luzera herri esperimentatuen, seguruena eta beren benetako komenentzien jakileen helmuga antsiatuetara. Amerikan krisis zorian bizi gara beti, non demokrazia eta askatasuna, oztoporik tikienean, hankaz gora eta bikutara joateteko arriskuan baitaude. “Jatorri desberdintasunak —zioen Bolibarrek Angosturan— pulstu arras sendoa behar du, esku arras fina gizarte heterogeno hau gobernatzeko, zeinen artificio nahasia alterapenik arinenez deslokatzen, zatikatzen, disolbatzen baita”, II-

1141. Lan izugarria du Amerikako erozainak, alegiazko kondena-tuak, pilotu bakartiak untzi biluziarekin eta lema gabe. Nekosoa eta mingarria da, baina beharrezkoa, politikeriako huskeriei eta zuntzunkeriei, baita izengabeei ere, kasu egitea; benetako gidariak denean egon behar du; hoik miseriak dira —dio—, baina “hoiexen pentzudan daude gure bizitza eta arima, ohorea eta haintza kontatu gabe”, I-578.

JENDEAREN ERITZIAREN ADI

Askatzaileak nahi du demokraziak bururapen kolektiboak ahalik zintzokien har eta interpreta ditzala; kenka zailetan herri hutsarengana jotzen du egia hatzeman nahiz. Eritzi publikoa batzutan ez dagoela ongi bideratua aitorturik ere, nahiago du hura, gizartea traizionatzen duten ordezkarien ustea baino. “Herriarengan mila bider fede gehiago daukat haren diputatuengan baino”, I-1442. Horregatik Colombiarentzat ordu lazgarri batetan dio: “Nik ez dut beste partidu osasungarririk ikusten herriari bere lehen soberania bihurtzea baizik bere paktu soziala berregin dezan. Hori ez dela legezkoa esango da; eta nik, egia esan, ez dut ulertzen zer hoben den legeen iturrira jotzea herriarena den eta herriak bakarrik ezagutzen duen gaitz bat erremediatzeko. Benetan diot hau legezkoa ez bada, gutienez beharrezkoa dela, eta beraz lege guztien gaintekoa; baina batez ere oso herrikoa da eta beraz errepublika batez ere demokratikoari bete betean dagokiona” I-1446. Hautes bileren kontsulta bidez —zeinetarako lehenago esan bezala, Bolivian Botere publiko oso bat: laugarrena, Hauteskunde Boterea, asmatu baitu—, gehiengoaren nahikari legezkoetan inspiratzeko gogoia erakusten du. “Ez dago gehiengoaz beste soberanorik. Herriaren lekuan jartzen dena tiranoa da; eta haren aginpidea: lapurreta” II-1236. “Niretzat komunitatea beti da lehenago indibiduoak baino” II-489. Haren demokrazia tranpa gabea da. “Deskontentua ez da indarraz mozten”, II-590.

Bolibar gobernu demokratiko efektiboa jartzen saiatu zen; modu gorabeherari garrantzia guti damaio eta herriei, ordea, egin-kizun ebazkorra izendatzen die. Egokia da haren oharra: “Jakinduriak ez dio Legegileari aholkatzen hiritarren zortearen erantzukizuna gobernuari bakarrik emateko zentzugabekeriarik; zeren

agintzen duena, nolabait, bultzada jeneralaren mende baitago” PB 239. Gobernuak, errealitate demokratikoaren adierazpen gisa, herriarengandik eta herriaren onerako sorturiko erakunde gisa, gizon hartarakoz eta kapazez, eguneroko hiri ihardunetatik datozen gizonoz osatu behar dira. Bolibarrek kategorikoki ekiten dio Estatu-tuko partaideen arteko atribuzioen desberdintasunari; militarrek eta zibilak aipatzean Amerikako zibilistarik gorenak labur uzten ditu.

Administrazio publikoaren arazo delikatua, funtzionarioen kondizio, bilketa eta estabiletasunari buruz, behar bezala kontsideratu zuen Bolibarrek. Esanik dago zenbat eta zer benetan ekin zion “gaitasunaren eta zintzotasunaren bila” II-44, “meritu ezkutuaren” bila II-1203, birtute isilaren bila. 1813-n ez zen ez baitan egon zabalki aldarrikatzeko: “Hiritarrak, oraingandik iragartzen dizuet Errepublikako enplegu guztietan erreforma osasungarri bat egingo dela, bai kopuruari buruz, bai soldatei buruz. Gure banaketek bilketen proportzioz izan behar dute aberria salba dadin. Ez dira faltako gizon birtutetsuak, adar guztietan bizitzeko behar dutenarekin konformatuko direnak; eta honetaz baliatuko nahiz administrazio publikoko adar guztiei sendotasuna emateko” II-1026.

Drastikoa eta gogorra izan zen Estatuko funtzionarioek eginiko hobenen jazarpenean. Lehen, haren izaerari buruz, funtzionarioen ustelkeriaren kontra ezartzen dituen zigor latzak ikusi ditugu. Baina baita zuzen dago dioenean: “Ez zait bidezko iruditzen baldin inor bere enplegua ongi erabiltzen ari bada eta zerbitzurik eta argitasunik badu, hori kentzea beste bati emateko, hau demokraziaren izpiritaren kontra baita”, I-439. 1824-n Hazienda Publikoko pertsonalari buruzko dekretu batetan, aldaketarako arrazoitzat hauk jartzen ditu: “Zerbitzuan haren portaera txarraren dato oinarrituak egotea, gauzaezak izatea, edo eragozpen legezkorik gabe legeak seinalaturiko orduetan beren lanetara huts egitea, edo joanik ere, behar den fineziaz eta arduraz lanari ez ekitea” DL. I-294.

Bere justizi sen eredu, Bolibarrek familiako gustoen istingatik ihes egin zuen. Ez dakioker inoiz inolako kutunkeriaz jokatu zuenik ezar. Administrazio Publikoko goi mailetara ez zuen ahaide hurbilik bat ere eramane, eta haren batzureau inpartzialtasuna eta eskrupuluak ia injustiziaraino heldu ziren. Historiak baitesten ditu haren Bucaramangako hitzak: “Ez zait salatuko neure familiako la-

gunak Estatuko goi destinoetara jaso eta jarri ditudanik; aitzitik, ordea, aurpegira bota dakidake militar karreran ari ziren batzuri bidegabea izan natzaiela. Esaterako: Diego Ibarra nire lehenengo Laguntzaileak, 13 garren urtetik lagundu zidanak, zenbat urte egin ditu kapitain, Teniente Koronel eta Koronel. Nire ahaidea izan ez balitz, Jeneral Buruzagi legoke orain hark baino beharbada gutiago egin duten beste batzu bezala: horrela sarituko nizkion haren zerbitzu luzeak, haren adorea, haren denen gainteko iraupena, haren leialtasuna eta haren abertzaletasuna, haren lanera emantasun hain betea eta harekin beti izan dudan adiskidantza mamia eta estimazio handia; baina ahaidea nuen, laguna nuen, ondoan neukan eta zirkunstantzia hauxek dira harmadako lehen enplegatuetariko bat ez edukitzearen arrazoia. Ene iloba Anacleto Clemente Teniente Koronel graduan geratu da” BUC. 157.

ERAK: ZENTRALISMOA

Gobernuari, obra berria bultzatzea dagokion organu efikazari buruz, Bolibar barne estruktura zentralkoiaren alde dago, Venezuelan 1811-n, kolonikuntzaren desartikulapen probintzialaren ondorio gisa, onartu zen federalismoaren desberdina. Cartagenako Agirian erabatekoa izan zen: “Nik uste dut gure amerikar gobernuak zentraltzen ez ditugun bitartean, etsaiek aterako dituztela abantailik handienak. Sistema federala perfektuena eta gizartean giza zoriona emateko egokiena bada ere, gure Estatu jaio berrien interesen kontrakoena da ordea”. I-44. 1813-ko abuztuan berriro zioen: “Gobernu zentral eta bortitza dutenak bakarrik dira nazio indartsuak eta errespetokoak. Botere zatiketak ez ditu inoiz gobernuak ezarri eta iraun erazi, haren kontzentrazioak bakarrik sortu du lotsa nazio batentzat. Eta nik ez dut Venezuela askatu sistema horixe burutzeko baizik” EL. 5-24.

Jamaikako herbestaldiko gogoetetan, haren pentsamendua arazo hauei buruz zehatzagotu egin zen. Horregatik eskutitz famatuan Mr. Cullen-i idatzen dio: “Ez dut sistema federala herrikoien eta errepresentagarrienen artean ikusten, perfektuegia delako eta gureak baino askoz goragoko talentuak eskatzen dituelako; arrazoi beragatik ezesten dut ariztokraziatzko eta demokraziatzko monarkia mixtoa, Ingalaterrari hainbeste aberastasun eta distira ekarri diona.

Errepublikan eta monarkien artean zerik perfektuena eta eginena lortzerik ez dugunez gero, ebita dezagun anarkia damagogikoetan edo tirania monokratetan erortzea. Bila dezagun erdigune bat kontrako ertzen artean, oztopo beretara, zorigaitzera eta desohorera eramango gintuzkeen ertzen artean” I-170.

Haren karreran zehar, eta errealtate geografiko, historiko eta sozialak ematen zizkion irakatsien argira, haren printzipioek irmotasuna irabazi zuten; hala 1829-n zalantzarik gabe zioen: “Colombiarrentzat ez dago beste biderik sistema zentral bat, ahalik gutien gaizki, antolatzea baizik, lurraldearen hedadura eta hango bizilagunen izaerari ahalik ongien dagokiona. Arloaren zailtasunagatik eta herriaren ezjakintsunagatik, gure erakundeei beste herri batzutan beharrezkotzat daukaten baino sendotasun eta energia gehiago eman beharko diegu. Zenbat ixtilu eta eragozpen ez dugu edukiko hain inperio hedatsua probintzia bat gaizki gobernatzeko apenas balio duten gobernu baten besoekin maniatzeko?” II-774.

Kanpoaldeari buruz, ondorea da balio duena: “Gobernu sistematik perfektuena ahalik zorionik gehien, gizarte segurantzarik gehien eta establetasun politikorik gehien ematen duena da” II-1141. Hala ikasia zuen Virginiako Deklarazioan, eta lehen Venezuelar Kongresuko textuetan bertan.

Onenari begira, harentzat, ez ahatz, “gobernu baten bikaintasuna ez datza bere teorian, bere eran, ez bere mekanismoan, egiten den Nazioaren naturari eta izaerari egokia izatean baizik” II-1143. Hark beste gabe eskatuko zuen: “legea obeditua, magistratua errespetatua eta herria librea den gobernu bat: borondate jeneralaren eta herriaren aginduen hauspena eragotziko duen gobernu bat” II-1253.

BOTEREAK

Botereen koordinapena eta oreka, zatiketa baino gehiago, horra haren beste oinarrietariko bat. Aristoteles, Locke eta Montesquieuren, Bolibarrek hain hauzi garrantzitsurako arrazoiak ikasi zituen. Boterean eginkizunak eta adarrak barruti txit espezifikoeekin berezi behar direla uste du; ez da, ordea, haien artean separazio iraganezina proposatzerarino heltzen; zatitu baino gehiago botereak elkartu egin behar dira Estatuko organu desberdinen arteko

elkar errespetoa manten dezan armoniazko lokarriekin. Gobernu demokratikoa, errepublikarra, herritarra, efektiboa, xumea, moraliki sendoa, anarkia eta tirania gaınditzeko modukoa, Iraultza defendatzeko eta osatzeko egokia. Hark, bere karreraren hasieratik, diseinaturiko koadruan, dena dago aurreikusirik: “Estatuko Goren Magistratua, zeinen esku baitago dena Botere Exekutiboan, Buruzagi batek behar dituen kualitate moral eta intelektual guztiekin horniturik dago. Senatuak, gizon zuhurrez eta jakintsuz osatuak, etengabe begiratzen du magistratuen eta epaikarien portaera. Legegileriak, herriaren soberania errepresentatzen duenak, honen eskubideak zuzentasunez eta zientziaz defendatzen ditu. Botere Judizial bat dago justizia inpartzialki banatzen duena, ez indartsuari ez azpikariari atxiki gabe; ekitaterik hestuen dago haren judizioetan eta inor ez da bere berezko eta legezko eskubidez gabeturik aurkitzen epai arbitrarioengatik, edo legedien interpretazio okerragatik” II-1008.

Bolibarrek idatziriko bi konstituzio proiektuek, handi handika, Locke eta Montesquieuren eskemetara jotzen dute, honena gehiago duela harena baino. Bi kasuetan, plan hirukoitz ezagunari, Askatzaileak laugarren elementu bat eransten dio: Angosturan Botere Morala eta Bolivian Hauteskunde Boterea.

Legegintz Botereak Angosturan era bikaneral arrunta hartzen du, bereiztasun batez, senatu heredagarria gomendatzen duela. Boliviarako hirugarren kamara proposatzen du: Zentsoreak, zeini izendatzen baitio 1819-n proposaturiko Botere Morala.

Exekutiborako Angosturan herriak hautaturiko presidentea jartzen du, erantzulea eta txandagarria, presidentorde bat eta ministroak. Han presidentearen solidari den gabinete sistema azaltzen du. Boliviako proiektuan bizirako presidentearen irudia agertzen da.

Azpirarratzekoa da Askatzailea, teorian eta praktikan, botere osoa lagun bakarrarengan biltzearen kontrakoa zela. Errepublikako esperientziak kolegiatuak deskontseilagarri egiten bazituen ere —hirukoteak edo batzordeak—, ez zuen autokraziarik ez tirania monokratikorik gomendatzen. Gainera Bolibar beti eta sustraikei monarkiaren etsai eta kontrario izan zen. Haren ahaleginak, presidente pertsonabakarrerekin batera, Gobernu eta Estatu Kontseiluak jartzeko, baita bere automugaketak ere boterea de facto muga

gabe berari zegokionean, benetakoak eta efektiboak dira. 1828-ko diktadura esperientzian zehar, hauzia garbi dago, berdin esan liteke haren Peruko gobernuan ere; hemen ezin leunago jokatu zuen naziokoak kontsultatuz eta adituz, eta bere arazorik astunen eta funtsezkoenen erabakia haiei utziz. Botereen orotasuna harturik ere errespetatu egin zuen perutarrek berek norabidea markatzea, nahiz eta horrek —gertatu ere gertatu zenez— Panamako bere asmo amerikarrak laburtu.

Hala Angosturan nola Bolivian Askatzaileak Epai Botere independentea proposatzen du. Botere honen garaipenerako —esan zuen Angosturan— bi printzipio dira funtsezkoak: estabeltasuna eta independentzia. II-1148. Bolivian ondoriokor eta pozik aldarrikatzen du: “Proposatzen dudan Epai Botereak independentzia osoa dauka: inon ez dauka hainbeste. Herriak kandidatuak aurkezten ditu eta Legegileriak hauzitegiak osatuko dituzten lagunak hautatzen ditu. Epai Boterea jatorri honetatik ez badator, ezinezkoa du bakar eskubideen zaintzari bere garbitasun osoan eustea. Eskubide hauk zerak dira, askatasuna, berdintasuna, segurantza, gizarte ordenuko garantia guztiak. Benetako konstituzioa legedi zibiletan eta kriminaletan dago; eta tiraniarik ikaragarriena Hauzitegiek exertzitzen dute legeen tresna lazgarritz. Gehienez exekuti-boa zer publikoaren gordelari besterik ez da; baina hauzitegiak norbere gauzen, bakoitzaren gauzen arbitroak dira. Epai Botereak herritarren ongiaren edo gaizkiaren neurria darama; eta Errepublikan askatasunik bada, justiziarik bada, botere honexek banatzen ditu. Antolamendu politikoak ez du batzutan axola handirik antolamendu zibila ona bada; legeak behar bezala bete daitezela eta Destinoa bezala bueltagabetzat har dadila” II-1225.

BOTERE MORALA

Bolibarren estruktura juspolitiko horren, Botere moral horren kapitulu funtsezkoari buruz, Luis B. Prieto doktore venezuelar hezlari gurenaren interpretazioa sortu da berriki (7) Erakunde ho-

(7) Ikus haren liburu garrantzitsua: *El magisterio americano de Bolívar*. Caracas, 1968.

rretan politiko eta jurista jakintsuak kontrapisu bat somatzen du Bolibarrek bere Amerikako ordu zail eta dramatikorako beti beharrezkotzat azaltzen duen Exekutibo indartsu eta boteretsuarentzat. Botere morala, tesis honen arabera, gobernuaren kontrolerako antolamendu bat litzateke. Eta honetaz, zapalkuntzaren kontrako herriaren erresistentzi eskubide bat sortzeko asmoa litzateke, Bolibarrek bere bi konstituzio proiektuetan omititzen duen eskubidea noski, 1811-ko konstituzioan agertzen bazen ere. Honela Angosturan proposaturiko Areopagoa eta, argiago eta konkretuago, Boliviako Zentsoreen Ganbara, Exekutiboaren nagusitasuna biguntzera lihoazke, eta honi eustera askatasunaren, gizarte bizitzako printzipiorik gorenaren, onez.

Angosturako hitzaldian, Bolibarren pentsamenduaren adierazgarriak distiratsuen eta panoramikoena dudarik gabe, xumetasun gardenez idatzirik dago haren Doktrina Botereei buruz; hoietariko bakoitzari lehen eginiko komentarioez gainera, Simon Bolibarren beraren kontsiderapen jeneral hau erantsi behar da, esankorra eta zuzena: “Ez dago ezer Botereen arteko armoniaren hain kontrarik haien nahasketa bezalakorik. Ez dago ezer herriari begira hain arriskutsurik, Exekutiboaren ahultasuna bezalakorik eta Erreinu batetan hainbeste eskubide ematea beharrezkotzat jo bada, Errepublikak batetan eskabide hau infinitoki beharrezkoago dira” II-1146.

Gobernu sendo eta demokratikoaren, iraultza ahaleginerako sine qua non presupostuaren, jomugak, erakundeak diseinatzeke eta lege formulak idazteke lan zailari oratzera kinatu zuen, Zuzenbideko espezialista izan gabe. Demokrazia sendoa bilatzen zuen, Botere indartsu eta osoekin, gaitasun tekniko eta politikoz, abertzalez eta moralez gainera, herri hauek somatzen eta espero zuten iraultza egiteko. Haren erakunde indarkuntza ahaleginean mendentarako eta ez orainaldi hutsalerako lan egin behar den kontzientzia osoa dago beti. “Beraz, Gobernuaren sistema guztia indar dadila eta oreka jar dadila ez galtzeko moduan, eta bere leuntasuna bera erorbide ez izateko moduan. Ez baitago Gobernu erarik demokratikoa bezain ahalik, haren ezaugarriak ahalik finkoena izan behar du; eta haren erakundeak estabiletasunerako kontsultatu. Honela ez bada, sinets dezagun, gobernu entseu bat jartzen dela, eta ez sistema iraunkorrik: pentsa dezagun gizarte bihurri, zalapartari eta

anarkikoa eta ez zorionak, bakeak eta justiziak beren inperioa daukaten antolamendu soziala” II-1147.

ZIRKUNSTANTZIAKO BARIANTEAK

“Diktadura” deritzan Colombiako krisisean zehar Askatzai-learn egintza politiko batzuk bidea eman dute halako “erreakzionarismo” bat ezartzeko eta haren funtsezko kalitate liberala eta demokratikoa lorrintzera doan leienda bat egiteko (8).

Egia da errejimenari eusteko premia urjentean Bolibarrek neurri politiko batzu derrigorrean hartu zituela, baina ez da gutiago egia haietariko gehienek —bestetara badirudi ere— ez dutela demokraziarik inola ere zauritzen, bai ordea benetakotzen eta indartzen. Historilari agurgarriek zorrozki kritikatzten dute, nahiz eta funts gabeki, udalen kenketa, eta honetan autokratismo zentral-koiaren seinalea ikusten dute. Puntu honen eritzia Bolibarrek ja-danik emana zuen Ocañako konbentzio frakasatuaren aurrean, eta sobera ere merezi du haren arrazonamendu luzea transkribatzea neurri hari egiten zaion muzina zer funts gabea den ikusteko: “Udalek, Probintzi Gobernadoreen kontseilu gisa hain agurgarri liratekeenek, apenas bete dute bere eginkizunik; batzuk nazioari dagokion soberania jazteraino ausartu dira; beste batzuk sedizioa harmatu dute; eta ia berririk gehienek beren udaletako horniketa, apainketa eta osasungarritasuna erre egin dute areago, bultzatu baino. Horrelako gorporazioak ez dira mesedegarriak izendatu zaien zerbitzurako; gorrotagarri bilakatu dira kobratzen dituzten zergengatik, haik osatzen dituzten hautatuei dakarkieten okerragatik, eta toki askotan norekin ordeztu ere ez dagoelako. Batez ere kaltegarri bihurtzen dituena hiritarrei urteroko epaikaritzza eramateko ezartzen dieten obligazioa da, horretan urtzen dutelarik beren den-bora eta ondasunak, beren erantzukizuna eta ohorea ere sarritan konprometatuz. Ez da batere arraroa batzu beren etxeetatik beren buruz herbesteratzea, kargu higuinagarri hoietarako izendatuak ez izateagatik. Eta denek pentsatzen dutena esango banu, ez legoke udalak eliminatzea baino dekretu herritarragorik” II-1251.

(8) Ikus batez ere: Gil Fortoul, José: *Historia Constitucional de Venezuela*, I t., IV garren kapitulua.

Bolibarrek ez zuen —hau ere esan izan den bezala— expresio askatasunaren kontra atentatu, egin zuen bakarra prentsa gehiegi-kerien kontrako legea aplikatuko zela berretsi. Abagune dramatiko hartako beste erabaki batzu abagune harexen barruan aztertu behar dira orekatasunez, politika alderdi bat baizik ez den iraultz gurdi osoa eta organikoa ezerezteko eta eragozteko gertaera funtsekoak ez direla konturaturik. Gobernu aldakuntza funtsezkoa baino areago anekdota bat dira honelako neurri iragankorrak: latin eta teologi ikasketak gehitu, elkarte ezkutua galerazi —zeintzuren babespean biziki konspiratzen baitzen— eta liburu didaktiko batzu “irakasteko” debekua, hala Bentham-en *Tratados de Legislación*. Azkenengo hauk —egia esan— dogma katolikoaren kontrakoak ziren, baina era batera iraultzaren ikuspegi idealista eta zabalei ere kaltegarri zitzaizkien; haren arauekin kultura onura eta irabaziaren gainean oinarrizera jotzen zen. Bogotan Bolibarren kontra konspiratzen ari zen oligarkia plutokratikoak, ideia hauetan inspiraturik, agioa eta zorreatatik presondegia lotsa gabe defendatzen zituen; eta haserrez gaitzesten zuen Estatuaren edozein ingentzia ekonomian. Diktaturapean Elizarenganako joera bat ageri da, ez efektiboa eta sakona noski. Gobernuak katolikotasuna sostengatzea eta babestea prometatzen du “Colombiaren erlijio gisa” —historilari batzuk salatzen duten “Estatu erlijioaz” beste gauza bat noski— eta egia da Estatu Kontseiluan Artzapezpikua sartu zela —partaide bat hamazazpiren artean—; baina nabarmenena eta egiazkoena da Patronaturik ez dela derogatzen, eliz erakundeak aukera honetan eskainiriko laguntza hain baliotsua bezain neurri-gabea dela ikusirik ere ez. Bolibar bere diplomazian oso trebea izan zen emergentzia hartan apezzeria ukodotsuarekin bat egiteko. Baina hauzi delikatu honetan hark zuen independentzia argi eta zalan-tzagabearen ezaugarri ona da nola berariz azpimarratzen duen —orduantxe hain zuzen—. Estatuaren goragotasuna erlijio arazoetan, eta nola 1829-ko hazilak 24-ko dekretuz errepikatzen duen Errepublikako kantzilergoa dela Colombiaren Erromarekiko harreman-bide bakarra —artzapezpikuak, apezpikuak, apezzeria sekularra eta erregularra, eta baita “edozein Colombiar” ere— DL. III-366.

Bolibarrek bere garaian zeukan gako nagusi konkretua establetasuna zen; iraultz ordenua ezinezkotzen zuen anarkia eta desegurantzazko egoera loka baten barruan bizi ziren. Establetasuna lor-

tzeagatik, Bolibarrek ahalak eta bost egiten ditu. Dena dago helburu hain goren eta behinen horri begira, eta denak jo behar du horretara. Gure Amerikaren batasuna bezalako lorpen arras handiek ere establetasun politikoaren alde aurreko eta oinarrizko eskakizun horrexen lagungarri izan behar dute. Izan ere, Panamarako gonbitean argiro aldarrikatzen du “gobernu hauen iraupena, ahal bada, betikotuko duen oinarri funtsezko baten” urgentzia, I-1012. 1829-n, konbentzimendu sakona eta dramatikoa zuen, eta horizontea ezin ilunagoa zen: “Amerikak bere pausuak berregiten ez baditu, ordenura eta arrazoiria deitzen ez bada, ezer guti espero daiteke haren gobernuaren finkapenari buruz; eta geroari utziko diogun ondasuna koloniakuntza berri bat izango da” II-733. Zer bigentzia izugarria eta zehatza daukan gaur ere oraindik lehen transkribaturiko haren Angosturako oharpenak gure kolektibitateen ahultasunari buruz. “Jatorri desberdintasunak pulstu arras sendoa behar du, esku arras fina gizarte heterogeno hau maneiatzeko, zeinen artifizio nahasia alterapenik tikienez kraskatzen, zatikitzen, disolbatzen baita” II-1141.

Bolibarrek desestabletasun politikoa Senatu Heredagarria eta Bizirako Presidentzia bezalako erakundeekin gaitu nahi du. Biek iragankorrak izan behar zuten.

Bolibarrek proposatuak izan arren eta haien onarpen zirkuntziazalerako argudioak berak eman zituen arren, ez Senatu Heredagarria ez Bizirako Presidentzia ez dira Bolibarren bere erakundeak; akzidentalak dira biak, haren obraren izaera jator eta muinezkorik maskaltzen ez duten adierazpen formalak dira.

Dударик gabe Bolibarrek asmatuako organismorik aristokratiakoena Senatu Heredagarria zen. Lehen aipaturiko establetasunaren bilaketa agoniko eta etengabea diseinatzen du, bide berriaren ordu zailean oreka eta finkotasuna bilatuz. Moduren batez, jende egokirik ezak intentuari zentzua ematen dio. Bolibarrek Senatu hori “beti irainduaren alde jarriko den eta iraintzailea desarmatuko duen gorputz neutro gisa” asmatzen du, “Gobernuarentzat eta Herriarentzat kontrapisu gisa: bitarteko aginpide bat izango da, betiko etsai hauek elkarri botatzen dizkioten tiroak kamustuko dituen. Burruka guztietan hirugarren baten baretasuna adiskidantza-organua da, horrela Venezuelako Senatua izango da edifizio bigun eta zartada gogorrek hartzeko gai den horren euskarria:

bera izango da ekaitzak baretuko eta gorputz politiko honen soinkideen eta buruaren arteko armonia zainduko duen Irisa” II-1144, 1145.

Senatu hori Bolibarren obratik aparte dagoen froga argia da Askatzaileak ez duela bere geroko instituzio eskemetan sartzen.

Boliviarako proiektuan proposaturiko Bizirako Presidentzia ere ez da Bolibarren sistema demokratikoko lerro jeneraletara egokitzen. Hura ere premia izugarri eta nahasi berarengandik datorrena da, alegia, estabiletasuna garantizatzeko, askatasuna seguratzeko, anarkia zuzentzeko eta despotismoa geratzeko formula berehalako eta efikaz bat jarri. Bizirako Presidentzia ez dator Askatzailearen batasun programatikoarekin bat, Bolibarren teoriaren kontra dago, intelektual hajetsu batzuk oinarri honen gainean azalpen cesarista bat jaso badute ere, eta Bolibarren beraren giza jokabidearen kontra dago, desinteresaren txapelduna izaki bera.

Argitzea komeni da Askatzaileak aditzera emaniko Bizirako Presidentziak ez daukala inolako zerikusurik Amerikak aspertu arte jasan dituen autokratekin, betirako eta per se bizirakoak hauk. Aski da esatea konstituzioaren agindu espresoz, “presidentziak ezin izango diola ezein boliviarrri askatasunik ken, ez bere buruz inolako zigorrik ezar. Ezin izango ditu legez errepublikako botereei dagozkien hauteskundeak ez beste eginkizunak eragotzi” BOL. II-338. Errepublikako Presidentordea da Gobernuko buruzagi benetakoa; hiru Estatu idazkariak haren berehalako agindupean daude.

Establekuntzaren premia bortitzak eragiten dio Askatzaileari —esanik dugunez— Boliviarako formulazio honetan. Proposatzen zuen magistratuarengan abantail hauk ikusten zituen hark: “Gauzen ordenua eta hiritarren arteko menpetasuna kontserbatu, botere sendoz eta ekintza etengabez” II-1225.

Nolanahi ere, Bolibarren benetako teoria errepublikar txandaketa da. Haren pentsakera integrala “ardura zuzena” da hiritarren askatasunaren garrantzia gisa. Honetan Washingtonen enxeplua miragarri zitzaion beti, eta honela govesten zuen bere hiritarren aurrean: “Hiriko heroiak, Amerikako Errepublika handiaren aitak utzi digun irakatsi ederra ez zaigu alferrekoa izan behar. Herriak berriro goren magistraturarako izendatu nahi izan zuen, ete jeneral birtutetsu hark bere hirikideei zabalki adierazi zien botere publi-

koak lagun baten eskuetan mugagabeki jarraitzeak zer arrisku zeukan. Heroia entzuna izan zen, herria menkor izan zen; amerikar errepublika haintzaren, askatasunaren eta birtutearen zorionaren eredia dugu”, I-1361. Bere hogeitabat urtetatik gora errepikatzen duen ideia da: “Nolako birtuteak eduki behar diren aginpide neurrigabe bat edukitzeko hartaz abusatu gabe! Eduki al dezake ezain herrik gizon bakarrarengan fidatzeko gogorik?” I-25.

Bizirako Presidentziaren akzidentetasuna zerean konfirmatzen da, alegia, izen abizenez pentsatua izan zela eta ez panazea unibertsal gisa. Bolibarrek Ayacuchoko mariskalaren egokitasun politikoan eta kaudimen moral eta administratiboan fidaturik sugeritzen du Bizirako Presidentzia. Askatzailearentzat, Sucrek bakarrik gida zitzakeen efizientziaz Errepublika berriaren, “bi astetatik behera lau buruzagi desberdin edukitzeraino heldu zen Bolivia dohakabearen” II-1302, lehen urratsak (eta azken hogeitamar urtetako errepublikar bizitzan ia 20 presidente daramatza). Sucreren gaitasuna eta sendotasun morala, Bolibarrentzat, praktikan errepublikatasunik ez demokraziarik Bolivian galduko ez zen garantia ziren. “Nik hemen ez dut faltarik egiten —esaten zion Unanueri Chiquisacatik— zeren hainbeste dekretu organiko eman baititut eta bezaz uste dut gainerako guztia Sucre jeneralak nik bezain ongi edo hobeki egingo duela” I-1254. “Sucre jenerala beharrezkoa da konstituzio honetarako, eta hura gabe ez dago ezer; horregatik —idazten dio Santanderri— saia zaitezela eskatzen dizut aginpide hau urte batzutarako hartzeko eskubidea eman diezaioten”, I-1254. Uste horixe zeukan hileak lehenagotik: “Sucre jeneralak urte batzutan hemen geratu behar du errepublika hau eratuko bada”, I-1178. Ohar bide batez Bolibarrek ez duela pentsatzen Sucrek bizirako gobernaterik; “urte batzu” soilki nahi ditu, Estatu baten haurtzaroan oinarritzko direnak; beharbada ez dekada batetik gora, hori baitzen berrikuspen konstituzionala egiteko ezarri zen epea (9).

Bolibarrentzat konstituzioak ez dira inoiz armazoi zurrunk, hazten ari den gorputza zigortzekoak. Jusnaturalismotik historizismorantz jo du, konstituzioak eboluzionatu egiten direla ulertze-

(9) Konstituzioaren berrikuntzetarako egokitasunari buruz, Bolibarrek bere bi proiektuetan hamar urtetako errejimena bera proposatzen du.

ko adina hain zuzen, eta ez direla herrien ernegurako eginak, nazioko zorion programen bozetoak baizik. Bizirako Presidentzia, eta Boliviako konstituzioa jeneralki, ez dira betikotasunerako. Hispanoamerika bezalako gizarte berrietan, legeek —eta arau honen barruan daude oinarrizkoak ere— aldizkako berrikuspenak behar dituzte, beren funts demokratikorik desnaturatu gabe, prozesu historikoaren eskarrietara hura egokituko dutenak.

ERREJIMEN ZIBILA

Bolibarrek irmotasun argiz eta bere justizia sen paregabez bereizi zituen ihardun zibilaren eta ihardun militarren arloak. Bere koherentzia orokorraren eta exenplutasunaren indarrez, gure kontinenteko maisu jator gisa dirau. Garai nahaspilatsuan jokatu eta bizi bazen ere, inoiz ez zuen gezurtatu bere kredoa, bere karreraren hasieratik azkenerarte berbera izan zena. Bere bizitza publikoaren egunsentian, bere bidea ezartzen du: “Ni soldadua naiz eta nire eginbeharrak ez dit gobernuari obedientzia itsua besterik agintzen, haren aginduen natura arakatzen hasi gabe”, I-35. Eta hauxe da hainbeste gorabeheratan zehar eta bere esistentziako ordu distiratsuetan aldagabe kontserbatu duen jokabidea. 1828-ko krisis garratzaren erdi erdian, militarren alde agertzen da eta botu solemne bat egiten du: “Harmadak ez du herriaren gogoa eta eskubideak kontserbatzea besterik nahi izan. Beraz, beste hiritarren eskerroren eta estimuaren hartzedun egin da; eta horregatik nik ere begirunea diot. Harmada hau gure garantien oinarri izan da eta izango ere aurrerantzean. Hala eskaintzen dut harmada honetako lehen soldadu gisa, eta barka harrokeria hau. Nik badakit honek ez duela inoiz borondate jenerala besterik egingo, ezagutzen baititut honen sentimenduak. Ez da inoiz legeen eta borondate nazionalaren menpeko baizik izango”, II-1264. Oraindik 1829-n, azkenaren aurrez, seguru errepikatzen du: “Harmetan hil arte zerbitzatuko dut; gobernu berriaren hobekuntzan eta euspenean saiatuko naiz; neure besoarekin eta neure lagun militarrekin jartzen diguten magistratua defendatuko dut; ez dut neure izenik eta bizitzarik erretiratuko zerbitzu honetan. Dena egingo dut, den dena, basailu izan ere bai”, II-832.

Bolibarren jarraitasun horretan egin behar militarren egune-

roko kunplimendurako doktrina bat dago eta indarraren gordelari den gizonaren jokabide sistematikoa, herriarengandik sorturiko aginpide zibilarekiko menpetasun eta begirunezko jokabidea. Herriaren soberania da —berriro diogu— “nazioarteko aginpide legezko bakarra”, II-1229. Herria, gizonen arteko botere egiazkoaren iturri gorena eta behin betikoa, horra herritik sorturiko magistraturek erantzun eta zerbitzatu behar diotena, herriari zor zaion bezala honen babes eta defendatzaile izateko obligazioa daukan erakunde harmatua. Askatzailearentzat jasanezina zen izpiritu militarra aginpide zibilean; militarren sistema “indarra da eta indarra ez da Gobernu”, I-222. Ez zeukan zalantzarik eginkizun militarra eta administratiboa elkartezinak direla esateko: “soldadu batek bere aberria salbaturik ere, nekez izango da magistratu ona. Gerrako gogortasun eta grina krudeletara ohiturik, haren administrazioak heriotz ofizio baten laztasunak eta gogorkeria eraman-go ditu berekin”, I-1364.

Gai bera eta delikatu honetaz, Angosturako Konstituzioak lege taiua eman zien haren aurreikuspen noblei kontzeptu lakoniko batetan: “Indar publikoa funtsean esanekoa da, ezein gorputz harmatuk ez dauka erabakitzerik”; honela dioen bere esakeraren itzulpen juridikoa: “Soldaduak ez du erabaki behar, eta dohakabea herria gizon harmatua erabakitzen hasten denean”, II-1264. Boliviako konstituentearen aurrean, kategorikoa izan zen: “Harmadaren destinoa muga zaintzea da. Jainkoak aparta gaitzala harmak hiritarren kontra bihurtzetik! Nazioko soldadutza da aski barruko ordenua zaintzeko”, II-1226. Konstituzio Proiektuan indar harmatuaren osakuntzari VIII garren titulua dedikatzen dio; kontrabandoa eragozteko babes militar batetaz ere tratatzen du han.

ABERRIA ETA ARMONIA

Bolibarrek orekazko egoera bat bilatzen du harreman politikoko bi alderdi jokalarien artean: herria eta gobernu. Hiritarrek garantia guztiak eduki behar dituzte, ahal den askatasun eta berdintasun guztia, eta gobernuak errespetatua izan behar du, eta borondate kolektiboa errespetatuz erazteko moduko egoeran finkaturik egon. Bi ente dira parekidetasun mailan; eta parekidetasun hori egingarri da bi zirkulu ebakitzailerik marrazten dituen arau juridi-

koagatik; hiritarren eginbeharrak eta eskubideak, eta gobernuaren ahalmenak.

Iraultzaren helburua zer politikoari buruz —sintesisean— zera da, “errepublikaren esistentzia, hiritarren eskubideak, boterearen sendotasuna, erakundeen estabiletasuna kontziliatu, herriari ahalik eta zorionik eta askatasunik gehien eta gobernuari ahalik eta energiarik eta indarririk genien eman, dardaraldi nabarmenik gabe”, I-1404.

Beti ahalegin biziz eta begiak eraikitzeko, fundatzeko eta sortzeko eginkizun positiboan jarririk, eta estabiletasunaren urgentzia aurrean duela, hark bere errezeta egiten du: “Gobernu estable bat egiteko, izpiritu nazional baten oinarria behar da, helburutzat joera uniformeak edukiko duena bi puntu kardinal hauetarantz: borondate jenerala moderatu eta aginpide publikoa mugatu; bi puntu hauk teoriak finkatzen dituen terminoak izendagaitzak dira; baina biak gidatzen dituen araua zera dela pentsa daiteke, elkarrekiko murrizketa eta kontzentrapena, herriaren borondatearen eta Botere legezkoaren ahalik eta marruskadurarik gutien egon dadin”, II-1149. Estabiletasun horrek ez du gizarte dinamikaririk exkluditzen, baizik eskatzen, bere osagarri gisa. Printzipio bitzuek dira errejimen politiko baten lehengaia. Frantziako pentsamendu gardena iturrian, Bolibarrek asko ikasi zuen, eta haren dedukzioak logikoak dira. Eraketaren ideia konkretuz berriro ere dio: “Izadia eratzeko, Descartesek materia eta mugimendua eskatzen zituen. Justizi sistema bat edo gobernu bat eratzeko berdintasuna behar da hura gabe ez baitago ezer zuzenik, ez ongarririk; eta gizartetasunaren mugimendua den askatasuna, ez baitago egintza moralik askatasunik gabe”, PB. 240.

Baina konstrukzio politiko guztiak, denik xumeena nahiz nahasiena dela, arrazoi eragile bat dauka, Aberria. Harentzat, “Aberria Amerika da”, II-1072. “Amerikatar guztien aberriak bat bakarra izan behar du, denean batasun osoa eduki baitugu”, I-294. 1815-ko urte garrantzitsuko abuztukoak da agerpen hau, segurua eta dudagabea bere zabaltasun zehatzean: “Hego Amerikako seme bezala, ezin ditut ezaxolaz ikusi jaiotzen ikusi ninduen herrian gertatu diren jazoera ikaragarriak”, I-152. Aberria errealtate ihardule eta dinamikoak da; Hispanoamerika da; Colombia, Venezuela deritza; Caracas deritza, haren hiria marka etengabea baita haren

ariman. Caracastik hasten da haren kontinente zerbitzuko ibilaldia.

Osagarri desberdinak maitasun gartsuz baturik, eta Aberriaren kultura bultzatuz, Bolibarrek —mende guztietarako— gainditu gabeko definizio bat lantzen du: “jaiot lurra ezer baino lehenago; berak eratu du gure izana bere elementuekin; gure bizia ez da gure herriaren beraren funtsa baizik; han daude gure jaiotzaren leku-koak, gure esistentziaren sortzaileak eta hezieraren bidez arima eman digutenak; han dautza gure gurasoen hilobiak eta segurantza eta baretasuna eskatzen digute; denak gogarazten digu eginbehar bat, denak zirikatzen gaitu sentimendu samurrez eta oroitzapen gozoz; hura izan zen gure inozentziaren, gure lehen maitasunen, gure lehen sententzioen eta gu eratu gaituen guztiaren teatroa. Zer titulu sakratuagorik maitasunerako eta kontsakrapenerako?” I-1449.

Hor dena dago esanik. Jaio ginen zoruan, hatsartu dugun airean eta edaten dugun urean, elikatu gaituzten janarietan gure jaiot lurra dago bere elementuekin osatzen gaituela. Baina gizona ez dute sustantzia kimikoek, ez materia eta prozesu fisikoek bakarrik eratzen, baizik baita —era eta neurri baterakoz eta garrantzitsuz— giza harremanek, komunikapen izpiritualak, eta elkartruke moralak ere. Aberriaren gure gurasoak daude, gure gorputz biziaren autoreak, eta maisuak daude, gure buru biziaren autoreak, haiengandik hartu genuen hizkuntza, sinesteak, fedea, printzipioak, goratzen gaituzten ezagutzak eta gure giza kondiziorako kontatzen duen edozer. Han, jaiot lurrean, daude gure sustriak lurraren golkoan dautzan arbasoengan. Han ireki ginen esistentzia osora, zer da bizi izatea?: sententzioak, emozioak, maitasunak; han azaldu ginen jakintzaren argira, pentsamendu sortzailearen eta adimenaren mirarira. Izan ere, zer titulu sakratuagorik maitasunerako eta kontsakrapenerako?

NEKAZAL JUSTIZIA

Aberastasunaren banaketa kolonikuntzaren barruan —esanik dugunez— denik bidegabeena zen. Izugarrizko distantziak banatzen zituen guztia zeukatenak eta beren pobretasun gorriaz beste ezer ez zeukatenak. Esklabuen ahaleginez, eta hauk beren ugazabarenak ziren, haziendak eta mea esplotazioak egin ziren. Indio gomendatuekin lurra lantzen zen eta pribilegiatuen bizitza gozoago egiten. Gizarteko behe sailak beren lanaren fruituen gozamenetik aparte zeuden. Bertako artizanutzara ere heltzen zen espainiarren espekulazio neurrigabea, hainbeste non hasieratik —ikus Juan de Villegasek Venezuelan 1552-n diktatzen dituen gomenduetarako ordenantzak— praktika doilor hori mozten saiatzen baitziren. Bestalde, Zuzenbidean bazen presuntzio bat beltzen baten eskuan aurkitzen zen edozein urre ohostutzat jotzekoa.

Indietako legeen prebisioak bertakoen lanari buruz alferrekoak gertatzen ziren; bete erazteko ardura zuten agintariak berak ziren esplotatzailerik zorrotzenak. Guzti honegatik, Amerikak bi zati ondo definituak zituen: bata tikiena, pribilegiatuen, aberatsen eta ongi zeudenena; bestea, handiena, morroien eta esklabuen, diskriminatuen, ezergabeen eta miserableena.

Bertakoen txirotasun eta apaldura etengabeak, afrikarren esklabutzak, nabarren kontrako tratu zapalkor eta bidegabeak, asko eta asko erremedio gabeki bultzatu zituen hain gogorki bezain sakonki jotzen zituen eta edozein gaindibide elemental hersten zien sistema sozio-ekonomikoaren kontra. Batez ere nabarren sailaren kontra zorroztasun agresiboa erabiltzen zuten; esku ofizioak ar-

buiatu egiten ziren eta merkatalgoa bera ere gaizki ikusia zegoen. Criollo harroak ez ziren inoiz eginkizun hoietara, doilor eta lotsa-garrizat joetara, jasten.

Bolibarren lurean hirurehun urtetako kolonialdian zehar gertaturiko erreboltarik, matxinadarik eta desatsegin agerpenik gehien arrazoa injustizia ekonomiko sumingarria izan zen, gaitzes-ten zen egoera sozialari hain barrenki lotua. Ez dago ahanterik Amerikako bizilagunek tratu berdinkoiagoa nahi zutela karga publikoei buruz. Desberdintasunaren sistema gorrotagarria zen. El Socorro-ko komunariak, Andeetako komunariak, Peru, Argentina, Mexiko eta kontinenteko lekurik desberdinenetako mugimenduak zerga injustiziaren kontra matxinatu ziren. Venezuelako historia oso aberatsa da horretan. Jose Leonardo Chirinosen altxamendua Coron, San Felipeko motina, Juan Francisco de Leon-go manifesta-zio zalapartatsuak, Felipe V-k Venezuelako probintziatako merka-tal monopolioa eman zion enpresa euskaldunaren kontra mugitzen ziren. Gipuzkoako Konpainia makina efikazagoa gertatzen zen zerga bilketan eta horregatik gorrotagarriagoa ere bai koloniako ad-ministrazio zaharkitu eta baldarra baino.

Beltzen eta indioen protesta ugari eta gogorretan, XVI, XVII eta XVIII garren mendeetan zehar, arrazoi ekonomikoa da nagusi, Hori, jakina, zer sozialari loturik doa, puntu batak eta bestek praktikan esklabutza eta morrontza baitakarte.

LEHEN GOBERNUEN DISKRETASUNA

Venezuelako Iraultzako lehen faseetan, boterea eskuratu zuten sailak trebeak izan ziren beren interesen defentsan, eta muga-beki atzeratu zuten gizarteko baztertuen oinarrizko premien kontsiderapena. Ez zen inolako neurri garrantzitsurik erabaki baserri-tar gehiengo neurrigabearen onerako. Sanz lizentziatua bezalako gizonak nekazal lege bat eskatu zuten justiziari begiratuko ziona eta era batera aurreramendua kinatuko zuena. Caracasko patrizioek ordea ez zeukaten gogorik jabegoaren azterketa seriorik egiteko; horregatik Goren Batzoredearen eta lehen errejimen konstituzio-nalaren ere gobernu egintzetan, eta baita Kanpaina miragarritik sorturiko administrazio iheskor eta iharrosiaren egintzetan ere, alferrik bilatuko da probidentzia bakarrik gai honetaz. Aitzitik or-

dea, gehiengan “iraultzaile” edukitsuen ondare interesen aldeko jokabide diskretu eta kontuzko bat nabari da. Neurri ekonomiko gisa lehenengotan zergen gutipena erabaki zen, batez ere aberatsen aldeko neurria hain zuzen. Kargarik gorrotagarrienen kenketa de facto penintsulako administrazioaren aparatu fiskala ezabatzean gertatu zen; honela inork zergarik ordainduko ez zuen ordenugabetasunean erortzen zen. Egoera bera ekarriko zuen ia 1820-30 ko ziklo osoa bete zuen gerra emerjentzia hain luzeak. Ohargarri da bestalde sarrera publikoen kolpeko mozketak ekarri zuen baliakizunik ezak oker handia egin ziola errepublikako administrazioari. Apirilaren 19-a ondoren, zeuden hondoak laster agortu ziren. Bolibarrek bere Cartagenako Manifestuan, ongi deskribatzen du panorama beltz hori; txanpon paperaren emisioak kalte handia egin zion ezarri nahi zen ordenuari.

Zirkuntstantzien eraginez eta, esan liteke, abagune egokia beren statusa ahalik gehien hobetzeko probetxatza zeraman sail guztien berezko erreakzioaren eraginez gertatu zen zerga sistema kolonialaren desagerpenaz aparte, herria bera ari zen bere iraultza ekonomikoa egiten.

ABIADA GERA EZINA

Lautarrak, orduko venezuelarrik pobreenak, eta hirietako nabar bazterturik gehienak Bovesi inguratu eta jarraitu zioten, honek, nekazal miseriaren interprete zuhurrak, harrapaketa toleratzen zuenean eta instituzionaltzearino heldu zenean. Bovesek lurra ere agindu zizkien bere soldadu ezergabeei. Hainbeste urtetako apalduraz elikaturiko erretasunez eta herraz gainera, beste arrazoi erakarkor oso indartsu bat zetorren orain erregearen errezkadak hornitzera; jende asko criolloen ondasunetan noizbait gosea kentzeko ilusioz batzen zitzairen.

Jose Antonio Paez lautar habitat berekoa eta Bovesen eta honen jarraitzaileen antzeko burukeraduna zen eta asturiar basatiaren irakatsia ondo asimilatu zuen eta argi ikusi haren garaipen izugarriaren arrazoa. Hala zertifikatzen du Pedro Briceño Mendezek 1821-ko uztailan: “Paez jeneral jaunak 1816-n Apure okupatu zuenean, bere burua herri etsaiaren erdian isolaturik ikustean, launtzarik ez inondik edukitzeko esperantzarik gabe, eta ari zen

lurraldeko eritzi jeneralarekin ere kontatzerik gabe, tropei eskaintzera beharturik aurkitu zen Gobernuari Apuren zegozkion lurra haien artean eskuzabalki banatuko zirela. Hauxe izan zen, beste batzuren artean, soldadu haik konprometatzeko eta ugaritzeko biderik efikazena, denak abiatu baitziren abantail berdinetan partehartzera”. Paezek orduan hain biziki sentitu zuen erreibindikazio hau non Bolibarren aginpidera makurtzerakoan, hartako jarri zuen baldintza bakarra Askatzaileak konpromezu hori konfirmatzea izan baitzen; Bolibarrek, jadanik ordurako iraultza sakontzeko eta egiazkutzeko planean zegoenak, promes hura izenpetu ez ezik gudu gorputz guztietara zabaldu zuen. Briceño Mendezen testigantzan bertan, hurren iladan, guzti hori argi eta garbi dator: “Paez jenerala hain sinetsirik zegoen pausu honen garrantziaz eta ekarri zituena ondorio onez, non Zure Goientasun Presidente horren, orduan Goren Buruzagi horren, aginpidera makurtzean eta aitortzean, ez baitzuen eskaintza hura berrestea baizik eskatu. Zure Goientasunak ezin ezetzik eman eta haren helburuari txit zuzena eritziarik, nahiz eta hedatsuegia eta mugagabeegia izan, komenizko iruditu zitzaion modifikatzea eta era batera harmada guztira hedakor egitea” O’L. XVIII-400.

Ohar nola lur banaketaren ideia, abertzaleei dagokienetik, Paezengandik datorren, eta Bolibarrek endosatu egiten du, hura iraultz konstituzioa burutzera datorren kontzientzia osoz. Bolibarrek gainera juridikotasun sorberriaren laguntza osoa ematen dio eta benetan operatiboa egin dezaten arauekin hornitzen saiatzen da.

IRAULTZ ARAUAK

Aintzinako Guayanan, 1817-ko irailak 3-n diktaturiko dekretuak, iraultzaren egintza legezkoen bidez irekitzen du gai horretan eta ondo ezplizitua eta argia da: “Edonolako ondasun eta propietate mobleak nahiz inmobileak eta herri hau ebakuatzean etsaiari jarraitu dioten edo haren zerbitzuan parte aktiboa hartu duten sexu bitzuetako pertsonen kredituak, akzioak eta eskubideak, bahiturik eta konfiskaturik geratzen dira, Estatuaren alde. Propietatea hitzaren hedadura osoan ulertu behar da, kredituak, titulua, akzioak



eta eskubideak hartzen dituela. Aita kaputxionen eta pobretasun botua eginak diren gainerako misiolarien edonolako hazienda eta propietate guztiak, Estatuaren alde konfiskaturik geratzen dira. Halaber konfiskaturik geratzen dira espainiar gobernuaren eta bere menpeko guztien propietateak, dena dela beren egoitz herria”, DL. 1-76. Beste dekretu batek, hogeitau egun geroago, arauak ematen dizkio hauzi garrantzitsu honetaz arduratu behar zuen Bahimendu hauzitegiari, DL. 1-78; data berean Askatzaileak organismo hori osatuko zuten funtzionarioak izendatzen ditu. Azkenez urriaren 10-n promulgatzen da Nazioko Ondasunen banaketa Legea Venezuelako indar abertzaleetako militarren —gradu guztietakoen— artean.

Gerra “kasta” faboratzea pentsatzen ote du Askatzaileak, gero esan den bezala? Ez. Herria da haren iraultz ahaleginaren destinataria; hark badaki “Colombian herria harmadan dagoela, egon ere bai baitago, eta herri hau tiranoen eskuetatik konkistatu baitu; zeren gainera herria bera baita nahi duena, herria lan egiten duena, eta herria ahal duena”, 1-565. Hauzi honen garrantzia berretsirik ageri da 1814-ko bere deklarazioaren argipean: “Guk denbora luzez ez daukagu herri nekazari bat izatea baizik”, II-1290. Zintzo jokatzeko du nekazal justizian. Bolibarrek kontuan dauka “harmadak haragi eta hezurrezko gizonen osatzen direla, denerik behar dutela, eta beraz ase beharreko grinak dituztela”, 1-914.

Bolibarren mezuan Estatu Kontseiluari, 1817-ko hazilaren 1-n, argi geratzen da erabaki handi hauen asmoa eta esanahia. “Harmada askatzaileko soldaduak sobera ziren gobernuaren sarien hartzedun, beste gabe ahantzi ahal izateko. Arrisku guztiei aurrea eman dieten gizonen, ondasun guztiak utzi dituztenek, eta gaitz guztiak jasan dituztenek ez zuten beren desatxikitasuna, beren adorea eta beren birtuteak merezi zuen golardoan zuzenik gabe geratzerik. Nik beraz, errepublikaren izenean, nazioko ondasun guztiak aberriaren defentsoreen artean banatzeko agindu dut. Donazio honen terminoak eta mota finkatzen duen legea da kontseiluari atseginik handienez eskaintzeko ohorea dudana dokumentua. Merituaren saria giza boterearen agintzarik bikainena da”, II-1114. Hamabost hile geroago, Angosturako hitzaldian, ideia berak daude literaturaz hobeki landuak: “Gozamen guztiak, lehen zeuzkaten ondasun guztiak utzi dituzten gizonen; gerra lazarri bat zer krudela den probatu duten gizonen, pribaziorik mingarrienak eta oinazetik zorrotzenak

jasanik; Aberriaren seme hain sarigarriek Gobernuaren arretagarri izan behar. Beraz, Nazioko ondasunekin saritzeko agindu dut”, II-1153. Hitz hauk erregu dramatiko batekin biribiltzen ditu: “Herriaren aurrean inolako meriturik badut, haren Ordezkariei nire erregua entzuteko eskatzen diet nire zerbitzu ahulen saritzat. Kongresuak Nazioko ondasunen banaketa mana dezala, Errepublikaren izenean Venezuelako militarren onerako dekretatu dudan Legearen arabera”, II-1153.

Lurrak soldaduei banatzea eta esklabutzaren abolipen korrelatiboa, hau ere iraultzaren beste oinarri nagusi eta konkretu bat —zeinen alde estilo patetiko berean mintzo baita: “Nik zuen erabaki soberanoaren esku uzten dut nire Estatuto guztien erreforma edo deusezpena; baina esklabuen askatasun osoaren konfirmazioa eskatzen dut, neure bizia eta errepublikaren bizia eskatuko nukeen bezala”, II-1152—, horra Bolibar Kongresuari azaltzera benaturik aurkitzen den bi ekintza nagusiak. Bere ustez, batez ere bi hoik dira “nire agintaritzako handienak. Hauxek dira, jauna, azken aldi honetako erabakirik inportanteenak”, II-1152.

NEKAZAL LEGEAREN NORAINOTASUNA

Lurrak, aipaturiko legearen arabera, hartzaileen maila militarri begira banatuko ziren. Justiziarako erizpide zuzen bat bilatuz, uste da “kanpainen lorturiko graduak harmadako lagun bakoitzak eginiko zerbitzu desberdinen frogara argia direla”. Hamabi graduko eskala bat dago, Jeneral Buruzagiarengandik hasi, 25.000 pisutako ondasun eskubidez, eta 500 pisutako eskubidedun soldaduraino (10). Aparteko meriturik dagoenean, eskaleari izendapen handiagoa eman dakioko.

Lege honekin Bolibarrek Nekazal Erreformako programa xume bat diseinatzen du. Hark badaki —esanik dugu— iraultzako tropak batez ere nekazariz osaturik daudela; lehen aipaturiko konfiskapen dekretua baino bi egun geroago, 1817ko irailaren 5-n, Jose Felix Blanco koronelari idazten dio: “Jakin dudanez, zuk formaturiko eskadroia San Antonio koarteleraturik dago, eta soldaduak

(10) Ikus eskala osoa: B y A. VI-80.

kexaz daude premiarik gabe beren etxe eta laborantzetatik kanpora dauzkatelako. Ez zait kexa hau bidegabea iruditu, zeren, egia esan, mementuz zereginik eduki ezik, gorputz hau beren lurren lanketan ongarririo enplega bailiteke, martxarako ordua datorren bitartean”, 1-262.

Charles C. Griffin iparramerikar ikertzaile hospetsuak, Hispanoamerikako Historia Ekonomiko eta Sozialean espezialista denak, uste du beharbada “gehiegixto dela soldaduen hobari sistema bati ‘nekazal legea’ deitzea (11).

Haren ustez, Bolibarren aginduz faboratuko ziren lagunen kopurua urria zen —hamabostetik hogeï mila pertsonatara hamar bider gehiagoko populazioan—. Erantzun gisa esan liteke, aplikatua izatera, beste modu bateko historia genukeela gaur segur asko. Arau elementalak baziren ere, haietan zegoen estruktura ekonomikoaren aldakuntza sakonaren hasiera. Bolibarrari eragin zion asmoari buruz, helburu politikoa bistakoa da eta haren berehalako lorpenak zuzen zegoela adierazten dute. Nolanhi ere Griffin profesoreak ematen duen zenbaki kalkulu arretagarriak gertaeren ulerpenera laguntzen du, zeren Bolibarren aginduaren destinatariak hasieran guti baziden ere, ez dago dudarik neurri hark “gehitzea eta koprometatzea” lortuko zuela Aberriaren kausaren alde. Briceño Mendezek jadanik zertifikaturik zuen Paezen eskaintza helburu hoietarako bide efikaza izan zela, zeren, lautadako herri sektoreetan, “denak abiatu ziren abantail berdinetan partehartzera”. Herriko beste alderdi batzutan, baserritarrentzat lurraren jabetasunak interes gehiago zeukan tokietan, eta baserritarrak artzantzarako eremuen erabilera libreaz bakarrik konformatzen ez ziren tokietan, lurdu handien monopolioak desagerturik, Bolibarren erabaki honen ondorioak are ederragoak izango ziren abertzaleentzat.

Askatzailea ez zihoan lurren banaketa demagogikora. Hau kaltegarri izango zitzaion kontsumorako eta esportaziorako nahikoa produktzio lortzea behar zuen komenetzia publikoari. Batasun produktiboaren ideia konkretu bat nabari zaio, zenbait faboratu elkartu ahal izatea permititzen duenean etxalde handiak amankomunean eskatzeko —askoz geroago beste zenbait alderditan entseiatu-

(11) Griffin, Charles C.: *Los temas sociales y económicos en la época de la Independencia*, 49 garren o.

ko ziren etxalde kolektiboen antizipo gisa—. “Conucoaren” —in-dioengandik datorren minifundioaren— oposizio tazituak haren iraultzailetasuna indartu egiten du; langile alokatuari dagokion eskala handiko produkzio kapitalistaren posibilitatea lurrean irekitzera zihoan. Atzean geratu ziren feudo haroko hondakinak, Amerikan Gomenduaren eta honen barianteen soinekoz jantzi zirenak.

KONTZEPTUEN BERRIKUSPENEA

Ekintza politiko eta praktiko hauen maneian, Bolibarrek kontzepzio teoriko berdinki koherentea eta kontsekuentea erakusten du. Komeni da bere garaiko erizpide komunetatik nola apartatzen den ikustea bere bideak zabaltzeko.

Jabegoaren aurrez, “norbere ondasunak eta norbere talentuen trebetasunaren edo lanaren fruitua gozatzeko eta libreki erabiltzeko eskubidearen” aurrez, Angosturako konstituzio proiektuan definitu zuen bezala, O’L. XVI-139, Bolibarren jokabideak baditu nobedade batzu. Harentzat ere, Estatuari dagokio jabegoa garrantizatzea eta babestea. Berdintasun, askatasun eta segurantzaren ondoan, berariz kontsaktatzen dituen lau eskubide handien artean jartzen du, Locke-k eta Hume-k —Enziklopedisten inspiratzaileek— eta Gizonaren eta Hiritarraren Eskubideen Deklarazioak (1789) eraginik. Baina Hispanoamerikako iraultz mugimenduaren eragin lojiko, Bolibarrek zuzenketa argigarriak egiten dizkio Frantziako Erreboluzioak zabalduriko txostenari. Jabegoaren oinarriek —harentzat— ezin izan berdintasuna, moralak eta justizia baizik; hauk falta direnean, jabegoa lapurreta eta indarkeria da. Orduan Iraultza herritar baten ondorio den Estatuari babestea dagokion jabegoa, etikaren eta ordenu berriko legearen araberrako jabegoa da. Zentzugabea eta kontraesankorra litzateke, izen demokratiko zihurdun errejimene batek bere indarraren laguntza ematea berdintasuna apurtzen duen eta Iraultzari negatiboki eragiten dion jabegoari, justizia baztertuz eta honen alde sakrifikatu diren masen gaindipena eragotziz. Hauen premiak asetzeko dauden bitartean, Bolibarren idealak jabego moralgabe, bidegabe eta legegabearen kontra dihardu, ekintza askatzailearen goren helburuen kontrako faktoreen kontra diharduen bezala.

Askatzailearen pentsakera aurreratua argi nabari da, jabego

pribatu normalari dagokiola, gizarteko eskubiderik gorenak aitortzen dituenen. Honela, dudarik gabe, desjabequeta onartzen du, baldin hori eskatzen badu “premia publikoak edo onura jeneralak, legez frogatuak; kasu honetan, indemnizapen zuzen baten kondizioa beharrezkoa da, zirkunstantziek hala permititzen dutenean”. Ikus jabegoari buruz, testuak konparatzean, gizonaren eta hiritarraren eskubideen deklarazioan onarturiko Sieges abataren idazkiari Bolibarrek “eskubide ukiezin eta sakratua” delakoa kendu egiten diola eta desjabequetaren arrazoia ere gehitu egiten duela, premia publikoari “onura jeneralaren” kontzeptu zabalagoa erantsirik; hau da, haren ustez, desjabequeta bidezkoa da osasun publikoak (premiak), inperatibo derrigorrezkoak, eskatzen duenean, eta berdin on publikoak (onura jeneralak) eskatzen duenean, inperatibo ez derrigorrezkoa hau baina bai komenizkoa gizartearen aurreremendurako. Gainera Estatuari indemnizatzeko obligazioa kendu egiten dio, “zirkunstantziek hala permititzen dutenean” jarririk; eta azkenez, “aldez aurreko” zera ere kendu egiten du. Honela testu frantsesak zioen: “Jabegoak, eskubide ukiezin eta sakratu bat izanik, inor ez daiteke haietaz gabetu, legez frogaturiko premia publiko batek argi eskatzen duenean baizik eta indemnizapen zuzen eta aldez aurreko baten kondiziopean”; Bolibarrek proposatzen zuen: “Inor ez daiteke bere jabegoaz, dena delakoa dela, gabetu, bere baietzarekin izan ezik, legez frogaturiko premia publikoak eta onura jeneralak hala eskatzen ez badu behintzat. Kasu honetan indemnizapen zuzen baten kondizioa beharrezkoa da, zirkunstantziek hala permititzen dutenean”, O’L. XVI-140.

Askatzaileak ez zuen lurren banaketa bakarrik bilatzen, nahiz eta hau izan nekazal justikia deritzagun bere programaren muin ukigarria. Bazen besterik ere: zenbait neurri hartu zituen denak zuzendurik bai iraultz ahalegin aldaezinera, bai aurreramendu ekonomiko eta sozialaren lehia etengabera. Hauen artean daude: fruituen garraio eta salerosirako barne eskubideen kenketa, nekazal laguntzarako kredituak, abelgorriak eta zaldiak esportatzeko debekua, merkatal banku baten ezarpena, hain erakunde garrantzitsua izaniko kontsulegoaren birjasokuntza oinarri berrien gainean (1817-ko hazilaren 7-ko dekretua) eta inmigranteei lurrak emateko erabakia (Colombiako legez, helburu honetarako milioi bat anega eremu-lur destinatatu zen).

Bolibarrek ez zion nekazal justiziari, hau da, iraultza ekonomi-koari, bere herrian bakarrik oratu; asmo sendo berbera eraman zuen ordenu berri aren eraikuntz lanean joan zen toki guztietara. Ez zen beraz, Guayana bakarrik, ez ziren venezuelarrak bakarrik salbamen materialaren atea hain oparoki eta sendoki zabaltzen ikusi zituztenak.

Estatu Kontseiluaren aurrean eta Angosturako Kongresuaren aurrean ekin ondoren, Bolibarrek arretarik handienez jarraitzen du iraultz bide honen abiada eta ahal duen guztia egingo du hura efektibotzeko. 1820-ko maiatzaren 20-n, Angosturako kongresuari egin zion erreguaren zortea zertan zen jakin gabe oraindik, beste pausu bat ematen du iraultzaren sakonketan. Cundinamarca indioen lurrei egiten zaizkien gehiegikeriak zuzentzea luzaezintzat jorik, dekretu bat diktatzen du bertakoen alde eta haien jabeago eta askatasunari buruz bertan biribilki manatzen duelarik: “bertakoei, legezko jabe gisa, lur guztiak bihurtzeko beren gordekinetako tituluen arabera, dena delakoa dela oraingo jabeek lur haik edukitzeko alegatzen dutena. Gordekin hoietan datozen fundazioak, ematea dagokion edo zegokion aginpidearen onespenez eduki ezik, efektorik ez baliorik gabe geratuko dira aspaldietatik hala baleude ere. Gordekinak usurpatu zaienari bildurik, epaikari politikoak familia bakoitzari bakoitzak erosoki landu ahal duen hedadurako lur zati bana emango diote, familian zenbat lagun diren eta gordekinen hedadura osoa kontuan edukirik”. Prebisio ohigabe eta egintza juridiko honen mamiaren egitasunaren adierazgarri gisa, Bolibarrek hau ere erabakitzen du bertan: “Dekretu hau ohi bezala publikatu ez ezik, epaikari politikoek jendeei honen mamiaren berri azalduko diete, beren eskubideak agertzera, epaikarien beren kontra bada ere, eta edozein legehauspen erreklamatzera bultzatuz”, DL. 1-194, 197. Gainerako lurak errentan emango dira, eta errenta hori indioak eskolatzeko programa baterako izango da, testu juridiko berean —nahikoa xeheki— azalduko programa noski.

Rosario de Cucutan, lehen emaniko dekretua baino egun batzu geroago, Angosturako Kongresuak Nazioko Ondasunen Banaketarako berak aurkezturiko proiektua urtarrilaren 6-n, aldakuntza itxuraz azal baina funtsezkoekin onetsi zuela jakin zuen Bolibarrek.

Honela idazten dio Santanderri: “Zerbait erreforma egin omen dute legean, legea bera ez dut ikusi baina. Nazioko ondasunen txartelak militarrei emateko agintzen da, errematean eskaintzailerik onenak eros ditzan”, 1-444. Aldakuntza honen ondorio izugarriak somaturik, Askatzaileak behar den zuzenketa berehalaxe egin erazi nahi du.

PAEZI MANDATUA

Bolibar alferrik saiatzen da, Pedro Gual bere ministroaren bidez, iraultza ekonomikoa desnatura ez dadin. Nola edo hala lurren entregua atzerapenik gabe egin dadila bilatuz, arau eskas haien barruan bada ere, Jose Antonio Paezi karta zuria ematen dio, 1821-ko urtarrilean, honek Venezuelan nekazal justizia egin dezan. “Nazioko Ondasunen Banaketari buruzko kongresu jeneralaren Legez bakoitzari bere edukiak adjudikatzeko Errepublikako Presidenteari dagokion eskubide guztia” ematen diola, Bolibarrek gomendio xume eta efikazez orientatzen du: hark arduratu behar du “Legeak eskaturiko formulak laburtzeko eta sinpletzeko eta jabegoak gabe balioak izendatzeko jartzen duen oztopoa salbatzeko”. Hark behar du, banaketa ordua heltzean, “ardura eta kontu izan hartzaileek beren edukiak ez alferrik galtzeko beren eta beren familien kaltez eta Legearen asmoaren arbuioz” (12).

1821-ko otsailaren 12-n, Bolibar maiatzeko bere aurreko dekretua berrestera beharturik aurkitzen da indioen alde. Bertakoen tzako eskolei buruzko erabakiak atxakia ederra izan dira burla osorako. Askatzaileak oraingoan Tunjako Gobernadore Komandante Jeneralari agintzen dio berak, pertsonalki, banaketa egin dezan eta beharreko kunplimenduaz ardura dadin. Bolibarrek ekiten dio “Indioei bihurtzeko dagozkien gordekin guztien gozamina, nor-nahi dela dauzkan edukitzailea. Gordekinetako guzti guztia banatzeko indioei landu ahal duten lur guztia eduki dezaten eta honela bizi diren egoera miserabletik irten ahal dezaten. Banaketan sartzeko, eta bereziki egiteko, gordekinetako lurrik aberatsen eta eman-

(12) *Materiales para el estudio de la cuestión agraria en Venezuela*, 283 garren o. Aurrerantzean honela aipatuko dugu: M. o.

korren eta lan errazena, beren lurren abantail haurk indioek eduki ditzaten eta ez beste edukitzaileek” M. 254.

Ondoren, elkarren atzeko ahaleginen zerrenda organiko honetan, Askatzaileak Pasto-n, 1823-ko urtarrilaren 13-n, nazioko ondasunen banaketa dekretatzen du Hegoaldeko lurralde hartako askatzaileen artean. Horretarako Batzorde bat sortzen du, data bereko beste dekretu batek konfiskaturiko ondasunak banatu beharoko dituen. DC. I-275.

HEGOALDEKO HERRIENTZAT JUSTIZIA

Perura heltzean, berehalaxe ekiten dio bere iraultz egintzari. Hango egoera ez da funtsez Colombiako desberdina —bertako komunitatearen ezaugarri argia eta adierazkorra—; eta arazo berdinei aurrea emateko, autore berdinekin edo antzekoekin eta kausa antzekoekin, Bolibarren neurriak ere lehenago harturikoen antzekoak dira. 1824-ko apirilak 8-n Trujillon dekretatzen du: “Komunitatearenak deritzaten lurrak ordenantzen arabera banatuko dira beste inolako lurrik ez daukaten indioen artean, haien jabe geraturik. Banaketa hau hartzaile bakoitzaren estatuari begiraturik egingo da, ezkonduari ezkongabeari baino gehiago emanez beti”. Helburu nagusia eta zintzoa han estanpaturik geratzen da: “indio-rik bat ez dadila dagokion lurrik gabe gera” M. 379.

Hurrengo urteko uztailaren 4-n, Cuzco-n orain, sinetsirik Bolibar “aspaldiko legeetako agindu eta guzti ere lurren banaketa ez dela inoiz beharreko proportzioan egin; bertakorik gehienek ez dutela lurren gozamenik ez jabetasunik eduki; indioak deritzate-nei eman beharreko lur hoietarik zati handi bat zenbait atxakiaz jauntxoek eta zerga biltzaileek usurpaturik daukatela”, Trujillon emaniko aurreragoko dekretua berriro gogarazten du, eta Perun egin behar den iraultza berresten. Cuzcoko dekretu honek zenbait prebisio ditu, den denak indioen aldeko iraultz erabakien jakineko burla ebitatzeko. “Edozein sexu edo adinetako bertako bakoitzak, topo bana lur hartuko du leku aberats eta ureztatueta. Ureztapen gabeko leku lehorretan bina topo” B eta A. X-32. Indemnizazio bat jartzen zen kolonialdian beren propietateak kendu zitzaizkienentzat. Presio sikologikoz edo izpiritualaz bertako ondasunetaz jabetu nahi duten erakunde erlijioso edo erdierlijiosoenganako

traspasoa ebitatzeko, zera agintzen da, alegia, indioentzat jabego orokorra “50 garren urterarte inork ezin kendu ahal izateko mugapenez uler dadila, eta inoiz ere ez esku hiletan nulotasunaren azpian” B. eta A. id.

Askatzailea nekazal justizian zer zintzoki arduraturik zebilen beste froga bat, ondoren aurkitzen dugu, oraingoan bere Boliviako egonaldian. Han —1825-ko abenduaren 14-n— hartzen duen erabakia ere aurreko Perukoaren antzekoa da. Asmoa berbera da: ordenu berria justizia materialezko oinarri gainean eraikitzea; beraz, Estatuari dagozkion lurrak banatzeko agintzen du, batez ere “bertakoen artean eta independentziaren alde ausardiarik gehien erakutsi duten edo printzipio honegatik kalterik gehien etorri zaie-nen artean”, BOL. I-442. Perun bezala, Bolivian ere banaketa uni-bertsala agintzen du: “Edozein sexu nahiz adinetako lagun bakoitzak anega bana lur hartuko du leku aberats eta ureztatueta eta ureztapen gabeko leku lehorretan bina hartuko ditu”, BOL. id. Adjudikapenaren ondoren urtebeteko epea ematen da interesatuak lantzen has daitezen; hala egin ez balezate, “lur hoiien edukipena eta jabegoa kendu egingo zaie eta behar bezala landuko dituzten beste batzuri adjudikatuko zaizkie”. Berdintasunaren eta inpartzialtasunaren asmo tematiz eta banaketarik efizienteena bilatuz, bolibarrak agintzen du banaketa hori “pertsona zintzoek eta argiek” egin dezatela, BOL. I-443.

VENEZUELAKO ATZERAPENA

Bolibarrak bere jaiot herria azkenengoz bisitatu zuenean, desilusio handia hartu zuen ikustean nola Colombiako ausentzia luze samarrak bere idealen eta bere iraultz erabaki argi eta kategori-koen frustraziorik biribilena ekarri zuen. Pausu bakoitzean aurkitzen zuen benetan ere itxasoan goldaketan ari izan zela. Ezinezkoa zitzaion gizon bakar bati —berak bere burua hainbeste bider definituko zuen bezala— bertako bizilagunak ere —berak esten zuen bezala— beren esistenziaren etsaiak ziren ordenu arkaiko bat transformatzea. Desatsegin izugarria hartu zuen “haren sorkariek berek ere zatikatzen zuten” kausa baten alde —Brioni esanik hitzen arabera— burrukatzen ari zela ikustean. Ordurako alegiako kondenatu sarri aipatuaren irudi tristea haragitu zuen, pausu bako-

tzean alferreko eta izugarritzko ahaleginaren tristura berhasi behar zuena. Ez zioen gezurrik: “Eskuekin egiten dudana besteen ostikoek desegiten dute” II-113. Caracasen, Revengaren bidez, hamar urte lehenago erabakiriko ondasunen konfiskapenera jo behar du berriro; denboraren goiera honetan, hamar urte alferrik galdu ondoren, Venezuelako Departamentuko Intendente jaunari —1827-ko otsailak 19— zuzenduriko ofizioa melankoliko gertatzen da “Halaber agintzen du Askatzaileak ahal den guztia aktibatzeke eta berehalaxe egiteko bahiturik dauden propietateen konfiskapena; eta jakinik Zure Goientasunak atzerapen honen erru handia eskribauen ardurarik eza dela, ofizioko konfiskapena egiteagatik, erabaki dut bakoitzean ari den eskribauak edo eskribauek arantzelen arabera hartatik zor zaien kontua eraman dezatela eta etxea, etxaldea edo propietatea azkenean adjudikatzen zaionak ordain dezala konfiskapenaren kostu hura” M. 489.

Esan dezagun berriro, Iraultzako gai nagusi honetaz —esklabutza kontrako ardura sistematikoan era batera ikusiko den gaia noski— Bolibarren insistentzia etengabea eta koherentea ahanztirik bakarrik desezagutu daiteke iraultz ekintzen zerrenda progresibo eta etengabe honetan estruktura ekonomikoaren benetako aldakuntza hasteko egiazko gogoia dagoela.

MEATZEN NAZIONALKUNTZA

Meatzei buruz ere Askatzailearen egintzetan jokabide zuzen eta aurreratua nabari da.

1829-ko urriak 24-ko dekretuz Quiton, Bolibarrek meatzen nazionalkuntza ezartzen du; Errepublikak darraikio Espainiari, era solemnez eta expresoz, meatzen jabeko legezkoan. Amerika bezalako kontinente batetan, kasik bera bakarrik lehengaien hornitzaile, meatzeak nazionalitateen oinarriari bete betean loturik zeuden; Estatuak ezin ezaxolaz egon hain garrantzia handiko hauzian. Dekretu honek badiu bere aurreragokoak Askatzaileak Pucara-n eta La Paz-en, 1825-ko abuztua eta irailean, dataturiko beste batzutan, eta hauetan erabakitzen da “meatze galdu eta abandonatu guztiak izatez gobernuarenak direla nazioko zorra ordaintzeko” I-1176. B. eta A. X-59.

Quitoko dekretua oso garrantzitsua da bere garaian, eta areago

hurrengoan, 1784-tik Venezuelan bigente dagoen Espainia Berriko meatzen ordenantzako —1703— prebisio zuhurrak luzatzen baititu. Badirudi Askatzailearen jeinuak usnatu egiten duela Venezuelako lurpeak gordetzen duen aberastasun izugarria hidrokarbutan; izan ere, haren dekretuak berariz deklaritzen du edonolako meatzeak errepublikarenak direla” (13) honela erret sistema —orain Estatu iraultzailearen esku— metalgabeko meatzetara hedatzen zen, hauk lehen eta Indietako legeen azpian, lurjabearenak baitziren. Herri hauetako bizilagunentzat Bolibarrek erabaki zuen bere garaian gure petrolio lekuen eta gainerako hidrokarburo eta erregai mineralen jabetasuna. Berriro ere ikertzailearen zientzi metoduak Askatzailearen hitzak bere bizitzako eta bere obrako kontextuan jartzeko eskatzen du. Bolibarrek ongi daki, eta hala dio Bolivian, “Errepublikaren aberastasun nazionala kasik den dena meatzetan dagoela”, BOL. I-446. Meatzeak nazionaltzea, harentzat, ez da Gobernua jabe agertzea bakarrik, jabetgoa erabiltzea baizik.

GAI EKONOMIKOEI ARRETA

Ekonomiaren inguruko beste gauza batzutan ere Bolibarren presentzia beraren eta zigilu argiaren arrasto handia nabari dira.

Askatzaileak kontzeptu sozialen berrikuntza bat dakar lana goretirik eta behar bezala kinaturik iraultz eta nazio eraikuntzarako beharrezko gisa. Esku lanaren eta ofizio mekanikoen kontrako aurreritzi mendetsuak Bolibarrek bere jokabide zintzoz ezabatzen ditu. Jokabide hau argi ikusten da bere iloba Fernandoren, hau da, berak eduki ez zuen semearen, profesioari buruzko hitzetan. Askatzaileak zioen, bada, mutilak erabaki baleza “arte edo ofizioren bat ikastea poztu egingo nintzateke, zeren medikuak eta abokatuak ugari baititugu, baina mekaniko onak eta nekazariak falta zaizkigu eta hoik dira herriak behar dituenak oparotasunean eta ongizatean aurreratzeko” II-1296. Honela gure Amerikako aurreramendua eragotzi duen tradizio ezin okerrago bat hausten du Bolibarrek. Ezin beste jokabiderik ukan bera ere langile bikaina izaki, etengabeko ahalegina kinatzen eta esportzatzen zuenak, lan positiboa sa-

(13) González Miranda, Rufino: *Estudios acerca del régimen legal del petróleo en Venezuela*, 50 garren o.

ritzen eta ordaintzen, gizon fina eta ekinkorra goستن, haintza handitasunean eta onuragarri izatean, eta era batera nagia eta alferra uxatzen zuenak. Haren buruan: “Lan asko egin beharra dugu herria berritzatzeko eta konsistentzia emateko: beraz, pazientzia eta pazientzia gehiago, iraupena eta iraupen gehiago, lana eta lan gehiago, aberria edukitzeko”, II-64.

Zuzenbideko eta Administrazioko zenbait kapituluk ere haren arrasto iraunkorra daramate.

Zerga arazoa oro har ere, Bolibarrek ikusmen politikoz maieiatzen du beti, eta betetzen duten eginkizun sozialari begiraturik batez ere.

Sarritan Askatzaileak laguntzailerik eza aipatu zuen administrazioan, eta batez ere gai delikatuetan. Badaki ekonomi arloa oso nahasia dela, eta jende kalifikatua behar dela nahi eta ez; horregatik, bere lagun eta laguntzaileen artean, trebeenak bilatzen saiatzen da hauzi honen erantzukizuna emateko. Haren printzipioa dakitenak erabilzea da, ez nahi dutenak: “Herritar bihurtzeko eta ongi gobernatzeko modua gizon zintzoak enplegatzea da, etsaiak badira ere”, I-293. Garai haietan ez zen erraza Espainiako zientziaren barruan hain begiramendu hasimasikoa eta hutsa eduki zuten hauzi hauetan jende aditua aurkitzea. Bolibarrek, Estatuco Buruzagi gisa, “lorgaitzena” haziendako ministro bat dela somatzen du, hau da, “aberriaren bizia bere pentzudan dagoen arlo bat” I-1207 emateko moduko funtzionari prestu eta kompetente bat. Revengari langela horretaz arduratzeko eskatzean, Bolibarrek “Haziendako Idazkaritzaren” garrantzia azpimarratzen du: “Honek izan behar du Estatuco erreformek jiratu behar duten ardatz nagusia” I-1395.

Zer ekonomikoa, Askatzailearentzat, funtsezkoa da bizitza kolektiboko oinarrietariko bat baita. Gai honen kontzientzia argiak tankera organizistako baiezen grafikoetara darama: dirua “gizarteen aire bizigarria da” I-843, “errentak errepublikaren nerbioak dira”, II-273; Estatuaren bizia “ez da elikatzen urrea haren zainetatik ez badabil”, II-1203. Formula merkantilistak eta fisiokratiakoak oroitarazten dituzten esakera hoiekin, batzu jadanik bere garaian gaundituak, beste batzu gaurkotasun bizikoak, bere egiak esaten ditu lauki. Naturalismo ekonomiko modu honek bere jusunaturalismo politikoarekin bat egingo zuen. Hazienda —dio—

“ongiaren eta gaizkiaren iturria da” I-1460, “sinespide publikoaren ama”, II-388.

Anitz froga dago fenomeno ekonomikoek bizitza sozialari zenbat eragiten dioten Askatzailea konturatzen dela ikusteko. Behin Santanderri diotsa: “Gogora zaitetz Frantziako Erreboluzioa sorre-razi zuten arrazoirik nagusienetarikoa hango haziendaren egoera txarra zela” I-1334. Amerikaren autonomiak, haren ustez, arrazoi ekonomiko dudagabe bat du; Espainiaren gainbeherakuntza industrialak ez dio uzten koloniak hornitzen ez gatibatzen. Jamaicako eskutitzean idazten du: “16.000.000 amerikar beren eskubideak defendatzen hasi dira edo espainiar nazioak zapaldurik daude eta han, noizbait munduko inperiorik hedatsuena bazen ere, orain ahulak dira hemisferio berria menderatzeko, baita zaharrea irauteko ere. Eta Europa zibilizatu, merkatari eta askatasun zaleak nola permitizen du suge zahar batek bere amorru pozointsua asetzeko bakarrik, gure munduko zatirik ederrena irenstea? Zer? Gor al dago Europa bere interesaren beraren oihurari? Bai zorakeria gure etsaiarena Amerika konkistatu nahi izatea flota gabe, diru gabe, eta ia soldadu gabe! Bestalde, ba al du nazio honek mundurik erdiko merkatalgo eksklusiboa egiterik, manufakturak gabe, lurralde produkzioak gabe, arteak gabe, zientziak gabe, politika gabe?” I-162.

Bolibarrentzat ihardun ekonomikoaren indizea da errealitate politikoaren termometrorik onena, I-1069, 1071. Hain arlo funtsezko honexen gainean saiatzen da, arlo politikoarekin batera, iraultzako programa oso osorik finkatzen.

AMERIKANISMO GARDENA

Amerika, posesio edo menpetasun gisa, Espainiako inperioko zati bilakatu zenetik, Amerika ez zen ezer nazioarteko mailan. “Unibertsoan ausente geunden”, I-166, zioen Bolibarrek. Kontinentearen nortasun juridikoa, kolonia guztiena bezala, metropoliak irentsirik zegoen. Horixe izen zen hirurehun urtetan zeharreko errealitatea.

XIX garren mendearen hasiera arte, potentzia nagusiek, edo hauen noiz behingo konbinapenek Europan, azkenengoa Aliantza Saindua izanik, beren gogara maneiitzen zuten mundua, Amerikaren esistentziarik haintzat ere hartu gabe eta, jakin, haren destino bereziari kasurik ere egin gabe. Horrela, hemisferio handi honek ez zeukan beragandik harako errepresentaziorik; ez zegoen ezer.

Metropoliak Amerikari buruz irudi bikoitza du eta beraz, ultraixasoko lurrei ematen dien tratamendua ere bikoitza da —sarritan arras kontraesankorra—. Amerika, Espainiarentzat, batasun bat da honi komeni zaizkion gauzetan: menderapena, monopolio esplotatzailea, interbentzionismo merkantilista; Amerika produkzio osagarrien multzo bat da, zer oso bat buru bakar eta ukaezin batek gobernatua. Baina bere posesioen golkoan, Espainiak setatsuki sartu nahi duen ideia irlategi batena da, jurisdikzioen laberinto batena bezalako; kausa hobeari dagokion arduraz, metropoliak lege eta kultur trenkada mordo bat fabrikatzen dihardu sekula bere bururik ikusi behar ez duen batasuna hausteko eta ezkutatzeko. Debe-ku zorrotzek moztu dute Indietako gauzei buruzko idazkien argitarapen eta zirkulapen librea. Koroa Mundu Berri osoaren bahitura erraldoia bezalako bat izateraino heltzen da, harako sarbidea

atzeritar nazionalitateko menpekoei zorrozki debekatzen zaielarik. Amerikarrei berei ere debekatzen zaie probintzia batetik bestera joatea erregeren baimen gabe. Indietako Legeek Amerikako bizilaguni atzeritarrekin negoziatzea galerazten diete dena delako atxakia dela, eta, ez guti ere, herio zigorraren azpian.

Penintsulako bertako pentsakeraren herentzia, non sentibera-tasun eta aurreritzi mosaiko batek osatzen baitzuen espainiar “bata-suna”, Amerikan koloniak berak ere bereizkeriarik porrokatue-nean eratuak izan ziren. Horren laguntzaile indartsuak ziren ger-taera geografikoak: hedadura izugarria, erliebe goibehetsua, oro-grafia harrigarria, inkomunikazioa eta oihan isolatzaileak, dena elkarren desezagutzarako egina. Gainera kolonialdian berezitasun izpiritualik badago, hauxe da bat, alegia, herri batzuren besteen kontrako susmoak eta mesfidantzak, eta hori ezinikusia errefusik latzenetara heltzen ez denean. Arrisku komunak —pirata erasoak, kalamitate jeneralak, eta kataklismoak— sarritan batzaile gisa jo-katzen zuen, baina emergentzia gaingiditutakoan, berriro ere bakoiz-keria burugogorra zetorren. Amerikako herririk gehienetan, eta zihurki Venezuelako batasunean bildu ziren probintzietan, ikuspe-gi baterakoi guztiak desegiten zituen kontzientzia federalista edo isolatzaile gisako bat landu zen.

Etz dago ahazterik Amerikako komunitateak separatzen zituzten distantzien eragozpen fisiko aipatua. Honek pentsakera kontinen-tezale efektiboaren kontra jokatzeko, konbergenteak eta pa-raleloak direla —paradoxa bildur gabe— esan litekeen herri anaien artean. Don Andres Bellok, 1811-n, zirkunstantzia hau egiazko adibideekin argitzen zuen, haietatik hala ere irakatsi on bat ate-ratzen zuelarik: “Estatu Batuak izan dira Caracasentzat Buenos Airestik heldu diren berri guztiak hartzeko bide bakarra, alde horre-tako herriek ere Caracasko berririk jakin ezin duten bezala paper ingelesetatik izan ezik. Baina komunikazio hau zaildu duen oztopo berezko eta politikoen berri dakienari gai harrigarria izango zaio beti nola Amerikako abertzaletasuna Penintsula haundiko bi ertze-tan hedatu den, beren neurriak konbinatzeko astia eta erraztasuna eduki duten Herrien artean ere nekez ikusten den uniformetasu-nez” (14).

(14) Bello, Andrés: *Derecho Internacional*, II t., 91 garren o.

Bolibarrekin, 1825-n, Perutik berretsiko zuen: “Errusiako berri Caracaskoa baino lehenago jakiten dugu; Juninen parteak Ingaltarratik Caracastik baino lehenago heldu zaizkigu; eta batzutan Londresko eta Bogotako paperak data berarekin hartzen ditugu”, I-1070. Platatik Santanderri galdatzen zion: “Sinesten al duzu hemen Europako berriak Bogotakoak baino freskoagoak hartzen ditugula beti?”, I-1245.

VENEZUELAREN IREKITASUNA

Anitz testigantza bat datoz Venezuelako jendearen bereizgarritzat jotzera —bere historiaren hasieratik— gogo zabaltasuna, tolerantzia, ulerkortasuna, ideia altruisten ardura eta harmena; hitz batez, beste kontinente batzuren, hemisferiokoen ere, hestutasunarekin nabarmenki kontrastatzen zuen joera ireki eta liberala.

Venezuelarren gizarte eta politik mailan, buruera kontinentezalearen ernamuina zegoen beti. XIX garren mendean —Simon Bolibarrekin— bere agerpenik biribilenak emango zituen irekitasun moral eta intelektual honen sustraian baliteke venezuelatasunaren lehen gertaera moldatzaileak egotea. Hala, adibidez, populazio hau ondoriotzen duen mestizaia bizia; mestizaia librea, osoa eta sakona, hala nola, 1800-n, bizilagunik erdiak hiru jatorri faktore nagusien gurutzamenduaren ondorio baitira, hauetariko bakoitza eta denak halaber gurutzatuak eta mestizoak izanik. Eta bereizgarri handi gisa, baliteke baita probintzia hoien egoera geografiko pribilegiatuak ere esaniko egoera horretan zerikusia edukitzea, kultur mailan —hala ekonomikoan nola izpirituzkoan eta politikoan— eragin handia izango zuen egoera noski. Izan ere, Caribe gainean egoteak, Holanda, Ingalaterra eta Frantziaren europar posesioen hantzurak, Venezuelari —esan liteke— abantail hiru ematen zion, alegia, Herri Beheak bezalako gizartearen muga izatea, mundu zaharretan gizarterik tolerakorren eta liberalentzat joa bera. Espainiaren Venezuelako presentzia erlatiboki biguna zela bide, ez hain sakona Venezuelako lurren pobretasunagatik eta urre eta zilar gosen metropoliak haietan zuen interes urriagatik, iberiar fanatismoa ez zen hain astuna izan Amerikako zati honetan; Inkisizioa hemen areago izan zen pasadizokoa egiazkoa baino. Kasua ere gertatu zen Venezuela izatea Tierra Firmeko kolonia bakarra espainiar idiosin-

krasiaz beste jende bati errentan eman zitzaiona: hala Welser-tarrak. Antillen hauzotasunak, berak, derrigorreko eta ulertzeko kontrabandoak, nukleo protestante, moderno eta iragazkorrekiko elkartruke sarriak, eragin handia edukiko zuen kolektibitate sorberri hauen izaeran.

Jose Oviedo eta Baños Venezuelako lehen historian —1723-n Madril en argitaratua— honela mintzo da Caracastarrei buruz: “Buru zorrotz eta azkarrekoak dira, jendekinak, adikorrek eta politikoak; gastelaniez ongi dakite, Indietako beste bortuetan lorrin-tzen duten kutsu hoik gabe; gehiengan gogo kementsukoak eta bihotz suharrekoak dira, eta zer politiko guztiari hain emanak non beltzak ere (criolloak izanik) lotsatu egiten baitira irakurtzen eta idazten ez jakiteaz...” 1800-n Humboldt, Venezuela hedatsuki korritu eta hango bizilagunak obserbatu ondoren, harriturik geratzen da Caracasen aurkitu baitu “nazioetako harreman politikoei buruz argitasunik gehien, kolonien eta metropolien egoerari buruz ikuspeirik zabalenak”, berak ezaguturiko Amerikako hainbeste leku-tatik Habanan bakarrik aurkitu zituen bezalakoak (15).

Venezuelarren bokazio politikoa, ikusten denez, aspaldikoa da; ezaugarri ona da hau badela han ardura sozial batere ez berekoirik, badela han denei dagozkien, norberari bakarrik axola ez zaizkion problema eta kontuen interesik. Venezuelako herria —bere agerpenik errepresentagarrienetan— kontinente senez jaio zela esan liteke, izpiritualki hedatzeko gutizia noblez; nobedade funtsezkoak proposatzeko eta bultzatzeko sortu zen; benetan goi idealei zerbitzatzeko bokazioz eta gaitasunez.

AMAERIKATASUNAREN KONTZEPTU ARGIAK

Francisco Miranda —1781-n zehar— Iparreko kolonia ingele-sen independentzia seguratzeko eta erabakitzeko laguntzen ari zenean, lehenengoz efektiboki adierazirik ageri da Venezuelaren ardura Amerikagatik. Ordurako bazeuden harreman aurreiraultzai-leak caracastar gazte eta gailenaren eta haren jaiot probintziako jen-

(15) Oviedo y Baños, José de: *Historia de la Conquista y Población de la Provincia de Venezuela*, 422 garren o. Humboldt, Alejandro de: *Viaje a las regiones equinociales del Nuevo Continente*, II t., 330 garren o.

de ezkonformearen artean, baina hantxe izan zen, Estatu Batuetan —berak kondatzen duen bezala— haren Aberria, Hispaniar Amerika, zabaltzeko ideia bururatu zitzaiona. Bi urte geroago, berriro ere Estatu Batuetan, Miranda demokrazia berriko figurarik hoshpetsuen eta ukondotsuenekin harremantzen da eta denei kartsuki hitz egiten die “espainiar Amerikaren geroko destinoei buruz”. Filadelfian dagoen Frantziako ordezkari diplomatikoari segurtatzen dio: “Gure Amerikako erreinuek ere luzaro gabe ikusiko dute zu lekuko zaren honen antzeko erreboluzio bat”. Neuw Yorken Alexander Hamiltonentzat “Hispanoamerikar kontinente osoaren independentzia eta askatasunaren” proiektua prestatu zuen (1784).

Picornell, Gual eta Españaren konspirazioko muin ideia, 1797-tik 1799-ra bitarteko urteetan, Amerikaren batasuna da. Lider hoiien jomuga batasun hori konkretatzeko ahal zen guztia egitea zen, Espainiak mendeetan zehar horren kontra pizturiko aurretizkiak gaindituz. Matxinadako testu ugarietan esaldirik errepikatuen “amerikar herria” da. Picornellek Guairako presondegian horretaz ematen duen katekesisean, haren solaskide liluratuek ekinaldi bakoitzean sarritan entzuten zuten “Amerikak amerikarrentzat eta amerikarreatatik izan behar zuela”. Esakera ia textual bera izango zen gero, nahiz eta haren asmoa aldrebesturik, James Monroe presidentearen doktrinako lema.

Are argiago oraindik, “Amerikar Herriari bere askatasuna bihurtzea” helburutzat duten Picornellen “ordenantzetan”, arau xeheak daude Iraultzaren lehen faseko jokabiderako: “Hauzoak ahalik ongien harmatuko dira eta koadrilaka zatiturik, bakoitza beren artean hautaturiko kabu batek gidaturik, kale eta enparantz guztietan zehar ohiu hau entzun eraziko dute: “Gora Amerikar Herria”, CFL: 348. Aldarrikapen hoietariko batetan irakurtzen da: “Heldu da ia eguna, Aberriko Gurasoak, Amerikar Herriaren askatasuna iragar daitekeena: “CFL: 365. Manuel Cortes de Campomanesek idatziriko “Amerikar Sonetoak” errepikatzen du: Amerikar Herria / etorri da eguna / tirani alderdia / hiltzen ari zaiguna”, CFL: 375. Propaganda kobletan ere, “Amerikar Kanta” tituluz, oihuztatzen da: “Dardar hi Errege hits / dardar hi Carlos doilor / hire hobenek laster / ziate mila zigor / Amerikar Herriak / ezpata izugarriz / moztuko dik lepoa / despota anker horri” CFL: 381.

Miranda Aitzindariak, ekintza praktikoekin, 1806-n, bere Eu-

ropako ibileren urte luzeetan zehar hain argi hauteman duen batasun kontinentalari ekiten dio. Jacmelen zin egin eta zin eragiten du: “Zintzo eta leial erantzun Hego Amerikako herri libreari, Espainiatik independienteari”. Distantziak hauteman erazi dio zer antzekoak diren hispaniar herriak; urrundik, gure diferentziak ezabatuko balira bezala, zer baterakoia nabarmentzen da. Haren proiektuetan hala egiteko guztia nola hark proposatzen dituen erakundeak, mundu berriaren osotasunari dagozkio beti; Brasilerrako bertarako ere plan zehatzak ditu. Gainera Londresen iraultz bazokia fundatzen du non elkartzen baitire hemisferiko zenbait aldetik datozen gizonak.

IDEIA INTEGRATZAILEAREN PROIEKZIO OFIZIALA

Apirilak 19-tik astebete gerora bakarrik, ideia amerikazalea Venezuelako gaurkotasunera itzultzen da. Caracasko Goren Baztordeak Amerikako hiriburuetakoko kabildo guztiengana jotzen du arazo komunean elkartzera gonbidatuz. Dei horretan, Caracasek konbokatzen du “espainiar amerikar konfederazioko obra handira. Bakarra da gure kausa —dio mezuak—, bakarra izan behar du gure seinaleak; leialtasuna gure monarkia dohakabeari; gerra haren tirano zapaltzaileari; anaitasuna eta iraupena” (16). Leialtasun hori atxakia bat dela zerbait buruarinki argitzen du Simon Bolibarrek, espainiar Amerikako lehen misio diplomatikoaren Buru, Caracasko Gobernuaren ordezkari Londresen, nora berez matxinatuta hurbilaren zerbitzari ezkutu gisa heltzen baita.

Bolibarrek bere ideia integratzailea lehenengoz —idazkiz— Ingalaterrara bisita honetan azaltzen du. Morning Chroniclen, 1910ko irailak 5-ko edizioan dio: “Beren moderapenak, metropoliarekin beren harreman baketsuak gordetzeko erakusten duten gogoak, beren diru sakrifizioak, zor zaiela uste duten begirunerik ez eskerronik ez dietela ekarri venezuelarrek etsitzen duten egunean, eta ez dago urrun, orduan independentziaren bandera behin betiko altxatuko dute eta Espainiari gerra deklaratu. Eta ez zaie ahantziko Amerikako herri guztiei konfederazioan biltzera gon-

(16) *Textos oficiales de la Primera República de Venezuela*, I t., 119 garreren o.

bidatzerik ere. Herri hoiek, xede horretarako jadanik gertu, agudo jarraituko dute Caracasen exenplua” (17).

Historia aurrera doa. Venezuelako bide horri ekiten dio garaien distiratsu batekin: bere inizatibaz, 1811-ko maiatzak 28-n, bi nazioetako urtekari diplomatikoetako lehen Ituna izenpetzen da Cundinamarcarekin. Jose Cortes Madariaga Caracasko agente burutsuak horrela Colombiarena, aberri nagusiaren, Mirandak eta Bolibarrek hain maite dutenaren, oinarria botatzen du. Bi errepublika anaien artean kontzertaturiko aliantza hestua Venezuelako Kongresuak berresten du, 1811 garren urte bereko urriak 22-n. Itunak, esanik dugunez, gai politikoaz gainera, klausula garrantzitsu bat darama hezierari eta kulturari buruz.

Urte berean, Venezuelako konstituzioan, hain zuzen hispaniar kontinenteko lehenengo konstituzio librea eta errepresentagarria berau, deihadar bero bat egiten da gure Amerikako herrien arteko ulerpenera; Venezuela egitan irekitzen zaie mundu zabal guzti honetako herkideei.

Aberri Elkarte-ko aretoan, 1811garren urte berean, Simon Bolibarren hitza entzun zen “Hegoamerikako askatasunaren zimentarria bildur gabe” jartzera gonbidatuz, II-993. Bolibar hispano-amerikar nazionalismoaren agenterik eraginkorrena eta etsiena izango da hil arte, nazionalismo arras elkargarria benetako unibertsaltasunaren pentsakerarekin, zeinen altzoan bake eta gizonen elkar ulerpena izango baitira goren balioak. Batasuna du hark ezaugarri, orain eta beti. Ez da betikotasunerako lema hoberik egongo.

BOLIBARREN MOTIBOAK

Bolibarrek zer politikoan Independentziarekin eta zer ekonomikoan nekazal justiziarekin konkretatu duen Iraultza Zuzenbidearen hesparruan kontinente batasuna agertuz eta nabarmenduz ageri zaigu, eta leihaz lan eginez egitezko batasun hori legetasunez jantziriko batasun funtzionala bihur dadin, batasun operakorra Amerikaren beraren onerako batez ere eta gizateria osoaren onerako. Iraultzak bereizgarririk badu, bere mundurako irekitasuna da,

(17) *América y el Libertador*, 7 garren o. Ikus baita EL. IV-63.

edozein klase, kolore eta kondiziotako gizonei egiten dien harrera. Interamerikasunak —berriro diogu— ez du unibertsaltasunik ukatzen, bilatzen baizik, ez du herririk, ez arrazarik, ez kredorik diskriminatzen, denei zintzoki zabalitzen zaie. Amerikako gidari nagusien artean ez zen sekula izan Bolibar baino amerikar gizonaren jite ekumenikoaren interprete hoberik eta leialagorik. Portaera honetan eta hura inspiratzen duen eustazpi ideologikoan, kontsekuentzia osoa dago errealitatearekin eta historiarekin. Ez ahanztz gure etniaren, mundu guztiko errepresentagarrienaren, moldakuntzan kontinente guztiak bildu direla: Asia, Ozeania, Amerika, Europa eta Afrika.

Bere karrera publikoan, Bolibarrek goiz hauteman du amerikar batasunaren egia erreala; bere lehen idazkian eta bere lehen diskurtsoan —ikusia dugu— baieztu bera ageri da. Jatorri, hizkuntz, ohitura eta erlijio komuntasuna elkar ulertzera daraman oinarria da; hain material ageri horren gainean integraren politikoa zimentatu behar da, zeinetarako, gainera, argudio hau baitago: “Kausa, printzipio eta interesen kidetasuna” I-553.

Jamaicako herbaldidiko bakartade sortzaile baina zailean, 1815, Bolibarrek erizpide barez aztertu du kontinenteko errealitate osoa. Ikuspegi bilkoiairen alde ona eta txarra berebiziko maiutasunez pisatzen ditu: “Buruera handiosa benetan Mundu Berri guztiarekin nazio bakar bat egitea, haren zatiak elkarrekin eta osoarekin bil ditzan lotura bakarrarekin. Jatorri bakarra, hizkuntza bakarra, ohiturra bakarrak eta erlijio bakarrak dituenz gero, Gobernu ere bakarra behar luke, egingo diren estatu desberdinek konfederatzeko; baina ez da litekeena, zeren klima urrunek, egoera desberdinek, interes kontrakoek, izaera desantzekoak zatikatzen baitute Amerika” I-172.

Izatez, Amerika bakarra da jatorriz; Aurkikunde garaian bada diferentziarik hango hainbeste kolektibitatearen artean, baina diferentzia hoiengainean Colonen azainak data komun bat dakar guzti haien sarrera adierazteko eskema unibertsalera. Eta konkistako eta koloniako etapak kontinenteki bizi dituzte zerbaite bateratasunez. Jatorri komuntasunaren ezaugarri da independentzi kimuak aldi beretsuan gertatzea eta hasieratik agertzea gure herri guztien arteko solidaritasuna. 1813-n Askatzaileak pozik zioen nola lehenengo ezbeharretatik “ikusitako zen zenbat ardura hartzen duen amerikarrak

amerikarragatik”, II-1034. Bere sinkroniaz eta paralelismoz hain harrigarriro kontinentea, autonomia lortu ondoren, iharrosten duen anarkia bera ere, batasun historikoaren froga haintzat hartzekoa da, eta berrespena da antzeko kausek antzeko gertaeren gainean antzeko ondorioak sorrerazten dituztela berez berez.

BATASUNAREN OINARRIAK

Lehen elementu batzailea hizkuntza da. Amerika Espainiak konkistatzean, gastelania ezarri zitzaion. Hizkuntza, orduan eta beti, domeinu tresna txit bortitza da; Jeneralean hizkuntzarekin transmititzen da kultura eta, jakina, pentsatzeko jitea ere ezartzen da. Gastelako hizkuntza, Bolibarrentzat, amerikartasunaren arrazoi indartsua da. Hura Amerikaz mintzo denean, Hegoakoari dagokio, eta zehazkiago kontinenteko herriei, Mexicotik Argentinaraino, Brasilgo inperioa eta Holandak, Frantziak eta Ingalaterrak okupaturiko ekialdeko zatiak kontatu gabe. Panamako Kongresura deia-
ren esaldi batzutan —honetaz pieza ebazkorra berau— bere Amerikaren kontzeptua zehazten du: gonbita “lehengo espainiar Amerikarrentzat” da soil soilki, “gure Errepublikarentzat”, “lehen espainiar koloniak ziren amerikar errepublikarentzat”, I-1012. Definizio politiko zehatz bat ematekotan, Amerika, harentzat, hegoatarra da. Honek ez du baztertzen, ez dauka zergatik ere, haien sistema politikoek eta hauen interes zirkunstantzialek orotasun hispanoamerikar eeta demokratikotik probisionalki urrun ditzakeen beste amerikar herrienganako adiskidetasun txeratsurik. “Egin dezagun —dio Bolibarrek— Colonen hemisferioko seme alabak maitasunak lokarri unibertsal batekin bil ditzala, eta gorrotoa, mendekua eta gerra alden daitezela gure altzotik eta mugetara eraman merezi dituzten bakarren, hots, tiranoen kontra erabiltzeko” II-1080.

Erlijioa ere, Bolibarren Amerikan beste batasun elementu bat, konkistatzaileak ezarri zuen. Emantzipazio garaian katolikotasunak osoki eta eskusiboki domeinatzen du Iberoamerik guztia. Erljioak, gainera, proiektzio aglutinakorrak ditu moralean, tradizioan eta gizarteko usarioetan, eta ekonomiaraino eta zuzenbideraino hedatzen da.

Bolibarrek ohiturakidetasuna jotzen du kontinente batasunaren

beste oinarri egiazko batzat. Hiru mendetako kolonialdiak dudarik gabe antzeko ohiturak finkatu zituen espainiar jatorriko herri guztietan. Nazio batetik bestera bariante gutiz, Hispanoamerikan portaera sozialak antzeko soinekoak jantzen ditu. Usuario kolektiboek, eta berdin portamoldeek, ez zuten alde handirik; eta konbentzionalismoen arlo zabal guztian zehar kideetasuna oraindik bistakoa da.

Idealen kideetasuna ere garrantzia handikoa da. Honek ere hispanoamerikar izpirituaren integrazio ukazina dakar; Askatzaileak hala seinatzen du. Amerika honek helburu unitaria dauka bete betean; hortik independentzi eta aurreramendu leiha, eta askatasun eta bakearen aldeko sakrifiziozko bokazioa gure herria guztien denominadore komuna izatea.

Bada arrazoi politiko handirik hispanoamerikar batasunari ekiteko. Bolibarrek aldarrikaturiko ligak, bere abantailik direktoenen artean, bakearen eta ongiaren faktore establegarri bat izatea dakar. Rousseau-rengan inspiraturik Askatzaileak lege bat intuitzen du, lehenago fisika politikoko legea deitu duguna. Honela, batasunean pentsatzean, orotasunaren pisua bilatzen du zatien arteko desordenu posiblea irents dezan, I-708. Batasunak osatzaileei seriotasuna eskatzen eta arrotzei errespetoa sartzan die. Espainiar Amerika ente bakartzat ezarriarik eta gizarte-ekonomi arazo lokalak konpondurik, haren zatien barne nahaspila desagertu egingo da ondorioz, boterea indartuko eta buruzagiek ikasiko sokatira kazkar eta konspirazio parrokiak beste zerbait behar dela boterea harrapatzeko. Azpikeria lokalek eta buruzagi tikien arteko burrukek ez dute zentzurik edukiko. Estatuak behar adina indar edukiko du estabiletasuna garantitzatzeko eta anarkia uxatzeko; orduan bakea hurbilago izango da eta era batera ihardun publikoak ere duinagoak.

Batasunerako beste estatu batzuren aitormena ere beharrezkoa da. Bolibarrek etsipena ikusten du, jasan genuen emantzipazio gerran, iparramerikarren eta europarren axolagabetasuna eta, haren ustez, honen esplikazio nagusietariko bat soberanien aniztasuna da. Herri handien begietarako, hispaniar Amerika desordenu multzo bat zen, konflikto pila amorfo bat. Ez zuten ulertzen nazionalitate oso bat zela bere autonomiaren lorkuntzan ari zena; errepublika tikien sorta bat ikusten zuten metropoli indartsu baten kontrako gudu txit desberdinean ziharduena. Honek gure herri bakoitzarentzat zekarrenaz gainera, hainbeste ahalegin —beren desartikulape-

nagatik— alferrik urtzen baitziren, hispanoamerikar kontinenteak ez zuen behar bezalako begiramendurik lortzen, eta ez zitzaien kasurik ere egiten hauen elkartruke politiko eta ekonomikorako nahiei. Lehenengotatik batasunak funtzionatu balu, askakundea askoz gutiago kostako zen bizitzaz, urtez eta ondasunez, eta erraza izango zen lan autonomikoa bizkartzeko laguntza erdiestea. 1819-n, bere pentsakera jakinari ekinik, Bolibarrek dio: “Batasunik eta finkapenik eza, adostasunik eta armoniarik eza, eta batez ere errepublikan sakabanakuntzak zekarren mediorik eza, horra hor, diot berriro, gure hauzoket eta europarrek gure zortean orain arte ukan duten ardurarik bat ere ezaren benetako arrazoia. Hedadura handikoak izanik ere, ez populaziorik ez mediorik ez dute atalek, puskek ez zieziaiketean inolako interesik ez segurantzarik eman haiekin harremanak jarri nahi zituztenei”, I-407.

Bolibarrek gai honetaz ideia argiak eta bereiztuak ukan zituen beti. Colombiaren sortzapena segurki eta zabalki nabari den dokumentuan —1813-n datatua— Venezuela zatikatzearen arriskuak ez ezik, hispanoamerikar batasun handiaren zelula eragilearen fundazioa kinatzearen abantailak azaltzen dizkio Mariñori; bere sortzearen eta venezuelar-granadar itun baten ukiezintasunaren aldeko garai hartako gogoetek gure Amerika guztirako balio dute: “Bi botere aparteko egiten baditugu, bat Ekialdean eta beste bat Mendebalean, bi nazio egiten ditugu, norbere errepresentazioari eusteko eta areago besteen artean figuratzeko gogoagatik, barrengarri agertuko direnak. Venezuelak Nueva Granadarekin baturik ere, nekez osa dezake zor zaion begiramendu itxurosoa besteei inspiratzeko moduko naziorik. Nola bada, erdibituko dugu? Gure segurantzak eta gobernu independentearen izenak bestea agintzen digu, alegira, Nueva Granadarekin nazio gorputz bakarra egitea. Hauxe da orain venezuelarren eta granadarren nahia, eta bi herrialdeei hain arretagarri zaien batasun honen eske, Nueva Granadako seme adoretuak Venezuela askatzera etorri zaizkigu. Dena nazio orhe bakarrean batzen badugu, nahasteen gorakada moztuz batera, gure indarrak gehiago finkatzen ditugu eta herriaren elkar laguntza errazten beren berezko kausa defendatzeko. Banaka, ahulagoak izango gara, etsaien eta neutralen aldetik gutiago errespetatuak. Goi gobernu bakarraren azpiko batasunak indartu egingo gaitu eta denok bikainduko” I-81.

Baina, guzti hori guti balitz, batasunaren aldeko argudio ebazkor guztia interesen komuntasanaren oinarri tazitu eta benetakoa finkatzen da. Bolibarrek aldarrikatzen dituen aliantzak sozio guztientzako abantailetan dautza; Bolibarren Amerikako herriek komenentzia ekonomiko eta izpiritual handiak dauzkate defendatzeko, eta horregatik organismo sendo batean bildu behar dute. Bolibarrek somatu zuen, bai, herri hauen aurreramendu demografikoak hemisferioko populaziorik gehien edukitzera eramango zituela; horregatik kontinenteko gorabeheretan ez zuten isilik egon beharrik ez garrantziarik leundu beharrik edukiko; ez zuten beste lekurik edukiko abangoardiako leku ebazkorra izan ezik. Bolibarraren pentsakera zuzenean, ezein naziok —ez handik ez tikik— ez dauka latinamerikar organizazioarekin batzerik gure estatu bakoitzarekiko eztabaida bilateral anizkoitz baten bidez, Hispanoamerikar helburu berdinek baturik bloketzat harturik baizik beste kontratugilearekin ulerpen bilateralerako prest dagoen blokea. Washingtonek bere herri itzelari utziriko testamentuan irakatsi hau dator potentzia, hospe eta ondasun emaleekiko fabore komenioak errefusatzeari buruz: “Noiznahi kontuan edukitzekoa da nazio baten zatitza zorakeria dela beste batengandik mesede desinteresatuak itxadotea eta nazio batek mesede gisa hartzen duen guztia, lehentxoago edo gerotxoago, bere independentzi zati batekin ordaindu beharko duela... Ez dago errakuntza handiagorik nazio batek beste baten mesedetan duen itxadopena baino”. Bolibarrengan ere irakatsi berauxe dago bere herriak alertatuz.

Hispanoamerikaren batasuna, herririk indartsuenekin tratatu egokiak eta zuzenak egiten hasi aurrekoa, derrigorrezkoa da, zeren “indartsuarekin ituna eginez gero, makalaren obligazioa betikoa baita” I-792. Ikus Askatzaileak Revengari bidaltzeko idatzi zuen komentarioa —1826n— Santanderren iniziatiba bati buruz Ingalaterrarekin, beren gogoko nazioarekin, Panaman sartu beharko zuen hispanoamerikar konfederakundeak egiteko aliantza posible baten gainean; Bolibarrek zirriborroan utzi zuen, eta estabiletasun politikoaren urgentzia pragmatikoak eraginik, une hartan bere eritzia aldatu behar izan zuen. Nolanahi ere, dena objetiboki aztertzen duen begi politiko zoliaten erakutsi berezko bat dago han, eta balio iraunkorrezko ohar batekin bukatzen du: “Oraingoz Britainia Haundiarekiko aliantzak garrantzia handia eta errespeto ede-

rra emango digula uste dut, zeren haren itzalpean hazteko, gizontzeko, eskolatzeko eta indartzeko modua izango baitugu beste nazio baten aurrera herri handi batek behar dituen zibilizazio eta botere mailan azaltzeko. Baina abantail hauk eta guzti ere bada bildurrik egunen batez nazio indartsu hori biltzarreko kontseilu eta erabakien soberanoa izateko: haren abotsa sarkorrena, eta haren gogoa eta interesak konfederakundearen arima izateko, ez baita konfederakundea hari desgustorik ematen ausartuko etsai jarkiezin bat ez leporatzeagatik. Hauxe da, nire ustez, nazio hain indartsu bat beste ahul batzurekin nahasteak duen arriskurik handiena”, I-1267.

Solidaritasun lan honetarako ez da balio gutiago duena jakitea elkarteko edozein partaideri egiten zaion iraina eta kaltea orotasunak kobratuko duela; gure Amerikak horrela zor zaion begiramendua irabaziko luke, eta bere edozein osatzailerengan atakatu nahi lezaketenek zer pentsatu handia lukete.

BOLIBARREN AHALEGINEN ERREZKADA

Simon Bolibarren lan efektiboen historia Amerikar Batasunaren alde 1813-ko martxoan hasten da, neogranadar soldaduak ekarri dituen Kanpaina Miragarrien garaipenen ondoren, bere lan integratzailea Venezuela Cundinamarca hauzoarekin batzarekin hasi nahi duenean. Cartagenan idatzirik du —lehenengoz 1812-ko hazilaren 2-n— Colombia izena eta ikusirik dago zer kategorikoa izan zen Mariñori egin zion planteamendu unitaria 1813-ko abenduaren 16-n. Orain Muñoz Tebar-en ahotik eta distirapen handiz elkarte hori gomendatzen duten arrazoiak azaltzen ditu —1814-ko urtarrilaren 2n—: “Mende lotsagarri hauetan, Espainia baino kontinente jendetsu eta aberatsago bat Madrileko gobernuaren begirada zitalen biktima izan zenean, Madrilek bi mila legoa distantziatik, indar gehiegirik gabe, Amerika menderatu ahal ukan bazuen, Nuevo Mexicotik Magallaneseraino, bere despotismo gogorraren azpian, zergatik ez da Nueva Granada eta Venezuelaren artean bilketa sendo bat egin ahal izango? eta areago, zergatik ez litzateke hegoaldeko Amerika osoa gobernu bakar eta zentral baten azpian batuko? Gure nazioko indarrak kapaz izan behar du Europako gutziak intenta ditzakeen erasoei eusteko; eta Botere erraldoi hau,

beste botere erraldoiari kontra egingo dion botere hau, ez dago eratzerik Hegoaldeko Amerika osoaren bilketaz izan ezik, Nazio gorputz beraren azpian, gobernu zentral bakar batek bere baliakizunak helburu honetara aplikatu dituzan, alegia, kanpoko erasoei eustera, eta bitartean barruan guzti haien elkar laguntza ugarituz, Boterearen eta oparotasunaren tontorrera jasoko gaituzte” (18).

Hark denen errepresentapena hartzen du eta denen alde lan egiten; Espainiak denak batera aitortu behar ditu —“Gure abotsa hegoaldeko Amerikarena da” I-653. Hori da haren diplomazia aintzinako metropoliaren aurrez. San Martini esango dio: “Caraboboko landan nire lehenengo pentsamendua, aberria libre ikustean, zu, Peru eta honen harmada askatzailea izan zineten. Sinetsi behar didazu: Colombiaren ongiaz gero, ez dago ezer zure harmen garai-penak adina arduratzen nauenik, harma hain duinak noski haien itzalpean babesteko esklaburik dagoen nonahi beren estandarteak eramateko”, I-582.

Kontinente guztirako onaren bila, Venezuelatik zerik onena ateratzen da. Nueva Granadari eta Antillei, Bolibarren iraultzari esku zabalki demaioten laguntza ordez, askatasuna, garantiak eta eskerrona bihurtzen zaie. Bolibarren oraingo joanetorrian, lehenago Mirandaren ardura euroyankietan bezala, kontinenteko Aberria obsesio bat da. Manuel Palacio Fajardok eta Pedro Gualek orduko diplomatikorik onenek, eragile berdinek kinaturik jokatzen dute. Palacio Fajardok Amerika osoa eta batua ikusten du, eta Amerika bilduaren alde dihardu. Bere “Bosquejo de la Revoluzion en la America Española” liburu zuria bezalakoan —izengabeki ingelesez, frantsesez eta alemanez argitaratua 1817-tik 1818-ra bitartean— Hispanoamerikako historia konparatuaren azterketa kontzientziaztsu bat egiten du.

Azaina erromantikoen garai hartan, guduak dena irensten duenean, venezuelar idealista mordo batek, beste latinamerikar herikide batzukin, “Floridako Errepublikaren” abentura protagonizatzen dute, Venezuelaren bokazio kontinentala berresten duen gertaera. 1817-ko ekainaren azkenetan Fernandinako portua okupatzen dute, Amelia islan, Iparramerikako penintsula ederreko itxa-

(18) *Gazeta de Caracas*. XXX garren zo. 1814-ko urtarrilak 6.

sertza jotzen dagoena; han Floridako Errepublika proklamatzan dute, zazpi hilabete eskas bizi dena eta bere pabiloia, Venezuelakoa eta gero Colombiakoa bezala, Mirandak 1806-ko martxoaren 12-n, Jacmelen jaso zuen banderan inspiratzen dena. Abertzaleek beren ahaleginen ondorio handiak espero dituzte ipar alderdi hartan non biltzen baitira Mc Gregor Aury eta Codazzi bezalako militarrek, Roscio eta Pedro Gual bezalako zibilekin; azken honek idazten du: “Hemen Hegoamerikaren alde zerbait egiten gaude. Hauxe da denok batzen gaituen helburu bakarra eta eksklusiboa. Floridan Errepublika bat ezartzeak Hegoamerikako benetako lagun guztien arreta eta laguntza eskatzen du” (19).

Honela Bolibarren herikideak iraultzari eta konkretuki Mexicoko eta erdinamerikar eskualde zintzoko abertzaleei laguntzeko zubi buru bat fundatzen ari dira.

Askatzaileak bere indar eta izen guztia Colombia errealtate bihurtzen erabiliko ditu. Zirkunstantziak ez hain latzak direnean, Angosturako Kongresua instalatzen du, eta haren ahaleginez eta proposamenez Errepublika berriko Oinarri Legea diktatzen da azkenez. Bolibarrentzat Colombia “Hego Amerikako askatasunaren garantia da” II-1162, ez guti ere; horregatik halako erantzukizunari dagokion neurrira formatzen saiatzen da eta moralez eta politikaz bere garaiko naziorik aurreratuen bezala estrukturatzen hasten da. Ez dago munduan beste tokirik demokraziaren, justiziaren eta askatasunaren alde gehiago burukatzen denik, guzti hori ageri delarik lurak langilei banatzean, esklabutzaren abolizioan, berdintasun orokorraren defentsan, eta zuzenbidezko errejimen moderno eta herrikoian. Ez dago beste Estaturik morala eta kultura lehen premiazat aldarrikatzen direnik.

Bolibarrek gure Amerikako lehen nazioa eraikitzen du; lehenengo ez kronologiaz —beste batzu agertzen dira lehenago—, ez eta materialki ere —Peru aberatsagoa da, Mexico populatuagoa, Brasil hedatsuagoa—, baizik lehenengo programaz, eta programa nobedadetsua hain zuzen, Amerikako lehen nazio destinoduna. Venezuelari dagokio lehen batasun entseiu hau gidatzea eta bai jakin ere. Venezuela horrek ez du bere nekeengatik ordainik ez dibisarik

(19) Bierck jr., Harold A.: *Vida pública de don Pedro Gual*, 143 garren o.

kobratzen, ez dauka inoren lur muturrik ere hartzeko asmorik. Haren ahaleginean ez dago hegemonia susmorik tikiarik, hura ez doa gobernu sateliteak jartzera ez behar ez den eraginik exertzitzera; bere nortasun historikoa burutzea zaio aski beste gabe, bere sistema betetzea. Venezuelaren asmoa lor litekeen ondorio konkretutik oso gora dago, nahiz eta hau garrantzitsua eta funtsezkoa izan. Venezuelak, bere arketipoaren ereduan, aintza bilatzen du, askatasunari darraio, handitasunera jotzen du, Aberria, lan honetan, kidetzen den jeinu izpiritukoi, erromantiko eta argi horren helburuak berak.

ONARRI JURIDIKOAK

Bere batasun politika gihartzeko, Bolibarrek, Zuzenbidean batez ere fidatzen zenak, doktrina baten eta hari dagozkion mekanismo juridikoen beharra sentitzen zuen; esfera honetan bera ausartu zen oinarriak ezartzen.

Amerikar Zuzenbidea, zeinen buruerarekin Bolibarrek bere gogo iraunkor eta benetan iraultzailea berresten baitu, haren lan sortzailerik onenaren zati bikaina da. Zer sozialeko sail handi bakoitzak bere ukitua hartzen zuen iraultza kontinentalaren eraikuntza sinkronizatuaren ahalegin baterakoan. Haietariko bakoitzean Bolibarrek bere hitz berria esan zuen eta lan berrirako lehen sakada eman. Sistema bat asmatzen du ordurarte ezagutzen ez ziren oinarrietan altxatzen dena eta helburu berdinki entzungabeen bila doana. Halako sistemak ez du aurrekorik, ez atzekorik Europako aliantza famatuen bilkuntzetan; lehenengoz intentatzen da potentzia nagusien begipean indarkeriaz bildurik ez daudenen eta eraso edo inperialismo erazoetarako elkartzen ez diren Estatuaren batasun hestua. Haren amerikar Zuzenbidea gure Amerikak komunitate unibertsalari, gizonaren kultur ondasunei eta honen etorkizun afanei aportatzen dizkien ahaleginak gidatzeko bidea da.

Jokabide benetan berri eta ausartez, European jadanik gainbetera zihoan "oreka" faltsuaren aurrez, irritsen oreka, kontrako gutuzien elkar neutralpenean bakea bilatzen duen orekaren aurrez, Bolibarrek beste bat aldarrikatzen du, unibertsala, pentsamendu baikor eta berriaren garaipenak gartsuki eskatzen duen oreka hori, Bolibarrek Amerikako independentziaren alde lan egiteko eginbe-

har bueltagabea gogoratzean izendatzen du, “munduko orekak hala eskatzen baitu” I-162. Hasieratik hauxe da haren ideia: “Esperientziak irakatsirik ez dugu galdu behar: Europak beti hankaz gora dagoen oreka bat ezartzeko odolez beratuak, eskaintzen digun ikus-kizunak gure politika zuzendu egin behar du oztopo odoltsu hoietatik salbatzeko. Europak gutien egon behar duela dirudien lekuan, gerran eta nahaspiletan, bilatzen duen oreka kontinental horren ostean, beste oreka bat dago; guri axola diguna: Unibertsoaren oreka. Europako nazioen gutiziak esklabutzaaren uztarria darama munduko beste alderdietara; eta munduko zati guzti hauek beren eta Europaren artean oreka bat ezartzen saiatu behar lukete, Europaren nagusitasuna apurtzeko. Nik honi unibertsoaren oreka deitzen diot eta Amerikako politikaren kalkuluetan sartu behar du” (20).

Bistan dago haren orijinaltasun sutua eta ameslaria. Hispano-amerikako batasuna agertzen eta aldarrikatzean eta haren zerbitzura hain bete betean konkretatzean, Bolibarrek nazionalitateen printzipioa formulatzen eta gaurkotzen du, nahikoa geroago Mazzinik desarroilatuko zuena eta kontinente zaharrean nagusituko zena: elkarte politikoez lokarri nazional sorta benetako baten gainean zimentatu behar dute. Askatzailearen ustez, logika birila da; esanik dugu: hispaniar Amerikak “jatorri bakarra hizkuntza bakarra, ohitura bakarrak eta erlijio bakarra dituen bezala, gero, gobernu ere bakarra behar luke, egingo diren estatu desberdinak konfederatzea” I-172. Ez dio axolarik hainbeste oztopo eta zailtasun egotea, hispanoamerikar nazionalitatea egon dago; gerran bizitasunezko erakutsi dudagabeak eman zituen, gure herriek —beren kaudilloen arteko noiz behinkako errietak eta guzti ere— ez zuten inoiz ukatu, sakrifizioz gailurtu baizik “kausa, printzipio eta interesen kide-tasunaren itun inplizitu eta birtuala”, I-532.

Uti possidetis juri printzipioan dago herriaren oinarri territoriala: “Errepublikako gobernuak aintzinako erretordegoen, kapi-taingo jeneralen eta presidentzien arteko mugetan fundatzen dira” I-1045. Deklarazio honek batasunik handienaren ideia jeneral tazitua darama, zeinen bidez Espainiaren Amerikako koloni munduak

(20) *Gazeta de Caracas*, id.

errejimen politiko bakar bat eratu nahi izateko arrazoia baitu. Printzipio honek garrantzia apartekoa dauka, Bolibarrek hain errepikatu zuena eta haren osotasun ideologikoari hain egoki zegokiona. Utí possoetis horrek —Amerikarteko mugei dagokiela lehenengoz 1823-n Pedro Gualek dokumentalki erabilitako esakera hain zuzen— elkar konpromezua lortzen du muga arraziengatik liskarrek ebitatzeko, soberania bakoitzaren hesparrua argi baiezteko eta bata bestearen segurantza garantizatzeko, gainera hemen koloniarik ezartzeko posibilitatea betiko ukaturik. Hispanoamerikar batasuna gizarte dependienteak egotearen kontra dago. Printzipio honek beste gabe egiztutzen du Askatzailearen ikusmen iraultzailea. Utí possidetis horri eustean, Bolibarrek sintesis hertsian bere idearium amerikazalerik zuzenen eta kategorikoenari eusten zion, eta anizgarrenez eta dudagabeki seinalatzen zuen zein zen bidea.

AMERIKAK ERANTZUN EGITEN DU

Bolibarrek kontinenteari dedikaturiko ibilbidea ondo esankorra da. Denera heltzen da Askatzailearen ihardun asperkaitza, dena hautematen eta estaltzena du haren aurreikusmen batzaile eta justizigileak. Haren izenaren hospeak behin baino gehiagotan egiten du jendea haren idealei eta hark hain kementsuki daragion Amerikako kausari atxikitze miraria.

Istmoko hiriburuan panamarrak beren gorporazio guztien bilzarrean batzen dira —1821-ko hazilak 28— eta beren aberriaren askatasuna eta independentzia deklaritzen dute. Ohartzen dira, ordea, hainbat arrisku dagoela nazio tikiaren gainean, eta benetako babesa den Bolibarren haintzaren bitartez, bide zihurra aurkitzen dute: herriaren errepresentapen kalifikatuak —Batzordearen eragile den Panamako kabildoan zentsatuak— duen sentikera interpretatzen eta bete erazten du eta dekretatzen “Istmoko probintzietako lurraldea Colombiako Errepublikar Estatuarena dela, zeinen kongresura haren diputatua behar denean joango baita hura errepresentatzera”, B. eta A. VIII-221. Gertaera honen aurrez, Bolibarrek ezin izan zion bere pozari eutsi eta, oraindik txosten ofizialik hartu gabe, bere ohiko zintzotasunez adierazi zuen: “Ez dakit nola azaldu zer poz eta miresmena sentitzen dudan Panama, Unibertsoko erdigunea, bere buruz berritua eta bere indar propioz li-

brea dela jakitean. Panamako Independentziaren Akta ezein amerikar probintziak historiari eskain dezaiotkeen monumenturik lo-rioseña da” I-626.

Caribek ere hemen gaude, dio. Bolibarrek bere herbestaldi pe-natua, bere iraupena eta bere esperantza eraman zituen Antilletan ere, badu oihartzuna ordenu zaharkitua hausteko eta etorkizunaren sistema eraikitzeko haren azainak. Santo Domingon Jose Nuñez de Caceres lizentziatua —Gerrako Auditorea— Espainiar Haitiko Es-tatu Independenttearen Presidente deklaratzan denean (1821-ko abenduak 1), Gobernuko Akta Konstitutiboan haxe agintzen da: Colombiarekiko aliantza eta federakundea, irla zati horrekin colom-biar batasuneko estatuetatik bat egiteko. Boyerrek ilusio honi zas-tada ederra ematen badio ere, zeren berehalaxe bi irla erdien fu-sioa egiten baitu, hura bere aldetik —1824n—, jadanik Haiti guz-tiko presidente gisa, Colombiara diplomaziaz hurbiltzen saiatu-da.

Bere bizitza publikoko laugarren partea Bolibarrek Hegoalde-ko aberriei dekikatu behar die. Dudarik gabe horixe izan zen ha-ren sakrifiziorik handiena. Egitasun tragiko eta zehatzekoak gertatu ziren haren hitzak: “Sakrifizio hau neure bizitzan egin dudan guz-tia baino handiagoa zait”, I-936. Hura zen “gizon bakarrarentzat” ez zegoen ihespiderik dilema honetan: “Iparrera banoa Hegoa gal-tzen da, eta Hegoan geratzen banaiz Iparra galtzen da”, I-933. Au-sentzia honek beharbada bere obraren zatirik onenaren galera da-karkio: Colombia desbidetu eta gainbehera doa, botereak ihes egi-ten dio, oligarkiak eta kaudillismoak elkar hartzen dute, eta abia-da iraultzaile eta demokratikoari pixkanaka gurpilada atzerakoa ematen diote.

Iraultzaren eta Colombiaren arrisku nagusia Hegoan zegoela uste zuen Bolibarrek, eta horregatik derrigortzat zeukan espainiar erresistentzia haustea Perun, hau baitzen haren bastioi nagusia; honelaxe bakarrik finka zitekeen Independentzia Iparrean. Boli-barren intuizioaren azken parte hau zuzena zen: perutar aristokra-ten eta espainiar hierarken konfabulapenak behin eta berriro oz-topatu zuen lur hoietako herri kausa; Callao zen Koroaren inda-rraren azken domeinu kontinentala.

Simon Bolibar Hegoako kanpainara abiatzen da Venezuelako eta Nueva Granadako tropekin; berarekin darama ofizialik onena,

Ayacuchon haintzarik gorenera deitua. Asmo latza noski; Andee-tako moletzarrak ere askatasunaren kontra konfabulatu direla ematen du, baina ekin abertzaleak eragozpen guztiak gairitzen ditu eta haien nekeek garaipena lortzen dute.

1822-ko maiatzean, Pichinchaca-ko garaipenak Quitoko Audentziako herriei Colombiako ateak irekitzen dizkie. Ardura militar eta diplomatiko delikatu hau Sucreri gomendatzean, Askatzaileak zehazki adierazi du Ecuadortarrei segurtatzeko agintzean “ez dela menpetasuna nahi dutena, zer handi oso bat formatzea baizik, zati berdin berdinez osatua”. Bolibarrek agintzen du negoziatzaile trebea saia dadila “Departamentu haren bilketatik Errepublikari datozkion abantail jeneralak sinets arazten; eta Departamentuari berari datozkion abantail partikularrak haren esistentzia segurta, babes eta defenda dezan Errepublika handi batetako ia izateetik, horregatik haren eskubide eta errepresentapen politikorik iraindu gabe” (21) Quitotarren eta Caracastarren lurren arteko prehispaniar loturak bergaurkotu egiten dira.

Guayaquilgoa kasu apartekoa da. 1820-tik gora Probintzia independentea, nahiz eta ehun eta hogeitaz urte lehenagotik Quitoko Presidentziaren barruan sartua, Guayaquil Peruk eta Colombiak gorteiatuak ziren; Colombiaren aldera erabakitzen du eta Bolibarrek, 1822-ko uztailaren 13-n hirira heltzen denak, bere babespean jartzen du. Han, 26-n, elkar ikusten dute gerrako bi gidari nagusiek: Bolibar eta San Martin.

Era desberdineko interes ziztrinek elkarrikuste honetaz interpretaziorik txoriburuenak irun dituzte. Protagonista bataren edo bestearen kaltez ezagutza historikoen gaurko mailan sostengatzerik ez dagoen kondairak astatu dira. Ikertzaile artez eta jakintsu batetik, Enrique Gandia argentinarra, Amerikako bi kapitain nagusien bilera garrantzitsu honen argitasuna honela laburtzen du: “San Martin ez zen Ozeano Bareko hiri ederrera hura Peruratzeko joan. Beti defendatu zuen, anitz dokumentutan, Guayaquilek bere buruz erabaki behar zuela bere destinoa. Horregatik, Bolibarrek hura Colombiaratu zuela eta Peruratzeko esperantzak galdutakoan, penatxo hartu zuen; baina ez zuen problemarik egin, Guayaquilera

(21) Silva Otero, Arístides: *La Diplomacia Hispanoamericana de la Gran Colombia*, 30 garren o.

eraman zuen motibo nagusiaren aurrean harentzat bigarren mailako hauzia baitzen hori. San Martín Peruko eta Colombiako harmaden batasuna Bolibarrek tratatzera joan zen Guayaquilera Espainiaren kontrako gerra lehenbailehen bukatzeko. San Martínen uzpena ez zen uzpena izan, ez zen Guayaquilgo frakasoaren eta, askoz gutiago, Bolibarren gutziaren ondorio. San Martín oso osoan zegoen, Limako aginpidea hartu zuenetik, urtebetetik gora ez gobernatzera eta Guayaquilera irten baino lau hilabete aurretik, bere uzpenaren edo erretiroaren zehaztasunak eta egingo zuen modua itundurik zeukan García del Río bere Estatu eta Kanpo Harreman Ministroarekin” (22).

Buruzagi bikain haien bihotz zabalean ez zegoen sentimendu handientzat baizik lekurik. Historiaren aurrean Bolibar eta San Martín destinoak mundu bat askatzeko lan erraldoia bizkarreratu zien burkideak dira. “Adiskide deitzen zaitut —diotsa Bolibarrek San Martín hospetsuari— eta izen horixe izango da bizi guztirako geratu behar zaigun bakarra, adiskidetasuna baita harmaz, lanez eta eritziz anaiak direnei dagokien lokarri bakarra”, I-654 Yapeyuko heroiak erantzuten du: “Aberri beraren defendatzaileak, kausa berari emanak eta gogokideak Mundu Berria askatzeko gure sentimenduetan”. “Adiskide maite: azertua eta zoriona lagun izan ditazula beti, hona zure betiko J. San Martinek opa dizuna” (23).

Bolibarri erantzukizunik astunenak bizkarreratzen zaizkio. Beste rioplatatar handi batek harrizko esaldiz idatzi du: “Pichincha aurretik, Bolibar iparrean garaile indartsuena zen; Pichincha ondoren, arbitroa zen, eta hegoari bere laguntz kondizioak diktatzeko moduan zegoen” (24) Bolibar gora eta gora doa bere pena, poz eta oinazeen eskalan zehar. San Martín iragarri bezala erretiratzen da. Uztailen 31-n, Guayaquilek solemneki deklaritzen du bere Colombiaratzea. Honela bost dira Colombiako zutabe nagusiak: Venezuela, Nueva Granada, Panama, Quito eta Guayaquil.

Garai hartan Colombiak lau eginkizun diplomatiko hartzen ditu, denak askatzailearen instrukzioekin eta beren desarroiloan

(22) Gandía, Enrique de: *Bolívar y la Libertad*, 90 eta 91 garren oo.

(23) *Bolívar y su época*, I t., 69, 115 garren oo.

(24) Mitre, Bartolomé: *Historia de San Martín y de la emancipación sudamericana*, III t., 75 garren o.

hark hurbildik jarraituak. Misio hoietariko hiruk garaipen dezentea lortzen dute —Buenos Airesekin intentatuak bakarrik porrot egiten du, nahiz eta ez guztiz—; Joaquin Mosquerak eta Miguel Santa Mariak, Colombiako eskuosodunek, lehenengoak Peru eta Chilekin, eta bigarrenak Mexicorekin, Batasun, Liga eta Konfederakunde Tratatu bana izenpetzen dute, biak bolibarrismo jatorrean inspiratuak; lehenengo biak 1822-n ospatzen dira eta hirugarrena —Mexicoko gertaeren gorabeheraldiengatik— hurrengo urtean.

Ofentsiba diplomatiko honetan Bolibarrek Colombiaren beste nazio ahizpekiko ulerpen bilateralak baino nahikoa gehiago bilatzen zuen. Jadanik hartara zegoen hura integrapen kontinentaleko bere programan, eta misio hauekin lehen pausoa ematen zuen, baina garrantzia handiko pausoa goragoko jomuga hartarantz. Itun guzti hauek eta bakoitzean ideia ardatza eta komuna zen herriak konprometatzea hispaniar Amerikako beste herriei “beren bitartekotasun onak” egiteko, denen betirako batasun, liga eta konfederakunde itunera heltzeko.

Peru bereziki harreratsua izan zitzaion Bolibarri; nazio garrantzitsu horretako botere osoak Caracastarrari eskuratu zizkioten, ohorerik handienak eskainirik. Peruko Kongresu Konstituentek, 1825-ko otsailak 12-ko legez, Simon Bolibar bere Askatzailetzat aitortzen du eta zenbait sari akordiatzen dizkio.

DIPLOMAZIA ZUZENBIDEAN OINARRITUA

Bolibarren diplomazi lanaren zeinua argia dela esan beharra dago. Askatzaileak diplomazia zuzenbidean gehiago oinarritu nahi zuen politikan baino. Hori ageri da hark Amerikari eta gizateriari uzten dion doktrina herentzian, bake eta justiziazko herrialde eta mundu sistema bat egiteko.

Bolibarren nazioarteko Zuzenbide Publikoa duintasun, errespeto eta bakearen gainean zimendatzen da. Lehenengo Estatuaren nortasunaren gorespina da. Nazio arteko konpromezuak ohoratu, emaniko hitza bete. Hortik haren debozioa nazioko zorrari, eta haren gomendio solemnea legegileei: “Nazioko zorra Venezuelako fedearen, ohorearen eta eskerronaren gordailua da. Errespetu eza zue Kuxa Saindu bezala, ez hainbeste gure ongileen eskubideak

baizik gure leialtasunaren haintza gordetzen duena. Lehenago hil Aberria eta honen seme-alaben bizia salbatu duen hitza jan baino” II-1154. Ez da garai hartan amerikar politikorik horretaz hain ekin etengaberik ikusten zaionik. Nazioarteko izen ona eta sinespidea herri baten ondasunik handiena dira. Horregatik, osasun soka bat bezalako zerbait sugeritzen du bere konpromezuak hausten dituen mundu komunitateko edozein partaideren kontra. Nazioarteko harremanek ez dezakete oinarri zihurragorik eduki nahi kolektiboari norberez makurtzea eta ihardun librearen automugaketa baino gai itundua denean. Fede onaren oinarririk ez bada, elkartea hankaz gora doa; horregatik krimen astuna da tratatuak burlatzea. “Kapitulapen solemne bat hausten duen nazioa proscribu unibertsalean erortzen da. Harekiko komunikazio guztiak, harreman guztiak moztu egin behar dira: Unibertsoko lokarri politikoak hausten konspiratzen du, eta Unibertsoak ere hura hausten konspiratu behar du” II-1021.

Nazio autonomien elkar aitormena ere Bolibarren doktrinaren muina da. Horregatik harentzat metodoa herrien elkarren arteko onaren bidez batasuna lortzea da eta ez derrigorrezko ezarkeriaz. Mirandak bere proiektuetan amerikar kolektibitateen erabakiari garrantzia guti ematen dio, ustez erabaki hori batasunaren aldekoa izango zelakoan haren abantailak argi baino argiago baitaude.

Bolibarrek, hospe kontinental efektibodun militar garaileak, Amerikako zati handi batetan berak nahi bezalako batasuna ezartzeko modua zeukan, baina haren bokazio demokratikoak eta nazioen errespetatzaileak eta iraultzaren dinamikak berak beste bide bat markatzen diote: herriaren eritzia galdatu; Estatu desberdinen konstituzioa itxadon, hauek beren ordezkariak izenda ditzaten biltzarre libre batetara non zabalki eta hestura gabe gai hauk astinduko baitira. Estatuekiko errespeto hori zerbait interbentzionismoarekin elkargarri da kontinente batasunaren edo honen printzipio ardatzen defentsako kasu nagusietan. Bolibarren buruan bada behintasu eskala bat esistentziak berak, justiziak, askatasunak eta demokraziak tokirik gorena dutena. “Esistentzia da lehen ondasuna, eta bigarrena, esistikera” II-1120. Hain helburu handi hoienerako zilegi da garrantzia gutiagoko edozein konpromezuren derogapen denborala, derrigorrezkoa denean, halako une batetan asmo argiro okerre zer handiagoaren kaltez erabiltzekoa bada. “Nik

uste dut —ziotzan Santanderri— segurantza politikoari dagokion zer guztian guk Aliantza Saindua imitatu behar genukeela. Ez du beste alderik egon behar justiziazko printzipioena baizik. Europan tiraniagatik egiten da dena, hemen askatasunagatik. Burru-kari eusteko behar den eta kapaz den goierara igoteko, ez daukagu neurri berdinak hartzea besterik” I-1048. Une berean dio: “Etsaiak ez dauka mugarik eta ez da atzerria etsaiak okupatzen duena”, I-1051. Hori da haren 1825-ko araua. Lehenago, Hegoako kanpaina hastean, esan zion Santanderri berari: “Zuk sarritan esaten didazu lehenengo geure etxea zaindu behar dugula eta gero inorena; honek ez du erantzunik merezi, etsaia ez baita inoren etxea, geurea baizik” I-689.

Eztabaidak erabakitze bide bezala gerra gaitzestea, horra Bolibarren nazioarteko Zuzenbidearen beste printzipio handi bat. Askatzailearen ideariuna benetan bakezalea da; honela kontinentearen inperatiboa biltzen du, zeinen eginkizunik handienak etxe barrukoak baitira: bere natura fisikoaren jabe-keta, bere aurreramendu ekonomikoa, bere hobekuntza soziala, morala eta intelektuala. Bolibar ekinkorra da gerra, gerra gisa ukatzen; helburu handiak lortzeko bidetzat bakarrik onartzen eta egiten du. Betiko neutraltasunaren eta obligaziozko arbitraiaren proklamazioak bakea du herrien bizitzako baliakizun nagusia. Paradoxazkoa badirudi ere, bere armoni nahia taxutzean, Bolibar harmada dela pentsatzeraino heldetzen da —heldutasunezko praktikaz eta ariketaz— bakearen lehen faktorea. “Beti da handi, beti da jator, beti da zuzen tiraniaren kontra, usurpazioaren kontra eta gerra hondagarri eta zitalaren kontra, konspiratzea”, I-492. Bere lagun militarrei 1823-n ziotsen: “Munduko harmada guztiak erregeengatik, gizon ahaltsuengatik harmatu dira: harma zaitezte zuek, lehenengoak zaretenok, legeengatik, printzipioengatik, ahulengatik, zuzenengatik. Harma itzazue beti zuen fusiletan, baioneten ondoan, askatasunaren legeak, eta garaiezinak izango zarete” II-1193.

Bolibarrek aitzinatzen zuten integrapenak hispanoamerikarren hiritargo komuna lortu behar zuten, kultur funts beraren gainean, printzipio politikoaren, demokratikoaren gainean eta antiesklabutza porrokatuaren gainean kide-tzen diren errepublikaren homogenotasunari, politiko eta sozialari, dagokiona.

Historiak nahikoa dokumentatu du Bolibarren harremana komunitate desberdinekin. Erdiamerikan, Cunako eta Puerto Ricoko irletan, hegoako nazioetan, edonon, Askatzailearen hosperearen oihartzunak toki bakoitzean oroitzapen sakon baten oroitarria utzi du.

Costa Rican Colombiari miresmena eta begikotasuna zaio. Rafael Francisco Osejo pentsalari eta pedagogo bikaina —Nicaragua, Cartagon bizi dena— Bolibarren errepublikanismoaren txapeldun da han. 1823-n Costaricaren Colombiarekiko batasuna sugeritzen du, Mexicoko inperioan sartu beharra ebitatzeko bide bezala.

Cuban, garai hartan, Askatzailearen epopeiak konspirazio mugimendu bat sorrerazten du, “Bolibarren Eguzkiak eta Tximistak” izenez ezagutzen dena hain zuzen. Berehalako modu praktikorik ezagatik eta neurri handi batez Iparramerikaren eta Europaren Caribeko inplikazioengatik, Bolibarrek irla handietako askatasunaren alde asmatu duen ekintza bortitza atzeratu egin behar du. Han ere gure jatorriko komunitateak kontinentean bezalako askatasunaren bila ari dira. Cubatarrei eta Puerto Ricotarrei dagokiela, Bolibarrek Jamaicako Eskutitzean galdatzen zuen: “Ez al dira amerikarrak irlatar hauk? Ez al daude irainduak? Ez al dute beren ongizatea nahi? I-162. Ideia hau ez da Askatzailearen burutik desgertzen. Liman “Eguzkiak eta Tximistak” hartako iheslariak datozkio —Jose Agustin Arango cubatarra, Antonio Valero puertoricotarra—. Erretordezko hiri ederritik Bolibarrek —1826n— Panamako bere agenteei, Gual eta Briceño Mendez-i, bere proiektua gogarazten die Guatemalarekin eta Mexicorekin batera egiteko: “Plan hau hauxe izango da: 1) Espainiarrek edo gure etsaiek atakutzen diguten edozein kostalde defendatu; 2) Expedizioak bidali Habana eta Puerto Ricoren kontra. 3) Espainiara indar handiagoe-kin joan Puerto Rico eta Cuba hartutakoan, ordurako espainiarrek bakerik nahi ez balezate”, I-1421 (25).

(25) Caracasen, urtebete geroago, Bolibarren ardura hispanoamerikar irlen zortea da. 1827-ko urtarrilak 27-n, haren Estatu Idazkari eta Jeneralak —Jose Rafael Revengak— Guerra Idazkariari adierazten dio: «Mementu hauk Cuba eta Puerto Rico emantzipatzeko probetxatu behar ditugula uste du Askatzaileak. Honela hemisferio osotik espainiar boterearen azken erlikiak uxatu ez ezik, geure

Sucre trebearen agindupean, Bolibarren gizonek Hegoako garbitasuna burutzen dute. Peruk, Ayacuchoko ekintzaz askatuak, bere lekua dauka herri independenteen kontzertuan; hango gizarte eta ekonomi egituren gainean, Venezuelaren presentziak eragin aberatsa du, gaur ere nabaria. Ayacuchoko mariskal suhar eta burutsuak, argitasun politiko zorrotzeko ekintza batean, Boliviaren sorrera kinatzen eta lortzen du, Hegoa Colombia izango zena. Han ere —esanik dugun bezala— lurren banaketa zuzena egiten saiatuko dira, esklabutza eta morrontzaren abolipena, hezieran erreformak, zuzenbidearen eta birtutearen inperioa.

Bolibarren gailur garaian, Boliviako goilautadaraino, Río de la Platako eskuosodunak igoten dira, Carlos de Alvear jenerala eta Miguel Díaz Velez doktorea eta hauek Askatzailea Argentinara pasatzera gonbidatzen dute, denek batera Pedro I-ren inperioa zartzatzeko. Akordio honekin Uruguay aterako da irabazle (26). Portutar diplomatikoek Bolibarri “Amerikako Protektoratua”, I-1189 eskaintzen diote, hau da, kontinenteko askatasuna jagoteko haintza neurrigabea. Ez zuen hark inoiz halako balakurik hartu. San Martinen Bolibarrek hospe handia du. Rivadaviak Bolibarren programa konfederakorrak errezelua baditu ere eta horregatik

tropak ekintzan jarriko ditugu, hauen disziplina gordeko dugu eta gure esistentziari eta haintza nazionalari finkotasun handiagoa emango diogu» O'L. XXV-50. Programa oraingoa konkretua zen eta, antza, britainiarren ezetzagatik bakarrik utzi zuten; Revengak lan hartan gure Amerikako aberri desberdinak tartetzeko estrategia zehaztu zuen —zen bezala eta izan behar zuen bezala: herri hauen helburu komun bat— «Intenturako behar da: 1) La Guairara bidali nire bidez eta martxan zehar zuk eskaturiko tropa, utzi, harmamendu eta diruzko laguntza guztiak; 2) Hauei mila gizon eta Cartagenan intentu hau dela eta dau den beste utzi guztiak gehitu; et 3) Mexicoko gobernuari ekin Cubako irla berehalaxe mehatxa eta eraso dezan. Honela Magdalenako Departamentuan geratuko den ahultasuna Istmoan zehar diren edo Perutik etor eraz daitezkeen tropekin erremedia daiteke; eta Mexicoko gobernuak Cuba aktiboki eta efikazki atakaturik, eta zuk Puerto Ricoren gainean badiharduzu hartzen dituzun eta Departamendu honetatik eta Matumogotik atera ahal dituzun indarrekin, Irla honi bestearen laguntza moztuko zaio eta biak gutiago kostata emantzipatzea lortuko da, zeren Puerto Rico askatutakoan, hantxe egingo baita Cubarako behar den expedizio handia», O'L. XXV-51.

(26) Bolibarren pentsamendua —1828-ko apirilean— ez eskurik sartzea zen «Argentinaren eta enperadoreen artean, azkenengo hau Ekialdeko zatia bere gobernu propioa egiteko askatasuna emateko ideia zuzenera ekar genezakeen kasuan izan ezik» II-301.

Mosqueran misioa zati bat frustratzen badu ere honekin izenpeturik ez Colombiak proposatzen duen Trataturia —Peru eta Chilerekin eginikoen antzera—, berak pertsonalki (1823-ko maiatzean) aurkezturiko “Adiskidantza eta Aliantza” delakoa baizik, hala ere Bolibarren aldekoak dira hango aurrelaririk kalifikatuena: Pueyrredón, Necochea, Monteagudo, Alvear, Guido, Alvarado, eta denen gainera Manuel Dorrego eta Gregorio Funes deana.

Zapalkuntzaren kontrako burrukarako beti gertu, Askatzaileak Paraguay heroikoa askatzeko burutapena darabil. Hemen Rodriguez Franciaren errejimena herria hertsitu eta tirania nardagarri bat jarri du, zeinek, hala eta guztiz ere, nazionalitate guarani gailena hauz indartsuen irenskortasunetik salbatzen laguntzen baitu.

Orduan praktikan ez dago Amerikan toki bakarrik Bolibarren hoespeak, haren iharduerak edo haren planek ukitu gabekorik. Elkarre sendo bat eginik ikusi nahi duen Erdi Amerika gorespen eta optimismozko iragarpenekin goratzen du. “Bi itxaso handien arteko posizio hau egunen batez unibertsoan enporioa izango da, honen kanaleek munduko distantziak laburtuko dituzte eta Europa, Amerika eta Asiaren merkatalokarriak hestutuko; hain lurralde dohatsura munduko lau zatietako zergak etorriko dira. Beharbada egunen batez hantxe bakarrik jarri ahal izango da lurreko hiriburuak, Constantinok aintzinako hemisferioakoa Bizancio izatea nahi zuen bezala” I-984.

Guatemalak —aberri hori eta Costa Rica, El Salvador, Honduras eta Nicaragua izendatzeko modua orduan— 1824-n maitasun handiko esakerak kendu zizkion. “Badut esperantza denborak landa zabala emango didala nire zerbitzuak Guatemalara hedatzeko neure nahien neurrian” I-984.

Brasilen, Pedro I enperadorearen etsaiak, batez ere Pernambuco abertzaleak, Bolibarren zain daude 1825-n haien errepublika ametsa giharretuko zuen kanpainarako. Harengana doaz herbesterratuak, Recife 1817-ko martxoan herri iraultzako hondakin berrituak. Abreu eta Lima, Brasilgo iparrekialdean errepublika eta independentzia proklamatu zuen mugimendu horretako martiri baten semea —“segunda era de libertade pernambucana”—, lotura historiko itzela da; Colombiako askatasunaren alde suharki burrukatzen da. Hauxeko herri izugarri horretako errejimena monarkikoaren garaipen eta guzti ere, eta Jose Bonifacio da Andrada

e Silva zibilizatzaile eta neurtuak 1822-tik gora gidatzen duen eboluzio burutsu eta guzti ere, brasildar kontentagaitzengan bere “Errepublikaren” ilusioak jarraitzen du eta eredu famatua Colombia da.

KONGRESU ANFIKTIONIKOA

Bolibarrek gure Amerikaren batasunari eginiko zerbitzu zerrenda honetan, goren gailurra Panamako kongresua da. Askatzailak aparteko zehaztasuna jarri zuen —esanik dugun bezala— hark babestu zuen batasunaren garrantzia territorial-politikoari buruz; honetaz, zenbait historiograforen gezurtapenak eta lainotasuna oinarri gabeak dira. 1824-n Liman izenpeturiko eta Colombia, Mexico, Río de la Plata, Chile eta Guatemalako errepubliketako gobernuai zuzenduriko deian, hiru bider berretzen du bere ideia nagusia: “Garaia da amerikar errepublikak, lehen espainiar koloniak, elkarren artean batzen dituzten interesak eta harremanak oinarri funtsezko bat eduki dezaten, gobernu hauen iraupena, ahal bada, betikotuko duena. Ez dago delako aginpide errespetagarri hori egoterik eskuosodunen biltzarrean izan ezik, gure errepublika bakoitzak izendatuak, eta gure harmek espainiaren kontra lorturiko garaipenaren babespean bilduak. Peruko gobernu eta Colombia hitzemanik geratu ziren beren bitartekotasun onak jartzeko lehen espainiarra zen Amerikako gobernuekin, denak itun berean sarturik, konfederatuen biltzarre nagusiaren bilera egin zedin” I-1013. Arrazoi geografikoengatik, Bolibarrek Istmoa hautatzen du, grekoen Korintokoarekin konparaturik; Panama munduaren erdigunetzat jotzen du, Asiatik, Afrikatik eta Europatik ia bide berdinerara, eta poloetatik ere bide berdinerara.

Batasunaren ardatz erakundea, kongresua da. Bolibarrek izendatzen dizkion goren eginkizunen artean, garrantzia juspolitiko aparteko bi nabarmentzen dira: 1) Amerikaren jokabidea kanpoari buruz bateratu, hau da, defentsa komunaren erdigune koordinatzailea izan, eta 2) gure nazioen adiskidepen eta ulerpenaren organua izan. Panamako kongresuak —haren ustez— gure diferentzien arbitroa izan behar zuen, instantziarik kalifikatuena gure itun publikoen eta hauetatik sor daitezkeen nahi desberdinen zentzu zuzena ebazteko. Hitz batez, kongresua izango zen kontinenteko bake eta

armoniaren organu gorena; Panamatik mundu guztira irradiatuko zen gure Amerikako ideal bakezale berezia.

Bolibarrek Panaman nahi zuen Mundu Berriko arazo nagusiak eztabaidatzea naziogaineko legeak formulatzea eta ahalegin guztiek denen presentziaz landuriko idealaren atzetik jotzea. Etorkezunerako, gure Amerikak hantxe hautemango zuen bere batasun funtsezkoa; hantxe burutu behar zen haren 1822-ko nahia: “Amerikako egun handia etortzeko dago. Bota ditugu zapaltzaileak, hautsi ditugu haien lege tiranikoen taulak, eta sortu erakunde legekoak: baina oraindik itun sozialaren oinarria ipintzea falta zaigu, mundu honekin errepubliken nazio bat egingo duena”, I-619. Bolibarren hitz profetikoak eta poetikoak ez dauka azkenik goi hauk jotzean: “Irudimenak ez dezake ikara gabe asma Homeroren Jupiterrek bezala, begirada batez lurra dardaratuko duen erraldoi baten tamainia. Nor jarkiko zaio Amerika bihotzez batuari, lege bakarrari makurtu eta askatasunaren zuziak gidatuari?” I-619. Bolibarrek garaiak saltatu, eta ametsak egiten ditu. “Hemendik ehun mendetara geroak gure zuzenbide publikoaren jatorria bila dezanean eta haren destinoa indartu duten itunak gogora ditzanean, Istmoako protokoloak errespetoz begiratuak ditu. Hantxe aurkituko du lehen aliantzen plana, munduarekiko gure harremanen mar-txa markatuko duena. Zer izango da orduan Korintoko Istmoa Panamakoaren aldean?”, I-1014.

Kongresua iraunkorra izatea nahi zuen hark, aldizkako bote-reekin eta indar organu propioekin —harmada eta flota konfederalekin—. Iraunkortasun bera edukiko zuten organu instituzional gehigarriek ere, denak naziogainekoak eta egonleku jakin eta finkoan ezarriak. Handixe bultzatuko zen gure herrien arteko elkar-ganatze gero eta mamiagoa.

Bolibarrek iraunkorra nahi zuen eta hispanoamerikar huts hutsa izan behar zuen liga horrek, bere sortzailearen ideia-aren arabera, aurreramendu ekonomikorako oinarri oso zihurrak zeramatzan. Komenioetan pentsaturik zegoen sistema barruko herriek elkarri preferentziako merkatal tratua ematea. Honela mamituko zen Andres Belloren ohar zihurra bezain aurreratua, zeinek, 1810-n, Caracasko goren Batzordeari adierazten baitzion: “Nire ustez batez ere axola duena da aintzinako kateak hautsi dituzten herrien arteko konfederakunde mamia, kausa komuna egina, sarritan elkar

ikusi, eta konbentzio apartekorik inoiz ere ez egin” (27) 1811-n humanista bikainak berriro ekin zion “herri guztien artean komunikapenak irekitzeko eta hestutzeko premian komenio apartekoetan ez sartzeko hitzematea, eta politik plan argi bat uniformatzea, horra gure ustez elkartearen aurrengo helburuak. Eskubideak eta interesak berdinak direnez gero, gauza ederra da beti deklarazioak eta jokabide publikoa era batekoak izatea” (28) Chilen, handik denboragarrenera, naziorik faboratuenaren klausulari “Belloren Klausula” deituko zitzaion. Poligrafo handiaren ardura Bolibarren ahalegin txit argiarekin bat zetorren batasun herstu eta oso horri buruz, eta non parteek ezin izango baitzuten sistematik kanpoko herriekin aliantzarik egin, denen alde zuzeneko baietzik gabe.

Munduko historian Panamakoa lehenengo kasua da, eta orain arte zoritxarrez bakarra, nazio autonomo eta demokratiko batzu, presiorik ez hesturarik gabe, deliberatzen jarri direna agenda berezi bati buruz elkarrengatzeari eta elkarren arteko komenentzia jeneralari begira. Colombiak, bilera honen eragileak, ez zeukan asmo hegemonikorik.

AMERIKAR ANAITASUNA

Simon Bolibar, amerikar errepublikarik hospetsueneko Estatu Buruzagi gisa, eta kontinenteko askakunde gerraren gidari famatu gisa, ez zen inoiz botere gose izan, haintza gose baizik, eta haintza oso definitua: “Handia izan eta onuragarri izan”, “ez agindu, birtute handiak erabili baizik”. Bere eguneroko politikan, erromantiko idealista izaki, Zuzenbide Publikoko hiztegi ortodoxotik aparte samarreko hitzak erabiltzen ditu: hala “anaitasunaren” kristau eta giza ideia, eta haren etengabeko errepika Mundu Berriko herri desberdin guztiei eta bakoitzari “anaiak” deituz. Kontinenteko aberrietan Amerikako eta bere garaiko alabak ikusten ditu, gizateriaren altxumeak, anaitasunik zintzoenaren lokarritz batuak.

Errepika anaikor horren zerrenda kronologikoa ondo adierazkorra da. 1812-tik gora, honi buruzko kontzeptuak progresiboki gehitzen dira, irmotasun seguruz. Venezuelako Independentziaren

(27) Bello, Andrés: *Derecho Internacional*, II t., 75 garren o.

(28) Bello, Andrés: *Id.*, 91 garren o.

hasierarako larria izan zen urte horren azkenetan, lehenengoz agertzen da ideia hori, Nueva Granadako Kongresuari eginiko azalpenean: “Caracasek, Colombiar Independentziaren sehaskak, bere salbamena beste Jerusalem batek bezala irabazi behar du, errepublikar zintzozko bederatzi gurutzada bidaliz eta errepublikar hauek ezin besterik izan, Venezuelako biktimek jasaten dituzten oinazeak han hurretik ukituz, anaia gatibuen askatzaileak izateko su bikainez jantziko direnak baizik”, II-998. Egun hoietan beretan —hilaren 2-n hain zuzen— estreinatu du Bolibarrek, idatziz, “Colombia” izena, II-995, orain Cartagenako Manifestuan birresana, non berriro ere “Colombiako askatasunaren arbola” baitio, II-1005, eta neogranadarrei eskatzen, ez izateko “zuen anaien aienei entzungo-gorrek”, I-1006.

Bi urte geroago, ezbeharrak Cundinamarca itzul erazten duenean, deklaratu du hain zuzen Pamplonako aldarrikapen famatuan, non goraki baitio: “Guretzat Aberria Amerika da”-: “Ni ez naiz nazio ahizpa honi neure zerbitzuak eskaintzera natorren soldadu bat baizik”, II-1072. 1818-n Angosturatik, gartsu eta esker-tsu deitzen die granadarrei: “Bil zuen ahaleginak zuen anaiekin: Venezuela nirekin zuek askatzera dator, zuek nirekin aurreko urteetan Venezuela askatu zenuten bezala”, II-1124. Oso errieta gogorrezko nahaspilaren ondoren, 1826-n, amnistiazko eta konkordiazko hitzak zuzentzen dizkie colombiar guztiei berriro sorterriratzean: “Hona hemen berriro nire zerbitzuak, anaia baten zerbitzuak. Nik ez dut jakin nahi izan nork hutsegini duen; ez dut inoiz ahaztu odol anaia eta harma lagunak zaituztedala. Musu komun bat dakarkizuet eta bi beso ene altzoan zuek batzeko: hantxe sartuko dira, ene bihotzaren hondoraino, granadarrak eta venezuelarrak, zuzenak eta zuzengabeak: denak harmada askatzailekoak, denak errepublika handiko hiritarrak”, II-1232.

1820-n, maiatzaren bian, Bolibarrek Chileko gobernura hemen bigentzia duen konstituzioa bidaltzen du “Chileko herriak beren Colombiako anaiek zer sistema duten jakin dezan”, XII-191. Askatzaileak O’Higgins-i estimu handia dio beti; bidezko da beraz adiskidetasunak eta sinpatiak, eta denok anaiatzen gaituen jatorri komunaren kontzientziak 1821-ko abuztuan Chileko buruzagi hospetsuari idatz eraz diezaioten “Colombiako harmadak Chilekoekin biltzeari” buruz eta aldi hartan gaineratzen du “harma anaia hauek

lehenengoz topo egiten duten nonahi, hantxe jaioko da askatasun iturri bat Amerikako bazter guztietarako” I-584.

Izpiritu berbera ageri da Rio de La Platako Probintzia Batuetako Goren Zuzendariari bidaltzen dion ohar esankorrean ere, Bolibarrek 1821-ko otsailak 4-n Tunjan izenpetua: “Nire asmoa ez da besterik Colombiaren aldi honetako jokabidea Zure Goientasun horri garantizatu, Zure Goientasun horren eta hain duinki gidatzen duzun herri heroiko horren kontsiderora ekarririk, gure harremanak hestuturik ikusi nahi ditudan batasun eta adiskidetasun sentimenduen garbitasunaren erakutsiz, ez herri desberdinen artean bezala, elkar sostengatzen, laguntzen eta defendatzen duten bi anaien artean bezala baizik”, I-533. Jose San Martin Askatzaile hospetsuari ere sentimendu bera berresten dio lehen esan bezala: “Harmaz, egitekoz eta eritziz anaiak” I-654. Alvear eta Diez Velez eskuosodueni pozik eta hitz bakoitza zehazki neurturik esan zion: “Argentinako herriak jakin behar du gure bihotza ez dela sekula haren zortetik aldaratuko; herri horri, gurekin batera askatasunaren lasterketa ederra hasi zuen horri, ardurarik biziena eta txerarik bihozkorrena izango diogula beti” II-1213.

Maitasun sakon, berdinki bihozkor eta hunkituz, tratatzen ditu Petion bihotzabalaren herkideak. Askatzaileak ez du Haiti sekula ahanzten; zintzoki diotsa Boyer presidenteari —1818n—: “Gartsuki nahi dut Venezuela libre izatea, haitiar suharrekin harreman sarriagoak jarri ahal izateko eta venezuelarren haienganako anai eta adiskide sentimenduak, eta nireak partikularki, agertu ahal izateko” XII-98.

Antzera mintzatzen zaie ecuadortar kutunei ere. Hegoara abiatzean, Potosira daraman gurutzada askatzailean, Kongresuari bere asmoa azaltzen dio berehalaxe partitzeko “Colombiako ertzera Ecuadorko seme-alaben kateak haustera, Colombiarekin gonbidatzerara, hauk libre egindakoan. Baimena emango didazuelakoan nago naturak eta zeruak anaiatzat eman dizkiguten herriak ongintzaren lokarriz biltzeko”, II-1178. 1821-ko urriaren 3 zen.

Astebete geroago, komentatzen ari garen sentimendu bera berretzen die bere zabaltasun osoan, Mexicotarrei: “Colombia eta Mexiko eskuz esku, eta areago bihotzez bihotz ager daitezela mundura. Zorigaitzean zorteak bildu gintuen, kemenak asmoetan bildu

gaitu, eta naturak izate bera eman zigun anaiak izan gintezan” I-598. Mexicoko nazio handi eta sendo horri, bosturte bat geroago, pozik diotsa Bolibarrek: “Errepublikak aliatua, konfederatua eta Colombiaren ahizpa”, II-1233. 1828-n ideia bera du, XII-354.

Gual kantzilerrak Santa Maria eta Mosquera colombiar diplomatikoei bidaltzen dizkien instrukzioetan, 1821 garren urtearen azkenetan, ideia anaizale bera dator berriro Bolibarren hitzekin be-rekin: Iparreko eta Hegoako haien jestioetan zehar defendatuko zuten konfederakundea “ez da ofentsa defentsarako alianza arruntaren printzipioetan bakarrik eratu behar: Europan azkenaldian herrien askatasunaren kontra eratu dena baino askoz hestua goa izan behar du. Gureak nazio ahizpen gizartea izan behar du, banatuak oraingo eta beren soberaniaren ihardunean giza gertaeren bilakae-ragatik, baina batuak, indartsuak eta boteretsuak atzerri boterearen erasoen kontra” (29).

Peruk ere tratamendu anaikor bera irabazi zuen; Bolibarrek hain maite duen aberri hori, uste du —1825n— “Colombiaren ahizpa bikaina izan daitekeela” I-1051. Unanue Presidenteari zu-zendurik, 1821-n Argentinarako zituen esakerak ia textualki erre-pikatzen ditu: “Gure errepublikak hala lotuko dira non ez baitute nazioak emango, ahizpak baizik, joaniko mendeetan hestutu gai-tuzten lokarri guztiekin baturik, diferentzia izanik orduan tirania bakar baten mende zeudela eta orain askatasun berbera basarka-tuko dugula lege desberdinekin eta gobernu ere desberdinekin; zeren herri bakoitza bere erara libre izango baita, bere kontzien-tziaren nahiaren arabera” I-1239.

Estatu Batuetako hiritarren gain zabaltzen da Askatzailearen anaitasun hesparria; haietaz dio —Jamaicako eskutitzean— “Gure Iparreko anaiak” I-168; esakera bera ageri da 1819-ko ohar ofi-zial batetan, 1-406. Era generiko berdintsuz mintzo da 1822-n kontinenteko beste ertzeko anaietaz: “Gure Hegoako anaiak” I-652-653.

Azkenez, 1830-ko martxoaren 30-n, Brasil handiko ordezkari diplomatikoa Bogotan errezibitzean, Bolibarrek aukera probetxa-tzen du agertzeko Rio de Janeiroko gortearen bidalia Colombiara

(29) Liévano Aguirre, Indalecio: *Bolivarismo y Monroísmo*, 18 garren o.

heltzeak: “gure nazio hauzo eta ahizpen arteko adiskidetasunik egina betiko seguratuko duela”, II-1278.

Amerikar anaitasunarekin elkargarri da solidaritasun unibertsalaren ideia, zeinek politikan lorpen funtsezkoak bildu behar baititu, hala nola munduko bakea eta gizarteriaren elkarlaguntza positiboa, elkarkomunikapena eta elkarrekiko aurrerapena. Berehalako aurreramendu urgenterako eta beste helburu espezifiko eta txit konkretuetarako homogenotasun hurbilagoak asko kontatzen du.

ATEAK ZABALIK

Bolibarren zabaltasun integrazaleak eta anaiorrak esplikatzan du haren inmigrazio politika, gizon guzciei irekia, bereizkeria absurdorik gabe onartuak izan daitezen barrerarik gabeko kontinente honetan. Atzerritarrei egiten dien gonbit arras zabala bere gestio publikoko lehen egintza du eta bere ahalegin administratiboen konstantea da. Kanpaina Miragarria bukatzean Caracasera itzuliz batera, erabakitzen du: “Lehenengo: edozein nazio nahiz profesiotako atzerritarrak berriro gonbidatu probintzia hauetan bizitzera etor daitzen, gobernuaren berehalako babespean, zeinek eskaintzen baitu zabalki eta oparo emango diela babes hori, segurki usterik gure lurraren emankortasunak, bere produkzio desberdin eta ederekek, gure klima onak, eta bakoitzaren segurantza eta jabegoaren eskubide sakratua garantiza dezan errejimen administratibo zuhurrak beren herrian opa litzakeen abantail eta onura guztiak emango dizkietela” II-1027. Ekin beharra dago Bolibarren ideologiaren organikotasun eta koherentziari. Perun —urteak geroago— atzerritarrei merkatalgorako erraztasunak ematen dizkie, agintzen du “haiek perutarren lege babes berdina behar dutela eta karga berdina eraman, zeren esaniko oztopoak errepublikaren antolamendua gidatu duten printzipio liberalekin kontraesanean baitaude eta ez guti naziorik eskolatuenetako praktikarekin” O’L. XXIII-79.

Arraza ez nazio diskriminapenik gabe, Askatzaileak inmigrazioa nahi du gure mortuak populatzeko eta ahaleginik kulturatsueñez eta exenplurik onenez, gure gizarte sorberriak desarroilatzeke. Venezuelak, dio, “gonbidatu ez ezik bere portuetatik sartzen ikusi

nahi ditu gure artean gordelekua bilatzera eta beren trebetasun eta jakintzaz laguntzera datozkigun gizon onuragarri guztiak, munduko zein alde bizia eman dien galdatu gabe” II-1038. Gizonen arteko diferentzia artifizialak ezabatu nahi dituzten haren ideiei erantzunik, Angosturako Konstituzioak atzerritarrei ia naziotarren parekidetasun osoa ematen die; hiritargoa lortzeko haren kondizioak beharbada Amerikako konstituzio historia guztiko zabalena eta liberalena dira. Estatuak pozpozik hartzen ditu atzerritarrak eta garantia guztiak ematen dizkie. Esanik dagoenez, pentsakera hori 1813-tik agertzen da. Orduan, bere administrazioaren egunsentian bertan, agintzen du Venezuelako harmadan dabilen edozein atzerritar herriko hiritar deklaratzeko eta haren zerbitzuak modu egokiz saritzeko, II-1027. Optimismo oinarrituz mintzo zaio Hyslop-i, 1815-n, “europar kontinentalak bere altzoan hartzeko eta Amerikarekin urte gutitan beste Europa bat egiteko Askatasunaren zain dauden gure Amerikako lurraldeekin”, I-134. 1818-n, John D’Eve-reux jeneralari pozik beresten dio inmigrazio zabalezko doktrina guzti hau, kanpaina politiko proselitogilea ere dena: militar hospetsuari gogarazten dio zer begionez ikusten dituen Amerikak “askatasuna esklabutza baino nahiago duten atzerritar birtutetsuak eta zabalak, eta beren herria utzirik gure kontinentera datozenak, zientziak, arteak, trebetasunak, talentuak eta birtuteak ekarririk” I-340. Antzeko hitzekin ekingo die, 1824-n, kontinenteko aurre-ramenduari hain loturik ikusten dituen gai hauei: “Bultzatu egin behar da —zioen— Europako eta Iparramerikako jendeen inmigrazioa, hemen ezar daitezen beren arteak eta zientziak ekarriz. Abantail hauek, gobernu independente batek, eskola dohakoeak eta europarrekin eta angolamerikarrekin ezkontzek herriaren izaera guztia aldatuko lukete eta ikasia eta oparoa egingo” B. eta A. IX-324. Amerikak nahi dituen atzerritarrek bere aurrerapen materialaren egiteak eta faktoreak izan behar dute eta borondate oneko gizonak, zeintzu gabe ez baitago ez gizarte ez politik ordenu iraunkorrik egoterik; horregatik, Iraultzan oinarrituriko berotasunez, etorkizunerako espero du “ordenua ezarririk egongo dela, gobernuak indartsuak, harmaz, eritziz, atzerriko harremanez eta derrigor populazioa gehitu behar duen europar eta asiar inmigrazioz”, I-181. Pedro Gual-i puntu hauk azaltzen dizkio, zor den eta derrigorra den propaganda gomendatuz: “Gure artean ezartzera da-

tozen atzerritar zintzoei gobernuak emango dien babesak gure despopulazioa sendatuko du eta hiritar birtutetsuneak ekarriko dizkigu. Zabal itzazu ideia hauk atzerritar jator guztien artean, edukiko dituzten abantailak ikus eraziz” I-219.

Espainiarrei berei ere dei bihozkorra egiten die: “Colombiarak izan nahi baduzue, Colombiarak izango zarat, guk geure familia gehitzeko ansiak nahi baititugu” II?1181.

Ez dago esan beharrik Bolibarrengan ez dagoela arrazazko aurritziririk. O’Leary-k interpretazio okerra egin zuen Bolibarren Haitiko egonaldia eta Petionekiko harremanei buruz. Oraintsu aurkituriko dokumentuek, hala Askatzailearen komunikapena haitiar presidente goragarriari —“badut esperantza, Presidente jauna, gure aberri komunaren eskubideen defentsan dugun sentimendu kidetasunak, zure aldetik, zure onginahi agortezinaren ondorioak ekarriko dizkidala” EL. VIII-290—, behin betiko argitu dute hauzia. Cristobal L. Mendoza Historilari zentzudunak zuzen dio: “Haitiko gidariekiko harremanetatik sor litezkeen ondorio nahasiei buruz, Askatzailearen gogoetarik ez zeukala, aitzitik ordea, harreman haietan mugimendu askatzailearen garaipenerako faktore on bat ikusten zuela. Gure aberri komunaren eskubideen defentsan, bere eta Petionen arteko sentimendu kidetasunari eskubideen defentsan, bere eta Petionen arteko sentimendu kidetasunari buruzko deklarazioak argi erakusten du arraza kontuari buruz zer uste zuen” EL. VII-XXXVIII.

Inmigrazioa bultzatzeko programan Bolibarrek ez du inolako arraza preferentziarik agertzen. Inoiz ez ziren herri batetako ateak hain guztiz mugagabeki irekirik deklaratu nola hark egin zuen hemen sustraitzera gonbidatuz “edozein nazio eta profesiotako atzerritarrak” II-1027. Mundu Berriko arragora datozen inmigrantei ezer eskatzen badie, ez da, ez, halako melanina puska bat, ez halako indize zefaliko bat, kualitate moral positibo bat baizik: zintzotasuna. Arrazazko bereizgarriak —haren ustez— ez dira funts somatikoak. Bereizgarri gutien mazkalduari, azalaren koloreari, era guztizkoz, soilez eta definitiboz “akzidentea” deitzen dio, II-1015. Gure konposapen etniko nahiaren kontzientzia zuzena zeukan eta mestizaiaren ondorio ongariak ikusten zituen (30). “Nik

(30) Ikus gure *Visión y Revisión de Bolívar*, 269 eta oo.

Amerika krisalidan ikusten dut —zioen 1822-n—; haren bizilagunen esistentzia fisikoan metamorfosis bat ikusten dut; azkenean enda guztien enda berri bat egongo da, herriaren homogenotasuna ekarriko duena (31). Angosturan, kontsigna sutua botatzen du: “Gure hiritarren odola desberdina da, nahas dezagun bat egiteko”, II-1149.

EKUMENIKOTASUN ETA ERAK

Giza errealitate integratu honen gainean, Bolibarrek gure Amerikaren batasuna bilatzen du eta urrunago doa. Amerikar, gizon onen lurrak, askatasunaren eta maitasunaren lurrak, bere arnasa iraultzailea Afrikari eta Asiari komunika diezaiekeela pentsatzeraino heltzen da, Europak orduan munduari ezartzen dion uztarri esklabukorra hausteko: “Nik honi unibertsoaren oreka deitzen diot, eta amerikar politikaren kalkuluetan sartu behar du”. Askatzaileak ordurarte izaniko Estatuaren elkarte iragankor eta ahula baino liga ekumeniko sendoagora jotzen du, Munduko federakunde bat ere somatzen du gure Amerikari bizia damaioten printzipioek bigentzia osoa edukiko dutena. “Mendeen joanean baliteke beharbada nazio bakar bat egotea munduan —federala—” II-1215.

Kontuan hartzekoa da Bolibar gure estatu bakoitzeko errejimeneri buruz zentralista porrokatua deklaratzeko bada ere, amerikarteko arloan federalista dela. Izan ere, bi problema desberdin ikusten ditu, berak ezartzen dien tratamendu desberdina behar dutenak; barne ordenuan: zentralismoa; nazioarteko zerean: federalismoa. Badaki kontinenteko federakundea, nazioko federakundearen antitetikoa dela: “hura, indarraren bilketa da masa handietan, bestea, ordea, masa hauetariko baten indarraren zatiketa da puka tikieta” II-19.

Bolibarrek begiztaturiko amerikar federakundea sui generis da. Kanpoko errepresentapen unitarira eta barruko defentsan komunitatera jotzen du, era politiko honen berezgarriak hauk, eta hala ikusten du Panamako Kongresuari buruzko bere Pentsamenduko 1go eta 7n puntuetan: “Mundu berria nazio independenteetan eratuko litzateke, beren kanpo harremanak finkatuko litzuz-

(31) Gil Fortoul, José: *Historia Constitucional de Venezuela*, I t., 674 o.

keen eta kongresu jeneral eta iraunkorrean botere jagolea eskainiko liekeen lege komun batez loturik denak. Denen indarra laguntzera letorkio kanpo etsaien eta talde anarkikoen erasorik sufri dezanari” II-1214, 1215. Baina hispanoamerikar kongregazioa ez da federakundea, Exekutibo komunik ez baitu, eta areago da konfederakundea, zeren “barne ordenua ukigabe mantenduko litzateke Estatu desberdinen artean eta bakoitzaren barruan. Inor ez litzateke ahula besteari buruz; inor ez litzateke indartsuagoa” II-1215.

Bolibarrek badaki molde zaharrek ez dutela errealitate berri hau identifikatzeko balio; baina aurrea ematen dio berak babesturiko amerikarteko ligaren tipifikapen juridiko hertsiazen arazoari, eta zer formal eta bigarrenki bat denez gero, alboratu egiten du, federakunde eta konfederakunde hitzak nahasmahas erabiliz eta aldi batzutan mami sozial eta moraleko hitzak nahiago izanik mami juridiko eta politikodunak baino; honela, zenbait unetan, batasun hitza federakunde hitza baino atseginago zaiola dio, I-1423, 1424. Horixe agertzen du behintzat, Panamako kongresuaren frakasoaz nahigabeturik, ordezeko baliakizun gisa, Colombia, Peru eta Boliviaren integrapen egingarria pentsatzen duenean. Hispanoamerika osoaren baino azalera gutiago harturik ere, hiru herri hoieta batasunak, zeintzuren askatasunaren eragile bera izan baitzen, area dezentea ematen zuen —bost milioi kilometro karratu, Europako kontinente erdi adina— eta populazioari buruz gure Amerikako zati nahiko handia hartzen zuen.

Bolibarren konbentzimendu amerikazalea hain sakona eta segurua zen non ez baitzuen sekula utzi, ez eta ezulerpenik etsaienen zartadapean ere. Panamako fruitu urrien gainera frustrazio osoaren mehatxua datorrenean —Istmoko akordioak firmatu zituzten nazioetarik batek ere ez baitzituen gero berretsiko Colombiak izan ezik— Bolibarrek bere fede aldaezina deklaritzen du haren gogo integrazaleari eragiten dioten printzipioetan. 1828-ko abuztuko haren komunikapenak, Mexicoko presidentearentzat, irmetasun eta esperantza bueltagabe hoik aldarrikatzen ditu: “Colombiak ez du inoiz amore emango amerikar konfederakundean, kontinente haue-tako nazio guztiei hain onuragarria izan beharrekoa beren independentzia seguratzeko eta beren politika beren harremanak hestutuz uniformatzeko; eta bere aliatu, ahizpa eta konfederatu baten, Mexicoko Estatu Batuetako Errepublikaren, ahaleginekin kontaturik,

ez du egun hobeetan eta zirkunstantzia donatsuagoetan eragin gabe utziko gure interes komunak tratatu behar dituen eskuosodunen bilera” XII-354. Askatzaileak Pedro Gual eta Miguel Santamaria izendatu zituen Colombiako eskuosodun bigarren Amerikar Biltzarre nagusirako. Azken ahalegin askatzaile honekin —Iraultza salbatzen alferrik saiatu zen Diktadurako zikloan burutua— bukatzen da batasunaren printzipio handia egitzeko haren inizatibean zere-rranda. Handik gutira Bolibar etorkizunerako gaia izango zen.

BATASUNA BETI

Batasunaren gaia da izan ere Bolibarren gai ardatza. Hauxe izan zen haren arazo funtsezkoa, noiznahi, bere bizitza publikoaren hasieratik azkenera. Barne batasuna berehalako lanerako; kanpo batasuna iraupenerako eta aurreramendurako. Bere lehen idazki publikoan, gorago aipatuan, Londresko aldizkariakoan (1810-ko iraila), zuzenki azaltzen du bere amerikar integrapen eta solidaritate ideia: Venezuelako seme-alabek “ez dituzte, ez, gonbidatu gabe utziko Amerikako herri guztiak konfederakundean biltzera. Herri hoiek, proiektu horretarako jadanik prest, Caracasen jarraibideari agudo segituko diote”. Aberri Elkartearen aurrean, harenik gordezten den lehen diskurtsoan, kontzeptu bera berresten du: “Nola zisma piztuko dute batasunaren premia gehien ezagutzen dutenek? Nahi duguna batasun hori efektiboa izan dadila eta gure askatasunaren eginkizun loriosari laguntzekoa; atsedean hartzeko eta nagikeriaren besoetan lo egiteko batzea, atzo hutsune bat izan zen, gaur traizio bat”, II-993; deihadar egiten du han bere, gura, Amerika guztirako askatasunaren oinarria bildur gabe jar dadin.

Gero haren dokumentu den denetan pentsamendu berbera da ardatz artikulatzailea.

Cartagenako Manifestuan ekiten dio: “Gure banakuntzak, eta ez espainiarren harmek, bihurtu gintuzten esklabutza” II-1002. Carupanoko manifestuaren barruan, gaia tazitua da testu dramatiko guztian argigarri, non ideia nagusia zera baita, alegia, demokrazia soberanoa finkatzeko bigarren ahalegin nagusian ere desbatusunak eraman gintuela hondamendirako: “Honela badirudi zeruak gure apal-mendurako eta gure haintzarako irakasleak gure anaiak izatea permititu duela eta gure anaiak bakarri garaitzea gu” II-1068. Jamai-

cako Eskutitzean berdin: “Segurki batasuna da falta zaiguna gure berrikuntz lana burutzeko. Neuk esango dizuet espainiarrak botatzeko eta gobernu libre bat izateko moduan zerk jarriko gaituen: batasunak noski” I-174. Angosturako Kongresuaren aurrean behin eta berriro aholkatzen du: “Batasuna, batasuna, batasuna, horra gure ezaugarria”, II-1149. Hispanoamerikar batasunerako dei solemnearen ondoren, 1824-n Limatik, eta Boliviako kongresuari haren bi etsai munstroak “tirania eta anarkia” direla seinatu ondoren, Ocañako konbentzioari gogarazten dio “ez dagoela naziorik errespetoa sartu duenik hura indartzen duen batasun gabe” II-1253.

Bere bizitza publikoa hersten duen agurra ezin hunkigarriagoa da: “Herkideok: entzun nire azken ahotsa nire karrera politikoa bukatzean; Colombiaren izenean eskatzen dizuet, baturik irauteko erregutzen zaituztet, aberriaren eraileak eta zuen buruen borroak izan ez zaitezten” II-1276. Azken agurrean, bere lehia ukazina finkatu truke bizia eskaintzen duenean, eginbehar komune nabarmentzen du betiko: “Denok lan egin behar duzue batasunaren on itzelaren alde” II-1281.

Kontinentearen alderik alde, batasunaren arimak eta ardatzak artikulatzen du gure arima: Bolibar da bera. Harengan denak bateratzen dira. Jose Gervasio Artigasek hona zer diotsan harekiko kausakidetasun funtsezkoa agertuz: “Berezko eta elkarren intereseko loturaz mamiki baturik, gure eskubiderik sakratuenak profanatu nahi dituzten tiranoen kontra burukatu genuen”. Jose Cecilio del Valle-k ere eskua luzatzen dio “gure destinoa eta etorkizunarena batasun solemne baten babespean jartzeko eta era batera gure elkarrekiko interesak gure nahiak zintzoak diren bezain oinarri sendoen gainean konpondu” (32).

(32) *Bolívar y su época*, I t., 59 eta 130 oo.

LEGEEN LEGEA

Kolonikuntza aztertzen bada, gizarte angelu hertsitik, beste edozein berezgarriren gainetik desberdintasunik biribilena eta jenerallena nabari da. “Denak zeuden barrera gorrotagarritzatituturik, pribilegio zitalekin eta degradapen zentzugabeekin”, II-1172. Esklabutzak, gomenduak eta morrontzak beste gabe zatiketa zorrotza eta lotsagarria egiten dute gizakien artean: libreak (esklabugileak, gomendariak eta jauna eta jaunak) eta gehiengoak (esklabuak, morroiak, basailuak, menpekoak), askatasunaren dohain bikain hori falta zaienak.

Esklabutza, nolana, ez da espainiarren asmaketa. Europan aintzinaterik zaharretatik gora praktikatu zen. Erromarrek beren eraikuntza juridiko harrigarrian zehazki tratatu zuten instituzio hori; berezko eskubidetzat jotzen zen garailearen pribilegioa garaituarekiko: honen bizia eta askatasuna haren harrapakitzat jotzen ziren. Esklabutza espainiarrek bertakoei buruz daukaten “nagusitasun” kontzientziari datxekiola dator Amerikara, eta hitz historikoago eta zehatzagoetan Afrikan Mundu Berriaren esplotazioarako ehizaturiko beltzekin dator.

Amerikako lurretan harturiko lehen esklabu beltzak iberiar penintsulan jaiok ziren; harantz, Colonen bidaiak baino askoz lehenago, merkatalgo hau Guinearen aurkikundetik gora gehitu zen. Beltz trafikoa mundu berrira bolumen handikoa izan zen beti eta koloniaren joanetorrirako hain garrantzitsua non esklabutza Espainiak gure hemisferioan ezarritako sistemarako oinarritzko eta derrigorrezko instituzio mailara jaso baitzuten.

Indioek ere praktikan antzeko sistema zeramaten bizkarrean, nahiz eta teoriiaz izen berdinek ez eraman. Lehenengo Banakuntza izan zen, kontrolik ez mugarik gabeko menderakera, zeinekin bertako arrazaren iraupenak gorriak ikusi baitzituen. Gero gomendua etorri zen; indioentzat bake eta babes pixka bat ekarri zuen, baina —bere zerga korrelatiboz eta zerbitzu pertsonalekin— morrontza indartu zuen. Honela morrontza esklabutza beltzarekin batera bizi zen, harekin lurrari balioa ematen zion produkzio motorea izanik.

Espainiarren domeinupean, bada, arlo sozialean desberdintasunik zorrotzena nabari zen. Zurien artean diferentzia sakonak zeuden eta hauen eta mestizaiaren giza produktuen arteko distantzia handia zen. Nabarrak edo mestizoak berak ere hainbeste kategoriatan subzaturik zeuden desberdintasun sumingarrien errealitate hori, kolonikuntzaren zutabe nagusi hori, gogorragoa eta segurua goa egiteko.

Diskriminapenak azalaren kolorean, jaiotz lekuan, legeetan eta ohituretan oinarrituak, eta aberastasunaren gainean tinkatuak, hala ofizioetarako nola karrera liberalen ikasketarako, halaber funtzio publikoei eta koloni erakundeei buruz, etab., guzti hau luze aipatu da obra honetan.

BERDINTASUN HIRRIKAK

Estruktura desberdinkoi eta esklabukoi honi Iraultzak helburu zehatz eta argi bat jarkitzen dio, berdintasuna. Honen txapeldun izango da Bolibar.

Dударик ere ez Lehen Errepublikak ez zela egon Venezuelako herriaren gurarien pare, esklabutza eta mugimendu antisegregazaleen kontrako burruka zerrenda luzean bistaturiko gurariak, burruka guztiak pribilegioak buka erazteko eta gehiengo kalte goian zeuden sektore batzuren gehiegikeriei azkena emateko. Amerikan, salbuespen bat ere gabe, hirrika bera zegoen nonahi, giza izaeratik bertatik harakoa zen, eta ia toki guztietan egoera bera zuen aurrez, zeren koroak bere posesio guztietan eskema desberdinkoi bera eraman baitzuen. Eskema honen kontra altxatu dira XVI garren mendetik gorako errebeldiarik gehienak. Simon Bolibarrek berak ere gaztetxotan Jose Leonardo Chirinosen heriotzaren berri jakin du, berdintasun sozialaren aldeko martiria bera; eta

Caracas tiki hartako hautuetan Juan Bautista Picornell, Manuel Gual eta Jose Maria España espainiar errejimenaren kontra josten ari ziren konspirazioaren berri ere jakin zuen. Iraultzaile zintzo hioen “ordenantzetan” hauziari adarretik oratzen zitzaien; Frantziako Errebulozioak ezaguterazi eta dibulgaturiko berdintasun legekoa ez ezik, “kasten” berdintasuna deklaritzen zen, hau da, gizon guztiak Kristorengan anaiak eta denak Jainkoak kreatuak bezala ikustera gonbidatzen duen arraza berdintasuna, meritua eta birtutea bakarrik direla bereizkizun bakarrak. Picornellen textuan agintzen da “nolanahi ere, esklabutza aboliturik gizateriaren etsai bezala”, eta indioen zerga ordainketa ere abolitzen da, “zeintzuri propietateak emango baitzaizkie eta medioak beste hiritarrak bezain zoriontsuak izan daitezten” CFL 354.

Caracasko lehen gobernu iraultzaileak pauso motelak eman zituen berdintasunaren alde. Zenbait sektore pribilegiaturen foruak eta exentzioak kendu zituen. Hauek justizia aparteko batetarako epaikari eskusiboak edukitzeko ere eskubidea zeukaten. Bereizkizun eta titulu heredagarriak ere anulatuak izan ziren; abizenetako “de” preposizioa, “goientasun” “mertzedez”, “jauntasun” eta abarren ordez “hiritar” nibelatzailea eta “zu” jarri ziren.

Nabarren bizikera apurren bat hobetu zuen Lehen Errepublikak. Baina haiek, nazioko gehiago benetakoa eta handia egiten zutenek, beren herriari zegozkion arazo publikoetatik aparte segitu zuten. Aurreko lotsagarrikeriak derogatzeko espero zen erabakirik batere ez zen zabalki eta berariz diktatua izan. Goren Batzordeak egin zezakeenik gutiena egin zuen: bertakoen zerga kendu. Ez zuen esklabutarik debekatu, ez esklabu trafikorik, baizik juxtuki erabaki zuen —aikomaiko askoz eta aginpidea seguratu eta lau hilabetera—: “Debekaturik probintzia honetara beltzak sartzea, ongi ulerturik debeku hau ez dela helburu honekin mar txan hasirik dauden eta lehenago baimena lorturik duten expeditzioentzat ulertu behar; hauk burututakoan, esaniko aginduek behar den efeko puntuala edukiko dute” (33).

Mirandak nabarrak, beltzak eta baita esklabuak ere gonbidatzen zituen Aberri elkartera. Izatez atzerritar bat zen bere herrian babes plataforma bat egin nahirik, sektore apalak suerterik gabe

(33) *Textos oficiales de la Primera República de Venezuela*, I t., 214 o.

gorteiatu zituen. Baina nahiz eta haren proiektuetan zerga eta edozein grabamen pertsonal aboliturik agertu, ez dio ezer hondorik esklabutzaren kontra.

Kanpaina Miragarrian Bolibar datorrenean, gorabehera guztia oraindik ere harmetan dagoela uste du, eta errepublikatasun huts eta perfektuaren baina gure herriaren premia materialetik urrun eta indiferentearen printzipio doktrinazkoetan. Ez dago dudan Hil arteko Gerra proklamatzeko pauso izugarriaren aurrean, baina ez dio ezer esklabutza abolitzeaz. Garai zail horretako ekintza eta ondorioetan irakatsi eder bat dago: Errepublika herriak defendatzen ez duelako erortzen da eta ez du defendatzen maite ez duelako. Ez dezake maite zeren ordurarte hitz eta abstrakzio jokoan bizi izan baitira, mami praktikorik ez eragin konkreturik gabe.

Antilletako herbestaldia, penatsua eta garratza zian bazen ere —bizia bera ere hari batetan eduki zuen— emankorra izan zen Bolibarrek frakasu hoiarren arazoia argi ikus zezan. Petionek laguntza ebazkorra ematen dio, eta bien artean hitzematzen dute Tierra Firme esklabu beltzak libreak izango direla; Haitiko presidente bihotzabalari aski zaio helburuaren handitasuna eta Bolibarri eskatzen dio ez aipatzeko bera pertsonalki. Propagandarik ez zaio axola. Puerto Principe-ko elkarrikuste hau honen inguruan dabil, alegia, Venezuelako Iraultzak berehalaxe, Los Cayos eta Jacmelgo expedizioen ondoren, hartuko duen bidearen inguruan. Oraingo zer garrantzitsua Bolibarren buruan iraultz prozesoa jatorrago eta kontzienteagoa dela. Monteverde eta Bovesen garaipenek, abertzaleentzat hainbeste zoritxar ekarri zutenek, asko irakatsi diete hauei.

1816-n, maiatzaren 23-n, Villa del Nortetik Margaritara Askaizalea helduz batera, esklabutzaren azkenaren berri ona iragaritzen du: “Venezuelan ez da gehiago esklaburik egongo hala izan nahi dutenak baizik. Askatasuna, atsedena nahiago duten guztiak harmak hartuko dituzte beren eskubide sakratuei eusteko eta hiritarrak izango dira”, II-1092. Hamar egun geroago, Carupanon, eskaintza formalizatzen du: “Justiziak, politikak eta Aberriak naturaren eskubide derrigorrezkoak bortxak eskatzen dituela usterik, dekretatzera nator eta dekretatzen dut aurreko hiru mendeetan Espainiar uztarriaren azpian aieneka egon diren esklabuen askatasun osoa”, II-1092.

Hilabete geroago Caracasko Probintziako —inguruko herririk

esklabutsueneko— bizilagunei berresten die: “Esklabutzaren miseriapen negar egin duen gure anaia sail hori jadanik librea da. Naturak, justiziak eta politikak esklabuen emantzipazioa eskatzen dute: hemendik aurrera Venezuelan gizon mota bakarra egongo da, denak izango dira hiritarrak” II-1904. 1817-ko urtarrilak 9n, Caracastarrei berdiotse Tuyko kuartel jeneraletik: “Jadanik ez da Venezuelan esklabu gehiago egongo. Hiritar guztiak berdinak izango dira legearen aurrean. Libreak, berdinak eta independenteak izango gara betiko”, II-1097.

Iraultzako hiritar berriei baldintza bakarra jartzen die, zuzentasun eta interes politikoak gomendatua: beren askatasuna defendatzeko obligazioa, hau da, merezi dutela erakusteko. “Bidezkoa izango al da gizon libreak bakarrik hiltzea esklabuak emantzipatzeko?” I-425. Askatasunaren ondorio inplizitu hauxe izan ezik, Bolibar hain erakunde gorrotagarriaren debeku oso eta mugabearen alde agertzen da.

Angosturako Kongresuaren aurrean Askatzailearen esakeren esatiloak ondo adierazten du zer konbentzimendu sakona eta biribila duen horretaz. Berak ondo esanda “nire aginteko goragarriak, azken aldi honetako erabakirik inportanteenak”, II-1152, deitu zituen egintzen kontua ematean, kongresukideei bi arazo bakarrik azaltzen dizkie: bere dekretua nazioko ondasunak herri gudulariari banatzeko (iraultza ekonomikoa) eta esklabutzaren kontrako neurri erradikalak (iraultza soziala); ez zegoen orduan ezer halako arretarik merezi zionik. “Gizateriaren Jainkoaren laguntza eskatu zuen eta gero Salbamenak ekaitzak garbitu zituen. Esklabutzak bere girgiluak hautsi zituen, eta Venezuela seme alaba berriz inguraturik ageri da, beren gatibutzako tresnak Askatasunaren harrak egin dituzten seme-alaba eskerronekoz. Bai, lehen esklabuak zirenak, orain libreak dira; lehen Amaizun baten etsaiak zirenak orain Aberriaren defentsoreak dira. Neurri honen zuzentasuna, beharra eta ontasuna zueri eskatzea sobera dago, ondo baitakizue Heloten, Espartakoren eta Haitiren historia: ondo baitakizue ez dagoela era batera esklabu eta libre izaterik, era batera berezko legeak, lege politikoak eta lege zibilak zapuzturik izan ezik” II-1152. Beste bere egintza juridiko asko guti axola zaizkio Bolibarri, denak biltzen eta denen adierazlerik zintzoena eta direktoena den honen aldean; dudarik balego, haren erregua zehatza eta biribila

da: “Zuen ebatzi soberanoaren esku zuten dut nire Estatu eta Dekretu guztien berrikuntza edo ezeztapena; baina esklabuen askatasun osoaren baitespena eskatzen dut, neure bizia eta Errepublikaren bizia eskatuko nukeen bezala” II-1152.

PRINTZIPIOAREN FILOSOFIA

Aldi solemne hartan Bolibarrek berdintasunaren azterketa teoriko garrantzitsu bat egiten du, goren ondasun soziala eta politikoa, zein dela baitio, Konstituzioaren proiektuan, “legegintzan laguntzeko edozein hiritarren eskubidea, soberanoko partaide gisa”, O’L. XVI-140. Horra berdintasunaren funtsa: gero hiritar guztiak, berezgorik gabe, hartuko dituen araua, eta den denak —inortxo ere albora utzi gabe— soberaniaren sujeta berdinak egingo dituen araua ateratzen parte hartu.

Guzti horregatik Bolibarrek konstituzioan esatea proposatzen du “Benetako berdintasunik ez dagoela denak berezgabeki hartzen eta lotzen dituen legearen egikera eta aurrean izan ezik”, bai sarrituz edo ordainduz, edo bai zogortuz edo erreprimituz; lehenengo kasuan izendatzen ditu birtutetsua, zuzena, jakintsua, adoretua, zintzoa, zuhurra, trebea, ekinkorra, eta ongilea, eta bigarrenean: biziotsua, bidegabea, ezmorala, koldarra, buruarina, alferra eta nagia. Bi zerrendek beren zehaztasun tipologikoa talentu zorrotza adierazten dute, gizarte maila guztiak ezagutzen dituen bat ere ahantzi gabe, dela positiboa nahiz negatiboa.

Bolibarren ustez, eskubide berdinkoi horren ihardunak erabilerara diziplinatu eta serioa behar du; honela argitzen du: Eskubide hau legearen eztabaidak eta onespének eskatzen duten eta herri bileretan, beti zalapartatsuetan, aurkitzerik ez dagoen ordenu, lasaitasun, begiramendu, zuhertasun eta jakinduriarekin lotzeko, nazioko Errepresentapena sortu da, herriak hautaturik haren borondatea legez adierazten duen organua” O’L. XVI-140.

Begi aztertzaile eta zorrotz bati ezin eskapatu hiritarren artean zeuden benetako diferentziak; hortik hainbeste ekitea legeak —ez bere letraz bakarrik bere formulapen prozesoa baizik— bere baitan zeramala errealitate desberdin hori behar den berdintasunerantz zuzentzeko posibilitatea. Bolibarrek gordinki dio “berdintasun legezkoa derrigorrezkoa dela, desberdintasun fisikorik dago-

en lekuan” II-773. Berdintasun legezkoa, haren teoria barruan, legeak efektiboki eragina da, eta ez honek deklaratu. Legearen esaldi hutsetako berdintasunak —badaki hark— desberdintasun fisikoa eta praktikoa sakondu egiten du, desager erazi beharreen; hortik haren nahia legeak, indarren sistema konpentsagarri egoki baten bidez, desberdintasun soziala zuzen dezan. Bere garaiari aurrea hartzen dio pentsatzean indar edo posibilitate desberdinak dauden tokian haik orekatzeko araua behar dela. Hauxe izango da Askatzailearen urteetatik gerora agertuko den Zuzenbide Sozialaren ardatz ideia.

Nolabait, Justizia banakorrera itzultzen da, zeinek ez baitu denentzat tratatu bera gomendatzen, tratatu berdina berdinentzat eta desberdina desberdinentzat baizik. Bolibarrek aldarrikaturiko berdintasuna, honela ulerturik, horixe da haren obraren batasunean ageri den justizi planari dagokion bakarra, eta baita materialitate positiboen eta ez abstrakzioen, miragarrienak badira ere, aldeko haren preferentziarekin bat datorren bakarra.

Angosturako hitzaldian pozik aipatzen du venezuelar herriak berdintasuna ezarri duela, eta atsegin handiz ematen ditu arrazoiak printzipio hau behar bezala ager dadin Oinarri Legean: “Venezuelako herritar guztiak konstituzioa, naturaren interprete bezala, berdintasun politiko osoa daukate. Berdintasun hau ez bada Atenasen, Frantzian eta Amerikan dogma bat izan, guk kontsokratu behar genuke itxuraz dagoen diferentzia zuzentzeko. Nire eritzia da, Legeginak, gure sistemako printzipio nagusia Venezuelan ezarritako eta praktikaturiko berdintasunaren pentzudan bakar bakarrik dagoela” II-1140.

Esklabutza buruz, ez zegoen beste ihespiderik. Bolibar esklabutza abolipenera heltzen da dinamikak berak eta bere iraultz kredu organikoaren lojika berezkoak eraginik. “Erokeria iruditzen zait —dio— askatasun iraultza batetan esklabutza mantendu nahi izatea”, I-435. Paezek 1867-n idazten duen autobiografian, Bolibarren pentsamenduaren koherentzia gardena indartuko zuen: “Herri bat askatzea, hango jende mordo bat esklabutza utzirik, posibletzat genuela uste izatea, Colombiako Askatzailea sekula eroriko ez zen zentzugabekeria da” A. I-380. “Zentzugabekeria” hitz hau, kontraesan munstro hori aipatzeko, Bolibarrek berak erabilia da 1820-n Santanderri eskutitzean: “Politikako, historiaren adibide-

apezak, legeen zigorra jasoko dute judizio zorrotzean, eta horretarako epaikari politikoek apezten jokabidea jagongo dute gobernua-ri horretan somatzen duten hutsik tikienaren berri emateko eta tokatzen dena egin dadin”, DL. I-197. Tresna juridiko garrantzitsu honek, indioentzat Askakunde gutun gisako honek, bere 15 garren artikuluan eskubideen deklarazio bat espresuki dakar Simon Bolibarren asmo iraultzailea beste gabe sinets erazteko balio duena; “Bertakoek, errepublikako beste gizon libre guztiak bezala, beren pasaporteekin joan eta etor daitezke, beren fruituak eta efektoak saleros, nahi duten azoka edo feriara eraman, eta beren trebetasunak eta talentuak libreki erabil berek hautatzen duten moduan inork eragotzi gabe” DL. I-197. Askatzaileak halako garrantzia ematen zion dekretu honi, non textuan bertan agintzen baitzuen indioei honen berri emateko, hauei eskaturik kaltegarri zitzaizen edozein legehauspen edo edozein legehausle erreklamatzeko.

Egintza askatzaileen mailan eta berdintasun sozialaren alde Bolibarrek eman zuen hurrengo pausoa, Cucutako Kongresuaren aurrea azaltzea da. Berriro ere eragilea esklabutzaren kontrako burruka du Colombiako gizarte estruktura aldatzeko. Aberri batuko parlamentuaren aurrean, honela mintzo da: “Aurrerantzean Colombian jaioko diren esklabuen seme-alabek libreki izan behar dute, zeren gizaki hauk Jainkoarenak eta bere gurasoenak bakarrik baitira, eta ez Jainkoak ez beren gurasoek nahi dituzte dohakabe ikusi. Kongresu jeneralak, bere lege propioek, eta areago oraindik, naturako legeek baimendurik, Colombiar guztien askatasuna osoa dekreta dezake errepublikako lurraldean jaiotzean bertan. Honelaxe elkar-tzen dira eskubide posesiboak, eskubide politikoak eta eskubide be-rezkoak” I-576. Colombiako kongresukideen aurrean euforialdi bat probetxatzen du deklarazio antiesklabuzale sakon bat eskatzeko. Ez du besterik ezer eskatzen abagune garaipentsu horretan: “Caraboboko guduaren, harmada askatzaileak irabazitakoaren ordainez, zein- en odola askatasunaren alde bakarrik isuri bait” I-576.

JARRAIPENA ETA IRAUPENA

Bolibarrek ez du aukera probetxagarriarik bat ere pasatzen utziko bere abolizio idealerako. Panamako Kongresurako Colombiako Es-kuosodunen instrukzioetan esklabutzaren kontrako burruka biltza-

rre horretan goi helburuetan sartzeko eskatzen du: “Afrikako esklabu trafikoaren abolipen eta kenketagatik mundu zibilizatuak agertu duen arretak Amerikar Estaturen Biltzarrea ere hartaz ardua dadila eskatzen du. Gai honek gure errepublikei aukera eder bat ematen die beren printzipioen irekitasun eta filantropiaren exenplu bikain bat emateko”; horregatik haien Panamarako misioa, beste puntu batzuren artean, honetan datza, “Afrikako esklabu trafikoaren abolipena lortu eta hain merkatalgo lazgarriaren egileak piratakeria kontinentaleko krimenaren barruan deklaratu” O’L. XXIV-273, 275.

Perun Askatzailearen ahalegin salbatzailea bereziki bizia izan zen. Han zegoen, egoen ere, bikote bildurgarria, “edozein errejimen zuzen eta liberalen etsaia: urrea eta esklabuak. Lehenengoak dena usteltzen du; bigarrena berez dago usteldurik. Esklabuaren arima nekez heltzen da askatasun zindoa estimatzera: nahasteetan sumintzen edo kateetan apaltzen da” I-172. Beharbada Amerikako egoerarik desberdinkoiena Perun formatu zen; haren kontra Bolibarren burruka aurrez aurrekoa eta etengabea izan zen.

Trujilloko hirian, 1824-ko martxoak 24-n, Askatzaileak erabaki garrantzitsu, xeblere eta adierazgarri bat hartzen du. Han akordatzen du ugazaba aldatu nahi duten esklabuak babesteko, “arrazoia daukatela nahiz ez daukatela, baita kapritxoz bada ere”. Korrelatiboki ugazabak ere esklabuen nahia errespetatzera eta betetzera behartu behar ziren. Askatzailearen Idazkariak Departamentuko Prefektuari bidaltzen dio erabakia: “Bere Goientasunak Berorren Goientasun horri agintzen dio esklabu gizaixoei gobernuaren babes asmagarri guztia emateko, zeren tiraniaren azkena baita miserable hauei dominatzailea aldatzeko kontsolamendu tristea ere kentzea. Manu honekin ugazaba beren uste eta gogo hutsez hautatzeko askatasunari kaltegarri zaizkion lege guztiak ezerezten ditu Bere Goientasunak. Berorren Goientasunak komunika biezaiio agindu hau Sindiko Prokuradore Jeneralari, jakitun egon dadin eta esklabuei babes guztia eman diezaien” DL. I-290. Xelebrea da esklabutzaren kontra etengabeko burrukan ari zen gizonak abolipenari oraingoan ez ekitea, askatasun tiki bati baizik, nola baita ugazaba aldatzea: xelebrea da agindu hauxe izatea funtsean Simon Bolibar haurrak, hamabi urte egin berri zituela, Caracasko Audienciaziko diligentiari eskribauaren aurrean alegatu zuena. Ia hogeitamar

urtetako distantziara, Bolibarrek legeztatu zituen bere haurtzaroko agerpen ez hain kokoloak eta lainoak zeintzu haren tutore Carlos Palaciosi iruditu baitzitzazkion “haren adinari ez dagozkion ideiak eta okerrago eta mingarriago dena, direnik ezpolitikoenak eta erratuena. Ezpolitikoenak eta erratuena, zeren seduktore ezjakin bat ez beste inor ez baita irakasteko kapaz esklabuek beren gogara ugazabak aldatzeko eta hautatzeko askatasuna daukatela, ustea be-
rau gorputza hartu eta sinesgarri bilakatuko balitz, gure monarkia hankaz goratuko lukeena eta horregatik uste hori edozein gobernu onen eta gure lege sistemaren kontra dago” (34).

Trujilloko hirian bertan, 1824-ko apirilak 8-n, Bolibarrek komunitate lurra deritzatzenen banaketa agintzen du beste jabetasun inmoblerik ez daukaten indioen artean. Herri berriak fundatu nahi dituzte eta helburu kolektibo horren ondoan, asmoa justizia haustezina da: “Ez dadila indiorik bat ere gera dagokion lurrik gabe” DL. I-296.

Barrurago, inken mundu zoragarrian, Cuzcotik, Simon Bolibarrek askatasun egun batetan —nola baitzen 1825-ko uztailak 4a, Iparramerikar Independentziaren data—, bertakoen lan askatzaile bultzatuko du. Bederatzi egun zeramatzan hiriak zirraraz itzela egin dio: “Poesia guztiak albora utzirik, goi ideiak, pentsamendu sakonak gogarazten dizkit hemen denak; nire arima liluraturik dago lehen naturaren presentziaz, berez desarroilatua, bere elementu propioen sortzapenak emanik bere barne arnasen eredia, obra arrotzen, inoren aholkuen, giza gogoaren kapritxoaren mozketarik gabe, eta historiako krimenen eta gure endaren zentzugabekeriaren kutsapenik gabea. Hemen dena da jatorrizkoa eta dena garbia goitik datozen inspirazioen antzera” I-1116, 1119.

Eskenategi harrigarri honetan, Bolibarri su askatzailea pizten zaio; honela dekretatzen du: “Ez dezala Estatuko inork zuzenki edo zeharki perutar bertakoen zerbitzu pertsonalik eska haren lanaren prezioaren kontratu librerik gabe aurretik. Debekaturik Departamenduetako Prefektuei, Intendenteei, Gobernadoreei eta Epaiakariei, eliz Prelatuei, Apezai eta hauen tenienteei, hazienda-

(34) *Boletín de la Academia Nacional de la Historia*, 149 garren z. 22 garren o.

dunei, meatze eta obraia jabeei, bertakoak beren gogoaz kontra erabiltzea gorputz lanetan, septimetan, mitetan, pongaietan eta beste lan klase etxeko eta ohikoetan”. Erabaki garrantzitsua eta aurreratua geroko Langile Zuzenbiderantz: “Meatze, obraia eta haziendetako langileen alokairuak eskudirutan ordaindu beharko dira kontrataturiko prezioaren arabera, gauzak hartzera behartu gabe beren gogoaz kontra eta askotan ohi diren prezioen azpitik” B. eta A. X-31. Askatzaileak neurri hauk behar diren segurantzekin inguratzen ditu beteak izan daitezen: agindu berri eta zuzen hoietariko edozeinen hauspenak herriaren ekintza lekarke eta zor zaion zigorra.

Dekretu honen egunean bertan, Bolibarrek —indioen alde hau ere— komunitatearenak deritzaten lurren banaketa, Trujillon erabakia, efektibo egiteko agintzen du. Une berean jauntxoek titulua eta aginpidea desegiten du; hauk espainiar domeinuak tresnatzat zerabiltzan bertakoak ziren beren odol anaien kontra; ezjakinean dohakabe hoietariko asko atzerritarren operazioko pieza gisa degradatzen zituen ustelkeriara makurturik zeuden. Bolibarrek badaki koadru nahasi guzti honen berri, eta leuntasunez agintzen du: “Errepublikako agintariak lehengo jauntxoak hiritar begiragarri gisa tratatu behar dituzte, gainerako hiritarren eskubide eta interesen kalterako ez den zer guztian” B. eta A. X-33.

Cúzcotik eta Urubambatik, Simon Rodriguezen presentzia kinagarriak lagundurik, Bolibarrek gizarte arloko beste neurri garrantzitsu batzu hartzen ditu. Hezkuntzarako dekretu mardulak diktatzen dira orduan, zenbait ikastetxe sortzen ditu eta beste batzu aldatzen. Legez kontrakoa dela deklaritzen du espainiarren parrokoen eta bertakoen parrokoen arteko diferentzia. Bi pobretxe fundatzen ditu, bat ezinduentzat eta eskaleentzat; San Buenabenturaren Etxea —Urubamban— umezurtegitzat eta kaxakoen etxetzat dedikatzeke agintzen du. Gizarte eta merkatal elkartruketa erraztuko duten gurpidez ere arduratzen da.

Hileak geroago, orduan Chuquisacan, Bolibarrek iraultza soziala indartzen du Perurako promulgatzen dituen arau iraultzaileen pareko aginduekin. Honela, Bolivian, “klase pribilejiatuaren existentzia bukatu zenez gero” eta “hiritarraren duintasunaren alderdi makurgarri guztiak” eliminatu behar direnez gero, abolitzea dekretatzen du “indioei bakar bakarrik, zerga izenez, ezarritako kar-

ga, gizarteko klaserik miserableenari bizkarreratzen zaiona” BOL. I-456.

HITZ EDERREKO PRONUNTZIAMENDUAK

Nekez aurkituko da gairik hartaz Bolibar zintzotasun beroagoz eta enfatikoagoz mintzatzekorik esklabutzarena baino. Haren etorriak honetaz bikaintasuna jotzen du. Angosturan esan zuen: “Esklabutza ilunpeen alaba da; herri ezjakin bat bere buruaren suntsipenaren tresna itsua da” II-1135. Alderdi gotor eta etengaberik, haren doktrinaren eta hirriken bizkarhezur gisakorik, bilatu nahi bazazio, han dago jokabide antiesklabuzalea. Bere izenez ohoraturiko Errepublikako Kongresura, haren hitza oldar zoragarritz heltzen da: “Esklabutza lege guztien hauspena da. Hura manten lezan legea, sakrilegoena litzateke. Zer eskubide alega liteke hura mantentzeko? Begira delitu honi alde guztietatik eta ezin dut sinetsi hain boliviarrak galdu bakarrik egon litekeenik giza duintasunaren bortxapenik biribilena legeztatzea nahi duenik. Posesio printzipio bat delinkuentziarik basatienaren gainean fundatzerik ez liteke asma ere zuzenbidearen elementuak zapuztu gabe, eta eginbeharraren nozioen doilorkeriarik osoenik gabe” II-1227.

Askatzaileak Bolibiako konstituziogileen aurrean ekiten dio bere proiektuan “legeen legea, berdintasuna, oso osorik gorde duela: hori gabe egin du garantia guztienak, eskubide guztienak. Horrixer zor dizkiogu sakrifizioak. Horrexer oinpean jarri dut, apalduz estalirik, esklabutza madarikatua” II-1226. Bere izenpean jartzen den aberri horretako batzarkideei Oinarri gutunean jartzea proposatzen die: “Bolibiarrak dira: gaur arte esklabuak izan diren guztiak; eta horregatik, egitez, libre geratuko dira konstituzio hau argitaratzean bertan; aparteko lege batez haien lehengo ugazabei egin beharreko indemnizazioa izendatuko da” BOL. II-324.

Ez du sekula uzten esklabutzaren ondorio kaltegarrien konbenzimendurik. Bentham-i 1827-n idazten dio: “Zoritxarrez esklabutzaren pisuak gogoak moteldu eta askatasunaren ezduin izateko egoeran artzen ditu. Horrexegatik merezi du hainbeste arreta zuk hitz egiten didazun zientzien lanketak, gizonak, bere kate artean ere, bindikatu beharreko eskubideak badauzkala gutienez ikas dezan” II-16.

Bolibarrengan etengabea da askatasunerako gogoia, langak kentzeko, berdintasuna bultzatzeko. Caracasko Unibertsitateko erregelearen erreformaren, ikastetxe hori venezuelar guztiei zabaltzeko berak aginduan, 1827-n, haren izpiritu sozial iraultzaile argiaren beste alderdi bat dago. Alde guztietan zehar gauza bera predikatzen du: "Klase pribilejiatuaren esistentzia bukatu zen" dio Bolibian; Perun dio: "Hiritar guztien arteko berdintasuna da Errepublikako konstituzioaren oinarria"; "titulu heredagarriak iraungiak daude", "Errepublikako konstituzioak ez du hiritarren arteko desberdintasunik ezagutzen" B. eta A. X-31-32.

Nabarrek Bolibarrengandik aitormen zuzena hartu zuten, eta ordenu berri eta iraultzaile baten barruan eskubide zuten tratua. Zirkunstantzia dramatikoetan ere, ez zuen hark estaltzen bere ahalgina hain ebazkorra izan zen garaien kontrastea agertzeko pozik: "Iraultza aurretik zuriek monarkiako destino guztietarako aukera zeukaten, erregearen, ministroen duintasuna lortzen zuten, baita Espainiako haundiena ere. Talentuz, merituz, edo suertez dena hatzematzen zuten. Nabarrak, kondiziorik apalgarrieneraino degradaturik, den denez gabaturik zeuden. Apezgoaren maila saindua debekaturik zuten: esan liteke espainiarrek zeruko ateak ere hertsizizkietela. Iraultzak pribilejio guztiak, foru guztiak, abantail guztiak eman dizkiete. Zer bidegabe guztia, zer barbaro guztia, zer gorrotagarri guztia abolitua izan da eta haren ordeaz etxe ohituretan ere berdintasun osoa daukagu" II-1106. Aginpide moral osoz, zintzoki eta bereziki fokaturik Piar-en kasua, zeini anarkia sorreraztea saltzen baitzitzaien somaezineko ondoriordun kolore gerra baten bitartez, Askatzaileak honela hitz egin zien soldaduei: "Zuek badakizue. Berdintasuna, askatasuna eta independentzia dira gure ezaugarriak. Ez al ditu gizarterriak bere eskubideak birreskuratu gure legeekin? Ez al dituzte gure harmek esklabu kateak hautsi? Ez al da klaseen eta koloreen diferentzia gorrotagarria betiko abolitua izan? Ez al da nazioko ondasunak zuen artean banatzeko agindu? Ez al zaudete fortunaren, jakintzaren eta haintzaren zain? Ez al dira zuen merituak oparotasunez edo justiziaz behintzat sarituak? Zer nahi zuen, bada, Piar jeneralak zuentzat? Ez al zarete berdinak, libreak, independenteak, dohatsuak eta ohoratuak? Ba al zizuen Piar-ek ondasun handiagorik ekarri ahal? Ez, ez, ez". II-1110.

Harmadan, Bolibarrek ez zuen gizonik ezein arrazoirengatik diskriminatzen; posibilitateak denak denei zabalik zeuden; egia esan, herriak berak ezarri zuen irekitasun hau eta haren goren liderraren jokabidean harmen beharrezkoa eta sutsua aurkitu zuen. Askatzai-leak Bucaramangan aitortzen zuen —1828—: “Independentziako lehen garaietan gizonak bilatzen ziren, eta lehenengo meritua galanta izatea zen, espainiar asko garbitzea eta bildurgarri bihurtzea: beltzak, hankokerrak, mulatoak, zuriak, dena zen ona, adorez burrukatzekotan; ezin zen inor diruz saritu, egon ere ez baitzegoen; graduak ematea zegoen bakarrik sua mantentzeko, azainak saritzeko eta adorea kintzeko: honela kasta guztietako jendea dago gaurgure jeneralen, buruen eta ofizialen artean, eta hoietariko gehienek ez dute beste meritua pertsonalik basa adore guztiz material hura baizik, Errepublikari hain onuragarri izan zaiona eta gaur, bake denboran, ordenu eta lasaitasunaren oztopo gertatzen dena. Baina beharreko gaitza izan zen”. BUC. 216.

Ez Bolibarren egintzetan ez idazkietan dago herrikeriarik, erregiokeriarik, naziokeriarik eta are gutiago familiakeriarik; ez zuen bere ahaiderik bat ere goratu; lehenago gogoratu genituen haren haren esakera biribilak Bucaramangan; bai, ordea, behar zenean, gogortasunik akasgabeena. 1927-ko apirillean, Paezi idatzi zion: “Joan den astean Caracasek justizi egintza bat ikusi du, moral publikoari eta legea denentzat berdina dela frogatzeari asko lagundu diona, zeren haren pisua nire senideek ere beragatik saiatzen ziren batengan erori baitzen; baina ni, neure izaerara itzulirik, urrikgabea izan nintzen” II-89. Bere iloba Anacleto Clementeri aparteko laztasunez agiraka egiten dio: “Ez al dizu lotsarik ematen lautar gizaixo batzu, heziera gabe, hura lortzeko modurik gabe, gerrilaz beste eskolarik eduki ez dutenak, zaldun egin direla ikusteak, on gizon bilakatu direla; ni errespetatzeagatik bakarrik beren buruak errespetatzen ikasi dutela? Ez al dizu lotsarik ematen, berdiot, zu nire iloba izanik, moralik zorrotzeneko emakumea amatzat edukirik, aberriaz beste familiarik ez duen hainbeste gerrilero gizaixo baino beherago zaudela pentsatzeak?” I-1342. Bere inmobile interesi buruz, txit argi idatzi zion bere ahizpa Maria Antoniari: “Ez dut nahi neure eskubideen mugarik gainezterik, zenbat eta gorago nagoen, hestua-goak baitira. Zorteak boterearen gailurrean jarri nau; baina ez dut hiritar soilarenak beste eskubiderik euki nahi; egin bedi justizia

eta hauxe eman bekit baldin badaukat. Ez badaukat, hauzitegien epaia lasai hartuko dut”. I-1073.

Perun Europara ikastera bidaltzeko hamar gazteren hautapena gomendatzean, hautakeran justizia, zuzentasuna eta berdintasuna erremarkatzen ditu: “Hamar gazteok, lau Limako Departamentuan hartu behar dira, bi Trujillokoan, bi Cuzcokoan eta bi Arequipakoan” O’L II-344. Konpenetraperen eta elkarpen berdinkoien asmo berak daruma muga zaharrak kentzea pentsatzeraino; behin Paezi diotsa: “Esatea ahantzi nintzaizun Boyaca, Zulia eta Barinasko departamentuetako bi edo hiru erdi, bat egitea pentsatu dugula, gehiago ez dadin Venezuelako ez Nueva Granadako mugarik egon; zeren banaketa hauxe baita gu hiltzen ari dena eta, beraz, hautsi egin behar dugu” II-455.

AURRERAPENA DENBORAN

Bolibarren presentzia Amerikako gizarte koadruan ez da justiziaz balietsia izan. Benetan ere ausarta eta modernoa izan zen haren pentsakera kolektibo, zinki iraultzailearen eragina. Bolibarren barruan, iraultzak Amerika laster Europak biziko zuen ordu sozialaren parte jarri nahi zuen; zentzu honetan, sobera gainezkatzen du kontinenteko hesparrua, eta venezuelarra eta amerikarra baino areago hark gidatzen duen iraultza Gizateria osokoa da. Konparazioak ondo esankorrak dira; mundu zaharrea bakoizkeria liberala finkatzen den bitartean, Bolibarren berrian justizia eta zuzentasun efektiboak ezartzea bilatzen du, egiazko berdintasuna bultzatzen eta zapalduen benetako erreibindikapena aditzen. Ingalaterrak “kontratu askatasuna” ezartzen duenean (1813 eta 1814-tik gora), diruz makalak babesgabe utzirik eta komunitatean eskusartzea ukaturik, Bolibarrek hispanoamerikar mugimendu iraultzaileari bere garrantzia kolektibo guztia ematen dihardu; honelako gauzak aipatzen ditu: “Goren askatasun soziala”, “segurantzaz soziala”, “garantzia sozialak” eta “eskubide sozialak”. European 1791-tik gorpuzioak kentzea eta hauk berjartzeko edozein ahalegin zigortzea bide zela, XIX garren mendearen hasieran lan kondizioei buruz ez zen aplikatzen inolako araurik, ez legezkorik, ez gorpuzitiborik ez konbentzionalik. Han, horregatik industriako proletalgori sorberriaren egoera erromar esklabuena eta Erdi Haroko morroiena bai-

no okerragoa zenean —egoera jasanezina 1825-tik 35-ra—, Bolibar Amerikan indioen lanerako legegiten ari zen arau argiro interbentzionistaz eta babeskorrez, eta hauk ez ziren gizatasunaren agerpen soil eta mehatz batzu bakarrik, duinketa kultural eta politikoaren hari koherentearen zati kalifikatua baizik. Europako jomuga askatasun indibidual ametzezkoa zenean, eta gizarte osoak, edo edozein elkarte moduk, hautamena mozten eta Gizonaren eta Hiritarren Eskubideak ukatzen zituela uste zenean, han Estatuak tramankulu despotiko zaharkitu gisa desagertu egin behar zuela uste zenean, honela haro presozial gisako batetara itzulirik, non homo homini lupus birragertuko eta indartsua nagusituko baitzen, Bolibarrek —hain zuzen jadanik aipaturiko oinarritik irtenik, alegia, “ez dagoela herriari buruz ezer Exekutiboaren ahultasuna bezain arriskugarririk” II-1146— lanean ziharduen errejimen errepublikar tinko, zentralkoi, demokratiko eta zibilaren alde, “gizarte osoari bere bizi arnasa komunika diezaiokeen sistema sendo bat” I-1404.

Jokabide bitzuok, Bolibarrek zeraman aurreratua eta talde tradizionalisten atzerakoaia, aurrez aurre zeuden Colombian. Batzuk Estatuarekin klase pribilejiatuaren tresna, beren interesen zerbitzari mantsoa egin nahi zuten, eta besteek, ordea, benetako demokrazia nahirik, hura organismo soberanoa eta ekilea egiten saiatu ziren, gehiengo lumatuen aldeko justiziarako eta berrikuntza sozioekonomiko sakonerako.

Bidea argi zegoen eta ez zegoen huts egiterik. Bolibarrek, azkenerarte, burugogorki zintzo jarraitu zion bere erantzukizunari eta berak markaturiko politikari. Caracasen azkenengoz egon zenean, 1821-ko manumisio legearen kumplimendua arakatu zuen. Hark aginduriko ikerketa ofizialak agertu zuen hainbeste mila esklabutarik hirurehundik behera askatuak izan zirela errepublika handian 1821-tik 1826-ra. Trikimailua konprobatutakoan, Bolibarrek bortizki ihardetsi zuen 1827-ko ekaina 28-ko Caracasko dekretuarekin: manumisioko hondoetan agertzen den zer gutzia “urtebeteren barruan kobratu behar da”; bizkortasun eta efikazia gehiagorako, aurrerantzean Barne Errentetako administradoreek bilduko dute zerga. Ab intestato eta oinordeko legezkorik gabe hiltzen direnen likidoa ere helburu berera destinatuko da oso osorik. Gainera esplizituki izendatzen dira esklabuaren eskubideak janari, medizina, jantzi eta

lojeameendurako, eta zahar manumisoen babeskundera. Zerga, aurre-rantzean, testatzailearen heriotzatik urtebete barruan kitatu behar-ko da. Arau hauk desbetetzen dituzten funtzionarietzat zigor zo-rrotzak daude. DL. II-345.

Jokabide argi honen beste frogarik behar balitz, “Diktadurak” laster eman zizkion aparteko botereak. Hauk hartu eta hiru egu- netara bakarrik, dekretu bat promulgatu zuen instrukzio zehatz, urjente eta azkarrez Batzorde manumisoreak martxan jartzeko “de- kretu honen argitarapenetik zortzi egunen barruan” antolatuko zi- relarik eta “kantoi bakoitzean gutienez astean sesio bat edukiko dute”; kunplimenduaren erantzule kantoiko Buruzagi Politikoa egiten zen eta honen faltan Udaleko lehen Alkatea. DL. III-86. Bolibarren iraultzaitasunak, funtsean, ez du ezer galtzen diktadu- raldi labur eta zalapartatsu honetan. Guztiz bestera. Bolibarrek zorrotzu eta sakondu egiten du. Ez du bere hari nagusietarik bat ere mozten, ez negoziatzen ez atzerantz botatzen. Izan ere, haren jarrera antiesklabuzale, berdinkoi eta zintzo txit argia bere berean geratzen da eta expresuki berretsirik; haren erabaki zabala bertako- en alde orain argiagoa da; halaber haren jarrera haren erabaki zabala bertakoen alde orain argiagoa da; halaber haren jarrera co- lombiazalea eta kontinental, hau da, batasunaren alde; berdin ha- ren insistentzia etikan; helburu guzti hauk garai zail honetako de- kretuz eta egintzaz indarturik uzten ditu.

Bertakoen gizarte arazoa bereziki begiraturik, Diktaduran 1828-ko urriak 15-ko dekretu garrantzitsua promulgatzen du, his- torilari tradizionalak hain gaizki interpretatua. Egintza horretan oker oinarriturik, indioen gaineko zerga pertsonalaren birrezarpe- na bizkarreratu zaio Askatzaileari. Egia esateko, orduan Bolibarrek, oso gutitan intentatu zen bezala, Estatuaren sostenguan parte har- tzeko eginbeharra dagokien “hiritar guztiekin” aitortzen du nola bertakoen egoera hobetu beharrean “haien beharrak okertu eta as- tundu egin diren”. Aberriaren aitaren dekretu honek zenbait agin- du dauzka, denak colombiar baztertuen alde. Haien miseria leun- tzen saiatzen da. Harmadako zerbitzu guztietatik libratzen dira —bolondreski azaltzen ez badira— “parroki eskubideetatik eta beste edonolako zerga nazional guztietatik libre” deklaritzen dira; alkabala ordaindu beharra kentzen zaie; “ez diete inolako eskubi- derik kenduko tribunalek eta hauzitegi sekular eta eliztarrek”. 17

garren artikuluan Bolibarren manu jadanik ezagun bat zabaltzen eta berresten du: “Ezein pertsonak ezin izango ditu bertakoak ezein zerbitzutara destinatu herriko ohituraren arabera behar den alokairurik ordaindu gabe”. Justizi gorteetako fiskala edo fiskalak izango dira “bertakoen zaindari jeneralak” eta beste zenbait atribuzioaren artean zera bultzatzea dagokieke “eskuhar dituzten medio guztiekin, bertakoen seme-alaben hazkuntzarako eskola egitea, eta gurasoei haurrak eskolara ahalik sarrien bidal eraziko diete. Apezek eta zaindarien mediorik leunenekin bertakoak kinatuko dituzte gordekinetatik soberatzen den lur zati nahiko bat elkarrekin lantzerantz hango produktuak hain zuzen bertakoen onerako inbertitzeko” DL. III-171 eta hh.

Bolibarren jokabide iraultzailea arras argia, tinkoa eta segurua da berdintasunaren alde, “gure matxinadako egun aintzatsutik gorako oinarri nagusia” II-1105. Ez zion inoiz bere Askatzaile tituluari hobeki erantzun berdintasun zintzoaren atxikidura bizi eta aldagabe honetan baino. Iraultzak haren ahotik, prometatzen duen gizartea ez da “konstituzio oinarrietan eskubideen berdintasun orokorra eta justizi araua dituen besterik, inoiz jatorrira edo aberastasunera makurtzen ez dena, beti birtutearen eta merituaren alde baizik” II-1007.

Historiarako Bolibar Amerikako lehen buruzagitzat geratuko da berdintasunaren, “legeen legearen” aldeko burrukan II-1226.

AHALEGIN ETA ARIKETA KULTURALA

Lan honetako zati zentraleko esan guztien eta bakoitzaren birtartez, aztertzen ari izan gara Bolibarren idealaren errealizaziotzat jo daitezkeenak gure herrien independentzia efektiboaren alde —demokrazia, justizia, berdintasuna, batasuna—, zeintzuri beren alderdi funtsezko guztietan begiratzen baitzien. Saldo programatikoko hori, era batera, bere ahalegin, bere izpiritu eta bere jeinuaren ekarria da, kontinenteko batasun eta solidaritasunaren alde. Bolibarren heldulekua gure kide-tasun moral eta materiala da beti; horregatik amerikar komunitaterik tiki-en eta kaxkarrenerako erabakitzen edo pentsatzen zuen guztia denoi dagokigun hemisferio osorako pentsatzen zuen: Komeni da esatea inoiz ahan-tzi behar ez dena: Bolibarrentzat” “Aberria Amerika da” II-1072, hau da, Hispanoamerika; Caracas kutunetik hasten du bere maitasun kontinentalaren jira. Venezuelatik, Colombiatik, Ecuador, Panama, Peru eta Bolibiatik, hala hiri nagusietatik nola hain eskenategi hedatsuan zeharreko herrirka koxkorretatik, Colonen mundu guztira proiektatzen du beregan hainbeste koherentziaz eta organikotasunez haragitzen den presentzia iraultzailea.

Kontinentearen batasuna eta solidaritasuna ezin zitekeen, Bolibarren ustez, Amerikaren aurreramendu edo transformazio funtsezkoaren dinamika gainean baizik oinarritu, hau da, Amerikaren eraikuntza sortzailean, honela baitzeritzan orduan desarroiloari.

Ikusi dugu, azterketa zehatzez, nola Bolibarrek Amerikako Iraultza ulertzen eta bultzatzen duen enpresa serio eta tinko, es-
trukturatu eta oso gisa, era batera bost bidetatik eta bakoitzetik
helburu konbergenteekin abiatuko dena. Arlo politikoan eman-
tzipazioa dago, hispaniar monarkiarekiko lotura politikoen haus-
pen erradikala; entitate berri handi baten sorrera; demokraziaren
ezarpena; askatasunaren aitormena eta gozamina. Arlo ekonomi-
koan, esklabutzako nekazal sistemaren diru errejimenari dagokion
alokatua jarri nahi du; jo eta ke dihardu ondasun banaketako jus-
tziaren alde; independentzia ekonomikora jotzen du langileei lu-
rraren banaketa bidez, hau da, produkzio bideak beren egiazko
agentei eskuratu; eta aurreramendu materialera jotzen du gi-
zartean ente pasibo bat izango ez den Estatu baten bidez; mea
ondasunen nazionalmenduaz ere arduratzen da. Gizarte arloan
—zer ekonomikoari batera eta banaezinki lotuan— berdintasun
orokorra aldarrikatzen du, esklabutzaren abolipena, pribilegioen de-
rogapena; helburua giza duintasuna erreibindikatzeko da, gizarte
diferentziak kentzea; beltzak askatu, indioak salbatu, mestizoen
eta nabarren gorapenera jo; aukera berdintasuna denentzat. Zer
juridikoan eta nazioartekoan, haren ekintza iraultzaileak Amerikar
Zuzenbidea gihartzen du, oinarri printzipio legezkoen prestakuntza
eta defentsa gure herrien harremanak arautzeko kontinenteko ko-
munitateaz barru eta kanpo; berak markatzen du bidea eta ame-
rikar herrien batzarrea lehenengoz biltzen; batasun juridiko eta
hedatsu baten sor nukleoa ezartzen du.

Kultur eta histori arloan, Bolibar herriaren hezkuntzaren alde
saiatzen da bete betean; honela moralaren nagusitasuna finkatzen
zela uste zuen, birtutea gizarte bizitzako arau gidari eta etenga-
beko ariketara, jasotzen, arima berri bat lortzen, gure zibilizazioko
goren printzipio etikoen gainean sendoki altxatua. Bolibarrek al-
darrikatzen eta zerbitzatzen zuen iraultzak kontinente batasun be-
rri, neurrigabe eta aberats bati bidea eman behar zion, dena mun-
duko eskenarantz, nazioarteko justizi, bake eta armoni programa
batez, bere esistentzia jatorraren eta bere benetako destinoaren
kontzientzia propioz.

Bolibarren ariketa eta kultur lehia hobeki ezagutzeko, azter
dezagun Amerikako egoera korrelatiboa, arlo espezifiko honetan,
hura altxatzen den garaian. Atzerakuntza nagusi zen. Metropolia

bera ez zen inor Europako munduan; intrantsigentzia eta fanatismo teokratikoz bere baitan hertsirik, ez zuen parterik hartu erreformismo libreko girotik zetorren industria aurreramenduan. Espainiak aldakuntza erlijiosoari kontraerreformaz eta inkisizioz erantzun zion. Artean izan ezik, Espainiako kultura atzera geratu zen; zientzian haren gutiagotasuna nabaria zen. Amerikako unibertsitate etxerik famatuenek ez zeukaten, kolonikuntza barruan, penintsulako egoera jadanik berez atzeraturik gainditzetik. Bestalde, Espainiak ez zituen Amerikan bere kultur fruituak berdinki banatu; haren preferentzia —bidezko zenez— kolonia aberatsen alde zen nabarmenki. Venezuela eskalan azkenetarikoa zen. Cacarasek 1725-n eduki zuen unibertsitatea, eta inprimategia 1808-n; berehun urte baino gehiago zen izpirituaren bide bata eta bestea gure hemisferiora etorri zirela.

Espainiako kultur politikaren berezgarri gisa, zentsura, bildur eta pentsamendu hestuko arau zorrotzetara makurtu beharra zegoen. Ofizio Sainduari zegokion liburuen, jeneralki, sarrera, zirkulapen eta erabilerarako pasa ematea. Kondenaturik zeuden dogma katolikoaren kontrako proposiziorik zeramaten liburuak, edo ahalkea edo ohitura onak iraintzen zituztenak, edo monarkiari zor ziztaion begiramendua edo legeari eduki beharra zegoen errespetoa gutitzera zihoazenak. XVIII garren mendearen azkenetan araua zen Aurkibide Garbitzailean, Inkisizioak 5.420 bat autore debekatu zeuzkan, eta Jainkoak jakin beste zenbat obra izengabe.

Kontinentearen gaineko kontrol honen zorrotzasuna errejimen absolutistak bere polizi eta burokrazi aparatua hobetu ahala hazi zen.

Koroak aparteko ardura zeukan Amerikari buruzko obrekin; Indietako Kontseiluaren onespena derrigorra zen halako liburuak Mundu Berrira helduko baziren. Inork ez zitzakeen edita, eduki ez sal organismo horren alde zureko azterketa gabe.

Esaniko mozketak eta guzti ere, Amerikan liburutegi inportanteak egin ziren. Bolibartarren etxean bertan ere liburu pila dezentea zegoen.

Katolikotasun hertsizko pentsakerak Espainiako zoko guztiak harrapaturik zeuzkan. Venezuelako koloni kulturaren barruan, Amerika guztian bezala, erlijioaren presentzia zen ardatz eta arrazoi nagusia hala hezkuntzan, nola filosofian, pinturan —Trentoko

Kontzilioko arauk esplikatzen dute biluziaren ausentzia— baita arkitekturari, musikan, antzerkian eta letretan ere.

HAIN ARDURA BIZIA ETA INDARTSUA

Ezetz jeneraleko kultur panorama horrexen aurrez altxatzen da Bolibar; gogotan eduki beste behin gehiagotan, hura bere bokazio herrikoi eta iraultzaileak definitzen duela. Haren burruka ez bere orainari ez geroari komeni zitzaion egoera nahasia apurtzea zen bere agerpen guztietan. Eta estrukturak hausten ez ezik, etorkizuneko gizarteari komenien zitzaizkionak eraikitzen lan egin zuen. Horregatik, haren ekintza, itxuraz desordenatu samarra bazen ere eta lau bosturtetan zehar Europako hogeit hamar herri batera bezalako azaleran zabaldu behar bazuen ere, ekintza planifikatua, elkartua eta baterakoa da zer sozialeko arlo guztietan. Bolibarrek ordenu berri bat ezarri nahi zuen, horregatik helburu horretarako balio zuen guztiari begiratzen zion; angelu desberdinetatik bere asmo zintzo eta ederraren onera zetozen faktore guztiei, bat ere baztertu gabe, begia jarri zien.

Beharrik ere Bolibarrek aparteko arreta jarri behar hezkuntzari. Prozesu honetan, gizateriaren umegintza izpiritual gisa definitua izan den honetan, Askatzaileak balanka beharrezko eta sine qua non bat aurkitu behar mundu berri bat egiteko. Haurren eta gazteen arimetan eta kontzientzietan lan eginez bakarrik erein daitezke efektiboki etorkizun diferentearen hasiak.

Hiru problema saili jarri zion Askatzaileak arreta zehatza eta lehenengoa: gerrakoak, diplomatikoak eta hezkuntzakoak. Ez zion beste ezein arazo motari hain ardura iraukor eta arretatsurik eskaini. Zer honen arrazoia galdatzekotan, arlo guzti hauen artean funtsezko erlazio bat dagoela atera behar, erantzukizun beraren eta eginbehar beraren alderdi osagarri gisa: askatu. Zaldi perretarako iltzeetatik Aliantza Sainduaren mehatxuen kontrako estrategia kontinentaleraino, haurrei irakurtzen edo aberri harmadako ofiziale menditarrei mahaian jaten irakasteko modutik unibertsitate erreformaraino; ereduak laboratsetik eta bere Amerikako diplomatiko berriak kortesian eskolatsetik batasun kontinentalaren doktrina eta ariketaraino, eta are gehiago, sistema berri unibertsal baten ideia-

raino; den dena esaniko hiru arloetan Bolibarrek hautemanik eta begiraturik gao.

Honela buruzagiak hiru mementutako eginbeharrari erantzuten zion. Lehenengoa, Amerika librearen eraketa konkretua; gerra askatzailea: planak eta guduak, logistika eta harmamenduak, aginte sailak, soldaduak, ofizialeak, tropak, legionarioak. Bigarrena, be-launaldi berrien prestakuntza bizitza berrirako: hezkuntza, lehen mailako irakaskuntza, modernoa eta herritarra, erarik desberdine-neko eskolak sortu, letrak eta arteak babestu, zientziak kinatu, ideia pedagogikoak, unibertsitateak, Botere Moral baten proiektua, kulturaren nagusitasuna. Hirugarrena, bere amerikar aberri handia bere baitan eta munduarekin batzeko lokarriak berretsi eta sendotu: diplomazia: nazioarteko itunak eta kongresuak, solidarit-
tasun paktuetarako ideologia eta formulak; Colombiako batasuna; Amerikaren anfiktionia, Panamako Batzarrea, Andeetako batasuna, justizi eta bake programa mundial berria. Amerikako burrukan bake esperientzia gehitu ahala, Bolibarrek hezkuntzari damaion ardura ere gorantz doa. Areago oraindik, aldakuntz lanean propio-ki hasi aurretik, haren konbentzimendua argia eta sendoa zen; Joseph Lancaster hezlari ingeles handiak zehazki erregistratzen du historiarako: “Zutaz oroitzen naiz Caracasko diputatuei (zu zinen bat) hitzaldi bat emateko poza eduki nuenean, diseinu azalgarri batzu emanaz, Miranda jeneralaren gelan, Grafton Street-en Piccadilly, Londres, 1810-ko irailak 26 edo 27 aldera. Nire sistemak oso arreta bizia eta indartsua piztu zuen Londresen zeundenean” (35).

Bere bizitzaren erdi inguruan, gerra gerran ari zela, etikaren eta talentuaren balioa markatzen du eta Botere Moral oso baten nobedade harrigarria asmatzeraino heltzen da. 1828-n, Bogotako Unibertsitateko erretorearen aurrean promes egiten du: “Aurrerantzean ez dut ezertan ardura gehiago jarriko biziaren kimu hoi-
gidapenean, gure eskubide, gure askatasun eta gure independen-
tziaren oinordeko izango diren hiritar hoi-
gidapenean baino, ondasun bikain hoik kontserba ditzaten beren birtuteen eta beren zientzia eta eskolakuntzaren bidez. Gaurtik aurrera herrien eta

(35) *Bolívar y su época*, I t., 146 garren o.

hautako seme-alaben eskolakuntzara zuzenduko ditut pausoak” II-1264. Eta hil baino astebete aurrerago, bere testamentuan, gomuta adierazgarri eta maitakorra du Caracasko Unibertsitatearentzat.

ASKATASUNERAKO OINARRIA

Bolibarrek badaki esistentzia kolektiboa hezkuntzaren mende dagoela; hau gabe ez dago historiarik, ez mendeak zehar iraungo duen nazio fisonomiarik. Eskola, haien ustez, gizarte baten ezauzgarria da, aberriaren arragoa. “Ez du hiritar ona ez gizon zintzoa izaterik bere familia berea baino gehiago aberriarena dela ahantziarik, bere seme-alaben hezkuntza baztertzen duenak” O’L. XVI-141. Haren gobernu programan hezkuntzaren babes eta bultzada osoa goi mailan dago. Angosturako Kongresuaren aurrean ez zeukan dudarik: “Herriaren hezkuntzak kongresuaren maitasun aitakorren lehen ardura izan behar du” II-1150; Bolivian sei urte geroago dio: “Gobernuaren lehenengo eginbeharra herriari hezkuntza ematea da. Errepublikan baten osasuna hiritarrek haurtzaroen hezkuntzaren bidez hartzen duten moralaren pentzudan dago” BOL. I-432.

Joseph Lancaster-en Elkar Eskolen plana izan zen Bolibarrek lehen mailako ikaskuntzarako hautatu zuen sistema. Sistema hau, maisu bati ikaslerik aurreratuenen bitartez mila haurretaraino gidatzeko bidea ematen ziona, dudarik gabe gomendagarriena zen Amerikako errealitaterako, non ez baitzekoen pertsonal gaiturik eta finantza bideak oso urriak baitziren. Ez zegoen bide hoberik Colombiak zituen maisu apurren goren errendimendua lortzeko. Caracasko Udalarari oharpen eskutitzean Bolibarrek berriro goratzen du metodu hori, berak “lan miragarria” deitu ziona. Caracasko udalkideei gogarazten die nola, maisu ingelesak elkar irakaskuntzaren eskolak han jar zituzan, 20.000 peso eskuratu zizkion eta lur honetantxe geratzera animatu zuen promesaz eta balakuz; “baina hau sorpresa hartu dudana jakitean, jaun beronen informez, ihazko Udal Txit Argiak Caracasko gazteriarentzat hain ongarri zen plan bat zabaltzen lagundu beharrean hasieratik kontra egin diola” I-1282. Bolibarrek bortizki idazten du “oraindik sinetsi ezinik nagoen gehiegikeria baten kontra erreklamatzeko”, eta Udala ahol-

katzeko, Lancasterren eskolei kontra egin beharrean, “hartara beharturik dauden babes guztia eman diezaien talentuaren zabalkundera jotzen duten eta herriari hain zuzenki axola zaizkion eskolei” I-1282. Geroago Bolibarrek fede berau berretsiko du, deklaratu: “Neuk ezar erazi dut Lancasterren sistema Colombia guztian eta horrexek bakarrik egingo du geroko belaunaldia oraingoa baino askoz goragoa”, B. eta A. IX-324. 1825-ko urtarrilak 31-n Perun dekretatu zuen Departamentu bakoitzeko hiriburuan Lancasterren Eskola Normal bat jartzeko. Hezkuntz sistema honen babespen porrokatuan hain zuzen, Bolibarren iraultz pentsakeraren organiko-tasanaren froga bat gehiago ikusi behar da.

Ezagutza seguruz pozik onartzen du Hazelwood-ko, Ingalaterrako, eskolarako ikasteak hautatzeko gonbita, zeinen “hezkuntza praktikozko” plana Jeremias Benthamek izpiritua zabaltzeko onentzat gomendatzen baitio, II-16. Askatzailea sinetsirik dago, Amerikan Independentzia eta benetako kultur gairak aurrera eramango bada, derrigorrezkoa dela gure gazterik trebeenak munduko gaikuntz etxerik famatuenetan formatzea. Horretara doaz haren gomendio zehatzak Gobernu Kontseiluari, Liman, bekadunak Londredera bidaltzeari buruz, zuzenbidea, diplomazia eta administrazio publikoa ikas dezaten. Angosturako prebisioetan oso arduratsu ibili zen berak proposaturiko Senatu Heredagarriaren geroko osatzaileak hezteko sistemaren asmakuntzan; buruan dauka “tutore haik, Aberriko geroko legegileak, eskolatzera bereziki destinatuturiko kolegioa; gizon publiko baten izpiritua apaintzen duten arteak, zientziak eta letrak ikasiko zituzten; haurtzarotik jakingo zuten Probidentziak zer karreratarata destinatzen zituen, eta tiki tikitarik jasoko zuten arima zain dagokien duintasunera” II-1144. Ideia hauk zabalduz, ekiten zion: “Hezkuntzak gizon morala formatzen du, eta legegile bat formatzeko dudarik gabe moral, justizia eta legeetako eskolan hezi behar da”, I-442.

Bolibarrek hezkuntzaren alde diktaturiko neurrien testigantzak ugariak dira. Berrogei dekretu eta agindutatik gora, lekurik desberdinenetan diktatuak, hamarrurte lazgarri batetan zehar, arazo hain hedatsu eta nahasi horren alderdi guztiak ukitzen dituztenak. Hezkuntza ahaleginekoko hamar urte hoik 1816-ko irailak 17-tik —Bogotan umezurtz, kaxako eta pobreentzat eskola bat sortzeko agintzen duenean— 1829-ko abenduak 5 arte doaz —Po-

payanen promulgaturiko ikasketa plan berriaren data—. Gai honi buruzko haren lehen dekretuan, lehenengo kontsiderakizunak doktrina baten ernamuina dakar, bere karrerako ideia ardatza gisakoa: “Hezkuntza eta eskolakuntza publikoa zorion jeneralaren printzipiorik seguruen eta herrien askatasunaren oinarririk sendoena dira” O’L. XVI-464. Hezkuntzari buruzko bere azken dekretuan, horren azterketa zehatza egiten du Colombian; lehen mailako ikas-kuntzarako Eliza katolikoa hartzen du euskarri; beste adarrak eta batez ere unibertsitatekoa jorratzen ditu eta zenbait arau jeneral ematen kulturaren onerako.

Hezkuntz ekintzako hamarrurtean —1819-tik 29ra, berak administratzen zuen Amerikako eskenategi zabalean zehar— Bolibarrek garrantzia handiko neurri oso bariatuak hartzen ditu. Aita gabeko adingabeentzat eta bertan behera daudenentzat eskolak fundatzen ditu. Indioentzako plantelei eta maisuei buruz legeak egiten ditu, zehaztasun hau barne, alegia, bertakoei beste zenbait gauzaren artean irakasteko “gizonaren eta hiritarraren eskubideak eta eginbeharrak Colombian legeen arabera” DL. I-196. Irakaskuntza obligaziozko egiten du Perun; agintzen du “eskola edo kolegioren batetako ikasle dela frogatzeko txartelik gabe aurkitzen den edozein gazte, zigortzat zerbitzu publikorako edo harmatarako jaso dezatela”. Irakaskuntza femeninoaz ere sarritan arduratzen da; Cuzcon 1825-n, “neskatoen hezkuntza familietako oinarri moralala dela” usterik, plantel bat sortzea dekretatzen du, zéinetan hezkuntza hartzeko gai diren edonolako neskatoak onartuko baitira, hala hirikoak nola probintziakoak” B. eta A. X-41. Caracasen —1827n— “hezkuntza publikoko helburu nagusia neskatoena ondu ezik txit motz geratuko litzatekeela” ikusirik, etorkizuneko familia amen irakaskuntza bete betean bultzatzen du DL. II-343. Bolibian agintzen du “orain arte La Pazko Apezpikutegiarenak ziren Departamentu honetako parroketako apezpiku eskubideak zientzi eta arte kolegioren onera aplikatu daitezela” O’L. XXIII-293. Urubamban agintzen du “Recoletoen komentua, bere errenta eta guzti, irakaskuntza publikoko etxe bat egitera destina dadila, bertan probintzia honetako gazteriak bere geroko hezkuntzarako lehenengo ikaskaiak hartu ahal ditzan” O’L. XXIII-249. Behin baino sarriago kolegio pribatuak eta komentuek kolegio publiko egiten ditu. Sarri agintzen du zenbait ondasun nazional irakaskun-

tza jeneralaren bultzadarako errentatzeko. Lancaster eskolak ezarzen ditu Colombian, Perun eta Bolivian. Eskola nautiko bat fundatzen du Guayaquilen. Simon Rodriguez lagun zuela Perun zehar zihoanean, 1825 hain zuzen —kultur lehia hauetako urterik nabariena—, gai pedagogikorik desberdinenak ukitzen ditu. Chuquisaca dekretu garrantzitsuak diktatzen ditu; Departamenduko hiriburu bakoitzean lehen mailako eskola bat jarriko du sexu bitzuetako haurrentzat; Andeatako hirian bertan ere zientzien eta arteen eskola bat egongo da; gainera eskola militar bat eta apezgaitegi kolegioa Errepublikan guztiko ordenatuentzat izango da. Caracas-ko apezgaitegiak ere ardurantzen da 1827-n. Unibertsitateei, hala Bogotan, Trujillon, Arequipan, Quiton, etab. arretaz begiratzen zien. Ez zion haren ardurra biziari ezerk ihes egin.

HEZLARI EKINTZAILEA

Iharduten diharduen irakaslea balitz bezala, Bolibarrek ideia didaktiko eta pedagogiko oso desberdinak agertzen ditu, beste angelu batetatik haren nortasunaren koherentzia berezia berresten dutenak. Halako ezagutzaren iturriei buruz ikerketa bitxiak eta berriak daude. *El magisterio americano de Bolívar*, Luis B. Prieto F. pedagogo jakintsuaren obratik aurrera, tradizio luzea zuzentzen da: José Gil Fortoulengandik, mendearen hasieran, 1969 arte —Mancini Rousseauzale beroa eta hospetsua tarketo delagai hauk landu dituzten gehientzat, Bolivar batez ere Rousseauen hildo ideologikoetan elikatu zen. Prieto Figueroa maisuak betiko argitzen du hauzia, eta ez oinarri gabeko jeneralkeriekin ez axo-lagabeko azalkeriekin, orain erraz konprobatzeko moduko zehaztasun zientifiko zorrotzez baizik, zeinek baieztatu erazten baitio Bolibar —gai honetan— inorengandik urrun egotekotan hain zuzen bere irakasle usteko ginebrarrarengatik dagoela. Askatzailearen inspiratzaileak hezkuntz arloan azkenerako identifikaturik eta dokumentaturik daude: Diderot, Condorcet, Helvecio, Vives, La Chalotais...

Bolibarren garaikoek eta lagunak ere eragin zioten haren hezkuntz pentsamenduari. Simon Rodriguez, haren maisua bera, zinetaz Bolibarrek esan baitzuen: “Zeinen kontseiluak eta kontsolamenduak hain errespatagarri izan baitzaizkit beti”, I-21, eta Jose

Rafael Revenga haren adiktoa eta Jose Maira Vargas doktore, han daude presente Bolibarren egintza, idazki eta pentsamendu pedagogikoetan. Rodriguez Bolibarrekin zegoen Perun 1825-n, eta urte honetantxe idatzia izan zen Askatzaileak paperetan editaturik ageri den “Eskolakuntza Politikoari” buruzko kazeta artikuluaen borradorea. 1825-koa da Fernando Bolibarren, orduan Estatu Batuetan ikasle zenaren, hezkuntzarako bozeto metodologikoa ere.

Askatzaileak eskolaren eta maisuaren eritzi gizakoia zeukan; maisuak ez du zertan eruditua izan, baina bai gizon ikasia. Eskolak haurren kezka, atsegin eta baita jolasen ere etxea izan behar du. “Haurrari goazen eskolara edo goazen maisua ikustera esatea, goazen presondegira edo goazen etsaiarengana esatea bezala zen” garai hura kantzelatu egin behar da. II-1292. Eskolako lanaren sariari buruz dio: “Sari eta zigor moralek arrazoidun tikien kinarri izan behar dute; zorrozkeriak eta zartailuak, abereena. Sistema honek izpiritua gorakada dakar, nobletasuna eta duintasuna sentimenduetan, dezentzia egintzetan. Neurri handiz laguntzen du gizonaren morala formatzera, haren baitan altxor estimaezin hori sortuz, zeinen bidez, zuzen, eskuzabal, gizakor, esangin, neurtu, hitz batez, onerako gizon egiten baita” II-1293.

Perspektibismo zoli baten barruan, ez du inoiz eskolaren gizarte dimentsiorik bistatik galdu; eskolak eskabide kolektiboetara egokitu behar du, ez daiteke berdina izan herri guztietarako ez garai guztietarako; ez eta gizaki guztientzat berdina ere, “bere adin, joera, jeinu eta izaerari dagokiona izan behar du beti” II-1295.

Eskolari berea duen kultur formazioarekin, eta etiko-erlijioso eta zibikoarekin batera, beste eginkizun batzu izendatzen dizkio, xumeak eta modestoak baina ez gutiago garrantzitsuak: urbanitatea, txukuntasuna, prosodia; haur haurretarik demokrazi praktikak nahi ditu: hurrek berek hautatu behar dituzte lagunik meritutsuenak beren klasezaintzat. Irakurtzen irakasteko, letrak ikasitakoan, hitzen irakurketara pasatzea gomendatzen du, “letrakatu gabe”, II-1294; letraketa metodu zaila eta ezpraktikoa dela dio. Jolasketaz ere arduratzen da: “Jolasak eta atsedenaldira janaria bezain beharrezkoak zaizkio haurrari; haren egoera fisiko eta moralak hala eskatzen du” II-1295.

Baditu beste prezeptu batzu: hizkuntza hilak, biziak ondo ja-

kindakoan ikasi behar direla. Halaber historia ikasten garaikotik hasi behar da pixkanaka alegiaraino iristeko, II-1295. Era berean buru ahalmen guztien lanketa armonikoa eskatzen du; haur memoritsuari ulerterazi egin behar zaio eta buruz ernai denari memorikuntz probak eragin; “hala memoria nola kalkulamena ihardunez indartzekoak dira” II-1296. Matematiketara tresna bat ikusten du “logikaz pentsatzen eta arrazonatzen ikasteko” II-1296.

Nortasun sendoak baina apainak lortzeko ahaleginez, birtutearen eta zientziaren gehigarri gisa gizarte bakoitzaren praktika jartzen du. Iraultzaile izatea lehorra eta zakarra dela uste dutenen kontra, Bolibarrek gazte errepublikarrentzat zaldunen printzipioak eta moldeak defendatzen ditu; “ohitura onen edo usuario sozialen irakaskuntza eskolakuntza bera baino funtsezkoagoa da” II-1296; ikasleei inspiratu behar zaie “sexu ederrak bere eragin ongarrria duen gizarte kultoaren atsegina; eta adin, jakituri eta gizarte posizioko gizonen errespetoa. Horrek egiten du gazteria maitagarri, etorkizunaren esperantzetara ekarririk” II-1297.

Bolibarrek ez du hezkuntz arlo honetan xehetasunik ere galdu nahi; dena hartu nahi du, orotasunari begiratu eta era batera, ertz bakoitza, baita tikiena ere. Haren eginkizun askatzailea maisu osoaren fenomenoaren alderdirik bat ere baztertzen ez duen amerikar hezkuntza politikoaren haslearen eginkizunarekin lotzen da. Denen gainetik, bere ahaleginaren errepika gisa, funtsaren ardura nabari zaio, formulismoaren eta azalckerien arbuioa.

Angosturan proposaturiko Botere Moralak bi ganbara zituen: bata Moralekoa eta bestea Hezkuntzakoa; gorputz honen atribuzioetan honelakoak daude; ohituren zaintza, birtutearen saria eta bizioaren zigorra; “famili ama guztiek ulertzeko moduko” arau errazen propaganda haurren lehen urteetako hezkuntzarako, jakintsuei kinada hezkuntzari buruzko obrak argitara ditzaten “gure usuario, ohitura eta gobernuaren arabera”, “gizon arduratsuek, ikasiak eta eskuzabalak” komisionatu ibil daitezten, “mundu guztian zehar azter dezaten eta gai honi buruzko ezakutza klase guztiak bil ditzaten”. Are ikusmen zabalagoa du oraindik, “gure oraingo kolegioak hezkuntza arlo handi batetarako balio gabeak direla” jakinik, zera proposatzen duenean, alegia, “Ganbarak oso ardura berezia eduki dezala Errepublika guztian behar direnak delineaatzeko eta egin eratzeko”; horretarako faktore guztiak kontutan

hartu beharko dira: nola, non eta zenbat establezimendu egin, lekuaren dotoretasuna, higieña, erosotasuna eta abantailak haurren kontzentramendurako, lurraren osasungarritasuna, etab (36).

Haren programa lerro laburretan maisuari begira dago —prozesu guztiaren giltza—: “Giza bihotza ezagutzen eta artez gidatzen dakien jeinudun gizona; sistema erraza eta metodo argia eta naturala, horra gizarteak egun gutitan aurreramendu itzelak eta distiratsuak egin ahal izateko bide efikazak. Beharkizun hauk gabe alferrik pilatuko dira prezeptuak eta lanak: traba eta nahaspila izango da dena” II-1295.

Bolibarrek maisuei gorespenik handienak egiten dizkie. Bere soldaduak adinako gizon grinaz maite ditu. “Gizonak egin lezakeenik ederrena bere gizakideei irakastea da” II-133. Hauxe da lan kreatzailerik kreatzaileena, benetan hutsetik eraikitzen duena, hitzez eta exenpluz jasotzen eta edifikatzen duena. “Gizon eskuzabal eta Aberriaren maitale hori, bere atsedena eta bere askatasuna sakrifikatuz, Estatuan hura defendatzeko, bikaintzeko, santifikatzeko, edertzeko, eta beste batzu bera bezain duinak hari sortzeko moduko Hiritarrak kretzeko ihardun neketsuan ari den hori, dudarik gabe Aberriaren benemertua da: herriaren benerezioa eta gobernuaren estimua merezi du. Honek esportzatu eta bereizpen ohoragarriak eman behar dizkio” II-1292.

Bide beretik Bolibarrek etengabeko omena demaie intelektualei. Herrien berriztapen etikorako literatuen estimua egokitzen jotzen du; hauek zientifikoekin, artistekin, hezlariekin, Aberriaren irudi morala lantzen dute. Zientifikoak haren ustez nazioaren errealitate fisikoaren benetako aurkitzaileak dira, Estatuak lagundu egin behar die, II-133, I-1312, I-367. Positibismoaren agerpen eta goraldia baino nahikoa lehenago, Bolibar zientziaren aldeko porrokatua da. Askatasunaren aliatu beharrezkotzat jotzen du; hura lantzea beharrezkoa da gizonak bere eskubideen ezagutza ukan dezan eta bindikatzeko gauza izan dadin, II-16. Zientzia harentzat mundu gorporaleko lau potentzietarik bat da —adore, aberastasun eta birtuteekin batera— I-1130; hura haren ustez, botere iturri efektiboa da, I-162. Europarrak etortzera gonbidatzen ditu Ame-

(36) Ikus, Botere Moralaren proiektua, *El Libertador y la Constitución de Angostura de 1819*, 197 garren o.

rikaren eraikuntzara beren zientziak ekar ditzaten. Bere garaiko intelektual hospetsuekin elkartruke aktiboa darabil. Gobernari gisa abegitsu hartzen ditu ikertzaileak eta jakintsuak, denei irekitzen dizkie Colombiako atea. Badira esker eskutitzak Bolibarrentzat Frantziako Natur Historiako Museotik, anitz pertsonalitatearenak, hala Eric Bollman zientifiko alemanarenak, irlandar J. Barclay Penthland azterlari eta geografoarenak, zein Perun eta Bolivian gobernu hauen laguntza osoz egon baitzen. Fosilak, bertakoen erlikiak, botanik motak eta datorik bariatuenak eskatzen zizkieten Askatzaileari. Espezialitate eta herri desberdinetako idazleek eta zientzi autoritateek beren obrak bidaltzen zizkieten eta harekin postatrukea edukitzen. Historilariak eta geografoak beren ikerketen berri ematen diote. Parisko “Louis le Grand” Lizeoko irakasleek Matematika eta Fisikako Akademia bat Colombia fundatzea proposatzen diote. Pintoreak, editoreak, kazetariak, politikoak, denak arduratzen dira hari eskerrak Amerikan jaiotzen ari den errepublika zibilizatuaz.

ESTATUAREN EGINKIZUNA

Herkuntz arloak froga berri bat ematen du Bolibar zer distantzia handitara dagoen ikusteko defentsa, polizi eta justizi arazoaz beste guztiari uko egiten zaion Estatu liberalaren politik pentsakera sinplistik. Laissez faire horren barruan hezkuntza partikularren eskuan uzten da; Bolibarrentzat hori ez da bidea. Estatu da “hezkuntza publikoa ezartzen eta gidatzen duen” entea, II-1290. 1820-ko ekainean, El Rosarion deklaraziorik enfatikoena egiten du honetaz: Estatuaren lehentasuna adar honetan, eta behar den orientazio eta planen uniformetasuna, hau da, “Errepublikan dauden ikaste eta hezkuntz patronatu, zuzendaritza eta gobernuaren Gobernuari dagokio, nolana hikoia izan dela haien ezarkera”. Artikulu honetan espresuki sartzen dira “Errepublika guztian zehar dauden kolegio apeztegiak, zeintzutako buru, erretore, maisu, eta gainerako enplegatuak gobernuaren mende egongo baitira eta hark izendatuak” DL. I-205. Urtebete lehenago, Angosturan, Botere Moralaren proiektuan Hezkuntza Ganbarari “exklusiboki” izendatzen dio: “Lehen mailako eskolak, hala mutikoenak nola neskatoenak, ezarri, antolatu eta zuzendu”. Estatuak ez dauka —haren

ustez— gizartearen erakuntza eramaterik ez entregatzerik, ez eta dagozkion erantzukizun handiak inola ere lagatzerik. Gizartea neurri handi batez bere eskolak eta bere maisuek nahi dutena da.

Irakaskuntza sistema sozialaren barruan ondo egokitzen denean, garaipen iraunkorra lortzen du; bere zirkunstantziarekin muturka hasten denean, ordea, ez dago haren lanaren ondoriorik somatzerik. “Nazioa jakintsua, birtutetsuna, gudaria izango da haren hezkuntzako printzipioak jakintsuak, birtutetsuak eta militarak badira: tentela, sineskeritsua, maritxua eta fanatikoa izango da oker hauen eskolan hezten badute. Horregatik, gizarte ikasiek beren erakunde politikoen oinarri artean hezkuntza jarri dute beti” II-1290.

Askatzaileak irakaskuntzaren dohaintasun printzipiorantz ere jotzen du, gure garaion eta demokrazia barruan, dudarik gabeko prezeptua dena. Estatuari dagokio hezkuntz gastuak ordaintzea, lagun guztiei aukera berdina ematea, kultur iturriak hauen eskumende jartzea. Cuzcon zerga eskasiagatik, hiritar modutsuen alabek eskola nazionalen institutoko hondoak gehitzen laguntzeko agindu beharra eduki zuen, B. eta A. X-41. Hezkuntzara izendaturiko errenta zimelak apur bat gizentzeko helburu berdinez eliz sarrera batzu hartzen ditu; aintzinako komentuen edificioak ere helburu horretaraxe destinatzen dira: Perun zehar egin zuen bisitak asmo hau betetzen du; bideko herri guztietan Hazienda Nazionala konpon, propietateak administrazio onean jar eta kultura bultzatzen du, O’L. XXIII-171. Bolivian, haren ahaleginez, “aurrerantzean administrazio publikoko beste adar batzuren konponketan egin daitezkeen aurrezki guztiak hezkuntzaren alde jartzera konprometatzen da” BOL. I-433.

UNIBERTSITATEAREN ARDURA

Unibertsitaria izan gabe, Askatzaileak ardura maitakorrez begiratzen zien beti kultur etxerik gorenaren zorteari. Hilobitik hurbil zegoela, bere bizitza osoko jokabidea Caracasko unibertsitatearentzat gestu eder batez izenpetzen du. Hona nola berresten duen bere ardura: berak ondasun apurrak banatzerakoan bere testamentuan adierazi zuen: “Ene gogoia da ene lagun Wilson jeneral jaunak erregalatu zizkidan bi obrak, eta lehen Napoleonen libu-

rutegikoak zirenak, Rousseuren *Gizarte Kontratua* eta Montecuccoliren *Arte Militarra*, Caracasko Unibertsitateari entregatuak izan daitezela” II-988.

Caracasen azkenengoz egon zenean, “La Cossiatako” disidentzia gainditzen arduratu ez ezik, Revenga eta Vargasen laguntzaz Unibertsitaterako konstituzio berri bat idatzi eta promulgatu zuen. Orduan arau arkaikoak derogatu ziren, erakunde handia behar bezala eraberritu eta modernatu zen, garairako benetako unibertsitate erreforma baten hasiera izan zitekeen eta bere printzipio askok gaur ere bigentziarik galdu ez duten tratu berri baten oinarriak jarri ziren. Arau berriei eskerrak, unibertsitateak bere autonomia indartzen zuen, ondasun eta errenta propioak adjudikatzen zitzaizkion bere beharrak bera kasa hornitzeko, O’L. XXV-446.

Bolibarren konstituzio horretan ate irekizko unibertsitate politika aldarrikatzen da, eta enfatikoki ezartzen joale gisa “inori ez zaiola katedratiko baten ikaskaiak entzuterik galeraziko” O’L. XXV-414. Ikasleei partaidetasuna aitortzen die institutoaren eramantzan eta erantzule ere egiten ditu irakasleei buruzko elkar ebaluazioaren ideia barruan; honela erabakitzen du “Erretorak, bere ardurak hala demaionean klaseetara egingo dituen bisitez gainera, bihile bakoitzean klase bakoitzeko bi ikasle hautatuko ditu, katedratikoaren jokabidearen berri eman dezaten” O’L. XXV-411. Ikasleen onerako biribilki agintzen da soldadutzatik eta beren eginkizun espezifikotik urruntzeko edozein lanetatik libratzea, O’L. XXV-415. Ikasleak irakasleekin batera institutoaren hosperean erantzule dira elkarrekin; “lehiaketak” izeneko ekitaldi publikoetan, irakasleekin batera, bi ikaslek obligazioz parte hartu beharko dute, “batek ere desenkusatzerik ez duela” herriari jakin eraz diezaioten “gazteek nolako aurreramenduak egiten dituzten eta Unibertsitatean ikasketak nola dauden” O’L. XXV-423.

Bolibarren arauetan, unibertsitate desberdinak batera ditzan baliokidetasun eta errebalida sistema zuzen baterako bidea irekitzen da; tituluen berdintasuna aitortzen da Colombiako guztiekin. Katedrak hornitzeko oposizio sariketa librean sistema jartzen da eta epaimahaikoei berari gomendatzen “justiziaz jokatzeko norke-riarik eta grinarik gabe” O’L. XXV-436. Irakasleak maisu integralen gisakoak nahi ditu, ez dutela ezagutz emaile hutsak izan behar agintzen die, baizik baita “bere irakaskuntzapean dauden

gazteen ereduak; dezentzia, dedua, urbanitatea, kultura hizkuntzan, dena eduki behar dute maisuek, ikaskai praktiko hauekin ikasle onak moldatzeko” O’L. XXV-438. Gorputz kolegiatuaren izen onagatik beragatik ere irakasleen presentzia institutoko ekitaldientan oso garrantzizkotzat dauka, eta ezjoale ohikoentzat zigor gorrrak ezartzen ditu.

“Errenta osodun” jubilazio sistema bat fundatzen da eta hogeitun urte zerbitzuan egindakoan, eta testu liburugintzaren kinada bezala, liburu garrantzizkoak idazten edo itzultzen dituenari aparteko saria ematen zaio lehenago jubilatzekeo meritu konputagarriak aitortuz. Testu didaktikoen zer honek ardurak handia ematen zion Bolibarri, hauziaren handitasunaren jakile baitzen, batez ere personal egokirik ezagatik eta honela —zati bat behintzat— liburu onez eta material hezgarriz horni zitekeen. Bolibarren irakaskuntz liburuekiko ardurak agindu adierazgarri bat ekarri zuen Benthamen Legegintza Tratatuak delakoaren irakastuntza debekatzen zuen dekretuan: “Oinarri obrak ugaritzea oso beharrezkoa izanik, batez ere colombiar gazteriar dagokionik ez dagoen adarretan, Zuzendaritza Jeneralak Subsuzendaritzak eta Unibertsitateak kinatuko ditu katedratikorik hartarakoenek ikastaro batzuek idatz ditzaten, eta Unibertsitateetako errenten kontura inprima daitezten, hauek gero liburu salmentak ematen duenarekin kobratuko direlarik DL. III-54.

Unibertsitateko erretorgoari buruz, Askatzaileak bere fidantza berresten du errepublikar txandatasunean; era batera, erakundearen komenentziari begira, hau da, establezimenduaren gidaritzan lagun gehiagori aukera emanez, Erretoreak bere karguan hiru urte egiteko agintzen du. Errejimen berri honen barruan, unibertsitari ikasia edo humanista jotzen du idealtzat; horretara doaz Bolibarren asmoak geroko medikuei frantses, ingeles, arte eder eta zientzia fisikoetako klaseak obligaziozko jartzen zaizkionean, O’L. XXV-420; eta kultur gehigarri hori norentzat eta medikuentzat hain zuzen, zeintzuren irakaskuntzak, honela dio berak hitzez hitz, “teorikoa baino gehiago praktikoa izan behar baitu” O’L. XXV-430.

Bolibarrek unibertsitatea nazio kulturaren erdigune eragile gisa ikusten du, horregatik unibertsitate planaren barruan Akademien sortzapena sartzen du; hauek, unibertsitateak jeneralki bezala, in-

guruko errealitatea ikasten saiatu beharko dute bizi diren gizar-teko problemei soluzioak aurkitzeko. Hain zuzen hezkuntzari buruzko bere azken dekretuan —1829-ko abenduak 5n Popayanen datatuan—, askatzaileak Unibertsitatei eginkizun itzela ematen die hezkuntzaren gerentzian eta administrazioan: “Ikasketa Subzuzendaritzak kendurik geratzen dira unibertsitaterik dagoen nonahi, eta haren eginkizunak toki bakoitzeko unibertsitateek bete-ko dituzte biltzarre jeneralean edo partikularrean gaiaren garrantziaren arabera: berak adituko dira zuzendaritza jeneralarekin hezkuntza publikoari dagokion zer guztian”. “Gainera unibertsitateak baimendurik geratzen dira gazteei unibertsitate eta kolegioetan emango zaien hezkuntza fisiko, moral, erlijioso eta soziala manatuko duen arautegia egiteko” (37).

Caracasko unibertsitatearen erreformak, Bolibarren arauen bitartez, esan den bezala, erakunde horren benetako autonomia kontserbatzen du: bere Erretorea klaustroak libreki hautatua, orain medzinako doktorea eta estatu erregularrekoa izan ahal duena; eta nahikoa ondasun bere finantzamendurako. Askatzaileak unibertsitateari emateko agintzean du hazienda galantei dagozkion gozamen eta propietateak: Chuao, Cata eta Concepcion, hau bere eihera eta guzti; jesuita bidalien ondasunak; errenta eta obra elizkoiak; 1595tik gora ezarririko zergak harentzat kontserbatzeko eta errespetatzeko agintzen du; bertako gordekinetako, aldenduriko Abokatu Kolegioko eta beste etorri batzutako sarrera soberakinak ere akordatzen dizkio.

Estatuto edo konstituzio berriek, ikasleen sarrerari buruz, ez dago esan beharrik, bereizkeria sozial, erlijioso eta sozialari azkena ematen diete —“odol garbitasunaren” beharra aboliturik geratzen da—. Irakaskuntza arloan benetako erreforma dakar katedren gehikuntzak, batez ere medizina —hemen lehengo Protomedikatuaren gainean Fakultatea sortzen dute, zeini gainera etxe eksklusibioa eman baitzioten— eta Matematiketan.

1827n bertan, irakaskuntzako izpiritu erreformatzailea Quito-ko Unibertsitatera heltzen da. Bolibarren hartarako dekretuak —bere berritasun batzuren artean— Europako hizkuntza handie-

(37) *Registro Oficial*. 54 garren z., 428 garren o.

kin batera Quechua hizkuntza ere ikasteko agintzen du. Hiru urte lehenago, Perun, Askatzaileak Trujilloko Unibertsitatearen erakuntza dekretatu zuen. Nazio ahizpa hartan, 1825ko abuztuan, Arequipako San Agustin Unibertsitatea izango denaren oinarriak ere ezartzen ditu.

1827ko abenduan, Bolibarrek Antioquiako kolegioan legegintz ikasketetarako unibertsitate erregimena ezartzen du, Medellingo Unibertsitatearen hasiera. Diktadura denboran, eta orduko eragozpen politikoei begiraturik, zenbait unibertsitateko planetan aldaketa batzu sartzen dira. 1828ko hazilean Rosarioko eta San Bartolomeko Kolegio Nagusiei beren goi maila berhartzeko baimena ematen zaie berriro.

Europako zientzizigizonen artean Askatzailearen kultur ordenuaren berri jakitean, katedratiko frantses batzu eskaini zitzaizkion—Brunner, matematikaria; Pelegrin, gramatikaria eta poliglota; Avon, kimikari eta farmazilaria— Colombiako Unibertsitatea propioki izango zena fundatzeko, eta hartara laster etorriko ziren hamazortzi irakasle frantses eta “espainiar konstituzionalak”.

PENTSAMENDUAREN ARTILERIA

Ez zebilen oker Askatzailea, egunkaria, beti egin zuen bezala, masen hezkuntzarako bide izugarritzat jozuenean, ideia berrien zabalkunderako tribuna erabilkor bat gisa. Jose Domingo Diez, haren etsai porrokatu batek, testigantza argia utzi Simon Bolibarren “lehen harma” inprimategia izan zela beti. Prentsa lanabesak bezain onuragarritzat jotzen du, I-258. Petionek, expedizio nagusien babestaile haintzatsuak, inprimategi bat erregalatu zion, Ocumareco hondamendian galdua; nolana ere, Iraultza bere abots propio bat edukitzeko ahaleginetan garaile atera zen, eta hori *Correo del Orinoco* izan zen (1818-1821). Haitiar meritutsu bati, Juan Bailliori, tokatu zitzaion 1811ko kongresua, lehen eta bigarren errepublikar gobernuena, eta 1816ko expedizio askatzailea ere inprimatzea.

Bolibarrek berak ere, behin baino sarriago, kazetari egin zuen; prentsarako artikulua eta oharrak idatzi zituen. Zenbait alditan oso gomendio zorrotzak eta zuzenak egin zituen egunkariek beren einkizuna hobeki bete zezaten. Era eta estilo egokiei ekiten zien.

Ikus haren gomendio xeheak Santander jeneralari: “Correo de Bogota-k gauza miragarriak ditu, izugarrero josta erazten nau, ez du bere eskutitzen monotoniaz beste akatsik; postatruke intertzeptatua ematen du. Esaiozu idazlariari publikoari jakin erazteko ez duela gehiago eskutitz gisa bidalitako artikulurik emango, haien mamiaren titulu batez goiburutuko dituela baizik. Ez dago munduan “Correo de Bogota-k” bezalako era duenik. Gauza guztiei beren estrukturari dagokion era eman behar zaie, eta era hauek ahalik eta atseginenak izan behar dute mirespina eta xarma lortzeko. Ardura handiko zera da hain idazlari onak dituen egunkari horrek gaiak era erregularrez eta kazetakoiz tratatzea”, I-714 (38).

Simon Bolibarren hezkuntz eta kultur politikan ez da ezer ezustez gertatzen, iraultz idearium eta praktika-rik jatorrenen eguneroko berrespina da dena. Jose Lancasterrek Bolibarrek 1810tik gora hezkuntzagatik erakutsi zuen “arreta hain bizi eta indartsuaren” testigu hark, osotasun iraultzaile hori argi hautemango du; Askatzaileari eginiko eskutitz batetan honekin bat dator aitortuz “buruaren emantzipazioa dela askatasunak haintzaren eta ohorearen betetasunez koroatzeko falta den neurri bakarra”; beste eskutitz batetan, Lancaster berriro ere Bolibarrekin dator: “colombiarrek askatasuna jakituriarekin bil dezatela, eta beren askatasunaren aintza beren talentuen zimendu gainean eraiki dezatela” (39).

ERITZI PUBLIKOA

Bolibar hezlaria izan zen beti; haren jokabide politikoan beren ere argi ageri da haren Amerikako maisu izate bikaina. Printzipio moral bihurtzetinetara haren menpetasun berezkoa eta sistematikoa goi maisutasun politikoaren iharduna da beste gabe. Eritzi publikoaren entzule adikor jokatu, herriaren abotsa eta gogoa nola errespetatzen dituen dio. Hura ez da bere burua askitzat eta hutsezintzat daukan magistratua; eritzi publikoa dela esan liteke haren kultu etengabeatarik bat. “Harmadek baino gehiago balio

(38) Tomás de Heres-i ere egiten dizkio hontaz oharrak. I-956, 1160. Ikus, gainera, I-470, 961.

(39) *Bolívar y su época*, I t., 146 garren o, eta II t., 30 garren o.

duen” indarra deritza eritzi publikoari, I-227. “Indar guztietatik lehenengoa”, II-1114. Behar beharrezkoa deritza edozein buruzagiren neurketarako, “gizon publikoek, haietaz zer eritzi dagoen, huraxe balio dute”, I-692. Paez bezalako kaudillo pertsonalistei bere lezioa ematen die: “Agintzen duenak entzun egin behar du, egiarik gogorrenak badira ere, eta entzundakoan haietaz baliatu errakuntzek egiten dituzten gaitzak zuzentzeko” XII-183. 1820n zehar, tolerantzia eraikorraren bide berean, eta gainera eritzi publikoak hitz egin dezan eta haren agerpena probetxa dadin bul-tzatzen saiatuz, Cundinamarçako Departamentuko Presidentordearen aurrean dio: “Gizon publikoak hiritar guztien zentsurapean daude, batez ere gobernu arras herrikoï batetan” XII-185.

Kultura batasun gisa eta ez edonolako puska multzo kaotiko gisa hartzen duen pentsakera argia eta koherentea sarritan ager-tzen da Askatzailearen textuetan eta egintzetan; erraz aipa daite-ke haren hainbat esaldi lan intelektualaren onurari buruz. “Oso zaila da artea non bukatzen eta zientzia non hasten den igartzea”, dio argi garbiro deklaratzean bere iloba Fernzandok ikasketa prak-tikoetara joko balu (artea edo ofizioa) bera “asko poztuko litza-tekeela, zeren gure artean mediku eta abokatuak ugari baitaude, baina mekaniko eta nekazari onak falta zaizkigu eta hoik dira herriak behar dituenak oparotasunean eta ongizatean aurreartze-ko” II-1296. Bolibarrek gehiegitu egiten du nekazari, tekniko eta artisau espezializatuen urritasun kronikoa nabarmentzeko, hain enfatikoki mintzo denean profesio liberal haien ugaritasuna dela-koaz. Egia da Latinamerikako Unibertsitateek gaur arte zer inte-lektualari begiratu diotela, inoiz arlo materialeko alderdi behin behinekoak arras bertan beheraturik, hala lurraren eta berrigarrien esplotazio arrazionala, naturako iturrien babes zientifikoa, hirigin-tza, obrak eta zerbitzuak, eta batez ere gure hemisterioan gizonen eta kolektibitateen eta hauen problemei dagokiena. Baina gaur ere eta areago orduan krisis zorrotza zegoenean, giza potentziala de-fendatzeko medikuak falta dira, esku ezjakin eta makurretatik justizia askatzeko abokatuak, injineruak, pedagogoak, inguru na-turalaren domeinuaren gudua zuzentzeko ikertzaileak —Caracas-ko apostrofean esan zuen bezala—, egiazko maisuak, filosofoak, literatuak, humanistak, etab., guztiak berdinki aberri positibo eta abiatzailearen ardura berean bateratzen direnak.

Nolanahi ere, Bolibarren gehiegikuntzan haren jokabide iraultzaileko alderdi osagarriak nabari dira. Ikus bere ilobaren, hau da, eduki ez zuen semearen gorabeheran, eta honen joera posibleari buruz langintza zakar eta ezduinetara —orduko ustez—, Bolibarrek ez dioela hautapen hori “jasango” lukeela ez eta derri-gorrera bezala makurtuko litzatekeela, benetan “poztuko” litzatekeela baizik. Honela desiraintzen eta goersten ditu esku lanak eta lan teknikoak, hark beti luza ezinekotzat joak. Askatzaileak esku lana aurreritzirik zentzugabeenak ezarri dioten mesprexu mende-tsutik askatzen du. Bolibarrengandik aurrera, Mundu Berriak “oparotasunean eta ongizatean aurreratzeko” hain meharrezko dituen adar hauei ere behar den arreta eskatzen zaie. Hori da haren ekin etengabea kulturaren bi poloei buruz: izpiritua eta materia. Bolibarrek Amerikaren eraikuntza osoaren pareko unibertsitatea eskatzen du, kontinenteko iraultzaren zerbitzu osokoa.

IZANA ETA KULTURA

Baina Askatzailearen ardura pedagogikoa —berriro esan beharra dago— ez zen inoiz irakaskuntz etxeetara bakarrik mugatu, hala kolegioak, apezgaitegiak, instituto militarrek, eskola, unibertsitateak. Haren gaiak askoz zabalagoak dira —prentsari buruz, adibidez, ikusi dugun bezala—; gure Amerikako problematika osoa hartzen dute. Kulturatzat hemen zeregin kolektiboaren produktuen orotasun armonikoa ulertzen da, historiaren fruitua eta gizarte bat bereizten duen elkar lanaren sintesisa. Kultura era batera herriaren produktu eta egile da. Amerikako gertaera kulturalak haren izate ahula adierazten dute eta era batera hari eragiten. Amerikar kultura egiten ari da, Amerika ere egiten ari den bezala. Bolibarrek nahikoa begi zolia zeukan Europako behatoki ederretik eta Mundu Berriko lurretatik bere joanetorrietan, Amerikak aparteko jitea zuela konturatzeko. Eta haren programa jite hori orraztea eta definitzea da, alderdi funtsezko hoik salbatzea eta indartzea. Amerikari nortasun izpirituala ukatzen ziotenean, Bolibarrek aikomaikorik gabe aitortzen zion; hura ez zen hipotesis baten alde sakrifikatzen, errealtate konkretu baten alde baizik; eta Amerikako aberri indoafrolatindar eskergarekin kontsekuente izan beharra da ente sorberriaren esistentzia makala posi-

ble eta indartsu egiteko lanera daramana. Amerikak haren ustez bere izate propioaren definizioa jo behar du. Hain estimu handia dien intelektualei dagokie eginkizun nagusia amerikar arima lantzeko, bizitz eta histori pentsakera bat aldiz eta alde zehatzeko, hirrikak errealitatearekin eta lehenaldi hilezkorrarekin biltzeko zeregina horretan. Hemen ere Bolibarrek askatzaile izan nahi du.

Amerikaren gaztetasunak bere egia ontologikoa ez ezagutzeko eta ahanzteko arriskua du. Gaztetasuna berez birtute bat dela uste izatea, azterketa gabe, umekeria da. Gaztetasuna promesa esan nahi duen histori une bat da, baina baita esan nahi du: errealitate uria eta ahula, egia ernamuinean. Amerikaren gaztetasuna ez da inertziarako meritua, geroko lanerako eginbeharra eta obligazioa eta sakada baizik. Luzera hispanoamerikar nazionalitatea ezaba dezaketen kultur sistemen eta formen uholdea presentitzen du Bolibarrek, interes ekonomiko positiboan, inperialismo zapaltzaile eta irenkoarraren abangoardia disimulatua bezala. Prensa, eskola, maisuak, unibertsitateak, pentsalariak, artistak, horra dike izpiritual horretarako gai efektiboa kanpoko uholde hondagarri hoi defentsan.

Bere golkoaren baitan, Bolibarrek hezkuntz arloaren osotasunaren aldeko ardura hain zabala eta orokorra komentzimendu bueltagabe honetan oinarritzen du: “Nazioak beren handitasunaren jomugarantz hezkuntzak daraman pauso berarekin doaz. Haik hegan doaz hau hegan badoa; atzerantz, hau atzerantz badoa; ilunpean amiltzen eta hondatzen, hau usteltzen edo guztiz bertan behertzen bada. Esperientziak emaniko eta aintzinako filosofoek eta politikoek, eta oraingoez, sorturiko printzipio hauek gaur hain dogma ezaguna egiten dute non nekez izango baita beharbada egia hau barrutik sentitzen ez duen inor” II-1291.

Amerikaren kontzientziari mintzo zaio, Bolibarren izpirituarekin, haren kontseilari argia ere —Simon Rodriguez—; han dago oharpena, han dago bidea: “Ets bezate Herriko Buruzagiek ez dutela ezer lortuko eskolatzen ez badute. Errepublikako eskola-kuntza bigarren mailakotzat jotzeagatik, Buruzagiek denbora asko galdudute, eta geratzen zaiena galtzeko arriskuan daude. Errepublikar sistemaren oinarria herriaren eritzian dago, eta hau ez dago hezterik eskolatu ezik. Gizona eskolatu izateko gauza bada —eskolatu izatea beharrezko bada—, eskolatu guti kostatzen ba-

da— eta eskolakuntza horri oratzen ez bazaio... irakatsi behar duenaren errua da. Inork ez du ez dakienik ondo egiten, beraz ez da inoiz jende ezjakinarekin Errepublikarik egingo —hartzen den plana hartzen dela. Eta ez da erdizka irakatsi behar, obrek ez dute erdi eginean egon behar, egiten ari diren bitartean izan ezik. Errepublikarrok. Hez itzazue mutilak Errepublika egiterik nahi baduzue” (40).

(40) Rodríguez, Simón: *op. cit.*, 129, 141, 142, 148 oo.

ASMOEN BALANTZEA

Ibilaldi luze honetan zehar Simon Bolibarren jokabide programatikoak agertu dira. Lehenago ihardun ernai eta asperkaitz haren atze oihala den zirkunstantzia laburtu da. Bolibar ekintza hutsa zen. Amerikako historiatic eginkizun bat hartu zuen: kontinentearen fisonomia aldatu, hango koloni estrukturak aldatu; mundu berri bat egin Mundu Berrian.

Haren independentzi ideala ez da politika hutsean geratzen; ez helburu berezi hau handitasun gabea zelako, obligazioa handiagoa zelako baizik, eta heroiaren ikusmenak berezkotasun seguruz gizaritari —politikarekin batera— axola zaion guztia sartzen den perspektiba bat biribiltzen du.

Bolibarren ardura Independentzia zen, demokrazia, errepublikaren konstituziotasuna zimendatzea eta Zuzenbideko Estatu bat finkatzea. Berdintasun orokorraren alde burukatu zen: esklabu beltzen askatasuna, indio basailu eta esplotatuen berdintasuna, berdintasuna nabar diskriminatu eta baztertuentzat. Haren helburua justizia ekonomikoa zen, aberastasuna langileen eskuetan jartzea, jabetasuna oinarri zuzen eta eragotzezinen gainean eraikitzea, eta ez harrapaketa gainean ez indarrak zirikatu eta eraginiko lapurretaren gainean. Bolibarrek bete betean ekin zion batasunari, kontinente eta gizaki guztien arteko anaitasunari, hispaniar Amerikaren elkarpn mami eta zintzoari, ez erasorako, inoiz ere ez gerrarako, bai aurreramendurako eta progresurako. Haren ardura

nagusia solidaritasun horixe izan zen. Pentsakera, kontzeptu eta doktrinako etxe eder horri esan bezalako hezkuntz eta kultur planaren teilatua botatzen dio. Bolibarren programa, hau da, Iraultzako programa ez daiteke eta ez da ulertu behar pieza multzo nahasi bat bezala, egestura burutsu bat bezala, batasun dinamiko gisa baizik. Gure interpretakera ez da Askatzaileak berak Willian Whiteri Angosturako Hitzaldiari buruz eman ziona besterik: “Irakur ezazu arretaz mesedez nire hitzaldia, ez zatiei, baizik osoari begiraturik” I-442.

Amerikak Bolibarren pentsakeran bere sabel kontinentaletik bertatik sorturiko programa bat dauka, ordenu zaharrek alderdi bakoitzari korrelatiboki kontrajarria, eta bere baitan armonia eta kohentzia nabaria daramana gizarte berri bat efektiboki eta benetan egiteko.

Bolibarrek biltzen eta josten duen zati handi bat lehenago diseinaturik zegoen, hango edo hemengo espezialistaren batek laboraturik; Simon Bolibarren meritua orotasunaren sortzapena da, organikotasuna, baterakuntza; dena estilo gizakoi, zintzo eta sakonez, berotasun kutsagarritz ematea; irakatsi iharrezina ondorengoentzat, hasiera konkretu eta berehalako baterako abia puntu praktikoa. Luzaezina gaur.

5

Ukapenen drama

ELEMENTU DESANTOLATZAILEAK

Iraultzako programan ez zen ageri hura frustratuko zuen egilea: kaudilloa. Iraultz aldakuntzaren hasieran transformazio hori lloek. Haiek, mugimenduaren eragile gisa eta talde pentsalari eta argi gisa, kolektibitate hartan bakarra hain zuzen, beren komenentzia hutsaren arabera jokatzeko zuten eta horregatik ez zitzairen interesatzen azkenerako gehiengo herritarrak kausa abertzalearen alde ekarri zituzten gizarte, ekonomi eta kultur mamidun bandera handi hoietariko bat ere. Lehenengoan ez zitzaion inori gero dena irentsiko zuen gerrarik bururatu.

Criolloak gizarteko nagusi ziren, aginte politikoa bakarrik falta zitzairen. Bolibarrek berak ere horrelakoxe pentsakera eskeman hasi zituen bere zerbitzuak. 1813n Hil arteko Gerra deklaratzeko kapaz izan zen, “indiferenteak” ere suntsipenarekin mehatxatuz, baina ordurarte ez zion buruak eman ere nabarrei garrantzia materialeko eskaintzarik egiterik, ez indioei ezer prometatzerik, eta gutiago beltzak balakatzerik eta deitzerik. Herriak intuizio zuhurrez —gerrako lehen etapetan— bere gogoan ondoen ulertu zutenari eman zion laguntza osoa; dudarik ere ez Monteverde eta Bo-ves —criolloen prepotentzia hain harroa eta bere domeinua zorroztan saiatzeko zena baino onuragarriago gertatzen zen monarkia-

ren ordezakariak— masen ulermenetik eta sentimenetik hurbilago zeudela.

Lehen eta Bigarren Errepubliken frakasuek, hau da, errealismoaren —kasu honetan hari harira datorren hitzaren— aldeko gehiengoan joera bueltaezinak, 1815 arte ekarririko bidez ez zela zuzena erakutsi zioten Bolibarri. Antilletako herbestaldian, Jamaican eta Haitin, eta Petion eskuzabalaren laguntza hunkigarrian, beste perspektiba bat somatzen zen. Los Cayos eta Jacmel-en ondoren, iraultzak bere bidea aurkitu zuen. Simon Bolibarri ez zitzaion benetako egian lekutzea zail egin. Bere jatorri eta guzti ere, Simon Rodriguezen irakatsiak, baita bere ikasketak munduko liburuan, herri hauen izakeran eta bizi izaniko esperientzian, berdin bere sentikera herritarrak eta baita bere maisuak esaten zuen “arrazoiaren menpekotasun” hark, laster egin zuten gure gizona herriaren bozeramaile, buruzagi, gidari eta zerbitzari. Herriak jadanik agerturik zuen zeintzu ziren bere jomugak: berdintasun soziala, justizia ekonomikoa, hobekuntza kulturala; hori konstituziotasun errepublikar eta demokratikoz jantziko zen emantzipazioarekin gailurtu eta osotu beharko zen, eta gure Amerika batasun bizi eta sendoz biltzeko ahaleginarekin.

Espainiak ez zuen inoiz amore eman kolonikuntzari eusteko asmo atzeraezinean, eta venezuelar guztien buruan ez zen piztu abertzaletasun segurua argirik; hispaniar kausak defentsore porrokatuak eduki zituen azkenerarte. Gerra zibil honetan —ez zibilkoia ez zibilizatua— Venezuela odolustu egin zen. Gerrak bere balio eskala propioa ezarri zuen, konkistako ordenu axiologikoa berpiztu zuen, gailurrean indarra, basatasuna eta oldarra zituena, Gerrarako gizon “bulartsuak”, “lerdenak”, “arrak” behar ziren; hauxetariko aurrenak heldu ziren buruzagitzara.

Kaudilloak, kolpera harmen indarrez igonak, boterean gertatu zen hutsuneak erreklamatuak, ez zuen egoera mentalki ere herrira egokitzeko astirik ukan. Neurri indibidualean bere erresumin eta grina asetzean, gainerakoa ahanzten zuen. Erraz erortzen zen ohiko azpikerien lakioan. Kaudilloa, iraultz frakasuaren eragile eta ondorio, boteretsuen interesen zerbitzari da; agintearen soineko eta abantaila materialak bere primutasunaren prezioa dira. Berak prestatzen du transizioa, independentzi burrukatik dator eta esplotazio berbiztua babestuko duen bake gertzurantz doa. Kaudi-

lloa inspiratzaile zitelen korapiloetan nahas dadinean ez da jadanik etsaia izango, hartaz baliatzen den tresna esangina eta harekin azkenek ezkontza herstua kontzertatzen den sozia baikik.

Bolibarren agonia, haren egiazko drama iraultza barruan, halako “desantolatzaileak”, kontraesaleak eta negatiboak aurrez aurre jartzean zetzan. Oso gutik, oso gutik gero, ulertzen zuten haren eskuzabaltasuna; zenbat ziren zintzoak beren idealismo eta handitasun agerpenetan? Gehienek nahi zutena, eta azkenean lortu zutena, grina zakarrez konbinaturiko hitz berrien eta hanpuru- itxura bat zaintzea; Bolibarrek ez. Bolibarrek askatasun-aintzen bikotera jotzen zuen. “Ni askatasun eta aintzagatik burrukatu naiz, eta ez neure handikuntzagatik”— baitesten du biribilki 1828n. Don Quijoteri dagokion eta ihardespenez ez duen elederrez, zehaztu zuen: “Beti pentsatu izan dut askatasunagatik eta aintzagatik lan egiten duenak ez duela askatasunaz eta aintzaz beste saririk eduki behar” I-825.

Ulertzekoa da Bolibar bere ahaleginaren frustrapenez etsirik hiltzea. Bere binomio nagusiarekin adierazgarriro buruturiko agur mezuan, itxaropen apur bat agertu nahi luke; colombiarrei diotse: “Herkideok! Lotsa naiz esaten: independentzia da lortu dugun ondasun bakarra, beste ondasunen bizkarretik. Baina hark irekitzen digu hauk birgeuretzeko atea zuen babes soberanoaren azpian, aintzaren eta askatasunaren distira guztiarekin” II-1275.

Eginbeharraren neurri izugarriaren eta ahaleginaren ezereztasun mingarriaren konbentzimendua zartada askoren ondoren etorri zaio. 1823n Heres-i diotsa: “Izan ere, lan handia esku artean daukaguna, eragozpen landa neurrigabea da, ausartena ere desadoretuko lukeen pozgabea baitago. Gudu lekua Hego Amerika da; gauza guztiak ditugu etsai; eta gure soldaduak partidu guztietako eta herri guztietako gizonak, bakoitzak bere hizkuntza du, bere kolorea, bere legea eta bere aparteko interesa. Probidentziak bakarrik ordena lezake kaos hau bere hatz ahalguztidunez, eta ikusi arte ez dut horrelako miraririk sinesten” I-845.

Gutziz logikoa da, heriotzatik bost astetara, haren balantzea Juan Jose Floresentzat laburtzen duena izatea; nan daude, lau bosturte agoniko ondoren, “ondorio zihur apurrak: 1. Amerika guretzat gobernazina da; 2. iraultza zerbitzatzen duena itxasoa

goldatzen ari da; 3. Amerikan egin daitekeen gauza bakarra emigratzea da... II-959.

Bolibarrek —“gizon bakarra” bere buruari maiz deitu zionez, II-641, 876—, ahal zuen guztia eta askoz gehiago egin zuen; eskenategi eta egiteko hain hedatsuek irentsi egin zuten. Laguntzarik ezak ez zuen aldakuntza politikoaz besterik mamitzen utzi, eta horixe ere zatika. Dekretuz, aginte manuz, erabakiz, dei larri eta sutsuz, bere bisitasun nekazenez, dena harrapatu eta erremediatu nahi izan zuen. Hegoara bidaiak Iparreko boterearen galera ekarri zion; Hegoako aberriei kotsakraturik Bogotan egin zituen bost urteetan, Colombian estruktura kontrairaultzaile osoa finkatu zen zeini buruz hura indarge aurkitu baitzen eta azkenean heterogentzat egotzia. Desintegrapen honen faktore guztiek, kanpokoek eta barrukoek, oligarki mikronazionalisten zirkunstantziak eta kaudillokeriaren kantzerrak iraultza hil egin zuten. Jose Fernandez Madrid bere konfidentziarik ezkutuenen hartzaileari Askatzaileak 1827ko abenduak 21n diotsa: “Egia esateko, ia ezintzat jotzen dut herri honen establetasuna finkatzea. Colombia eta Amerika osoa herri galduak dira belaunaldi honetarako. Ez zaitez zorabia beste ideia batzurekin, eta premiazkoa bada aitor iezaiezu britainiar ministroei, zeren engainatua engainatzailea baita beti” II-233. Urtebete aurrerago bihotza odoletan zuen Santanderrentzat aitortza melankoliko hau idaztean: “Zer egin behar dut Nik? Zer egin behar du Colombiak? Nik, aberria zerbitzatzeko, legeen edifizio bikaina eta gure utopiaren erromantze ideala hautsi egin behar nituzke. Colombiak ez dezake, pot egina baitago, mundua engainatu duen gizartea disolbatu besterik, eta bere burua entregatu. Bai, jauna, gauzak honelaxe daude, eta gogoz kontra bada ere aitortzen eta esan egin behar dut” I-1440.

INBOLUZIO POLITIKOA

Iraultzan zehar, hainbeste ahaleginen helburu politikoa askorentzat Espainiar Koroatik separakuntza soila eta hutsa zen. Puntu honi buruz, abertzaleen artean ez zegoen desadostasun handirik; baina hoietatik ez gutik gai publikoaren eratorpen teorikoak gutietsi egiten zituzten eta hartaz indiferenteak ziren. Baina indiferentzia hori eta guzti ere, ez zegoen harmen pasiborik ez atxikidura berorik Bolibarren ideia politikoentzat, zeinek bere karrean zehar bere pentsamenduaren kontrakar oso gogorra aurkitu baitzuen.

Ukapenak buruzagitzarako burrukan bertan hasi ziren; Bolibarri ez zioten kasurik egin Venezuelan eta Nueva Grandan; Haitin ere ez. 1817n hura agintetik baztertzea intentatzen duen kongresu bat instalatzen da Cariacon.

Angosturako Kongresuan bere konstituzio proiektua aurkezten duenean, parlamentariak jaramon guti egiten diete Bolibarren proposamenduei. Ez liderraren patetismoak ez suak hunkitu zituen lurren banaketa eta esklabutzaren abolipena bezalako arazo garrantzitsuei buruz. Konstituzioari berari buruz, kongresuak nahiago izan zuen 1811ko Eskutitzeko teorizismora itzultzea —jadanik gairiditua eta gertaeretan gezurtatua—. Amerikako konstituziogileek Botere Moralaren proiektua “praktikaezintzat” babestu zuten, Bolibarren berdintasunaren kontzeptua ezetsi zuten, ez zuten esklabutzaren kontrako erregu hain sakon eta zintzorik haintzat har-

tu, ez zuten Senatuaren osaera heredagarria onartu, ez zuten ametitutu Bolibarren prebisio aurreratua ere gaur justiziako Goren Gortean “recurso de casación” esaten zaionari. Tomas Polanco A. juristaren eritzi pisutsuak ezdu beste komentariorik behar: “Askatzailearen konstituzio eskema zientziaz eta filosofiaz zuzena zen, nazioko errealitateari zegokiona, eta politikaz efikaza. Kongresuak ez zuen osorik onartu eta hainbeste aldakuntza ezarri zizkion non hasierako ideia ezerezean geratu baitzen” (1).

Cucutako kongresuaren, colombiar batasuneko lehen parlamentuaren jokabideak ere ez zuen azertu ez zorte hoberik izan. Bolibarrek hasiera hasieratik somatu zuen gorputz soberano haren orientapen politikoaren zentzugabekeria jenerala, zeinen okerrekin halabarrez iraultz enpresa guztia hondamendiratuko baitzuten. 1821ko egainak 13n, San Carlostik Santanderri ziotsan: “Hemen kongresuaren eta Cucutaren berri guti daki jendeak. Azkenean, azkenean, hainbeste letratu pilatuko da non Colombiako errepublikatik bota egin beharko baitira, Platonek poetekin berean egin zuen bezala. Herriaren gogoia beren eritziaria dela uste dute jaun hoiek. Zaldun hoiek uste dute Colombia artiledunetz estalirik dagoela, Bogota, Tunja eta Panolnako tximinetan arropaturik. Ez diete begiradarik bota Orinocoko caribetarrei, Pureko artzainei, Maracaiboko marinelei, Magdalenako bogei, Patiako bandiduei, partuso menderagaitzei, Casanareko guajiboei, eta Afrikako eta Amerikako horda basati guztiei, adartzabalak bezala, Colombiako bakartateak zehar dabiltzanak. Ez al duzu uste, ene Santander maite, legegile gaizto baino ezjakinago hoiek, gutziatsu baino harroago hoiek anarkiara eramango gaituztela, eta gero tiraniara eta beti hondamendira? Nik hala usted dut eta zihur nago. Beraz, lautarrak ez badira gure azkena biribilduko dutenak, Colombia legitimatuko filosofo leunak izango dira. Bere buruak Licurgotzat, Numatzat, Franklintzat, eta Camilo Torrestzat eta Rosciotzat, eta Uztaritzat eta Robiratzat ea zeruak beren abiada betikotasunerantz azelera zezaten lurrera bidali zituen beste numen batzutzat daukatenak, baina ez Greziako, Erromako eta Amerikako errepublikak emateko, fabrika munstroetako hondakinak pilatzeko baizik

(1) *El Libertador y la Constitución de Angostura de 1819* (Hitzaurrea), 27 garren o.

eta oinarri gotikoaren gainean edifizio greko bat krater baten ertzean eraikitzeko” I-566.

Carlos Felice Cardot, Venezuelar historilari jakintsuak sakonki aztertu du Caracasko zirkuluen erreakzioa Cucutako konstituzioaren aurrez. Hau ez zuten haiek sekula ondo ikusi zeren, colombiar batasuna finkatzean, metropolitasun tradizionalako beren pribilegioak galtzea baitzeturten (2).

Cucutako konstituzioan La Cosiatako ernamuinak zeuden; goren lege hori ekintza atzeratuzko bonba bat bezala izango zen Bolibarren kreaio guztia zati zati egiten lagunduko zuena.

Hispanoemarikako alde desberdinetan, panorama berbera nabari zen. Ez Perun ez Bolibian ere ez zuten Askatzailearen aholkurik entzun. Oligarkiak, leku guztietan, trebeak ziren Bolibarren erabaki iraultzaileak maskaratzeko eta neutraltzeko; batzutan hitzez itxura gordetzen zuten, baina bazekiten beren interesei zer komeni zitzaien, eta inoiz ez ziren hitzeko kontzesio marroetatik harago joango.

BOTEREAREN GALERA

Bolibarren Hegoako urteak Bogota, Caracas eta Quitoko patrizio oligarkikoak probetxatu zituzten colombiar estatuko maki-neriaz, edo bakoitza bere zirkuituez jabetzeko, eta osoki beren zerbitzura jartzeko. Iraultzaren edo Aberri handiaren ideala zokoraturik geratzen da posizio konkistatuen eta aberri “aintzina-koeraren” edo baliogabetuaren miniasepen kontserbadorearen aurrean. Colombiaren golkoan, 1826, 27 eta 28ko urteetan egoera gero eta larritzenago zihoan. Sektore herritarrei gero eta desilusio gehiago ematen zien Independentziako ordenu errepublikarrak. Praktikan, ordea, boterearen gozatzailerik tradizionalen domeinua indartzen ari zen.

Barne burruka gogorra halako puntura heldu zen non Bolibarrek pentsatu baitzuen, eta hala azaldu zintzoki, antolamendu politikoko oinarriak berformulatu egin behar zirela herriaren eritzieske direkto baten bidez. Kongresu baten ideia bota zuen, Colom-

(2) Felice Cardot, Carlos: *Mérida y la revolución de 1826 o «La Cosiata»*.

biako arazo guztiak eta batez ere Cucutako konstituzio ezaski eta erratutik zetozen okerrak sakonki aztertu ahal izateko eta beharreko zuzenketak egiteko. Colombiar idazle handi batek, Indalecio Lievano Agirre historilariak, zorrotzasun bekaizgarriz aztertzen du Ocañako Konbentzioan bukatuko zen Bolibarren inizatiba horren joanetorria; “Bolibarren ahalegina, Perutik agertua, herriari bere nahia libreki adierazteko modua emango zion Konbentzio Konstituyente Handi bat konbokatzeakoa, ezin zitekeen isolaturik geratu orduan Colombia zatikatzen zuten ixtilu leherkorretatik. Askatasunaren etsaiek Batzarre Handiaren domeinu osoa, aldez aurretik, seguratzeko behar ziren neurriak hartutakoan bakarrik onartu zuten konbentzio haren ideia. Bolibar hiribururantz zetorrenean, Venezuelatik bueltan, Kongresuak, Exekutiboak, Granadar burgesiaren eta Venezuelako “mantuar” aristokraziaren abokatuek bultzaturik, Hauteskunde Arautegi famatu hura expeditu zuen, praktikan populaziotik ehuneko 95 boto eskubide gabe uzten zuena. Arautegi haren arabera, erro propietateren bat zutenek edo “alokatu edo morroi gisa inorengandik menpetasunik gabeko” profesiodunek bakarrik botoa eman zezaketen. Arautegiak gainera hauteskunde indirektoen sistema hartu zuen, eskala desberdinetan, iragazki antidemokratikoak ugaritzeko eta kantoi hautesleentzat eta Konbentziorako Diputaduentzat beharkizun apartekoak esigitu zituen haien propietate eta erretei buruz, derrigorrezkotzat jarririk “zientziaren batetako irakaslea izatea edo zientzi graduren bat edukitzea”. Ocañako Konbentzioak porrot egin zuen nazioko gogo demokratikoaren eta hango estamendu edukitsuen arteko gatazka nagusiak Batzarreko eztabaidetan lekurik eduki ez zuelako, Hauteskunde Arautegiak Batzarreko atea hertsu baitzion herriari” (3).

Ondo ezaguna da Bolibar “Dikatadurarantz” bultzatu zuen gobeheraren historia. Askatzailearen karrera politikoko etapa mingarri eta tragiko horri buruz leienda bat ibili da Amerikan zehar kontinente guztian jasaniko diktadura eta despotismo antiherriarrak Simon Bolibarren 1828ko emergentzi gobernuarekin kide nahi dituen. Honela kolore guztietako tiranoek beren errua zu-

(3) Liévano Agirre, Indalecio: *Razones socioeconómicas de la conspiración de septiembre contra el Libertador*, 33, 34 eta 36 garren oo. Aurrerantzean honela aipatuko dugu: ILA. ROSE, o.

ritu nahi dute partzialki behintzat salba ditzan analogiara jorik. Ez dago konparazio hau onartzerik.

Bolibarren biografo kalifikatu batek, Alejandro Rumazo Gonzalezek —Ecuadorko semea berau, Askatzaileari zintzoen portatu zitzaion lurra—, gogarazten du, 1828n, “herriak diktadura poztasun handiz hartzen duela. Gainerako herriko agintariak Bogotan egina onesten eta bizkartzten dute. Bolibar hiriburura sartzean, haren etorrera alaitasunez gainezka hartzen dute” (4).

Bolibarren “diktadura” Erromako errepublikako diktaduren antz eta arrazoietakoa da, eta Mirandarena izan zen bezalakoa. Zuzenbide Errejimen bat da; bere kabuz probisional deklaritzen da; epea jartzen da eta data jakin batetan nazioko errepresentapena biltzera behartzen da: 1830ko urtarrilak 2. Gainera ez dagokio Askatzaileari botere osoa; Estatu kontseiluak sarritan bere eritzia inposatzen du, baita Bolibarri zer pertsonalean ukitzen zioten arazo delikatuetan ere (5).

Hauzi hau hain proiektzio handikoa da non sobera merezi baitu gure eritzia birrematea, gai honetan hain zuzen, interpretazio tradizioaletatik arras aldaratzen dena. Funtsean abagune nahasi eta labur horretan, Bolibarren iraultzailetasunak ez du ezer galtzen. Bolibarrek ez du bere burua gezurtatzen, ez negoziatzen ez bere

(4) Rumazo González, Alfonso: *Bolívar*, 347 garren o.

(5) Badira honetaz anitz frogak. Ikus: Briceño Mendezi (1828ko hazila): «Nire dekretu organikoan prometatut dudak eta gehienei, antza, Kongresuekin gogaiturik daudelako, gustatu ez zaien nazioko errepresentapenaren konbokamenduari buruz, estatu kontseiluak lanean dihardu noiz eta nola bilduko den. Eta nik, hauteskunde arautegia egin nahi izan badut ere, kontseiluak ez du neurri hori onztat eman. Gauzak heldu diren puntura heldurik, burrukan ariz naiz neure buruarekin, neure eritziekin eta neure aintzarekin» II-506.

1828ko hazilean: Urdaneta jeneralari: «Frantzia eta Ingalaterrako gobernuen hasiriko negoziari buruz, uste dut gehiegi bahitu garela eta gauza oso arris-kugarria eta bueltagabea da. Ez dugu, beraz, beste pausurik aurrerantz eman behar, eta kongresuari utzi bere eginbeharra eta komenizkotzat daukana egin. Beste guztia hari bere eskubideak kentzea da eta gehiegi konprometatzea» II-825.

Pedro Alcántara Herran generalari: «Gerrako ministraritza berriro zuri emateko agintzen dut, eta Cuervo kontseiluko beste destino baterako proposatzen dut. Zerorrek jakingo duzu onartzen duten ala ez» II-827.

Estanislao Vergarari: «Nire erabakia biribila da, kontseiluak ondoen deritzana egin edo desegin dezala. Guzti hau eta gerta dadin gainerakoa kontseiluak ebatzi behar du; hari nagokio denean, denean, den denean, erabakirik baitut gehiago ez agintzea» II-829, 463.

jokabide kardinaletatik bat ere atzerantz botatzen. Aitzitik, ordea, haren jarrera antiesklabuzale txit argia ukigabe eta expresuki berretsirik geratzen da; haren erabakia bertakoen alde orduan inoiz baino garbiagoa da; berdin haren jarrera colombiazalea eta kontinentezalea; helburu guzti hauk berbaiezen ditu garai zail hone-tako dekretu eta egintzekin. Diktadura luzeki aztertzen eta inpar-tzialki juzkatzen bada, irristada atzerakoi bat baino gehiago Boli-barren azken intentua da Iraulza aurrera ateratzeko eta gihartzeko.

Askatzailearen azken ahaleginak bere obra errepublikar eta demokratikoa salbatzeko, alferrekoak izan ziren. Osasunak ez zion lagundu. Hilobiko atarian aski adore eta argitasun eduki zuen, bere Urdaneta zintzoaren bitartez, Amerikarako irakatsi hilezko-rrak emateko. Marabitar zintzoak, Aberriaren aitari zion maitasu-nak eraginik, boterea indarrez hartzera kinatzen zuen eta Bogotan altxaketak sorrerazia zen Bolibarri hiriburura deiturik; Bolibarrek erantzuten du: “Komisionatuen, herri honetako lagunen eta baita Bogotatik harturiko eskutitzen argudio eta aholkuetara makurtzen saiatzen eta saiatzen banaiz ere, ezin izan dut bi udal boteretako bi aktez beste titulurik ez duen aginte bat onartzerik erabaki. Nik ezin dut usurpatzaile mailara jatsi neure higuina gehien mendera-tzen saiaturik ere. Santa Mariak diost aginterik onartzen ez badut erremedio gabeki anarkia izugarri bat izango dela, baina zer egin-go dut, bada, nik presidentziatik bereizten nauen altzeiruzko ba-rreara baten kontra? Barrera hau Zuzenbidea da: ez daukat eta zeu-kanak ez du utzi; beraz, gauden hauteskundeen zain. Kasu hau heldutakoan, legezketasunak bere itzalez babestuko nau edo pre-sidente berria izango dugu; horizonte politikoa argituko da eta or-duan noizbait jakingo dugu aberririk dagoen ala ez. Orduan, eta orduantxe bakarrik, sartu ahal izango dut botere exekutiboan, hau-teskundeak legearen arabera egiten direla emanik beti” II-915.

Bolibar betikotasunera iragan zen. Colombia ez zitzaion bere sortzaileari gainbizi. Paez, Santander eta Flores, aintzinako nazio-nalismo apurren eta berbizztuen buru zirela, asko poztu ziren ba-koitzari tokatu zitzaion harrapakin antsiatuaren zatiekín.

Heldurik berdintasun, justizia eta askatasun ametsak uzteko ordua. Aldendurik zen oztopo nagusia, apalen bozeramalea, Iraul-tzaren maisua. Bakoitza bere “aberritxoan” komeni zen “ordenu zibila” zimendatzen saiatu zen jite militarikoi kenezinez eta hala,

“ondasun” gisa harturiko hazienden gainean eta sistema zaharretik heredaturiko esklabu burlatuekin, hasiko zen haro “berria”.

ANTIDEMOKRAZIA

Venezuelaren destino tragikoa, Bolibarrez geroko mendean, nabariegia da, zoritxarrez. Ez da kasu bakarra eta apartekoa, beharbada gure kontinenteko adierazkorrena bada ere, zeren nazio hauxe izan baitzen Askatzailearen sehaska eta oinarri historikoa. Amerika honetako kolektibitate oso gutik lortu zuten Bolibarren aberria hondoratu zen uhaitzei itzurtzea.

“Anitz tirano altxatuko da nire hilobi gainean eta hauk beren gerra zibilek odoleztatuko dituzten beste Silas eta Mario batzu izango dira” I-1324, somatu zuen Bolibarrek. Azkenera hurbiltzean, bere iragarpen beltzari ekiten dio: “herri hau jendetza desgalgatuaren eskuetan eroriko da hutsezinki gero kolore eta arraza guztietako tiranoak sumagaitzetara pasatzeko” II-959. Eta izan ere, 1830tik gora Venezuelako historia zambuluketa bakar erremedio gabearen kondaira bezala da. Nazio horretako destino askatzailearen hasierako argiak usteltzen zirudien askatasun-hiltekaren hanturaz.

Oraingo belaunaldiak bukatzen ikusi duen ehunurtea izan da testigu nola hainbesteko goieratik hain leize sakonetara jatsi den, zati handi bat —eta garbi esan behar da— zulo mingotsean beren eta inoren erruak ordainduko zituztenek berek haitzurturiko leizeak.

Bolibar ezkutatuz geroztik, Kaudilloek egin eginean betetzen dute beren xede beltza. Gizon harrapariak eta lumalari burugalduak elkarrekin igoten dira basa aparamenera, ezaguna bada ere, nardagarria den tragedia muntatzera. Kaudilloaren inguruan taldexka bat izan da beti, buruzagiaren nahikeriak sasiletran prosara itzultzeko prest honen borondatea nagusi denean, eta berari komeni zaion lasterbidetik sakatzeko listo, ezgaitasunagatik gidaria gidatua denean. Aholkulari hauen eraginari, Kaudilloen ezaskitasunari baino gehiago —batzu fede onez—, ezarri behar zaio Hispanoamerikako zorigaitz askoren gostua.

Venezuelak ondorioz sorturiko eta pairaturiko hondamendia mende amaigabe horretan, askotarikoa eta proteikoa da; erakunde

arloan ageri da: zazpi autokrazia handi elkarren segidan, lehenengo ehun eta bost errepublika urtetatik ehuneko laurogei justuki domeinatzen dutenak. Despotismoaren zerrenda deprimentea bilakatzen da historia hori, lenen bikaintasunak biltzeko pozetan ari zena bera. Era eta mota guztietariko eta desgustu guztietarako tiranoak; lautadetan, ekialdean, erdian, Andeetan; suharrak eta koldarrak; odolkideak eta ahaidetasunezkoak; sasi aurrerakoiak, atzerakoiak, entregistak eta chauvinistak; gupidagabeak eta onkote samarrak; oso luzeak, luzeak eta gutiago luzeak. Denak atzerakoiak eta gorrotagarriak. Denek dute amankomun, elkarren artean eta Amerikako beren antzekoekin, askatasun murrizketaren joera zorrotza eta irainkorra, hau da, herriaren arima bere zerik sakonean eta mamienean zauritu; era askotara gogarazi zuen Bolibarrek: "Gizonak, askatasuna galtzean, zioen Homerok, bere izpirituaren erdia galtzen du" II-1141.

Hondamendi politikoa: hirurehundik gora barne gerra, "zibilak" izenez, kontzeptu gurenen lotsagarri; bortxakeria eta deses-
tabletasuna tarte berean.

Hondamendi fisikoa; suaren orgia lurrak eta ondasunak kiskaltzeko, bizia zegoen lekuan herioa ereiteko; lurrikara suntsigarriak, kataklismoak, epidemiak, izurriak, gosea, exodo etengabea garai zoritxarreko horretan.

Hondamendi ekonomikoa: txirokuntza korrelatiboa; inperialismoaren instalapena neokolikuntz asmoz; nazioko aberastasunen esplotazio bidegabea eta kitatu gabea, Aberriaren larruketa birtuala.

Hondamendi historikoa: despotismoek nahi zuten hauspena; helbururik eza, kanpoko gobernu indartsuagoen isolamendua eta laidoak, eta Guayanako lurraren usurpazio pretenditua eta burutua.

Hondamendi morala ere bai: diktadurek dakartzaten bizioa eta miseria. Hondamendi intelektuala, azkenez, nazioko kultura hasberriaren geraldiz eta gainbeheraldiz, gerrako batasuna, askatasun gabezia, pobretasuna eta ezereza zela medio.

Jose Antonio Paezek Venezuelen Kontrairaultzaren mendea esklabutzari eusten zaio, eta era zentro-federal bat onartzen da. hasten du. Garai horretan etengabeki eta burugogorki ariko diran Bolibarrek jaso nahi izan zuen guztia hankaz goratzen.

1830ko Paezen kongresuko konstituzioa gizon indartsuaren neurrira eginik dago. Zentsu ordaintzaileen sistema ezartzen da, zeinen ondorioz herriaren eskuharmena ihardun politikoan boto murriztu bat baita —erizpide ekonomikoz— kantoi bakoitzeko “hautesleak” hautatzeko. Hauxek izango dira gaitasun osoko hiritar benetakoak, eta oso guti izango dira, noski. Oinarri legean esklabutzari eusten zaio, eta era zentro-federal bat onartzen da.

“Zentauroaren” hutsa Jose Tadeo Monagas aitabitxitzea izan zen. Honela tirania familiar eta beltza etorri zen. Nepotismoa, formula berri bat. Hiru jeneral, bi anaia, eta seme bat, ahaideria zabala: hamabi urte agintzen, kasik berrogei figuratzen. Nazioaren gogoari arbuio biribila, esaldi ziniko honetan nabaria: “Konstituzioak denerako balio du”.

Guerra Federalaren (1859-64) apokalipsis ondoren, Falconen gobernuua dator. Herritartzakoa, jendetza sakrifikatuaren alde ezer egiten ez duena. Autokrazia orijinala: agintearen axolarik eza, Mariskalaren bosturtea urtebete eta sei hilabete dira agintean; zazpi kargudunekin batera darama: lau coriar, bat bere koinatua. Atzerakuntza. Desestabletasuna eta anarkia.

Beste tankera bat, bizia eta ekilea, baina etikaz galdua, Antonio Guzman Blancorena da. Gizon zibilizatua, gizon bidaiaria, unibertsitaria; berekoaia eta harroa. Patrimonio izugarria pilatu zuen. Benetako populartasuna lortu zuen, baina berriro ere Venezuelari hiruzaku egin zitzaion. Hamalau urte direktoki gobernatu zituen; guztiz hogeitik gora daude haren erantzukizunpean. “Biurteen” sistema zentzugabea ezarri zuen, horrek desjarraitasun gehiago zekarrela: hamalau urtetan Estatu Buruzatik hogeitamar bat pertsona pasatu ziren, “Amerikar gurenak” bakarrik irauten zuen.

Figura desberdina da Joaquin Crespo. Autokrazia zabala, basakoaia eta liberal samarra; bi txanda, zortzi urte guztiz, eta irauan gogoia bere apupilo Ignacio Andraderen bitartez. Herria bere gogara esplotatzen du.

Tirania ustez venezuelazalea, “nazionalismo” kolpeko eta kolpagarriz, Cipriano Castrorena; zorabiotsua, faltsua eta hitzontzia. 1899-1908. Bere burugabekerien akaburako, ministro yankiari entregatzen zaio hark okerrak zuzen ditzan, eta hark “Venezuelako

eskuosodun” gisa eta herri honen izenean, bere Buruzagi Estatu-ko Idazkariarekin tratatu bat izenpetzen du Estatu Batuak errepresentatuz. Hitz handiak; zorabialdiak; azerturik bat ere ez. Frustrazio sakona.

Berriro beste esperantza bat: seriotasuna eta ordenua. Beste desengainu bat. Juan Vicente Gomez, “Amerikako lotsaria”, 38.000 preso, batzu hogeitertatik gora ziegetan. Tirania azken-gabea eta odolkoia; hermetikoa, ankerra, lakonikoa; aberatsa. 1908-1935. Inperialismo petroliodunari entregatua. Aitaidearen traizioa burutu aurretik, Aberria traizionatzen du: “Europako, Ipar eta Hegoa Amerikako gerrauntziak deitzen ditu, herriko barne ordenuari eusten laguntzeko”. Estatu Batuetako bost korazatu: Maine, North Carolina, Des Moines, Montana eta Panducan. Haiek eusten dioten aginpidean.

Gure kontinenteak ihardun antidemokratiko nazkagarri honen gomuta tristea dauka. Zenbat urte ustel, doilorkeriaren eta atzerakuntzaren birrorketan alferrik galduak? Argentinan: Rosasek hogeitalau urtetan agindu zuen, Peronek hamarretan. Paraguayn Rodriguez Franciak hogeitazazpi urte dirau, haren iloba Carlos Antonio Lopezek hamazortzi, Strossnerrek jadanik hemeretzi daramatza. Bolivian Melgarejok zazpi urtetako despotaldia. Perun Ramon Castillak eta gero Leguiak ia hogeitamar urte betetzen dituzte. Ecuadorrek Juan Jose Floresekin hasten du bere kalbarioa, gero Garcia Moreno izango da, gero Veintemilla, guztira ia hogeitamar urte hauek ere. Colombian Rafael Nuñezek hiru gobernu. Beharbada Guatemala izango de Venezuelaren antzekoena: Rafael Carrerak hamazortzi urte, Justo Rufino Barriosek hamabost, Estradak hogeitabi, Ubicok hamairu. El Salvadorren Hernandez Martinezek hamairu urte sartzen ditu. Hondurasen Tiburcio Cariasek hamasei. Nicaraguak Celaya hamasei urtez jasaten du eta Adolfo Diaz hamazazpiz; 1937tik gora Somoza familiaren mende dago. Brasilek hamabost ustetan Getulio Vargasen diktadura izenekoa eduki zuen. Republica Dominicanan Trujilloren “garaia” hogeitamar urtez luzatu zen. Cuban Machadok eta Batistak hamazazpi urte batzen dituzte. Mexicon Porfirio Diazek hogeitamabi urtetan agindu zuen. Haitin bi “enperadorek”, Chistophe-k eta Soulouque-k ia bost bosturte bete zituzten; Duvalier-en lotsakizun dinastikoa hamabost urtetatik gora pasatzen da...

Hauxek dira primitibismo eta subdesarroi politikoaren gobernuak. Gobernu errazak, ez da behar aparteko gaitasunik ez bat ere ahaleginik, ez buru bizkortasunik, ez jakituria handirik, ez apenas borondaterik.

Amerikar kontinentearen luze zabal guztian zehar autokraziak militarismoan aurkitu dute beren sostengua, Askatzaileak hain gogorki uxatua noski, erantzukizun duin baten, sakrifizio eta esku zabaltasunaren hauzo denaren ustelmen makurra bezala. Garai desberdinetan benetako anaiarte militarrek sortu dira herri desberdinen arteko tiranoen artean. Aberri hauentzat askatasuna irabazi orduan zeukatzen eginkizun militar hain noblea despotek zitaldua dute. Beren herrien okupatzaile eta lumatzaile izaniko harmada ofizialeek beren buruak ere halaber lotsagarriro erabiliak ikusi dituzte nagusi ahalguztidunaren haziendetako kaporalak bezala, eta soldadua gobernuek gose errazioz ordaintzen duten dohako peoneria bilakatzen da, gosea —hala ere— atxakia gehigarri ona izaki behar ez den aberaskuntzarako.

GERRA ANAIHILTZAILEAK

Kontrairaultza antibolibartar beraren beste agerpen bat, autokraziakin batera, gure herriak, eta batez ere —esanik dugun bezala— Bolibar jaio zena zigorkatu zuten barne gerren zerrenda luzea da.

Berdin nekagarriak izan dira Amerikako nazioen arteko enkontru harmatuak, bata bestearen kontra. Venezuela da oraingoan salbuespen bakarra: bere hauzoekin gerrarik sekula izan ez duen nazio amerikar bakarra, nahiz eta berak bere golkoa mila bider puskatu. Aurrerago, Bolibarren interamerikanismoa ukitzean, Bolibarrek “anaiak” nahi eta deitu zituen herrien arteko guduetan isuritako odolaren gai mingarri horri berriro eginko diogu.

354 gertaera odoltsu eta bortitz nagusitatik gora eta konta ezin ahala “gerra ekintza” erregistratzen du Venezuelako historiak kontrairaultzako mende luzean. Han penduluak izozketa autokratikotik irakindura anaihiltzailera saltatu zuen; geldikeria ahulgarririk uherdura frenugabera.

Bolibarrek bazekien harmadetan “gizon haragizko eta hezurrezkoak” zebiltzala, I-914, ase beharreko premiekin, eta baita harma-

da herri harmaduna zela, gehien bata herri nekazaria, esplotatua eta ezjakina, demokraziaren bikaintasun teorikorik ulertzeko kondizio gabea, eta batez ere beren sakrifizioen ordain mereziak afandua. Esklabutzaren abolipenak eta lurren banaketak gudulari nekatuiei —jadanik hiritar libreak, beren lurren jabeak— beren bizimolde baketsu eta tradizional bihurtu behar zien, aurreramentura irekiriko egoeran, konstituziotasun errepublikar eta demokratikoaren babespean.

Ondorio bidezko hau kaudilloek hausten dute. Beren hitzek jarraitzaile kokolo eta bihotz onekoengan pizten duten konfiantzari burla egiten diote; Maquiaveloren eskolaturik bezala, zin eginiko fedea promes ordua pasatuz batera ahazten dute eta betetzeari komeni ez zaienean. Egon zen, bai, aldakuntza sozial bat, baina goian: kondeak, markesak eta koloniako jaunak egoera berriko jeneralekin, koronelekin eta doktorrekin aliatu ziren.

Askakundeko soldaduak, beren aldetik, lizentziaturik gertzean, enplegu gabe aurkitzen dira; eginbehar militarrek heriotza artean hezi ditu, eta horrek lehenago harrapakina iragartzen zuen: hospeta, errespetoa eta bildurra, eta jenero mardulak berehalaxe. Naturala da, beraz, horrelako jendea, premiak gehiturik eta ase-bideak urriturik, ezagun duten ofizioan benintzat okupatuko dituen abenturarako prest egotea; eta horrela ulertzen da jendetzak edozein mesiasen deirako listo egotea.

“Gerrari baino bakeari bildur gehiago diot, eta honekin esaten ez dudana eta esatekoa ere ez den guztiaren ideia ematen dut”, I-560, aitortu zuen Bolibarrek esaldi txit arraro eta enigmatikoz. “Ets ezazu —gaineratzen zion Guali— leize gainean gaudela, edo lehertzeaz dagoen bolkan baten gainean” I-560. Lautar burlatuen arrazoia ulertzen zuen, “beren lantzaz lorturiko fruituak biltzeko itxaropen gabe” I-560; eta engainatu pila handi horri beste inguru guztietako gizonak batuko zitzaizkiola antzematen zuen, inguru guztiak horzkada anaihurtzaileetarako kanoi haragia eman gozoz noski.

Egoera kolektibo honekin, deuseztapenaren horrelako gestoreekin, espiralean bezala aliatuz eta handituz doan barne gerra hasten da; gaurko ondorioak biharko kausak izango dira. Venezuelako gerra zibiletan izaniko hilak milioi bat inguru izan zirela jotzea ez da gehiegi.

1830tik 1935 arte, Venezuelan ez dago bake iraunkorrezko bosturte bakarrik ere segikorik. Kontrairaultz alditik ehuneko lau-roi irabiotan eta hondemenditan jaten da.

Amerikako herri desberdinetako barne gerren zerrenda izugarria da. 1828tik 1855ra, Mexiko ia nazio gerra segikoak jota dago. Erdi Amerika berdin. Halaber Argentina eta Colombia. Jesus Galindez irakasleak dio: “Bi iberoamerikar herri bakarrik salbatzen dira gerra zibil hoietatik, eta oso arrazoi desberdinengatik: Paraguay eta Brasil” (6).

Venezuelako kasuan gehiago dago oraindik. Barne burrukarik odoltsuena arras Bolibarren kontrako bandera baten abetapean egin zen, federalismoa hain zuzen. Izan ere 1830 hondoko hiru hamarkada iragan baino lehen, ordenu kontrairaultzaile kaxkar horrek krask egin zuen, esplotazio eta morroikeriazko ordenu horrek —batez ere masa nekazariena—, “Botere zibil” gezurrezko, zentsu sistemazko, agiorako eta gosetik harako bandolerismoa exenplarki zigortzeko legeen ordenu horrek. Valentziako konbentzioak, gizon batzu oso distiratsuak eta zintzoak edukirik ere, ezin du gainean den eztanda ebitatzeko ezer egin. Errepresioa, gero eta gogorragoa, ez da nahikoa frustrazio sakon eta benetako baten azala besterik ez zenari eusteko.

Bost urtetan —1859-64—, zauriak oraindik orbaintzeko zituela, Venezuelako nazioa berriro odolusten da. Begiratu batez demagogia hutsa zirudien hasiera erraza, errotuluaren faltsukerian ere agertua —“jaun etsaiek Federakundea esan balute, guk Zentralismoa esango genuen”, aitortzen du lotsagebeki Antonio Leocadio Guzmanek— seinale salatzaile bata da gerra honekin alferrik gaudituh nahi den kiebra izugarriarena. Federakundea “saindua, zeruzkoa, jainkozkoa” dela esaten denean —Estanislao Rendonen hitzak—, inkontzientki lehia eder baten balioa bere jantzi az ondohartzten ez den beste arrazoi batetara transferitzen da, zeren, arretaz aztertzen bada, Venezuelen Federakundea, berez, formula atzerakioa baitzen: koloni desilusiora bihurtzea, hasierara itzultzea. Venezuelen federal jaio zen, puntu solteak bere geografia irregularrean,

(6) Galindez, Jesús de: *Iberoamérica. Su evolución política, socioeconómica cultural e internacional*, 197 garren o.

beti elkarren errezeluan ibilitako probintzien zentruak izaniko puntuak, kolonialdiaren azkenerantz bakarrik batuak baina konsistentzia handirik gabe. Aurrerakoia zentralismoa zen, Bolibarrek bere banderan ezarria, herri baten artikulapena eta ez zatien sakabakuntza. Zentralismoa errejimen bizi eta sortzaile desiratuari komeniago zitzaion, federalismoak, ordea, laissez faire antzekoa zekarren, nazio batasuna indargetzen, feudoak eraikitzen eta indarrik onenak txinpartada hutsaletan atomizatzen zituena.

SAIHESPEN FEDERALISTA

Fenomenoa Amerikako zenbait herritan antzekoa da: Rosas argentinarrek “Federakunde Saindua” zioen; Venezuelan honela ere deitu zen: “hitz zoragarria eta gogozabala”. Amerikar kointzidentzia hau batasun pareki ebolutiboaren edo kasu honetan atzerakoiairen seinalea da zeren Independentziazatik honako ordenu eza-segarritik —ordenu erdizka bakarrik iraultzailea— sistema hankaz goratzera jotzen baita, sistema horren azal zentralista funtsezkotzat jorik okerki.

Venezuelan federalismoak, gobernua dezentraltzean eta estatuak ugaritzean, konspirazio eta ondoez fokuak ere era batera ugaritzen zituen. Metastasis sozial gisako batez, beste matxinada modu berri bat hasten da: “mugimendu lokalak” gobernu probintzialak botatzeko. Bolibarren salapen gordin eta lauaren baieztapen tristea —berrogei urte lehenago—: “Nahastariiek horixe nahi dute; gobernutxoak eta gobernutxoak erreboluzioak eta erreboluzioak egiteko. Nik ez; nik ez dut nahi gobernutxorik”, I-713. Federakunde tragiko eta negargarri horretako arau jakina desestabletasuna eta noraeza bilakatzen zen. Bosturte postfederalista horretan hirurogei zartaldi lokaletik gora.

Amerikan ere federalismoak ondorio txit negargarriak utzi ditu. Egiatzko iraultzaren burlaketan sorturiko debatean, funtsa bistatik galdu eta bigarren mailakoa hartzen zen lehenengotzat. Herriaren miseriaren hauzi ardatza eta jende apalen kontrako diskriminapenak bazterturik, enfasis guztia morfologia politikoaren azalkerian jartzen zuten.

1838rako, federalismoak Erdiamerika guztia zatikatu zuen. Argentinan Buenos Airesko hiriak eta probintziek guduxka luzeak

egin zituzten beren burruka “federalean”. Federalismoak Chilen porrot egin zuen 1828 aldean.

Brasilek eta Mexicok, Latinamerikako herririk handienek, ez zuten era hori guti kostaturik hartu. Mexicon 1858-60n izan zen gerra federala, kontsigna honen aldeko demokratek kontserbadore klerilak aurka egina, eta frantziar interbentzioaren eta Maximiliano enperadore tentelaren aurkako burrukan luzatu zena. Brasilek 1891n ezartzen du, bere egitura inperiala errepublikarragatik aldatzean.

Amerikan kontrairaultzaren ondorioz datorren desestabletasun politikoak agerpen egin egina du “konstituzioen” ugalmenean, bakoitza krisis politiko astun baten ondorioa eta asmo berri baten edo gehienez epe laburrera ustel geraturiko beste zuzenketa asmo baten arautegia. Jesus Galindezek laburtzen eta informatzen du: “Independentzi bizitzako mende eta erdi bete aurretik, Republica Dominicanak 25 konstituzio ukan ditu, Venezuelak 23, Haitik eta Ecuadorrek 18, Bolibiak 16, Hondurasek 14, El Salvador, Peru eta Nicaraguak 12. Badira herriak urtean konstituzio bat dutenak; badira bigentziara heltzen ez direnak ere” (7).

Amerikak bere saihaspen politikoaren errakuntza garestiak odolez ordaindu ditu. Bolibarrek bide batzu seinalatzen zituen gairak eta aurreramentua. ezartzen eta kroniko bihurtzen ari den hondamendiak sobera baieztatzen ditu haren ikuspen ikaragarriak: “Amerika guztia zalaparta bat da, hedatsuagoa edo ez hedatsuagoa” II-694. “Amerikako egoera hain bakana eta lazarria da non ez baitago gizonik ordenuari luzaro eutsiko dionik ez eta hiri bakar batean ere” II-933. “Amerika osoa nahaspila ankerrezko koadro ikaragarria da. Sumendi baten gainean bizi gara, zuzenbide eta eginbeharraren printzipio guztiak ahazteraino desmoralizaturik gaude eta ez zaigu eraginik egingo duen beste erresortetik geratzen buruz eta oportunitatez erabiliriko indar efektiboa baizik” II-684. Amerikako “nahaspila izugarri hori” II-644, edo berriro ere Bolibarren hitzekin esateko “elementu desantolatzailerik guztien desarrolloa” II-1133, horixe izan da kontinenteko historiaren konstantea, eta nork jakin noiz arte izango den. Bo-

(7) Galíndez, Jesús de: *op. cit.*, 187 garren o.

libarren oharpena bere letra guztiekin geratzen da oraingo eta geroko, gure aurreko iraganean sobera gertatu ondoren: “Amerika bere pausuetara bueltatzen ez bada, bere ezereztasunaz eta ezinaz komentzitzen ez bada, ordenura eta arrazoiria dei egiten ez bada, ezer guti espero daiteke hango gobernu finkapenari buruz; eta beste kolonikuntza berri bat izango da geroari utziko diogun ondasuna” II-733.

Independentzia, askatasuna, demokrazia eta justizia, horra Bolibarren banderak gaurko belaunaldientzat. Horra haren errealizazioak historiarako, zirkunstantzia gehienez murriz eta negatiboen baten fruitu urriak aparte utzirik.

Geroari aurrea emateko keména, oraina gairitzeko gogo beatea eta batez ere gidariari —Simon Bolibarri hain zuzen— jarraitzeko borondatea, horra Amerikan ordenu berri bat benetan ezartzeko beharkizunak.

EKONOMIAN FRAKASUA

Ez da inboluzioa politikan bakarrik gertatzen, Bolibar fisikoki desagertuz batera. Azkenerako haren jomuga handi guztiak gertatu ziren ukatuak eta gesatuak; eta Bolibarren asmo anizkoitzaren gainean iraultza aurretik zegoen ordenu iheskorra bera, edo okerragoa, berjarri zen.

Kolonikuntzan tipikoa zen ondasunen banaketari Bolibarrek herri gudulariari lurak banatzeko sistema zuzen bat oposatu nahi zion. Gainera aurreramendurako neurri gehigarriak hartzea bultzatu zuen eta nazioko aberastasuna salbagordetzen ahalegindu zen meatzen jabetasuna expresuki Estatuarentzat proklamatzeko hasirik. Guzti hau kaudillaia autokratikoak eta oligarkiek atzerantz bota zuten.

Bolibarrek Angosturako kongresuan herri gudulariari lurren banaketa egiteko legea luzatu gabe eta idazketa orijinalaren molde zintzoetan onetsia izan zedin egin zuen dei larri eta guzti ere, gorputz soberanoak neutraltzeko moduko aldakuntzak egin zizkion. Hantxe hasi zen nekazal burla deitu dugun historia.

Bolibarren beste asmo aurreratu batzuri buruz bezala, gai garrantzitsu eta funtsezko honi buruz ere kongresua atzean geratu zen. Lehenago ere, konstituzioa idaztean, Bolibarrek ausarki formulatu zuen jabeago eskubidearen aurrean ere —Estatuari desjabeakuntzarako konpromezuak kendurik eta hartarako arrazioak zabalduz— kongresuak atzerakoiki erantzun zuen: beharreko hitzak inausi eta eskubide tradizionala bere hartan utzi zuen; indemizazioari bere lehengo obligagarritasuna bihurtu zion.

Ondasunen banaketari buruz, Kongresuak 1820ko urtarrilak 6n, Askatzaileak aurkezturiko textuan aldakuntza handiak sartu zizkion. Herri harmadunarentzat, gehienak nekazariak, gehiegi zabalduz joan zen, “ez bakarrik militarrentzat, harmadetako administrazio eta zerbitzuko enplegatuentzat baizik, eta larritasun eta arrisku aldi honetan Errepublikan edozein destino zibiletan zerbitzatu duten guztiei” M. 264. Iraultzak ekintza azkar eta efektiboa behar zuenean eta banaketa benetakoa gero osatuko zen ad hoc Batzordeari gomendatu zitzaionean, kongresuak dena hankaz gora botako zuen lehergailua ipini zuen: “Izendapen hauen ordainketa Altxor Publikoko txarteletan egingo da”. Txartel hoiien banaketarako arautegia 1820ko uztailak 31n promulgatu zen.

TXARTELEN OKERRA

Legea Angosturan argitaratu zenean, Bolibar bere eginbearra betetzen ari zen Bogotan. Egunak geroago, El Rosario de Cucutan hartu zuen bere asmo zintzoei herio zartada zeamaieten aldakuntza hauen berria —dezehatz samarra—; handik idatzi zion Santanderriri: “Ondasunen banaketa legea Colombia guztirako da eta orain, gaizki ala ongi, denentzat da. Baina legeari erreformaren bat egin diote, diotenez, legea bera ikusi ez badut ere. Nazioko ondasunen txartelak militarrei entregatzeko agintzen da, eskaintzailerik one-nak errematean eros ditzan” I-444.

Berehalako esperientziaren argira, Bolibarrek zorrozki kolpatzen du oker hori. Neurri horren berrikuspena biribilki eskatzen du “legearen helburu ongarria burlatu eta ezereztu baitu eta Estatuari egundoko zorra leporatu zorigaitz aldietan aberria defendatu dutenen finkapenik eta bizipiderik inola ere seguratu ez leundu gabe” O’L. XVIII-394. Briceño Mendezen bitartez, Gual ministroari idazten dio kongresurari urgentzia osoz beharreko zuzenketa eska diezaion, gaitza lege horren aldebrekuntzatik baitator, zeren “militarren gabeziak ordaintzea eta era batera sustrai ondasunekiko finkapen bat haiei ematea helburutzat zuelarik, kasik helburua galdu baitzuen izendapen hori efektibo egiteko bideak azaltzean, hainbeste oztopo eta eragozpen jarri baitzuen, nazioko ondasunen susta eta errematea eta txartelen alde aurreko banaketa esijituz. Hori, ordea, ezina izaki herriko zinkunstantziengatik eta harmen

profesioak harmak daramatzatenei errematera joateko beren lekuak uzterik uzten ez dielako” O’L. XVIII-394. Erreforma argia izan dadin eta asmo orijinala gal ez dadin, Bolibarrek galdera batzukin orientatzen du Gual: “Legearen helburua militarrek jabe egitea bada, haiei ordaintzeko, bizipidea seguratzeko eta herrian establetasuna eta sustraipena emanik, ba al da hau lortzen txartel soil batzu emanik, subsistitzeko mediorik ez dutenean, subastatzeko eta errematatzeko ondasunik ez dagoenean, nazionalak zeintzu diren ere ez baitakigu, eta salmentak egin behar diren operazio herri edo hiri hurrunetara joaterik ez dutenean?” O’L. XVIII-394. Gaitzaren handitasunaren jakile, Bolibarrek ez dio ministroari gomendatzen legearen erreforma urgentzia osoz eskatzeko baizik, “denen gaintetik txartelen emisioa eta banaketa mozteko baizik, haien kredituaren suntsipen osoa eragozteko eta gure militarren hondamendia ez gehitzeko” O’L. XVIII-395. Segurki gertatuko denaren prebisioz, Bolibarrek Guali ekiten dio: “Bien bitartean behar beharrezkoa da Kongresuak medioaren batzu diktatzea harmadak hainbeste aldiz berretu zaizkion eskaintzen betekuntza espero ahal dezan. Oso arriskutsua litzateke bakoitzak bere itxaropenak jarri zituen eskaintzak beteko diren duda apurrik sortzea. Bake eguna hurbil dago, harmada lizentziatzeko eguna hurbil dago; eta baldin orduan, etxerakoan, izendapenaren gozamenen sartzeko segurantzarik ez badaramate, ez da harritzekoa izango espainiarrek Venezuela 1814n menderatzean jasan zituzten defekzioak berak gertatzea, eta ez ahal da hau mehatxatzen gaituen gerra zibil hondagarriaren seinale izango, gure populazioaren itxurazko diferentziagatik” O’L. XVIII-395.

Gualek Bolibarren gomendioari bidea azkar eman bazion ere, Ganbarak, eskaturiko zuzenketagatik bat ere berotasunik gabe, azkenerako —1821ko irailak 6n— direlako txartelak atzerantz botatzen ditu. Ordurako espero izatekoa zena gertaturik zen: txartelak, jadanik salerosian, pilatzen ari ziren. Okerra eta negozioa eginik zeuden; horregatik espresuki geratzen da: “txartel hauen hirugarren edukitzaileek duten eskubidea salbu”, hoiei behar dena amortizatuz joango delarik, B. eta A. VIII-111. Txartelak gainera ehuneko 95 baliogabetu dira, “eta oso pozik daude prezio horretan trukea lortzen duten militarrek (dio Briceño Mendezek); segurta daiteke bere edukiak txarteletan hartu dituen inork ez dauz-

kala, eta denak, edo gehienak, beste esku batzutara, esku lukurre-roetara, pasatu direla, esan dudan kopuru ziztrinagatik. Jakituria handirik ez zen behar txartel sailen emisio eta zirkulapen horrek gure kreditu politikorako galera osoa eta guztizkoa ekarriko zuela igartzeko, bai gero eusteko eta kreditatzeko behar ziren beharkizun, segurantza eta hondorik gabeko txanpon paperaren sortzapena zelako, eta bai haren jabeak izango zirenak ezer gabeko gizonak zirelako, beren premiak laster erremediatzeko edozein kopuru efektibogatik trukatu beharren aurkitzen zirenak” O’L. XVIII?393.

Hau guti balitz, Kongresuak, Bolibarisismoaren kontrako jokabidean tinko, Askatzailea lehenagotik bete betean oposatu zen aldakuntza bat zutik uzten du: hobariak, berdinean, enplegatu zibilei zabaltzea. Berdintasun hau hala holako indar eta zintzotasunezko esanetan oinarritzen zen: “Gabezia berdinen mende, anitz arrisku ikusirik, eta sarritan kanoi etsaiaren ahoan”, M. 264. Honela, justizia zabalagotzeko atxakiaz, Bolibarren ahaleginen saboteiatzaileek nekazal erreforma antzeko hau hankaz gora botatzea lortu zuten, hartzaileen zenbakia neurri eta arrazoi gabeki gehiturik, eta nekazaritzak bost axola zien burokrata alferrago edo ez alferragoei emanik. Briceño Mendezen bitartez, Bolibarrek galdatzen zuen: “Arrazoi bera al dago izendapena emateko bere osasuna, bere odola eta bizitzak duen zer bikain eta maitagarri guztia sakrifikatu duen militar bati, eta arriskutik beti urrun, herriko beste bizilagunek bezalako arriskua baizik ikusi ez duen enplegatu zibil bati, diferentzia honekin gainera, alegia, bati besteei ez bezalako begirunea zaiela eta honelako enpleguek irabazpide izan direla beti?” O’L. XVIII-394.

Ez desulerpenek ez ezetz setatiek lortzen dute inoiz Bolibarrek nekazal justizia egiteko buruera uzterik. Bere bizkarrean, hain helburu delikatu horren kalterako erabaki ziren arauen ezaskitasuna gaitzetsirik eta alterapien kritikaturik ere, legea —bere ustez bati ere egokia ez zena— errespetatuz, nolana ere haren arabera banaketa bete erazi nahi izan zuen, zeren, kontuak kontu, lege hori posibilitate hebaina eta pobrea bazen ere, posibilitate bat baitzen nolana. Honela, 1821ko urtarrilak 6n, Jose Antonio Paez jeneralari —banaketa ideiarekin aurrenetarikoari— eskubide osoak ematen dizkio Venezuelan nekazal justizia egin dezan. Bolibarrek berariaz esan bezala, buruzagi lautarrari dagokio laburtzen

eta sinpletzen saiatzea “legeak eskaturiko formulak eta propietateak gabe balioak izendatzeko jartzen duen oztopoa salba dadila”. Bolibarrek —gogoraturik dugun bezala— Paezi ekiten zion banaketa egitean, “kontu eta arreta hartu” behar zuela sarituek beren edukiak eralki ez zitzaizten “beren buruen eta beren familien kaltez eta Legearen asmoaren arbuioz” M.283.

LURRAK KAUDILLOENTZAT

Paezek bere interesaren kontu eta arreta hartzea nahiago izan zuen. Eskubide handi haik hartu eta bederatziz hilabetetara, “La Trinidad” etxalde bikaina, Casa Leongo markesari sekuestratua, berari traspasa dakion gogoia erakusten du. Erantzun atsegingarritz, Gobernuak Presidentordeari agintzen dio: “Bere Goientasun Paez jeneral Colombiako benemertuaren zerbitzu handiak kontutan harturik, Zure Goientasun horren bitartez, La Trinidad deritzan etxalde hori adjudika dakiola bere balio intrinsekoatik, peritoen legezko balorapena aurretik dela, eta Zure Goientasun horrek haren alde Gobernuaren izenean behar den eskritura emanik; eta honen ordainez onar dakiola: lehenengo, Yaguako abelesparrua (lehen Askatzaileak adjudikatu ziona) bere balio legezkoatik haren balorapena ere aurretik dela; bigarren, zor zaizkion eta hartarako kitatuko zaizkion alokairu debengatuak kopurua; hirugarren, aurretanzako alokairuak; eta laugarren, hazienda produktuetatik ordain ditzakeen kopuruak, zeren honela hain buruzagi gurenaren nahiak aserik geratuko baitira, eta Gobernuak gustu emanaren pozez” M. 316.

Iraultzaren alderdi hau sorrerazten duen ideiarekin aitasunari buruz Paezek geroago komeni ez zaiona ahaztuko badu ere, haren lotura gai honekin argi dago. Bere Autobiografian Bolibarri zion aitormenduaren zeremoniak xeheki deskribatzen ditu, baina ez dio tutik hari makurtzeko jarri zion eta Briceño Mendezek —ikusirik dugun bezala— oso ondo seinatzen zuen baldintza bakarrari buruz —baldintza ulergarria eta kutuna orduan—. Baina 1825n buruzagi suharraren erantzukizunaren beste arrasto konprenigarri bat dago. Arazo publikoekin batera maneiatzen dituen bere negozio bere berei adi beti, Paez jeneralak, Colombiako Gobernuari bere propietateen salmenta proposatzean, —“abereak, zaldiak eta lu-

rrak” Apuren, eta “juxtuan dena zenbat izango den zehaztu” ezin dituenak—, militarren edukien asepenari buruz dio: “Neu naiz harmada jasotzeko eskaintza honetaz baliatu zen lehenengoa” M. 421m 422.

Bolibarrek nekazal justiziako legea betetzeko toki guztietan aurkitzen zuen atzerapena, eta kontrakarrik handiena arau iraultzaileak aplikatzeko arduradunengan zetzan hain zuzen. Pastoko bere kuartel jeneraletik, 1823ko urtarrilak 13n, hegoako militarrei lurrak banatzeko batzordea sortu zuen, Juan Jose Flores koronela tarteko zela; data bereko dekretuz konfiskaturiko lurrak banatu behar ziren. Paez bezala, Flores ere bere interesak zaintzen hasi zen; laster bilakatuko zen Ecuador aldeko pertsonaia nagusia; haren ziriketaz banatu zen Quito Colombiatik, eta haren despotismo luze eta desagilearen mende, Iraultzak prometatu zuen guztia neutraitzen eta kontraesaten da han.

INDIOEN KONTRAKO ENGAINUA

Soldauei, gehienak nabarrak, egin beharreko banaketaren destinoa tristea izan bazan, ez zuten zorte hobetik izan indioei lurrak emateko erabaki zintzo eta txit zuzen eta iraultzaileak, zegokiena bihurturik. 1820ko maiatzeko bertakoen aldeko dekretua laster bilakatu zen letra hila, eta okerrago oraindik, isekabidea eta euspeidea justifikaezina justifikatu nahi izateko. Pedro Briceño Mendezek —Askatzailearen esanak segituz— 1821ko otsailak 12n izenpeturiko dokumentu esankor batek xehetasun ukaezinez argitzen du egoera lotsagarri hau. Kontaezinak dira Bolibarrek entzun dituen kezak “ibili den probintzia honetako herri guztietan eta baikoitzean”, zeren bertako korregimendu guztietan abusu jenerala gertatuz gainera, hango jende dohakabeei “hoberatu eta beren lurrak, eta haiekin beren familiak sostengatzeko bideak lortu beharrean, lurrak kendu egin baitizkiete eta toki askotan lur antzuetara konfinatu eta lehen zeukaten baino hedadura gutiagora lotu”. Berehalaxe dator argitzapen nagusia: “Zure Goientasun horrek badaki indioen alde emaniko legearen izpirituaren kontrako zitalkeria hori aurrera eramateko, gehienez erabili duten atxakia eskolagintza eta maisuen ordainketa dela” M. 283. Hona berriro ere betiko zantarkeria.

Askatzaileak orain aurreko urteko maiatzeko bere dekretua berresten du eta gobernadore komandante jenerala, pertsonalki, erusten du banaketaren eta azken ondorioetarainoko kunplimendua-
ren erantzule. Bolibarren helburua, komandanteak beti “bistan eduki behar duena, gure populazioaren zati hau laboratzea da orain arte zapaldua edo degradatua izan den adina edo gehiago”. Bolibarrek honetaz kezarik ez oihurik gehiago ez entzuteko esperantzaz bukatu du bere idazkia eta nabarmentzen bere kausa eta indioena “justiziarena, naturarena eta arrazoiarena dela” M. 284.

Komentaturiko dekretu honek, Bolibarrek hain maite zuen eta bere iraultza sozioekonomikoaren hain adierazgarri zen honek beste askoren zorte penagarri bera ikusi zuen, 1821k, urriak 4n lege bihurturik, eta azkenean ezerezean geraturik. Jokoa ezaguna da: lehenengo ideia jeneralei omenaldi erretorikoa; indioak “denean beste hiritarren berdín geratzen direla eta lege berdinen mende egongo direla” deklaritzen da, gero Bolibarren pentsamenduaren transkribapen ia textuala, baina berehalaxe eraskin neutralgarri bat sarturik, azkenean dena lehengoan uzteko: lurrak “domeinu eta jabetasun osoz banatuko zaizkie, zirkunstantziek hala permiti dezatenean. Bien bitartean gordekiniek bertakoen esku jarraituko dute, orain arte gorde diren arau berdinen mende” M. 309. Perutik itzultzean, 1826 garren urte azkenean, Bolibarrek lege horren berria batzen du, zena zela ere indioentzat neurri askatzaile bat zeramana behintzat, eta indioak lotsagarriro lumatzen dituztela aurkitzen du gordekinen likidapentzakoan. Beharreko zuzenketa berriro martxan jartzean 1821tik Colombiako boterean instalaturiko oligarkia harroaren komenentzia berenkoiekin topo egiten du, eta honela haren kontrario ukondotsuen bandoa ugaritu egiten da. Guatavitan eta Guascan gertatuak indioen esplotaziorik doilorrenean zimendatzen zuen bere boterea.

1830n, bidegabekeria ekonomikoaren eta masen miseriaren ga-koak berean dirau, ia lehen lehenean, goiko pertsonaien aldakuntza hutsez. Asmo iraultzaileak heurt egiten du gutiziati batzuren onerako, batzu jatorri apalekoak, pribilegiozko mailetara igonik, beren herritasuna ukatzen dutenak. Hauentzat bai badela ugaria independentzia. Hauen patrimonioetara etxalderik ederrenak datoz. Adjudikapen, errentapen, truke eta abarrezko hainbat operazio egiten da urte hoietan goiko buruzagi militarren alde: Santiago

Mariño jeneralari, “La Soledad” etxaldea Güirian; Juan Bautista Arismendi jeneralari “Yaguaraparo”; Cornelio Muñoz koronelari “El Trapichito”; Jose Lugo koronelari “El Rincón”, Macaray-n; Francisco Martinez koronelari “Yoko” Güirian; Jose Francisco Bermudez jeneralari Cumana eta Caracasko etxaldeak; Monagas jeneralari...

Errepublikak aginduriko banaketarako zeuzkan lurren kontra ere bazen mobilizapenik. Caracasko etxagun handiek, 1819n Askatzailearen kontra —mundura zabalduriko agiri hirueledunez— txakurrenak bota dituztenek berek, 1821n, zurikeria lotsagabez, beren ondasun konfiskatuak nola birreskuratu dabilta. Status ekonomiko zaharra birezartzeko gogo honi Bolibarren erantzuna hotta eta zuzenbideari atxikia da; berak ez dauka legeak agindua aldatzeko eskubiderik; erreklamatzailleek justizian ari direla uste badute, bakoitzak bere hauzitegira jo behar du.

Kaudillo kezka gabek, eta hauen aberats segizioek —asko senadoreak, diputaduak eta funtzionari exekutiboak—, Iraultza hondatu zuten. 1828ko Magdalenako Dibisioko militarrek Ocañako konbentziara bidaliriko oroitagirian, fartsa hura expresuki salatzen da: “Dena izan da bidegabekeria, dena abandonua, dena arbuioa. Noren eskura doaz ondasun konfiskatuak? Dokumentu asko beren balioaren bosgarren edo seigarrenagatik berengandu zituzten jende edukitsuek; Gobernuak preferentzia bidegabekeria eman zien, eta militarren bat etxalderen baten adjudikapen eske agertzen zenean, partikularren bati emana aurkitzen zuen. Salerosketak orduan emaniko balioagatik saldu ziren dokumentuak: honela batzuzentzat espekulazio, azpijan, agio eta ustelmenezko eta denentzat lotsagarritzko jokoa egin zen; harmada bakarrik izan zen biktima; geu bakarrik izan ginen burlatuak, eta legea” B. eta A. XII-135, 137.

Kontrairaultz mende honetako alternatiba eta gorabeheretan jabetasuna sarritan hara honatzen da, baina koloni egitura ekonomiko eta soziala ukigabe geratzen da beti.

BOLIBAR «SUBERTSOREA»

Arlo honetan joera kontrairaultzailearen adierazgarri ederra da Paezen kongresuko dekretua, Bolibarren zikloan diktaturiko ondasunen konfiskapen legea derogatuz —1830ko abuztuak 5n—.

Zinismo antologikoa dago hemen. Oraintxe, 1830n, konturatzen da Paez konfiskapenak “herri libre baten eskubideen kontrakoak direla”. Kaudilloak —Las Queseras-ko heroia bera aurrenen dela— ondasunik onenak harturik daude. Lur iraultzaren arrasto guztiak ezabatzen dituen legeari, Bolibarri inplizituki “subertsore” deitzen zaion textuari, Gaceta del Gobierno-n egiten zaion komentario— hitzaurrean, bista bistan dago atzerakadaren manifestua dela: “Ez du onespen publikoa gutiago merezi ondoren jartzen dugun dekretuak konfiskapen legeak aboliturik, zeintzuk, justiziaren begietan beti gorrotagarri diren bengantzetan oinarriturik, Colombian gizar-tearen eskubide legezkotzat kontsakratu baitzuten aginpide gabeko partikularra laidotzen eta kondenatzen duen larruketa bortxazko bera. Gure ordezkariak Venezuelako berrikuntz aldia markatu duten zibilizazio eta gizatasun erakutsi honek herriko eta herbesteko gizon onerako guztien maitasuna, begirunea eta ebatzia gure kausara batuko ditu. Justiziak hain bortizki eskatzen zuen hau bezalako neurriekin birjarri ahal izango dugu ordenua, patxada eta morala, baita errepublikako subertsoreek arras gal erazi ziguten kanpoko estimua eta eritzia ere. Dekretu filantropiko hau promulgatutakoan, jabe zintzoak bere aurrekoengandik harturiko edo bere eskuz landuriko etxaldea lasai gozatu ahal izango du, eta hura bere ondorengo errugabeen lagungarri izango den segurantzaz bizi, txar-teldun erneren batek haren aitona-amonengan haren patrimonioa kentzeko atxakiatzat balio duen orban gotikoren bat aurki dezan larritasunetik libre” M. 536.

Ez dago esan beharrik dekretu “filantropiko” honek dakarren atzerakadaren kalte guztia kasualitatez zuzenki faboratuak izan diren ukonko gutiko pertsonen bizkarrera datorrela, hala nola Ansoategi jeneral zintzo eta zenduaren alarguna, zeini bere familiaren sostengurako etxaldea kendu baitzioten erregezale handiki baten oinordekoei bihurtzeko.

Paezengandik aurrera, Kaudilloen gobernuak gupidagabeak izango dira lur estafan sorturiko nekazarien agitazioaren kontra. Garai horretan inork ez du Paez gainditzen ez berdintzen Boterean lorturiko aberaskuntzaren handitasun eta kalitatean. 1822ko maiatzean, Kaudilloak berak idazten zion Santanderri: “Nire burua nire etsaiak desegiteko amorratzen dago: bihar denak lurraldetik egoztiak izango balira, nire gutizia bakarria aberriak eman dizkidan

propietateak gobernatzea eta gehitzea litzateke. Aberriak ohorez bete nau; neure buruaren eta independentziaren alde egin nituen ahaleginak gainezka saritu dizkit” (8). Bolibarrek Peru de La-croix-i aitortzen zion —1828ko maiatzaren 12n—: “Caracasko eskutitzek nahigabetu egiten naute, denak mintzo zaizkit herriko miseriaz eta merkatal negozioak eta nekazaritza dauden egoeraz; Paez jenerala da honelakorik ezer ez diostan bakarra, segur asko haren negozioak ederki daudelako eta pobretasun publikoak bost axola diolako” BUC. 241. 1865ko uztailak 24n New Yorken eginitako testamentuan, lautar famatuak aitortzen du bera ezkondu zenean —1809— “ez nuen batere ondasunik”; hala ere, eta nahiz eta 1811tik gerran eta politikan arduraturik egon, horra noraino heltzen den haren fortuna: “La Trinidad” kanabera eta kafe hazienda, Macarayn —“finka oso baliotsua”, berak nabarmentzen du superlatiboa—, honen parte direlarik eta bereak dituelarik: “Los Cocos” hazienda, Mariñori eresia, eta Vicente Ibarren eta Pedro Caminoren zati desberdinetan lorturiko lurrak; Puerto Cabelloko Aduanako etxea —hiri hartako edifiziorik onena segur asko—; bizitzetxe bat Maracayn eta orube bat balio gutiko etxe batekin aldamenean; Valentzian alokaturiko etxeak —honelaxe pluralean—; Apureko probintzian heredaturiko lurrak, hedadura gutikoak, Rincon Hondo-ko herria jotzen daudenak; guti balitz: San Pabloko abelesparrua —beharbada errepublikako handiena, zenbait probintzian hedatua— “1848n oso baliotsua zen abelesparrua (dio berak): 20.000 abere, 700 behor, 300 mando eta bostehun zaldi inguru”. Gainera Paezek “Chuo” hazienda zeukan errentan, unibertsitatearena, zeinen hobekuntzarik erdiak bereak omen baitzituen; harro zegoen hura egin zuelako “prezio handiko finka: 106.000 kakao zuhaitz, 400.000 kafezko, 50 kanabera oholtzar, edifizioak, trenak eta partikuntzak”. Paezek halaber bere kontuan sartzen zuen, lotsarik gabe: “Trinidadko etxaldean eta San Pabloko abelesparruan zeuden eta neurek nituen esklabuen balioa jaso behar dut Venezuelako Gobernutik” (9). Zer esankorragorik azken borondatearen agerpen hau baino gizonak heriotza

(8) Felice Cardot, Carlos: *Venezolanos de ayer y de hoy*, 36 eta 37 garren oo.

(9) *El Universal*. Caracas. «Estampas» gehigarria. 31 garren z. 1967 ko Urriak 8.

aurrean eta erremedio gabe duela ere, bere edukiak estali ezin dituenan eta bere sentimendurik disimulatzen ez duenean. Santanderren testamentua ere, Paezena bezala, lekutan dago Bolibarrek Santa Martan egin zuenetik. Hiru pieza hoietatik geroak zihurki ateratzen du bere eritzia, eta bakoitza ubikatzen eta kalifikatzen (10).

LURFAGIA

Elkarren atzeko autokrazien azpian, lur bilketa esku gutitan nabarmendu egiten da. Aginpide politikoa aberaskuntza handi, finko eta azkarrerako biderik egokiena da. Amerikako beste errepublika dohakabeetan kontu berbera dago; Mexicoko iraultzak XX garren mendean —esaterako— hedadura izugarriko latifundioak aurkitzen ditu. Oraindik badira zenbait herritan egundoko handierakoak eta ez guti.

Tiraniarekin baturik, latifundio estrukturak gehitu egiten du lanketabakarrera joera, industriakuntzarik eza, pobretasun komuna, gelditasun demografiko eta kulturala, jendearen ezjakintasuna eta ahultasuna —fisikoa ere bai—Latifundioa mende honetako nekazal esplotazioko errejimen tipikoa bilakatzen da; protestatzeko modurik gabe, gose alokairuak eta lanegun ahigarriak ezartzen ditu, eta peoia lurraren gainean iltzatzen du.

Bolibarren herrian, Juan Vicente Gomezen autokrazia —mende honetako lehen herenean— jokabide kontrairaultzailean agiriena gertatzen da. Tirano galantak 1.242.403 hektarea zituen abelazkuntzarako eta 120.470 kultiboetarako; bere eskualde gogokoan —Araguako Estatuan— 2.631 fundo zeuzkan, aldameneko Carabobon 1.539, bere jaiot Tachiran 247, eta honelaxe venezuelar hamar probintzietan eta Colombian.

Bolibarren jokabidearen antitesisik zorrotzena, honetaz, “Caurako Abelesparruen” negozio ohigabeen ikus daiteke, Joaquín Crespo jeneralak, errepublikako buruzagitzatik egin duen latifundio handia. Honen ondorengo bati —Juan R. Guerra jeneralari— Juan

(10) Ikus Askatzailearen testamentua, Santa Martan emana 1830ko abenduak 10, II-987n. Santanderrena, Jeneral honen Archivo-ko XXIV garren tomoan irakur daiteke, 347 garren o. eta o.

Vicente Gomezek, 1911n, laurogei mila bolibarretan erosten dio. Lur alferrekoa, 1926n Gomezek Nazioari saltzen dio hamazazpi milioi bolibarretan!

FINANTZA ESPEKULAZIOAK

Colombiako errepublikako egoera fiskala aztertzen bada, Bolibarrek Peruri eta Boliviari emaniko urteak hemen Aberriaren Aitaren norabideetatik arras dibortziaturiko ordenua zimendatzeko izan direla ikusiko da. Cucutako Kongresuak zerga tradizionalak kendu egin zituen behar bezalako ordezkorik jarri gabe. Colombia-ko botereen inguruan eta gainean estrukturatu zen oligarkiak batiere begirapen gabe berak ordaindu beharreko karga zuzenak ezartzera jo zuen, baliakizun hoiekin Estatuaren gastuak hornitzeko. Erosoago eta emankorrago zitzaizen Iraultzaren onuratu hauei mailegu astunak kontratatzeko espedientea.

Colombiar burjesen sistema honekiko preferentzia —dio Lievano Aguirrek— “erraz azaltzekoa zen. Haren bidez, Independentzi gerra espekulazio mardulen iturri izango zen. Herriak hilak ipiniko zituen, haien odol kuotak ez zuen interesik beharko, eta negozio gizonen ordea, interesa eta kapital prestatua kobratuko zuten”, ILA.RSE.9. Bogota, Antioquia eta Cartagenako finantza zirkuluak laster aspertu ziren beren diruen horniketarako egiteaz, eta trebeki zuzenduriko presioekin kanpoan kreditu gizen bat kontrata erazi zuten.

Enprestito ingelesaren historia lotsagarrienetarikoa da. Colombiako operazio agenteak esaniko finantza taldeetakoak ziren eta beren izate ofizialaren azpitik, komisiolari gisa ordainduak izatea lortu zuten. Ingalaterran lorturiko diruaren destinoari buruz, Lievano Agirrek idazten du: “Herria merkatal oligarkia indartsuak menderaturik, enprestito diruak, hain parra parra partikularren eskuetara heldu zirenak, ehun eta produktu ingeles inportaziora destinatu ziren, eta hala diru haik Ingalaterran zeuden berriro epe laburrera, aurreramendu ekonomikoko egiazko eginkizunik ez zuen kapital ondasunen inportaziorik faboratu, industri makineria eta nekazal lanabesak, kontsumo ondasunak baizik, eta hauek, gehienek, nazio barruko antzeko produktuen kompetentzia zekarten. Horrela enprestito hondoek gutieko pribilejiatu baten luxu garestiak

asetzeko bakarrik balio izan zuten” Id. 18. Ingelesen diru zati bat, gainera, firma mailegu emailearen berehalako porrotean galdu zen; Colombiari, beste behin ere, maniobra espekulatibo nazkagarria egin zitzaion.

Bolibarrek, bere bizitzako azken laurtean, Colombian zeuden interes ekonomiko handien kontrastasan latzari aurrea eman behar izan zion, zenbait bizitz atentatu ere ekarri ziotelarik, 1828ko irailak 25n ere bai.

Bolibar Colombiako baliakizunen odoluspena mozten saiatu zen; Venezuelen hazienda antolaketari ekin zion batez ere. Caracastik Urdanetari iragartzen dio 1827n: “Dirua dezente emango duen hazienda arautegi bat bidaliko da eta hala maltzurak kendurik, gastuak aurrezturik eta errenta gehiturik aurrera egingo dugu eta zerekin dena pagatu edukiko dugu” II-64. Gerotxoago Jose Gabriel Perezzi idazten zion: “Bogotan egin nituen bi egunetan oso erreforma handiak egin dira. Moralak berak ere exenplu ederrik eta irakatsi zorrotzik eduki du” II-116.

ENTREGISMO LOTSAGARRIA

Nazioko aberastasunei buruz, Hispanoamerikan Bolibarren garai hondoko hamarrurte batzutan zehar kontrairaultza ekonomiko beste kapitulu bat osatzen da. Askatzaileak “Klase guztietako” meatzeen nazionalmendua nahi izan zuen lekuan, horrela alde zurretik hidrokarburoak aipatzen zituela zirudielarik, Errepublikako aberastaunaren entregazko politika bat egin zen herbesteko parzuegoentzat.

Venezuelan kanpoko interes handiak beren lukuru neurrigaberrako aukera egokiak aurkitu zituzten beti. Juan Vicente Gomezekin quintasunaren eta nazioko komenentziaren traizioek goia jotzen du. Portaera zital horren izena entregismoa da, kanpoko harrapakieraren esanpeko; tirania Venezuelaren kontrako zerbitzaria izan zen. Gomezek Cipriano Castro bere aurrekoaren garaian bigente zeuden mehatze zergak beheratu zituen. 1927n, Venezuela Oil Concession-ek —Shell taldekoak—, hamar milioi dolarretako kapital batetik hiru milioi eta laurehun mila dolar irabazten ditu. Lago Petroleum Corporation-ek —Standard Oil-en menpekoak— hiru milioi eta erdi dolarretako kapitaletik ia zortzi milioi dolarretako

onura jasotzen du. Enpresetako akzioen balioa ia ehuneko seirehun gehitzen da 1924tik 1927ra. Gipuzkoar Konpainiaz gero ez zen Venezuelan negoziarik egon beren gestoreentzat irabazgarriagorik ez herriarentzat gutiago zuzenik. 1923-30 zazpiurtean Errepublikak hidrokarburoengatik 187 milioi bolibar hartzen ditu; tarte berean enpresei 219 milioi bolibarretako aduana eskubideak barkatzen zaizkie. Laguntz Ministergoak egia ohigabe eta tragikoa zertifikatzen du: “Konpainiek petrolioaren daramate eta Venezuelako Gobernuak ordaintzen die eraman dezaten” (11)

Olio adarreko lege arauketa kanpoko komenentzien neurria egingo da; letran juxtuki mantentzen da zerbait lurrazpiaren nazionalmenduko Bolibarren printzipioa. Venezuelako 1854ko lehen Meatze Legediaren ondoren hondo aldakuntzarik gabe datoz 1885koa eta 1887, 1891 eta 1893ko Meatze Legeak. Castrok 1904n bere legedia diktatzen du, erret eskubide sistema ezaguna domeinuzkoagatik aldatzen duena —hemen kontzesioa ez da derrigorrezkoa borondatezkoa baizik— eta 1905n Meatze Lege bat ere onesten du. Aurreratu ez da ezer aurreratzen. Textu juridiko berriak promulgatzen dituzte 1909, 1910, 1915 eta 1918n; petrolioari meagintzako arau jeneralak eta komunak ezartzen zazikio.

Venezuelako lehen lege espezifikoa hidrokarburoentzat 1920koa da; negozio izugarritik puskatxoak, lodi samarrak badira ere, baturik xurgatzen dituen Gomezzen zirkulari bakarrik faboratzen dio —eta hori proportzio ziztrinez—; 1921n aldatzen dute. Legea ez zaie enpresei gustatzen; Gomezek, hain gaiztoa barruko zeretan eta hain amorekorra kanpoko handikiekin, dei egiten die: “Zuek dakizue petrolioaren berri —diotse—. Egin zuek legeak. Gu berriak gara horretan” (12). Enpresarien abokatuek 1922ko tresna idazten dute, berek gero 1925, 1928 eta 1935n alda erazten dutena. “Venezuelako petrolio legeak munduko onenak dira konpainientzat”, deklaritzen du lasaiki tiranoak 1930n.

Orduan partzuergo indartsuek eta hauk eskuan dauzkaten medio izugarriek, eta berdin hauen tutoreek eta sozioek, zenbait gobernu oso ukondotsutan ubikatuek, gobernu hauk berauk indus-

(11) Betancourt, Rómulo: *Venezuela: política y petróleo*, 54 garren o.

(12) Enpresetako gerenteen konfidentziak Clarence Horn kazetariari. *Fortune* Aldizkaria. New York, 1939ko martxoa.

tria marduleko partaide ez direnean, Gomezismoari laguntza sendoa ematen diote. Venezuelako lehen aberastasunaren inguruan jaialdi nazkagarri bat montatzen da, klan gobernatzailea auresku dela.

Venezuelari buruz esana ukitutxo batzurekin gure hispanoamerikar munduko zatirik gehienara heda daiteke. Data batzu aldatzea besterik ez legoke eta petrolioio dioen tokian idatzi: urrea, kobrea, zilarra, eztainua edo burdina, bananak, kafea edo zurak, kautxoa edo beste gai batzu. Gaiak ez du protesta kantuetarako eta sumin nobeletarako bakarrik ematen hainbeste harrapaketa eta lotsagarrikeriaz. Han etorkizuneko ekintzetarako inspirazioa aurkituko da. Historia hoiien ondorioa bat bera da: Amerika sakrifikatua eta lumatua. Gure kontinentearen balkanizapena hatzari erhaztuna bezala zetorren interes antinazionalak faboratzeraz aberri ahizpa baikoitzaren golkoan. Herbesteko negoziolarien trebetasunak, konpetentzia teknikoak, hitz batez nagusitasunak, gure dependentzia zorrotzu eta Bolibarren irakatsia urrunago eta ezinago egiten zuen.

Bolibarren iraultza esan liteke gizarteko ordenuko oinarri hain funtsezkoen gainean frustratu zela, nola baitira bere Amerikako zimendu ekonomikoak. Hemen ere ez zen ikusi Askatzailearen idealaren errealizaziorik. Bolibarrek zutik dirau, berean eta zuzen, oraina eta geroa zerbitzatzeko. Haren kausa duintasunaren, berdintasunaren eta justiziaren birgeuretzeta da eta izango da beti.

ESKLABISMOAREN JARRAIPENA

Ikusi dugu nola Bolibarren asmoek —askatasuna, demokrazia, konstituziotasuna, barruko bake eta armonia, zentralismo errepublikarra, nekazal justizia, meatze aberastasunaren nazionalmendua, zerga egokitasuna, administrazioaren zuzenketa— desjatorpenik biribilena jasan zuten eta nola errealitate oso desberdina ordez jarri zen: zapalkuntza, despotismoa, autokrazia, de facto errejimenak, barne gerrak, federalismo erratua, latifundioa, aberastasunaren entrega, karga fiskalen bidegabekeria, administrazioko lizunkeria.

Gizarte mailan ere duda gabeko garaldia gertatzen da, edo hobeki beharbada atzeraldia. Simon Bolibarren helburua berdintasuna zen. Jomuga argia eta zehatza: esklabuen askatasuna, martxan zihuan iraultza salbatzailearen ondorio lojikoak, eta Bolibarren tituluak berak —Askatzaile— adierazten zuen zeinu historiko pertsonalaren ondorio naturala. Asmoa gizarte barneko barrerak, kasten bereizkeriak, estamentu eta klase aurreritziak botatzea zen, gure osagai gizakoa eta kolektibo desberdina integratzea, gizartea zer oso batetan biltzea: “Herriko masa zer oso batetan; Gobernuaren konposapena zer oso batetan; legeria zer oso batetan; eta nazio izpiritua zer oso batetan. Batasuna, batasuna, batasuna, horra gure ezaugarria” II-1149, hots egiten zuen 1819n. Baina egia tristea zera da, alegia, esklabutzak Bolibarren ondoren ere badirauela, eta Independentziaren autorekideen konplizitateagatik, Bolibarren erabakiak, haren neurri sustraikoak eta pronuntziamendu zintzoak eta sakonekoak ez direla hain gaitz sozial izugarriaren kontrako ana-

tema arin batzu besterik, gaitz hori izanik “delinkuentziarik basatiena, giza duintasunaren bortxapenik biribilena” II-1227.

Angosturako erregu larriari: “Esklabuen askatasun orokorren onespena eskatzen dut, neure bizia eta Errepublikaren bizia eskatuko nukeen bezala” II-1152. Kongresuak lurren banaketari buruz egin zuen antzera erantzun zion. Luzapena, hitz marroak, ahozko baietzak, hauziaren handiespenak hura zailagotzeko, eta azkenean hasierara buelta gauzak zeuden bezala uzteko.

ANGOSTURAKO LUZAPENA

Kongresuak hamaika hilabete hartu zituen, ez guti ere, azkenean —1820ko urtarrilean— esklabutzaren abolipen puntua bidaltzeko “datorren urtearen lehenengoetan bilduko den Colombiako Ordezkaritzari” (13) Esklabismoak tantu ederra egin zuen horrela: bi urtez —praktikan— luzatzea. Angosturako Aktetan hauzi funtsezkoari buruzko debatearen gorabeherak segi daitezke. Gaiaren sarreratzat, Fernando Peñalver-ek berak ere, nahiz eta horren urgentzia nabarmendu, nekazaritza esklabuen lanaren pentzudan zegoela gogarazi zuen, eta bere eritzia eman zuen Bolibarrek eskatua “ez bete erazteko kongresuak arautegiak eman arte hartara ohitu gabe zeudenak askatasuna nola erabili erabakirik” (14). Gaia konstituzioa aztertzeko ardura zutenei berei pasatu zitzairen, zegokion proiektua “lehenbailehen aurkez zezaten”. Lau hilabete geroago ezer egin gabe zeuden; ordurarte gaia berplanteatu zuen bakarra Pumar diputadua izan zen; azkenean, beste hilabete geroago, uztaillak 31n txostena hasteko heldu zen. Eztabaida astiroa baina zalapartatsua izan zen; abuztuak 17ko ekinaldian “zenbait errieta izan ziren” —dio idazkariak—; behin eta berriro atzeratu zen. Hazilak zortziko ekinaldian gertatua sekulakoa da: “Esklabuen askatasunaren proiektuaren eztabaidari ekin zitzaion —dio Aktak— eta España jaunak hitza hartu eta esan zuen: askoz garrantzia gehiagokotzat zeukala egun hauetan errekan gorpuren batzu agertu

(13) *Correo del Orinoco*. 51 garren z. Angostura, 1820ko otsailak 5. Aurrerantzean honela aipatuko dugu: CO. 51 garren z.

(14) Cortázar, Roberto, eta Luis Augusto Cuervo: *Congreso de Angostura. Libro de Actas*, 21 garren o. Aurrerantzean honela aipatuko dugu: C. y C., o.

diren zurrumurrua egia den ala ez arakatzea...” C. y C., 21, 102, 120, 163 eta 220.

Honela heldu zen 1820ko urtarrilak 11. 1go artikulua esklabutza “zuzenbidez abolitutzat” eman arren, bigarrenak, txantxetan bezala, ebatzen du “gauzak gaur dauden bezalaxe geratuko direla Errepublikako hiru Departamentuetan, inolako berritasunik egin gabe ez Probintzian ez inon” CO. 51 garren Z.

Hori bai, nolnahi ere, Errepublikako Presidenteak harmetara dei ditzakeen esklabuen jabeei indemnizatzeko obligazioa jartzen zaio Estatuari. “Errepublikako lurraldera esklabuak ekartzea” debekatu egiten da, eta —sinesteko ere— “nazio guztietako lege, usario eta ohiturak errespetatuz, atzerriko edozein esklabu iheslari presondegian sartua eta bere ugazabari bihurtua izango dela deklaritzen” eta gainera zigortu “haien etorrera faboratu dutenak eta hura ezkutatu edo babestu dutenak” CO. 51 garren Z.

Parlamentari maltzurrok, Dekretuaren kontsideragaietan itxuraz Bolibarren asmoak gaingiditzen dituzten esaldiak sartzen dituzte: “Gizateri zati dohakabe hau erorita dagoen ezjakintasun eta degradazio moralezko egoeran, gizonak egin behar dira hiritarrak baino lehen. Halaber beharrezko da askatasunarekin batera bizipidea ematea. Askatasuna arimako argia bezala mailaka eman behar zaie, ikusmen gorporala berlortzen dutenei bezala, ez dira kolpera egunaren distira osora jartzen” CO. 51 garren Z.

CUCUTAKO MANIOBRAK

Berriro ere ahalegin alferrekoak, Askatzaileak Cucutako Kongresuaren aurrean eskari bera aurkezten duenean. Erantzuna urria izango da, nahiz eta eskaria argudio berriz indartu, Caraboboko garaitiako euforiaren emoziozko ondoan bertan gainera, gudu hura izaki “bere odola askatasunagatik bakarrik eman duen harmada askatzaileak irabazia” I-576. Kongresuak, formulen eta azalkerien aipamen faltsu batez, eta gehiago atxakia eta atzera ez zezakeen pronuntziamentu batez, lege konplikatu bat ematen du, “erditze askatasunari, manumisioari eta esklabuen ekarreramanaren abolipenari buruzko legea” —1821ko uztaila. Han berriro ere esklabutza “mailaka” kentzeko ideia dator, “lasaitasun publikoa ez konprometatzeko, eta jabeak benetan dauzkaten eskubideak ez mintzeko”.

Han jartzen den printzipio positibo bakoitza hurrengo lerroan neutraltzen da. Lehenengo artikulua deklaratu du “lege honen argitarapen egunetik gora jaiotzen diren esklabuen umeak libreak direla”, baina bigarrenak oharrezatzen du haien jabeek berek konpentsatu behar dietela —haurtzaroko janari, jantzi eta hezkuntz gastuengatik— “hamazortzi urte bete arte egingo dizkieten lan eta zerbitzuekin”. Bosgarren artikulua ezartzen du “esklabuak ezin saldu izango direla dauden probintziatik kanpora, gurasoak seme-alabengandik banaturik”, eta ondoren eranstean da: “Debeku hau haurrak pubertatera heldu artekoa bakarrik izango da”. Alderdi benetan kontsekuente eta logiko bakartzat zera agintzen da: “Lege honen debekua kontra sarturiko esklabuak beste gabe libreak izango dira”.

Manumisiorako hondo bat sortzen da azkenean ia ezertarako ez dela geratuko dena, batez ere herri desantolatu eta pobreak; hondo hau osatzeko ondorengo legezkorik gabe hiltzen diren ondasunen bosgarrenetik ehuneko hiru hartuko zen; oinordeko kolateralek uzten dituzten ondasunen osotik ehuneko 3, eta oinordeko arrotzak utzirik hiltzen diren ondasunen ehuneko 10 (15).

Kongresuak —lege ezaski hauxe ere ez zedila bete nahirik bezala— beterazpena praktikan esklabutza ukigabe uzteko interesa zuten pertsonen kontura utzi zuen. Hondoan administratu behar zuten Manumisio Batzordeek oso bakanki funtzionatzen zuten.

KONTRAIRAULTZA MARTXAN

Abolipenaren etsaiei buruz, ez dago batere dudarik; ez dira ordenu derogatutik geratzen direnak bakarrik; askakundearen gidarien beren artean ere, jeneralen, magistratuen eta parlamentarien artean ere badaude. Txartelen baliamentuz, koloni jaunentzako lurrak eskuratu zituztenek berek orain esklabuen eskua behar dute beren botere ekonomikoa eta politikoa indartzeko. Nueva Granadan hoien alde jotzen du Santanderrek, jokabide kontrairaultzailearekin baturik; jabeen, “denak errepublikar onen”, aldeko haren arartekotasunari Bolibarrek erantzun jakingarria damaio: “Iraultza ho-

(15) *Cuerpo de Leyes de la República de Colombia*. 1821-1827, 31 garren o.

nen bultzada emanik dago, inork ez diezaioke euts”, I-444; atzerantz botatzea bidegabekeriaz eta errakuntzaz gainera, kontrazentzu ezuhur eta ausarkoia litzateke. Bolibarrek neogranadar Kaudiilloari gomendatzen dio ordenu berria onartzearen komenentzia sinets erazteko haren babespeko berekoiei: “Nik uste dut oso ona litzatekeela beren interesarekin zorabiatu dauden eta beren benetako interesak desengainua eman behar dien gizon hoi en eritzia argitzea. Uste dut hala buruzagiei nola handikiei zer jakitea komeni den idatzi behar zaiela, ez-jakin itxura egiten dutena gomendatzen” I-444. Egun beretan, “Askatzaila-Presidenteak” esklabuen askakuntz legea betetzen mementurik ere ez galtzeko” ekiten diorean eta Bovesekin jasaniko esperientzia izugarria jartzen duenean, Presidentordeak doilorkeria sozialaren eusleekin kausa komuna egingo du.

Dudamudazko piezen antologian ondo sar liteke 1826ko maiatzak 3n Jose Cancino gobernadoreak Santanderri idazten dion eskutitz ohigabea: “Jeneral jaun eta lagun: “Gogoan dut esklabuei buruz zer neurri hartzea komeniko litzaidakeen zuenean zurekin hizketan nengoela, nola esan zenidan eta zuzen esana: hauen askatasunak Chocó arras hondatuko zuela. Arreta honetan, instrukzioetako artikulu batetan, neurri hori nire zurtasunaren kontura uztea ontzat jo zenuen, neurri hori hartzekotan ere ez zedilla inoiz jereralki oharreraziz. Gero nire agintepeko probintziara heldu nintzen eta konturatu 14.000 bizilagunetatik 9.000 esklabuak direla; ez nuen ezer desegokiagorik ikusten bakar bati ere askatasuna ematea baino, baina azkenerako zuri esanik dizkizudan arrazoi haiek neurri hau hartzea behartu ninduten baina karga gutiagoko eta transizio arriskutsurik gabekoa deritzadan moduz. Koadrilak alarma gabe boskatu ditut, komunikaturik dizudan bezala; baina Cauca helitzean den denak babesten dituen bando bat iragartzen entzun dut eta Probintzia honen eta Chocokoaren hondamendia ekarriko duen jeneralitasunez. Gaitz asko somatzen ditut, ebitatu nahi ditut eta horretarako Concha Gobernadore jaunarekin akordio egitea pentsatu dut, bidaltzen dizudan eraskinetik ikus dezakezunez, zuk, nire gogoetak pentsatutakoan, komeni dena agintzen duzun bitartean” (16).

(16) *Archivo del General F. de P. Santander*, IV garren t., 245 garren o.

Perun, indioen aldeko Bolibarren dekretu guztiak, baita esklabuak ugazaba aldatu nahi bazuten babesteko erabaki sui generis hura ere, letra hila gertatu ziren. Panamakoko Kongresurako colombiar ordezkariari ematen zaien ideia, alegia, batzarre handi hartan esklabu trafikariak piratakeriako krimen barruan deklaratzeko lortzeko ideia 1825ko otsailak 18ko Colombiako lege batetan oinarritzen da, zeinek “piratatzat” eta beraz “herio zigorrez penatutzat” jotzen baititu kanpotik esklabuak ekarreramaten edo negoziatzen edo haien salerosketan ari direnei laguntzen harrapatzen diren colombiar hiritarrak edo atzerritarrak, pirata hoiari zerbitzatzeko dien unte nazionala edo atzerrikoa “kargamendu guztiarekin konfiskatua izango da”. Har kargu bide batez lege honek ere ez diola ohiko bikoiztasunari ihes egiten; laugarren artikulua argitzen du, lehen esanikoa eta guzti ere, “ez dela debekatutzat hartu behar Colombiako portu batetik bestera han dauden esklabuen trafikoa edo sarrera, hala saltzeko helburuz, nola besteren batez” (17).

BOLIVIAN ERE BAI

Boliviako Kongresuaren aurreko gestioari buruz —Askatzai-
learen proposamenduaren arabera— Oinarri Eskutitzean esklabuak hiritartzat aitortu behar zituen organismoak, hura argitaratzean esklabuak egitez libre geratuko zirelarik, aurreko intentu guztietako erantzun berbera jaso zuen; gauza oso ulergarria kongresua han ere Venezuelako egitura berekoa izanik. Erantzuna, hitz joko ugariz eta zer funtsezkoa xixkatuz, Iraultzari sabotaia argiz, kongresuak onetsi zuen testua izan zen: “Boliviarrak dira: gaur arte esklabuak izaniko guztiak; eta horregatik zuzenbidez libre geratuko dira, konstituzioa argitaratzean bertan: baina ezin izango dute beren lehengo jaunik utzi, lege berezi batek izenda dezan eran izan ezik” BOL. II-346.

Bolibarrek ez zuen sekula bide hautatua aldatu. La Cosiata zela eta Caracasera itzuli behar izan zuenean, guztienez 1821ko legea manumisioari buruz bete zedila nahi zuen, eta haren aplikazioaren berri zuzenki eta pertsonalki ahalik maizen eman ziezaiotela agindu

(17) *Cuerpo de Leyes de la República de Colombia*. 1821-1827, 271 garren o.

zuen; trantze honetan arau haiek ez funtzionatzeko gogoz zeuden askoren konplizitatea aurkitu zuen. Arau sail hura nola bortxatu eta desnaturatu zen ikustean, Bolibarrek 1827ko ekainak 28ko bere dekretu kaliputsua diktatu zuen, zeinen bidez manumisioko hondoetatik zor egiten zen guztia urtebeteko epean kobratu beharko baitzen. Efikazia eta askatasun gehiagorako, zerga hau aurrerantzean Barne Errenten administratzaileek kobratuko zuten. Oinordeko legezkorik gabe hiltzen zirenen edukia ere oso osorik horretarako aplikatuko zen. Askatzailearen dekretuak gainera berriaz izendatzen ditu esklabuaren eskubideak janari, medizina, jantzi eta aloiamendua eta liberatu oso zaharrentzat ere babespen bera manatzen du. DL. II-345.

Hurrengo urtean, Bogotan, eta diktadura botereak hartu eta hiru egunetara bakarrik, Askatzaileak dekretu bat promulgatu zuen Batzorde Liberatzaileentzat instrukzio zehatz, urjente eta askarrekin. Batzorde haiek lege egintza hori argitaratu eta zortzi egunen barruan antolatu behar zuten eta astean bilera bat gutienez edukiko zuten; kunplimenduaren erantzule kantoiko Buruzagi Politikoa geratzen zen eta honen faltara Udalerriko Lehen Alkatea.

HURA EZ ZEN ENGAINATZEN

Bolibarrek bazekien bere iraultz ahaleginetatik zer guti lortu zuen. Anarkiaren hainbeste agerpenei erantzun beharrik, hain lan militar ahigarriak eta hain administrazio ardura nahasiak irentsiarik, ezin izan zuen “gizon bakar” hark hain konfabulapen setatiarren kontra burukatu, laguntzeko eta sistema zuzen bat jartzeko uzkur zegoen eta bere berekoikeria zorrotzaren indar guztiekin egiazko iraultzari kontra egiteko prest zegoen konfabulapena noski. Bolibarrek argi ikusi zuen nola bere lana alderdi guztietatik atakatzten zuten. Haren oharrerazpena, gizarte iraultzailerik gabe ez dagoela ordenu berririk eraikitzerik, terminu labur eta astunetan geratu da. Legea ez da aski, esan du mila bider. 1828ko uztailen pesimismo larriz idazten dio Santanderri: “Ez dago ezer onik egiterik legeen erreforma hutsez; gehiago diot, legeekin bururaino gaude ia...” I-1291. Askatu eta hezi egin behar zen, emantzipatuak orientatu, haien egitura morala sendotu eta benetako handitasunerantz gidatu, haien kemen inkontzientea, anarkikoa eta sakonean

buruhiltzailea, biderapen egokirik gabe gizarte guztia uholduko eta azpijango zuena, onerako bihurtuko zuten printzipioz jantzirik. “Legezko berdintasuna —berdio— ez zaio aski herriaren gogoari, honek berdintasun orokorra nahi baitu, hala arlo publikoan nola etxekoan; eta gero nabarkrazia nahi izango du, joera berezkoa eta bakarra hain zuzen, gero klase pribilegiatua deuseztatzeko” I-1076.

Argi dago establetasuna eta ordenua ez zirela inola ere “nabarkraziatik” etorriko, baina Hegoan “dogma orokorra” zen “zurikraziatik” ere ezetz dio Bolibarrek, eta are gutiago “beltzkraziatik”, Guayaquilen 1830 inguruan “mundu guztia izu erazten duen beltzkrazia; bai demokrazia. Nazioaren aurreramendua eta Mundu Berriaren arazoa Amerikan ez da kasten, klaseen ez sailen produktua, askatasun ukaezinaren gainean eta berdintasun funtsezkoaren gainean bateraturiko borondate onuragarri guztien armonia, bilkuntza eta kidekuntzaren produktua baizik.

Ez dago dudarik Bolibarrek bere herriko gizarte errealtate egiazkoa ondo ezagutu zuela, eta bere afanen lorpen txit urriaren berri ere bazekiela. Peru de Lacroix-i luze hitz egin dio, Ocañako egunetan, “Colombiako herri apala oraindik esklabutzen bizi dela: herria alkateen eta parroketako apezten ez ezik, bakoitzean dauden hiru edo lau handikien uztarriean dagoela; hirietan berdin gertatzen dela, diferentzia izanik ugazabak ugariagoak direla, hainbeste apez, fraidez eta doktozez ugaritzen baitira: askatasuna eta garantiak gizon hoientzat eta aberatsentzat bakarrik direla eta inoz ere ez herrientzat, hauen esklabutza indioena berena baino okerragoa izanik; Cucutako konstituziopean esklabuak zirela eta konstituziorik demokratikoenean ere esklabu geratuko zirela; Colombian leinu, enplegu eta aberastasunezko aristokrazia dagoela, herriaren gainean duen eragin, asmo eta pisuagatik Europako tituluzko eta jaiotzazko aristokraziarik despotikoenaren parekoa: aristokrazia hartan apezak, fraideak, doktoreak eta abokatuak, militarrek eta aberatsak ere sartzen direla; zeren askatasuna eta garantiak aipatu arren, berentzat bakarrik nahi baitituzte eta ez herriarentzat, zeinek, haien ustez, beren zapalkuntzapean jarraitu behar baitu; berdintasuna ere nahi dutela, gora igoteko eta gorengoen berdinak izateko, baina ez gizarteko behe klaseetako jendeekin berak berdintzeko; hauk, beren liberalismo guztia eta guzti ere, beren morroitzat eduki nahi dituzte beti” BUC. 310.

Askatzailearen azkenengoak ere diren Colombiako azken urteetako egoera soziala abiada kontairaultzailearen ezaugarri argia eta tipikoa da. Posizioak txit argi berezirik zeuden: alde batetik Bolibar, herriko jende xehea eta Iraultza; bestetik Santander, Paez, Flores, Bogota, Caracas, Quito, Lima, Paz eta Cochabamba eta abarreko oligarkiak. Zerrenda honen oso errepresentagarria da Santanderrek 1828ko urtarrilak 18n Azuero beratarri eginiko eskutitza, non aipatzen baititu “gure esistentzia sarritan mehatxatu duten” Bolibarren aldeko ugariak eta kontsekuenteak; gerra bildur da. “Zein izan daiteke ondorioa? Barne gerra bat ezer ez daukatenek eta beti asko direnek irabaztekoa eta daukagunok eta guti garenok galtzekoa?” Ohar zer egitura eta estilo berdintasuna duten Perun San Martinen politika definitzen zuten hitzekin berekin, politika hura zihoana “gizarteko klase desberdinak berezten dituzten barrerak mantentzera, klase ikasiaren eta zer galdua duenaren nagusitasunari eusteko” (18).

Oligarkiaren politika berdina zen Buenos Airesen, Liman, Bogotan, edo Mexicon. Torre Tagle, Peruko indartsuen exponenteak, ez zeukan lotsarik bere traizioa eta arrazoiak aldarrikatzeko: “Perutarrok: Bolibar tiranoak eta haren satelite zikinek Perun herri aberats hau Colombiaren domeinupera makurtu nahi izan dute. Nire gogoak zuek espainiarrekin ikustea izan da, gure hondamendia ebitatzeko irtenbide bakar gisa. Bolibarrek pribatuki gonbidatu ninduen Perun espainiarrekin tratatu irekitzera, denbora irabazteagatik indar berriak ekartzeko, perutarrek desegiteko eta bere kateetan biltzeko. Nik aukera hau probetxatu nuen zueri espainiarrekin batasun onuragarri bat emateko eta gure hondamendia ebitatzeko” (19). Askatzailea hala Limako atzerakoientzat nola peninsularrentzat “etsai komuna” zen.

Toki guztietan eta zirkulu pribilegiatu guztientzat, Bolibar faktore subertsiboa zen; etsaia zen. Caracasen haren herkideek irain guztiak agortu zituzten; 1819n zabalduko agiri hirueledunean deitzen dute: nahaspilari, iruzurti, sengabe eta ez galgarik ez errespetorik gabeko bizitzaren askatasunean biziatua, eskergabe, barbaru,

(18) Ikus *Bolívar*, biografia bikaina, Indalecio Liévano Agirre-rena, 298 garren o.

(19) Liévano Agirre, Indalecio: *Bolívar*, 325 garren o.

tirano, erhale, koldar, ezuhur... B. eta A. VI-648. “Hankoker” deitzen zuten Liman; “Simontzar”, “tirano” eta “Lukainkario” esaten zioten arbuioz Bogotan; “iraultzako eta gerrako irabioek Colombiar herriko masan zabaldu zituzten gizarteko hondakin guztien” maneiatzaile, definitzen zuen Santa Feko konspiratzaile bero batek.

ATZERAKADA GARBIA

Askatzailea desagertu eta Colombiaren zatiketa burutakoan, abolipena ahazturik zegoen. Okerrago oraindik, atzera martxa jotzen da berariaz ibilitako apurrean eta okerrean. Cucutako Manusmisio Legeari Valentziako Kongresuak 1830ko irailak 30n beste bat ezartzen dio, eta honek esklabuak jotzen ditu, askatasun aurreko zerbitzu obligaziozkoen adina hogeitabat urtetara jasorik; emakume esklabuen umeak hiru urte gehiago —bizitzako dinamikoek— erregalatu beharko dizkiote ugazabari “hezteagatik”, jantzi eta jatekoagatik, amak bere gatibutza jasaten duen bitartean. Eta, hau gogorrago, urtean nazio guztian ofizialki askatuak izan daitezkeen esklabuen goia hogeian jartzen da —abiada horretan bi milaurtetatik gora behar gaitz sozial lotsagarri hau Venezuelatik arraskentzeko—. 1831tik 1839ra 118 lagunek bakarrik lortu ahal izan zuten han beren askatasuna.

Gehiago oraindik, goroago Paezen autokraziak berak, Angel Quinterok berretsiriko egintza batetan, zapalketarik handiena egin du. Legearen 6 garren artikulua kunplimendua delakoa aletaturik —gazte liberatuaren babeskuntzarako ulertu behar zen artikulua— eta artikulua horri buruzko ahalmen arauzkoa atxakiatzat jarriarik, Paezek 1840ko apirilak 27ko bere dekretua diktatzen du. Hemen, “kontutan harturik liberatuak, beren ugazaben boterepetik irtetean, gehiengan aitaren aginpidearen ere begirunerik gabe eta poliziak haiengan bere ardura efikaz eta berehalakoak erabili beharrezko adin eta egoeran aurkituko direla”, liberatuek, beren ikaskuntzarako, beren zerbitzuak lehengo ugazabekin kontratatzeke agintzen du; eta —zuzenbide printzipiorik aurrenak ahazturik, legearen izpirituaren, arrazoia eta letraren beraren kontra— askatasun efektiboaren adina hogeitabost urterarte luzatzen du; eta hori, jende deprimituen maila horretan bizitzeko itzaropena ho-

geitamar urtetatik asko gorago ez zebilela. Era trebea eta maltzurra da: “Zerbitzu edo ikaskuntz komenioren bat disolbatzean, liberatuak hogeitabost urte bete arte, beste establezimendu jabe edo ugazaba batzuekin konprometuz berdinean berriro lot daitezela egingo dute Batzordeek” (10 garren art) Esakera biribila da: “Konprometaturik dagoen zerbitzutik arrazoi funtsezkorik gabe apartatzen den aprendiz edo zerbitzari liberatua poliziako agintari lokale lehengo zerbitzura itzul eraziko dute” (9 garren art.). “Inork ez du hogeitabost urtez beheko liberaturik zerbitzua edo aprendizkoan onartuko, dekretu honen araupean ez bada. Kasu honi ezarritakoak izango dira konprometaturik dauden beste zerbitzu bat uzten duten alokazerak onartzen dituzten pertsonen polizi arategiek ezarritako zigorrak” (11 garren art.) (20). Astakeria antijuridikoa eta ezgizakor horren kontra ez zuen, ez, inork protestatuko, zeren —lehen Cucutan erabakiari dohainik erantsi zitzaizkion hiru urtez gainera— esklabutza besta lau urte mardul ematen baitzitzaizkion ugazabari, eta hau gogorrena, lege bidegabe baten albotz eta kontrastasan argiz. Nolako hiritarra izango ote zen bere bizitzako lehen hogeitabost urteak esklabutzan “hezirik” eta “baberurik” pasatzen zituen hau? Dekretu hau esklabismoaren eusketaren prozesuaren gailurra da.

Paez jenerala, Autobiografian, bere manuskripto legeaz harro dago, eta horretaz dituen zenbait kontzeptu okerren artean, zer onartezin hau botatzen du, alegia, Bolibarren antiesklabismoa Rosete espainiarraren aurreko inizatiba delako batekin lotu. Paezek bere gauzatza eman nahi du Apureko esklabuak libre deklaratzeko, jokabide zuzen posible hura 1830ko bere lege atzerakoiarekin eta are gehiago 1840ko dekretu honetako jokabide guztiz ezlegezko eta atentatzailearekin kontraesanean dagoela konturatu gabe.

Gero, eta nahiz eta Venezuelak 1839n Britainia Haundiarekin itun bat egin esklabu trafikorekin debekuari buruz, barruan esklabutza mende kontrairaultzaile guztian zehar irauten duela esan liteke, era desberdinetan noski eta etengabeko astinaldi artean. 1830tik 1854ra XVI garren mendetik esklabuek lur horretan era-

(20) *Gazeta de Venezuela* X garren Urtea, 485 garren z. Caracas, 1840ko maiatzak 3.

man duten burruka gehitu egiten da; orain egunero ihesak dira, desmenderapenak, eta errebeldiak, ekintza odoltsuak eta etengabeak. Colombiaz geroko lehen bost errepublikar bosturteetan zehar esklabuek eraginiko matxinada eta sublebakuntz ahaleginetan ehun eta berrogeitamarretik gora dokumentaturik daude.

Jose Gregorio Monagasek bultzatzen eta exekututzen du 1854-ko bere Abolipen Legea. Ordurako bandera hark lehenago zeukan garrantziatik asko galdu du. Oligarkiak eta autokraziak esklabuen askakuntzari itzurka ari ziren bitartean, egoeran aldakuntza handia gertatu da. Esklabutza produkzio sistema antiekonomiko, hau da, oso kargatsu bilakatu da. Horren likidapena ugazaben negoziotzat jotzen da; gutienez merkantzia baliogabetu batetik indemnitzazio on bat lortzeko, edo, nolana ere, karga astun bat uzteko esperantza dago. Balorapen ofizialen beren arabera, esklabua produzitzen zuena baino gehiago kostatzen zen; esklabuen emankortasunak ez zuen jan gasturik kitatzen. Monagasen garaian, beraz, esklabutza metamorfosisean zegoen, eta haren abolipen deklarazioa bakez gertatu zen atsegin jeneralaren barruan. Orain lurdunek beren latifundioetarako peoi merkeak, praktikan dohakoak, biltzen dituzte, askoz kostu gutiagoz eta ezbeharrik gabe. Liberatua lurfago pilatzaileentzat morroirik onena da.

Nolana ere, lege askatzailea Monagasen eta Venezuelaren ohoragarri da; baina “abolipen honen ondoren, sakrifikatua, beti bezala, makala da; lehengo esklabuek beren ugazabengana itzuli behar, Estatuak bertan behera uzten baititu. Ugazaba ulerkorren “suerterik” ez dutenentzat, esplotazioa ankerkiago berritzen da; orain ez dago “hezteko”, jazteko eta jaten emateko obligaziorik, ez dago famili traturik ere; orain liberatua peoi “libre” gisa zapaltzen eta zurrupatzen dute, alokairu miserablea —haziendako dendarako bakarrik balio duten “fitxekin” prezioak gehienez ohi-koen doblekoak direla betiko zorrak lan eragiten dien lurrari lotzen dituenak, eguzkitik eguzkirako lanaldiak, menperakuntza, zartailua eta torturak. Partzuerren mailan —esklabutza “askatasun” itxuraz ezkututzen den beste modalitate batkonukodunak, erdirakoak, maizterrak, kolonoak, fundatzaileak daude. Denak legez libreak baina morrontza ekonomikoaren mende, honek gehienez askatasun pertsonalaren ukapena dakarrelarik; denak begetatzen bere ugazabek larrutuak, eta Estatuaren ezaxolaz —hau ere hala-

ber autokraziak zapaldua—, begiramendurik tikienik gabe, higie-
nerik gabe, eskubiderik gabe.

Egoeran honen esistentziak Iraultza soziala oso urruti dagoela agertzen du. Gomezen garaian batzutan soldata gabeko “etxe zerbitzuaren” iraupena eta deformazioa hirietan, “Jaunaren” edo “andrea-
ren” mende, esklabutza erlatiboaren beste era disimulatu bat da. Antzera gertatzen zaio obreruari, baita merkatal enplegatuari ere, legerik ez garantiarik gabe, lan ordutegirik ez babesik tiki-
nik gabe. “Erreklutamendua” ere esklabutzaren beste iturri gehi-
garri bat da autokraziaren azpian. Venezuelarrek hamar urteta-
raino egingo dute nagusien mende, “soldadutzaren” maskarapean. Juan Vicente Gomezek berak ere beren lehen mezu ofiziletariko batetan errealtate lazgarri horren aitorra utzi zuen.

Autokraziak gure Amerika indibidualismoan gelditu zuten. Zati-
kuntza eta isolamendua bultzatu zuten eta munduak XIX ga-
rran mendetik gora bizi duen ordu sozialaren aurrean gorzeria eta
itsukeria ekarri zuten (21). Bolibarrek somatu eta bere programan
haragitu zuen modernotasunaren eta gure aberriak hondatu diren
atzerakuntzaren arteko kontrastea oso zorrotza da. Atzerakuntza
honetako zerik nabarmena desagertu nahi ez duen eta irauteko
soineko desberdinak jazten dituen esklabutza da.

Bolibarren ekintzaren hesparru guztian, hau da, gure Ameri-
kako sei naziotan, eta harago ere bai, Askatzailearen desagertzen
hondoko historiaren gertaerarik deigarriena eta aldaezinena jene-
ralki herriaren ausentzia da bizitza eta ihardun politiko guztitik.
Politikarako kontatu dutenak gutiengo gobernatzaileak edo hauen
ondorengoak izatekoak dira batez ere; teoriak eta erretorikaz kon-
stituzioen letran “heroiak” botererako bidea zabalik edukitzea al-
fer alferrekoa da.

Latin Amerikan hango populazioko sail handientzat bereizke-
ria sistematikoa dago. India batez ere atzerapen aintzinako eta
desesperagarritzko egoeran aurkitzen da. Lehen amerikarrak beren
sekulako miseriatik askatzeko Bolibarren ahaleginak salbu —toki
askotan nagusi geratu diren interesen koalizioak guztiz frustratu-

(21) *Rerum Novarum* promulgatzean, ohar editorialean, Caracasko *La Religión*
egunkariak zioen: «Enziklika honek, bere helburu nagusian, ez du Hego Ameri-
kako herriekin zerikusirik». Ikus 350 garren z.: 1891ko irailak 23.

riko iraultz politika integral baten zati ziren ahaleginak noski—, ez da ezertxo egin ihardun garrantzitsu zintzo eta eutsien mailan. Horretan, kontinenteko historia guztia esplotazio eta injustizi zerrenda bakar eta luze bat da. Carlos A. Carrasco boliviarr profesorea hala dio zuzenki: “Latin Amerikako 'indio herrietan' arraza berezkuntzak ez du etenik izan Hernan Cortesek Mexicoko agintea harrapatu zuenetik eta Francisco Pizarrok Hego Amerikako lehen estatu kolpea jo zuenetik, Atahualpari Perun bere erreinua kendurik. Bost mende inguru dira bertako jendeek ermapen estoikoz jasaten dutela Valverde apezak —beste askoren artean— bota zien zorro apelaezina, alegia, “animagabeak direla”. Mexico, Guatemala, Peru, Bolivia, Ecuador, Colombia, Paraguay, Panama eta Brasilen zentso azkar batek erakusten digu salbamen lasterterako modurik gabe beren destinoari eusten ari direla hogeitamar milioi bertako, beren hizkuntza propioa daukatenak, beren jantziak ehotzen eta jazten dituztenak, materialak fabrikatzen eta beren etxeak egiten zituztenak, soziologoek “bazterreko taldeak” deitzen duten hori izanik (22).

Gaurko Latin Amerikako baztertasun dramak, orain guztietariko problema zerrenda luzez konplikatuak, ez nekazal alderdian bakarrik, hemisferioko metropoli indartsuak inguratzen dituzten miseriazko gerrikoetan baizik, gaurko gobernatzaile eta gidariei argi erakusten die ausarki hasi behar dela salbamen lana, Bolibarrek bere garaian orduko baztertuak inkorporatzeko bultzatu zuen bezalakoa. Bolibarren kausa apalen kausa zen, eta ezer ez besterik. Horregatik hori beren kontzientzietako zerik sakonenean sentitzen dutenak indioak dira, nekazal edo meatze lanean zapalduak kanpotarren interesen onerako edo lekuko injustiziarako.

Benetako parteharmenezko demokrazia, gizonaren aurreramen-
du eta promozioaren motorea, benetako berdintasunez eta batez
ere amerikar izpirituaren askatasun konstituzionalez, horra gaur
ere Bolibarren denboretan bezala herri anaia hauetako bizilagun-
entzat formula baliozkoa. Errealitate sozial eta ekonomiko egoki
baten gainean, errejimen politiko ondo oinarritu batek eta bere
erantzukizunaren ikuspen argiz, Askatzailearen xedeak lor ditzake.

(22) Carrasco, Carlos, A.: *Segregación Racial en América Latina*, s o.

AMERIKAREN ZATIKETA

Bolibarren amets nagusia batasuna izan zen. Haren lan politiko guztiaren helburua gure aberrien bilketa zen nazioen anaitasun sendoan. Lehengo lana askatzea zen, bigarren pausua eta azkena: batu. Askatsuna batzeko, batasuna aurreratzeko. Integrapena izan zen hispanoamerikar nazionalitatea zerbitzatzen baizik saiatu ez zenaren helburu nagusia. Ideal hauen bila, Bolibarrek xeheki landu zituen printzipioak, mekanismoak diseinatu, eta gorputz-arimez haik konkretatzen ekin. Baina beste iraultz asmoak: politikoak, ekonomikoak eta sozialak, hutsean geratu baziren, halaber batasun asmo hau ere ezer gutitan geratu zen, eta hori ere Askatzailearen beraren bizitzan gertatu zen. Hortik haren dei larri eta haren garrasia urratua, hilobira jaitsi hurran zegoela.

Bide baterakoi honetan Simon Bolibarren lanak Sisifo lanak izan ziren. Lehenengo Venezuelako batasuna salbatu behar zen. Bolibarren jaiot nazioa oso berandu eginiko probintzi federakunde baten ondorioa zen. Hura jaio zenean, Venezuelak ez zeukan hamarkadarik ere; zazpi urte lehenago Carlos IIIk Intendentziaren sortzapena agindu zuen eta seiurte bat pasatua zen Probintziburuko —Venezuelako— kapitain jeneralak bere boterea aberasten ikusi zuenetik Cumana, Margarita, Trinidad, Guayana eta Maracaiboko bere kargukideen gaineko nagusitasun gobernatiboz eta militarrez. 1810n erreboluzioak leher egitean, Venezuelen batasunak ez dauka berrogei urtez gorako historia baterakoirik. Apirilaren 19tik aurrera, probintziak beren zelo eta harrokeria tikie-

tara itzultzen dira, eta federalismoaren formula ahula da 1811ko konstituzioan kontratatzen dena. Laster etorriko zen gerrak ekialdeko buruzagiari —Santiago Mariño— “aberrixka” sentimendua-
ren lehen agerpena ekarri zion; honela, mendebaldeko buruzagiari —Simon Bolibar— bi botere aparteko egitea proposatu zion: Ekialdeko Errepublika eta Mendebaldeko Errepublika. Bolibarrek —ikus genuenez— ideia hori bete bete gaitzetzen du; haren gaitzeppen biribilean Venezuelaren ukiezintasunaren kontra atentatzearen deskomenentzia zenazten du; era batera hispanoamerikar batasun handiko umontzi nukleo baten fundazioa kintatzearen abantailak aurkitzen ditu.

KAUDILLOAK EKINEAN

Kaudillaia atzerakoiaren elementuak integrapen ideia guztien kontra jarriko dira —hala integrapen nazionala nola amerikarra—; horretan agertzen duten kaskagorakeria lurren banaketa lorrin-
tzen, esklabutzaren abolipena eldrebesten eta sistema politiko erre-
akzionari eta antiherritar bat ezartzen ipini zuten berotasun eus-
korraren parekoa da. Kaudilloak, definizioz, dimentsio urrietako
hesparru mental eta geografikioa dauka; ez du ondo ikusten bere
parrokiaz beste neurririk eta bere eragin zona erreibindikatzera
jotzen du esplotazio partikularrerako barruti pribatu gisa.

Kondizio militar handietako beste buruzagi abertzale batek,
Manuel Piar-ek, Mariñoren ondoren disidentzia astunago bat da-
kar, ez politik lurraldean zatiketa bakarrik, sakabanapen eta anar-
kia sozialak baizik; Bolibarrek gogor eta zorrotz izan behar du
zigorrean.

Lautadetako kaudilloa —Jose Antonio Paez— izango da batez
ere “Aberriskarako” gidaria; ez du zisma mehatxurik botatzen ez
eta zabalki intentatzen ere haren eskualdearen mediterraniartasu-
nak ez baitu uzten; gainera Venezuela guztiko boterea harrapa-
tzeko aukera ez urrunaren zain dago. Hasteko ez du bere domei-
nuetan berez beste ezein ahalmen altxatzen uzten. Honela 1816n,
Francisco Javier Yanes doktoreak eta goi gradudun ofizialeek:
Santander, Urdaneta, Serrano eta Serviez-ek, beste batzuren ar-
tean, Apuren egin nahi duten gobernu zibilaren proiektua hankaz
gora botatzen du.

Askatzailea, Venezuela eta Nueva Granadaren fusioz, eta Panama, Quito eta Guayaquilen geroagoko eraspenez eraiki nahirik ari den Colombiako Errepublika ez zen sekula soziorik geheinen eta gorenen begikoa izan. Gogotan eduki herriak edo herriek ez zeukatela politikan abotsik. Erraz ulertzekoa da oligarki sailei oso gogor egiten zitzaizela begi laburreko tradizio “nazionalista” edo partikularista baten gainean jasoriko interesak eta aurreritziak uztea, nazioartekotasun eta nazio gainetikotasun hedatsuko ideia badaezpadako eta geroko bati bidea emateko.

Bolibar bezalako gizon bakartiari —laguntzaile oso guti zituela inguruan, eta hauxek ere ez ziren guztiz harekin identifikatu, berrek ere ez baitzuten hura gehiegi ulertzen— gogorra baino gogorrago eta zailago zaitzaion integrapen politikoko obra berezko bilakamenduaren ubide barruan mantentzea, alderdi guztietatik era-soa zegoelarik. “Eskuekin egiten dudana —dio Askatzaileak— besteek hankekin desegiten dute. Gizon bakarrak denen kontra ez dauka zereginik” II-113.

Kointzidentzia xelebrea da, egun beretan, Panamako Kongresua, amerikar anfiktioniarenean umontzia, egia bihurtzear zegoenean, Venezuela La Cosiata-ko desegipenean irabiatzea, eta Bogotako gobernuaren ez zen hortik aparte ibiliko. Ez Santanderrek ez Paezek, gertaeraren protagonistek, defendatzen dute Errepublika batua; aitzitik ordea, beren arguiletan eta zismarako hirrikatzen zeuden interesetan trintxeratzen dira. Bolibar bakarrik da gauza esistentzia nagusia —Aberri sendoarena— ez dela behezagoko intrantsigentziagatik arriskatu behar ohartzeko; hark, ulerkor, amore ematen du; bere jaiot hirira egingo zuen azken bisitan berriro armoniaren alde saiatzen da; bigarren mailakoa lehenengo mailakoa-ren onex sakrifikatzen du.

Gaitzak konjuraturik zirudien. Bolibarren presentzia fisikoa, oraindik 1827n, indartsua eta ebazkorra zen. Kaudilloen artean, ordea, bakoitzak bere oligarkia euslea zuela, antagonismoa gehituz zihoan. Ez Paezek, ez Santanderrek, ez geroago Floresek, Ecuadorko hegemoi inprobisatua berau, ez zuten ulertzen ez ulertzetik nahi ere Aberri Haundiaren ideiarik. Pertsonaia hauen artean, diferentziak tankerazkoak dira bakarrik: eskema kaudillokoa eta herrialdekoa, gutziak eta asmoak berdina dira; zerbitzari dituzten eta zerbitzatzen dituzten taldeak berdintsuak dira.

Colombiako egoera lorrinzeak aginte “diktatoriala” hartzera derrigortu zuen Bolibar. Hark bere promesa denen gainetik bete zuen eta, bere emergentzi aginpidearen Dekretu Organikoan emaniko hitzari jarrai, kongresua konbokatu zuen, 1830ko urtarrilean jarriarik, haren azken uzpena ezagutu zuena. Haren osasunak ez zuen gehiagorako ematen. Herbestera bidean heriotzak jo zuen.

Bien bitartean Paeztarren mugimendua gorantz zihoan; Santanderismoa ere gorantz zihoan; Flores bideak seguratzzen ari zen Quito jaundarrean. Burruka anarkikoa zorrotz doa; grinak berotuz doaz. Trebeki kinaturiko pronuntziamentuek Paezi banakuntzaren aldapan behera segitzeko atxakia ematen diote. Urtarrilaren 13n bere kongresua konbokatzen du; Valentzian instalatuko da apirilaren 30n.

COLOMBIAREN AZKENA

Bogotatik, 1830 garren urte tragiko eta bidagurutzezkoan, Colombiako Kongresuak separatistekin bilera zabal bat eragiten du. Sucre mariskala da Corputz Soberanoaren buru eta berak gidatzen du misio lagunkoi bat Jose Maria Esteves apezpikuarekin eta Francisco Aranda lizentziatuarekin. Venezuelako Andeetako mugako agintari militarrek, Paezek ardura hori eman dion Mariñoren agindupean, Parlamentariei Caracaserantz bidea eragozten diete. Ezertarako ez da venezuelar hospetsu bat —abertzaleenatarikoa bera— buruzagi etortzea eta delegapen baketsua izatea. La Grita Nueva-tik buelta eragiten diete eta elkarrikustea Villa del Rosario-n, Cucutan, egin behar apirilaren 18 eta 19n. Hara joan ziren Paezen ordezkariak: Santiago Mariño jenerala, Ignacio Fernandez Peña Monsignorea, eta Martin Tovar. Bilerako protokoloetan agerienez, Sucrek problemaren benetako muinera zuzenki jo zuen; tinuz eta xumetasunez historiarako egia agertu zuen eta behin gehiagotan osotasun moral apartekoa eta Bolibarren Aberri Haundiko perspektibaren atxekidura erakutsi zuen. Honela esan zuen: “Venezuelako mandatarari jaunek frogatu nahi zuten bezala, han gertaturiko berriak herri iraultza bat zirela emanik eta ez militarrek exekutaturiko eta gidaturiko mugimendu bat, orain arte segurtatzen zen bezala, bidezko zen haren ondorioak herriaren onerako bihurtzea; eta ezein boteretsuk ez zezala, babesteko atxakiak,

askatu nahi zen uztarria bezain astun edo astunagora gero makur erazi; zeren sei urte Colontiatik kanpora egin bazituen ere, gaitz publikoak haren ustez ez zetozela Askatzailearen despotismoa deitu denetik (kexa berdinak eta handiagoak izan baitziren aurreko administrazioan eta konstituzio garaian), batez ere iraultzatik bertatik baizik, eta aristokrazia militarren despotismotik, toki guztietan agintea bereganaturik, hiritarra garantia eta eskubideen ahazpen osoagatik erostaka zeukana; gehiegikeria hau hain erroturik egonik non diktaduraren botere izugarriak ere ezin izan baitzion eutsi. Helburu honekin eta garantien eta eskubideen birrezarpen osoa errazteko, Venezuelako mandatari jaunei proposamendu bat aurkeztuko ziela, ondo bazeritzaten, haiek han defendatzera konprometa zitezten, nola berak ere kasu honetan Colombiako kongresuan defendatuko zuen". Haren proposamendua honela formulatua izan zen: "Militar batzu arriskugarri direnez gero, beren botereaz eta beren eraginaz abusaturik, batzuk legeak azpijan baitituzte eta beste batzu gobernu formen aldakuntza intentatzeko sumoagatik salatuak izan baitira, denboraldi batez, eta ez lau urtetatik behera, debekaturik ezein Jeneral Buru nahiz Errepublikan 20tik 30rako urteetan goi enpleguak lortu dituen beste ezein Jeneral Colombiako Presidente edo Presidentorde izatea, ez Estatuetako Presidente ez Presidentorde, hiru Distritu Handien Konfederakundea ezartzen bada; goi enplegutzat jotzen dira Presidentea eta Presidentordea, Estatu Ministroak eta Goren Buruzagiak". B. eta A. XIV-174, 179.

Sucrek iraultza jatorraren interes aberkoia bere interes personalaren aurretik jartzen zuen. Ez zuen zalantzarik izan. Paezen ordezkariak, Tovarrek eta Fernandez Peñak, Cumanatar hospetsuaren proposamendua, "bidezkoa" zelako, onartzekoa zela jo zuten; baina Mariño jeneralak, azken hitz eginik eta "bere burua iraindutat jorik" A. II-56, Sucreren proposamendua ez zela berek onartzekoa agertu zuen, eta hantxe berretsi zuen —azkenean— Venezuelako Mandatariak ez zeukatela baimenik Venezuelako Kongresua izatekoari Colombiako Kongresuko erabakien berri ematera joaten uzteko ere Bogotatik etorritako ordezkariari.

Colombiarenak egin zuen. Ayacuchoko mariskal zuzenaren beste gestio kontziliagarri batzu biribilki ezetsiak izan ziren Venezuelan. Nueva Granadan bestalde, ez zeukaten Colombiagatik intere-

sik eta begikotasun handirik. Han ere banakuntza nahi zuten venezuelarren domeinua geratzeko erremedio gisa. Errepublikaren hasieratik venezuelarrei gorenko mailak eta erdikoak ere, zibilak eta militarrek, monopolizatu zituztela akusatzen zitzairen. Banakuntza beharrezkotzat zeukaten beren bizkarretik Venezuelarako ateratzen ziren —neogranadar ukondotsuek ziotenez— baliakizun ekonomiko hain ugarien dreñaia mozteko ere.

Ecuadorren, bizitasun gutiagoz bada ere, bazen jatorri lokalista berdineko antagonismoak neogranadarren eta venezuelarren kontra, hauk “colombiarrak” deitzen zituztelarik, berak leinu izen komunetik aparte baleude bezala. Venezuelako askakuntz tropen “koloretik”, Quitotar zurikratek beren herriak “kanpamendu senegaldar bat” zirudiela esaten zuten, eta “beltzkrazia” aipatzen zuten. Faktore eta pertsonaia berdinek ondorio berdinak sorrerazten zituzten toki guztietan. Kaudillismoa eta oligarkia disolbatzaileak nagusi ziren.

Paezek esango du: “Venezuelarren eritzia bat eta ados zegoen ni egoeraren aurrelari jartzeko, Askatzailearen Bizitza Publikoko Dokumentuen 21 garren tomoan ikus daitezkeen aktek frogatzen duten bezala” A. II-16, eta hauetatik esaldi hautatuak sartzen ditu bere Autobiografian. Deklarazio itxuraz kokolo eta objetibo gurako hau egiak gezurtatzen du. Laurogeitamaika “akta” hoik mandatarik askoren anitz joanetorri eta diligentzian prefabrikatu ziren (23).

Separakuntzak berehalako indarraren baliakizun guztiak zituen, printzipio urrunak baino sendoagoak hoik beti. Etsaiak eta sus-

(23) Francisco A. Labastida jaunak eritzi «bat eta ados» hori nola lortzen zen froga bikain bat utzi du; Escuqueko Kantoiko buruzagi militarren metodoei buruz, Paezi berari tolesgabeki idazten dio 1830ko otsailean: «Herri Batzarreak berak ere haren ozarkeriaren jostailu izan dira, hiritarrei firma erazi nahi izan baitie ez beren bileretan benetan esan eta ebatzi dutena, berak bere kasa etxean idazten zituen paper batzu baizik, obeditu nahi ez zutenak bere izugarrikeriekin mehatxatuz. Eta hau ote da askatasuna edukitzea, Jaun Gailen hori? Ba al duke askatasunez hitz egiterik, bildu orduan enparantzan zaldi eskuadroi bat eta fusilari konpainia bat formaturik aurkitzen duen herriak? Segarra jaunak firma erazi nahi zizkiguten paperen mamia zenbait kexa zuzen eta oinarritu izan balira, gure pronuntziamentua egizatzeke, ondo zegokeen ekitea; baina Bolibarren kontrako zi-plada, laido eta lotsagarrikeria mordo bat firma erazi nahi izatea ez zitzaigun batere moduzko iruditu». Mijares Augusto. *La Revolución Política de Venezuela*. 81 garren o.

mopekoak batere urriki gabe pertsegitzen zituzten. Bogotarekiko posta komunikabideak ere Paezen aginpidearen kontrol oso eta hertsira pasatu ziren. Zentsura eta "izugarrikeriak" zalantziarik komentzitzeko erabiliko dira. Herriak ez zuen nazionalismo berbiztu tikiaren aipamenak entzutea besterik. Pertsona ukondotsuak makurtuz joan ziren. Paezek azkenez, bere "aberrixka" eskuratu zuen, eta berdin Santanderrek eta Floresek.

Sucre laster eroriko zen, zelata koldarraren biktima. Bolibarrek ere laster lagunduko zion betiko betikotasunera. Arloa libre zegoen. Harrapakin gizonen kontseilari taldetxoek ere hainbeste poztasun praktiko ekarriko zioten beren "ohore nazional" apalaren erreibindikapena hospatuko zuten.

HISPANOAMERIKANISMOA BIKUTARA

Colombiaren hondamendiarekin batera, Askatzaileak zekarren amerikanismoaren hondamendia dator. Errepublika handia hausten duten antzeko interesak dira inguru hispanoamerikazalearen ideal handia era puzkatzen, andegatzen eta ezerezten dutenak. Kaudilloen eta talde oligarkikoen ikuspen lokalak, sistemaren kontrako potentzien interesek, den denak, hitz batez, ondorio bera darama: Bolibarren amerikartetasunaren ukapena, eta estilo jakineko eta arkaikora jotzea, zeinek orain mesede ederra egiten baitie gure herrien etorkizunaren kontra eta benetako komenentzien kontra doazen gutizia aitortzeinei.

Liburu honen zenbait partetan gogoraturik dugu zer argi eta zehatz azaltzen duen Askatzaileak Panaman nahi duen bileraren mami konkretua, 1824ko abenduak 7n, Colombia, Mexico, Rio de la Plata, Chile eta Guatemalako gobernuai zuzenduriko gonbitean. Dokumentu labur eta oinarritzko horretako hiru esaldi berarizkotan eta beste zenbait eliptikotan, proposaturiko kongresuaren tankera iberioamerikarra nabarmentzen du. Buruera hori 1810tik dator eta ez da inoiz aldatu ez eta aldatuko ere; 1827n, bost Estatu hispanoamerikar handien elkarkuntza pentsatuz, esan zuen: "Amerikaren egun handia ez da heldu. Gure zapaltzaileak bota ditugu, haien lege tiranikoen taulak hautsi eta erakunde legezkoak jarri; baina oraindik gizarte paktuaren, mundu honekin Errepubliken nazio bat egin behar duenaren, oinarria botatzea falta zaigu" I-619.

Limako dei solemnea baino bi hilabete lehenago, 1824ko urriak 7n hain zuzen, Santander jeneralak, Colombiako boterearen Presidentorde arduradunak, Monroe Presidenteak Aliantza Sainduaren kontra eta Amerikaren kolonikuntza europarraren kontra eginiko deklarazioekin liluraturik, Gualen bitartez, Bogotatik, Washingtonen den Colombiako ministroari —Jose Maria Salazarri— instrukzioak ematen dizkio Estatu Batuetako gobernuari Panamakoa bilerara eskuosodunak bidal ditzan, O'L. XXII-514.

Askatzaileak egintza garrantzitsu horren berri apirilaren 6n jakingo du —agindu eta sei hilabete geroago—; Santanderrek otsailaren 6n jakin erazio dio, Limako gonbit zirkularra hartu zuela esatean, I-1975. Santanderren eta Askatzailearen eritzi desberdintasuna, horretaz, guztizkoa da. Bolibarrek ez du jokabide hau baimendu eta ez du berronetsisko bi arrazoigatik, bat egokierazkoa eta bestea zakonezkoa; lehenengoa, Britainia Haundia ez desanimatzeko, zeinen laguntza espero baitu eta axola handikoa baita, eta bigarrena, biltzen den elkarkuntzaren homogenotasunari zintzo irautea. 1825ko apirilak 7koa da Bolibarren lehen oharpena granadar kaudigoarentzat: “Estatu Batuetako federakundeak Ingalaterrarekin konprometatuko gaitu. Azter ezazu ondo hauzi hau eta nik pozik ikusiko dut zertara heltzen zaren, gutienez, zuk ala nik buruan ditugun neurrietaz desengainatu ahal izango baitugu” I-1076. Ideia bera berresaten dio maiatzaren 8n eta 20n, argitasun osoz, I-1089, 1097. Perun zeharreko jira batek —erregularakuntza administratibozko kanpainan eta denentzat sistema zuzen bat jaritzeko bere nahiak bete eraziz, sektore apalen onerako neurriekin— eskatzen dion denborak eta ardurak ez diote bere lehengo ideia nagusiaz Santanderri ekitea kentzen, alegia, Istmoko bilerara ez dutela Estatu Batuek joan behar. Haren idazkietan ez dago “gure Iparreko anaiei” begizkorik —Jamaicako Eskutitzean dioen bezala—, eta bera ere ez zebilen alferreko antagonismoen bila; baina tamainuen eta indarren jakile, interes ez komunen, kultur eta histori desberdintasunen jakile, zeintzuren artean hizkuntzen eta helburu politikoen desberdintasuna nagusi baita, desegoki iruditzen zitzaion Hegoako puska desberdinak, tikiak eta ertainak, Iparreko aglutinapen indartsuarekin nahastea eta berdintzea. Angosturako hitzaldian biribil hitz egin zuen; orduan askatasunen “eredu” zen herriari gorespen handiak egin ondoren, argi uzten du:

“Esan beharra dut ez zaidala urrundik ere bururatu bi Estatu hain desberdinen egoera eta izakera berdintzerik, nola baitira Ingeles Amerikarra eta Amerikar Espainola”, II-1138. Bernardo Monteagudori, 1823n, zabalki azaltzen zion zer arriskutsua zen nazio oso desberdinak elkartzea, konkretuki amerikar liga britainiar babespean jartzea, zeren berehalako bakearen abantailak ukatu gabe, “behin indartsuarekin paktua egindakoa, makalaren obligazioa betiko da. Dena ondo begiraturik, gaztaroan tutoreak edukiko ditugu, helaroan ugazabak eta zahartzaroan libertoak izango gara”; haren intuizioak ez du engainatzen, alegia harira dator: “Bildutakoan Lapiten jaia izango da, eta han sartuko da Lehoia mahaikideak jatera” I-792.

Bolibarrek luze ekiten dio. Askatzaileak Santanderri —1825ko maiatzak 30n— hamar egun aurrerago, behin gehiagotan, argitasun osoz esan ziona berresten dio: “Ipar amerikarrak eta haitiarrak, atzerritarrak izateagatik bakarrik, heterogenoak dira gutertzat. Horregatik ez naiz inoiz haik gure Amerikako konponketara gonbidatzearen eritzikoa izango” I-1108. Urriaren 8n Bolibarrek pronuntziamendu biribila egin zuen honetaz. Argentinako eskuosodunek Potosira deitzean, argi dio: “bera ez zela Estatu Batuak gonbidatzearen aldekoa izan eta ez zitzaiola atsegin ere, eta bere komunikazio partikularretan ere lagunei bere desgustua agertu ziela; halako gonbitak harriturik utzi zuela eta Santanderri idatzi ziola, Estatu Batuak sartzekotan, kongresu hura baztertzea beharrezko edo komenizko zela, baina ez zela halakorik gertatuko Estatu Batuak ez baitziren etorriko” (24).

Urriaren 21n berriro ere biribil agertzen zen: “Ez dut uste amerikarrek Istmoko kongresuan sartu behar dutenik” I-1211. Planteiamendu eta gomendio guzti hauei Santanderrek entzun-gogor egiten zien, apirilaren 7koari juxtuki erantzuten dio: “Estatu Batuen eta Ingalaterraren artean bildur zaren konprometatzeari buruz, bildur hori uste dut ez dela hain oinarritua”; beste puntuei ez die erantzun ere erantzuten (25).

(24) Restelli Ernesto: *La gestión diplomática del General de Alvear en el Perú*, 126 garren o.

(25) Ikus *Cartas de Santander* —Vicente Lecunak bilduak—, II t., 34, 39, 62, 75, 80 eta 161 garren oo.

Bolibarrek hain errepikaturiko eritziaren aurrez, Presidentearen, Colombiar Gobernuko Buruzagiaren, burugogorkeria makurrezina da. Ez du zuzentzen Salazarri emaniko jokabidea. Honek, bere aldetik, 1825ko hazilaren 2n, Colombiaren izenean, formalki gonbidatzen ditu Estatu Batuak Panamara etortzeko; gestio hartako laguntzaile Pablo Obregon eta Antonio Jose Cañas ditu, Mexicoko eta Erdiamerikako ministroak Washingtonen. Mexicoko Presidenteak, Gudalupe Victoriak, Santanderren inizatiba berriaz izenpetzen du. Iparreko gobernuak hazilaren 30n erantzuten du gonbita onartuz; haren eskuosodunak ordea, ez dira bileran parte hartzera heltzen, parlamentu eta prentsa eztabaida —isolationismoaren alde— geldi erazten baititu; Tacubayara bakarrik —nora kongresua aldatu baitzen Panaman hasi ondoren— heldu zen izendatuetarik bat, John Sergeant abokatua eta parlamentari izana.

Gual kantzilerrak, Bolibarrekin hain baturik zegoenak, nola Santanderren inizatiba honetan parte hartu zuen, Lievano Agirrek ematen digu argitasun garrantzitsu bat: “Gual jauna, egia esan, gai honetan Santander Presidentearen esanetara makurtu zen, baina era batera ez zen konturatu gabe geratu Askatzailearen eritzi ezagunenen hain aldakuntza drastikoa bakarrik justifika zitekeela Monroeren Doktrinari amerikar gobernu baten deklarazio aldebar-karraren tankera kentzea lortzen bazen, kontinente jiteko konpromezua bihurtzeko, hala nola deklarazio haren efektibitatea eta zirkunstantziak ez zitezen Estatu Batuek erabakiak izan amerikar hemisferioko herri guztiek baizik” ILA, BM-84.

Bolivar Panamako batzarreko hispanoamerikatasunarekin koherentea eta kontsekuentea izan zen beti. Hark herri berdintsuak bildu nahi zituen, berdintsuak eta gainera jarrera demokratiko solidaria eta kointzidentziazkoa zutenak Aliantza Sainduaren errebantxa asmoen aurrez eta politika anglosajoiei buruz.

Britainia Haundiagatik zuen interes eta guzti ere, eta zirkunstantzia dramatiko haietan establetasun politikoa arduraz bizikoa bazen ere, Istmoko amerikar bilerara europar potentzia hori ekartzeko buruera ez da Askatzailearena. Bolibar Liman zegoela, Bogotatik heltzen zaio kontsulta, hain zuzen pausua emanik zegoenean noski. Haren 1826ko otsailaren 17ko erantzunak Santanderri eta Revengari, I-1265, 1268, zirkunstantziaz eta probisionalki

baiezkoak dira —“oraingoz”— Britainia Haundiarekiko aliantzak berehalaxe prometatzen zituen abantail “positibo, hurbil eta nabariei” begiraturik, itxasoz handik proiektzio izugarritzko erasoaren bildur zirenean. Baina data berean hiru urte lehenago Monteagudori emaniko argudioak errepikatzen ditu. 1823ko abuztuan esan zion Monteagudori: “Begiratu batez, eta lehen garaietan, abantailak ditu; baina gero, etorkizunaren leizean eta ilunpeko argitasunean, espektu bildurgarriak ikusten dira. Pixka bat azalduko dut: egunean bakea eta independentzia edukiko ditugu eta gizarte eta barne politikako zenbait garrantzia; ondasun hauk nazioko independentzi zati bat kostako dira, diru sakrifizio batzu eta nazioaren nekaldi batzu. Ingalaterra liga honen buru jarritakoan, haren zerbitzari apalak izango gara” I-791. 1826ko otsailak 17ko borradorean, berriro ere egokierak eta garaiak berezten ditu, lehenengotako medea eta luzera datorren okerra neurtzen: “Oraingoz Britainia Haundiarekiko aliantzak garrantzia handia eta errespetagarritasun handia emango digulakoan nago. Baina abantail hauek ez dute kentzen nazio indartsu hori geroan biltzarreko kontseilu eta erabakien soberanoa izateko bildurrik” I-1267. Aliantza Sainduaren erasoari zaion bildur efektiboak erantzun ofizialean eragina du noski. Hark, ordea, ilusioari eutsirik, konbinazio estrainio bat egin du pesimismozkoa —orainaldi itzurezina eta egite jadanik burutua onartuz— eta etorkizuneko fedearen itxaropenezkoa. Horrela, esaniko “bildurrik” baztertu gabe, berriro ere egokieran jartzen da: “Jaiotzea eta indartzea lehenengo zera da; gainerakoa gero dator. Haurtzaroan laguntza behar dugu, nagusitan jakingo dugu defendatzen. Orain oso onuragarri zaigu, eta gero beste zerbait izango gara” I-1268. Pentsaketa hauk baino hilabete eta bost egun lehenago —urtarrilaren 11n— Manuel Jose Hurtado senadoreak, Santanderrekin zegoen granadar plutokraziakoak, Londresen Colombiaren ordezkari zegoenak, Britainia Haundiari Panamara mandatarari bat bidaltzeko eskatu zion; Edward James Dawkins hautatu zuten Ministro Eskuosodun mailan.

Gehiago oraindik, Santanderrek 1825ko maitzaren 28n Frantziari hautemale bat izendatzeko eskatzen dio; hurrengo urtean ere berreturiko gonbit honi Carlos Xen Gobernuak ez zion jaramonik egin, Espainiaren aliatua izaki.

Holandak, bere aldetik, Londresko Colombiar Ministroaren

hurbiltze gestioak pozik hartzen ditu; bere burua gonbidaturik ikusten du eta zenbait kolonia bertan dituen kontinentearen interesa jorik, bere kasa asistitzen du: Carlos Van Ver izango da ordezkaria.

Santanderrek, kontsulta gabe hau ere, Brasilgo inperioa gonbidatzen du, zeinek, 1825ko urriak 30n, bere ordezkaritzat Theodoro Jose Biancardi Gomendadorea —Inperio Kontseiluko Ministroa— izendatzen baitu eta honen ezinetorria ikusirik, San Salvador de Campoko bizkondea izendatzen du. Errejimen hori Aliantza Sainduaren nahikoa kidea zen, horregatik Bolibarren eksklusioa ez zen kapritxozkoa.

Haitiri buruz, bileraren hispanoamerikar homogenotasunaren arrazoigatik Bolibarrek gonbidatu ez zuen herriari buruz, Santanderren gobernuia, herririk desberdinenak biltzen hain saiatua, eksklusioa aurreritzi arrazazkoen gainean espresuki oinarrizterainoko kontraesan eta zentzugabekeria sinestezinera heltzen da. Bogotako errejimenak orduan eufemismorik gabe deklaritzen du “Haitirekin nazio zibilizatuen artean ohi diren etiketazko begiramenduak gordetzeko nazka handia” sentitzen duela, O’L. XXIV-283. Lehenago —Gualen bidez— Boyer presidenteak Jean Desrivieres Chanlatte-ri Colombian gomendatu zion hurbiltze misioa frustratu zuen. Estatu Batuen asmo “segregazionisten” barruan sarturik Santander Colombiako ordezkariéi, Revengaren bitartez, ekiten eta ekiten ari zaie “edozein hauzi baztertzeko baldin helburutzat badu Haitiren independentzia aitortzea, ministro diplomatikoak bidaltzea eta hartzea eta tratatu publikoak ospatzea Colombiako Errepublikak Europako eta Amerikako beste potentziekin egin ohi dituen moduan” O’L. id. Berriro ere kaudillismoa burutik beheraino agertzen zen, et aukera dohakabe honetan huts biribila bota zuen, hala zer etikoan —Askatzaileak hain gorroto zuen eskergeiztoaren krimena eginik— nola zer sozialean eta nazioarteko zer zerean —alderdi etnikoak sekula pisurik izan ez zuen pentsakera politiko koherente bat lorrindurik.

Santanderren portakera hainbat nazkagarriagoa da esaniko dokumentua Revengak idazten eta izenpetzen baitu, Venezuela gehien bat mestizoko probintziar bat hau, gainera bere bizkarrean “arrazismo” kolonialistaren bidegabekeria jasan zuena bere unibertsitate gradua hiru urtez baztertu baitzioten bere odol garbitasun-

naren informea osorik ez zegoelako. Bolibarrek, esaniko arrazoiengatik, “Amerika lehen espainiarreko” sei estatu bakarrik gonbidatu baditu ere Panamara joateko, Haitiri maitasunik zintzoena eta jotorrena zion. Petion “gure askatasunaren autorea” deitu zuen, I-189, hala zen izan ere, eta honela idatzi zion: “Ene bihotzaren zakonean, lurreko ongileetan lehenengoa zu zarela diot. Egunen batez Ameriakak bere Askatzaile aldarrikatuko zaitu”. Angosturan esan zuen: “Biziki nahi dut Venezuela librea izatea, haitiar kementsuekin harreman sarriak jarri ahal izateko, eta venezuelarren haienganako sentimendu anaikor eta lagunkorrak, eta nireak bereziki, agertu ahal izateko” (26).

Santander-Gual-Revengak Haitiri buruz zeukaten jokabide aurritzitsua eta defendaezina bete betean desabotuz, Bolibarrek 1829n biribilki xehatuko du historiarako: “Bogotan Haitiko agente baten eta estatuko ministroaren artean negoziaketa bat izan zenean, ni Perun nengoen, eta ez nuen negoziaketaren berririk jakin bukatu arte; orduan nik ez nuen Colombian inolako aginpiderik konstituzioak eta kongresuak kendu baitzidaten. Nire aldetik ez dut barrurik Haitiko gobernuarekin tratatzea ukatzeko, gehiegi zor baitiot horretarako” II-742.

Bolibarren asmoaren aldrebespen honen erantzuleek —beren kolore bereizkeriaren ergelkeriaz ohartu gabe— beren buruak Askatzailea baino unibertsalago eta irekiagotzat zeuzkaten segur asko; baliteke gainera ondo ustez hala sinestea, eta ez konturatzea lehenengotako asmoa faltsutzean, hispanoamerikar komenentzia konkretuaz kanpoko hirietara zabaltzean, erremedio gabe hondamendiraz zerratutako asmo hura. Nazioarteko elkarkuntza politikoak elkarrekiko komenentzia konkretuetan oinarritzen dira, eta kide-tasun praktikoa eta egiazkoetan. Honetan Bolibar ez zebilen oker Guali eta Briceno Mendezzi ziotsenean “mundu guztiarekiko pak-tua ezerez adina dela izatez” I-1421. Kasu honetako taktika, mutatis mutandis soldaduei lurak banatzea, Bolibarren justizia ekonomikoa hedatzeko atxakiaz, onesten ez denean bezalakoa da eta saria zerbitzari publiko guztiei luzatzen, horrela ez batzuren-tzat ez bestetzuerentzat dela; esklabutzarekin ere berdin: ez da aska-

(26) Verna, Paúl: *Petion y Bolívar*, 178 eta 387 garren oo.

tasunik ematen libertoaren bizipidea, hezkuntza eta etorkizuna prestatu behar omen baita lehenengo; hitz batez, helburua konplikatatu, handiagotu, urrunagoa eta lortzen zailagoa egiteko.

Zer uste zuen Bolibarrek amerikar batasun handiko arraza eta gizarte burrukei buruz? Homogenotasun berdintzailerako abiadak dena lautuko zuen: “Jatorri eta kolore desberdintasunak bere eragina eta boterea galduko zuen”, II-1215. Haren ustez gure Amerika sintesi guztien sintesiserantz zihoan. Angosturan, odolen desberdintasunaren jakile, nahasketa eskatzen zuen batzeko. Mestizaiara irekirik, honen alderdi onak sinetsirik, atzerritarrekin zabal, zeintzu zintzoki gonbidatzen baitzituen hona etortzera, Bolibar aurreritzi segregazionisten eta kontinenteko panorama 1830tik gora gehiago nahasiko zuen banakeria mila ezinikusitan oinarrituaren kontra zegoen.

Bolibarren amerikartetasunaren gorabeheren joanetorria bukatzean, esan dezagun Askatzailearen eta Santanderren gobernuaren arteko desberdintasunak ez zirela, zoritxarrez, bakarrak izan. Neogranadar kaudillo serio eta konpetenteak bere politika zeukan eta haren erabileran bere kasa eta boterean eusten zioten interes lokalisten arabera jokatzeari erabaki zuen. 1825ko argentinar-brasilardar egoera konfliktiboari buruzko desadostasuna argi dago; Uruguay eta Paraguay, baita Peru eta Bolivia ere, tartean ziren kopapilo nahasia zen hura.

Rio de la Platako eskuosodunek Potosin bisitatu zuten Askatzailea, eta honek diotsa Santanderri: “Alvear eta Diaz Velez jaunak, beren misioko helbururik nagusienetarikotzat, Frantziak zapalduko Paraguay askatzera expeditio bat bidaltzeko proposatzera etorri zaizkit. Jaun hoiek operazio hori burutzeko modurik onenean gu gaudela diote; hortik Buenos Airesentzat abantail handiak letozke, batez ere Brasilen kontrako gerran. Pentsa ezazu nolako komedia den hau, bi Estaturen buru bainago eta ezin haien eritzien eta gutiengo haien interesen ebatzirik hartu. Honela bada, premia mingarrian nago, alegia, batzorde honekin ezin tratatu, eta haien eskariei ere ene baietz osorik ezin eman. Nik garbi esan diet Rio de la Platagatik nire oraingo posizioan ahal dudan guztia egingo dudala eta ahalegin guztiak egingo ditudala Colombiari eta Peruri, beren aberriaren askatasuna segurtatzeko, eskatzea beharrezko deritzaten laguntzak eta nekeak ere neure eragin eta arima

osoz gomendatzeko. Espero dut, ene general maite, eskutitz arretagarri hau zuk haintzat hartuko duzula eta egoki deritzazun bezala erabiliko duzula kongresuari hain arlo zail, arretagarri eta delikatuari beharreko informeak emateko” I-1190.

Zein izan zen Bolibarrek bere eragin eta bere arima osoz eginiko gomendio horren destinoa? Zer egin zuen Santanderrek Bolibarren promes hain bihozkorrez, Hegoari laguntza, eta nekeak ere emateko, dena Colombiaren izakerari zegokiona? Berriro ere erizpide ezagun biek elkar jo zuten: Amerikako ikuspen jenerala eta neogranadar kaudillismoa aginpidean. Erresultatua betikoa izango zen, berehalakotasun hestuen kontzeptuak nagusi geratuko ziren mementuko helduleku gabeko futurismo zabalaren ginetik.

Colombiako presidentek legeria erkinezko erreserbekin erantzun zien Bolibarren inizatibei: “Gure legeen arabera ez zuk ez nik ezin dugu Buenos Airesi laguntzeko colombiar indarrak atondu. Nire eritziz ez diogu Buenos Airesi laguntzarik eman behar Ingalaterrak zer pentsatuko duen jakin gabe. Paraguayri buruz nik ezin dela esango nuke; geurez ezin dugu hori egin, ez baita ukagu Paraguayren gainean inolako eskubiderik eta probintzia ere ez dago Espainiar Gobernuaren mende; laguntzaile gisa ere ez, zeren zein tratu edo obligazioaren indarrez laguntzen diogu Buenos Airesi bere barne diferentzietan?” O’L. III-239.

Aurreko eritzia argentinarrangana hurbiltzearen kontra sarri eginiko agerpenen konklusioa da: “Ez dugu Rio de la Platarekin traturik egin —dio Santanderrek—. Egin zena gero ezartzeko eta definitzeko oinarrien seinale bat bakarrik izan zen, eta gainera ez da hemen gobernu hark berretsirik azaldu. Jaun hoiek behar gaituztenean datozkigu orain bila; nagusiago zirela uste zutenean oilarkeria jasanezinez mesprexatzen gintuzten. (Bi hilabete geroago ekiten zion). Buenos Airesek eskatzen duen laguntzari buruz ez dut eritzirik aldatu. Ezin dugu eman, alde batetik, inolako pakturik ez dagoelako horri buruz, eta bestetik, kongresuaren baimen gabe ez zuk ez nik ezin dugu soldadu batto ere disposatu. Hauziak funtsean ere badu zer pentsatu handirik, premiarik gabe errieta bat atera ez dezagun” O’L. III-210, 230.

Rufino Blanco-Fombona Bolibarren ikertzaile hospetsuak Santanderren eta Rivadaviaren eksklusibismo aberkoiak antzekotzat jotzen ditu, biak Askatzailearen ideal zabal eta amerikazalearen kon-

trakoak. Blanco-Fombonak gogarazten du nola 1824n, hainbat gestioeren ondoren, Bolibarrek Perura pasatzeko Colombiako baimena lortu zuenean, presidentordeak lortu zuen Bogotan dekretatzea —legez— Askatzailea erretordetza hartako lurraldetik Hegoamerikako beste. Estatu batera irtetea. “Gobernuaren eta Colombiaren eritziaren jarrera Askatzaileak eduki zuen eragozpenik handienetarikoa izan zen, ikusi denez, 1826 garren urtean argentinar-brasilidar gorabeheretan eskurik ez sartzeko” (27).

ALDERDI GUZTIETATIK ERASOAK

Independentziaren ondoren Amerikan sortuz joan ziren herri desberdinetan, Bolibarismo integratzailearen kontrako oposizioa oso nabaria zen. Hoietariko bakoitzean bolada historiko-ekonomiko-sozial indartsu bat nagusitu zen, geografia kapritxosoan, tradizio anomaloan, eta Espainiak hasieratik bultzaturiko partikularismoa zimendaturik, herri bakoitzeko oligarkia criolloen botere gosea pizten zuena. Oligarkia hauentzat, ez zegoen mini-errepubliken ugaltza baina ezer hoberik; honela aginpide politikoa erraz segurtatuko zuten betiko eta hortik zetozen gainerako abantailak gozatu, hauk kolonikuntzako bidegabekeria eta desberdintasunetarik harakoak zirela begiratu gabe.

Indalecio Lievano Agirre historilariak honela dio, haren ideiak oso hurbildik jarraitzen ditugun estudio argigarri batetan: “Granadar plutokraziak, Venezuelako mantuar lurdunek, Buenos Airesko merkataria eta agiotisten oligarkiak, Chileko ileordetsuek, Peruko aristokraziak, Brasilgo landatzaile esklabistek, etab., interes komuna zeukaten koloniako lehengo banaketa administratiboak estatu Soberano bihurtzeko, horrela botere politikoaren beren zatia harrapatzeko eta goikoen eta behekoen arteko liskarrak beren antz eta irudira moldaturiko Botere Exekutibo, Legegile eta Judizial batek konponduko zituen segurantzak edukitzeko” ILA. BM-11.

Ikusmira kaxkar eta triste hoiaren kontra Bolibarren integratzailearen ahalegin diplomatikoak, kolonialdiko zatiketen zuzenketa funtsezko bat lortzeko, herriak zerbitzatzeko eta esplotazioaren kontra fronte ba-

(27) Blanco-Fombona, R.: *Bolívar pintado por sí mismo*. 217tik 220ra.

karrean batzeko, errezelu jenerala aurkitzea nonahi, oposizio garbia ez zenean.

Bolibarrek Joaquin Mosquerari gomendaturiko misioetan, Perun burutu zena ondo atera zen, Colombiaren laguntza beharrak Limako gobernuak biguntzen zuelako; hala ere han erreserbak agertu ziren uti possidetis juri horri buruz, eta izenpeturiko tratatuan elkar laguntza militarren obligazioa jarri zen. Klausula honek efektu bidertzaile negatiboa eduki zuen Santiagoko eta Buenos Airesko geroko gestiorako, eta Colombiako kongresuak objetatu egin zuen geroago.

Chilen ez zuen Colombiako eskuosodunak berotasun gehiago aurkitu eta ez zen haren proposamenduentzat harrera hoberik izan. O'Higgins-en gobernuak Colombiako proposamenduei aurkezturiko zuzenketa batzu onartu egin behar izan zituzten, nahiz eta izenpetuko zen tratuaeren efikazia eta garrantzia eskastu. Askoz okerragoa izan zen —esan genuenez— Rivadaviaren aurreko erresultatua; Buenos Airesen ez zuten hispanoamerikar aliantzarik entzun ere nahi eta gutiago betirako bilkuntzarik. Horregatik izenpetu zuten konbentzioa garrantziarik gabeko tresna herbal bat izan zen.

Iparrerrantz ez ziren posibilitateak batere pozgarriago eta alaia-goak. Mexicoko zirkunstantzia zailak zirela medio, Miguel Santamaria Bolibarren bidaliaren misioak hasieran bertan porrot egin zuen; Iturbide eroritakoan, Colombiako eskuosodunak gero tratu interesgarri bat konkretatu ahal izan zuen Lucas Aleman kantzillerrarekin. Tresna hau “1824ko otsailaren 19n Santa Mariak izenpetua, gero Colombiako kongresuak errefusatu egin zuen, zeren —dio Lievano Agirrek— Santander Presidentordeak, estadista harrigarri horrek, Estatu Batuekin eta Britainia Haundiarekin merkatal itun bana izenpeturik baitzuen, zeinetan, erreserbarik gabe, naziorik laboratuenaren pribilegioa eman baitzien. Zirkunstantzia honetan Colombiak ezin onartu Santa Maria Alemanen ituneko preferentzia errejimenik, zeren horrek herri anglosajoiei mesede berdinak automatikoki egin beharra baitzekarren” ILA, BM.-35.

Aipaturiko historilariak eranstean du: “Ez da, beraz, harrigarria Herri anglosajoiek, batez ere Estatu Batuek, Bolibarren politika hispanoamerikarrari gaitzerizkoa eta alarma jotzea, eta interes bizia edukitzea aitzinako Espainiar Amerikaren kolonizapena burutzeko orduan egiten ziren ahaleginak bizkartzeko. Hispanoame-

rikako gizarte handia Estatu elkar etsaien arkipelago batetan pus-
katzeko moduko antolamendu politikoa, berebiziko barrutia zen
Espainiak huts utziriko metropoli postua harrapatu nahirik ze-
biltzan inperialista berrientzat; eta inperialismo hauk, horregatik,
Hispanoamerikako patrizieria criolloek Panamako Kongresu An-
fiktionikoaren kontra bota zuten oposizioarekin batu ziren”,
id., 32.

MONROEREN ESKAPUA

John Quincy Adams, Iparramerikar diplomatiko konpetenteak,
Monroe presidenteari ezesteko sugeritu zion Ingalaterrak Estatu
Batuei egin zien proposamendua, Aliantza Sainduaren kontra el-
karrekin pronuntziamendu bat egiteko. Pronuntziamendu horretan
ingelesek hispaniar domeinu zaharraren segurantza Mundu Berrian
garantizatu nahi zuten anglosajoiengurariak salbu utzirik —hau
espresuki esan behar zen—. Adamsek ahaleginak egin zituen Mon-
roek bere deklarazioa bere kontura egin zezan, Ingalaterrak his-
panoamerikar herriak babestea baino gehiago Iparramerikaren in-
teresak gelditzea bilatzen zuen promesean lotu gabe.

Monroeren Doktrina honela agertzen da, 1823ko abenduan
eta Bilkuntzako Kongresuari mezuan, Ozeano Barearen iparretik
eraso erruso batzu geratzeko atxakiaz: “Iparramerikako nazioa
—dio— gure sistemaren defentsara emanik dago eta sistema hau
hainbeste odol eta hainbeste diru kostaturik egin da eta bere hi-
ritarrik jakintsuenen jakituriak heldu du, parerik gabeko zoriona
lor erazi digun sistema noski. Estatu Batuen eta potentzia haien
artean dauden zintzotasun eta lagun harremanek deklaratzera be-
hartzen gaituzte gure bake eta segurantzarako oso arriskugarritzat
genukeela haien aldetik edozein saialdi Hemisferio honetako zati
batetara, dena delakoa, haien sistema ekartzeko”.

Deklarazio honen benetako zentzua Estatu Batuen interesak
jagotea da, Europako edozein gutizia galgaturik, baina hortik gure
hegoatar aberrienganako altruismo eta eskuzabaltasun apurrik eto-
rri gabe. “Iparramerikar estadistentzat —dio Lievano Agirrek—
Monroeren Doktrina ez zen besterik Iparreko Errepublikaren noiz-
kako interbentzioa iragartzeko baizik Estatu Batuen interes bereziki
nazionalak hala eskatzen zuen kasuetan eta kontinenteko alderdie-

tan bakarrik. Clay Estatu Idazkariak berak ere hala zertu zuen, Joel Poinsett, Mexicoko Iparramerikar Ministroari bidaliriko ohar-penean, honela zioela: “Estatu Batuek ez dute inolako konpromezurik hartu ez Mexicoko edo Hegoamerikako gobernuei edo bazuri inolako promesik egin, Estatu Batuetako gobernuak potentzia atzerritarrek nazio hauen independentziaren edo gobernu eraren kontra atentatzerik ez duela permitituko garantizatuz, eta ez da instrukziorik ere eman horrelako konpromezu edo garantiarik onetsiz” (1826ko martxoak 29)”, ILA, BM-40.

Ez dago esan beharrik munduko herri pobreen alde, eta batez ere amerikar errepublika sorberrien alde egitean, Bolibarrek nazioarteko nagusigoa zeramatzen interesekin topo egiten zuela. Interes hoik jotzen zituen haien begiak irekitzen eta batasunera deitzen zuen prediku berri honek. “Liga hura Bolibarren pentsamenduaren arabera Mundu Zaharreko Koalizio kontserbadorearen alderantzi demokratiko gisa taiutzeak Europako prentsaren eta Paris, San Petersburgo eta Vienako Gobernuen ziplada suminak sorrerazi ez ezik, Canning ministro ingelesa Londresko colombiar ordezkariari, Hurtado jaunari, bere langelara deitzera eraman zuen, jakin erazteko bere Maiestatearen Gobernuak ez zeukala egokitzat ez desiragarritzat Hispanoamerikako Errepublika berriek printzipio herrikoietan oinarrituriko aliantzarik egitea, printzipio hoik Europako gorteentzat benetako desafioa baitziren” ILA, BM.-53.

1826n oraindik burutu gabe zeuden Bolibarren planetatik, Estatu Batuei aparteko burukomina ematen zieten Cuba eta Puerto Ricoko independentzia proiektatuek eta Antilla hoietako esklabuteria handi samarren askakuntza ondoriozkoak. Bolibarren politika guztia dudarik gabe, inperialismo yankiaren aurrez aurreko langa prebentiboa zen, herri handi horretako estadistarik hospetsuenen buruan jadanik oso argi zegoen inperialismoa noski. Iparramerikar diplomatikoez —Joel Poinsett Mexikon, Anderson Bogotan, eta Wiliam Tudor Liman—, nahiz eta esperientzigabeak, baina kreditaturik zeuden herrietako barne politikan sarturik, eta beren militantzia antibritainiarrak eraginik, “benetako azpikeri sare bat egin zuten, zeinen hariak Washingtonen eta Yorkeko rito-ko Logien aulki zentrolean mugitzen baitziren, izpiritu erregio-koari eta hispanoamerikar errepublica desberdinen arteko etsaigoei kinada klase guztiak ematera zihoazen azpikeriak, Bolibarrek ideia-

turiko Liga Konfederalaren egikuntzari etengabeko oztopoak ipintzeko” ILA, BM-56. Iparrean zeramaten asmo bateratzailea Hegoan bultzatu zuten banakeriarekin ez zetorren bat; zoritxarrez, iparramerikarren kanpainak gure politiko ukondotsu asko harraipatu zituen eta, espejismo batez liluraturik, itzulera gakotsu eta ezprobableko bideetan zehar galdu ziren.

Estatu Batuak Amerikako bileran sartzea ukatzean, Bolibar zuen zegoen froga gehigarriak eta soberazkoak, nahiz eta berez ere askiak, beste gertaera batzuk ematen dituzte: 1822tik, eta 1824ko konbokapen batetan espresuki berretsirik, Bolibarren helburua zen “Estatu bakoitzeko eskuosodunen biltzarre bat ixtilu handietan kontseilutzat balioko diguna, arrisku komunetan elkargarriztat, eragozpenik gertatzen denean itun publikoen interpretetzat, hitz batez, gure desberdintasunen leuntzailatzat” I-1012. Estatu Batuetako gobernuia asmo honen arras kontra dago; ordezkariak ematen dizkien instrukzioak biribilak eta bueltagabeak dira: “Amerikar Estatuaren arteko eztabaidak ebazteko edo haien jokabidea nolana nahi dela erregulartzeko botereak dituen kontseilu anfiktionikorik ez dago pentsatzerik ere” (28). Antagonismo sustraizkoagorik ezin izan. Beste diferentzia bat, eta ez tikia, begien bistan dago: esklabutza kontua. Estatu Batuetan hauzi hori Panaman planteiatzeko bildurra Istmoko Batzarrera ez joateko oposizioaren arrazoi zati on bat den bitartean —Hegoako senadoreek eraginik—, Colombiak, ordea, oraingoan Bolibarrekin batera, gai hori han defendatu beharreko sei puntu oinarrizkoen artean sartzen du. Gehiago behar bada, Iparramerikak Senatuak esklabu trafikoa debekatzen zuen konbentzioa ere berdin ezetsi zuen, 1824ren azkenetan Bogotan, Gual Kantzilerrak eta Richard G. Anderson Colombiako iparramerikar ministroak izenpetu zutena, azken honen inizatibaz hain zuzen —kontsultatu gabe antza.

PANAMAKO FANTASIA

Panamako kongresuaren konbokapenari eta ideari berari ere nazio gonbidatuek muzinka erantzun zioten. Inork ez zuen agertu

(28) Yepes, J. M.: *Del Congreso de Panamá a la Conferencia de Caracas*, I t., 62 garren o.

inziatiba garrantzitsu hartarako berotasunik, ulerpenik ez beharrek ardurarik. Alferrik Bolibarren fintasuna Colombiako iparrean toki urrun bat izendatzen eta bera errepublika honetatik —nahikoa Hegoara— ausente egoten, erabakietan askatasunik gehiena garrantzatzeko.

Argentinako gobernuak, jokabide lanbro eta anbiguen ondoren, ofizioski jakin erazi zituen Panamara ez joateko bere arrazoi bitxiak: “Mundu Berriko Estatuaren arteko arazorik garrantzitzuenak erregulatzeko aginpide goren eta bikain bat ezartzea alde guztietatik arriskugarria dela frogaturik dugu, eta ez litzateke harri-garri bakearen sosegua hain beharrezko duten herrien artean gerra desagileen ernamuina bilakatzea. Badakigu, bai, Estatu guztietako eskuosodunek parteharturiko itun komun batean konpontzea komeni litzatekeen interes jeneraleko puntuak badirela. Gaur Amerikar Kongresua deritzana litzateke hori. Baina horixe ere beste zirkunstantzia batzutan komenizko irudi litekeena, oraingoetan arriskugarria litzateke. Colombiako Errepublikak erabakietan edukiko lukeen influentzia, edo, berak egitez erabili gabe, gertaerek erabil ahal izateko eman dioten gaitasun hutsa nahikoa litzateke zeloak sortzeko eta egokimendurik arrazoizkoena, pakturik ongarriena, Ligako Estatu guztien eskubide-eginbeharrak berdintasunik zorrotzenez ezartzen diren ituna errezeluz begiratzeko. Ideia honek bildurra ematen digu eta proiektua izuz begira erazten...” (29).

Chilen O’Higgins eraitzia izan zen; hurrengo gobernuak, garenore gutiko arrazoiak emanik, ez zuen kongresura eskuosodunik bidali nahi. Argentinararen politika antibolibartarra bizkartu eta harekin bat egin zuen.

Peruri buruz, haren kanpo politikaren erantzukizuna perutarrek oso osorik hartzea nahi izan zuen Bolibarrek. Berriro ere bere ideari jarraitzen zion, alegia, batasuna herrien interes komunaren bide borondatezkoetik etorri behar zuela eta ez derrigorrezko ezarpenetik. Baina Bolibar hauzian inhibituz batera, gobernu perutarrek bere kasa aldatu zuen hasieran haren agente Vidaurrek eskainiriko laguntza eta zabaltasun jitea eta kontinenteko komuni-

(29) Zubieta, Pedro, A.: *Congresos de Panamá y Tacubaya*, 31 garren o.

tateko partaideen artean zen errezelu eta desfidantzazko jarrera arrunt eta jeneralera jo zuen.

Ingalaterrak bere ordezkariak ez zuela erabakietan parterik hartuko iragarri zuen; gainera bere neutraltasuna berresten zuen gure Amerikak Espainiaren kontra zeukan konfliktuan. Brasilgo enperadoreak ere bere neutraltasun hertsuari ekiten zion.

Aurretiko guzti hauekin, batzarre hartako lanak oso urriak eta mugatuak izan behar, eta hala izan zen izan ere, nahiz eta Askatzaileak bere esperantzak han jarririk eduki 1825n esan zuenean: “Hona hemen gerra unibertuala. Behin betiko plana tronoen garaiena askatasunaren kontra jokatzea da burruka orokor batetan. Burruka hau ez dago inola ere zatika egiterik, mundu guztian hedaturiko interes mugababeak gurutzatzen baitira. Guzti hau biguntzeko erremedioa —aurkitzen baldin bada— eskuosodunen Istmoko kongresu nagusia da, plan sendo, hertsu eta hedatsu batekin, 100.000 gizoneko harmada bat gutienez bere ardurapean duela, konfederakundeak mantendua eta zati osatzaileengandik independentea” I-1064.

Colombia, Erdiamerika, Peru eta Mexicoko Estatu Batuetako Errepubliken arteko Batasun, Liga eta Konfederakunde Betikozko Ituna, eta kontingenteen konbentzioa, 1826ko uztailak 15n Panaman izenpetuak, Askatzaileak zituen asmo bortitzen islada mehar eta ahula ziren.

Erizpide desberdinak hurbiltzeko lan zail eta neketsuan, Bolibarrek bultzaturiko ideia funtsezkoak limatu eta andegatu ziren, bera izaki, garai hartan, gure Amerikaren eta honen etorkizunaren politika integralaren ikuspen organikorik zeukan bakarra. Aipa litezkeen anitz punturen artean, Bolibarren ponentzia delinkuente politikoan extradizioari buruz ezetsia izan zen. Silva Otero internazionalista jakintsuak dio: “Askatzailearentzat, gobernu konstituituen era demokratiko legezkoen kontra atentatzen zuten guztiek, gutizia pertsonalak asetzeko nahaspila eta irabioa zekartenek ez zuten behar babes politikoa emanik uzten zaien bezalako inmutaterik (30).

—Istmoko zortzi pertsonaia deliberatzaileen enkontru hain eztabaidatsu eta urriaren bukaeratik egun gutira, eta bere dezepzioa

(30) Silva Otero Arístides: *El Congreso de Panamá*, 35 garren o.

egiztatzeko berririk hartu gabe oraindik, Bolibarrek bere errealismo melankolikora berjotzen zuen: “Panamako Kongresua, erakunde itzela izatekoa efikazia gehiago balu, ez da besterik nabigatzen ari ziren untziak harkaitz batetik gidatu nahi zituen greziar zoro hura baizik. Haren boterea geriza bat izango da eta haren dekretuak aholkuak: ezer ez besterik” I-1407.

Paez eta Santander buru ziren hauzi separatistak urgentziaz eskaturik, Askatzailea arrapataka abiatzen da Venezuelara. Guayaquilen Istmotik Limarantz doan Vidaurre eskuosodunarekin topo egiten du; Bolibarrek Panamako komenioak irakurtzen ditu eta hura desilusioa hartzen duena; 1826ko iraila zen errealtate tristetaz etsi zuena. Peruko diplomatikoari denbora batez portu hartan geratzeko intsinuatu zion; horrela protokoloa peruratzea atzeratu nahi zuen: Berehalaxe idazten dio Briceño Mendezi: “Panamako itunak hemen irakurri ditut eta garbi esango dizut neure eritzia. Tropen kontingenteei buruzko komenioa, batez ere prestatu behar diren modu, kasu eta kantitateei buruz, alferrekoa eta inefikaza da. Etsaiak printzipio zihurrez joka lezake eta doble indarrez inbaditu. 5.000 gizonetik gorakoa bakarrik hartzea inbasio seriotzat eta laguntzak kasu hartatik gora hastekotzat jotzea, zenbait estatu okupazio positibora kondenatzea da. Zaldieriako hamargarrena arte militarreko printzipio guztien kontra dago. Artileriarri buruz erabakia ere oker dago. Batzarrea Mexicora aldatzeak potentzia bestela ere indatsuegi haren berehalako eraginpean jarriko du, baita Iparreko Estatu Batuen mende ere. Arrazoi hauek eta hitzez esango dizkizudan beste askok esatera behartzen naute itunen berrespenik ez egiteko ni Bogotara heldu aurretik eta zurekin eta beste batzurekin luze eta sakon aztertu aurretik. Batasun, Liga eta Konfederakundearenak baditu artikuluak zeintzuren onespentak proiektu ene ustez oso ongari eta tamainu handikoen exekuzioa lardaska baitezake. Honela, bada, diot eta berdiot, ni heldu aurretik ez berresteko. Berdin diotsat Santander jeneralari ere eta zuk ere esan” I-1431.

Hainbeste frakasuk beste edozeini bere helburuetatik etsi eraziko zioten. Bolibar ez da errendatzen; bereari ekiten dio, nahiz eta Panamako lana ezerezturik ikusi, Orain bere bizitzako biurterik mingarriena izango denenko azken ahalegin bezala, ideia egingarriago bati atxekitzen zaio: Andeetako konfederakundea —Co-

zio Gorputz batetan biltzera daramaten negoziapenak hasteko". Hortxe geratuko zen dena.

Azkenerako ideal integratzailea menderatu zuten nazionalismoen baieztapen edo hobeki, deuseztapen patologikoak herri ahizpen artego gerrak ekarri zituen ondorioz. Iparretik Hegoara, horixe izan zen legea.

1825-28n Brasilen eta Rio da la Plataren arteko gerra gertatzen da, handik Uruguay independente irtenik. Herri jaio berri honen kontra hamarkada bat baino lehenago gatazka luze bat hasten da, Rozas tiranoak bereganatu nahi duelarik; lehenengo aldia 1836tik 1838ra doa, eta bigarrena 1844tik 52ra.

Santa Cruz jeneralak, harmen bidez, Peruar-Boliviarrak konfederakundea egiten du 1835n; hurrengo urtean Chilek hasi zuen binomio hori 1839n hautsiko zuen gerra. Haiti eta Republica Dominicana muga gerretan ari dira 1844 eta 1856 bitartean.

Kontinenteko beste gatazka batzu. Estatu Batuen eta Mexicoren artean, Texasen anexionagatik, 1846-48. Urteak geroago, amerikarteko gerrarik ikaragarriena gertatzen da: Brasil, Uruguay eta Argentina Paraguayren kontra: 1864-70, zortzirehun mila hil ingururen saldo izugarritz. Bosturte batetan zehar —1878-83— Chileren Bolivia eta Peruren kontrako gerra berpizten da. Erdiamerikako herrien artean gerrak behin eta berriro sortzen dira. Chacoko gerrak —1928-38— Paraguay eta Bolivia odolustu egiten ditu. Ez dira horretan amaitzen zorigaitz kriminalak. Liskar zital mordo luzea dator: Tacua-Arica, Peruren eta Chileren artean; Leticia gatazka Colombiaren eta Peruren artean; Peruren eta Ecuadorren artean; Erdiamerikan.

Europako herri batzuk Amerikako banaketa ederki probetxatu dute garaipen eta inpunetasun osoz gure kontinentean zapalketak eta larruketak egiteko. Frantziak Mexicon eskusartu zuen Austriako Maximiliano enperadorearen tronorapena bultzatuz, 1861-67; lehenago frantsesek bi erasoaldi jo zituzten Rio de la Platatik —1838-41 eta 1845-47— eta Veracruzko mexicotar portutik Espainiak Santo Domingo bereganatzen du 1861-65n eta Perun parte hartzen du 1863-67n. Brasilen potentzia batek baino gehiagok eduki zuen lurralde izugarri hartako zonak irensteko gogoia. Ingalaterrak Maviar Irlak okupatu zituen —1833—, Belice ere bai —Erdiamerikan—, eta Venezuelako Guayanan ere sartzen du bere mu-

tur abusakorra. Azken herri honek, gainera, XX garren mendearen hasieran bere itsasertzak Alemania, Frantzia, Ingalaterra eta Italiako untziek atakaturik eduki zituen. Estatu Batuak kolonietako lurralde tikitik hasi eta ipar guztian zehar hedatu dira Mexicoren bizkarretik; Cubako irla okupatu, Puerto Ricon geratu eta Nicaragua, Haiti eta Republica Dominicana eta Panaman eskusartu zuen; Teodoro Roosevelt presidenteak gomuta latza utzi du.

Bistan dago Europako potentziek eta Estatu Batuek ere Amerikako Errepublikak makalen kontra daramatzaten burruka hauetan zer desproporzio nabarbena dagoen. Denboren distanziara Bolibarrek arrazoa du berriro ere errespetoa sartzeko eta gure herrien duintasuna jagoteko bere ahalegin baterakoian. Ingalaterrak Venezuelari honen lurraren seiren bat jaten dionean, Venezuela bere barne burruketako etapa latzetik irten ezinik zegoen; inperio ingelesak orduan lurrazalaren bostena harrapatu zuen eta gizarteriaren laurdena zen.

Juan Vicente Gomezen despotismoaren erreguz, Estatu Batuek Venezuelan eskusartzen dute hura boterean finkatzeko. Venezuelar kantzilerrak eskari zitala egin eta bost akorazatu datoz xede lotsagarri hartara. Bere mugez harantz askatasuna zabaldu zuen herria atzerritik desohorea eskatzera heltzen da.

Amerikako gerrek anaitasun eta bake ideiak suntsitu egiten dituzte amerikar nazioarteko zuzenbideko printzipio gisa. Zein dugu orbain gabeko herririk? Non ez dira apalmendua eta laidoak gertatu Atlantikoaz hango eta hemengo potentzien aldetik, ondasunen harrapaketak, jende zapalketak eta irainak? Gorroto eta erremin gaindigaitzak erein dira, errezeluak eta etsaigoak, irain sakonak. Interes atzerritarrak, beren nagusitasun teknologikoz, eta metropolietan bizi standard hobea aldarrikatuz, esplotazio enpresetan etorri dira, eta ordezkari esanginak bilatuz sartzten dira, nazionalismo zindoa ustelduz eta doilortuz, abentura zitalak babestuz eta finantzatzuz, hala —txotxongiloen bitartez— boterea eskuratzeko eta bere abantailak gozatzeko. Historia bueltaka ari da urre, zilar, eztainu, burdina, gesal, petrolio, kobre, fruitu eta abarren gainean.

Krisis etengabeko hainbeste urtetan zehar, Amerikak bere itxuraren zati ederrik galdu zuen; ez zen jadanik Martik esango zuen giza itxaropenaren kontinentea. Bolibarren ilusioa fantasien erreinuan geratzen da. “Mundu Berriaren askatasuna Izadiaren itxaro-

pena da” II-1195 —esan zuen berak—. “Munduko askatasuna Amerikaren osasunaren pentzudan dago” I-1006.

Lapurreria atzerritarra gure uherduraren eta gure desbatasunaren zirrituetatik sortzen da, atsedetik ez duten anarkiaren eta tiranien artetik, gure nahasmahasen artetik. Francisco de Miranda hospetsuaren presentimendu goibela betetzera zihoan. Hark bere azken egunetan, beretzat —ekin beharra dago— Hegoamerika zen Aberri urrunaz mintzo zela, Level de Godari ziotzan “hau atzerritarren harrapakin izango zela, ez jabetasun atzerritar gisa, berek dominatuz eta guk jabe gisa gastuak eginez baizik, etxaldea emankor edukitzera behartuak”. Entzun Askatzailearen oihartzun itzarria: “Amerikak bere pausoak berkorritzen ez baditu, ordenura eta zentzura deitzen ez bada, ezer guti espero daiteke haien gobernuen finkapenari buruz; eta beste kolonikuntza bat izango da georari utziko diogun herentzia” II-733.

Amerikar jeinuaren ikuspen oparo, prometakor eta egingarri hura egia bihurtzea gure eskuetan dago eta ez bestetan. Hark gure aberri kontinental handia demokrazian eta berdintasunean, birtutean eta zuzenbidean baturik ikusten zuen, etorkizunera jaurtikirik honela pintatzen zuen bikaintasun koadro honetan: “Datozen garaietan zehar hegan, nire irudimena geroko mendeetan kokatzen da eta handik, harriduraz eta txundioz, herrialde zabal honek hartu duen oparotasuna, distira eta bizitza hautemanik, liluraturik nago eta izadiaren bihotzean ikusten dudala ematen dit, bere itsasertz luzeetan zehar, naturak banatu zituen eta gure aberriak kanale luzez eta zabalez berbatzen dituen ozeano hoiaren artean. Han ikusten dut giza familiaren lokarritzat, erdigunetzat, enporiotzat; han ikusten dut bere urre eta zilarrezko mendiek gordetzen dituzten altxorrak lureko bazter guztietara bidaliz; han ikusten dut bere landare jainkozkoen bidez izadi zaharreko gizon atsekabetuei osasuna eta bizia banatuz; han ikusten dut naturak eman dion argitasun bilduma aberastasun bilduma baino askoz gailenagoa dela ahazturik dauden jakintsuei bere sekretu preziatuak komunikatuz. Han ikusten dut Askatasun Tronoan eseria, Justizi makila jaso, Aintzaz koroatua, aintzinako munduari mundu berriaren handitasuna erakutsiz” II-1154.

ATZERAKUNTZA ETA USTEMENA

Bolibarren kultur ardura hain lehiatua ez zen politik, gizarte eta amerikarteko alderdietan ikusirik ditugun ukapen destino tragiko eta jeneraletik aparte geratu. Izpirituaren barruti berezian ere hondamena nabari da eta Simon Bolibarren ihardun etikoak gaindituriko egoeretara jotzen da berriro.

Merezi du kontrastearen bilduma egitea. Belaunaldi iraultzailearen barruan, pertsonaia argien talde batek nazionalitatearen oinarriak kultura, hezkuntza, moral, diplomazia eta zuzenbidean ezartzeari ekin zion. Hunkigarri Jose Rafael Revenga bezalako batek, Londresen Errepublikako gestioetan zegoenak eta bidegabeki gartzelatuak, bere ohorearen ordaina lortzean eta indemnitzapena dirutan eman zitzaionean, dira hori Colombiako eskoletarako liburu eta gai didaktikoak erosteko erabiltzera. Zirrara ematen du izpiritu handi, burutsu, eta diplomatiko sakrifikatu baten austerotasunak: Manuel Palacio Fajardo. Honek zenbait gobernuren aurrean bere herriaren zerbitzurako Europako bidaiak eta egonaldiak bere patrikeratik ordaindurik, hain bizimodu murrizta zeraman non frantziar agintariak haren diplomatikotasunaz dudatan baitzeuden, "haren herikideek haren esku utziriko medioen ezereztasuna ikusirik" (31). Bai direla irakasgarriak, txukuntasun zorrotzaren eredu gisa, "Pedro Briceño Mendez, Errepublikako senadoreak, eta Pe-

(31) Parra-Pérez, C.: *Una misión diplomática venezolana ante Napoleón en 1813*, 73 garren o.

dro Gual doktoreak, amerikar biltzarrean ministro eskuosodunak, kongresuari zuzenduriko eskabideak, zeintzutan aldez aurreko baimen konstituzionala eskatzen baitute, Bere Maiestate Britainiarraren izenez haren negozio arduradunak aurkeztu dizkien hautsezko kutxak onartzeko” (32). Bai dela irakasgarria Askatzailearen ardurara eta emana hezkuntzaren kausara, kazetaritzara, magistergora, beti eta nonahi.

Bolibar Andres Bellorengan luzatzen dela esan liteke, haren Caracasko laguna berau, ebagune sortzaile hartako gizonik handienetakoa. Bellok, berak bakarrik, bere buruarekin, Amerikako autonomia egiazkoaren alde jeneral porrokatuen legio askok baino gehiago egiten du; izpirituaren askatzailea da. Batasunari, hitzaldi eta deklarazio baino gehiago, arau funtsezkoak ematen dizkio. Haren lan humanistikoak ez du berdinek hemisferioan. Haren obrak hispanoamerikar nazionalitatea goratzera jotzen du bete betean, haren arima defendatzerā, bakeari eustera. Bellorengan ardura instituzionalista nagusi da: ordenurik eta araurik gabe gizarte bizitzarik ez dela posible uste du; haren ahalegina nabarmena du Zuzenbide arloan.

Baina Bellok azertuz eta norabide zuhurrez beteriko bere esistentzia emankor guztian zehar zabaldu dituen argitasunez gainera, bere jeinu pazientziatsu eta laukorraren hiru emaitz konkretu daude; batasuna zimendu iraunkorretan ezartzeko bere ekarpena: bere “Jendeen Zuzenbidea”, bere “Gramatika” eta bere “Legedi Zibila”. Lehenengoak lan hausnartuzko hogeitertatik gora darama: amerikarteko ulerpen eta bakerako testua, diplomaziaren eskuliburu. Gramatika gure aberrien batasunaren tresnarik funtsezkoena zaintzera doa: hizkuntza; “amerikarren erabilerarako” asmatu-rikoliburua da; hizkuntza prozesu bizi eta dinamikotzat jotzen du, baina sakabanakuntzatik jagon behar dena. Legedi Zibilak ikasketa etengabeko hogeitamar urte jaten dizkio; oraindik ere bigente Chilen, eredu izan zen Colombian, Ecuadorren Uruguayn, Nicaraguan, eta eragile Brasilen, Argentinan eta Venezuelan. Haren ezein obratan ez da Amerikako hats bizigarririk falta, denek galdatzen eta begiratzen diote amerikar sustrai jatorrari.

Arlo praktikoan, Chileren kanpo harremanak 1832tik egitez

(32) *Codificación Nacional de Colombia*, III t., 330 garren o.

gidaturik, batasun kontinentalaren politika zintzo bat zentzuaren eta juridikotasunaren gainean eramateko aukera du Bellok. Bere iniziatibaren fruitua da gerra eskubidearen gizakuntza, 1856ko Parisko kongresua baino askoz lehenago. Belloren oharpenak garai guztietarako balio du: “Badaezpadako ondasunen atzetik gabilta, basatia horizontean bere kolore ikusgarriak zabaltzen dituen ostadarra ukitzera abiatzen den bezala; eta bien bitartean, apenas damaiogu arretarik erraz zertu ditzakegun abantail seguruei, lagunki elkar ulerturik eta nazioarteko eztabaidak eta desadostasunak gogo anaikorrez eta kontziliakorrez eramanik” (33).

Andres Belloengan justiziari eta berdintasunari begira dago dena, gure aberriak propioki osatzeko erakundeak sortuz.

Bolibar eta Belloren, Gual eta Revengaren, Roscio eta Palacio Fajardoren grina zibilizatzailea eta zibilzalea —eraikuntz garaiko izen handi batzu bakarrik aipatzeko—, ez zen haien beste lankiderik gehienen aldetik partekatua ez ulertua ere izan. Salbuespen barruan dauden apurren artean Sucre izar bat da.

Bolibarrek hain maite zuen eta esakerarik zintzoen eta goragarienekin maite ere zuen Cumanar aintzindari horren irudian, ge-roak Amerika berriko balio bikain bat aitortzen du. Hura, bere ahaleginaren sail guztietan, gailena izan zen. Magistratu eredugarria eta administradore efiziente eta zolia izan zen. Diplomatikoa azertatua, zuhurra eta trebea. Ihardun zibileko adar desberdinak edeki menderatzen zituen. Haren bizitza leialtasun koherentez eta jarraigarriz datxekio Iraultzari, demokraziari, birtuteari honen esanahirik onenean, eta baita Bolibarri ere, zeinek mariskal gaztearengan jarriarik baitzeukan ondorengo baten itxaropena.

Zoritzarrez, Bolibarren bizitzaz hurrengo ziklo historikoan eta batez ere haren jaiot Venezuelan, txukuntasun eta moralitatearen balio positibo aipatuok izugarrizko kolapsoak jotzen ditu. Orduan jasaten den gainbeheraldi eta desorientapen jeneralaren osagai bat gehiago bezala negatibotasuna nagusitzen da. Ez zitekeen beste inola izan; autokrazia barbaroek, esklabismo biztuak, esplotazio etengabeak, isolamendu gero eta zorrotzagoak ez zekarten ekarri ere

(33) Gamboa Correa, Jorge, y Bernardo Márquez Bretón: *Bello y la unidad de América Latina*, 114 garren o.

moralari eta adimenari Bolibarrek difinitzen zituen lehenetasunez begiratzeko girorik.

KAUDILLOEN ANTIKULTURA

Kaudilloak —berez— kulturari begizkoa dio; hezkuntzak berekin daramatzen fintasun izpiritualen aurka dago, mesprexatu egi-ten ditu eta “arren” eta “buruzagien” lotsagarritzat dauzka.

1825n Paezek Askatzaileari bere modutako diagnostiko bat idazten zion: “Herri honek oraingoaz beste zerbait behar du ordenua jarriko, merezi dutenei beharreko begiramendua emango eta tramoilariak isil eraziko dituen” I-1287. Honela, beharbada kon- turatu gabe, sintesis eufemistiko batez gobernu autokratikoen pro- grama izango zena taiutzen zuen. “Tramoilariak isil erazi” hori espresio askatasuna laburtzera doa, kritikarik ez jasatera, Boliba- rrek behin baino sarriago adierazi zion lautar handikiari eritzi pu- blikoa entzun eta errespetatu beharra. Paezen eta honi hain gaitzi zitzaizkion “legetari” eta “letratuen” adiskidakuntza hau haren gogo soberanoari makurtzeko presioan egingo da —dio Gil For- toulek—. Beste autokrata batzuk lantzari suharra labur utziko dute adimenaren kontrako zer honetan. Pentsamenduaren espresio as- katasuna, Bolibarren ustez, “naturaren dohainik aurrena eta esti- magarriena”, O’L. XVI-138, konstituzio guztietan textualki sartu- rik badago ere, egitez amerikar tiraniarik gehienek abolitu zuten. Kazetariak eta estudianteak ez ziren inoiz gartzeletan faltako; txan- dako despota kritikatzeko ausarkeria herbestearekin oraindu behar zen. Pentsak, Bolibarrek “lanabesak bezain ongarrizatzat” zeukanak, I-258, haren kontra bortxa, zentsura eta guztietariko etsaigoak abiarazten dituzten errejimen basatien itomena jasaten du. Aldiz- kariak bildurrez isil eraziz gainera, tiraniek giro egokia ukatzen die- te alfabetatze jenerala bertan behera utzirik. Garai hartan adimena- ren haur hilkortasuna bezalako zerbait ere bada: lehen aleetan de- sagertzen diren kazeten kopurua ez da makala. Hain zirkunstan- tzia itogarriaren barruan, kazetaritza belaunikatuak ez dauka bide- rik, herriari bizkarra emanik, buruzagiaren eta honen jarraika- rien gozamen hutserako baizik.

1830tik gure egunok arte Amerika hondatu duten gobernu tiranikoek alderdi komun bat daukate, tarterik ez bakerik ematen

ez dioten adimenarekin elkarrezintasuna. Hezkuntzako goi zentroen zapalketa eguneroko berri tristea da. Egoera dohakabe guzti honen zer txit errepresentagarria da Bolibarrek gogokoen zuen Unibertsitatearen zortea, bere jaiot hirikoa, haren funtzionamendurako arautegi modernoak eman zizkiona eta hari buruz babes eta kinadazko, zabaltasun eta askatasunezko politikaz ahalegindu zena. Bere testamentuan bi liburu utzi zikion, bereak eta Napoleonenak izatearen haintza berezia daukatenak. Askatzaileak 1827ko ekainak 4n emaniko dekretuaren 250garren artikuluan, Caracasko Alma Mater-i izendatzen dion ondare mardula zenbatzen du, O'L.XXV-446. Diligentzia latzak egin behar izan ziren Instituto hospetsuko agintariek lor zezaten Paezek, Askatzaileak lehen esaniko tresna juridikoaren bidez Estatuari ezarriko obligazioa, zati bat bazen ere, bete zezan.

Unibertsitateko ondasunak ez zitzaizkion guztik entregatu, eta hartuaren ganean ere laster hasi zen harrapaketa. Aski da jakitea Chuaoko hazienda famatua, Askatzaileak ikastetxe horretara destinatua, Jose Antonio Paez jeneralari berari errentatu ziotela, eta azkenez hain propietate bikaina eta guti ziatua Guzman Blanco presidentearen patrikerara erori zen. Baina ondasunak bakarrik ez ziren galduko, erakundearen duintasuna eta izena eta bizitza bera ere zikindurik geratuko zen. Joaquin Crespok eta Cipriano Castrok, eta geroago Monagasek eta Falconek, beren uztarria senti eraziko zioten. XX garren mende mendean, Juan Vicente Gomezek bere aurretiko guztiak gainditzen ditu hamar urtetako herspena ezarriko (1912-22).

Ustelmen moralaren kapitulua ere ez da motza. Gure Amerikako herri pairaratuen historioak —sarritan— gaiztakeri katalogo lotsagarri bat ematen du. Kontzeptu jator guztiak zitaltzen eta desnaturatzen dituzte. Politikatik hasirik. Tiraniek politikaren eta “lanaren” arteko antinomia onartezin bat ezarriko dute; honela Bolibarrentzat arteztasun eta efikaziatzko ihardun bikaina, sakrifizio eta zerbitzuzko bokazioa zena, maltzurkeri mota bat bezala ikusten dute, bandiduen eta bihurrien eginkizuna.

Negatibotasun kontrairaultzailearen hondamen moralean ez da birtute zibikorik bat ere sano geratuko. Aberriari traizioa sarritan gertatuko da, gehiengan ia inpuneki. Gobernatzailak beren nazioetako lurralde sakratuarekin ere tratuan ariko dira. Gobernu

atzerritarrekiko eragozpenek sarritan konspiratzaile lokalei beren azpikeria hondagarrietarako balioko diete. Interes antinazionalen zerbitzura etxeko ordezkariak daude beti; "erreklamazioetan" eta komenentzia publikoari kaltegarri zaizkion kontratuetan ez dute inoiz hutsik egiten. Beren famili harremanekin eta izenekin trafikatzen duten lupar eta izenemaileak oso ezagunak dira gure herri guztietan.

Amerikako herriak krimen izugarritz bezturik daude tiraniarik odolzaleenen zapalkuntzazko hamarkada luzeetan. Gizon izatearen kondizioa gurentzat daukan Bolibarren kontzeptua oso atzean eta hondaturik geratzen da. Familia osoak izan dira errepresalia politikoz sakailatuak. Venezuelatik esaterako, milaka tachiratar emigratu ziren gomezismoaren basakerietatik ihesi; gertaera hainbat harrigarriagoa noski despota hura eskualde sufritu horretakoxea baitzen. Pregonero eta Queniqueako herriek 1921n suntsipen osoa jasan zuten. Orduan Eustoquio Gomezek, bere erregioko bertako borreroak, 1913tik magistratu gisa, bere jarraikari bihozgalduei kontsignatzat hiru izen soil eta errugabe ematen zizkien: "Erremigio, Hilario eta Lapurdiano"; halakoa zen haren giltza, honela ulertu eta bete beharrekoa: "erre, hil, lapurtu", erresistentzia guztiak hausteko eta bere zapalkuntza ankerkiago ezartzeko (34). Liburu miragarri batek, Cecilia Pimentel emakume harrigarri, birtuteen eta balentriaren ereduarenak, zehaztasun gordinez eta irakasgarritz kondatzen du Gomezen gartzeletako barren dantezkoa eta hark ezartzen zuen izuzko koadru guztia (35).

Amerikako nobelagintzak, gure idazlerik onenen pieza miragarrietan, bizitasun gairitu gabez adierazten du desgobernuen herrien kontrako politik, gizarte eta kultur panorama beltz hori. Literatur artearen gutiespen gabe, zorigaitz jeneralaren nobela hoietan sinetsi ezineko erreallitateen dokumentazio zuzena dago.

SENTIMENDU ZIZTRINAK

Erregionalismoak ere, gure nazioen batasunerako sentimenduen hilgarriak eta aberri kontinental handiaren etsaiak, Bolibarri da-

(34) Ikus *Boletín del Archivo Histórico de Miraflores*, 14 garren z., 209 o.

(35) Pimentel, Cecilia: *Bajo la tiranía*, 1919-1935.

rraion bidegaldu aldian bere mutur zitala erakusten du. Erregionalismo suminduak akabatzen du Colombia. Iparretik Hegoaraino dihardu gure odol bereko anaien kontrako printzipio exkludizaille gisa, gorrotoak eta errezeluak ereiten ditu, eta atzerritarrak diskriminatzen. Bolibarren lurrean despotismoek venezuelar jatorren zabaltasun berezgarria lorrindu nahi dute; orokortasuna eta amerikartea Venezuelako izate jeneralaren printzipio gidariak izan zirela ahaztu nahi dute. Venezuelarrak Amerika guztian zabaldu ziren anaitasunezko praktika efektiboan. Horregatik Bolibarren naziokideen sentimenduetan erregionalismoak ez du lekurik. Bestalde aberri anaikorretatik zetozen gizonak aterpe abegitsua aurkitu zuten han eta garaiak eskatzen zuen zerbitzu politikorako aukera; venezuelarrekin lehia komunaren atsekabe-atseginak partekatu zituzten. Erregionalismoan zerikusi handia du populazioaren nukleo desberdinen isolamenduak, kaudilloek berek eginiko isolamendua sarritan; haien zat indartzeko modu bat errieta sortzea zen aldameneko erregioen artean, inguru bereko herrien artean, baita hiri bereko hauzotegien artean ere. Harremanik ezak, komunikatzeko biderik eta mediorik ezak, eta hain enjakintasun jeneralak, hauzo baketsuarengan “etsaia” pertsegitzera daramate; edozer da ona oldarkortasuna balakatzeko eta prestigioak eta domeinua sendotuko dituen burruka —alferrekoa bada ere— pizteko. Joera erratu hoik direla eta hain tentelki inmolaturiko energien inbentariun egiazko batek zer saldo izugarria emango lukeen.

DELITUAREN BERTSIOAK

Pekulatua eta lapurreta boterearen itzalean, horra autokrazien beste bi gaitz bereztezin. Bolibarrek zorroztasun eredugarriak konbatitu zituen; haren bizitza desatxekitasun eta txukuntasunik gorenaren irakatsi egin izan zen diru publikoen maneian. Oso gutik imitatu zuten. Amerikan zehar bestelako exenplua zabaldu zen hain zuzen. Amerikako autokrata nagusiek dirutza izugarriak pilatu zituzten —medio ezilegiz eta okerrez, gehienez—. Venezuelan, esaterako, Paezek, 1809n oraindik “inolako ondasunik” ez zeukanak eta bere bizitza gerrara eta politikara —etengabe— dedikatu zutenak, azkenean ordea, egundoko fortuna uzten du, 1865ko testamentuan espezifikatua. Guzman Blancok pilatua ordurarte ezagu-

tzen zen gutitik gora dago; hark lotsagebeki pregoitzen zuen bere aberastasuna; 1879n, Londresko bankuan bakarrik, hamar milioi peso zeuzkan. Caracasen edukitzera heldu zen etxe pilak ez zuen azkenik. Juan Vicente Gomezen fundoak milaka ziren; utzi zuen herentziako inmobile zerrenda berrehun milioi bolibarretatik gorazena.

Bolibarren amets guzti haik: garbitasun politikoa, botere publikoaren usurpatzaileei zigor gupidagabea, zeintzu “gaizkile gorenen” mailan jartzen baitzuten; haren ardura guztia zuzentasun administratiboagatik eta funtzionari publikoen ihardun akasgabeagatik, hasperen bat bezala pasatu zen. Askatzailea hiltzean, baita haren administrazioan bertan ere, bigilantzia burla zitekeenean, ordenu arras aurkakoa ezartzen ari ziren, bizioa eta ustelmen delitukoia.

Ez zegoen kutxa publikoa zakuratzeko oztoporik. Colombiako presidentea zela Peruko diktadorea zenean, fintasunagatik soldatarik batere kobratzen ez zuen gizon hark Revenga honestak salatzen zion ustelmen nazkagarriaren berri jakin behar: “Bulego batzu merkatal lonja bilakaturik, haietan egiten zen ordenen eta ordainen trafikoa lotsagarria hain nabarmena zen non ez baitzen hara hartzedunik sartzen gainerakoaren erreintegroa lortzeko proposatuko zitzaion kenketaren bildurrez izan ezik” B. eta A. XI-285. Ondasun militarretan ere ustelmen eta axolagabekeria bera nabari zen: pentsio mordo bat harmadarekin zerikusirik batere ez zuten pertsoneri pagatzen zitzairen, edo bidaiari gisa bakarrik, edo beren propietateak zaintzeko noizbait ezpata hartu zutenei. Zerga bigilantzia kasik hutsa zen, edo negatiboa edo alferrekoa behintzat. Funtzionari galduak beren gestioari itxura ohoragarria emateko eta legezko inspekzio bideak neutraltzeko bapo moldatzen ziren. Bere txostenean Revengak aipamen espezifikoa egiten ditu, izenik ez dio baina bai singulartu frogak dituenen: “Ez da noizik behingoa administradore bat hogeitamar edo berrogei urre ontzako jokoak enbidatzen ikustea; batzu hile gutiren buruan aberasturik erretiratu dira; eta izan da mendekorik larru gorritan zerbitzera sartu eta urtebeteren barruan 50.000 pesotatik gora lortu dituenik” B. eta A. XI-285. Kontutan eduki egoera bera zegoela hala Caracasen nola Bogotan, Qiton nahiz Liman; arazo kontinentala zen: kausak eta ondorioak toki guztietan berdin berdinak ziren: Aintzazko eta

diruzko konbinapen ezinezko batek eragiten zien kaudillorik gehienei.

Egite eginaren eskola ugaritu zen Amerikan. Indar kolpeak herri botoa baztertu zuen botere iturri gisa; usurpatzaileak, beren abentura gaitzesgarria bide zela, handiki agurgarri bilakatzen ziren berehalaxe. Tiranoak beren gogara autohautatzen eta berhautatzen ziren, berenez gobernatzen zuten eta baita pertsona artejarrien bidez ere.

Bozketaren ihardun garbia eta noblea leku askotan despotak berak maneatzen zuen pantomima marroa besterik ez zen. Zifrak aldrebesturik zeuden beti eta sasikeria hartan parte hartzera helzen ziren boto emaile apurrek presiorik zorrotzenen mende egiten zuten. Mehatxu edo balakupeko jende artaldetuaren aklamazionismoa herri farandula itogarriaren piezarik antzeztuena izan da Amerika honetan. Funtzionari harro, autoaski, bere aginpidea lotsagabekeri zorro bihurtzen zuenaren tankera nagusitu zen. Ausartasun kolpe batez boterearen gailurretara igoniko gizonak, nazioa —eta batez ere altxor publikoa— bere antsien helpide erosoan zeukan harrapakintzat jotzen zuen.

Hain zirkuntstantzia hondagarri eta gogorretan, adimena behera dator. Amerika atzean geratzen da zientzia eta arteetan. Ez dago ikasteko modurik. Pentsatzea ihardun arriskugarria da. Belloren tradizio humanistikoak ez du kalitateko jarraitzailerik, eta herri askotan hutsune izugarria nabari da horretan. Amerika Europako korrante intelektualaren morroi edo menpeko bilakatzen da; mugimendu ezkorren eta deskreditatuen oihartzun kutxa, positibismoa, determinismo derrotistak, modernismoa eta beste kolektibitate batzutako jiteak eta erak —gehienean gainbehera daudenak—. Teknikiei eta asmakariei buruz, gure herriak zuri pasatzen dira giza jeinuaren egintza handien listatik.

Benetako ekipo gidari gabeko eta hauk sortzeko kondizio aukera ez medio gabeko herriak gure nazionalitateak ahalik gehien hondatu dituzten kanpo inkurtsioentzat eremu aproposa izan dira, dena interes urrun eta kontrako haien onerako. Bai duela gaurkotasuna Bolibarrek 1821n eginiko oharpenak: “Gure etsaien maltzurutasunak eta azpijanak desakordioa ereitea, gure gizarteko klaseetan errieta sortzea, gure bihotzak, gure nahiak eta gure interesak

zaticatzea lortzen badute, orduan dudarik gabe inbasorearen harra-pakinak izango gara” I-609.

Askatzailea desagertzean eta haren dotrinaren eta haren politikaren kontra berehalaxe zabalduko erreakzio ondand, amerikar kontinenteak posibilitate baterakoi bezala lurra jo zuen, eta gizonen zerbitzurako, Europaren eta herri esplotatuen arteko orekarako komunitate aurrelari bat izan beharrean, askatasunaren eta justiziaren lurra —Bolibarrek nahi zuen bezala— izan beharrean, aurre-apenez, berdintasunez, progresuz, etorkizunerako plan zihurrez eta horizonte argiz, guzti hori izan beharrean, ideal haien antitesis garbia bilakatu zen. Tirania eta bidegabekeria, atzerapena, desberdintasuna, zapalkuntza, miseria.

Ikaragarria da eskergaiztoaren eta desorientapenaren bide gal-dutik noraino heldu den ikustea dokumentu sineskarrietan. Hona Maraicaiboko gobernadoreak 1831ko otsailean nolako eskutitza idatzi zion Paezen gobernuko Barne Ministroari: “Bart hiri honetara Pil Riton kapitain ingelesa Rosa korbetan iritsi da, Jamaicatik zetorrena irla hartatik hile honen 16n irtena. Bolibar jenerala Soledad hirian, Cartagenako probintzian, hila den konfirmazioa dakar berritatz; ez dago dudarik tikienik, informe eta berri guztiak horretan ados baitaude. Hain tamainu handiko eta askatasunaren kausari eta herrien onari hainbeste mesede ekarriko dion gertaera horixe da hain zuzen zure bidez gobernueri jakin eraztera natorrena eta eginkizun horixe bakarrik daraman ofizial baten bitartez. Bolibar, gaizkiaren jeinua, diskordiaren zuzia; edo hobeki esanda, bere aberriaren zapaltzailea, hilik dugu eta ez du aurrerantzean beti bere hirikideen bizkarrera zetorren okerrrik egingo. Haren heriotza beste zirkunstantzia batzutan eta engainu aldietan, colombiarren lutua eta nahigabea ekar zezakeena, gaur, dudarik gabe, haien pozgarririk handiena izango da hartatik baitator bakea eta denen abenikoa. Bai azken dohakabea haren aldekoentzat, eta bai irakatsi zirragarria mundu guztiaren begientzat, gertaera honen bidez goren egileak eman digun babesa ikustean eta ezagutzean! Pozkide nauzu hain berri txalogarri honekin. Nire begirune eta errespetoa eskainiz, zure zerbitzari esangina nauzu, Juan Antonio Gomez”.

Joaquín Gabaldón Márquez venezuelar akademikoak, zorroztasun eta kalitate finezko laburpen batetan, honela komentatzen du textu ohigabea: “Pentsatzekoa genuen eskutitz honetatik lerro bat

bederen, huskeria gisa, kentzea edo sentimendu jator bat agertzen duen lerro bat bederen aurkitzea hertsu berri zen hilobi neurriga-beari buruz.

“Ezer ere ez ordea. ‘Haren heriotza beste zirkunstantzia batzutan...’ delako hura irakurtzen hastean, Askatzailearen lanaren aitortza berankor bat nahigabe posiblea, ez zen posible izango ‘engainu aldietan’ baizik. Honela, bi hitz simple hauekin, ezabatzen da une labur labur batez etorri zitzaigun esperantza. Honela, bi hitz simple hauekin, ezabatzen zuen Maracaiboko Gobernadoreak Askatzailearen lan guztia. Epopeia hura ez zen ‘engainu aldiak’ bestetik izan!” (36).

Horra hor panorama, beltza eta lurjogarria, XX garren mendea oso aurrera zihoan arte. Horra hor egoera, urteetan zehar joko zaurgarri hoietatik salbu ziruditen kolektibitateak ere bat batera zigorkatzen dituen.

Hain handia da atzerapen hau non, tiraniarik gorrotagarrienen eginez eta zoritxarrez, gure herri askok gaur, 2.000 garren urtera ziztuan hurbiltzen ari garenean, XX garren mendetik ere oraindik urrun daudela ematen baitute.

BESTE BOLIBAR BAT

Haro luze beltz honetako beste konstante bat Bolibarren falstupena izan da. Askatzailearen irudi historikoa interesik desberdinenek faltsutzen dute. Historiografia konplize eta gure zorigaitzen egilekidea, atsegin bihurritz eta landuz, haren zirkunstantzia larriko punturik eztabaidatsuen eta tristenetan oinarritu da, izan zenaz oso beste Bolibar bat emateko. Horrela Bolibar tiranoen buru edo aurrelari gisa aurkeztu dute, arbitralkeriaren haragipen gisa, herrien kontrako desgobernuen sozio eragile eta kontseilari gisa. Bolibarren berezgarri intelektualtzat sakabanapena eta desordenua predikatzen da, gorespen atxakia hipokritaz hori, gizona “ozeanotarra” omen baitzen, neurrigabea eta anizkuna, gai guztiak tratatu zituen, baina ganoregabe, eta zeinengan, beraz, kontraesan guztiak

(36) Gabaldón Márquez, Joaquín: *El Bolívar de Madariaga y otros Bolívares*, 171 garren o.

kabitzen baitira bakoitzak bere gogokoa hauta dezan eta inor ez dadin ezein izugarrikeriaz ikara. Bolibarri, gainezpenez, ezartzen zaion inkohherentzia delako hau Bolibar jatorra somatzen eta sentitzen duten herriak engainatzeko izan da, eta hala deformatzen eta andegatzen dute gizona, aipamen moztuekin eta esaldi konponduekin helburu oker eta zitalen batetarako. Agirian ukatua eta kontraesana izan ez denean, gehien ere egin zaiona museoaren gelditasunean jartzen da, estatua kiskil edo harroaren mugiezintasunera baztertu, egintzat eman, hitzaldi erretorikoetarako edo omenaldi petraletarako gaitzat.

Deribapen hauetariko bat ere ez litzaioke harrigarri gaur bizi balitz. Han dago lehenago gogarazi genuen 1829ko oharpena: "Pertsona batzuk nire pentsakera interpretatu eta beren hutsak hartan finkatzen badituzte, oso mingarri zait baina ez dago ebitatzerik: nire izenarekin Colombian ongia eta gaizkia egin nahi da, eta askok beren astakerien textutzat aipatzen dute" II-837.

Gure Amerika Askatzailearen irakatsia hartzeko heldurik dago. Hainbeste engainu bukatu beharra dago, herriari ez dakiola ken bere exponenterik onenaren, gure Amerika kontinentalaren zerbitzaririk gorenaren pentsamendu gidariaren altxorra. Mitrek ederki adierazten du: "Ametsa izaten da gizonaren bizitzako bilbearen haria. Bolibarrena Hego Amerikaren baterakuntza izan zen. Amets honetatixe atera zituen potentzia militar handi bat sortzeko indar moralak eta bere harma garaileak kontinente guztian zehar eramateko, Alexandrok Asian bezala". Bolibar askatu beharra dago hartaz baliatu diren taldetxoengangik. Urgentea da hura hemisferio honetako nazioei bihurtzea, haien ongizate eta zorionari bete batean ekin baitzion eta haiengatik gauza guztien gainetik arduratu baitzen.

Iparretik hegoara eta hegoatik iparrera, denek ohiuztatzen dute haren handitasuna. Amerikar intelektualiariako baliorik hospetsuek esakera biribilak dedikatzen dizkiote, haren proiektzio historiko bikainaren egia sobera zihurtatzeko modukoak.

Rodo uruguayarrak ez daki nola goretsi: "Handia pentsamenduan, handia ekintzan, handia aintzan, handia zorigaitzean, handia handien ariman datzan zati zikina handiesteko eta handia bertan beheratasunean eta heriotzan handitasunaren expiazio tragikoa eramateko".

Marti apostoluak aldarrikatzen du: “Semerik seme, Amerika bizi deino, haren izenaren oihartzuna gure erraietako zerik gizonkor eta zintzoenean entzungo da”.

Sherwell iparramerikarrak bere emozioaren berri ematen du: “Bolibar aitortzen duenak, bere lana bukatzean, gogoia goinaturazkoaren eta sublimearen eraginpean egon den toki sakratu bat uztean sentitzen den itzal berbera nabari du”.

Sarmiento maisuak zalantzarik bat ere gabe dio: “Bolibar, benetako Bolibar, ez du oraindik munduak ezagutzen eta oso litekeena da beren jaiot hizkuntzara itzultzean are harrigarriago eta handiago agertzea oraindik”.

Ama Espainiatik, eta mundu guztirako, Miguel Unamunok sei hitzean dio dena: “Bolibar gabe gizateria osagabe geratuko zen”.

Dagokigun erantzukizunerako, haren hitz zabala, haren enxepulu argia, haren sakrifizio oparoa, gidari ditugu. Mausoleotik askaturik, estatuatik jaitsirik, bero eta pilpirakor, bare, geraezin, hari jarraituko diogu, atsedetik eskatu gabe, tregoiarik —Montalvoren esanean— uzten ez duen gurutzada horretan: “Bolibarrek badu oraindik zeregina; haren ezpata ez da aintzaren tenpluan zintzilik geratuko, zeren Mundu Berrian herri eskulaborik deino, haren lana ez baita bukatu”.

Gaurko munduko poetarik handienaren hitzekin —Pablo Neruda— adimenak eta izpirituak honela kantatzen diote Amerikako paladinari:

“Gure zer guztia zure bizi itzaltatik dator
zure herentzia hibaia, lautadak, kanpandorreak ziren
zure herentzia gure eguneroko ogia dugu, aita,
kapitain, gudulari, aho batek askatasuna
oihuztatzen duen lekuan, belarririk adi dagoen lekuan
soldadu gorri batek bekoki nabar bat hausten duen lekuan
askeen ereinotzik erretzen den lekuan, bandera berririk
gure egunsenti bikaineko odolez apaintzen den lekuan,
han zaude zu, Bolibar, kapitain, han ageri da zure aurpegia
(...) zure gerizak itxaropenerantz garamatza.
Askatzaile, bakezko mundu bat jaio zen zure besoetan
Bakea, ogia, garia zure odoletik jaio ziren;
zure odoletik datorkigun odol gazte honetatik
bakea, ogia eta garia irtengo dira egingo dugun mundurako”

Beste idazle handi batek, Miguel Angel Literaturako Nobel sariak, kredo hunkigarri bat dedikatzen dio:

“Sinesten dut Askatasuna, Amerikaren Ama,
itsaso gozoen sortzailea lurrean
eta Bolibar, haren semea, gure jauna
Venezuelan jaio eta espainiar boterearen menpean
nekaldua, eraso izan zena,
Chimborazo gainean hilik sentitu
eta hostadarrean ifernuetara jaitsi zena
Colombiaren abotsa biztu zuena
Betierekoa bere eskuekin ukitu
eta Jainkoaren ondoan geldi dagoena!
Ez gaitzazu, Bolibar, azken egunaren aurretik juzka
sinesten baitugu herriarekin batera dauden
gizonen elkartasuna, herriak bakarrik egiten
dituela gizonak aske, hil arteko eta
barkamenik gabeko gerra oihukatzen diegu tiranoei
sinesten dugu heroien biztuera
eta betiko bizia zu bezala, Askatzaile,
hiltzen ez direnentzat, begiak hertsu eta beilan geratzen
[direnentzat”

6

Bigentzia eta proiektzioak

KONTZEPTUEN BEHARREZKO ARGITASUNA

Simon Bolibarren nortasun historiko eta idealen azterketa berri eta zuzen bat behar beharrezkoa da gaur. Rodok zioen handitasunaren expiazio tragikoa errealitate ziztagarri bilakatu da Bolibarrek egin zuen, egin nahi izan zuen eta Amerikarako esan nahi duenaren adulterapen, faltsupen eta aldrebespenean.

Bihurkeria izugarri horretara lasterbide batzutatik heltzen da. Bada pentsamendu estatiko bat, iraganaren kontenplazio mugiezkorrean sorgindua, jarrera atzerakoi eta hegada gabera daramana, eta Bolibar geriza ritual bat bezala aipatzen duena. Ikusmira horretatik, gudulari handiarentzat hileta zeremoniaren omenaldia besterik ez dagoela uste da. Bestalde, Amerikako autokratismo tradizionalak, baita ankerrenak ere, Bolibarren zirkunstantzia larriko alderdi solteekiko analogia dudazko baino dudazkoagoetan euskarriak arrantzatuz lortu nahi izan du handitasuna. Ez da izan tiranorik bere gortelariak Bolibar biztutzat edo halako zerbaitzat jo ez dutenik. Estatuko diruz, despota hauetariko askok Askatzaileari dedikaturiko "hospakundeak" babestu dituzte, hainbat hutsagoak eta gezurtiagoak zenbat arranditsuagoak. Berek apez nagusitzat ofiziatzen duten zesarismo jasanezinezko kultu farisaikoak herriarengan bere zorigaitzen eragile konplizetat airtzen duten gizon famatuarenganako ezaxola, gorrotoa ez denean, sortzen du azkenerako.

Azken urteotan, egoera urrun eta arrotzen kopia bat, xehetasunetan kalkatua besterik ez den erreboluzionarismoak, Bolibarrengan haren benetako gogo iraultzailearen, haren arduren eta

sakrifizioen, haren hitz argitsuaren alderdi jakin batzu bilatzen ditu, erreibindikapen materilei bakarrik begiratuko dieten errejimenak jartzeko, caracastar handiarengan funtsezkoak ziren izpiritu eta askatasunaren kaltez. Honela hainbat hamarkadatan Bolibarren monopolio gisakoa eskuindar kontserbadoreek eduki ondoren, orain Askatzailea ultraezkerrak harrapatu nahi du: haren iraultz kalitate zuzena eta zihurra kasu bitzuetan gaizki ateratzen da.

Bada gainera Simon Bolibarren beste desnaturapen izugarri bat ere, zeinek —hala noski— irauteko eta hedatsuki zabaltzeko baliakizun galantak eta medio ugariak baititu, norantz doazen eta zer nahi duten ondo dakiten interes trebe eta indartsuek eragiten baitiote. Izan ere badira hamarkada batzu bolibarismoarekin erratzen ari direla Askatzailearen benetako helburuez oso beste batzuren atzetik doan ekintz dotrina bat. Panamerikanismoa da bera.

Dudarik gabe, egoera politiko eta ekonomiko —sozial eta kulturetz gainera— desberdinak eta baita antagonikoak ere hurbiltzeko ahalegina arretagarria da, hauzotasun geografikoari begira. Baina txalogarria izan litekeen helburuak ez du, hala ere, nahasketa luzatzeko eta zabaltzeko baimenik ematen. Argia agertzen hasirik dago; eta benetako historiaren obejetibotasun biribilak zihurtasun osoz erakusten du bi pentsakera hoiaren artean ezer guti dagoela komunik.

Esan dezagun justiziaz, Washingtonek zabalduriko ideia kontinentalista berezi horren anitz ondorio eztabaidagarri eta gaitzesgarriekin batera, badela fruitu onuragarri eta positiborik ere. Baina garaipen eta hutsei buruzko, altruismo anaikor eta gutizia inperialistei buruzko, eskuzabaltasun eta norberekeriari buruzko balorapenak alde batera utzirik, ikaslari inpartzial eta ezein alderdikeriari lotu gabe dagoenaren zeregina da Bolibarren dotrina —liburu honetan objetiboki azaltzen denez— panamerikanismoaz beste zerbait dela.

James G. Blaine Estatu Idazkariaren kabuz, Estatu Batuetako hiriburu ederrean bildu zen —1889-90— Amerikar Nazioarteko lehen Batzarrea. Baziren hamabiren bat bosturte Askatzailea Santa Martan hil zela, eta zerbait gehiago espainiar Amerika Panaman biltzeko ahalegin frustratua gertatu zela.

Simon Bolibarren nazioarteko programa ez zitzaion inoiz Estatu Batuetako politikari komeni izan —nazio jadanik oso ukondo-

tsua bera eta bere kanpo negoziotan helburu zehatzekin, XIX garren mendearen hasieratik, Espainiak uzten duen metropol hutsu-nea bete nahi zuena—. Izan ere, sarritan esan dugunez eta Askatzaileak berak ere adierazi zuenez, “bi estatu hain desberdinak” ziren, II-1138. Horregatik, eskumendean zituzten medio guztiekin, beren komenentzia partikularistak jagoteko eskubide berezkoaren ihardunean, eta beste ezein kontsideraziori begiratu gabe—ez baitzituen ezeinek lotzen— Estatu Batuetako gobernuak programa hori oztopatzeroa eta ezereztera dedikatu ziren. “Zati ezazu eta irabaziko duzu” esaera klasikoa ipar potentzia jaioberriko diplomatikoen afanetan arau nagusia zen.

Eginkizuna ez zen hain neketsua eta zaila izan; ikusirik dugu hispaniar Amerika, Bolibarrek batu nahi zuena, karruskaturik zegoela bere zati osatzaileen arteko deseritziz, errezeluz, etsaitasunez eta goganbeharrez. Herri bakoitzean nagusi ziren talde oligarkikoak ados zeuden Bolibarrek eskatzen zuen eran eta neurrian ez parte hartzeko, nazionalismo hestu eta agresiboak ere gainditzean beren izan arrazoia kenduko zien integrapen baten barruan. Nazionalismo hoik, egia esateko, ez ziren kolonikuntzatik arrastaturiko erregionalismo negargarriak besterik. Estatu Batuetako sailik berenkoienen helburuak nagusitzeko, bada, latinamerikar herrieta-ko ez gutiren laguntza berezkoa eta inkontzientea izan zen.

Entitate baten eta bestearen horizonte historikoa, hau da, Bolibarren Amerikaren eta politiko yankien arteko desberdintasun garbia ez da esaniko Lenen Batzerreko lanak bukatzeko Blainek bota zuen hitzaldian nabari. Hitzaldi hori gizon guztiei eta garai guztiei dagozkien bake eta oparotasun idealekin berez kontra ez dauden jeneraltasunen laburpen bat da. Desberdintasuna erabaki haietatik atera zen eta bere izen hutsa ere sobera esankor den organuan ageri da: Amerikar Errepubliken Merkatal Bulegoa. Besteak beste, Blaineren textuan aitortu beharra dago haien hurbilpena nahi zuen bi multzo handien barne desberdintasunaren kontzientzia argia dagoela. Horrela zioen: “Bi kontinente handiren kontsakrapen deliberratu, zintzo eta solemenea bakera eta bakea bera oinarritzat duen aurreramendura” (1).

(1) *El sistema iberoamericano. Su evolución y función actual*, 4 garren o.

Pentsatzekoa zenez, eta horretaz ez zitekeen engainurik izan, bilera heterogeno hartan lortua oso apurra izan zen, hain apurra non aipaturiko idazkariak —Estatu Batuen hedapenari hainbeste komeni zitzaizkion merkatal elkartruke, komunikabide eta gainerako puntuak diskontatuz gero— apenas enfasirik jarri ahal izan baitzuen berez negatiboaren negazioa besterik ez zen gai urri eta gutienekoan, hau da, errieta harmatuei ezetza: “Gure ustez gerra abolitu duen Eskutitz Haundi hau Amerikako Errepubliken arteko arbitraia ordez jarriarik, Amerikar Nazioarteko Batzarrearen fruiturik aurrena eta garrantzitsuena da” (2).. Gogotan izan ideia beraren formulapen hobe egin zuela Askatzaileak Panamar Batzarreko koadru goren eta asmo anizkunerako.

(2) *Id., id.*

BULEGOTIK BILKUNDERA

1910garren urtean, Hispanoamerikak bere Independentziaren lehen mendea hospatu zuenean, Bolibarren Iraultz asmoetarako mende galdua gehien bat, —Venezuelako kasua beharbada nabariena da bere sinbolismo gordinean: lur martiri hori oraindik beste hogeitabost urte gehiagotan despotatuko zuen Juan Vicente Gomez-en tirania gorenean zegoen orduan han— Merkatal Bulegoa Panamerikar Bilkunde bilakatzen da. Honen ideologian, bere propaganda panfletoetan zabaldurik, kontzeptu ondo argiak aurkituko ditu horretaz eta ohiki eman nahi duten sugestiorik gabe irakurtzen dakienak. Ikus Lyn S. Manduley jaunaren tesisa: “Panamako kongresuak Bolibarren helburuen lorpenean porrot egin bazuen ere, kontinente batasunaren eta Amarikarteko sistemaren sortzapenean lehen urrats bat izan zen” (3). Bi ideiak egia egiak dira.

Lehenengo: Panamako kongresuak Bolibarren helburuen bilaketan porrot egin zuen, hori argi dago eta lehen oso modu esplizituz arrazoitu behar izan genuen. Bigarren: Batzarre haren frakasua, dudarik gabe ondorengo eta oraindik dirauen panamerikanismoaren finlapenean lehen urratsa da, eta hori azken honek bolibarisimo jatorrarekin zerikusirik ez duelako. Merkatal Bulego horrek, izen gutiago pragmatiko horrekin, pizten zituen antisia pana-

(3) *Id.*, 2 garren o.

merikarrak ez zihoazen kontinente izpirituaren indarkuntzara ez oinarri akasgabe, moral eta zuzenen gaineko laguntzara, ikusmira arunt eta praktikoetara baizik, denentzat onuragarri samarrak noski, baina hemisferioko lehen potentzia ekonomikoaren on hutserako kasik: honela, esaterako, Amerikarteko Trenbidea eta Panamerikar Kaminoa.

Panamerikar Osasun Bulegoa, 1902n sukar horiaren eta malariaren kontrako burruka koordinatzeko jarria, jomuga gizakorrezko inizatiba oso txalagarria dela esan beharra dago. Orain munduko entitate nazioartekorik adintsuena da eta haren ondorioek babesgarri eta goragarri egiten dute.

1890tik 1950ra Amerikako gobernuen hamar Bilera handi egiten dira. Haietan zehar ez da Bolibar baino izen aipatuagorik izan, ez da Askatzailea baino protokoloz agurtuagorik izan, baina ez dago gorabehera guztietan hobetuz zihoan panamerikanismoa baino pentsakera urrunagorik benetako bolimarismotik. Amerika hamar bilera hoietan hispaniar mundu zatituak, bere hartaz kanpoko eraginengatik eta bere erantzukizunari inputatzeko anitz mediatizapenengatik, erizpide komun bat falta izan du, beste Amerikarekiko konparazio eta ulerpenean bere ikuskera berezia izan daitekeena.

Panamerikanismoaren historian Estatu Batuen nagusitasuna beti inposatu da. Sarritan tankera anglosajoi zakarrak leuntzeko ardurarik ere ez da izan komunitateko beste herrien egoera apalgarriak ebitatzeko. Estatu Batuetako gure herrioren "laguntzatarata" destinatu diren baliakizun ugariak menpetasun eta atxekitasun politikoaren kontrapartida bila etorri dira beti.

Hauzotasun Ona eta Aurreramendurako Aliantza, Franklin D. Roosevelt eta John F. Kennedy presidentetek bultzatuak, ahalegin zuzengarriak izan dira baina partzialak eta iragankorrak. Esplotazioko mekanismoak ez dira aldendu aitzitik ordea, beren lukurua izugarriro ugaritu dute. Yankien sarketa ekonomikoa Latin Amerikan egunero hasiz joan da. Handik datozten anitz eraginen eginez gure kolektibitateen alienapena hain gauza bistakoa bezain amorragarria da gure Amerikan orainean. Gure herrientzat nazioarteko gizarte justizia, emari edo erregalu ideia zapalgarria ondo garbiturik, posibilitate ukigarria litzateke ideia hura bi Amerikan artean beharreko laguntz ideiekin biltzeko. Amerikar Estatuaren Era-kundea (OEA) —birrestrukturatua eta horrela deitua 1948tik—

Iparreko Estatuena eta Erdiko eta Hegoako Estatuak ere Batuen aurkigunea izan liteke. Aldamentasun geografikoak elkartruketa eta laguntza gomendatzen dituela inork ez du eztabaidatzen, baina hoik oinarri berdinkor eta elkarren probetxuzkoetan finkatu behar dira. AEEren (OEA) barruan eta Simon Bolibarren babespean, bi Amerikaren elkarriketa zabala behar da. Hantxe egon behar du, abots bakar bezala, Marti apostoluak sinpleki eta zehazki “gurea” esango zuenak, zeregin historikozko hiru ehunurtetan ornatua, eta hizkuntza, erlijio, ohitura eta gurari batasunaren plataforma gainean finkoki altxatua, Bolibarrek hemisferioan, eta harago, “Izadiaren orekari” begira, anfiktonia baten barruan batu nahi izan zuena. Hantxe egon behar du nortasun bereziko eta bere aiurri propioko beste Amerikak ere, beren guraso anglosajoiaren hizkuntzaz batua, bere sendotasun eta modernotasunean, Bolibarren esateraren exemplu bizia: “Ez dago errespetoa sartu duen naziorik indarra damaion batasunik gabe” II-1253. Iparreko Estatuak, zeintzuren ahalgoa batasunaren monumenturik ederrena baita, Bolibarren ebanjelio bateratzailearen zihurtasunaren frogagailena dira. Haien irakasten dute garaipenerako ez dagoela batasunaz beste biderik.

INPERATIBOAK

Latinamerikari gainera, Askatzaileak somatuaren arabera, lurreko beste alderdi batzurenganako hurbilpen zabala dagokie. Honela berak intuitzen zuen mundu eskema berri batera jo behar zen. Lehen aipaturiko haren 1814ko arrazoinketa, zirkunstantziazko erreferentziak egokiturik, XXI garren mendetik urreko garai honi ederki datorkio: “Europako nazioen (irakur gaur: edonolako metropoli inperialisten) gutziak munduko beste tokietara esklabutza darama; eta munduko zati guzti hauek beren eta Europaren artean oreka jartzen saiatu behar lukete, Europaren nagusitasuna desagiteko. Nik honi izadiaren oreka deritzat, eta amerikar politikaren kalkuluetan sartu beharrekoa da”. Batez ere hirugarren munduarentzat, polarizapen exkludikorretatik urrunkide sortzen den horrentzat, Simon Bolibar baliozkoa da. Hark, bere jaiotzatik ia bi mendetara, basailutzen setioaren kontra gure funtsa zaintzera konbokatzen gaituenaz batera, gure esperientzia nahigabetsua izadiko hirugarren zati horri eskaintzeko agintzen digu, zeinen solidariak baikara elkarrekiko eta pareko gorabeherengatik, eta baita idealen eta asegabeko asmo kideengatik ere.

Iparramerikar nazio handiari buruz, Bolibarrek ez du bere miresmenik estaltzen ez gaitzesten; hantxe ikusi zuen hark “askatasun arrazoizkoaren” exenplu bat 1807ko bere lau hilabeteetako egonal-

dian. Angosturako batzarkideen aurrean zera deitzen du, “birtute politikoen eta jakituria moralaren eredu bakana. Haren sehaska Askatasuna izan da. Askatasunean hasi da eta Askatasun izan da. Askatasunean hasi da eta Askatasun hutsez elikatu da” II-1138, baina dokumentu solemne berean, eta —lehen esan dugun bezala— zalantza guztiak arras ezabatzeko moduan, zehazki argitzen du: “Esan beharra dut urrundik ere ez zaidala amerikar ingelesa eta amerikar espainiarra bezalako bi estatu hain desberdinen egoera eta izakera berdintzerik bururatu”, II-1138. Politik, gizarte, kultur, eta ekonomi batasun indartsu haren barruan, Bolibarren buruak ondo berezten du alde batetik, “askatasunaren izenean Amerika miseriak jazteko Probidentziak destinatua dirudien” II-737 gainstruktura inperialista eta esplotatzailea, eta bestetik, herria —“Gure Iparreko anaiak” I-162—, 1826ko hazilean oraindik, “eredutzat” jotzen duena: “Gizarte zorionaren kopururik gehien batzen diote hoiiek ordenuak dakarren botereari, askatasunak dakarren botereari. Ingalaterraren seme diren Estatu Batuak Independentziaren bidea erakutsi ziguten lehenengoak izan genituen, eta Colon handiak aurkitua izatearen haintza daraman lur honek bere zoriona Estatu Batuetatik hartzen dituen aintza, askatasun eta birtute exenpluak imitatzean jartzen du” II-1234.

Gure Amerikako oraingo zirkunstantzietan, sistema ekumeniko gero eta elkardepndienteago, liskartsu eta dardaratuago, abiadura supertsonikoan dinamiko eta aldakorrago baten barruan, non zientziak eta teknikak gizonari natura menderatzeko posibilitate handia eta ustegabeak ematen baitizkio, eginbehar gisa derrigorrezkoa da gure herri guztien plan organiko eta hedatsu bat ekintzarako eta aurreramendurako.

Horretarako, amerikar izatearen eta bazter guztietako gizon sufrituaren hauzi onerako, Bolibarren pentsamendua eta exenplua, hau da, haren mezua, laguntza handia izan dakieke aberri anaikor hauei beren buruak aurkitzeko, izan ere, inork ez dio ameslari hari irabazten bere perspektibaren zabalean, bere fokapenaren zer orokor eta guztizkoan, bere erabakiaren osotasunean xede zuzen eta egingarrien atzean.

Askatasunari buruz irakatsi etengabea damaigu. Gure herriek, jatorriz altruistek eta eskuzabalek, izakeraz erromantikoek eta idealistek, askatasunean jartzen dute inoiz uzteko gertu ez dauden go-

ren ondasuna. Askatasunaren mende jarri behar da guztia eta justizia ukigarrizko edozein ahalegin. Bolibarrek, Askatzaile, ez konkistatzaile ez zapaltzaile, bere burua askatasunagatik opaldu zuen. Haren iraultzak munduan askatasun integrazko eta —era batera— mami ekonomiko-sozialezko mugimenduaren lehen ahalegin handia izan nahi zuen. Hura absolutismoaren kontra matxinatu zen, eta batez ere haren modaliterik okerrenaren, kolonikuntzaren, kontra; baina sistema herritar eta opositiba ezartzeko, giza pertsonaren foruak goragoko interes kolektiboa aitortuz errespetatuko zuena.

ERABIL DAITEZKEN TRESNAK

Amerikako herriek badituzte gaur, beharreko zuzenketak eginik, Bolibarrek seinalaturiko helburuen alde erabil daitezkeen erakunde eta tresna batzu. Zer politikoan Amerikar Estatuen Erakundeko (OEA) Batzarre Nagusiak eta Kontseilu Iraunkorrak, eta halaber, Kanpo Harremanetako Ministroen Kontsulta Bilerak, bere ardurapean lukete bi kontinente aurretik koordinatuen arteko goi harremanaren erantzukizuna. Ekonomi eta Gizarte Kontseilu Amerikartekoa eta Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Kontseilu Amerikartekoa bezelako beste entitate batzuk Amerikaren ulerenaren ardura lukete bakoitzak bere barruti berezi eta garrantzitsuetan. Eginkizun espezifikoa gorporeko mordoa dago: Amerikarteko Batzorde Juridikoa, Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordea, Osasun Erakunde Panamerikarra, Emakumeen Erakunde Panamerikarra, Haurren Amerikarteko Institutoa, Segurantzari Buruzko Kontsulta Batzorde Berezia, Amerikarteko Instituto Indigenista, Geografia eta Historiako Institutio Panamerikarra, Nekazal Zientzien Instituto Interamerikarra, Energia Nuklearreko Batzorde Amerikartekoa, Amerikarteko Estadistiketxea, eta Amerikarteko Defentsa Biltzarrea.

Esperientzia batzu oso pozgarriak eta onuratsuak dira. Kultur arloan badira zenbait inizatiba txalogarri, ugaritzea eta indartzea merezi dutenak: Bolibarren Herrien Itunak 1911n —literatur jabetasun, ikasketen baliokidetasun, akademi titulu eta beste zen-

bait gauza gutiago garrantzitsutarako— eta “Andres Bello” Kultur Ituna 1970n, eta gainera hainbat plan konkretu bekak, liburuen elkartrukea, zientzi informazioa, arte programak, hezitzaileak, eta, aurrera eramateko. Langile, ikasle, pedagogo eta profesio elkarteak adar guztietan, unibertsitategaineko enteak: Latin Amerikako Unibertsitateen Batasuna, Gizarte Zientzien Latinamerikar Fakultatea, Gizarte Zientzien Ikertetxe Latinamerikarra. Ekonomi arloan, Merkatalgo Libreko Elkargo Latinamerikarra (ALALC), Andeetako Subherrialde Ituna, Erdiamerikar Merkatu Batua, Caribe alderako proiektuak, eta beste alderdi batetan CEPAL. Guzti hauek Aska-tzaileak bultzaturiko integrapenari oinarri ukigarraia eman nahi diote; batasun materialezko esperientzia ederrak dira aurreratzea derrigorra, nahiz eta zaila eta galerazia, den garaietan populazio tiki eta baliakizun urriko herrientzat.

AURRERAMENDURAKO PRINZIPIOAK

XXI garren mendea ganean dela, Gure Amerikako desafio nagusia aurreramenduaren desafioa da eta aurrenengo eginkizuna estankamendutik irteteko formulak bilatzea eta medioak konbinatzea da gure nazionalitate komunaren gorputz, odol, eta arima diren balio nagusiak —nola askatasuna eta berdintasuna— sakrifikatu gabe. Hemisferio honetako berezko posibilitateak ugariak dira; amerikar gizona, sintesisaren sintesisa, bere zabaltasun eta bere gogo askez, fanatismo ankerren lastarik gabe, gizateriaren garai betetan berriaren agergarri izan daiteke.

Orain denontzat eginbeharrez beterik dagoen etapa historiko bat pasatzen ari gara. Honen barruan kaudillo moldeak erremedio gabeki anakronikoak, eta indibidualismoa goragoko pentsakera kolektiboei bide ematera beharturik dago. Militarismoa, atzerakuntzaren barne faktorea bazterturik, erakunde harmatuak kontzientzia hartu behar du ordenu errepresentagarri, konstituzional eta demokratikoak eskatzen dituen establetasun eta segurantzaren organu erantzulea dela.

Gure nazioek mekanismo garbiak eta objektuekin behar dituzte beren gidariak hautatzeko, eta hoik txandatzeko eta aldatzeko posibilitatea zabalik eduki behar dute berezko giro normal eta patxadatsuan. Langileriak ere, bere erakunde sindikalen bidez, gero eta eginkizun bereziaren kontzienteago izan behar du. Alderdi politikoek beren erantzukizunaren mailan jarri behar dute demo-

kraziaren pieza derrigorrezko bezala, gehiengoan eta gutiengoan, gobernuaren eta oposizioaren funtzionamendurako behar beharrezko bezala. Kapitalaren entitateek justizia jator eta sortzaile baten barruan jokatu behar dute, beren irabaziak mozturik eta berdintasun mailan jarririk. Berei dagokie gizartebarneko distantziak benetan laburtuko dituen tratua babesean izatea. Beren eginkizun eskergak gogaraztean, Simon Bolibarrek esklabuen askapenaren etsai ahaltzu eta burugorrei buruz esana birresatea aski da: “Oso ona litzatekeela uste dut beren interes propioz liluraturik dauden eta beren benetako interesak desengainatu behar lituzkeen gizon hoi eritzia eskolatzea. Hala buruzagiei nola handikiei idatzi behar zaiela uste dut zer jakin behar duten, ez-jakin egiten dutena gomendatzeko” I-444.

Gure Amerikaren modernokuntza integrapen eta aurreramendu hurbilerako aurrebeharkizun gisa ageri da. Mende batetik gorako bidegaldetan, neokolonikuntzaren era desberdinetara eramán gintuzten estrukturak sakon aztertu beharra dago. Latinamerikak bere gizon burutsu eta borondatezuen laguntza behar du hemengo eta beste kontinenteetako eta zeinahi ekonomiko-politikodun inperialismo guztien sarketari eusteko. Unibertsitateei dagokie, beren eginkizun uztezin eta transferiezinekin batera, gizartearen transformakuntza posibletuko duen kontzientzi hartze horri laguntzea, Bolibarren helburu nagusien bidetik: justizia, berdintasuna, askatasuna, aurreramendua, demokrazia. Behar den elkartruckerako, gure Amerikako kultur arlo desberdinak indartu beharra dago —baren baikoitzan anizkoitz benetakoan eta haik identifikatu dituen folkloren presente daudenak—. Latinamerikarako dotrina integratzaileak zabalkunde preferentea eta obligaziozkoa behar du eskolaren eta masen komunikabideen bitartez. Gure herrien iraganari buruzko irakaskuntzan gure beharreko eta funtsezko batasunaren zatiketa dakarten erreferentzia subjetoak baztertu egin behar dira.

Latinamerikako herriek jarrera buruzko eta moral kritikoa bapatean behar dute, beren askakuntzaren eginkizun gorenari Bolibarrek pentsatu zuen bezala ekiten lagunduko diena, eta oraindik irau dirauten zapalkuntz sistemen mekanismo nagusiak hautsi ez ezik, aurrerantzako beste kolonikuntza berriak sustraitik eta aurretik eragotziko dituen. Eginkizun handi hau motarik bariatuenetarikoin telektualei dagokie: saialariak, poetak, nobelariak, dra-

magileak, musikoak, kazetariak, pintoreak, maisuak, irakasleak, ikasleak etab.

Latin Amerikak gure egunotan planteatzen duen aldakuntza iraultzaileak 150 urtetatik gorako atzerapena dakar: dependentzia-ko lotura politikoen hauspenaren osagarria izan behar zuen iraultza integrala izozturik egon da mende erdi baino gehiago. Latin Amerikako gizartearen dinamikak berak, baita munduaren eboluzioak ere, iraultza horri berehalaxe oratu beharra dakarte.

Ikuspegi gizzako eta unibertsaletik begiraturik, ez liteke egin-kizun historikoaren helburu txalogarri ez kinagarri izan halako sistema baten iraupena, hau da, bere aldaezintzasuna. Hori gizartearen esistentziaren eta historiako jarioaren, hau da, bizitzaren beraren abiada biziaren kontra lihoake. Baina egoera zapaltzaile eta eskas baten ordeztu beste erdizkako edo alienatzaile bat jartzea ere —aldatzeko zeragatik bakarrik— ez litzateke zuzena. Zer zuzena zera da, alegia, ekin eta ekin, askatasunaren eta justiziaren barruan aldakuntza lortu, hoik baitira, diogun berriro ere, zikindu ezineko balioak. Indarra eta koherentzia behar dira, batasuna ahaleginean eta argitasuna derrigor goragokoak, inoiz ere ez beharagokoak edo berdinak, izan behar duten helburu berrietan, zeren bestela egoera ezaguna luzatzea hobe bailitzateke, errazago izanez gainera, irabioaren gustua aurreztuko litzatekeelako. Aldakuntza inperatibo historikoa da, belaunkaldizkoa, kronologikoa, baita biologikoa ere. Itzurezina eta beharrezkoa. Baina zein aldakuntza? Nola? Non? Noiz? Sistema demokratikoaren barruan —gizonen goragoko nahia bideratzeko egokiena izaki—, Bolibarrengandik gora zihurtasun panoramiko eta osoz definiturik dauzkagun helburuetarantz jo behar da: gizarte berria, askea, zuzena, berdinkoia, batua, aurretatua.

DEMOKRAZIAREN BALIOA

Demokrazia —“adimenaren ariketa politikoa” Thomas Mannek deitu bezala— gaur ere giza pertsonaren errealizazio osoetarako metodurik egokiena da, Gure Amerikarik gehiengan, jeneralki, demokrazia ezezagunik ezezagunena da; jite horretako errejimenak indartuz, hobetuz eta finkatuz bakarrik menderatuko ditugu gaurko eragozpen izugarriak eta aurreramendurako igoeran benetan aireratu. Bolibarrek itzulunguru gabe esan zuen 1829n, eta obra honetan behin baino sarriago gogarazi dugu: “Amerikak bere pausak desibiltzen ez baditu, bere ezereztasunaz eta ezintasunaz etsitzen ez badu, ordenura eta arrazoiria deitzen ez bada, ezer guti espero daiteke haren gobernuen finkapenari buruz: eta kolonikuntza berri bat izango da geroari utziko diogun ondasuna” II-733. Gero berretsi zuen: “Geroak ez du inoiz ikusi Amerikak eskaintzen duen bezain koadru izugarriak, izugarriago geroarentzat orainarentzat baino” II-933. “Okerrena berriz —idazten zuen 1827n— nire kamustasunak ezin duela iruditu errepublikarik, gehiago diot, gobernu konstituzionalik mantentzeko gauza garenik. Historiak esango du” II-112.

Latinamerika mailan, demokrazia oker eta alderdikoi planteiatzen da gaur. Askotariko buruzagi frustratuak dedikatu dira demokrazia diseinatzen, berei komenien izango zaizkiela uste duten bide bihurrietatik igon nahirik. Bide hoiei berriak esaten diete baina sakonean autokrazia maxkalen betiko bidexkak baizik ez diren tran-

tzezko maskarekin. Erantzun aurrekoa eta argia eman beharra dago. Esaten denaz bestera, historia zintzo arakaturaz gero, lehena ez ezik oraina ere bai baita, hilik ez dagoen hilari requiem kantatzen hasi aurretik, seriozki eta ekinkorki saiatu behar genuke amerikar gizonaren antsiarik jatorrenak eta kutunenak haragitzen dituen sistema hori eraikitzen eta hobetzen.

Demokrazia —ekin beharra daukagu— herriaren errejimena da, askatasunarena, denentzat aukera berdintasunarena, txandagarritasunarena, legearena eta justiziarena. Greziaz dator, non landu baitzuten adimenaren lan bikain gisa. Erromar Zuzenbidea arrazoi idatzia bazen, grekoen teoria politikoa —zeinen barruan finkatzen baitzuten demokrazia— ihardun zibikoaren arazoia zen. Gaur mundurik gehiena, ia nazio guztiak, aho batez demokraziaren alde daude Giza Eskubideen Deklarazio Orokorren bidez, non gores-ten baita gobernakera guren horren goi goiko balioa.

Dudarik gabe demokraziak ahalegin gogorra eskatzen du. Bera da beste errejimen politikoaren gaineko instantzia. Ekinaren nekea, atsedean gabeko ernaitasuna, zintzotasunik eta leialtasunik handiena eskatzen du. Eskubideekin eta garantiekin ordaintzen du, eginbeharrekin kobratzen. Demokrazia mamia da, ez eskema magikoa, eta haren justifikapenaren titulurik sendoena efikazia da. Demokrazia oraingoa bezalako iragan haroko gizarte eta ekonomi inperatiboak betetzeko metodo bat da —oraindik ordezko onargarririk gabea—; elkarbizitza sozial eta politikorako ere molde baliaezina da. Hamarkada garrantzitsu honetan, sistema demokratikoaren helburua ez daiteke herri soberaniaren ihardun hutsa bakarrik izan, ez eta askatasun garantia ere, justiziaren eta berdintasunaren errealizazioa baizik, guzti hori demokraziaren kontra zertan egon ez duten estruktura modernoaren barruan, zeren, aitzitik hain zuzen, berak daraman askatasunaren barruan bakarrik hel baitaiteke estruktura hoiaren formulapenik egokienera. Errejimen demokratikoa da bere ontasun bereziaz gainera bere buruaren zuzengailuak bat batera produzitzen eta martxan jartzen dituen bakarra.

XXI garren mendea ia jotzen dauden urteetako Bolibarisismoa ez daiteke Askatzaileak duela mende eta erditik gora emaniko kontzeptuen errepika textuala izan. Bolibarrek ez zuen erligio bat sortu. Ez zuen orri aldaezinik ez dogmarik idatzi hitzez hitz debozio intrantsigentez eta fanatismo begilaburrez jarraitzeko. Denbo-

rak ez doaz alferrik aurrera. Helburu haik, muin muinez iraultzaille —gure funtsezko oinarrien transformazioaren arkitekto eta lan-gile— izan zenaren helburu iraultzaileak lortzeko prozedimenduak herri bakoitzak libre libreki hautatzekoak dira, formulak abagune bakoitzari dagozkio, medioak posibilitate bakoitzari. Ideologia haren mami funtsezkoak, bere amerikar herrien independentziaren eta batasunaren zerbitzuan, zutik dirau. Jar dezagun martxan haren soldaritatezko pentsakera, bizitzea gertatzen zaigun denbora gogor baina liluragarriera interpretatuz eta egokituz.

Ez dago dudarik askatasunaren kanpaina hilezinetatik gora gastatu den mende eta erdi hau zuzen probetxatu balitz, gaur beste egoera bat genukeela. Zein zorion mailan legoke gaur, potenzien artean, “koloso hura, zeinen handiera —zioen Bolibarrek— ez baitauka irudimenak izu gabe gogoratzerik eta zeinek, Homeroren Jupiterren antzera, lurra begirada batez dardara eraziko baitu?” “Nor jarkiko zaio Amerika bihotzez bilduari, lege bati makurtuari, eta askatasunaren zuziak gidatuari?” I-619. “Boterearen koloso hau (eta berea da erraldoitasunaren halegiari ekitea) ez dago osatzerik Hego Amerika guztiaren bilkuntzatik baizik, nazio gorputz beraren mende, gobernu zentral bakar batek bere baliakizun handiak helburu bakar batean erabil ditzan, alegia, kanpoko erasoei eutsi, eta era batera barruan guztien elkarlaguntza ugaritu; horrela iritsiko gara Boterearen eta oparotasunaren tontorrera”. Horra nola pentsatzen duen Bolibarrek Amerika hau, zeinen iraultza —haren us-tez—, ez guti ere, “Izadiaren itxaropena” baita, II-1195. Perspektiba bikain horretan jarririk, Bolibarrek Chimborazon —bere Colombia aintzatsuaren gailurrean— ikusten du “titanen eskala, lur-raren koroa, izadi berriaren almena menderaezina” I-881.

GEROAREN ZEINUAK

Gure Amerikak proiektzio jadanik konprometatua du, eta egin-kizun handi bat gaurko munduan, presentzia kategorikozko eta bere destinoaren leialtasunezko eginbeharrak. Hori hainbat obligarriago da beste kontinente batzuk ere beren jendeak egiazko gizonen kondizio bikainera jasotzeko burrukan dihardutenean, beste herri batzu ere injustizia deserrotzen, askatasuna ezartzen, demokrazia finkatzen, batasuna bultzatzen, kultur kreapena indartzen saiatzen direnean. Historiak ematen dizkigun erantzukizunetarako Simon Bolibarrek utziriko exenplua eta hitzak dauzkagu; haren hitz argitsu eta zabalean dago zer bide segitu. Haren textuetan, ondo esan zuen berak, haren “arima paperean idatzita dago” I-881, eta arima hauxe da hain zuzen guri itzultzea tokatzen zaigun letra inprimatutik gu gidatu behar gaituena.

Bolibarren egintza kritikagarrien eta eztabaidagarrien azalpena beren zirkunstantzia lazarriaren kontextuan dator. Hutsak, erroreak eta mugapenak ukan zituen —gizazkoa denez— eta gainera haren nahien frakasu erlatiboak ageriratzen duenez. Baina zerik garrantzitsuena da inoiz ez zela borondate deliberatuari dagozkion errakuntzetan erori. “Nire kontzientzian —zioen— ez da sekula huts bolondresik edo maleziarik izan, nahiz eta gaizki eta azertu gabe jokatu. Nire errugabetasunaren sinespena neure bihotzak ematen dit, eta testigantza horixe da nire benetakoena, eldarnio harroa badirudi ere” II-1070.

Haren gidari kalitateak historiaren abal osoa du. Gerorako haren aholkuak lehen mailakoak dira. Gure Amerika menderaezina izango da bere energiak barreiatzen ez direnean, eta bere indarrek ere elkar neutraltzen ez dutenean, eguneroko ekinerako beragatik entregatzen zen gidari nekagaitz eta eskuzabalaren irakatsia daukanean.

Askatzaileak ez du gorrotorik ez suntsipenik, odolik ez heriotzarik predikatzen. Harentzat gerrarik ez da erabili behar erabiltzea zuzena denen kontra baizik, tiranoen kontra. “Justiziaren, askatasunaren eta independentziaren arrazoi sakratuengatik bakarrik da noblea gerraren sakrifizioa egitea” II-1101. Ez zen Bolibar bortxakeria eroaren eta osoaren zale. Kausa iraultzaileak eskaturiko bortxa bakarrik erabili zuen. Eta alertatzen gaitu: bortxakeria bereizgabea edo oker orientatua gurea bezalako gizarte helgabeez hondagarri da. Geroago gogarazi bezala, ondo irakasten digu “jatorri desberdintasunak pulstu infinituki sendoa behar duela, ukimen infinituki xumea gizarte heterogeno hau maneiatzeko, zeinen artifizio nahasia alterapenik tikienean trokatzen, zatitzen, disolbatzen baita” II-1141.

Bolibarren handitasuna eta zihurtasuna gure mundu honen interprete eta zerbitzari izatean datza. Bolibar Amerika honen simboloa da, bere abotsa eta bere argia. Hura askatasunaren alde existentzia eman zutenen ordezt mintzo da, justiziagatiko burrukan etsi ez zuten heroien ordezt, sinetsi zutenarekin zintzoak izan ziren gizon guztien ordezt. Bolibarrenganaino datoz joankizunaren uholdeak eta beragan gelditzen dira, etorkizuna motoratuko duen energi iturri itzela bilakatzeko. Amerikaren alde lan eta burruka egin zuen inor ez dago harengandik kanpora. Harengan daude erresistentzia bertako eta afrikarraren eta hispaniar oilartasunaren beraren ere simboloak, feudalismo eta absolutismo zapaltzaileen kontra; harengan daude aitzindariak, hark burutuko zuen lanean aurreratuak; harengan daude askatzaile guztiak, gure hemisferioaren eraikitzaileak, haren handitasunaren lantzaileak, gaurkoaren eta biharkoaren harginak. Aberri orokor bateko aberkide dira denak, beren artean ahaidego mamia sortzen duen loturaren bitartez solidariak; lagunak dira denak, haren pentsakeraren arabera: “Adiskidetasuna da harmetako, lanetako eta eritzietako anaiei dagokien lokarri bakarra” I-654. Amerika mailan Askatzaileak dio: “Ene aberkide, ahaide

eta lagun en zerbizu guztien fruitua neuk bildu dut. Neuk erreprezentatu ditut gizonen aurrean; eta neuk erreprezentatuko ditut georoaren aurrean” I-1126.

“Zure etorkizuna, Bolibar, denborak dira” —kantatu du poetak—. Hark erantzuten du: “Ez da ezer eginik oraindik zer egin dagoen bitartean” I-1312. Herrien eta liderren zain daude haren bandera sutuak: soberania eta independentzia, ez isolamendu autarkikorako, ez inperialismo bat beste inperialismo bategatik trukatzeko, behar den finkapenerako baizik, hegemonia gabe, handik anaitasun ekinkor eta elkarren ongarria bultzatzeko. Batasuna, ez erasotzeko ez bereizteko; batasuna bakerako eta aurreramendurako. Demokrazia, ez bikaintasun teorikoen kontenplazioarako ez formalismo marroen jario ergelerako, ariketa politiko erektibo, aske eta goragorako baizik, Aurrerapena, ez barnelilura eta gozamen norberekoietarako, ez frustrapen ezkutua mendekatzeko, baztertuak duintzeko eta jasan ez daitezkeen eta behar ere ez diren bidegabekeria onartezinak zuzentzeko.

Bolibar benetako amerikar gizonaren agergailua da, odol eta kulturen mestizaia bizi eta anizkunaren produktua, gure Amerikaren arragoa. Munduko alderdi honetan jaiotako asmo historikorik sendoen eta osoenaren muin bizia da. Haren aintza zihurraren isurpenak adoreturik, geure buruak moralez, politikaz eta geografiaz hark nahi zuen bezala ikusi behar ditugu: “Gu Izadiaren erdigunean eta nazio guztiekin harremanean gaude; nork esan lezake hori?” I-708.

ARKIBIDE OROKORRA

Egilearen hitz batzu	9
Egileaz hitz bi	11
Sariketa baten zer-nola eta zergatiak	13
Liburu aipamen laburtuak	19
1. AHALEGINAREN INGURAMENA	21
<i>Urrunkidetasun geokulturala</i>	23
<i>Hiru presentzia</i>	26
<i>Lehen garaian</i>	29
<i>Definiziorantz</i>	32
<i>Kolonitasunaren heldutasuna</i>	34
<i>Dinastia eta gizartea</i>	38
<i>Ekonomia eta pentsamendua</i>	41
<i>Izpiritu bat ernetzen</i>	44
<i>Etengabeko erresistentzia</i>	48
<i>Ekintza dator</i>	54

2. NOLAKO ETA ZERTARAKO GIZONA	61
<i>Jatorria eta hasiera</i>	63
<i>Mundutik eta liburuetatik zehar</i>	67
<i>Nolako izakera zuen</i>	70
<i>Printzipio bihurtzezinak</i>	74
<i>Askatasuna eta aintza</i>	78
3. ZERBITZUAREN KRONIKA	85
<i>Erabakietarako</i>	87
<i>Caracas aurrez-aurre</i>	91
<i>Gerran gaude</i>	98
<i>Kontinenteko bidea</i>	108
4. PENTSAMENDU PROGRAMATIKOA	115
<i>Demokrazia eta soberania</i>	117
<i>Errealitate zaharra</i>	119
<i>Aldakuntza politikoa</i>	121
<i>Oinarri berriak: bozketa</i>	122
<i>Amerikarako demokrazia</i>	125
<i>Askatasunaren zentzuak</i>	129
<i>Jendearen eritziaren adi</i>	132
<i>Erak: zentralismoa</i>	134
<i>Botereak</i>	135
<i>Botere morala</i>	137
<i>Zirkunstantziako barianteak</i>	139
<i>Errejimen zibila</i>	144
<i>Aberria eta armonia</i>	145
<i>Nekazal justizia</i>	148
<i>Lehen gobernuen diskretasuna</i>	149
<i>Abiada geraezina</i>	150
<i>Iraultz arauak</i>	151

Nekazal legearen norainotasuna	153
Kontzeptuen berrikuspena	155
Arau berriak Cundinamarcan	157
Paezi mandatua	158
Hegoaldeko herrientzat justizia	159
Venezuelako atzerapena	160
Meatzen nazionalkuntza	161
Gai ekonomikoei arreta	162
<i>Amerikanismo gardena</i>	165
Venezuelaren irekitasuna	167
Amerikatasunaren kontzeptu argiak	168
Idea integratzailearen proiektio ofiziala	170
Bolibarren motiboak	171
Batasunaren oinarriak	173
Bolibarren ahaleginen errezkada	177
Oinarri juridikoak	180
Amerikak erantzun egiten du	182
Diplomazia zuzenbidean oinarritua	186
Oihartzunak nazioetan	189
Kongresu anfiktionikoa	192
Amerikar anaitasuna	194
Ateak zabalik	198
Ekumenikotasun eta erak	201
Batasuna beti	203
<i>Legeen legea</i>	205
Berdintasun hirrikak	206
Printzipioaren filosofia	210
Bertakoen alde	212
Jarraipena eta iraupena	213
Hitz ederreko pronuntziamentuak	217
Ekin eta ekin berdintasunari	218
Aurrerapena denboran	220
<i>Abalegin eta ariketa kulturala</i>	224
Hain ardura bizia eta indartsua	227
Askatasunerako oinarria	229

Hezlari ekintzailea	232
Estatuaren eginkizuna	236
Unibertsitatearen ardura	237
Pentsamenduaren artileria	241
Eritzi publikoa	242
Izana eta kultura	244
<i>Asmoen balantzea</i>	247
5. UKAPENEN DRAMA	249
<i>Elementu desantolatzaileak</i>	251
<i>Inboluzio politikoa</i>	255
Boterearen galera	257
Antidemokrazia	261
Gerra anaihiltzaileak	265
Saihespen federalista	268
<i>Ekonomian frakasua</i>	271
Txartelen okerra	272
Lurrak kaudilloentzat	275
Indioen kontrako engainua	276
Bolibar "subertsorea"	278
Lurfagia	281
Finantza espekulazioak	282
Entregismo lotsagarria	283
<i>Esklabismoaren jarraipena</i>	286
Angosturako luzapena	287
Cucutako maniobrak	288
Kontrairaultza martxan	289
Bolivian ere bai	291
Hura ez zen engainatzen	292
Atzerakada garbia	295

<i>Amerikaren zatiketa</i>	300
Kaudilloak ekinan	301
Colombiaren azkena	303
Hispanoamerikanismoa bikutara	306
Alderdi guztietatik erasoak	315
Monroeren eskapua	317
Panamako fantasia	319
Banaketa nagusia	323

<i>Atzerakuntza eta ustelmena</i>	327
Kaudilloen antikultra	330
Sentimendu ziztrinak	332
Delituaren bertsioak	333
Beste Bolibar bat	337

6. BIGENTZIA ETA PROIEKZIOAK 341

<i>Kontzeptuen beharrezko argitasuna</i>	343
<i>Bulegotik bilkundera</i>	347
<i>Inperatiboak</i>	350
<i>Erabil daitezken tresnak</i>	353
<i>Aurreramendurako prinzipioak</i>	355
<i>Demokraziaren balioa</i>	358
<i>Geroaren zeinuak</i>	361